

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charritton*. Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande*. Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*. Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*. Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Biziazen Hiztegia. 2009
8. *Gorka Aulestia*. Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*. Zuberoko literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza* Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*. Jesü Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia*. Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile*. Xiberoko antzertia edo pastorala. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant*. Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet*. Amodiaren Martirra. 2013
22. *Jean-Baptiste Coyos*. Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. 2013
23. *Pierre Charritton*. Le fondement moral des droits culturels de l'homme. (kultura eskubideen oinarri etikoak). 2013
24. *Pierre Dourisbourg*. Bahnar deitu salbaiak. 2014
25. *Mongongo Dassanza*. Albaitaritzako idazlanak (1692-1892). 2014
26. *Ignazio Omaetxebarria*. Euskara barrutik. Estudios de lingüística vasca. 2016
27. *Resurreccion Maria Azkue*. Ardi galdua. 2018
28. *Jakes Sarraüllet*. Janpierra Lexardoarteren bizitzea edo Basabürüaren trajeria. 2018
29. *José Agerre Santesteban*. Biografía de Arturo Campión. 2019
30. *Adrien Gachitoguy*. Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko. 2019
31. *Joakin Bermingham*. Joakin Berminghamen solasak 2020
32. *Emil Larre*. Emil Larre 1926-2015. Lekukotasun, kantu eta idazki. 2020
33. *Jean-Louis Davant*. Ozaze Jaurgainean. 2020
34. *Jon Casenave*. Euskal literaturaren historiaren historia Gurea nola konda? 2020
35. *Jean Elizalde Zerbitzari*. Zerbitzariren idazlan hautatuak

EUSKALTZAINAK izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

Laguntzailea



EUSKALTZAINDIA

35

ZERBITZARIREN IDAZLAN HAUTATUAK

JABIER KALTZAKORTA

ZERBITZARIREN IDAZLAN HAUTATUAK

Paratzailea

JABIER KALTZAKORTA



JABIER KALTZAKORTA ELORTZA (1961-) Filosofia eta Letretan doktorea. 2015eko abenduaren 21ean *Euskal baladak: azterketa eta edizio kritikoa tesia* Deustuko Unibertsitatean defendatu zuen.

Deustuko Unibertsitatean irakasle 1992 urteko ikasturtetik aurrera, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean, Euskal Filologia graduan, gai hauetan aritu da batez ere: ahozko literaturan eta XVI-XIX mendeetako euskal literaturan. Euskaltzain urgazlea 1996ko abenduan izendatu zuten. Euskaltzain osoa 2013an uztailaren 19an izendatu zuten eta sarrera-hitzaldia, Markinan, 2014ko azaroaren 28an irakurri zuen. Sarrera-hitzaldiaren izenburua: "Ahozko literatura hizpide: Humboldt bidaia Euskal Herrian barrena". 2008 urtarritetik aurrera *Auspua* liburutegiko aleen apailatzaile eta argitaratzaile Pello Esnal eta Joxemari Iriondorekin batera.

Zenbait libururen egilea da: *Lamia, Sorgin eta Tartaroen erresuma ezkutua*. Bilbao: Labayru ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa. 1997; *Dantza-kopla zabarrak*. Bilbao: Laratz Ahozko literaturaren bilduma-6. Labayru ikastegia-Bilbao Bizkaia kutxa. 2007; *Arratiako dantza-koplak*, Labayru Fundazioa, 2017; *Euskal baladak/ Baladas vascas (antologia)*, Colección Gerión poesia, 2017; *Euskal baladak: azterketa eta edizio kritikoa I eta II*, Labayru fundazioa/ Bilbao Bizkaia kutxa fundazioa, 2017. Argitaratu dituen artikulu gehienak ahozko literaturaren gainekoak dira.



EUSKALTZAINDIA

35 EUSKALTZAINAK BILDUMA

ZERBITZARIREN IDAZLAN HAUTATUAK

Argitalpen honen fitxa katalogifikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Hitzaurrea atalaren hizkuntza-orrasketa:

Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA).

© Jabier Kaltzakorta

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoeekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berai transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.

Maketazioa eta inprimatzea: Tecnigraf, S.A.L.

ISBN: 978-84-124296-8-8

Lege-gordailua: BI 00578-2022

ZERBITZARIREN IDAZLAN
HAUTATUAK

Paratzailea: Jabier Kaltzakorta

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2021

AURKIBIDEA

Hitzaurrea: <i>Jabier Kaltzakorta</i>	1
1. Jean Elissalde: bizia eta euskal lanak	1
2. Jean Elissalderen lanen balio literarioa	4
3. Jean Elissalderen itxura eta ideologia	6
4. Jean Elissalderen euskara	7
5. Izengoiti arazoak eta idazlan galduak	8
6. Jean Elissalde 1930ean Euskaltzaindian sartzen da	10
7. Gerra handiko euskal kronikariak	21
8. <i>Metsikorat</i> bidaia kontakizuna	32
9. Etienne Pellot itsasturiaren menturak euskaraz	50
10. Jean Elissalderen erlijio-lanak eta Théophile Vénard ...	55
11. <i>San Frantses Xabier</i> lanaren gainean	59
12. Euskal pilota eta pilotarien gainean hitz bat	60
13. Bost artikulua eta zortzi ipuin	64
14. Edizio honetako irizpideak eta aldaketak	66
Gerrako kronikak	87
1914-10-16	87
1914-11-06	88
1914-12-04	91
1915-01-01	93
1915-01-15	95
1915-01-29	96
1915-03-19	97
1915-03-26	99
1915-04-02	100
1915-05-21	102
1915-06-4	104
1915-09-17	105
1915-11-12	107
1915-11-19	110

1915-12-3	113
1915-12-17	115
1915-12-24	119
1915-12-31	122
1916-01-7	125
1916-01-21	128
1916-02-04	131
1916-02-11	134
1916-03-10	137
1916-03-17	139
1916-03-31	141
1916-04-14	144
1916-04-28	146
1916-06-02	148
1916-06-09	150
1916-06-23	153
1916-07-07	157
1916-07-14	160
1916-07-21	163
1916-07-28	166
1916-08-04	169
1916-08-18	171
1916-09-01	174
1916-09-08	178
1916-09-29	182
1916-10-06	184
1916-10-20	187
1916-11-3	189
1916-11-24	191
1916-12-15	193
1916-12-29	195
1917-01-12	197
1917-01-19	200

1917-02-02	202
1917-02-16	205
1917-02-23	208
1917-03-23	210
1917-04-06	212
1917-05-11	214
1917-06-01	216
1917-07-06	219
1917-07-27	221
1917-09-07	224
1917-10-12	227
1917-10-19	230
1917-11-02	233
1917-11-23	237
1917-12-07	240
1918-01-04	243
1918-01-18	245
1918-02-01	247
1918-03-01	249
1918-04-12	250
1918-04-19	252
1918-05-10	254
1918-07-12	256
1918-07-19	258
1918-07-26	260
1918-08-9	261
1918-08-16	263
1918-09-27	266
1918-10-18	267
1918-11-15	269
1918-11-22	271
1919-02-28	272
1919-04-11	274
1919-04-18	276

1919-04-25	278
1919-05-16	281
1919-05-23	284
Berrogoita Hamazazpigarrena gerlan	287
I. Lehen egunak, lehen guduak	288
II. Bertze gudu ikharagarri batzu	291
III. Bizi berri bat	295
IV. Verduneko ifernua	298
V. Argonan lau ilhabetez, eta handik lekora	302
VI. Bide-lanetan eta... ostatuan	305
VII. Maiatzaren bortza eta seia	309
VIII. Ballersdorff eta Champagne	313
IX. Noyon eta Mont-Renaud	316
X. Aphirilaren hamalaua eta ondoko egunak	323
XI. Mont-Lavé eta Saconin	327
XII. Berritz Argonan eta alemanen ondotik	331
XIII. Azken guduak: azken egunak	335
Théophile Vénard dohatsua	339
San Frantses Xabier	365
I. Sainduaren arbaso eta burhasoak. Sortzea— haurtasuna —gero	365
II. Parisen	369
III. Bidean. —Italian—Lehen Meza	374
IV. Italiatik Portugalerat. Egiari bere bidea	378
V. Untzian.—Mozambikan.—Goako Hirian	381
VI. Palabarrekin.—Trabankoren	385
VII. Meliaporren	389
VIII. Lehenik Malakan. Urrunago gero	392
IX. Han eta hemen, Japoniarat joan aintzinean	396
X. Japoniako lehen lanak	400
XI. Japonian oraino	403
XII. Azken egunak	407
XIII. Mirakuilu batzu	411

Metsikorat	415
Erromarat	445
Abiatzea	445
Lurderat buruz	445
Ezagutzak	447
Chokoz choko	448
Nicetik aintzina	450
Muga	450
Bigarren gauari buruz	451
Pise	452
Sienne	453
Elhe baliosak	453
Erroman sartzea	454
Lehen eguna	454
Iñaki	455
Ithurria	456
Aita Saindua leihoan	456
Pantheon	457
Parabisua	457
Hau Eliza	458
Aratsean	459
Edergailu eta liburu ikuska	459
Basa-abereak	460
Napoli	461
Meza bat choragarria	462
Elizen Ama	463
Santa Elena	464
Jondoni Laurendi	464
Katakombak	465
Zamarra eta bertze	467
Colisée	468
Aita Saindua	469
Asiserat	471

Bihotz ona	471
Paulino	472
Zuhaitz eta bertze	473
Santa Klara	473
Firentzan	474
Nor gure alde	475
Etcherat	476
Erromako beilarieri... ..	477
Etienne Pellot	481
Oraiko Pilotariak	501
Vitoriano Embil	501
Enrique Embil	503
Chilar	506
Sarako Chantrea	513
Porteño	517
Larralde	521
Darraidou	526
Léon Dongaitz	531
Soudre-Vasquito	534
Piztia	537
Errezabal	540
Cantabria	542
Chiki	544
Pouchant	546
Pilota Azkainen	549
Pilota Uztaritzen	555
Edouard Arrayet	560
Pilota eta pilotariak	561
Bost artikulu	567
1. Axular	567
2. Orhoitzapen batzu	573
3. Etchepare Jaun Mirikuaren ohoretan	576

4. Euskaltzaindia	581
5. Alemanak	585
Bederatzi ipuin	589
1. Mandozainaren ichtoria	589
2. Juan Soldadoren ichtoria	594
3. Erran zahar bat	599
4. Ganich artzaina	601
5. Micheria	611
6. Ondicola eta Lutchoki	614
7. Harrichabalen bezala, Bethi	618
8. Harrichabaleko hilherrietan	623
9. Azkainen	629

HITZAURREA

Jabier Kaltzakorta

1. Jean Elissalde: bizia eta euskal lanak

Jean Elissalde Azkainen, Lapurdin, jaio zen 1883. urtean. Mende hasieran, 1909an, apeztu zen. 14ko Gerra Handian *Eskualduna* astekarian idatzi zituen gerrako kronikak. Jean Etxepare, Saint-Pierre eta Elissalde ditugu gerra krudel hartako berriak eman zituzten hiru euskal idazle zoragarri. Gerrako kroniketan hamar hilabete iraun zuen Verdungo bataila luze eta odol giroko kronikak ere badira, Etchegoin senpenteraren balentriak eta guzti.

Gure Herria aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen, 1921ean. Azkaine bere sorterria gai harturik hainbat idazlan egin eta argitara eman zituen *Gure Herria* aldizkarian. Lan hauetako gehienak *Azkaine gure sorterria* liburuan eman zituen berriro argitara Piarres Xarritonek (1985). *Eskualduna* astekarian idazten hasi zen Elissalde, eta, gerora, batez ere *Gure Herria* aldizkarian ikusi zuten argia haren lan barreiatu gehienek. *Gure Herria* aldizkariko bi lan gailentzekotan, “Artho-xuritzetan” izenburupean bildu zituen ipuin labur eta izkirimiriak aipatuko nituzke, eta “Metsikorat” bidaia-kronika. Gure idazlea izengoiti askoren azpian ezkutatu zen: “Zerbitzari”, “Azkaindarrak”, “Bilharia”. Izengoiti guztien artean, ordea, zaharrena eta ezagunena “Zerbitzari” dugu.

Irakurri ditugun haren liburu eredugarrien artean, hona zenbait: *Ama Maria Passionekoa* (Bayonne: La Presse, 1930), *Ichtorio Saindua. Testament Zabarra. Jesu. Christo. Eliza* (Lille, 1943) eta *Bahnar deithu Salbaiak. J. Elissaldek eskuararatua* (Bayonne, 1936).

Euskaltzain izendatu zuteneko sarrera-hitzaldia 1931. urteko *Euskera* agerkarian dago argitaraturik (Elissalde 1930). Elissalderen sarrera-hitzaldia ahozko euskarara zuen atxikimenduaren adierazpen ageria da eta nornahiri gomendatuko genioke irakurtzea. Garai bateko euskaltzaletasunaren mirail garbia ere bada, nola ez. Azkue baten antzo maite zuen base-rritarrekin hitz egitea eta euskara ezpainetatik hara biltzea, bere bizitasunik handiengan. Hona, gure esanaren lekukotzat, pasarte bat (Elissalde 1931):

Egundainoko errana da. Eta huna molde hori: behinere ez gaiten etxetik athera paper xuri muthur bat gabe eta bi soseko lapitz batekin baizik. Alabainan ez da den gutieneko dudarik nun-nahi zerbeit kausituko dugula, kausi dezakegula bederen, eskuarazko izena ez dakiogunik.

Bada, holako zerbeit ikusten dugularik, jo dezagun lasterka lehen atxo zaharraren ganat eta othoizka galde dezogun: Amatto, zer erraten duzu huni? Amatto, zer erraten duzu horri? Eta amattok erran izena lapitzaz ezar berehala paper muthurrean... eta paper muthur hori hel guzietarat heda dezaken norbeiti. Herri guzietan, Jainkoari esker, norbeit atxeman ditake oraino Eskuararen alde zerbeit egin nahi duenik!

Sentsibilitate horren adibide dira 1931tik 1935era argitaratu zituen “Euskal Herriko landareak” lan bikaina edo L. Dassancerekin batera lehenago, 1923tik 1926ra bitartean, idatzi zuen “Eskual herriko hegaztinak eta choriak” lan eredugarria. Izkribuz ari zenean ere, ezagutu zuen euskara bizi-bizia hartu zuen eredu nagusitzat. Biltzaille bezala norbait akatsen bat edo beste egotz liezaioke. Elissaldek bildu eta argitara zituen esaera zaharrak, bere betean, herri-herrikoak ote dira? Esaera zaharrak ez ote daude apurren bat itxuraldatuak? Ez ote da Oihenarten eskolakoa? Oihenarten esaera zaharretako askok ez baitirudite garai bateko euskaldunen ezpainetatik transkribatuak, birmoldatuak edo apurren bat ukituak baino...

Elissalde prosistari, ordea, ez diogu akatsik aurkitzen. Iparraldean loratu zen garai bateko urrezko aro ttipi baten ordezkari aparta dugu. Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) ondoko idazle andanan, aurreneko lerroan dago Elissalde. Idazle horietako gehienak XIX. mende bukaera aldera jaio ziren eta *Eskualduna* astekarian hasi ziren idazten, eta, gerora,

Gure Herria aldizkarian. *Gure Herria* aldizkariaren sortzaile-taldekoa da, beraz, gorago esan dugunez, gure Jean Elissalde 1921. urtean, Gerla Handia bukatu ondoren. Jean Elissalderen garaikideak dira Jules Moulier “Oxobi” (1888-1958), Jean Saint-Pierre (1884-1951); eta apur bat geroagoak, Léon Léon (1896-1962), Dominique Soubelet (1897-1970), Pierre Lafitte (1901-1985) eta Pierre Narbaitz (1910-1984)⁽¹⁾ (Villasante 1979: 308). Jean Elissalde, gure kultura-gizonen erreferentzia bat ematera, on Jose Migel Barandiaranen garaikidea zela esango genuke⁽²⁾ (Barandiaran 2009).

Pilotazale handia eta are pilotaria ere izan zen; ibai eta errekaetoetako arrantzaria eta onddoketaria ere bai. Ibaietako arrantzaria Pierre Ibarrrarten “Mixelengo zubia” kantuko apaiza bezala, eta adiskide zuen Oxobi idazlea bezala. Baina batez ere prosista handia, herri-euskara bere testuetan txertatzen zuen estilista handia. Emile Larrek aitortu zidanez, bere belaunaldiko euskaltzaleek maisutzat hartu zituzten Jean Elissalde eta honen belaunaldiko hainbat idazle. Aitortza honen lekuko eta Elissalderen izaera eta nortasunaren gainean Roger Idiart herrikideak lan polit bat idatzi zuen haren jaiotza mendeurrenean (1984: 203-207).

Zilegi bekit bukatzeko neure uste bat aitortzea. Jean Elissalde azkaindarra eta Franz Kafka pragatarra urte berean ez ezik, ia udako hilabete berean ere jaio ziren: hau uztailean eta hura abuztuan. Batak bestearekin ez dute, jakina, inolako ikuskizunik, baina bi-biek bizi zituzten neurri batean Europako lehen gerra krudela eta haren ondorioak. Bi-biek, bestalde, estilo aratz eta ederrekoak dira, eta, bi-biak arras maite ditut.

(1) Zerrenda, jakina, luzeagoa da. Hona hemen nola dioen Luis Villasantek bere *Historia de la literatura vasca* liburuan, 308. orrialdean: “En 1921 se juntaron un grupo de jóvenes deseosos de hacer algo más en pro del vascuence. Entre los reunidos estaban los siguientes sacerdotes: Saint-Pierre, Blazy, Barbier, Apeztegui, Elissalde y nuestro Moulier; y los paisanos Dassance, hermanos Dufau, Choribit, los dos Souberbielle, Garmendia, etc. De aquellos contactos salió la creación de la revista *Gure Herria*.”

(2) Erreferentzia hau ez da alferrikakoa, gure ustez. Berriki argitara eman diren on Jose Miguel Barandiaranen egunerokoetan, Saran deserriraturik zegoela idatzitako egunkarian, hainbat aldiz agertzen da Jean Elissalderen izena.

2. Jean Elissalderen lanen balio literarioa

Gramatiketik hizkuntza baten errealitatea deskribatzen duten bezala, literatura manualetan hizkuntza bateko autore eta lanen —sorkari literarioen— balioaren berri ematen dute. Literatura manualetan, era berean, ezjakinean edo jakinaren gainean, kanon bat ere ezarri ohi dute. Errealitateak, zein hizkuntzarenak zein hizkuntza bateko literaturarenak, ordea, gaintitu ohi ditu ehun biderretik ehunean manualetako ikuspegia.

Uste dugu gure literatura manualetan ez zaiela behar bezalako tokirik eskaini Jean Elissalderen prosa-lanei. Diogunaren sendogarri eta erakusgarri puntu honetara zenbait aipamen ekarriko ditugu. Piarres Lartzabalek Euskaltzaindiko bere sarreraren hauxe zioen (Larzábal 1963: 330):

Ene iduriko, lan oberena egin du, ez bere baitarik pentsatzaile eta sortaraztaile bezala, bainan besteen itzultzaile eta xoko-mokoen miatzaile bezala.

Uste dut Zerbitzariren teatro lan edo antzerkiak eta aren pertsuak ez dirala ain egokiak, nola baitira aren kondaira laburrak... Auk ditu bere orhoitzapenak, edo bazterretik ikasiak edo erdaratik artuak.

Zerbitzarik maite zuen pertsua, bai eta pertsu-ditxoka artea. Bainan pertsulari bada, ez da olerkari. Pertsuen zango eta lerro-buruak zuzen dabilzka, bainan aren ateraldiek ez dute zimenduz pertsulari direnen mamia, bortitza, pin-darra eta grazia.

Piarres Lartzabalen iritzi hau ondo neurtu eta emana da. Jean Elissaldek duen hoberena ‘kondaira laburretan’ emana da. Hona literatura-manualetako zenbait iritzi. Luis Villasantek bere *Historia de la literatura vasca* lanean, modu lauso batean, Piarres Lartzabalek Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldian dioena errepikatzen du (Villasante 1979: 422):

(Zenbait lan aipatu ondoren) También tiene piezas teatrales y poesías, pero a juicio de Larzábal lo más valioso de él son las traducciones y los trabajos de recogida o investigación.

Luis Mitxelenak *Historia de la literatura vasca* liburuan (Villasantek baino gehiago goratzen du gure idazle lapurtarra. Hona Mitxelenaren hitzak, XX. mendeko Iparraldeko idazleei buruz (Mitxelena 1960: 154):

De los vasco-franceses, en la seguridad de incurrir en injustas omisiones, mencionaremos al abate Apésteguy, a Jean Elissalde (“Zerbitzari”), escritor fecundo y castizo, a monseñor Saint-Pierre, al vicario general de la diócesis de Bayona Narbaitz (*Kattalinen gogoetak*, 1955, con el pseudónimo de P. Arradoy), a Etienne Salaberry y al polígrafo Pierre Lafitte que aparte de muchos otros libros y artículos se ha distinguido como divulgador celoso y afortunado de la literatura vasca.

Mitxelenak aipatzen dituen Iparraldeko idazle hauek guztiak ez daude maila berean, inondik inora ere. Etienne Salaberry, kasurako, maila askoz beheragokoa da Jean Elissalde baino; bestela esan, euskal lanen kopuru zein kalitatean askoz beherago dago E. Salaberry.

Uste dugu Jean Elissalde prosazko testu laburretan —nahiz bere baitarik sortutakoetan— eta itzulpenetan punta-puntakoa dela. Bere baitarik sortutakoetan adibide bi emango ditugu. Bata 1914-1918ko Gerla Handiaz duen testua oso ederra da, bestea, ‘Metsikorat’ zein “Erromar-rat” bidaia-kontakizunak ere lan bikainak dira. Nonbaitetik egindako itzulpen, edo hobeki esateko, moldaketetan, maila ezin bikainagoa ematen du. Uste dugu kondaira labur horiek, ordea, kasurik gehienetan, ez dituztela manualen egile askok ezagutu. ‘Etienne Pelot’, ‘Theophane Venard’ zein ‘San Frantses Xabier’ atalka *Eskualduna* edo *Herria* astekarian atera direnez gero, ez dira guztiz ezagunak izan.

Irakurri ditugun Elissalderen obraren gaineko aipamen guztien artean ongien epaitu duena Labeguerie jauna da (Labeguerie 1961: 120-121):

Orok badakite ez zela bertsulari-biltzar bat gertatuko, Zerbitzari han kausitu gabe. Eskual-Herriko xoko-moko guziak ezagutzen zituen, denetan ibilia baitzen. Arraintzak ere ez zuen harentzat segeturirik, Eskual-Herriko latse eta ur-xirripa guziak bazazkien.

Bainan jakin du ere noizbait bere buregoan egoiten, eta luma eskuan iragan dituen orenak, ikusi dituzken pilota partidak eta bildu dituzken amorroin guziak baino miletan eta miletan gehiago dira, duda izpirik gabe! Bere Jainkoa salbu, Eskuara baitzuen maite ororen-gainetik, eta gauza bat baizik nahi nuke hemen erran: izan dela langile bat, eta idazlari bat paregabea.

Hitz gutxitan egiten du Labeguerie jaunak gure Elissalderen argazki zehatza. Zerbait azpimarratzekotan pasarte honetako azken hitzak dira zuzenena: “izan da langile bat eta idazle bat paregabea”

3. Jean Elissalderen itxura eta ideologia

Ez dugu Jean Elissalderen argazki askorik aurkitu. 1956an, Erromara bidaia egin zuenean, *Herria* astekarian azken kronikan Elissalde zerbait beilari-lagunekin ikusten dugu. Luis Villasantek bere *Historia de la literatura vasca* lanean, hitz gutxitan, pintatzaile batek pintzelkada bitan bezala, Azkaineko gure idazlearen itxura argia ematen digu (Villasante 1961: 422):

El verano de 1957 tuve ocasión de visitar a Elissalde en el pueblo de Gréciette, donde era párroco. Enjuto de carnes, puro nervio, pelotari, hombre chapado a la antigua, entero y de una pieza.

Luis Villasantek esaldi bitan 1957an —1956an “Erromarat” bidaia egin eta hurrengo urtean— ezagutu zuen Jean Elissalderen itxura ematen digu. Jean Elissalde ordurako 71 urteko apez adindua zen, gizon argal, gihartsu eta zainarta. Pentsaera zaharrekoa ere zela garbiro adierazten du, ahoan bilorik gabe. Iparraldeko hainbat apez pilotari bezalaxe, Elissalde pilotaria izana zen eta gerora gazteen pilota-maisu. 1914-1918ko *Eskualduna* agerkariko Gerla Handiko korrespontsala, ibaietako kanabera-arrantzale, pentsaeraz “chapado a la antigua” esapideak asko esaten du. “Metsikorat” zein “Azkaine: gure sorterria” lanetako pasarte zenbaitek haren pentsaeraren ixpi argigarriak eskaintzen dituzte. 1914-1918ko Gerra Handian Iparraldeko 6000 gazte hil ziren. Elissaldek, *Eskualduna* agerkarian idatzi zuten idazle askoren gisa, Frantziaren aldeko ideologia ez zuen ezkututzen (Aldekoa 2008: 111).

4. Jean Elissalderen euskara

Jean Elissalde Azkaine bere sorterriko eta inguruetakoko euskararen biltzailea eta erabiltzailea izan zen. XX. mende-hasieran Azkaine eta inguruetan aho-mihiz egiten zen euskara izan zen haren hizkuntza-literarioaren eredu edo ispilu nagusia. Ez zuen, beraz, XVII. mendeko lapurtar klasikoen euskara hartu idazteko eredutzat —neurri batean zaharkitua ere ikusten zuena, uste dugunez—, berak bertatik bertara ezagutzen zuen ahozko euskara bizia baizik. Jean Elissaldek ezagutzen zuen euskara bizi hura ahalik eta modurik aberatsenean eman nahi izan zuen. Hona Elissalderen jokabidea bere ahoz emana, Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldian (Elissalde 1931: 71):

Egundainoko errana da. Eta huna molde hori: behinere ez gaiten etxetik atera paper xuri muthur bat gabe eta bi soseko lapitz batekin baizik. Alabainan ez da den gutieneko dudarik nun-nahi zerbeit kausituko dugula, kausi deza-kegula bederen, euskarazko izena ez dakiogunik.

Bada, holako zerbeit ikusten dugularik, jo dezagun lasterka lehen atxo xaharraren ganat eta othoizka galde dezogun: Amatto, zer erraten duzu huni? Amatto, zer erraten duzu horri? Eta amattok erran izena lapitzaz ezar berehala paper muthurrean... eta paper muthur hori hel guzietarat heda dezaken norbeiti. Herri guzietan, Jainkoari esker, norbeit atxeman ditake oraino Eskuaren alde zerbeit egin duenik!

Jean Elissaldek guraso biak zituen Azkainekoak eta bera ere, jakina, Azkainekoa sentitzen zen. Azkaine herriko zertzelada eta zehaztasunez Jean Elissalderen bi eskuizkribu gordetzen dira. *Saltsa-Maltsa* izenburua duten bi eskuizkribu hauetakoa atalak *Gure Herria* astekarian argitaratu ziren. Pierres Xarritonek atal hauek bateraturik, 1985. urtean, *Azkaine gure sorterria* liburua argitaratu zuen (Xarritton 1985).

Azkaine herria Xareta eskualdetik hurbil dago. Xareta eskualdeak mugalde bakoitzean bi herri hartzen ditu: Iparraldean Ainhoa eta Sara, Hegoaldean Zugarramurdi eta Urdazubi. Inguru hau Euskal Herriko bihotza denik ezin uka, idazle handiak eman dituen ingurua.

Esan beharrik ez dago Jean Elissalderen euskara-eredua guztiz ederra eta aberastasun handikoa dela. Baina euskara bera ederra bada ere, kontatzeko era egiten zaigu batez ere miragarri.

5. Izengoiti arazoak eta idazlan galduak

Jean Elissalderen idazlan gehienak ez daude berak argitara eman zituen liburuetan, bere garaiko aldizkarietan barreiatuak baizik. Zenbait idazlan Jean Elissalde bere izen-deiturekin argitaraturik bazituen ere, gehienak izengoitiz egin zituen. Izengoitirik ezagunena “Zerbitzari” dugu. Izengoiti horren istorioia berak kontatu zuen “Azkaindar idazle zenbait” lanean (Elissalde 1955: 142):

Jean Elissalde azkaindar aphez chaharrari nundik ethorria othe zaio Zerbitzariren izen hori? Huna. Mila bederatzi ehun eta hamalauko gerlan, behin Hiriart-Urruty jaun kalonjeari eskutitz bat igorri zion, adichkide gisa, gerlako berriekin eta bere eskutitza bururatu, eskutitz guziak egiten diren bezala “Zure zerbitzari, J. E.”. Hiriart-Urruty jaun kalonjeari iduriturik berri horiek atsegin eginen zutela *Eskualduna* orduko asterokoaren irakurtzaileeri, ondoko astean ager-arazi zituen, Zerbitzari doi-doia izentzat utzirik⁽³⁾.

Jean Elissaldek aipatzen duen Hamalauko Gerrako artikulu hori, “Zerbitzari” izenpareekin agertu zena, bidali zuen lehen gerra-kronika da, 1914-10-16koa. Kronika horretatik aurrerako guztiak ere era berean izenpeturik argitaratu zituen *Eskualduna* astekarian. “Zerbitzari” esku-

⁽³⁾ Pasarte hau berau beste era batera idatzirik aurkitzen dugu Saltsa-Maltsa eskuizkribuan: Esteban Lapeyre jaun kalonjeaz erran behar zen guzia erran ondoan, tipienetik jauts gaiten aldeko etcherat. Malobaita du etche horrek izena. Bada, Malobaitakoa da Zerbitzari. Orok herrian eta herritik kampo badakite nor den Zerbitzari. Hamalauko gerla handi hartan, behin “Eskualduna” asterokoaren Hiriart-Urruty jaun buruzagiari eskutitz bat igorri zion gerlako berriekin, eta bere eskutitza bururatu zuen eskutitz guziak egiten diren bezala: Zure zerbitzari, J. E. Bada, Hiriart-Urruty jaunari iduritu zitzaion berri horiek atsegin eginen zutela Eskualdun guzieren eta asterokoan agertu zituen, “J. E” khendurik eta “Zure Zerbitzari” utzirik. Ondoko aldi batez etzuen “Zerbitzari” baizik atchiki. Eta horra izen horren ichtorio guzia”.

titzetako kortesiazko formula bateko hitza izengoiti bihurturik ezaguna egin zen, beraz, euskaldun irakurleen artean. Bada, bestalde, bateratasun harrigarri bat: Zerbitzarik “suzko bataioa” eta “tintazko bataioa” batera ukan zituen. Bestela esan, 14ko Gerra Handia hasi zenean, 31 urte zituela, gerra tokian hasi zen batez ere idazten molde jarraiki batean. Hona beraren hitzak (Saltsa-Maltsa eskuizkribua):

Zerbitzarik (1914-10-16 dataz ari da) ez bazuen ordu arte han-hemenka eskual lan ttipi eta ezdeus batzu baizik eginik, geroztik ez du denbora galdu.

Denbora galdu ez duela adierazten badu, asko idatzi zuela esateko modu bat da. Asko idazten duela adierazteko *Eskualduna* astekariko buruzagi zen Jean Hiriart-Urruty *Aitzina* aldizkarian idatzitako hitzak bere “Azkaindar zenbait idazle” lanera dakartza.

Elissalderengan konturik harrigarrienetako bat aldizkarietako artikulua argitaratzeko erabili zituen izenpeena da. Zerbitzari izengoitiaz gainera beste zenbait ere erabili zituen. Hona aipatu artikulua berean datozen hitz argigarriak (Elissalde 1955: 143):

Egiari bere bidea haatik: lan horiek, eta aipatzen ez ditugun bertze frango ez dire oro eta beti **Zerbitzariren** izenarekin agertu: **Zerbitzarik** aski maite zuen izenaren berritzea eta zenbat *Lurtchuri*, *Azkaindarra*, *Bilbaria*, *Haur Prodigoa* eta *Nornabi* ez du asmatu. Jainkoak eta irakurtzailek barka dezotela...

Izengoiti asko erabiltzeak azkaindar idazlearen lanak biltzeko lana era negargarrian zailtzen du. “Azkaindarra” izengoitia maiz erabiltzen du, “Lurtchuri” *Gure Herria* aldizkariko bederatzia ipuinetan, “Haur Prodigoa” gutxitan. Badira kontu harrigarriak ere. *Eskualduna* astekarian idazten dituen gerra-kronika guztiak “Zerbitzari” izenpea daramate, eta bat edo bestek ez daramate inolako izenperik. Astekari berean bertsoak argitaratzen dituenean, ordea, “Azkaindarra” izenpea darabil. 1916-01-24 eguneko alean, “Ziberotarrari” eta 1916-07-28 “Oraino gorago” olerkien autoreak “Azkaindarra” da. Hauetaz guztiez gainera, izendatzen ez dituen hainbat izengoiti ere erabiltzen ditu, denen artean ezagunena “Pilotazalea” da. Izengoitiak, inolako dudarik gabe, behaztopa-harri

handiak dira Elissalderen obra bildu eta aztertu nahi duen ikertzailearentzat.

Herria astekariko (1947-6-12) artikulu batek izenburu deigarri bat du: “Jean-Pierre Irachet, eta Jean Elissalde kazeta huntako lagun jarraikienetarik biga chapeldun, zoin bere sailean”. Izenburuak kondaira sari-keta batean Jean-Pierre Irachet zein Jean Elissalde irabazle izan direla argiki dio. Artikulu barruan ondoko zehaztasun hau ematen da (*Herria* 1947):

“Sud-Ouest” Bordaleko kazetak primak ezarri ditu zoinek eskuarazko kondairarik pollitena egin. /Berrogoi-ta hamar bat lan igorri dituzte alde guzietarik. Hainitz baziren arras pollitak, eta jujek lanak ukan omen dituzte berechten./ Juje ez zuten nor nahi eman: Louis Dassance, eskualzaleen buruzagia; Eyheramendy aphez famatua; Jean Amespil hazpandarra eta Cabillon bachenabartarra”. Zein lan izan ziren sarituak ere esaten da artikulan. “Ichtorio bitziak” izenburuarekin, hots, kondairak saritzen ziren sailean hiru izan ziren sarituak: Jean Elissalde (Mendiondo) “Litania beltzak”, bigarren: Henriette Bidegain (Alduda): “Gizonik gabeko herria”, hirugarren: Jean Donetch (Ustaritze): “Parioa galdu”.

Jean Elissalderen “Litania beltzak” idazlana ez dugu ezagutzen. Lan hori ezagutu eta geureganatzeko Bordeleko *Sud-Ouest* kazetara joan nintzen eta *Herria* aldizkariko artikuluaren kopia erakutsi nion artxibategiko arduradunari. Ez nuen kazetako artxibategian sariketako lanak eskuratzerik izan. Bordeleko *Sud-Ouest* kazetak orain dela 74 urte eratu zituen euskal sariketako lanak nun ote daude? Zenbat eta denbora gehiago pasatu, hainbat eta zailagoa da lanak aurkitzea. Agian norbaitek guk baino zorte hobea izango ahal du!

6. Jean Elissalde 1930ean Euskaltzaindian sartzen da

Jean Elissaldek Martin Landerreche euskaltzainaren aulkia bete zuen 1930ean. Sarrera-hitzaldia bere sorterrian, Azkainen, egin zuen. Sarrera hitzaldiaren erantzuna, Elissaldek berak aurkeratu zuen bezalaxe, Geor-

ges Lacomberi egokitu zitzaion. Biak ala biak 14ko Gerra Handian ibiliak ziren. Jean Elissalde eri-artatzaile eta Georges Lacombe lehen lerroetan gerrari. Jean Elissalde euskaltzain oso egin zutenerako, bide luzea egin zuen euskal idazlea zen. Garaiko aldizkarietan era bateko eta beste hainbat lan —kronikak, ipuinak, olerkiak...— argitaratuak zituen eta zenbait liburu ere bai. Elissaldek ordurako 47 urte zituen eta Iparraldeko euskaltzale zein euskal irakurleen artean estimu handia zuen. Diogunaren froga da, esaterako, 14ko Gerra bukatua zenean —*Eskualduna* astekariko irakurleek kronika gehiagoren gosez— idazten jarraitze-ko eskatu ziotela.



Euskaltzaindiko bilera bateko kideak. *Zutik ezkerretik eskuinera*: Nikolas Ormaetxea “Orixe”, Jean Elissalde “Zerbitzari”, Sebero Altube, Julio Urkixo, Raimundo Olabide. *Eserita ezkerretik eskubira*: Juan Bautista Eguzkitza, Bonifazio Etxegarai, Resurrecion Maria Azkue, Georges Lacombe.

Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldian, ametsa gizonaren bizia dela adieraziz, Euskaltzaindian sartzeko ametsa aspaldikoa zuela aitortu zuen (Elissalde 1931: 68-69):

Bada erran bat, amets bat dela gizonaren bizia. Berehala aithortuko dautzuet behinere ez nitzaiola erran horri erhainetan sartu, zertako errana den ikusteko. Bego holako lanak kanta⁽⁴⁾ zahar eta berrien gain. Eskualdunek ez ditugu behar gabeko buru-haustea maite. Ez, ez dakit amets bat den gizonaren bizia!

Dakitana hau da: zer bada eta ez bada bizia, iguzkiaren azpian gizonik ez dela ametsik egiten ez duenik. Neronek bizpahirur badituz aspaldi eginak: ez dauzkitzuet salatuko. Bainan bat bada egundaino egin ez nuena eta hura nahi dautzuet salatu: ni egun batez Euskaltzaindian sar nintekeela.

Eta zertako bada ez nuen bertze batek bezen ongi amets hori egin behar? Zertako? Huna egia, zabal-zabala.

Behin⁽⁵⁾ Robert de Flers izena duen frantses idazle aipatu bat gaizkika arizan zen “Académie Française” delakoan diren jaun jakintsunez eta, naski bertze behin handiagorik erranen ziotelako beldurrarekin, gaztigutzat jaun horiek beren arteko hautatu zuten. Nik ez baitut egundaino gaixtakeria handirik erran Euskaltzaindiko jaunez, edo behin zerbeit erran badut baitakit berehala barkatuko zinautazuela, jaunak, ez nuen Euskaltzaindian sartzea igurikatzen ahal... Gero, laño-lañoiki eta ahalkerik gabe haxe aithortu nahi dautzuet, bertzalde: nere buruari behatu-eta, nere burua ongi negurtu-eta, ez nion Euskaltzaintzeko nihundik aski gei atxematen.

Sarrera dotore honetan zeharka aipatzen diren zenbait kontu badira. “Nik ez baitut egundaino gaixtakeria handirik erran Euskaltzaindiko jaunez, edo behin zerbeit erran badut baitakit berehala barkatuko zinautazuela (...)” esaldiak kontrako ideia bi biltzen ditu: “ez duela gaixtakeria handirik esan” salatu ondoren “zerbait” esan duela aitortzen du. Esaldi honen erantzuna Georges Lacombe egindako erantzunean bertan eman zuen (Lacombe 1930: 77):

Zuk etzinuen gutaz tzarkeria handirik erran: nahi zinuen kasik Eskualari guziak Euskaltzaindian sar leiten. Orai ikusten duzu hori ezin litakeyela.

⁽⁴⁾ *Eusker*a aldizkarian kant.

⁽⁵⁾ *Eusker*a aldizkarian *Bekin*.

Hamabi gare, eta urgazle hainitz baditugu. Bakhotxak bere lana ongi egiten badu, zerbait, ene ustez, eskuararen alde jalgiko da.

Elissalde eta Lacomberen bi pasarte horiek ulertzeko, sua piztu zuen hiru urte lehenagoko “Euskaltzaindia” izenburua duen Elissalderen artikulua irakurri behar da.

6.1. Zerbitzariren 1927. urteko “Euskaltzaindia” artikulua

Jean Elissalderen lan harrigarri bezain bortitzenetako bat, 1927an, *Gure Herria* aldizkarian argitaratu zen. Lanak hitz bakarreko izenburua zuen: *Euskaltzaindia*. Izenburu honen aurretik “Chichta eta pherekak” aurre-hitz adierazgarriak zetozen. Artikulua ondoen *Nota Bene* bezalako ohar argigarri bat zetorren: “‘Gure Herria’ orori idekia da: bakhotchak, hein batean, nahi duena erraten du, baina bakotcharen gain haatik erran guziak”. Artikulua atze-aurre hauek Jean Elissalderen artikulua supiztailea, zirikatzailea, iritzi mingarrikoa izan zitekeela adierazten zuten. Eta halaxe izan zen.

Elissalderen artikulua iritzi artikulua bat zen, eta hitz bitan laburbiltzea ez da erraza. Jean Elissalderen ustez, Euskaltzaindian ez zuen Iparraldeak Hegoaldeak adinako pisua, edo beste modu batera esanda, Iparraldeko ikertzaile eta idazleak, hein handi batean, ez zeuden Akademiaren beren merituen arabera onartuak. Jean Elissaldek Iparraldeko meritu handiko ikertzaile eta batez ere idazleen zerrenda bat ematen du egin duten lana aipatuz. Izendatzen dituen idazleen zerrenda luzea da: Adema, Daranatz, St. Pierre, Jean Barbier, Oxobi, Heguy, Jean Etchepare, Constantin, Souberbielle, Gavel, Louis Dassance, Apesteguy Hazparnekoa, Pierre Lafitte, M. Etcheverry, Eyheramendy Bidarraikoa, L. Léon Baionako irakasle eta idazlea, Blazy *Gure Herria* aldizkariaren buruzagia, Espil Maulekoa, Donetch Arnegikoa, Saldumbide Donoztirikoa, Iriart kalonjea Uztaritzen *Eskualduna* argitaratzen zuena. Idazle-zerrenda eman

ondoren, bakoitzaren merituak banan-banan ematen ditu. Idazle hauek guztiak, beren liburu eta lanez gain, *Eskualduna* eta *Gure Herria* aldizkarietako euskal idazleak ziren. Artikulu honen lehen erantzulea Pablo Fermin Irigaray “Larreko” izan zen, *Gure Herria* aldizkariko hurrengo zenbakian “Euskaltzaindiaz, itz bat” artikulua argitara eman baitzuen (Irigaray 1927). Larrekok lan honetan, Salomonek bezala, adiskide zuen Jean Elissalderi arrazoia ematen badio ere, Euskaltzaindiaren meritu handiak agerian uzten ditu. Pablo Fermin Irigaray “Larreko”k bere artikulua muina, neurri handi batean, pasarte honetan laburbiltzen du (Larreko 1927: 184):

Zer, mendiz araindiko euskaldunak, euskalzaindi bat egiteko gai direla? Bai seurki alere! Egin lezaketena, unaindikoek egin dutena baño obea litzekela? Badaiteke. Obeago ez dakit, baño aren lanak goxoago nituzkela? Badaiteke.

Jean Elissalderen “Euskaltzaindia” izenburuko artikulua, izen hori duen arren, Azkueren jokabidea salatzen gutun ireki bat da. Jean Elissalde hau esatera dator artikuluan: Azkue da erakundeko jaun eta nagusi; Azkuek berak hautatzen ditu euskaltzainak eta gu, Iparraldeko (ikertzaile-)idazleok, gure lan onak eta ugariak gorabehera, ez gaitu Euskaltzaindian onartzen.

Artikulua Euskaltzaindia erakundearen kontra joan beharrean (erakundearen merituak eta balioak onartzen ditu), Azkueren kontra egiten du. Zergatik? Artikuluarekin zuzengabekeria bat salatu nahi duelako. Artikuluaren lehen esaldiak artikulua bera laburbiltzen du protimio baten bidez: “Bakotchari berea eman behar zaio”. Esaldi honek azalpen bat behar du eta segidan egiten du Jean Elissaldek (1927, 58):

Horra zertako Azcue jaunari eta haren lagun zenbeiti egun hemen berena eman nahi diotegun. Euskaltzaindia heyen burutik atheratua baita mendiz bertzalde hortan.

Jean Elissalderen arabera, Euskaltzaindian partaide izan behar luketen euskaltzainen kopuruak eta balioak ez datoz bat errealitatearekin: Azkuek ahantziak ditu Iparraldeko idazle eta ikertzaile asko. Jean Elissaldek bederatzi aldiz aipatzen du Azcue, baina ez euskal grafiarekin, erdal grafiarekin baizik: *Azcue*. Sarrera-hitzaldian dioen “Nik ez baitut

egundaino gaixtakeria handirik erran Euskaltzaindiko jaunetz, edo behin zerbeit erran badut baitakit berehala barkatuko zinautazuela (...)” esaldiak zerbeit baino gehiago salatzen du. Elissalde “Euskaltzaindiko jaunetz” ez da gaizki esaka ari, Euskaltzaindiko jaun batez bakarrik, Azkuez. Eta “gaixtakeria handirik” horrek ere zerbeit salatzen du: neurri bateko gaixtakeria behintzat badela, handia ez bada ere; “barkatuko zinautazuela” esaldiaren ondorioa, gaizki esanak barkatuak eta ahanztu-
xeak daudela adierazten du. Eta egia esan, halaxe da. Azkuek idazten dion gutunean, ez dago inolako gorrotorik.

Zergatik idatzi zuen artikulu bortitz hau Jean Elissaldek? Jean Elissaldek berak espresuki dioenez, Iparraldeko idazleak defendatzeko. Artikuluan azaltzen duenez, euskaltzain oso ez bada ere —urgazle egin zutela dio, baina titulu hori ez du aintzat— ez du bere buruaren defentsan idazten. Hona haren hitzak (Elissalde 1927: 72):

Hortan burura ziteken sail hau. Bai. Bainan menturaz orduan norbeitet uesteko zuen sail hunen egilea Euskaltzaindian hartu ez dutelakotz dela kechu. Batere. Hasteko. Euskaltzain ez bada, urgazle da bederen. Eta aski polliki urgazletua oraino!

Jean Elissalderen hitzen arabera “urgazle” zen, eta ez “euskaltzain”. Artikulua lerroartean irakurtzen badugu —eta Borgesek esan ohi zuen lerroartean irakurtzen jakin behar dela egiazko mamiaz jabetzeko— Jean Elissalde kexu zen ez besterengatik bakarrik, bere buruagatik ere bai. Zein neurritan den besterengatik eta ez bere buruagatik zalantzan jar litekeen kontu bat da, inolako dudarik gabe. Bestela eta argiroago esateko: batez ere bere buruagatik zen kexu.

6.2. 1930ean Martin Landerreche hil ondoren Elissalde euskaltzain izendatzen dute

“Euskaltzandia” izenburuko gutun ireki honek sekulako indarra izan bide zuen, zeren aipatzen diren Adema, Daranatz, St. Pierre, Jean Barbier,

Oxobi, Heguy, Jean Etchepare, Constantin eta abarrak baino lehen Elissalde bera hautatu baitzuten euskaltzain oso denbora gutxira. Martin Landerreche 1930eko urtarrilaren 30ean hil zen, eta handik hilabete batera, urte bereko Euskaltzaindiko otsaileko Osoko bilkuran, Donostian, Elissalde euskaltzain izateko izendatu zuten, eta urte bereko uztailearen 26an (“garagarri-laren 26an”, jatorrizko dokumentuan agertzen denez), izendapena onartu zen. Honelaxe dio uztaileko aktaren azken puntuak (*Euskera* 1933: 21):

V.-Elissalde jauna euskaltzain aukeratu degu abo batez ta Landerretxe zanaren ordez.

Akta honen berri Lacombe ere eman zuen *Gure Herria* aldizkarian. Euskaltzaindiko akten berri frantsesez eman zuen beste zehaztasun batzuk aipatuz (Lacombe 1930: 470):

Après la lecture et l’adoption du procès-verbal des deux dernières séances. M. de Azkue donne des détails sur la mort et l’enterrement de M. Landerreche, membre titulaire décédé depuis la dernière session, et il exprime tous les regrets que cause à l’Académie la perte de cette excellente confrère.

Ohar honetan Martin Landerrecheren heriotza aipatzen da. Nola izan zen Landerrecheren heriotza? Hona nola izan zen kontua. 1930eko Euskaltzaindiko urtarrileko bileran, Bilbon, Martin Landerreche apeza gaizkitu zen, eta etxera, Ezpeletara, eraman behar izan zuten Azkuek eta Lacombe. Handik hiru egunera, urtarrilaren 30ean, hil zen. Martin Landerreche (1842-1930), hil zenean, adin handikoa zen: laurogeita zazpi urte zituen. Honelaxe kontatzen du labur-labur Lacombe euskaltzainak (Lacombe 1930: 653):

Tombé gravement malade à une séance de l’Académie basque en janvier dernier à Bilbao, il fut transporté à Espelette où il s’éteint quelques jours plus tard, après une vie de labeur.

Georges Lacombe —ia beti egin ohi zuen bezala, frantsesez eta oso labur— kontatzen duen gertaera bera xehetasun gehiagoz kontatu zuen euskaraz Piarres Lafittek (Lafitte 1930: 69):

Joan den urtharrileko biltzarrean, eskual-zainak beren bethiko jakintsun-laneri

jarraiki nahiak ziren. Zorigaitza uste gabetarik heldu baita ordean! Huna non lagun bat, aphez chahar bat, bet-betan aldichartzen zaioten. Lehenbiziko arthak emaiten diozkate. Gero zer egin? Eri handi, beribilez etcherat ereman behar.

Horra nola egun batez, Azkue jaun aphezak eta Lacombe jaunak lagundurik, Espainiatik Ezpeletarat itzuli behartu zitzaion, hemen aiphatu gogo dugun Landerreche jaun aphezari.

Etcherat orduko, oheratu zen. Bethikotz oheratu, ezen lau egunen buruan, urtharrilaren hogoi-ta-hamarrean haren arima zeru-alde hegaldatu zen, azken othoitx karku batek berekin eztiki zeramala. Hain chuchen, meza saildua emaiten ohi zuen tenorean pausatu da.

Jainkoak duela bere lorian.

Martin Landerreche apezaren lekuan Jean Elissalde aukeratu zuten. Elissalde ere Landerretxe bezala, Lafittek dioenez, “euskalki berekoa, lapurteraduna” zen. Egia esan, Landerreche Sarasketan, Nafarroa Behe-rean, jaioa zen, baina Ezpeletan, Lapurdin, bizi zelako, 1919an, 77 urte zituela, Lapurdiko euskalkiko ordezkari zen Euskaltzaindian.

Landerreche hil eta urte berean, irailaren 19an, Ezpeletan egin zen urteroko Eskualzaleen Biltzarra. Arrazoa garbia zen: Landerrecher bizi eta hil zen herrian biltzarra egitea, hildakoari omenaldi bat egitea zen. Hurrengo urtean, 1931n, Eskualzaleen Biltzarreko liburuxkan Martin Landerreche apezaren argazkiaren azpian Elissalderen testu txiki bezain adierazgarri bat atera zen⁽⁶⁾ (Elissalde 1931). Testuak “Landerreche apheza” du izenburutzat eta “Eskualzale bat” izenpea badakar ere, egi-lea nor izan zen ez da duda egitekoa:

Urthetsu bat badu hilik Landerreche aphezak. Bilbaon, Eskualzaindiko bilku-ran, batbatean tcharturik, Ezpeletarat ekharri zuten eta herri hortan zendu zen, aspaldi bildua zen etchean.

Aphez ona, kartsua, bere eginbideeri guziera atchikia! Eta Eskualzale handi bat bertzalde! Duela hogoi-ta-hamar urthe Eskualzaleen Biltzarra sortu zelarik, han zen Landerreche apheza, eta idazlaritzat hautatu zuten. Idazlarigo hori etzuen utzi ezinbertzean baizik, lauetan hogoi urtheren gainean, lan handi-ago bati lotzeko. Eskualzaindian sartzeko!

⁽⁶⁾ *Eskualzaleen-Biltzarra 1930eko Bil-aldia Ezpeletan buruilaren 18an Louis Dassance jauna buru liburuxka Euskaltzaindiko (ABA-LAF, KUTXA 322-158) kutxan aurkitzen da.*

Eskuararen alde orok Landerretche aphezak bezenbat egin balezate, ez ginuke beldurrik Eskuara galduko dela! Nork ez ditu gogoan haren “Aphurkak”, “Fedearen Hedamenako Urthekariak”, “Atsotitzak”... eta gaineratekoak? Oro, Eskualdunek irakurtzea maite zituzten liburuak... Han-hemenka Eskualzale kartsu zenbeit sortu bada azken urthe hautan, sortu da Landerretche aphezak, Guilbeau, Lacombe, Decrept, Etchepare eta bertze batzu lagun, hazia erainik! Eskual-Herriak ez du ahantziko eta ez da dudarik egun batez Eskualdunek, Duvoisin kapitainari bezala, harri eder bat orhoitzeko lanthu nahiko diotela, hain maite zuen Ezpeletako herri ederrean...

Oro badoazi bat bertzearen ondotik: gure mendietarik joan dire lehengo haiztegi eder hek: herrietan galdu dire lehengo jauntzi pollitak, chamar eta gainerateko; galdu, salto motch eta jauziak: aizkolari eta barrakariak ere: Eskuaraz mintzo direnak, Eskuara maite dutenak aphurtzen ari dire egunetik egunerat! Oro joanik ere, geldi dakigula bederen bihotzean holako zorigaitzen kontra bizia higatu dutenen orhoitzapen saindua!

Eskualzale bat

Testu honetako azken pasarteak testugilearen ideologia argiro adierazten du. Ohitura onak aldatzen joatea Elissalderen testuetako leitmotiv argi bat izan ohi da. Azkaineko gure idazleak ez ditu garai bateko euskaldunen jantzi, dantza eta kirolak indarrean ikusten. Euskara bera ere galzorian ikusten du...

6.3. Azkue eta Elissalderen arteko eskutitzen gurutzaketa

Elissalde euskaltzain aukeratu ondoren, 1930. urte bereko agorrilaren 19an, erabakiaren ondoko zenbait testigantza idatzi badira. Azkue euskaltzainburuaren eta Elissalde euskaltzain berriaren arteko hiru eskutitz polit gordetzen dira Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka eta Artxiboan. Hona hemen diakronikoki hiru eskutitzak. Lehena, esker onezko eskutitz amultsu bat da Elissaldek Azkueri idatzia⁽⁷⁾:

⁽⁷⁾ Gutun honen originala Azkue Biblioteka eta Artxiboan gordetzen da (kokapen kodea KEA-0011). Gutuneko letra bat bera ere ez dugu aldatu.

Liginagatik, Agorrilaren 19an

Jaun aphez agurgarria,

Duela zenbeit egun liburuchka bat, “Ama Maria Pasionekoa”, argitaratu baitut, egun berean igorri dautzut, nere eskaintza, ttiki bada ttiki, gogotik onhartuko duzulako esperantzarekin. Berenaz ez du naski balio handirik: bertzalde, moldiztegian huts franko egin dautet. Horrengatik, zure liburutegian chokho bat ematen badiozu, iduritzen zait zerbeit balioko duela. Nik zuri milesker beraz...

Nere Euskaltzaindian sartzeaz solas Lacombe jaunarekin egin-eta, huna zer nahi nuken... ahal bada: sartze hori Azkainen, nere sor-lekuan, egin dadien, nere aita chaharrari atsegin egiteko baizik ez balitz ere! Egunaren hautatzea, zuen. Nik nere mintzaldia lore eta landarez egin-eta, Lacombe jaunak iharde-tsiko daut... euskaraz. Bai, jaun apheza, eskuaraz! Lehen ere jaun hori eskuaraz mintzatu da Azkainen Chourio zenari harri bat ezarri giniolarik hemengo Eskualdunek. Jaun aphez agurgarria, zer zautzu hortaz? Guzien buruan, nahi duzuen eginen dut, nik.

Jainkoari galdetuko diot bethi osasun eder batekin eskual lanetako antsia bera atchik dezazun. Eta agur.

Jean Elssalide

à Liguingue, par Tardets

Basses-Pyrénées

Azkue jaunak, lehenbailehen erantzun nahiz, agorrilean bertan, eskuti polit eta jostakin bat —euskaraz irakurri dudan eskutitz polite-netako bat dela aitortuko al dut? — idazten dio 1927ko artikulu bortitza izan ez balitz bezala, tartean inoiz inolako haserrerik egon ez balitz bezala. Hona hemen⁽⁸⁾:

Jaun Jean Elissalde euskaltzain autatuari bere lankide Azkue apaizak
Lekeitiotik 31. VIII. 1930an

Zure eskutitza nire eskuetaratu-orduko, elai bat bezalaxe, batetik bestera lasterka ibili da: Liginagatik Bilbora, Bilbotik Jacara, Jacatik Hechora, Hechotik Jacara berriz ta Jacatik Ansora. Jaca, Hecho ta Anso Aragoako uri ta urixko

⁽⁸⁾ Eskutitz hau gaurko grafiara ekarri dugu. Gaurko grafiara ekarri ditugun kontsonanteak et ean>etxean; jaiote fi>jaioterri. Bokalaren gaineko acento circunflejo delakoa jarri beharrean bokal bikoitza jarri dugu zâfik>zaarrik.

dira. Andik irten bear nuenean eman zidaten eskutitza eta ene jaioterri onetara elduarte berari erantzun egokia emateko astirik ez tut izan.

Zure liburu “Ama Maria Pasionekoa” ez tut oraino ikusi. An, Bilbon, gorde izango didate. Poz pozik nire euskerazko liburu-artean izango du bere egongua eta astitu nadineko bere orrialdeak irakurriko ditut. Mila esker.

Aspalditxo onetan Euskaltzain berriak bakoitza bere jaioterrian artu oi ditugu; eta urriaren azkenaldeko batzarretan zure ta nire gogo ori Euskaltzaindiak aintzat artuko bidedu. Onela len seaska baizik etzinuen Azkain birseaska izango duzu. Euskaltzainak non eta noiz jaioko diren erabakitzea Euskaltzaindiaren arazoa da, ez nirea. Euskaltzain bati nor erantzungo dion bai: au neroni dagokidan zeregina da. Eta nik, besteren bat onetarako begiz jota iduki arren, zuk eta Lacombek berak ere nai dezutenez geroz, nik ere pozik entzungo dut, zure lanaren ondoren, Lacombek emango dizun erantzumena. Zure lan ori egiteko, nik dudan liburu naiz paper zaarrik bear bazendu, eska zadazu ta bereala igorriko dizkizut Bilbon ditudan idazki-midazkitxoak. Bizkaian (auzoak maiz kezka ta kilikatzen baitira) auzoko euskaldunak aotan artuz, lenagoko gizaldietan esan oi zuten: kiputzen itza, zurezko giltza. Zure itza beste euskaltzain guziena bezala, nireztat beti urrezko giltza izango da.

Or Eskapilenekorik inor, Agáta edo besteren bat, oraino bizi bada, beren etxean bi ilabetez iduki zuten bizkaitar onen goraintziak eman izkiezu.

Onenbestez agur gozo bat.

Eskutitz honen erantzuna da orain transkribatuko dugun Elissalderena. Eskutitz datatu gabekoa da, eta euskaltzain izendatu ondoren Azkueren eta Elissalderen eskutitz-gurutzaketako azkena dela dirudi. Elissaldek bere lana ondo aurrera ateratzeko zer egin behar duen galdeetzen dio Azkueri. Hona hemen:

Liginagatik

Jaun aphez agurgarria

Doidoia zenbeit oren du J. de Urquijo jaunari jakin-arazi diotala nola Baionako jaun aphezpikuak gogotik onhartzen duen, zuek hautatuz geroz, Eskualzaindian sar nadin.

Enuen amesten holakorik sekulan gerta zitakeela. Hala bada hala da. Bainan othoi lehenbailehen erradazue zer dutan egiteko, ez nadin zuen arterat ager eskuak huts-hutsik, gure mintzaira eder paregabearentzat dutan amodio ezin negurtuzkoa ez bada aski.

Dena dela, egundik milesker handi bat igortzen dautzuet eta zure bidez igortzen diotet Euskaltzain guzieren egin dautedan ohore handiaz. Ahal guzietz bermatuko naiz zerbeit gehiagoren ere egiterat, ondoko egunetan.

Jainkoak eman dezazula bethi osasun eder batekin, jaun apheza, hemendik aintzinat orai arte bezenbat lan egiteko bihotza.

Zure Zerbitzari

Jean Elissalde, apheza

Hiru eskutitz hauek irakurtzen dituenak Azkue eta Elissalderen arteko harremana ezin hobea izan zela ondorioztatuko du. Barealdi honen aurrean, ordea, ekaitza izan zen. Ekaitz hori ez zen izan “gaixtakeria handirik erran zuelako”, are gauza lazgarriagoa den zerbaitegatik baizik: “Euskaltzaindia” izenburuko artikulua bat idatzi zuelako baizik. Bestela esan, zerbait “erran” beharrean, zerbait baino gehiago “idatzi” zuelako.

7. Gerra handiko euskal kronikariak

Jean Elissalderen lanen bilduman 14ko Gerra Handiko bi lan sartzea erabaki dugu. Lehena, 1914tik aurrera gerra tokitik idatzitako kronika-bilduma bat dugu; bigarrena, *Berrogoita Hamazazpigarrena Gerlan* izenekoa. Bi lan hauek 14ko Gerra Handiko bi ikuspegi desberdin ematen dituzte. Lehen lana *Eskualduna* astekariko 1914tik 1919ra arteko gerra eta bakealdiko gerra-kronikaz osaturik dago. Gerra-kronika hauek Ipar Euskal Herrian *Eskualduna* astekaria banatzen zen tokietan ez ezik, gerrako sutokian bertan ere euskaldun soldaduek irakurri ohi zituzten. Gerra Handia 1918an bukatzen bada ere, gerraren ondorio eta abarren berri ematen dituzten 1919ko Zerbitzariren zenbait kronika ere bildu ditugu guk antologia honetan. *Eskualduna* astekariko irakurleek eskaturik, lehenago esan dugun bezalaxe, Zerbitzarik idazten jarraitu zuen 1920ko ia urte amaiera arte. Lehen kronika-bilduma hau guztiz interesgarritzat dugu, interesgarri bezain ezezaguna askorentzat.

Bigarren lana, *Berrogoita Hamazazpigarrena Gerlan*, lehen aldiz atalka 1936-12-25ean hasi eta 1937-08-27 artean *Eskualduna* astekarian argitaratu zen, eta, liburuan, *LVII.a gerlan* izenburuarekin, 1995ean Patri Urkizuk eman zuen argitara (Urkizu, 1995). Gure ediziorako Jean Elissalderen beraren eskutikako bi kaineretan biltzen den testuan oinarritu gara⁽⁹⁾.

Lehen gerra-kronika Jean Elissaldek, “Zerbitzari” izengoitiz, *Eskualduna* astekarian 1914ko urriaren 16an argitaratu zuen. Kronika baino gehiago eskutitz xume bat da, ate joka ari den 31 urteko apez soldadu batena. Sutokian dagoen soldadu baten ikuspegia eta kazetariarena bat ez datozela argudiatuz bere kronika eman nahi du. Delako lehen kronika apaltasun osoz idatzia dago zuzendariari arbuiatzeko aukera emanez:

Huna, nahi baduzu, *Eskualdunarentzat*, gerlaz bi lerro. Kazeta egileak eta gertariak ez dituzte naski gauzak begi beraz ikusten; nik ikusten ditudan bezala ontsa bazauzkitzu, Eskualdun maitean ezarriko ditutzu; bertzenaz bota surat.

14ko Gerra Handiak euskaraz izan zituen Iparraldeko hiru berrie-maile ezagun bezain ugarienak, sarrera honen hasieran esan dugun bezalaxe, Jean Saint-Pierre *Anxuberro* (1884-1951), Jean Etxepare (1877-1935) eta Jean Elissalde *Zerbitzari* izan ziren. Hiru hauek ez dira bakarrak. Pierre Duhour (1890-1968) marinela ere eman zituen zenbait kronika (Lafitte, 1968). Hiru idazle eta kronikari bikain hauek XX. mendeko prozarik ederrenaren sortzaile izan ziren. Hirurak izan ziren, bestalde, Arnaud Abbadie (1843-1916) apezaren ikasle. Honelaxe idazten du Piarres Xarrittonek Arnaud Abbadieren *Aphezac soldado* liburukaren aurkezpenean (Abbadie 1998: 253):

Arnaud Abbadie (1843-1916), Nafarroa Behereko Bitiriñeko baserri batean sortu zen eta Baionan apeztu ondoan, Larresoroko seminarioan irakasle sartu,

⁽⁹⁾ “Berrogoita Hamazazpigarrena Gerlan” ABA-ZER 05 (1-42) argazkia eta ABA-ZER 06 (1/18). Lehen gerra handiko kontakizuneko testua eskuizkribatua bi kaineretan banatua dago. Lehen kaierean, (ABA-ZER 05), lehen hamar kapituluak datoz, hurrengo kaierean, ABA-ZER 06, azken hiru kapituluak. Bi kaier hauetako eskuizkribua letra txukunean garbitatua dator. “Berrogoita Hamazazpigarrena Gerlan” kontakizunaren zirriborroa beste kaiera batean aurkitzen da: ABA-ZER 16 (1/39).

1880ean. Geroxeago Larresoroko buruzagi ezarri zuten eta bururaino itzal handia izan zuen. Berak filosofia eta lurgintza erakasten zituela, euskara ere landu zuen ederki, bai Eskualduna astekarian, bai Fedearen Propagazioneko aldizkarian. (...). Manex Hiriart-Urruty, Blaise Adema eta Jean Barbier, besteak beste, izan zituen irakasle lagun. Jean Etxepare, Jean Saint-Pierre, Jules Moulier Oxobi, Laurent Apesteguy eta Jean Elissalde Zerbitzari bezalako idazle bikainak, haren ikasle izan ziren.

Hegoaldean euskarazko Gerra Handiko kronikari euskalduna, *Euzkadi* egunerokoan, Ebaristo Bustintza “Kirikiño” izan zen. Jean Saint-Pierrek, Jean Etxeparek eta Elissaldek ez bezala, Kirikiñok ez zituen kronikak sutokitik idatzi, Bilbotik baino. Ia oraintsura arte gutxi ezagutu den beste kronikari bat Juan Bautista Bilbao *Batxi* (1887-1916) marinela arratzuarra izan zen. Juan Bautista Bilbao *Batxi*, Pierre Duhour bezala, ogibidez marinela izan zen. *Bayo* izeneko ontzian ibili zen maiordomo, eta ia berrehun kronika bidali zituen *Euzkadi* egunkarira. Hil ere Gerra Handiaren erdian hil zen, 1916ko urtarrilaren 16an, mina batek bere ontzia leherturik. Koldo Izagirrek eta Iñigo Aranbarririk Arratzuko idazlearen kronikaz osaturik, 1997an, *Hau mundu arraro hau: 1914-1916* kronika-liburua argitara eman zuten (Bilbao 1997).

1914ko Gerra Handia hasi ondoren, *Euskalduna* astekarian mila berri agertu ziren bertsoz eta hitz lauz. Zehaztasunak bilatu nahi dituenak jo beza Eneko Bidegainen tesi-lanera. Lan honetan badago zuzenki gure berriemailearekin lotura duen puntu bat: “Zerbitzari armadan eta gertan” (Bidegain 2013: 182-184).

7.1. Jean Elissalde Gerra Handiko lehen kronikaria

Hiru euskal gerra-kronikari nagusien artean, lehenik kronikak idazten hasi zena Jean Elissalde dugu, lehen kronika 1914ko urriko hamaseian argitaratua baita. Jean Saint-Pierre da bigarren gerra-kronikaria, bere lehen kronika 1914ko abenduaren 12an argitara eman bai-

tzuen. Hirugarren kronikaria, Jean Etxepare, urte bat geroago hasi zen, 1916ko urtarrilaren 7an. Piarres Xarrittonek Jean Etxepareren zein Jean Saint-Pierreren kronikak bildu eta argitara eman zituen. Jean Elissalderen gerra-kronikak bildu gabe zeudenez gero, bilduma hau leku egokia izan zitekeela pentsatu ondoren *Eskualduna* astekariko Elissalderen gerra-kronikak bildu ditugu.

Gerrako kronikak, aste oroz bidaliak ez badira ere, maiztasun handiz eginak dira. Zenbait kronika gaur egungo begiz aztertuta txikikeriak direla irudituko zaio bati baino gehiagori, baina ondo irakurriz gero, Gerla Handiko argazki ezin hobekak dira. Soldaduek beren erreketan (lubakietan edo frantsesez *tranchards* direlakoetan) lohiarekin zein arratoiekin zuten beste gudu baten berri ematen dute. Arratoien izurriak zein lohitzak (*saltsa* hitza erabiltzen du askotan Elissaldek) ikaragarri penatzen zituen soldaduak.

Lehen Mundu Gerraren gaineko Jean Elissalderen bi lan hauek elgarren osagarri eta aberasgarri direla deritzagu. *Eskualduna* astekarian 1915etik aurrera 1918. urtean gerra bukatu arteko kronikak, biziak, beroak, pintzelkada bizkorrez pintatutakoak dira. *Berrogoita Hamazazpigarrena Gerlan* kontakizuna gerra bukatu ondoren urte askotara idatzitakoa da. Gure bilduma honetan *Zerbitzari* izengoitiz sinatutako guztiak bildu ditugu. Batek edo bestek izengoiti hori ez badarama ere, Zerbitzarirena dela argi ikusi dugunean, gure bilduman sartu dugu.

7.2. Zerbitzariren kroniken zenbait ezaugarri

Zerbitzariren gerrako kronikak arretaz irakurririk, gerra guztietan gertatu ohi diren gertakariak argi ikusten dira. Gerra hasierako lehen hilabeteetan Zerbitzarik gerra laster bukatuko dela uste du, eta esperantzaz horrekin hainbat kronika idatziko ditu. Gerra, ordea, beti luzatzen da nahi baino askoz gehiago. Alde batekoen eta bestekeoen artean

barreiatzen diren berri ainitz ez dira egiazkoak izaten. Gezurra da, gerrate guztian, alde batekoek eta bestekoek erabiltzen duten armarik bortitz eta nahasgarriena. Gezurra eta gerra batera joan ohi dira aldi eta alde guztietan, eta Gerra Handian ere argiro ikusiko dugu Elissalderen kroniketan. Gezur zaharrak aihenatzen direnean gezur berriak sortzen dira. Gezurrek alde batekoen eta bestekoen artean esperantza berriak sortzen dituzte, eta esperantza zaharrak desegiten direnean gerlarien bihotzek esperantza berriei emango diete leku berria.

“Gerra-urte, gezur-urte” izan ohi da, esaera zaharrak dioen bezala. Zerbitzarik zenbait kasutan ez daki erreketan —“lubakiak” adierazteko erabili ohi den hitza da— dabilzan berriak zein diren egia eta zein gezurrak, hala ere soldaduen etxekoei ez ezik, erreketan zeuden soldadu euskaldunei ere bihotz eman nahi izan zien bere kroniken bidez.

Zerbitzariren kroniketan alderdi batekoen gaiztakeria bakarrik erakusten da, hau da, aleman soldaduen. Zerbitzariren hitzetan soldadu frantsesak heroiak dira: argiak, azkarrak, langileak, “lotsarik” gabekoak (hau da, beldurrik gabekoak). Era berean, gure berriemailearen kroniken arabera, soldadu frantsesen artean euskaldunak dira balentriarik handienak egiten zituztenak, maitagarrienak, gerlari gaitzenak...

Elissaldek euskaldun soldaduen balentriak behin eta berriro gorai-patzen ditu. Ezer gaizki ikusia badago gerran, uko egin edo desertatzea da. Jean Elissaldek 1914ko azaroko 6an euskaldun pilotari famatu batek ihes egin zuelako berria irakurri zuenean desertzioaren koldarkeria kronika bitan gaitzetsi arren, ez zuen haren izenik salatuko. Gauza jakina da desertatu zuen pilotari famatua Jean-Baptiste Dongaitz (edo euskaraz esan ohi zuten bezalaxe, *Jean Battit*) urruñarra izan zela, Leon Dongaitzen anaia, itxurak direnez, Lesakan partida bat jokatzeko ari zela frontera ez baitzen itzuli⁽¹⁰⁾. Elissaldek itsuskeria hau salatu arren ez du

⁽¹⁰⁾ Pilotari-familiarik famatuenetakoa dongaitzarrena da. Jean Dongaitz pilotari famatuak hiru seme pilotariren aita izan zen. Hiru semeak Leon, Joseph eta Jean Battit izan ziren. Hiruretan famatuena Leon Dongaitz izan zen eta Txirritak bertso-sail bat ere eskaini zion, bertso-sail bat jartzeko eskatu ziolako.

inoiz desertorearen izenik aipatuko, ez eta gerra bukatu ondoren bere anaia Leon Dongaitzi artikulu bat eskaini zionean ere.

Elissalderen jarrera kontrakoa izan zen, hau da, pilotari handi eta bihoztunen balentriak aipatzea, euskal pilota eta pilotariak maite baitzitu. Adibide jarraigarrizat beste pilotari famatu baten jokabidea goratuko du, Chiquito kanboarrarena. Hona hemen 1914ko azaroko 16ko kronika izenpe gabean datorren berria:

Frantses-eskualdun etxeko jaun batek igorri dauku duela zonbeit egun gure herritar pilotari aphenen handiko bat Espainiarat joan berria omen gerla huni ihesi, hango plaza batean agertua burua gora, nahi ez zituenak entzunik dago-la; nehon guti baitire omen holako hoik begi onez ikusiak; hola utzi herriarentzat bertzenaz apha, ba eta hotz daudenek ere ahalik gutiena baitituzte ikusi nahi.

Zerbitzarik behin eta berriro goretsiko du Christophe Dufau (1888-1922) senpertar medikuaren prestutasun eta argitasuna. Gerran zaurituak eritegira eramateko “brancart” berri bat asmatu zuen. Sekulako asmakuntza izan zen eta Frantziako gobernuak sariztatu zuen. Hona hemen Elissalderen 1915-12-3ko kronikaren bukaera:

Agur, senpertarrak. Ez dakizue berri? Denbora luze gabe omen handia bildu behar du zuen herriak, C. Dufau, zuen herritar jaun miriku gazteari esker. Huna nola:

Kolpatuen harat-hunat ibiltzeko gerlan mirikuek edo eri-artatzaleek badituzte angelera gisa batzu. *Brancards* deitzen dituzte frantsesez. Zorigaitzez, angelera horiek ez ditazke gure erreka hertzietan pasa. Beraz, soldado bat kolpatu delarik, hainitzetan behar da gainez gain, agertuz ereman, bala edo obus gaixto baten irriskuan.

Dufau jaunak, izpiritu gaixtokoa baita, asmatu du angelera berri bat, nondik-nahi pasatuko dena, edo erreketan edo arbolapean. Angelera hori luze luzea egin⁽¹¹⁾ ditake, ohe gisa: edo plega ditake eta ezar kadira gisa. Aintzindariak ikusi dute angelera berri hori eta armadetako onhartu. Mementoan paperak minixtroak ditu. Egun guti barne, Frantzia guzian hedatuko da *Le brancard Dufau*. Biba, beraz, jaun miriku eskualduna! Biba Senpere!

⁽¹¹⁾ E. egon.

Cristophe Dufau eta Dominique Dufau anaia biak 14ko Gerra Handian ibili ziren. Cristophe Dufau mediku senpertia gerra bukatu eta oso denbora gutxira hil zen, 1922an. Beraren anaia notarioak, Dominique Dufauk, bizitza luzeagoa izan zuen. Elissalderen kroniketan anaia bat, Cristophe Dufau, bere izenez aipatuko du; Dominique Dufau, anaiaren berri emateko beti, ordea, “Senpereko notarioa” izendatuko du.

Cristophe Dufau gerran iragandako hotz-bero, hezetasun eta gosegarriek ahuldurik utzi zuten, eta, milaka eta milaka beste gerlariondo bezala, hil arte eri handi jarraitu zuen. Gerran aurpegi desitxuratuak artatzeko espezialitatea omen zuen. Gizon prestu, argia, musikan jantzia, piano-jotzailea izan zen. Euskalgintzan, Jean Barbierrekin batera, *Gure Herria* aldizkaria lehen musika gehigarri hornitu zuen aldizkariaren lehen urtean, 1921ean. Gehigarri musikal hauek “Nehor eta Dufau” izenpea izango zuten. Bi-biak, orduan, Senperen bizi ziren. Jean Barbieren izengoitia “Nehor” zen eta Cristophe Dufauren deiturarekin bakarrik izenpetzen zuen: “Dufau”.

7.3. Gerrako izugarrikeria guztiak ez dira kroniketan aipatzen

Gerran egon ez denak ezin jakin du gerrako berri. Gerrako izugarrikeria eta krudelkeriek ez dute neurririk. Gerra, iraun zuen denbora guttian, gertaera krudelen agertokia izan zen. Gerrako bataila nagusietan, Sommeoan, 1916ko uztailearen 1ekoan eta 1916ko Verduneko hamar hilabetekoan, hilakintza ikaragarriak suertatu ziren. Gaurko begiz ikusirik ezin dugu gerraren neurririk ez tankerarik izan.

Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako gerrari euskaldun anitz elebakarrak ziren. Ez zekiten frantsesez edo ezagutza apurra zuten. Zerbitzariren kroniketan behin baino gehiagotan aipatzen da kontu hau. Hona zer irakurtzen dugun *Eskualdunan*, 1914ko azaroaren 13an, berri-

ketari izengabeko baten kronikan, hiltzorian dagoen Zabaleta baten kasua kontatzean:

(...) Zabaleta zelakoa, eskuaraz mintzo, frantses kasik hitz bat ez jakin, ez harek ezin kompreni, batere zertaz mintzo zitzaizkon inguruko arthatzaleak; ez eta heiek hura, zer zerasan dohakabeak azken hatseraino zerbeitez norbeiti bethi bera ezpainetan zuelarik erreberietan sukarrarekin.

Bethi gerthatua etzauku iduri hain hanitzi gertha dakiotela Parisen, harat joan eskualdun soldadoeri: hitzik ez jakitea frantsesez.

Chuchen edo makur gehienek frantses izpi baten marruskatzen badakite engoitik. Funtsez egiteko solas, hala nola hiltzerakoan, —hartaratzen balire— beren azken adioen eta cheden igortzeko etchekeori, nahi lukete askok eta behar eskuara garbiz norbeitekin elhestatzeko errechtasuna: are beharrago, gaizkitu-eta kofesatzeko kontsolamendua.

Hortako lukete beharra soldado gaizok, orotan ez baditake, nombre handitan diren errechimendu bat edo bitan bederen omonier apez eskualdun berezi baten beharra.

Nork deie hori ardietsiko buruzagietarik?

Pasarte honetan garbiki kontatzen da gertatutakoa. Zabaleta deiturako euskaldun gerrari gazte bat Pariseko eritegi batera eraman zuten. Hiltzorian dagoela soldadu euskaldunak ezin ditu zaintzaileak ulertu ez eta zaintzaileek bera.

Nola eraman ote zuten soldadu kolpatu hori Parisera? Zenbat denbora egon ote zen lubakietan? Kolpatu eta zenbat denbora pasatuko zen eritegira sartu arte? Hona hemen 1914ko azaroko 13ko kronikari izengabe batek dioena “Gerlarien berri” sailean dioena:

Heldu den astean emanen dautzut berri gehiago, biltzen ari naiz, zokoz zoko. Egun gure kolpatu gaichtoenetarat nahi ala ez lerratzen zaut ene solasa. Heta-rik hainitz ikusi dukezu. Gogoratu othe zautzu nola mirakulu jinak diren hemendik horrat? Goazin haste-hastetik.

Kolpatu guziak ez ditugu guk biltzen. Hainitzek beren buruak berek ezartzen dute toki segurean. Kolpatu batek lekua huste du zalhu, zangoak batere on balinbaditu; zerbeit sende dueneko, berak ez dakielarik oraino chuchen zer dun, laster egiten du handik aldarartzeko, egin ahala urrun, herrestan balinbada herrestan, eskuekin bermatuz atherbe bat atzeman artio, oihan zoko bat, zilhoka bat, pezoin baten malda zerbeit, hots, hirrisku handitik beiratzeko on

ditekenik. Hain urrun ezin higi ditazkenak, guduari deno agertzeak berak hirrisku handia duelakotz, han berean kokatzen dire, arroila handi “tranchée” direlako heien barnean etzanik.

Bataila handi bat oraino karraskan ari zelarik, abuztuaren 29an, arratsari buruz ikusi nintuen kolpatuak tropaka bide handirat atheratzen zokho guzietarik. Zangoak on zituzten oraino gehienek; baina baziren frango zangoak herrestan zerabizkatena, sarraski izugarri batzuetarik odola zariotela, guziak galdez, urrun zenez lehen hiria, urrun zenez burdinbidea. Halakoak heltzen dire berak.

Bainan zonbat bertze kolpatu handi hezurak chehaturik han daudenak ezin higituz, oihuka, nork alchatuko dituen. Heiekin dire lanak, ez baititake hurbil guduak diraueno. Oraiko gerlari ez da behar nihola ere agertu, azken beltzean baizik, hil edo bizi zenbeit urhats baitezpada behar direnean irabazi, kanoien eta balen zalaparta izigarriaren barnetik ez litazke bizirik athera kolpatuen alchazaleak eta kolpatuak.

Zer egin beraz? Gauari beha egon. Gauazko guduak ere badire, bet-betan egin diren oldar handi batzu; baina bataila handiak orai artio egunezkoak ikusi ditugu; ilhuntean erauntsia norapeit eztatzen da. Orduan da kolpatu ezinduen biltzea, eta batzuetan gau osoa ez da aski. Gure eskualdean egin dugun azken indar handian 700 ehun kolpatu baziren biltzeko; goiz alderat oraino zenbeit gleditzen ziren, langile guziak ez baitziren chuchen helmenean, toki berean: ez behar ere. Azken kolpatuen alchatzen ari ginelarik gudu berriz hasi zen burrumban, baina laster berriz eztitu; anhardean ahal bazen ontsa gorderik egon ginen lurpean.

Gure laguntzeko badugu gurekin zakhur beltz handi bat. Kolpatuen senditzeke sudur ona omen du biziki. Bi mila liberaz goiti gostaia, arras jendekina, buru ona biziki elhea du eskas. Baina lan guti egin du orai artio; gurekin jostatzen bai; gu etzan eta harek pulliki burutik kepia jali eta ekhar aintzindari bati, eta holako, egiazko lanean ez da haren beharrik. Bertzalde kanoien hich-tua biziki partida du.

“Brancard” batean etzanik daramagu kolpatua, hurbilerat bi gizonek eskuetan urrunago lauek sorbalda gainean, medikuek berehala artha dezaten han berean eta ikus urrunago joaiteko on direnez. Ospitaleak badire han berean, hal bezen hurbil, etche kamastra handi zenbeit, eskela, gaztelu zahar, eliza; oro han etzanik lastoaren gainean ezartzen dituzte. Lothura bat ona egin, chorta bat edan, eta bota karrosetan, bidea balinbada, gara bati buruz.

Bide onik ez denean, bi, hiru egun egon behar hantchet etzanik, esku orga ttipi batzuetan banazka behar direlakotz ereman, batzuetan biziki urrun sei, zazpi orenetaraino egin dute hainitzek, hilinki halanka, oihan bide tzar ba-

tzuetan, iru edo lau gizonek orgachka hala bezen ezteki erabiliz. Orduan dire minik handienak, sukarrak erretzen dituelarik, trenerat ezin helduz; arras guti arregura; kasik batere, baitakite ez dela bertzerik egiten ahal. Afrikano soldado arabe hek dire pleini gehienik, bethi zinkurinaka. Alemanak ere bai, sofritzeko nausi gira kuraiez guzieri.

Gara batetarat helduz geroz, behar dituzten arthak segurak dituzte; orai bederen. Lehen egunetan bertzerik zen, burutziarik ez ziteken egin. Ehunka baginintuen bizpahiru gauez, eta bethi heldu, oinez, karroz, beribilez, orga alimalako batzuetan, idi eta zaldiek tira hala goizeko orenetan bethi heldu sekulan baino gehiago. Eta futcho ezin utz han; kokatu behar; gau batez ez ginuen treinik ere kausitu, bezperako gudu izugarriak buru guziak hustu baitzituen.

Kontaketa gordin hau bezalakorik ez da aurkitzen Zerbitzariren gerra-kroniketan. Kontakizun hau anda-eramale batek kontatua da. Gure Zerbitzari ere “eri-artatzailea” zen, gaztelaniaz *camillero* esango genukeena. Izugarrikeria guztiak adieraztea ez da probetxugarri. Etxekoak zein sutokian zeuden gerrariak penatu eta lazteko xedea ez da kronikariarena. Gerora, gerra pasatu ondoren, izugarrikeria horiek argitara agertu ziren, besteak beste, gerra-aitzindarien egunkarietan zein gerratea bizi izandako idazleen lanetan. Hor ditugu, esaterako, Kafkaren herrikide eta garaikide zen Egon Erwin Kisch (1885-1948) Pragako idazlearen kontakizunak, Jean Giono (1895-1970) Nobel sariaren *Refus d'obéissance* edo Ernest Jüngerren *Stablgewittern* “Altzairuzko ekaitzak” edo Maurice Genevoix (1890-1980) idazle ugariaren *Sous Verdun, août-octobre 1914* eta abar.

7.4. Izugarrikerien ifrentzua: permisioneetako gozoa

Lubakietan zeuden gerrariak infernu gorria jasan zuten. Lubakietako egoera penagarria nekez begietaratzeko modukoa da. Euri-eguraldia suertatuz gero, basatza handietan finko egon ohi ziren, pausorik eman ezinka, iltze bat ohol batean josia bezala. Elissaldek behin eta berriro aipatzen du erreketako basatza hitz adierazgarri batekin: “saltsa”.

Era bateko eta besteko gaixotasunak erasaten zien erreketan borroka ari ziren gerrariei. Gerrariak bizirik jarraituz gero, txandakatu eta etxera joateko baimena ematen zieten. Zerbitzari “permisionez” dagoenean, gerrako izugarrikerietatik ihesi, bizitzaren ederra dastatzeko zoria indar gehiagoz dastatuko du. Zer ikusi ote zuen Zerbitzarik gerra osoan zehar? Bera eri-artatzailea izanik (frantsesez *brancardier*, gaztelaniaz *camillero*), zenbat pertsona kolpatu eraman eta zaindu beharko zituen? Bizitza eta heriotza muga horretan hainbat urtetan izanik, zer ondoren utziko zion?

Pentsatzekoa da frontean bertan izandako pemisioneetan zein etxera joatekoetan bizitzaren ederra inoiz baino gehiago gozatuko zuela. Hona hemen, diogunaren frogagarri, Verdungo hamar hilabeteetako batailako atsedendaldi batean, 1916-10-6 kronikan, dioena:

Ezti ase bat.

Ez da naski Argona huntan kausituko ez dutanik. Udan gereziz, arregaz eta onjoz nahi bezenbat ase gare. Orai badugu hoberik. Eztiari emanak gare. Egun hautan oihanez oihan nindoan, noiz eta ere erle bati ohartzen baintzaio. Zer, erle bat hemen? Ez diat ba galdu behar. Begiz segitzen dut. Ederki egin dut ezen kofoina oren bat gabe kausitu dut.

Aire pozoindatuen kontrako zaku⁽¹²⁾ ttikia emanik, urruntzen ditut erleak. Zer jostetak ikusirik, haatik! Eta gero ezta bil eta bil. Zenbeit egunena badut orai, han berean egin dutan asearen gatik. Eta zer ezta den! Egundaino eta nihon ere ez dut holakorik jastatu, salbu behin Arrauntzan, hango erretorak emanik. Bakotxari zor zaio berea. Gerlak badu, beraz, onik ere. Erlerik ez dut eta ezti asean nago. Eta, aldiz, Arrauntzako jaun erretorak, erleak dituelarik ezta erosi du. Zer den, haatik!

Eztia beti gozoa delarik, are gozoagoa da egoera mikatzetatik ihesi doanarentzat. Pasarte hau bezala Elissalderen kronika bilduman beste zenbait ere aukera zitezkeen. Bego batto bakarrik erakusgarritzat.

(12) E. saku.

8. *Metsikorat* bidaia kontakizuna

Metsikorat bidaia-kontakizuna ere antologia-liburu honetan sartzea pentsatu badugu, kalitate literario handikoa delako izan da. Tamalez, ez dugu narrazio honen eskuizkriburik aurkitu. Erabili dugun testua *Gure Herria* aldizkarian 1925. eta 1927. urteetan argitaratua da. Badirudi *Gure Herria* aldizkariko testua ez dagoela osorik, bukaera falta duela.

Bidaia hau, Roger Idiartek haren omenaldiko artikuluan dioskun bezalaxe, Zerbitzarik etxetik egin zuen bigarren irteera da, lehena 1914ko Gerra Handikoa izan baitzen. Bidaia hamazazpi egunekoa izan zen: egun bi lehorrez Saint-Nazaireko portura iristeko eta hamazazpi ontziz. Euskaraz ezagutzen dugun ontzi-bidaiarik bakarrenetakoa eta ederrenetakoa da, inolako dudarik gabe. Elissaldek itsaso zein lehorreko bidaia kontatzen du. Mexikoko harremanak, sentipenak eta mexikarren gaineko zenbait iritzi ere, ahoan bilorik gabe, kontatzen ditu. Gaur egungo sentiberatasuna kontuan izanik, iritzi batzuk gogorak egingo zaizkio bati baino gehiagori: Elissalderen arabera, mexikarrak ez dira hitzakoak eta gainera alferrak eta zikinak dira.

Kontakizun hau, neurri handi batean, bidaide izan zuen Edmond Blazy, *Gure Herria* aldizkariko zuzendariari zor zaio, bera izan baitzen testua argitaratzeko Elissalde akuilatu zuena.

8.1. *Jean Elizalde Mexikora diru bila*

Jean Elissaldek egin zuen lehen bidaia-kronika luzea, *Metsikorat*, bere osoan argitaratu dugu. Bidaia 1923an egin zuen, ontziz, eta 1925ean eta 1927an *Gure Herria* aldizkarian argitaratu zen atalka. Bidaiaren ondoren Mexikon egindako hitzaldia bidaia-kronikaren ondoren argitaratu dugu. Hitzaldi hau 1931. urtean bidaia-kronika argitaratu zen *Gure Herria* aldizkari berean eman zuen. Zertarako egin zuen bidaia Elissal-

dek? Azalpena leku batean baino gehiagotan aurkituko dugu. Hona hemen bere herritar zen Roger Idiartek nola kontatzen digun (Idiart 1984: 204):

Zerbitzarik bigarren piaia luzea Ameriketara egin zuen, Blazy Uztaritzeko erretorearekin eta Aita Donostia musikari famatuarekin, Uztaritzeko Seminario berriaren eraikitzeko sos galdez. Hango Eskualdunek ongi-etorri ederra egin zioten. Hiruak ere frango artixtak bait ziren, diru-ixtorio hortan ez zuten funts handirik egin, bainan jendearen bihotza hunkirik, moltsa polliki bete-ta itzuli ziren.

Diru bila joateko kontua “Itsas bertzaldean” artikulua buruan idatzi zuten *Gure Herria* aldizkariko arduradunek (Elissalde 1931: 37):

Duela dotzena erdi bat urthe, Uztaritzeko ikastegi ederra hasarazi zuelarik, lan horren bururatzeko dirua chuhursko zuela eskuetan iduriturik, Baionako jaun apezpikuak mandatari batzu igorri zituen itsas bertzalderat. Denboraren buruan huna nun eskuratzen dugun mandatari horietarik batek hango eskualduneri egin zioten mintzaldia. Berantegi othe da “Gure Herria” agerrarazteko? Ez. Eskuaraz egin den ber, mintzaldi horrek agertu behar du segurki hemen. Egileak barka dezagula gure ohointza ttipia... Erran gabe doha, mintzaldi hau ez zela oraino agertu.

1923ko urtean, *Gure Herria* aldizkarian bertan, apezpikuaren esku-titz luze bat argitaratu zen Uztaritzeko seminario berriaren beharra azalduz. Izenburua bera aski adierazgarria zen (Marie 1923): *Baiona, Lescar eta Oloron’go Jaun Apezpikuaren Letra Seminario ttipi baten egiteaz Uztaritzen*.

Jean Elissalde, beraz, diru-eskabidean joan zen Mexikora, bertan bizi ziren euskaldunek eta euskaldunen ondorengoek Uztaritzeko Seminario Ttipia egiteko dirua eman zezaten. Bidaia norekin egin zuen, ordea? Roger Iriartek esaten duen bezala, “Blazy Uztaritzeko erretorearekin eta Aita Donostia musikari famatuarekin”? Jean Elissalderen kontakizunean, ordea, Uztaritzeko notarioaren semea bakarrik aipatzen du. Uztaritzeko notarioaren semea Uztaritzeko bertako Edmond Blazy erretorea, Elissalde bezala apezta eta pilotazalea.

8.2. Aita Donostia Ameriketara diru bila

Aita Donostia ere joan zen ekimen berean Uztaritzeko Seminario Ttipia eraikitzeko diru bila, baina beste bidaia batean izan behar zuen. Aita Donostia, guk dakigula, Argentinara joan zen, itxurak direnez, Edmond Blazyrekin, *Gure Herria* aldizkariko lehen zuzendariarekin. Edmond Blazy lehenago joana zen Zerbitzarirekin Mexikora. Honela diosku Lino Akesolok (Akesolo 1986: 28-29):

Baiona inguruan etxeko eginda dabil Aita Donostia. Ondo ezagutzen eben an, eta ondo ezagutzen dau ango Gotzain jaunak, eta, 1923-n mesede bat eskatu deutso. Gotzain orrek Ustaritzeko Seminario txikia eregiteko asmoa darabil, eta orretarako Arjentinan bizi diran euskaldunen diru-laguntza lortu nai leuke. Ara bialdu nai dau *Gure Herria* aldizkariaren zuzendaria, Aita Donosti lagun dauala. Inor ez mandatari oberik Arjentinara bialtzeko, eta ango euskaldunen biotzak eta sakelak irabazteko, egin nai dauan Seminarioaren alde. Sei illabeteko egotaldia, edo, obeto esanda, itzaldi ta kantuzko ibilaldia egingo dau an zear euskaldunen artean.

Sei hilabeteko ibilaldia egin zuen aita Donostiak Ameriketara, Zerbitzarik egin zuen baino egotaldi askoz luzeagoa. Argentinan, Buenos Airesetan, egindako erdarazko eta euskarazko hitzaldiak argitaratu zituen 1924ko alean “Eskualduna” izengoitiko batek. Delako “Eskualduna” hori Zerbitzari da Jon Bilbaoren arabera (Zerbitzari 1924: 525-531). Hona Edmond Blazyk egindako euskarazko hitzaldiaren hasera:

Jaunak: Pertsulari izan banintz, egun koplak eder batzu, zuen ohoretan, itzuliko nituen.

Holako dohain ederra niri emaita, Yainkoak ez baitu onartu, errepikatuko dautzuet lañoki, lehengo pilotari zaharrek elgarretarat biltzen zirenean kantatzen zuten pertsua:

Agur jaunak, jaunak agur, agur'terdi.

Biltzar huntako buruzagiari agur; haren inguruan ikusten ditudan bertze batasunetako buruzagieri agur; hunat ethorri diren adichkide guzieren agur; egungo eguna alegeratzen duten kantari eta musikarieri agur.

Handik, urrundik, Eskual-Herritik deramagu “agur” hori.

Ameriketarat ethortzeko chedetan ginaudela jakin dutenean, zuen buraso eta adichkidek, erran daukute: goraintzi han ikusiko ditutzuen gure haur eta adichkideri, ba eta eskualdun guzieri.

“Agur” hori atsegin haundi batekin emaiten dautzuetegu, Aita Donostik hego aldekoen, nik iphar aldekoen orde.

Agurren ondotik eskerrak; baginakien odol berekoak izaiteaz geroztik, hemen anaiak aurkituko gintuela, bainan ez ginuen asmatu zoin eder eta zoin kartsu izanen zen heien ongi ethorria.

Euskarazko hitzaldi hau uztailearen 6an ongietorritzko oturantz egindakoa da. Erdarazko hitzaldiak eta xehetasunak aipatutako artikuluan aurkitzen dira.

8.3. Erromarat *bidai*a-kronikaren zehaztasunak

1956. urtean Jean Elissalde euskaltzain idazlea 225 erromes euskaldunekin batera —batez ere Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako euskaldunak tartean zirela— Erromara joan zen ia aste biko erromesaldian, apirilaren 17tik 29ra. Erromara 1956. urtean beilan joateko arrazoi pisutsuena garai hartako euskaldunentzat San Ignazio Loiolako santu (1491-1556) handiaren heriotzaren laugarren mendea ospatzea zen

San Ignazio, Erroman, Gesù elizan, lurperaturik zegoen (gure tes-tuan “Ghesu eliza” bezala agertzen da, *italieraz chiesa del Sacro Nome di Gesù*), eta hilobia bisitatzen zuten beilariek aita sainduaren bedeinkazioa ere hartzeko irrika bizia zuten.

Garai hartarako Jean Elissalde 73 urteko apez zaharra zen, eta bere lumaren distira eta indarra hainbat liburu eta lanetan erakutsia zuen. Hain luma zorrotz eta jostaria zuen idazleari erromesaldiaren kronika egiteko eskatu zioten, eta berak baita eskatutakoa egin ere. Kronika horiek *Herria* astekarian atalka agertu ziren 1956ko maiatz eta ekainean. Ez ote zen izan Piarres Lafitte, *Herria* astekariko zuzendaria, bidai

nika idazteko eskabidea egin ziona? Ez daukagu galdera honen erantzun ziurrik, baina litekeena da, eskutitz batean eskerrak ematen baitizkio egin duen kronika ederragatik⁽¹³⁾.

Elissaldek *Erromarat* bidaia-kronika idatzi zuen garaia, 1956. urteko udaberria, nahasi xamarra zen. Hamaika urte lehenago Bigarren Mundu Gerra (1939-1945) bukatua zen, baina hainbat euskaldun soldadu Algeriako Gerra (1954-1962) odoltsuan borroka ari ziren.

Jean Elissalde Erromara hirugarren aldiz zihoan, eta *Urbs aeterna* edo “betiereko hiria” bisitatzeko azken aldia izango zuela uste bazuen ere, kronika alai, jostakin eta zirrargarri bat egin zuen. Hogeita hamar urte lehenago ere antzeko izenburua zuen *Metsikorat* bidaia-kronika atalka argitaratua zuen *Gure Herria* aldizkarian. Elissaldek bidaia-kronika hau idatzi zuenetik ia 66 urte igaro badira ere, hainbat alderditatik aztertu eta gozatzeko bidea ematen du gaur egun ere: testu onek beti gordetzen dute —hauspean txingarrak bezala— su bizia. Kronika honek garai bateko euskaldun multzo baten izpiritua ez ezik, Jean Elissalde idazle maitagarriaren lumaren zorrotza ere agerian uzten du.

8.4. Euskaldun ibiltariak eta beste

Bi eratako euskaldunak gaude: geure inguru estutik ia inoiz aldendu gabekoak, eta, era bateko eta besteko arrazoiengatik, batetik bestera mundua kurrutzen ibilitakoak. Gogoan dut aita Donostiari irakurri niola berak ezagutu zituen euskaldun gehienak beren herritik ikusten ziren mendietatik harago inoiz urrundu gabekoak zirela. Hamar kilometroren barruan bizi izandako euskaldun asko eta asko, aita Donostiaren garaian ez ezik, urrutira gabe gure garaian ere ezagutu ditugu. Era horretako testigantza bat

⁽¹³⁾ ABA-ZER 01 (1956) Errearoan 18an: Adichkide maitea: [...] Eskerrak daukitzut Erromako itzuliaz gorri daukutzun lerro ederrez...

baino gehiago gure literaturan ere aurkitzen ditugu. Enrike Zubiri *Manezaundi* (1867-1943) idazleak idatzitako istorioetan inoiz hirira joan gabeko baserritarren kontakizun zoragarriak badaude. Bi istorio aipatzekotan “Iruñeko itzulia” eta “Parisen” egingo nituzke (Manezaundi 1990).

Badira bidaiak-kontakizun asmatuak ere, hau da, idazle batek bere baitarik asmatutako fikziozko bidaiak. Tankera horretakoak dira Jules Vernes idazle frantziar ospetsuak *Voyages extraordinaires* izenburupean argitaratutako zituen hainbat bidaiak-liburu. Bidaiak-liburu gehienek, ordea, egiazko bidaietan dute beren jatorria. Bidaiari idazleak eguneko-eguneko hartu ohi dituzte eguneko ibilaldiko gertaeren zehaztasunak. Eguneko-eguneko hartutako datu, gertaera, gogoeta eta abarrez osatutako zirriborroa izan ohi da, gehienetan, argitaratuko den bidaiaren kronikaren ardatza. Wilhelm Humboldt (1767-1835) bidaiari prusiarra, esaterako, Euskal Herrira bi aldiz etorri zen. Lehen aldian, 1789an, eta bigarren aldian, 1801eko udaberrian. Bigarren aldi honetako bi testu behintzat badira. Lehena, jatorrizkoa, egunerokoa da, eguneko-eguneko berriez idatzia: *Tagebuch der baskischen Reise 1801*. Eguneroko honetatik eraturitako testu osatua *Die Vasken* liburukoa da. Zirriborroan oinarritutako testua, gehienetan, literarioagoa izan ohi da, apainduagoa: lehen zirriborroko ohar eta datuak ederturik agertzen dira, informazioa osaturik eman ohi da. Zenbaitetan, ordea, lehen zirriborroko hainbat datu ez ohi dute bigarren testuan lekurik izaten.

Euskaldun askoren patua batetik bestera ibiltzearena izan da, edo bizitzan behin behintzat beren sortetxetik urrutira joatearena, dela soldadutzara, dela artzain Ameriketara, dela gerra tokira, edo beste tokiren batera. Euskal Herriko muga estuetatik harago, munduko bost kontinenteetan barrena alderrai ibili dira hainbat euskaldun. Adibiderik harrigarrietako bat Jose Maria Iparragirre (1820-1881) kantariarena da. Hona labur-labur haren ibilera zenbaiten berri. Hamahiru urte zituela, Lehen Karlistaldia piztu ondoren, Madriletik Euskal Herrira etorri zen. Gerra bukatu ondoren, 1839an, Europan barrena ibili zen, Italian, Frantzian, Ingalaterran.... Europan hainbat urte alderrai ibili

ondoren, 1853an, Madrilen, “Gernikako arbola” Montera kalean kantatu zuen lehenengoz. Kantu hori kantatu zuen hainbat alditan istilu gorriak sortzen zituenez gero, Euskal Herritik kanpora joan beharra izan zuen. Ameriketara hainbat urte igaro ondoren Euskal Herrira itzuli eta 1881ean hil zen.

Mendeetan zehar euskaldun alderraiak zenbat-nahi izan badira ere, lehen pertsonan emandako bidaia-testigantza gutxi ditugu. Bestela esan, euskarazko bidaia-testu gutxi ditugu, eta, gainera, geroago ikusiko dugunez —iragan diren bost mendeetako euskal literaturari begiraturaz gero— guztiak berandu batekoak dira. Beste hainbeste esan liteke Ameriketara joan diren euskaldun artzainez. Hona hemen Manezandik “Battittaren soldadogoa” kontakizunean zer dioen (Manezandi 1990: 36):

Aita-semek gerthakari latzgarrienetarik daukate beren semearen etxetik urruntzea, ez bakharririk haren besoak beharrenezkoak direlaketz etxeko funtsen lantzeko eta arthatzeko, bainan izigarri zaiotelaketz soldado yuaitea, ustez eta gudaratz doala. Hain dute higuigarri eginbide horren bethetzea, nun Kaliforniarat gogotiago nahi dute yuan, han bederen gudu hirriskurik ez delaketz eta gero eskualdunen artean direlaketz, zeren eta denek dakigun bezala oste haundika bilduak baitira eremu heietan, artzaingorat yuana. Eta elgar-tzen dire beren mintzaira eta Eskual-herriko ohidura guziak yarraikiz, hainbestetaraino nun han sorthu anitz badira eskuara bezik ez dakitenak.

Oste handika Ameriketara, Kaliforniara, joaten zirela euskaldunak dio Manezandik, 1933. urteko abenduaren 20an argitaratutako ipuin-artikulu batean. Ehunka euskaldun artzain Ameriketara egon badira ere, testigantza idatziak oso urriak dira, zoritxarrez. Ezagutzen ditugun gehienak, gainera, bertsoetan emanak daude. Ameriketako artzainen euskarazko prosazko testigantza oso gutxi batzuk, ordea, badira aldizkarietan barreiatuak. Liburu batean jasota dagoen hitz lauako testigantza luze xamarra Nafarroa Behereko Esterenzubi herriko Mattin Etxamendiren *Urruneko mendebaldean artzain* liburukoa da (Etxamendi 2013).

8.5. Bidaia-literatura eta bidaia-erreportajea literatura genero bezala

Literatura unibertsaleko idazle handi gehienek beren eleberri, ipuin-liburu eta abarren artean bidaia-liburu bat edo beste izaten dituzte. Hermann Hesse, Gustave Flaubert, Robert-Louis Stevenson eta abarrek, beren eleberri zein ipuin-liburuengatik ezagunak badira ere, bidaia-liburuak ere idatzi zituzten. Bidaia-liburua literatura guztietan landu den generoa bada ere, ingeles literaturan izan dezake beharbada tradizio-rik handiena. Liburu klasikoetan klasikoena, ordea, Marco Polo (1254-1324) veneziarraren bidaia-liburua da genero honen adibide ederrenetako bat. Idazleen artean badira, ordea, ia bidaia-liburuak soilik idatzi dituztenak ere. Horietako bat da Javier Reverte (1944-2020) madrildarra, eta ingeles literaturan Paul Theroux (1941-).

Ez ditugu, gure ustez, bidaia-liburuak eta erreportaje-liburuak nahastu behar. Bidaia-liburuetan bidaia baten berri ematen da, hasieratik bukaerara. Nun hasten den bidaia, nortzuk diren bidaiariak, nola egiten den bidaia, ezagutzen diren lekuen berri, bidaiarien gertaera eta pasadizoak eta abar. Erreportaje-liburuetan leku bat bere edertasun eta ezaugarriekin deskribatzen da. Gotzon Garateren *New York, New York* (1988) eta *India harrigarria* (2001) erreportaje-liburuak dira eta ez bidaia-liburuak. Bidaia-liburuak, ordea, izan dezake, era berean, erreportajetik, eta lekuen eta gertaeren historiatik ere.

Bidaia-liburuek, gehienetan, egitura finko xamarra izan ohi dute: bidaiaren hasierarekin hasten dira eta bidaiaren bukaerarekin bukatu. Bidaia aurrera joan ahala, narrazioa ere aurrera joan ohi da. Zenbait bidaia-liburutan bidaiariek bisitatzen joaten diren lekuek markatzen dituzte bidaiako atalak. Beste zenbaitetan denborak markatzen du, egunka, edo asteka —edo hartu nahi den denbora-neurria kontuan izanik— bidaia-kronika. Bidaia-kroniketan bisitatzen diren lekuen deskripzioa eginaz batera, bidaiako gorabeherak —barregarri, txundigarri, interesgarri, edo hitz batean, kontagarri den oro— emanaz batera, idazleak bere gogoetak ere tartekatzen ditu.

Erromarat erromesaldi-kronikan Italiako hiriek, bidaia-egunek zein gertaera nagusiek, nahas-mahas polit batean, osatuko dute bidaiaren hari nagusia. Gertaerak eta bidaiarien izaera izango dira batez ere kontagai. Jean Elissalde kontalariak ez digu berari zuzenean gertatzen zaionik kontatzen. Ez ditu, era berean, bere gogoetak kontatzen. Bere lumak, Stendhalen ispiluak bezalaxe, gertaera guztien artean interesgarrienak aukeratzen ditu eta ahalik eta modurik zorrotz eta jostakinenean ematen ditu.

8.6. *Euskarazko leben bidaia-kronikak: zenbait xebetasan*

Ez dut uste euskaldunok, are euskaldun landu eta irakurzaleok ere, ondo ezagutzen ditugunik euskarazko bidaia-liburu zein kronikak. Agustin Anabitartek 1961ean *Aprika-ko basamortuan* liburua argitaratu zuenean (Anabitarte 1961), Mitxelenak euskaldun bidaiarien saio polit bat egin zuen *Egan* aldizkarian, Anabitarteren liburu-erreseinan (1962: 312-313). Hala ere Anabitarteren uste ustel bat bere egiten du donostiarrak idatzi zuen bidaia-liburua euskaraz lehena zela uste zuenean. Honelaxe dio, hitzez hitz, Agustin Anabitartek: “Nere ustez, auxe da lenbiziko biaje liburua euskeraz idatzia”. Uste hau Mitxelenak bere egiten duenean, euskal bidaia-liburuen errealitatetik urruti zebilen (1962: 312). Zergatik? Anabitarteren bidaia-liburua baino lehen, lauzpabost euskarazko bidaia-liburu behintzat argitaraturik baitzeuden.

Uste dugunez, euskarazko bidaia-libururik zaharrenetakoak Martin Ducq hazpandarrak, Elorrioko Jon Izurrategi erretoreak, Jean Etxepare aldudarrak eta Martin Duhour hazpandarrak idatziak dira. Hiru hauen artean zaharrena, 1891koa, Martin Ducq hazpandarrak argitaratua da. Izenburu osoa hauxe da: *Erroma eta Jerusalem Martin Ducq aphezak egina*.

Hona zenbait xehetasun liburu horien gainean. Ezer gutxi dakigu Martin Ducqez eta haren liburuaz. Martin Ducq liburu bakarreko egi-

lea da. Liburuak Jean-Pierre Arbelbide (1841-1905) apez idazlearen sarrera labur bat darama, eta ezer gutxi dio sarreran⁽¹⁴⁾. Bestetan hitzaurre luzeak eginzalea bazen ere, gure hazpandarraren gainean ez du argibide handirik ematen.

Martin Ducqen liburuak batik bat kronika-liburutik badu ere, badu, era berean, bidaia-liburutik. Liburuaren idaztancerari ohartzeko biderik argigarriena lehen kapituluaren hasiera ematea dela deritzogu. Hona hemen:

Juan ginen Martzeilatik Erromarat. Uste nuen ez nuela khausituko ene bidean lorerik baizik; bainan laster ohartu nintzen elhorriak edo basateak ere bazirela. Ene penarik handienak untzian hasi dira eta untzian akhabatu. Untziko ikhustekoa! Gutiz gehienak han, barnea eritua, lehertuak ari ziren jan edan guzien aurthikitzen; eta ezbalitz ichtant hartako desarranjamendua baizik! Bainan han zen oraino ondoko egunetan ere aisia eskas bat: jateko gogorik ez; gure ohetarat juaiten baginen, han hain hertchiki gutarik bakhotchka, non ple-gatuak bezala baikinen, aire beharretan, eta ezin aski aire izan! Ai! Ameriketarat juaiten direnek balakite zer behar den pairatu untzian, ez laitezke hola juan Ameriketarat fortuna egiteko, ustez eta, aski dela han agertzea. Ai! Gaicho Eskualdunak! Gero balute hunateko pasaiaren saria, bainan ezin izanez itzultzeko despendioentzat, han daude hanitzak! Erran gabe uzten ditut untziko lanjerak: su lotzen balako untziari eta auzoetarat ezin oiuhu egin! Han behar erre!

Edo bi untzik elgar jaiten badute, artetan, gerthatua dela, irakurtzen dugun bezala, eta tcharrenak amor! Urus bertze untzirat phasatzen ahal bada! Menturaz bi untziak chehatuak! Ai! Ongi pagatzen baitute gure Amerikanok Ameriketarat juaitea! Hitzemaiten daizkote holako edo halako abantailak, bainan hanitzetan, elheak dira horiek eta ez obrak.

Martin Ducqek pluraleko lehen pertsonan kontatzen duen bidaia era sarkor eta barnakor batean egina dago. Hona adibide bezala aurreko pasartearen segida:

⁽¹⁴⁾ Orrialde eta erdi ez du hitzaurreak. Bukaeran izenpea "Arbelbide apezha" da. Sarreraren buruan zehaztasun hau dator: "Aita Arbelbide Hazparneko misionesten buruzagiaren baimena".

Erromarat heltzea.

Bi egunen buruan, Erroman ginen. Ai Erroma! Hiri maitea! Aita Sainduaren egon lekhua! Erroma, gu guzien Hiria! Erroman, etchean gira. Erroman sarthu eta, eguerdi ganean, eman nuen meza Erromako katedralean, Jondoni Joani Laterangoko elizan. Zer urustasuna, ordu arte barur egona, Meza saindua eman ahal izaita Sakramendu Sainduaren aldare eder, aberats eta buruzagian!

Martin Ducq apezaren liburu honek argitalpen bakarra izan du, guk dakigula, 1891n, eta gure euskal literatura aztertzen duten liburu kano-nikoetan inork gutxik aipatzen du. Luis Villasantek *Historia de la literatura vasca* liburuaren bigarren agerraldian honelaxe dio (Villasante 1979: 220): “Martin Ducq, sacerdote, es autor de *Erroma eta Jerusalem*”. Martin Ducqek idatzitako liburua ez da lan ttipi eta hutsal bat, 442 orrialde ederretan Erroma eta Jerusalemara egindako erromesaldia kontatzen duen lan eder bat baino.

Jon Izurrategik (1863-1938), 1923an, *Jerusalen osterean semeak amari* argi-tara eman zuen (Izurrategi 1923)⁽¹⁵⁾. Ez dut uste liburu hau, gure artean, guztiz ezaguna denik. Luis Villasantek, esaterako, ez du aipatzen bere *Historia de la literatura vasca* lanean. Liburu honen berezitasun interesgarrietako bat estilo epistolarrean idatzia egotea da. Lau urte lehenago, 1919an, Azkuek *Ardi galdua* eleberria ere estilo epistolarrean idatzia zuen. Jon Izurrategiren lanean narratzaileak amari, lehen pertsonan, bidaia kontatuz, egunean-egunean idazten dizkio eskutitzak. Lehena, Bartzelonatik; hirugarrena, Nazaretetik eta abar. Liburua bidaia kontatzen duten 46 eskutitzez osatzen da. Jon Izurrategik kontatzen duenez, Jerusalemara egindako erro-mesaldia testigantza bat da, benetakoa. Hona hemen zehaztasuna:

Idazki onek benetakuak dira, 1905-ga en urtian Luiki Deunera egindako ibil-kundian, “Idazki Ereduk” idazten dauzanak bere amari egindakuak.

⁽¹⁵⁾ Harrigarria bada ere hiru izenburu desberdin datoz liburu honetan bertan. 1. Azalean edo aurrealdean: *Izurrategi Abadia Jerusalem'go osteran Amari idazkijak*. 2. Bigarren orrian: *Jerusalen-osterako idazkiak*. 3. orrian: *Jerusalen osterean Semeak Amari*. Hiru modu hauetatik Jon Bilbaok bere Bibliografia nagusian aukeraturakoa hirugarrena da. Ibon Sarasolaren edizioan, ordea, liburuaren aurrealdekoa dator: *Jerusalen-go Osteran amari idazkijak*.

Harrigarriena, ordea, beste zerbait da. Jerusalemera egindako bidaiak bukatzen denean “Idazki-ereduak” izeneko eranskin batean bidaiarekin inolako zerikusirik ez duten 44 eskutitz agertzea.

Hirugarren liburua *Berebitez* bidaiakronika da. Jean Etxeparen Bidegorri (1877-1935) mediku idazleak *Gure Herria* aldizkarian, atalka, 1929-1930-1931 urteetan argitaratu zituen bidaiakronikak. Bidaiakronikok liburura ekarri ziren 1931n. Urte berean, beraz, bi bidaiakronika argitaratu zituen Baionako Imprimerie La Presse argitaldaria: Jean Etxepareren *Berebitez* eta Pierre Duhour hazpandarraren *Erromako itzulia*. Itxurari dagokionez ere, ia berdinak dira: letra molde bera, apaingarri berak... Liburu bietako kronikak, bestalde, lehenago atalka emanak ziren aldizkarietan.

Puntu honetara ekarri ditugun lehen bi liburuk erromesaldi-kronikak dira; hirugarrena, beribilean, egun bakar batean, egindako bidaiak batena, apur bat beilatik ere izan dezakeena, bi kotxetan zazpi lagun Kanbotik Gipuzkoako Loiolara joan baitziren. Honelaxe hasten da *Berebitez* liburua:

Agorrilaren lehen asteazken-goiz batez abiatu ginen beraz Cambotik zazpi lagun, —hiru gizon eta lau andre, bi beribil atherbedunetan,— aratsean berean gibelerat sartzeko chedearekin, Loyolako ikusgarri omen-handikoez begiak betherik.

Gerla-aintzinean lauzpabortz aldiz mendiez-haraindiko eskualdetan ibilia nintzelakotz, zoin urthez ez nakike orai chuchen, — lehen beribilean jarrarazi ninduten bidearen erakusle, jabe gidariaren eskuinetarik. Aro ederra ginuen. Gu abiatu orduko, iguzkiak suntsitua zuen lurraren sapak gauaz airatu langarra; zerua gora zagon, urdin zuhail; bazterrak ederki argitzen zuen, beroa sartzan zitzaiolarik eztiki gain-behera; lanhoetarik chumeena uda minaren indarrak harrotzen zuen, eta bero erroen gainean lerdentzen.

Bidaiak egun bakarrekoa izan zen, autoreak dioenez, 357 kilometrokoa, Kanbotik abiatu ziren eta herri berera itzuli ziren, egun berean, zazpi lagun, bi beribiletan, 1928ko abuztuko lehen asteazkenean. Bidaiaren jomuga Azpeitiko Loiola izan zen. Bidaiaren ibilbidea, joanera eta etorrerakoa, bat bera ez zenez gero, liburuaren hasieran mapa

batean markatua dago. Hurrengo urtean, 1929an, Jose Maria Agirre *Lizardi* idazleak ere egun bateko bidaiaren berri eman zuen lan zoragarri batean, *Donapaleu'ra joan-etorria* izenburuko bidaia-kontakizunean. Bidaia hau ere, Jean Etxeparerena bezalaxe, egun bakarrekoa eta kotxean egin izan zen (itxurak direnez, bi kotxetan). Lizardirekin batera kotxean doan “Uitzi” ezizenez aipatzen duena ez da besterik Nikolas Ormaetxea *Orix*e euskal idazlea baino. Bidaia honetan goizean abiatu ziren Gipuzkoatik Nafarroa Behereko Donapaleurantz eta iluntzean itzuli ziren.

Jean Etxepareren literaturak azken hamarkadetan gora handia hartu du. Guztiz aipagarriak dira Pierre Xarritonek egindako bilduma-lanak, bost liburutan Etxepareren lan sakabanatu gehienak —*Eskualduna*, *Gure Herria* eta abarretako lan barreiatuak— biltzeko ahalegin handia egin zuelako. Jean Etxepareren obra bi tesitan behintzat aztertua dago. Tesietako bat, Jean Casenavek *Buruchkak* liburua aztertuz egindakoa da (Casenave 1997), eta bestea Aitor Ortiz de Pinedok *Beribilez* liburuari eskainia. Lan monografiko sendo eta sakonak hainbat ikertzailek egin dituzte Aldudeko medikuaren gainean, besteak beste, Kepa Altonagak eta Sebastian Garzia Trujillok.

Jean Etxepareren *Beribilez* bidaia-liburua atsegina, bizkorra, egiazko idazle baten lan umotua da. Gure Jean Elissaldek liburu hau miresten zuen, hona beronen hitzak (Elissalde 1955: 281):

Bainan horiek guzien gatik Jean Etcheparek bere denbora guzian egin duen lanik handiena, lanik aberatsena “Beribilez” derizan liburua da, ene arabera bederen. Duela zenbait ilabete, P. Arradoy idazleak “Kattalinen Gogoetak” argitaratu dauzku luma ederrenaz, urhezko luma batez. Liburutto bat orok atsegin handienarekin irakurtzen dutena, liburutto bat behin irakurtzen hasi eta bururaino irakurtu gabe utz ez ditakena. Bada atsegin berarekin irakurtzen dut urthean bizpahiruetan “Beribilez”. Bertzerik egin ez balu ere Jean Etchepare mirikuak, ez zuen ebatsiko egungo gorespena. Segur

Gure Elissaldek Jean Etxepare idazle handitzat zuen, eta haren lan guztien artean batez ere *Beribilez* bidaia-liburua, goiko pasartean ikusi



Ezkerrerengo kapela eta sudurpekoarekin Jean Etxepare medikua. Eskubiko eskuan liburua duen apez sotanaduna Jean Elissalde “Zerbitzari”.

dugunez. Pentsatzekoa da, beraz, bidaia-kontakizunak maite izatea, bi behintzat berak luma dotorez ondu baitzituen.

8.7. Bidaia-kronikak beila-kronika direnean

Bidaia-kroniken artean badago azpigenero bat, erromesaldi-kronikak edo beila-kronikak. Kristauen erromesaldi-kronikek jomuga desberdinak izan ohi dituzte. Frantzian, esaterako, Betharram, Lurdes edo Lisieux, eta Frantziatik kanpora ezagunenak Erroma, Jerusalem edo Loreto izan ohi dira. Beila egiten dutenen artean, beilari bat izan ohi da kronikaria. Ezagutzen dudan euskaraz kontatutako beila zaharrena Gratian Adema “Zaldubi” (1828-1907) senpertarraren *1875an Jubilau urthe saindian Bazco biharamun eta hirugarrenean Lourdesen eta Betharramen Escual herri-*

tic pelegrin cirenen orboitzapena liburukoa da. Hona laugarren atalean datozen beilako zehaztasun zenbait:

Cer orhoitceco egunak guretzat. Bazco astelehen-astearte hec!

Lourdesen guinen hamar bat mila pelegrin, Baionaco diocesaren bazter guzieta-ric harat bilduac... denac guizonac... erdiac edo guehiago Escualdunac [...]. Halaric ere, bazter urrunenetic, Aldudetic, Urepeletic, Eztenguibeletic, Larrainetic, Santangractic, hamarca, hogoica, ehunca guizonac atheratcen dire... eta cer guizonac!

Iceustecoac ciren bidean zohatcila, nor nahiren bichtan Fedecac hein bat gora copeta altcharazten ciotela, beren kurutce gorriac papoan, arrosarioac escuan, eta hainitzac, hamar, hogoi lekuen eguiteco oinez. [...]

Lehenic lau lerrotan abiatu guinen garatic. Hola lucegui heldu celacotz, eman guinen sei lerrotan, eta halere ez askiz, azkenecotz metan eta sorkhan⁽¹⁶⁾ bezala, hantche guinohacin othoitcean eta canta errepicaz. Mariaren loriac bakho-tchac gure lenguaia berecian ceruetan gora altchatuz.

Pasarte honetan argiro ikusten denez, Zaldubi idazleak erromesaldi baten kronika egin zuen. Grazian Adema “Zaldubi” bera hamar mila erromesen arteko bat izan zen, eta testigantza zuzenetik datorren erromesaldiaren kronika zuzena idatzi ez balu, ez genuke euskaraz garai hartako erromesaldiaren testigantzarik izango. Erromesaldi-kronika, beraz, gehienetan, testigu zuzena izan zen erromes batek kontatua izan ohi da.

Normala den bezala, ezagutzen ditugun erromesaldi-kronika guztiak elizgizonek egindako kronikak izan ohi dira. Txomin Agirre (1864-1920) idazleak *Joan etorri bat Erromara* erromesaldi-narrazioa idatzi zuen. Erromesaldi-kronika horietako gehienak atalka emanak izan dira. Eta horietako gutxi batzuk gerora liburu bihurtu dira. Txomin Agirrek atalka *Euskal Erria* aldizkarian, 1892. eta 1893. urteetan zein *Euskalzale* aldizkarian, 1899. urtean, “Joan etorri bat Erromara” beila-kronika argitaratu zuen. Txomin Agirrereren beila-kronika hau Larramendiren hiztegiko neologismoz hornituegia ez balego, gure ustez, askoz ederragoa litzateke (Agirre 1892).

⁽¹⁶⁾ Liburuan *sorkham* dator.

Goraxeago esan dugun bezala, Pierre Duhour (1890-1965) beraskoiztarrak atalka argitaratu zuen *Gure Herria* zein *Eskualduna* aldizkarietan, 1930ean, Erromara egindako beila. Atal hauek guztiek, hurrengo urtean, 1931n, ikusi zuten argia *Erromako itzulia* izeneko liburu apainean (Duhour 1931). Liburu horretako bi pasarte erabiliko ditu gure Elissaldek bere *Erromarat* kronika osatzeko. Pierre Duhour ez zen apezka, laikoa baizik. Lanbide zenbait izan bazituen ere, marinelgoa izan zen bere ogibiderik ezagunena, hamabost urtez itsasoak hausten ibili baitzen (Lafitte 1965).

Beste bidaia-kronika bat, beila-kronikatik ere zerbait baduena, Julia Gabilondo “Maite” (1902-1994) idazleak, 1933ko udaberrian, apirilaren 29tik maiatzaren 2ra, egina da. Bidaia-kronika hau *Euzkadi* egunkarian, urte berean, sei ataletan eman zen argitara. Bidaia honen zehaztasunak eta bidaiaren kronika osoa Iñaki Sarriugartek eman zituen (Sarriugarte 2017: 28):

[...] 1933ko udaberrian, apirilaren 29an, Bilboko Euzko Gazteriak antolatutako txangoan, 303 euskaltzale abiatu ziren Bidebarrieta kaletik, hamar autobusetan —*tarrantak* orduko euskara garbizalean—, lau eguneko itzuli bat egiteko Euskal Herriko zazpi herrialdeetan barrena. Lourdes herriraino ere heldu ziren, eta bertan igaro zuten hiru gauetariko bat.

Euskaltzale multzo horretan, Julia Gabilondo izeneko neska mungiar bat doa, orduko euskal prentsan bere artikuluak sinatzeko *Maite* ezizena erabiltzen zuena. Bidaia 1933ko apirilaren 29tik maiatzaren 2ra luzatu zen, eta Maitek maiatzaren 6an sinatzen du bere lehenengo kronika, baina hilaren 11n argitaratu zen. Seigarrena eta azkena, aldiz, maiatzaren 31n argitaratu zuen.

Xabier Diharce “Iratzeder” (1920-2008) fraide beneditar eta euskaltzainak bidaia-kronika bat idatzi zuen *Lur sainduan hamar egunez beilari* izenburukoa. Bidaia-kronika baino gehiago, pasarte solte batzuen zerrenda dirudi, gerora idazketa apainago batean baliatzeko hartua. Oharrak hamar egunetan hartuak daude, apirilaren hamabostetik hogeita seira. Bidaia-liburuan ez ditugu hainbat zertzelada aurkitzen: zein urtetan egina den, nondik abiatzen den bidaia... (Diharce 2000). Zertzelada gehiagokoa da Iratzederren beraren *Hamazazpi hilabete Afrikako bihotzean* (1987-1988) liburua (Diharce 1991).

Beste erromesaldi-kronika gutxi ezagutu bat Luis Villasantek zortzi ataletan *Aranzazu* aldizkarian eman zuen argitara: *Kristoren lurraldera erromes*. Erromesaldi-kronika hau 1966an martxoaren 30etik apirilaren 11-12ra artekoa izan zen. Erromesaldi honen kronika bi modutara ematen da. Lehen zatiko atalak, kronologikoki, bidaiaren egunei dagozkie; bigarren zatiko atalak, Jerusalemeko eliza, leku eta abarrei.

Luis Baraizarrak *Karmel* aldizkarian bi bidaia-kronika baditu. Bata Lisieuxera egina, eta, bestea, erromesaldi-kronikatik gehiago duena, Lur Santuetara egina (Baraiazarra 1997). Bigarrenaren izenburuak Luis Villasanteren izenburuaren antzekoa da: *Lur santuetara erromes* (Baraiazarra, 2007).

8.8. Jean Elissalderen Erromarat beila-kronikaren zehaztasunak

Jean Elissalderen *Erromarat* erromesaldi-kronikaren lehen atala 1956. urtean, maiatzaren 17an, *Herria* astekarian, 301. zenbakian, argitaratu zen. Aurreko zenbakian, maiatzaren 10ekoan, *Beilari* izengoitiko idazle batek —beilan izan zen beilarietarik bat izan zela bakarrik dakigu— hurrengo zenbakian etorriko zen bidaia-kronikaren aurrerapena eman zuen artikuluko batean (Beilari 1956). Hona hemen artikuluko lehen hitzak:

Loyolako Iñaki gure herritar saindu handiaren heriotzearen 400garren urteburukari, baten beila Erromarat abiatua, eskualdunentzat, Narbaitz bikari jeneral eskualdunak sustaturik.

Zenbait bidaiaren sariak izitu dituela, ez dira bada lotsatu han ziren 7 Armen-dariztarrak, 8 Irisartarrak, Mauletar edo Ezpeletar dotzena. Orotarat 200ez goiti baginen. Batzuek lehen aldia ginuen, bertzek bigarren edo hirugarren aldia. Nehork naski ez dugu dolurik itzulua eginik.

Berriak cheheki emanen dituzke ondoko aldietan⁽¹⁷⁾, gurekin ginuen idazle bikainak, nik bakarrik bi solas, larri larria, emaiten dauzkitzuet egun.

⁽¹⁷⁾ H. Berriak cheheki emanen dituzke. Ondoko aldietan. Lerrokada honen hasierako puntuazioa aldatu dugu bakar-bakarrik.

Lehenik, aro alde ginuela erranen dautzuet, nahiz azken egunetan euria ukan dugun. Gero otelak, treinak eta otobuzak (eta zer otobuzak!) oro ontsa joan zaizkigu. Berrehun lagun elgarrekin ezartzen dituzularik 15 egunez, badukezu beti, mirakuluz kanpo, nor edo nor laguna jasangaitz daukanik, bera delarik jasangaitzena; holakoetan du bakotchak bere barneko berri emaiten, bainan aldi huntan, baitzen beti norbait arregura ttipien haizatzaile, eta baitzen bertzalde beti, begien aintzinean begiak eta gogoak har ahala, ez gira ohartu ere izan ditakenetz gutartean deus itzalik.

Beilari idazleak aurreratzean duen berri honetan “idazle bikain” baten misterioa artikulua azpian, lauki baten barruan, datorrenak berria salatzen du: “heldu den astean Zerbitzari-ren artikulua: “Erromarat”. Erromesaldi-kronika *Herria* astekariko bost zenbakitan eman zen, eta zenbaki bakoitzean bi orrialde desberdinetan. Guztira, beraz, bost aldizkari-zenbakitan eta hamar ataletan eman zen. Erromesaldia 1956ko apirilaren 17tik 29ra izan zen, eta kronikaren argitalpena maiatzaren 17tik ekainaren 21era. Bidaia bukatu eta bost hilabete eta zazpi egunera, urte bereko urriaren 7an, bidaian agintzen den “Donaitiko gaztain-festa” ospatu zen. Jean Elissaldek “gaztain-festa” horren berri eman zuen irailaren 13an (Elissalde 1956b). Guk berri hori ere bidaia-kronikaren ondoren jarriko dugu Elissalderen artikulua izenburu berarekin: “Erromako beilarieri”.

Jean Elissalderen lorategi honetan *Erromarat* testua, gainerako testuak bezalaxe, ahalik eta modurik fidelenean emango dugu. Hitzen bat aldatu badugu inprenta-hutsen bategatik, oin-oharrear jarriko dugu *Herria* aldizkarian nola datorren. Eman dezagun kasu bakar bat. Elissalderen testuan beti agertzen da *gaztea*, *gazteak* eta abar. Hala ere *Charritton jaun aphez gaztiak* irakurtzen da behin. Guk testuan *gazteak* jarri badugu ere, hitz honen oin-oharrear *Herria* astekarian datorrena adieraziko dugu: *H. gaztiak*.

9. Etienne Pellot itsasturiaren menturak euskaraz

Jean Elissaldek *Étienne Pellot* kontakizunean euskaldun itsasturi baten bizitza baino gehiago itsas-ohoin baten itsasoko balentriak kontatzen ditu. Kontakizuna hezur-haragizko euskaldun baten mentura harrigarrietan oinarritua dago. Egiatzko euskaldun menturari hori Etienne Pellot-Montvieux (1765-1856) itsasturi hendaiarra izan zen. Gure ustez, Jean Elissalderen antologia honetan ezin zuen huts egin euskarazko kontakizun eder honek.

Jean Elissaldek bere kontakizuna argitaratu baino lehen Erramun Oihenartek, euskaraz, 1930. urtean, *Gure Herria* aldizkarian, “Pellot Hendayarra” izenburuko kontakizun ederra eman zuen argitara (Oihenarte 1930). Beharbada kontakizun honek bultzaturik moldatuko zuen, zazpi urte geroago, Elissaldek berea. Euskaldunen artean itsas-ohoinak mugalde bietan izan ditugun arren, ez dituzte euskaraz, guk dakigula, euskal idazleek kontagaitzat hartu.

Euskaldun Itsas-ohoin guztien artean famatuena, beharbada, Etienne Pellot hendaiarra izan zen. Itsasgizon honen menturak kontatzeko, euskal idazleek ere erdara erabili izan dute. Jean Duvoisinek, geroxeago ikusiko dugunez, frantsesez idatzi zuen liburu bat (Duvoisin 1856) eta Aingeru Irigaray euskaltzainak gaztelaniaz saio txiki bat (Irigaray 1971).

9.1. Jean Duvoisinin frantsesezko testua eta Elissalderen euskarazkoa

Jean Duvoisinek frantsesez bi aldiz atalka argitara eman zuen Etienne Pelloten bizitza garaiko egunkarietan; bigarren aldia *Le Courrier de Bayonne* egunkarian izan zen (Duvoisin: 1856, VIII):

Il y a dix ans que nous avons publié la biographie d'Etienne Pellot, de Hendaye: nous l'avions confiée aux colonnes d'un journal. Ephémère comme tout ce qui ne dure qu'un jour, la feuille volante a disparu avec le tourbillon des

événements. Nous avons cru un instant qu'elle avait entraîné dans sa perte le récit des hauts faits de notre vaillant corsaire, et c'est à grand peine que nous avons retrouvé enfin un seul exemplaire de cette biographie. Nous la publions de nouveau dans le *Courrier de Bayonne*, avec l'espérance qu'elle ne sera pas sans intérêt pour les vrais amis de leur pays et de tout ce qui l'honore.

Pellot itsasturia hil zen urte berean, 1856an, atal guztiak liburu batean bildu zituen: *Le dernier des corsaires ou la vie d'Étienne Pellot-Montvieux, de Hendaye par J. Duvoisin*. Argitaraldi honen bidez, omenaldi bat eginez batera, itsasgizon baten biografia egunkari galkor eta suntsikorretako lerroetatik ateraz liburu baten duintasuna eman nahi izan zion (Duvoisin, 1856, VIII):

Sa vie, que le fer et le feu avaient respectée en cents combats, le temps, que ne respecte rien, vient de l'éteindre à notre grand regret.

Jean Duvoisin (1810-1891) idazlea —anaia zaharragoa zen Cesar Duvoisin (1805-1869) historialaria bezala— bere sorkari literarioak frantsesez argitaratzen hasi zen, eta batez ere Bonaparte printzea ezagutu zuenean pasatu zen euskarazko itzulpenak eta lanak argitaratzera. Hala ere ez zuen inoiz utziko gramatika-lan zein era bateko eta besteko saioak frantsesez argitaratzeari.

Jean Duvoisin idazleak *Le dernier des corsaires* liburuko lehen atalean kontatzen duenez, Etienne Pellot ezagutu zuen eta honek itsasoko menturak kontatu zizkion (Duvoisin 1856: 5):

La famille Pellot conserva avec un soin religieux la médaille d'or qui fut décernée à son chef. Etienne Pellot, qui vivait dans les souvenirs, nos répétait encore dans ses derniers années que, pour développer en lui les sentiments dont les germes étaient héréditaires dans la famille, son père lui rappelait de temps en temps les expéditions lointaines et les combats contre les Anglais;

Duvoisinen liburu honetatik moldatu zuen, itxura guztiak direnez, Jean Elissaldek bere kontakizuna. Hona frogagarritzat Pellot itsasturiaren haurtzaroa kontatzen duten bi pasarte. Duvoisinen lehen kapitulua, frantsesezkoa, ezkerreko zutabearen jarriko dugu eta eskuineko zutabearen Elissalderena. Hona hemen:

Étienne Pellot était bien jeune encore, lorsque son père se perdit dans un naufrage. Dès lors, abandonné à lui-même, se laissant entraîner par sa vivacité naturelle, Étienne fut cité comme l'enfant le plus espiègle et le plus pétulant du village; souvent aussi il fit le désespoir de son curé dans l'église, où il était à l'état de mouvement perpétuel. Et comment aurait-il pu rester recueilli et immobile comme les petits anges de bois doré qui ornaient l'hémicycle du temple?

A cette époque, il existait à Hendaye un fort dont on ne voit plus aujourd'hui que les ruines: la garde en était confiée à une compagnie de vétérans. Les dimanches, Étienne se présentait devant le pont-levis du fort et attendait, pour les suivre à la messe, ces guerriers mutilés, vers lesquels il se sentait entraîné par un penchant irrésistible. Il marchait au pas avec la troupe, au son des tambours et des fanfares; mais à l'église, il fallait prendre place au chœur, au milieu des autres enfants du village. Là il attendait impatiemment l'heure d'élévation, c'est-à-dire l'instant où les tambours battraient aux champs. Le voix sonore du commandant et les éclats de la musique militaire électrisaient son âme. Puis Étienne trépignait jusqu'à la fin de la messe pour avoir le bonheur d'accompagner les soldats à leur rentrée dans le fort.

C'est en une semblable rencontre que le curé, mécontent de son air dissipé, ne se contenta pas de lui infliger un soufflet, il voulut encore le faire chasser de l'église par les bedeaux. (6-7 or.)

Haur hotza zen oraino, aita itsasoan galdu zitzaioarik. Berenaz aski jite bor-thitz eta bihurrikoa, bixtan da ez zuela ondu aitaz gabetzeak. Larderia handia behar dute gisa hortako haurrek. Errana da nihork ez zezakela buru harekin; bere guntzetarik atherarazten zuen bereziki herriko erretor xaharra elizan! Ezin-egona sartua zuen jada. Bainan bihotzak jauzi egiten zion bereziki, nunbeit atabal edo musika zerbeit aditzen zuelarik...

Hain xuxen, denbora hartan, Hendaia-ko gaztelu zaharrean soldadoak baziren eta soldado horiek musika bat aintzinean joaiten ziren igandetako mezarat. Pentsatzeko da ez zela Etienne Pellot baino haur jarraikiagorik soldadoen urhats guzieri. Elizan ere aldarean baino maizago landatzen zituen bere begi bixiak soldado lerroetako bospasei atabal ederretan! Hainbertzetaraino nun igande batez, bizpalau dixiduren ondolik, bi beharrondoko fin bildu baitzitu en dohakabe gaixoak... erretorak emanik!!

Elissalderen kontakizuna Duvoisinen testuaren hitzez hitzeko itzulpena baino gehiago laburpen bat da. Bestela esan, moldaketa bat berak hain ondo ezagutzen zituen euskararen baliabide aberatsak baliatuz.

9.2. *Elissalderen Etienne Pellot kontakizunaren argitalpenak eta iturri nagusiak*

Jean Elissaldek *Étienne Pellot* kontakizuna, gainerako bere kontakizun gehienak bezala, atalka argitaratu zuen *Le Courrier de Bayonne, Biarritz et du Pays Basque* egunkarian. 1937ko azaroaren 27an argitara eman zuen lehen atala, eta azkena 1938ko urtarrilaren 18an. Kontakizun osoa zortzi ataletan argitaratu zen larunbatero *Le Courrier de Bayonne*k eskaintzen zuen euskal orrian. Elissaldek kontakizun hau *A. Itsasmendy* goitizenaekin argitaratu zuen. Atal guztietan *Estienne Pellot* izenburua agertzen bada ere, kontakizunean bertan *Etienne* izena dator, berez behar lukeen *Étienne* beharrean.

Elissalderen kontakizun argitaratu gehienetan —atalka egunkari zein astekarietan argitaratuetan— inprenta-hutsak egon ohi dira. Inprenta hutsak, gainera, era askotakoak izan ohi dira. Guk hemen, adibidez, baten berri emango dugu bakarrik. 1937ko *Le Courrier de Bayonne* testu argitaratuan, esaterako, esaldi hau dator hasiera xamarrean: “Hainbertzetaraino nun igande batez, bizpalau dichiduren ondolik, bi beharrondo fin bildu baitzituen dohakabe gaichoak... erretorak emanik!!”.

Pellot haurrak “erretorak eman zizkion bi beharrondo fin bildu zituen”, hau da, apezak emandako bi belarrondoko (handi) hartu zituen Pellot umeak. Hitza, ordea, ez da argitaratu zen “beharrondo” beste zer-bait baizik: *beharrondoko*. Elissaldek jatorrizko testu argitaratua guraizez ebaki ondoren, kaier bateko orrietan itsatsi zuen, eta *beharrondo* argitaratuaren ondoren, bere eskuz, *-ko* erantsi zion ondoan. Era honetara testua askoz ulergarriagoa da. Beste zenbait kasutan *Le Courrier de Bayonne* egun-

kariko testuko hitz batzuk ezabaturik datoz. Zenbaitetan hitz baten hasiera edo bukaera, eta beste zenbaitetan hitz osoak. Nola bete, beraz, egunkariko hutsarte horiek, beste ale batzuek kontsultatuz? *Le Courier de Bayonne*-ren beraren ale guztietan —guk kontsultatu ahal izan ditugunetan, behintzat, bai— hutsarte berak ikusten ditugu, eta testua ezin osatuz aurkitzen da testu osoa irakurri nahi duenak.

Ez dago, beraz, testu garbia lortu nahi bada, Elissalderen beraren eskuizkribu txukun eta argia baino iturri hoberik. Pellot itsasturiaren kasuan, eskuizkributzat har dezakegun 1937-1938ko testu argitaratua Elissaldek berak eskuzko oharrekin zuzendurik aurkitzeko zoria izan dugu.

Euskaltzaindiko Azkue Bilbioteka eta Artxiboko Elissalderen funtsean, gure kontakizuna “Estienne Pellot” ABA-ZER 2-18, 07 (27-56) argazki edo irudietan dator. Kaier batean jatorrizko edizioako testu argitaratuko 28 zutabeak itsatsirik datoz. Zutabe bakoitza koadernoko plama batean dago itsatsia. Lehen zutabea baino lehen, aurreko orrialdean kontakizunaren izenburua itsatsirik dator. Hasiera-bukaeretakoa plametan, 27an zein 56an, *A. Itsasmendy* goitizena agertzen da.

9.3. Nola izendatu Pellot itsasturiaren kontakizuna?

1937-1938 urteetako *Le Courier de Bayonne* egunkariko edizioan oinarriturik Patri Urkizuk bere web orrian berriro argitaratu du Jean Elissalderen *Étienne Pellot* kontakizuna. Patri Urkizuren edizioak Elissalderen testuaz gainera, sarrera bat darama eta argitaratu zen egunkariko euskal orriko zenbait irudi. Elissalderen kontakizunaren izenburua, ordea, beste era batera dator: *Pellot kortsaria*. Jean Elissaldek bere buruaz hirugarren pertsonan ari denean “Azkaine: Azkaindar idazle zenbeit” lanean bere lanen berri ematen duenean, honelaxe dio (Elissalde 1955: 142):

Aita Dourisboure Bezkoiztar misionest famatuaren liburu bat —*Les Sauvages Banbars*— eskuararat itzuli du, argitaratu *Ama Maria Pasionekoa*, *Kontario Berria*, *Zubur Hitzak*, *Ichtorio Saindua*. Ez dire liburuetan bilduak, bainan astetik asterat egunkarian agertuak: *San Frantses Xabierekoa*, *Theophane Vénard* dohatsua, *Berrogoitahamazazpigarrena Gerlan*, *Pellot itsasturia*, lau liburu handiren geiak.

Jean Elissaldek, beraz, *Pellot itsasturia* izenburua ematen dio. Guk bi izenburuen artean lehen argitalpenean argitaratu zuen izenburu bera ematea erabaki dugu: *Étienne Pellot*.

10. Jean Elissalderen erlijio-lanak eta Théophane Vénard

Prosa erlijiosoan Elissalderen hiru liburu ezagutzen ditugu nagusiki: *Ama Maria Pasionekoa*, 1930ekoa, *Babnar deithu salbaiak*, 1936koa eta *Ichtorio Saindua*. *Testament Zabarra*. *Jesu-Christo*. *Eliza*, 1943koa. Azken bi hauek itzulpenak direla esaten da garbiki liburuaren azalean bertan. Elissalderen prosa erlijioso hau izan liteke balio handien duena. Hona haren mendeurrenean Villasantek idatzi zituen hitzak (1984: 201-202):

Oker ez banaiz, prosazko lanak dira Zerbitzariren obran parterik baliosena. Aita Dourisboure Indotxinako mixiolariaren istorioak kontatzen dituen liburua, Zerbitzari berak erregalatu zidan Gerezietan (*Babnar deithu Salbaiak*. Liburu hau frantsesetik itzulia da, baina zein jator) Berehala igartzen da euskararen jitea eta muina barnetik bereganatuak zituela gure Zerbitzarik.

Théophane Vénarden gaineko bi eskuizkribu ezagutzen ditugu, bat sainduaren bizitza osoari dagokiona eta bestea zati bat hartzen duena. Bi hauek artikulu batean argitaratu bagenituen ere, oraingo lorategi honetan bakarra argitaratuko dugu, bizitza osoari dagokiona. (Kaltzorka 2011). Aurreko lanak itzulpen-moldaketak diren bezala, Théophane Vénarden kontakizunak nonbaitetik hitzez hitz itzuliak baino testu moldatuak ditugu. Elissalde zein obratan oinarritu zen bi bertsio hauek egiteko? F. Trochu-ren *Le bienheureux Théophane Vénard ouvrage couronné par l'Académie Française*, 1929ko edizioan. Gutun laburretako itzulpena,

begi-bistakoa denez, jatorrizko testuari lotuagoa dago gainerako narrazioa baino.

Saindu eta are martiri baten bizitza harrigarria da Jean Elissalde idazten duena. Gaur egungo begiz ikusirik, garai bateko zenbait saindu eta dohatsuren bizitzaren kontaketa sinesgaitz egiten zaigu. Sainduen bizitzetan bizimolde eta gertaera harrigarriak kontatzen dira. Era berean, hainbat kasutan behintzat, sainduen bizitzak kontatzen dituzten liburuek prosa harrigarria eskaintzen dute. F. Trochu hagiografoa ere idazle ona izan zen; eta Théophane Vénarden bizitza kontatu zuenean, Frantziako Akademiak sariztatu egin zuen lana. Nola, beraz, euskaltzain idazle batek nolanhika idatzi saindu eredugarri baten bizimoldea?

Uste dugu, Orixerekin batera, Basilio Joannateguik (1837-1921) idatzi zuen *Sainduen Bizitzea* (Bayona, 1890) euskaraz dugun libururik ederrenetako bat dela. Joannateguiren liburua ipuin labur askoren bilduma zoragarria dela deritzagu, saindu bakoitzaren bizitza ipuin labur bat bezala irakurtzen eta gozatzen dugulako.

Jean Elissalde 1909an apeztu zen, Nay-en, Théophane Vénard dohatsu egin zuten urte berean. 1926an, Zuberoan, Liginagan dago erretore, eta 1932 urtean Gerezieta, Lapurdin. Theophane Venard dohatsuaren idatzia Gerezieta egin zen, alemanak Euskal Herrira sartu ziren urte berean.

10.1. Obar pare bat Théophane Vénarden gainean

Ez da ene asmoa Théophane Vénard martiriaren gaineko xehetasunez janztea puntu hau. Lan horrek nigandik urruti gelditzen den jakituria eskatzen du. Esan dezadan, hala ere, Théophane Vénarden izena eza-guna egiten zitzaidala. Izan ere, *Teresa Lisieux-koa Idazlan Guztiak* liburua bururen buru irakurri behar izan nuen 1996. urtean, argitaratu baino lehen, liburuko euskararen irizpideak bateratzeko; eta liburu honetan

behin baino gehiagotan agertzen zen Théophane Vénard dohatsuaren aipamena. Frantziako bizitza erlijiosoan eragin handia izan zuen dohatsu honen bizitzak, Teresa Lisieuxkoaren idatzietan agertzen denez.

Théophane Vénarden bizitza (1829-1861) Charles Cornay (1809-1837) martiriaren oso antzekoa zen. Théophane Vénardek zortzi urte zituela hil zuten, ekialdean, Charles Cornay. Bederatzi urte zituenerako Charles Cornayren bizitza irakurri eta saildu egiteko gogo bizia hartu zuen Théophane Vénardek. Saildu askoren bizitzetan bezala, Théophane Vénardek umezaroan hartutako erabakia azken muturreraino eraman zuen. Gaur egungo begiz ikusirik harrigarri egiten zaizkigu era honetako argitasun eta segurantziak. Harrigarri egiten zaigu gure martiriak zerutikako aitzinari bat izan eta saildutasuneko bidean hain urrats sendoak ematea. Erran gabe doa, bide batez, Balentin Berriotxoaren ere garaitu berekoa dela: jaio eta hil modu bertsuan eta garai bertsuan egin zuten. Balentin Berriotxoaren bi urte gazteagoa zen (1827-1861), baina urte berean eta modu berean hil zuten. Garai hartan misionestak oinazeturik hil ohi zituzten Tonkin alde hartan. Théophane Vénarden jarra alai eta sailduak mira sortu zuen bere inguruan eta ez zuten, beste misionest asko bezala, oinazetu. Erran gabe doa borroko hordiarene gertaera latzak nornahiren ileak lazteko adinakoak direla.

Balentin Berriotxoaren 1988an, ekainaren 19an, santutu zuten, gure Theophane Venard bezalaxe. Otsailaren biam ospatzen da bi misionest martiri hauen eguna.

10.2. Théophane Vénard eskuidatziaren ezaugarriak

Jean Elissaldekin bi dokumentu ditu *Théophane Vénard* dohatsua izenburua dutenak. Bi dokumentu hauekin letra argiz daude idatzirik. Eskuidatziak ez dute testua iluntzen edo zailtzen duten zirriborrorik. Bi dokumentu hauekin Jean Théophane Vénard (1829-1861) dohatsu frantsesaren gai-

nekoak dira. Euskaraz idazteko orduan, gorde behar ote dira zorioneko tilet horiek? Lehen dokumentuan, *Theophane Vénard dohatsua* dator, deiturak tileta duela, eta, bigarrenean, tiletik gabe: *Theophane Venard dohatsua*.

Lehen dokumentuak duen izenburu osoa *Baionako diosesako katichima eta Theophane Vénard dohatsua* da. Dokumentu hau Pierre Lafittek utzia da Baionako Museo edo Erakustokian⁽¹⁸⁾. Data ere badakigu: 1965eko ekainaren hogeita bian, Elissalde hil eta laugarren urtera. Dokumentu edo agiri honek Ms 65. 4 du signatura. Dokumentu honetako bigarren zatian dator Théophane Vénarden gaineko idatzia. Lehena katixima bat dugu. Kaier eskuidatzi hau zenbakiturik dago. Zenbakiak eskuinaldeko orrialdeek bakar-bakarrik dituzte. Bigarren dokumentu honetako zenbakiak eskuinaldeko plaman bakarrik daude. Orotara 103. zenbakitik 112. zenbakira arteko plamak hartzen ditu dohatsuaren kontakizunak. Plamak, ordea, gehiago dira, hogeit guttura. Kaierearen azalean zein Théophane Vénarden kontakizunaren ondoren, Elissalderen izen-deiturak eta izenpea datoz. Dokumentu honetako atalak zenbaki erromatarrez agertzen dira. Zortzi atal orotara.

Bigarren dokumentua, beste kaier edo koaderno batean idatzia dago. Eskuidatzi honek duen signatura Ms. 76 da. Kaier hau egoera txarragotan dago. Eskuidatzien berri ematen duen inbentario-kaierean “Cahier en mauvais état” dakar. Kaier honen azalean txapeldun pilotari bat agertzen da, frontoian pilota-jokoan, eskuineko eskuan xistera bat duela. Kaiereko azaleko pilotaria Jean Elissalde pilotazalearen erakusgarri ttipi eta polit bat da. Kaier honetan eskuineko plaman bakarrik idatzi zuen Jean Elissaldek. Zenbakiak ere eskuinaldean daude bakarrik. Orotara, hogeita hamaika orrialdetan idatzia dago. Kaier honetako bi orrialde

⁽¹⁸⁾ Dokumentu hau, ordea, *Diccionario Retana de autoridades de la lengua vasca* hiztegirako ez zen erabili. Hiztegiaren egileak Manuel de la Sota, Pierre Lafitte eta Lino Akesolo izan ziren. Jean Elissalde (Zerbitzari) lapurtarraren hiru lan erabili zituzten: *Aita P. Dourisburek egina “Babnar deithu Salbaiak”*, Jean Elissalde apezak eskuararatua. Bayonne, 1936; *Atsotitzak, zubur-bitz eta erran-zahar*. Baionan, 1936, eta *Kantari Berria*, Baionan, 1920.

falta dira, ordea. Testua laugarren orrialdetik aurrera gordetzen da. Azalaren ondorengo orrialdean *Theophane Venard* dobatsua dakar zeharretara idatzia, azpian izenpea duela. Testu hau ez dago aurrekoa bezala zenbaki erromatarretan ataldu edo zatitua. Testu honetako atalak, zenbakiak izan beharrean, hitzak dira. Hona atalen izenburuak: “Parisen”, “Tonkinen”, “Gerla girichtinoeri”, “Soldadoen aztaparretan”, “Hiltzerat kondenatua”, “Presondegitik” eta “Martir”.

Izenburu hauek, jakina, aurreko zenbaki erromatarrei dagozkie. Bigarren zenbakia “Parisen” da, hirugarrena “Tonkinen”, laugarrena “Gerla girichtinoeri” eta abar. Bigarren eskuidatzi honek, beraz, lehen atala falta du. Bi kaieretan Jean Elissalderen idazkera zaindu eta argia dator. Idazle ximen eta arretatsuaren dokumentu apartak dira bi-biak. Bigarren dokumentu eskuidatzi honetako testua eta lehengo dokumentukoa ez dira guztiz berdinak. Lehen atala falta duen bigarren eskuidatzi hau ez dugu gure antologia honetara ekarri, baina beste lan batean argitaratu genuen (Kaltzakorta 2011).

11. *San Frantses Xabier* lanaren gainean

Jean Elissalderen testuen arteko testurik ezezagunetako bat *San Frantses Xabier* da. Lan hau atalka *Eskualduna* astekarian argitaratu zen 1930eko hamarkadan hamazazpi emanalditan. Jatorrizko lehen argitalpenetik hamazazpi emanaldietako testuak bildu ondoren, argitalpeneko hutsak jatorrizko eskuizkribuarekin erkatu eta zuzendu ditugu. Jatorrizko dokumentua, Jean Elissalderen eskutikakoa, Lafitte euskaltzainaren bilduman aurkitzen da⁽¹⁹⁾. Uste dugunez, Jean Elissaldek eskuizkribua Pierre Lafitteri eman zion, eta, honek, atalka, *Eskualduna* astekarian eman zuen argitara. Atalkako argitalpena gure anaiarteko gerra garaian

⁽¹⁹⁾ Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka eta Artxiboan (Lafitte Kutxa 322-159).

(1937ko Gabon egunean hasi eta 1939. urteko urtarrilera arte⁽²⁰⁾) argitaratu zen.

Jon Bilbaoren bibliografia famatuan, esaterako, ez dator lan honen aipamenik. Michel Jean Joseph Labegueriek 1961. urtean *Gure Herria* aldizkarian egin zuen hilberrian *San Frantses* itzulpen baten berri ematen du. Honelaxe dio hitzez hitz (Labeguerie 1961: 121):

Erdararik eskuaralat itzuli ditu “Ictorio Saindua”, “Katichima”, “Ama Maria Pasionekoa”, “San Frantses” eta ixtorioa, “Bahnar deitu salbaiak” Aita Dou-
risboure-n liburua eta bertze.

Piarres Larzabalek Euskaltzaindian Jean Elissalderen lekua bete zue-
nean ere aipatzen du *San Frantses* lana. Hona hemen aipamena (Larzabal:
1963: 330):

(Elissaldek) Argitaratu dituen lan ezagutenak dira: *Ama Maria Pasionekoa*
(1930), frantsesetik itzulia; *Babnar deithu salbaiak* (1936), Dourisboure, Bez-
koiztar misionestaren frantses obra, eskuaraz apailatua, *Atsotitz, zuhur hitz eta*
erran zabar (1936), liburuxka, *Ictorio saindua* (1943), *San Frantses Xabierekoa*.

Aipamen honetan Piarres Larzabalek ez du gure obraren argitaratze-
data ematen, eta, uste dugunez, ezagutu ere ez zuen egingo. Ez dugu
inongo iturritan aurkitu nun dagoen gure lana argitaraturik. Lehen aha-
legina, beraz, *Eskualduna* astekarian testua bilatzea izan zen eta hurrengo
transkribatzea.

12. Euskal pilota eta pilotarien gainean hitz bat

Iparraldeko tradizioan pilotaren munduak ibilbide handi eta abera-
tsa izan du. Hemeretzigarren mendetik beretik hasita pilotari olerkariak

⁽²⁰⁾ *Eskualduna* astekariko zenbaki hauetan aurkitzen da Elissalderen *San Frantses Xabier* lana: 1937-12-
24, 1938-01-07, 1938-02-4, 1938-02-18, 1938-03-04, 1938-03-18, 1938-10-14, 1938-10-28,
1938-11-4, 1938-11-11, 1938-12-2, 1938-12-16, 1938-12-30, 1939-01-13 eta 1939-01-27.
Hemen hamabost erreferentzia ematen ditugu, *Eskualduna* astekaria osorik ez baitugu inon aurkitu.

izan ditugu. Léon Elissamburu bera olerkari, pilotari eta guarda izan zen. Jean Duvoisin ere pilotazalea zela pentsatzeko arrazoi bat baino gehiago ditugu, 1887ko *Eskualduna* lanean, Euskal Herria eta Paris erkatzen dituenean, euskaldunen pilotaren apologia sutua egiten baitu (Duvoisin: 1887):

Parisen badituzte bestak? Bai guk ere, eta gure eliza bestek ez dute heiner zorrik deusere. Bego Eskual Herria bere pilota partidekin. Bakarrik munduan, emaiten du choragarriko besta hori. Pilota partida! Eskualdunak choilki konpreni dezake zer su, zer gar, pilota partida batek ezartzen duen bihotzean. Ah! ez da gero nornahi pilotari! Behar da hartako, zain, begi eta zango. Bakarrak dira gizonak hirur abantail horiek dituztenak, eta Eskual Herrikan kanpo, batere ez da. Bota pilota, eta errefera: armatik bala doan bezala, chichtrotik partitu da plaza zolaraino; abiatu deneko, ikusi du gibelesko partidak, jujatu norako den, eta bi jauziz jarri, pilotari buruz; chichtro puntan artu eta igorri du partitu den tokira, chimichta bezain laster. Zer ukaldiak, zer besoak, zer esku zartak! Zer saltoak! Biba, biba pilotariak!; Eskual Herriko ohoria ziezte. Biba Larrondo, biba Chillar, biba Yatsa, biba zu Berterretche zure eskuko jo ikaragarriarekin. Biba zuek guziak aipatzen ez zaituztedanak, bainan berdin amodio merezi duzuenak, izan zaitezte beti pilotari hazkar eta zuzen. Ez da Parisen zuek bezalakorik.⁽²¹⁾

Iparraldeko aldizkarietan pilotak eta pilotariak sekulako inportantzia hartu ohi dute. Apezek ere euskal pilotaren gainean idazten dute, eta askotan apezak berak ere pilotariak izan ohi dira. Edmond Blazy —Jean Elissalderen laguna eta Mexikora egindako bidaiari bidaide izan zena— *Gure Herria* aldizkariaren lehen zuzendaria izan zen eta Uztaritzeko erretorea. Edmond Blazyk, euskaraz ondo bazekien ere, frantsesez idatzi zuen pilotaren gainean. Emile Larre euskaltzainak apez pilotarien mundua ondo ezagutzen zuen, eta bere azken artikuluetako baten izenburuak apez pilotarien berri ematen du: “50 bat apez pilotari” (Larre 2008).

⁽²¹⁾ Testu eder hau *Euskal Erria* aldizkarian argitaratu zen 1887. urtean J. P. Duvoisin (1810-1890) bizi zela. Duvoisinen jatorrizko ortografia aldatu dagoenez gero, jatorrizkotik hurbilago dagoen ortografiara itzultzen saiatu gara.

12.1. Jean Elissalde, pilota eta pilotarien gainean axolatua

Jean Elissaldek bizitza osoan erabili zituen gai guztien artean batez ere euskal pilota-jokoa da gairik ugari eta maitatuena. Pilotarien famialiko zen Jean Elissalde. Azkaineko pilotarien gainean mintzatzen denean, bere aita Ganich inoiz Azkainen izan den pilotaririk hoberena dela dio. Hona Elissalderen hitzak:

Huna orai *Ganich*, egundaino Azkainen izatu den pilotari hoberena, eskuz, eskularruz eta xixteraz bardin trebe baitzen. Oraino bizi da Ganich, lauetan hogoi urthetarat doala, eta segur bekundea belztuko du, norbeitek haren espantuak hemen egin dituela heltzen bazaio beharrietarat, bainan egiak behar du bere bidea. Doala, beraz, egia hori, semearen ahotik⁽²²⁾, Eskual Herriko lau hegaletarat...

Aita ez ezik, osaba ere pilotaria zuen, eta berak ere pilotan maiz jokatzeko ohitura zuen. Euskaraz pilotaren gainean beharbada gehien idatzi duen idazlea Elissalde dugu. Pilota zein pilotarien gainean idazten ez badu ere, maiz lerratzen zaio luma pilota-mundura.

Ez du gure idazlearen lumak pilota-kontuetan gainerako gaietako distirarik. Gure ustez, batez ere prosazko kontakizun luzeak sorkaririk eder eta baliotsuenak badira ere, joera nagusia, ordea, pilota eta pilotarien gainean idaztekoa du.

Jean Elissalderen lehen idatzieta euskal pilota-jokoari zion maitasuna garbiki erakusten du, 1914ko Gerla Handian, sutokitik bidaltzen dituen kroniketan, euskal soldaduek zuten kanturako eta pilotarako zaletasuna garbiki goratuz. Berak ere euskal soldaduekin batera pilotan aritzea maite zuen. *Eskualduna* eta *Eskualdun Ona* astekarietan pilotaren gainean idatzi zuen. *Eskualduna* astekarian “Zer eta Zer” izeneko sailaren arduraduna izan zen, eta pilotaren gainean artikulua ugari idatzi zituen.

⁽²²⁾ Autorearen oharra: “Ganichen semea da egun lerro hauk “Gure Herriari” igortzen dituen Azkaindarra. Barkatuko diote orok etcheko berriak hoin luzeki ematea...”.

1921ean, *Gure Herria* aldizkaria sortu zenean, hainbat idazlek idatzi zuten euskaraz eta frantsesez pilota eta pilotarien gainean. Euskaraz aurkitu dugun lehen artikulua luzea “Sempertar hiru pilotari” izeneko da, 1921eko urrian J. B. Zokorrondok argitaratua. Aldizkariaren lehen urtean bertan Jean Elissaldek eta Luis Dassancek “Erreboteko jokoak” izenburuarekin bost atal argitaratu zituzten (Elissalde, J. eta Dassance, L. 1921). Elissaldek, 1924an, “Oraiko pilotariak” izenburu nagusiaren azpian ezagutu zituen pilotarien berri eman nahi izan zuen artikulua monografikoetan. Artikulu horiek sail trinko bat osatzen dutenez gero, antologia honetan pilotarien berri ematen dituzten artikulua ordena berean eman nahi izan ditugu. Bukatzeko “Pilota Azkainen” eta “Pilota Uztaritzen” saioak sartzea erabaki dugu.

Zalantza bat baino gehiago izan ditugu gure asmoa portu onera eramateko. *Jean Elissalde, Zerbitzari* edo *Azkaindarra* bezala izenpeturik dauden artikuluek, jakina, ez digute inolako zalantzarik sortu. Beste zenbait goitizenekin dudak izan gara. *Haizbelar* izenburuarekin pilotariak protagonista dituen bi artikulua eman ziren 1925. urtean. Horiek gure Zerbitzariarenak ote dira? 1925. urtean “Pilota Uztaritzen” “Otsolarreko artzaina” izengoitiarekin argitaratu zen artikulua, Jon Bilbaoren bibliografiaren arabera, Elissalderen da. Jean Elissalderen da urte berean argitaratu emandako “Pilota Azkainen” lana, “Azkaindarra” izengoitiarekin izenpetzen baitu. Ez dugu sartu, era berean, Mayi Elissaguen idatzi eta Jean Elissaldek euskarara itzulitako “Pilotari chaharra” 1928. urteko artikulua. 1931n “Edouard Arrayet” pilotariaren gainean “Norbeit” izengoitiarekin sinatzen duena *Zerbitzari* gure idazleak izan behar duenez gero, gure sailean sartu dugu.

Jean Elissaldek *Gure Almanaka* aldizkarian ere hainbat artikulua idatzi zituen pilotaren gainean. Elissalderen lan hauek denak liburu batean bildu behar lirerateke. Hau ez da gure ideia, Elissalderen berarena baizik. Gure esanaren lekuko, hona hemen zer dioen Elissaldek berak (Elissalde: 1955: 142):

Eta ez othe litake liburu bat egin, Urchalle, Bittor Embil, Enrique Embil, Bautista, Perkain, Azantza, Matin, Chilar, Larralde, Ziki, Cantabria, Errezabal, Soudre-Goñi, Piztia, Portejo, Léon Dongaitz, Arce, Behachka, Harambillet aita, Pouchant, Darraïdou, Harambillet semea, Saint-Martin, Ibarburu, Aguer, Inazio, Durrutz, Damestoy, Laduche, Vivier, Jean Urruty, eta Eskual-Herrian izen bat bazuten bertze pilotari guziekin? Eta, espanturik gabe erraiteko, iduritzen zauku horiek guti direla hogoita bortz urthez Zerbitzarik egin dituen bi lanen aldean: Mendiburutegiko egutegia eta Eskualzaleen Biltzarreko sariketak.

Pilotaren gaineko artikulu gehienak batez ere *Eskualduna*, *Eskualdunona*, *Gure Herria* eta *Gure Almanaka* astekari eta aldizkarietan sakabanatuak daude. Lan hauek denak biltzeak badu beste arazo bat: gehienak izen-goitiz izenpeturik daudenez gero, ez da erraza bilketa zehatz bat egitea. Guk geure antologia honetan *Gure Herria* aldizkarikoak hartu ditugu.

13. Bost artikulu eta zortzi ipuin

Jean Elissalderen antologia giltzatzeko bost artikulu eta zortzi ipuin aukeratu ditugu. Artikuluetatik zein ipuinetatik askoz gehiago aukera zitezkeen arren, hamahiru ale gure Azkaineko idazlearen izpirituen adierazgarri egokiak direla iruditu zaigu.

Bost artikuluaren artean hiru Iparraldeko hiru idazleri eskainiak dira. Lehena, Axularri; bigarrena, adiskide eta gerran kronikari bera bezala ibili zen Jean Saint-Pierre idazleari; hirugarrena, Jean Etchepare mediku idazleari. Hirurak izan ziren idazle handi, eta Jean Elissaldek maite zituen, eskaini zizkien artikulu ederrak ongi erakusten dutenez. Axular idazleari eskainitako artikulua 1943an eman zen argitara —Axularren *Gero* liburuaren argitalpenaren hirugarren mendeurrenean— Bigarren Mundu Gerran, Iparraldea alemanen menpean zegoela. Garai hura hobeto ulertzeko *Saltsa-Maltsa* eskuizkributik “Alemanak” testua irakurtzeak argi handia egiten du. Garai hartan —salbuespen gutxi batzuk salbu— euskal autoreen gaineko ikerketa sakonik ez zenean, orduko

euskaltzale eta ikertzaileek zenbaki polit bat eskaini zioten Sarako erre-tore eta idazle handiari.

Azken bi lanak 1927ko "Euskaltzaindia" artikulua eta "Alemanak" ditugu. "Euskaltzaindia" izenburuko artikulua gainean hitz egin dugu hitzaurre honetan bertan, eta, horrexegatik, besteak beste direla, merezi zuen gure antologia honetan lekua izatea. Elissalde "Alemanak" artikuluan Bigarren Mundu Gerran alemanak Azkainen nola sartu ziren kontatzen digu. 14ko Gerra Handian soldadu izan zirenentzat ezin zitekeen gertaera erdiragarriagorik izan alemanak hogeita bi urte geroa-go Frantzian sartzea baino.

Aukeratutako zortzi ipuinak "Lurtchuri" izengoiz Gure Herria aldizkarian argitaratu ziren. Elissalde istorio-kontalari trebea zen, eta gure ustez maila askoz handiagoa dute istorio luzeak, idatzi zituen izki-rimiri itxurako istorio laburrek baino. Istorio labur horiek "Artho chu-ritzetan" bezalako lanetan aurki litzake irakurleak.

Herré qui da hanik ikusgarri horrek Zibarré baino, gehiago epiplante duenik. Han da karririk etche zahar letro eder harrekin, han lasse-hegia ehan untai peltakén, han elize gurea qube lura, han Bordasaineko 'bicha' choragykria, han ere lehen komunioa unikiagoriana kantu zaharretzeko; P'hesta eder huanatari. Ikusgarri hori vermapo Ekualdunak s'el se khana ehoherretzeko eginu baita eta maitatuzeko, bai-nan ez baita Ekuararik qube Ekual-Herririk, zertan ethe 'dugu Zibarré' ikuseno mintzat 'z' gaztchiko eta biphherretatu harri buruz? Ez kein quizek 'erria' udan harat bilhen di-

eta s'el ikusgarri horrek eta sariok: René Lavillard, 200 liberra; Agustin Gacil, 150; Martin Guzman, 100; Michel Miura, 50; Joseph Uribereu, 50. Ohoareko aipamenak Martin Comau, Jean-Baptiste Mekuru, eta René Larramendy. Ez, ez da Ekuarua gelduko Amintaratu herrera. Muthik-rik bawela nekotekhek ere moiti izatukotan... erpinen eta be hantzen or'k'ituzkoek utziarik. Bawela jaunak!

Jeanne - Marie Carricabauri. Ahauruko, kukuakua !!!

Huna Elissalde (Zer-bitzari) jaun apheza lan guzien jujatzale gochoa, bestaberriketari batekin guri beha .

ANGELU

Ekual Herria da Angelu Ebaschko daukete esurrik Kano'n k, bainan Ekualdun bokhar zenbeit berelen ba ditro eraino komentuko inga ruetan, eta pinotiek etche, quietara ez bada, zen beitelan. Ekuarua bokharit-otaino. Gusa Ekual-Herriko nechko frango komentuko ikastetxetan bawehila: Stella Maris eta Noviciat 'E'ase Cos tuz delakotara bereteki. Han-rik ekuarua ditua aurtien hirur lantio polit, Marie Larregain, Agnes Nebila eta Co-berine Nebila Ekuaridunok direla ehoheretik. Gure ditro zainak iparriko ditro ehan li beza haketehari, eadoko eru- neta, mesai dala iri polit tenateteki.

Aldude erran behar otho ghuiko, aita Aldude. Demba-za baita Echeperre jaun mit-ku eskualdelek * Aldude' s'arretan zuen. Georges Lar-zombek hula eadiki miatso dela erarik. Aldude * alta bidetik * heldu dela, hestari- rari zan jaun mitku, eta- erarik ez d'aua * Aldude' erarik takuri, ohariz ez de- a'ko era, g'itxiki horra- s'akotatzen! Hoz' ez zan et- och h'itko jankituan kan- tr'isuen elchabazo, nahasa- zaititi erran. E'ezaguen- z'auka! I Herria zan erarik- ditro or'ek, Aldudarrak aita Aldudarrak?

Nola nabi, horra Ekualdun- bilzarrek nolapait tenkar- ga! behar lekun gura i Bona- rik bertze, hor'eko erik' erret- s'karitza aurtien gure s'ar- r'abai dituzten muthik, nabi- rik. Hana z'ab'it'it'io tenek- eta sariok: Henri Chebaron, 250 liberra; Evelyn Goyene- che, 200; Jean Lavignac, 150; Marcel Larreaux, 100; Anna- Marie Echeperre, 50. Ohoare- ko aipamenak Bernardette Be- le, Françoise Erromaspe, Joannette Erromaspe eta Jean- Anny Larramendy, 150; Pierre Larramendy, 100; Thé- fèse Cornu, Michel Echeberré eta Lucie Ledoux, 50 haket- ch'au. Oth'it'it'io aipamenak Catherine Comau, Anais Par- netche eta Irène Echebati, hor, Henri !!!

Jean Elissalde "Zerbitzari" zahartzaroan, Eskualzaileen Biltzarreko umeen idazlan-sariketako jule eta boz eramaile izan zen.

14. Edizio honetako irizpideak eta aldaketak

Lan egiteko gure sistema hona hitz bitan adierazia. Antologia honetarako aukeratu ditugun Elissalderen testu guztiak lehen iturburuan dauden bezalaxe transkribatu ditugu. Transkripzio hau, Elissaldek erabiltzen zuen esapide bat erabiltzeko, “mila artharekin” egin dugu, behin ere lerratzeko arriskutik aldendu nahiz. Ahal izanez gero, iturburua eskuizkribua izan da, eta, eskuizkriburik ezean, lehen argitaraldiko testua. Testu hauetako hiru, jatorrizko ortografia aldatu gabe Elissaldek idatzi zituen bezalaxe, hiru artikulutan eman ditugu. Lehena, Théophane Vénard dohatsuarena da (Kaltzakorta 2011); bigarrena, “San Franses Xabier” sainduari eskainia (Kaltzakorta 2019), eta hirugarrena, *Erromarat* bidaiakronika (Kaltzakorta 2021).

Gure antologia honetarako, Elissalderen testu aukeratuak gaurko ortografia sistemara egokitu beharra zegoen. Nola jokatu, ordea? Gure edizio honetarako ispilu eta eredutzat batez ere Piarres Charrittonen argitara emandako Jean Etxepareren zein Jean Saint-Pierre apezpikuaren testu gaurkotuak erabili ditugu, eta Xabier Altzibarren bi edizio: Ernest Daudeten *Amodioaren martirra. Dolores, emazte bat berthutez bethea* eta *Ni kazetaregilea naiz*, Jean Hiriart-Urrutiren *Eskualduna* astekariko testuen antologia. Testu hauetako guztietako irizpideak guztiz ontzat ematen baditugu ere, guk geurean jatorrizko testuko ortografiari orpoz orpoago jarraitzea erabaki dugu. Gure helburu nagusia jatorrizko testua ahalik eta fidelen transkribatzea izan da. Hala ere zenbait aldaketa txiki egitera beharturik aurkitu gara.

14.1. Elissaldek zenbait hitz, oso gutxi, bi edo modu gehiagotara darabiltza. Hitz horiek bateratzen ahalegindu gara. Modu bitara behintzat erabiltzen ditu *alaman/aleman*, *garratoin/arratoin*, *elkar/elgar*, *unkitu/bunkitu*, *apez/aphez*, *hilabete/ ilhabete/ ilhabethe*; *ekarri/ekbarri*... Elissaldek batez ere 1914ko lehen kroniketan *alaman/aleman* hitzak, biak, erabiltzen ditu bere kroniketan. Gerra aurrera doan heinean, *aleman* gehiagotan erabiliko

du. Gure bateratzea *alaman* gehienak *aleman* bihurtzea izan da. Era berean, *garratoin/arratoin* hitzen artean *arratoin* hobetsi dugu. *Elkar/elgar* hitzetan lehena da ugariagoa. Lehen kroniketan batez ere *unkitu* badarabil ere, gerora *bunkitu* formaren alde egiten du. Guk denak *bunkitu* transkribatu ditugu.

14.2. Hitzen formari gagozkiola hartutako erabakiak:

1. Euskaldunen pertsona-izen eta deiturak —batez ere euskaldun pilotarien kroniketan datozenak— gaurko erara ekartzea ezinkizun gertatu zaigu. Frantses izen-deitura guztiak, gerrako aitzindari zein saildu-izenak Elissaldek darabiltzan bezalaxe jarri ditugu.

2. Hilabeteen izenak letra larriz dakartza Elissaldek. Guk, gaur egungo usadioaren arabera, minuskulaz jarri ditugu.

3. Era berean, antroponimoak ere minuskulaz eman ditugu: *Aleman, Angles, Indiano, Frantses, Rusiano, Belgikano* minuskulaz jarri ditugu: *aleman, angles, indiano, frantses, rusiano, belgikano*. Era berean, euskal antroponimoekin ere berdin jokatu dugu: Euskaldun, Azpandar, Aldudar, Milafrangar, Azkaindar bezalakoetan *euskaldun, azpandar, aldudar, milafrangar, azkaindar* jarri ditugu.

14.3. Grafiari dagokionez, hona zenbait irizpide:

1. Iparraldeko tradizioko *lh-*, *nh-*, *rh-*, multzoak beti kontserbatu ditugu: *albatu, bilba, bilbatu, elbe, elbasturi, elbur, ilbun, zalbutasun, zelhai, zilhar; anbartean, ainboar, inbarrosi, lanbo, mainbartu, mainbo, minbartu, sinbetsi, unbatu; erhautsi, erhaztun, erbotu, garbaitu, orhoitu, orhoitzapen, sorhopil*.

2. Iparraldeko tradizioko *kh-*, *ph-* eta *th-* multzoak beti kontserbatu ditugu: *akhabo, akhabatu, akhabantza, bakbar, bakbarrik, ekbarri, gakhoa, ikharagarri, kbendu, lakbet, makbur, okber, ukban, ukbo egin, zikbin, zikbindu; Aphairu, aiphatu, aiphu, aphal, aphez, aphiril, bipher, biphil, dorphe, ephe, ephel, epheldu, epher, biphildu, iphurdi, lepbo, opbil, phago, pherekatu, zilipburdikatu; arthatu, eri-arthazaille, artho, athe, atheraldi, atheratu, aithortu, atherbe, bethe, bethi, bethikotz, ethorri, ethorki guthun, gathe, gathu, gertbatu, gotbor, itbo, lotbu, muthiko, muthurzuri, othe, othoi, ottoitz, urthe,*

urtharrila, urthats. Hala ere, Elissaldek ez du beti legea betetzen, eta hitz bera bi erataria idatz dezake: *ukho* eta *uko*, *ikharagarri* eta *ikaragarri*, *mutbiko* eta *mutiko*.

3. Hitzetako *ch* guztiak dauden-daudenean transkribatu ditugu: *bau-che, chede, chimichta, herrichka, kechuchko, lerrochka, adichkide, chabar, chardin, chutik, chutitu, choko, adichkide, chuchen, etchola, choroa, berrichka*.

4. Era berean *tch* guztiak ere dauden-daudenean utzi ditugu: *altchatu, atchiki, bakotchka, hantche, etche, etchola*.

5. *-tz* multzoak ondoren kontsonante bat duenean *-z* bihurtu dugu: *bihotzmin, bihotzdun, latzgarri, hortzdun, bortzgarren bezalako hitzak bihozmin, bihozdun, lazgarri, horzdun, borzgarren bihurtu ditugu*.

6. *-mb/-mp > -nb/-np*: *dembora, sempertar, alambre, kamporat, kompainia* hitzak *denbora, senpertar, alanbre, kanporat, konpainia* transkribatu ditugu.

14.4. Marratxoaren erabilerari dagokionez:

1. Lehen hitza errepikatzen denean marratxoa jarri dugu: *alde-aldean, berri-berritan, emeki-emeki, hola-hola, hala-bala, hala-balache, haste-hastetik, ezti-ezti-ki, hein-beinean, gora-gora, ichil-ichila, lerro-lerro*. Berdin jokatu dugu *han-bemen-ka* bezalakoetan.

2. Onomatopeietan hots bera errepikatzen denean marratxoa jarri dugu: *taka-taka, zanpa-zanpa, tapa-tapa, dart-dart, pilisti-palasta, karra-karra*.

3. Onomatopeietan hots bera hiru aldiz errepikatzen denean, Elissaldek bezala, koma bidez berezi ditugu: *far, far, far; charra, charra, charra; bran, bran, bran; tun, tun, tun; fur, fur, fur*.

4. Elissalderen testuetako zenbait marratxo kendu ditugu: *ber-bera, buru-hauste, buruz-buru, gora-behera, hil-berri, hogoi-ta, lur-sagar, noiz-nabi, nor-nabi, norat-nabi, nundik-nabi, sor-herria, phereka-aldi, zer-nabi, zokhoz-zokho hitzak guk beste modu honetara jarri ditugu: buruhauste, buruz buru, hogoita, noiz-nabi, nornabi, noratnabi, nundiknabi sorberria, pherekaldi, zernabi, zokhoz zokho*.

5. Marratxoa kendu dugu arazlea duten aditzetan. Elissalderen testuetako *hurbil-arazi, bigi-arazi, egin-arazi, joan-arazi, ar-arazi* horiek *hurbilarazi, higiarazi, eginarazi, joanarazi, arrarazi* bihurtu ditugu.

6. Marratxoa kendu dugu, era berean, *buruz-buru, parrez-par, gainez-gain* bezalakoetan eta *buruz buru, parrez par, gainez gain* transkribatu ditugu.

7. Zenbait leku-izenetan ere marratxoa kendu dugu: *Eskual-Herria* > *Eskual Herria*, *Eskual-Etchea* > *Eskual Etchea*, *Donibane-Lohitzune* > *Donibane Lohitzune*.

8. Marratxoa mantendu dugu bigarren hitza lehenaren oihartzuna denean: *zoko-moko*.

9. Marratxoa jarri dugu bi zenbaki ematen direnean: *bi-birur, bortz-sei*.

14.5. Hitz solteen eta hitz konposatuen irizpideak:

1. *Bibotz altchagarri, nigar egingarri, lepo zoko* bezalako hitzak gidoi batez bateratu ditugu: *bihotz-altchagarri, nigar-egingarri, lepo-zoko*.

2. Jatorrizko testuan bi hitzetan dauden zenbait bateratu ditugu: *uste gabea* > *uste gabea*, *behar orduan* > *beharrorduan*, *mibi eder* > *mibieder*, *mibi gaichto* > *mibigaichto*, *behar bada* > *behabada*, *muthur zuri* > *muthurzuri*, *hil hotz* > *bilhotz*, *hil gogor* > *hilgogor*.

3. *Hirur ehun, bortz ehun, sei ehun* bezalako zenbakiak elkartu ditugu: *hirurehun, laurehun, bortzehun*.

14.6. Bereiz eman ditugun hitzak:

1. Ezezkako *ez* partikula eta aditz laguntzailea bereizi ditugu. Era honetara, Elissalderen testuetako *etzen, etzuen, etzuten, etzaiote, etzare, etzaude* bereirizik jarri ditugu: *ez zen, ez zuen, ez zuten, ez zaiote, ez zare, ez zaude*.

2. Elissalderen testuetan *balin* partikula aditzari josirik dator, eta guk bereizi egin dugu: *balinbadator* > *balin badator*; *balinbada* > *balin bada*.

3. Elissalderen testuetan *arizan* askotan agertzen da. Guk bi hitzetan jarri dugu: *ari izan*.

14.7. Iparraldeko tradizioko zenbait erabilera gorde ditugu:

1. Ez ditugu bereizi *nabuzu* eta *milesker* bezalako hitzak.

2. Bereizi ditugu *demendren, demendreneko, helduden, ganden* formak *den mendren, den mendreneko, heldu den, gan den* bihurtuz.

3. Iparraldeko tradizioko *gatik* (balio kausalekoa, ez balio kontzesibokoa) eta *gana*, *ganik* postposizioak bereizirik idatzita transkribatu ditugu. Hau da *bat bertzearen ganik*. Beste era batera esateko, *guzien gatik*, *gerlaren gatik* transkribatu dugu, baina balio kontzesiboan ez: *otsoaren abotik izanagatik jan dugu*.

Gure edizioko Jean Elissalderen testuen jatorria

Eskuizkribuak

Liburu honetan transkribatu ditugun Jean Elissalderen eskuizkribuak hiru funtsetan aurkitzen dira. Bi funts Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka eta Artxiboan aurkitzen dira: bat, Piarres Lafitteren funtsa da (ABA-LAF), eta, bestea, Jean Elissalderena (ABA-ZER). Hirugarren funtsa Baionako Euskal Museo edo Erakustokikoa da.

Gure antologia hau osatzeko, Elissalderen bost eskuizkribu baliatu ditugu: “Theophane Venard Dohatsua”, “San Frantses Xabier”, “Berrogoita Hamazazpigarrena Gerlan”, “Etienne Pellot” eta “Alemanak”.

A) “Theophane Venard Dohatsua” kontakizunaren bi aldaerak Baionako Euskal Museoan dira. Elissalderen bi dokumentuak Piarres Lafittek utzi zituen 1965eko ekainaren 22an, Elissalde hil eta lau urtera. Dokumentu batek Ms 65 signatura du eta besteak Ms 76. Argitaratu, *Herria* astekarian 1946ko irailaren 5ean argitaratzen hasi zen, eta 1946ko uztailaren 11n bukatu.

B) “San Frantses Xabier” testuaren eskuizkribu-zirriborroa Elissalderen beraren funtsean dator, ABA-ZER 16 (1-39) (25-39) argazkietan; eskuizkribua osorik, ordea, Pierre Lafitten funtsean, ABA-LAF KUTXA 322, 322-159 (54-111) argazkietan. *Eskualduna* astekarian 1938-1939 urteetan argitaratu zen testua. Lehen emanaldia *Eskualduna* astekarian 1937-12-24an izan zen, eta azkena 1939-1-13an. Gure transkripzio argitaratua Pierre Lafitten funtseko eskuizkribu osoan oinarritu da.

C) “Berrogoita Hamazazpigarrrena Gerlan” eta “Estienne Pellot” kontakizunak Jean Elissaldek kaier bakarrean itsatsi zituen, testu argitaratuen atalak guraizez ebaki eta gero. Bi kontakizun horien izenburuak kaieraren azalean jarri zituen: *Berrogoita Hamazazpigarrrena Gerlan* eta *Estienne Pellot*.

“Berrogoita Hamazazpigarrrena Gerlan” 2. 18. ZER, ABA-ZER 05 (1-42) argazki edo irudia, eta 2. 18. ZER, ABA-ZER 06 (1/18) argazki edo irudia. 1914ko Gerra Handiko kontakizuneko testu eskuizkribatua bi kaieretan banatua dago. Lehen kaieretan, 2. 18. ZER (ABA-ZER 05), lehen hamar kapituluak datoz, eta hurrengo kaieretan, 2. 18 ZER, ABA-ZER 2-18, 06, azken hiru kapituluak. Bi kaier horietako testua letra txukunean idatzia dago. “Berrogoita Hamazazpigarrrena Gerlan” kontakizunaren zirriborroa beste kaier batean aurkitzen da: 2. 18 ZER, ABA-ZER 16 (1/39).

2. 18 ZER, ABA-ZER 05 (1-42) eta ABA-ZER 06 (1/18) dokumentuetako testua *Eskualduna* astekarian 1937. urtean argitaratu zen. Atalez atal argitaratutako artikulua guztiak Jean Elissaldek kaier batean erantsi zituen: ABA-ZER 07.

D) “Estienne Pellot” ABA-ZER 2-18, 07 (27-56) argazki edo irudietan. Kaier batean argitaratutako jatorrizko edizioko 28 zutabeak itsatsirik datoz. Zutabe bakoitza koadernoko plama batean dago itsatsia. Lehen zutabea baino lehen, aurreko orrialdean kontakizunaren izenburua itsatsirik dator. Hasiera-bukaeretakoa plametan, 27an zein 56an, *A. Itsasmendy* goitizena agertzen da. Zenbait zutabetako testua argi ikusten ez denez, Elissaldek bere eskuz zuzendurik dator. Testu argitaratuaren gainean Elissaldek berak egindako eskuzko zuzenketa argigarririk daudenez gero, testu hau ere eskuizkribatutaz hartzen dugu.

E) “Alemanak” in *Saltsa-Maltsa* (kaier eskuidatzia), MS 63.43. 51-52.

Gure edizioko testu argitaratuen bibliografia

1914ko Gerra Handiko kronikak *Eskualduna* astekaritik bilduak daude. Kronika gehien izenburu nagusia *Han-bemenka* da. Guztira 85

gerra-kronika transkribatu ditugu. Kroniken datak kronologikoki emango ditugu: 1914-10-16, 1914-11-06, 1914-12-4; 1915-01-1, 1915-01-15, 1915-01-29, 1915-03-19, 1915-03-26, 1915-04-2, 1915-05-21, 1915-06-4, 1915-09-17, 1915-11-12, 1915-11-19, 1915-12-3, 1915-12-17, 1915-12-24, 1915-12-31; 1916-01-7, 1916-01-21, 1916-02-4, 1916-02-11, 1916-03-10, 1916-03-17, 1916-03-31, 1916-04-14, 1916-04-28, 1916-06-2, 1916-06-9, 1916-06-16, 1916-06-23, 1916-07-7, 1916-07-14, 1916-07-21, 1916-07-28, 1916-08-4, 1916-08-18, 1916-09-1, 1916-09-8, 1916-09-29, 1916-10-6, 1916-10-20, 1916-11-3, 1916-11-24, 1916-12-15, 1916-12-29; 1917-01-12, 1917-01-19, 1917-02-2, 1917-02-16, 1917-02-23, 1917-03-23, 1917-04-6, 1917-05-11, 1917-06-1, 1917-07-6, 1917-07-27, 1917-09-7, 1917-10-12, 1917-10-19, 1917-11-02, 1917-11-23, 1917-12-7; 1918-01-4, 1918-01-18, 1918-02-1, 1918-03-1, 1918-04-12, 1918-04-19, 1918-05-10, 1918-07-12, 1918-07-19, 1918-07-26, 1918-08-9, 1918-08-16, 1918-09-27, 1918-10-18, 1918-09-27, 1918-10-18, 1918-11-5, 1918-11-22; 1919-02-28, 1919-04-11, 1919-04-18, 1919-04-25, 1919-05-16, 1919-05-23.

“Metsikorat”, *Gure Herria*, 1925, V, 53-56, 78-81, 186-190, 250-255, 344-348; 1927, VII, 209-212, 324-327. “Itsas bertzaldean”, *Gure Herria*, 1931, XI, 37-42.

“Erromarat”, *Herria* astekarian 1956. urtean argitaratu zen. Lehen emanaldia maiatzaren 17koa da, 3 eta 4 orriak; maiatzaren 24koa, 2 eta 4 orriak; ekainaren 7koa, 3 eta 4 orriak; ekainaren 14koa, 3 eta 4 orriak; ekainaren 21koa, 3 eta 4 orriak. “Erromako beilarieri”, *Herria*, 1956ko buruilararen 13an.

“Berrogoita Hamazazpigarrena Gerlan”, *Eskualduna* astekarian agertu zen. Lehen emanaldia 1936ko abenduaren 25koa da, eta azkena 1937ko abuztuaren 27koa. Lanaren bukaeran “Gerlari bat/ P. C. C./ Jean Elissalde/ Zerbitzari” izenpe laukoitza dator.

“Estienne Pellot”, *Le Courrier de Bayonne, Biarritz et du Pays Basque* egunkarian, larunbateko euskal orrian argitaratu zen 1937ko azarotik 1938ko urtarrilera. Lehen emanaldia 1937ko azaroaren 27koa da, eta azkena 1938ko urtarrilaren 15ekoa.

“Bost artikulua eta zortzi ipuin” sailekoak:

—, (1943). “Axular”, *Axular 1643-1943, Aintzina* 1943, buruila, 14-18.

—, (1927). “Chichta eta pherekak. Euskaltzaindia”, *Gure Herria* VII, urtharrila, 68-72.

—, (1955). “Etchepare jaun mirikuaren ohoretan”, *Gure Herria* XXVII, buruila-urria, 279-282.

—Zerbitzari, (1930). “Orhoitzapen batzu”, *Eskualduna*, 18 Juillet, 2.

—, (1942?). “Alemanak” in *Saltsa-Maltsa* (kaier eskuidatzia), MS 63.43. 51-52.

Pilotariei buruzko artikulua eta Lurtchuri izengoitz idatzitako ipuinak *Gure Herria* aldizkaritik transkribatuak daude. Horien zehaztasunak Elissalderen beraren bibliografian aurki daitezke. Ez ditugu, bada, erreferentziak lehen puntu honetara ekarri, errepikapenak saihesteko.

Bibliografia orokorra

ABBADIE, Arnaud (1890). *Aphezac soldado*. Bayonne: Imprimerie Lasserre.

“Aphezac soldado”, *Euskera* 1998: 253-261.

— (2011). *Arnaut Abadiaren zoo ilogikoa*. Pamiela.

ADEMA ZALDUBY, Gratien (1875). *1875an Jubilau urthe sainduan Bazco bibaramun eta hirugarrenean Lourdesen eta Betharramen Escual herritik pelegin cirenen orhoitzapena*. Baiona: Lamainère, 1875.

— (1928). “Pilotariak”, *Gure Herria*, 508-512.

AGIRRE, Jose Maria “Lizardi” (1929). “Donapaleu’ra joan-etorria”, *Euskadi* 1929-12-25. “Gipuzkoatik, Donapaleu’ko Joan-Etorria”, *Eskualduna*, 1929-12-27; 1930-1-3.

- AGIRRE, Domingo (1892). “Juan etorri bat Erromara”, *Euskal Herria*, 1892, XXVI, 135-137, 184-185, 205-207, 251-252, 272-274, 394-396, 445-448, 458-464, 553-559; 1892, XXVII, 39-41, 72-76, 104-105; 1893, XXVIII, 237-241, 263-266.
- (1899). “Ioan-etorri bat Erromara”, *Euskalzale*, 1899, III, 90-91, 108-109, 117, 141, 158-159, 175-176, 181-182, 190-191, 203-204, 21-212, 219-220, 231-232, 243-244, 259-261, 267-268, 274-275.
- AKESOLO, Lino (1967). “Escritor vasco muerto en la batalla de Verdun: Clemente de Andurain”, *BRSVAP* 23, 440-443.
- (1985). “Pierre Lafitte il zaigu (1901-1985)”, *Karmel* 1: 30-32.
- (1986). “Aita Donosti-ren omenez”, *Karmel* 2: 23-35.
- (1993). “Aurkezpen gisa”. *Euskaldun batzuen abenturak Madagaskaren*, 9-13.
- ALDEKOA, Iñaki (2004). *Historia de la literatura vasca*. Donostia.
- ALTHABE, Jean Bautiste (1900). *Ciberouko botanika edo lantharen jakitaitia*. Bayonne.
- ALTZIBAR, Xabier (2004). “Hitzaurrea” in *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*. Jean Hiriart Urruti, 19-95.
- “Eskualduna kazeta”, *Euskonews & Media*.
<http://suse00.su.chu.es/eskoneuws/0034zkb/media4301eu.html>
- ANABITARTE, Augustin (1961). *Aprika-ko basamortuan*. Kuliska sorta 49 zenbakia.
- ANONIMO (1947). “Jean-Pierre Iratchet, eta Jean Elissalde kazeta huntako lagun jarraikienetarik biga chapeldun, zoin bere sailean”, *Herria*, 1947-6-12, n° 134. 1 plama.
- ARANBARRI, Iñigo (2003). *Juan Bautista Bilbao “Batxi” (1887-1916)*. Vitoria-Gasteiz. Bidegileak.
- ARBELBIDE, Xipri (2016). *14eko gerla: 14 lekuko*. Baiona: Maiatz.
- ARRADOY, Pierre (1966). *San Frantses Jatsukoa. Biographie basque de St. François de Jaxu de Xavier avec traduction française par l’auteur*. San Sebastian.

- AZPIAZU, José Antonio (2005). *Historias de corsarios vascos. Entre el comercio y la piratería*. Tarttalo estudios.
- (2005). *Nuevas historias de corsarios vascos. Biografías y vivencias*. Tarttalo estudios.
- BARAIAZARRA, Luis “Txarako txoria” (1992). “Melodies basques”, *Karmel* 3: 81-89.
- (1997). “Euskaldunak Lisieux-era”, *Karmel* 2: 94-108.
- (2007). “Lur santuetara erromes”, *Karmel* 4: 80-111.
- BARANDIARAN, José Miguel de (1947). “Leyendas vascas. Versiones y variantes de «Motil bildurgabea» o «Juan sin miedo», *Gernika. Eusko-Jakintza*, I, 189-198.
- (2009). *José Miguel de Barandiaran diario personal. Volumen II (1936-1953). Durante los años de su exilio en el País Vasco continental*. Colección Sara n° 8 tomo II.
- BEILARI (1956). “Erromako itzulia”, *Herria*, maiatzaren 10, 300 zenbakia.
- BIDADOR, Joxemiel (1999). “Pierre Duhour beskoiztarraren lanak Gure Herria-n”, *Euskaldunon Egunkaria*, 1999-2-19.
- (2000). “Bizkaitar bidaiari biz”, *Euskaldunon Egunkaria*, 2000-9-15.
- BIDEGAIN, Eneko (2013). *Leben Mundu Gerra “Eskualduna” astekarian*. Iker 30.
- BIDEGAIN, Eneko & GOSTIN, Andres (2020). ““Eskualduna’ astekariko kideak eta laguntzaileak”, *Euskera* 65, 2: 363-400.
- BILBAO ELGEZABAL, Juan Bautista (1997). *Hau mundu arrano hau*. Koldo Izagirre eta Iñigo Aranbarri (arg.). Susa. Sarean: armiarma.com.
- BUSTINZA, Ebaristo “Kirikiño” (1989). *Guda nagusia 1914-1918*. Aurkezpena eta hitzaurrea Xabier Perea. Bilbo: Labayru.
- CASENAVE, Jon (1997). *De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*. Tèse de Doctorat. Université Michel de Montaigne —Bordeaux III.
- CHARRITON, Piarres (1978). “Pierre Broussain (1859-1920): abertzale bat Iparraldean”, *Jakin* 6: 108-110.

- (1985). *Pierre Broussain, sa contribution aux études basques (1895-1920)*. Bordeaux: CVRS.
- (1987). “Eskualduna-ren mendeurrena Baionan”, *Euskera* 32: 245-252.
- (1988). *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak*. III. Kazetaritza (A) (1903-1915). Donostia: Elkar.
- (1992). *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak*. IV. Kazetaritza (B) (1916-1935). Donostia: Elkar.
- (1994). “Xabier Diharce, Iratzeder”. Manuel Lekuona saria / Prix Manuel Lekuona 1994.
- DARRIGRAND, Pierre (1996). “Contradictions et erreurs sur les exploits du corsaire Pellot”, *Revue d'histoire de Bayonne, du Pays Basque et du Bas-Adour*, 151: 107-116.
- DAUDET, Ernest (2013). *Amodioaren martirra Dolores, emazte bat bertbutez bethea*. Xabier Altzibarren edizioa. Bilbo: Euskaltzaindia.
- DIAZ-NOCI, Javier eta MESO AYERDI, Koldobika (2016). “Manuel Aznar Zubigarayren kazetari-lana: Euzkadi (1913-1918)”. *Mediatika* 15: 141-173.
- DIHARCE, Xabier “Iratzeder” (1991). *Hamazazpi hilabete Afrikako bihotzean (1987-1988)*. Elkar.
- (2000). *Lur Sainduan hamar egunez beilari*. Gero.
- DUCÉRÉ, Edouard (1896). *Le capitaine corsaire Etienne Pellot*. Bayonne.
- DUCQ, Martin (1891). *Erroma eta Jerusalem Martin Ducq aphezak egina*. Baionan Lasserre baithan imprimatua.
- DUHAU, Henri (2007). *Dufau bi anaiak: Dominique 1880-1956, Christophe 1888-1922*. Donostia: Elkar.
- (2009). *Dominique Dufau (1880-1956)*. Bidegileak.
- DUHOUR, Pierre (1926). “Hazpandar pilotariak”, *Gure Herria*, 121-124.
- (1929) (1930) (1931). “Erromako itzulia (I)”, *Eskualduna*, 19-4-1929; (II) 26-4-1929; *Gure Herria*, 1930, X, 200-207, 355-363; 1931, XI, 18-24, 115-120.

- (1931). *Erromako itzulia*. Imprimerie La Presse. Bayonne.
- DUVOISIN, Jean (1841). “Moeurs basques; jeu de paume”, *Album Pyrénéen* II, 334-335.
- (1856). *Le dernier des corsaires ou la vie d'Étienne Pellot-Montvieux, de Hendaye par J. Duvoisin*. Bayonne.
- (1887). “Eskualduna”, *Euskal-Erria* 16: 61-63.
- ELBÉE, Christian (1923). “L'Époque de Gaskoina”, *Gure Herria*, 398-404.
- (1923). “Encore Perkain et Gaskoina”, *Gure Herria*, 546-558.
- ELISSAGUE, Mayi (1928). Elissalderen itzulpena “Pilotari chaharra”, *Gure Herria*, 422-426.
- ELISSALDE, Jean “Zerbitzari” (1908). “Biba Eskualdunak”, *Bertsularien gudua. Atharratzeko Phestetan*. Bayonne.
- Lurtchuri (1921). “Mandozainaren ichtorioa: supazter-chokoan”, *Gure Herria*, 283-287.
- (1922) (1931). “Arto churitzetan”, *Gure Herria*, 1922, 30-33, 204-207, 476-479; 1931, 41-44, 95-99, 165-167, 380-382, 499-502, 672-675.
- (1922). “Alegia”, *Gure Herria*, 530-531.
- Lurtchuri (1922). “Erran zahar bat”, *Gure Herria*, 278-279.
- Lurtchuri (1922). “Ganich artzaina”, *Gure Herria*, 328-338.
- Lurtchuri (1922). “Juan Soldadoren ichtorioa”, *Gure Herria*, 154-158.
- Lurtchuri (1922). “Micheria: supazter chokoan”, *Gure Herria*, 518-521.
- (1922) (1923) (1924). “Hitz zuhurak”, *Gure Herria*, 1922, 280-281; 1923, 295-296, 615-616; 1924, 168, 315.
- (1922) (1924). “Embil”, *Gure Herria*, 1922, 509-511; 1924, 166-168.
- Lurtchuri (1923). “Ondicola eta Lutchoki”, *Gure Herria*, 87-91.
- (1925). “Bichintchoren predikua”, *Gure Herria*, 661-665.

- (1925). “Chilar”, *Gure Herria*, 644-650; 722-725.
- Lurtchuri (1925). “Harrichabalen bezala, bethi”, *Gure Herria*, otsaila, 82-87.
- Lurtchuri (1925). “Harrichabalen hil-harrietan”, *Gure Herria*, martxoa, 125-130.
- (1925) (1927). “Metsikorat”, *Gure Herria*, 1925, V, 53-56, 78-81, 186-190, 250-255, 344-348; 1927, VII, 209-212, 324-327.
- Lurtchuri (1926). “Azkainen”, *Gure Herria*, 606-608, 652-654.
- (1926). “Darraidou”, *Gure Herria*, 438-439.
- (1926) “Eskualzaleen Biltzarra”, *Gure Herria*, 595-597.
- (1926). “Larralde”, *Gure Herria*, 292-297.
- (1926). “Mattin Harambillet”, *Gure Herria*, 681-683.
- (1926). “Porteño”, *Gure Herria*, 200-204.
- (1926). “Sarako Chantrea”, *Gure Herria*, 156-160.
- (1927). “Cantabria”, *Gure Herria*, 423-425.
- (1927). “Chichta eta pherekak. Euskaltzaindia”, *Gure Herria*, 68-72.
- (1927). “Donazaharren”, *Gure Herria*, 529-535.
- (1927). “Errezabal”, *Gure Herria*, 417-419.
- (1927). “Léon Dongaitz”, *Gure Herria*, 175-178.
- Zerbitzari (1927). “Nola ezagut”, *Gure Almanaka*, 53-55.
- (1927). “Piztia”, *Gure Herria*, 374-376.
- (1927). “Soudre-Vasquito”, *Gure Herria*, 271-274.
- (1928). “Chiki”, *Gure Herria*, 91-93.
- (1928). “Pilota Azkainen”, *Gure Herria*, 514-521.
- (1928). “Pilota Uztaritzen”, *Gure Herria*, 139-144.
- (1928). “Pouchant”, *Gure Herria*, 356-358.
- (1930). *Ama Maria Pasionekoa*. Bayonne: La Presse.
- (1931). “Edouard Arrayet”, *Gure Herria*, 510-511.
- (1931). “Euskaltzaindian sartzean Jean Elissalde aphez azkaindarrak egin duen irakurraldia”, *Euskera*, 68-76.
- (1932). “Bi-gogorak”, *Gure Herria*, 301-309.

- Zerbitzari (1933). “Artho churitzetan”, *Gure Almanaka*, 95.
- Zerbitzari (1933). “Artho churitzetan”, *Gure Almanaka*, 100-101.
- (1933). “Barkochtarra zeruan”, *Gure Almanaka*, 23-24.
- (1933) *Eskual egutegia 1933*. Bayonne.
- Zerbitzari (1933). “Pilotaz”, *Gure Almanaka*, 89-91.
- Pilotazalea (1934). “Pilotaz. Gure pilotariak”, *Gure Almanaka*, 79-81. Jean “Pilotazalea”
- Pilotazalea (1934). “Pilotaz. Jats pilotaria”, *Gure Almanaka*, 82-83.
- Pilotazalea (1934). “Pilotaz. Gazteak plazetan”, *Gure Almanaka*, 84.
- Zerbitzari (1935). “Batita zeruan”, *Gure Almanaka*, 35-36.
- Zerbitzari (1935). “Ihiztari ichtorio bat”, *Gure Almanaka*, 39-40.
- Zerbitzari (1935). “Zerbitzari”: “Pello”, *Gure Almanaka*, 92-93.
- Zerbitzari (1935). “Uztaritzen”, *Gure Almanaka*, 113-115.
- (1936). *Atsotitz, zubur-itx eta erran-zabar*. Bayonne: La Presse. (*Gure Herria*, 1936, 113-121, 220-229, 304-311, 413-419; *Gure Herria*, 1938, 95-105).
- Pilotazale (1936). “Pilotaz”, *Gure Almanaka*, 49-51.
- Pilotazale (1937). “Chehetasun batzu pilotaz”, *Gure Almanaka*, 65.
- Zerbitzari (1937). “Karlosen bihotz ona”, *Gure Almanaka*, 109.
- Pilotazale (1937). “Manez ohoina”, *Gure Almanaka*, 7-9.
- Pilotazale (1937). “Pilotazale”: “Pilotaz”, *Gure Almanaka*, 65-66.
- Norbeit (1938). “Han-hemenka”, *Gure Almanaka*, 113-115.
- Pilotazale (1938). “Pilotaz”, *Gure Almanaka*, 101-102.
- Pilotazale (1938). “Pilotaz”, *Gure Almanaka*, 109-111.
- Pilotazale (1939). “Pilotaz”, *Gure Almanaka*, 109-111.
- (1943). “Axular”, *Axular, 1643-1943*. 14-16.
- (1943). *Ichtorio Saindua. Testament Zaharra. Jesu-Christo. Eliza*.
- Pilotazale (1946). “Hoberenak”, *Gure Almanaka*, 31-32.
- Pilotazalea (1946). “Jean eta Désiré Olhasso”, *Gure Almanaka*, 34-35.
- Azkaindarra (1946). “Luis handia”, *Gure Almanaka*, 42.
- Pilotazalea (1946). “Pilotaz”, *Gure Almanaka*, 29-30.

- Azkaindarra (1947). “Bi sasi-miriku”, *Gure Almanaka*, 22-23.
- Zerbitzari (1947). “Japonian”, *Gure Almanaka*, 28-29.
- Pilotazalea (1947). “Jean eta Désiré Olhasso”, *Gure Almanaka*, 34-35.
- Herritar bat (1947). “Martin Hiribarren”, *Gure Almanaka*, 37-39.
- “Pilotazalea” (1951). “Pilota eta pilotariak”, *Gure Herria*, 270-273.
- Pilotazalea (1951). “Pilotaz”, *Gure Almanaka*, 45-46.
- (1952) (1953) (1954) (1956) “Azkaine”, *Gure Herria*, 1952, 229-232, 313-315; 1953, 17-22, 65-68, 165-167, 278-282; 1954, 185-188; 1956, 38-42, 85-88.
- Pilotazalea (1952). “Pilotako chapelgoa 1951-garrenean”, *Gure Almanaka*, 43-45.
- , (1953). “Azkaindarrak”, *Gure Herria*, 223-226.
- (1953). “Han-hemenka”, *Gure Almanaka*, 41-42.
- Zerbitzari (1953). “Kalichtro”, *Gure Almanaka*, 9-10.
- (1954). “Aita Clement Kaputchinoa”, *Gure Herria*, 204-208.
- (1954). “Azkaine. Bethi Larrunen”, *Gure Herria*, 87-90.
- (1954). “Azkaine. Larrunen oraino”, *Gure Herria*, 53-56.
- (1954) “Hirur Chourio”, *Gure Herria*, 306-310.
- (1955). “Azkaine. Azkaindar idazle zenbeit”, *Gure Herria*, 140-144.
- (1955). “Azkaine. Azken hitza aphezez”, *Gure Herria*, 344-346.
- (1955). “Etchepare jaun mirikuaren ohoretan”, *Gure Herria*, XXVII, 279-282.
- (1956) “Bizi eskuara”, *Gure Herria*, 296.
- (1956). “Erromako beilarieri”, *Herria*, buruilaren 13koa, 318 zenbakia.
- (1956). “Erromarat”, *Herria*, maiatzaren 17koa, 3 eta 4 orriak; maiatzaren 24koa, 2 eta 4 orriak; ekainaren 7koa, 3 eta 4 orriak; ekainaren 14koa, 3 eta 4 orriak; ekainaren 21koa, 3 eta 4 orriak.
- (1956) (1957). “Azkaine. Laminak”, *Gure Herria*, 1956, 222-224; 1957, 12-14.
- (1957). “Azkaine. Itzal eta argi zonbeit”, *Gure Herria*, 252-254.

- (1957). “Azkaine. Purruchka batzu”, *Gure Herria*, 85-87.
- (1958). “Azkaine. Azkaindarrak bat”, *Gure Herria*, 135-139.
- (1959). “Euskaltzaindiaren izenean ongi ethorri!”, *Gure Herria*, 207-210.
- (1960). “Erantzuna”, *Euskera*, 19-22.
- Zerbitzari (1960). “Haur ttiki batentzat”, *Gure Almanaka*, 27.
- (1960) “Haurren lana”, *Gure Herria*, 271-272.
- Patri Urkizuren edizioa: *Pellot kortsaria*. <https://patriurkizu.eus>
- ELISSALDE, Jean; DASSANCE, Louis (1921). “Erreboteko jokoak”, *Gure Herria* I, 226-227, 291-296, 357-360, 479-482, 534-536.
- (1923), (1924), (1925), (1926). “Eskual-herriko hegaztinak eta choriak”, *Gure Herria*, 1923, III, 373-380, 414-419, 488-491, 593-597, 757-760; 1924, IV, 96-101, 226-230, 339-344, 410-414, 466-470; 1925, V, 33-35, 95-99, 237-240, 273-277; 1926, VI, 765-766.
- ERWIN KISCH, Egon (2017). *Nada es más asombroso que la verdad. Reportajes y artículos*. Editorial Minúscula.
- (2018). *¡Escribelo, Kisch!* Xordica: Zaragoza.
- ETCHEBERRY, Jean (1882). *Miguel Garicoitz aphezaren bicitcea laburzki, haren cusi Etcheberry aphezac*.
- ETXAMENDI, Manex (2013). *Urruneko mendebaldean artzain*. Baiona: Maiatz.
- ETXEBARRIA, Jose Maria (1995). “Hango eta hemengo bertsoak. J. B. Borthiri-Sala larraintarrak huntü koblak”, *Cuadernos de Sección* 13, Eusko Ikaskuntza, 293-345.
- ETXEPARE, Jean (1984). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak I, euskal gaiak*. P. Charriton apail. Elkar. 386 or.
- (1985). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak II, mediku-solas*. P. Charriton apail. Elkar. 374 or.
- (1988). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak III, kazetari-tza(A) (1903-1935)*. P. Charriton apail. Elkar. 428 or.

- (1992). *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak IV, kazetaritza(B) (1916-1915)*. P. Charriton apail. Elkar. 428 or.
- (1996). *Jean Etxepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak V, euskalerriko bizia (1932-1935)*. P. Charriton apail. Elkar. 216 or.
- EUSKALTZAINDIA (1933). “Euskaltzaindiaren batzar-agiriak”, *Euskera*, 12-25.
- GALLOP, Rodney (1935). “Etienne Pellot: Basque corsaire”, *Blue Peter*, 88-91.
- GARAT, Jacques. (1981). “Le Pays Basque et la guerre de 1914-1918”, *Aburu*, 2. Supplément à Enbata n° 685.
- (1983). “El País Vasco y la guerra de 1914-1918”, *Muga* 25: 62-75.
- GOYHENETXE, Eukeni (1985). *Historia de Iparralde: desde los orígenes a nuestros días*. Donostia: Txertoa.
- HARITSCHELHAR, Jean (1992). “Léon Elissamburu guarda, pilotari, olerkari”, *Euskera* 37: 31-43.
- (2004). *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*. Sarrera eta edizioa Xabier Altzibar Bilbao: Labayru Ikastegia.
- IDIART, Roger (1984). “Zerbitzari’ Jean Elissalderen mendeurrena”, *Euskera* 29: 203-207.
- IRIART, M. (1945). *Corsarios y colonizadores vascos*. Buenos Aires: Ekin.
- IRIGARAY, Fermin “Larreko” (1927). “Euskaltzaindiaz, itz bat”, *Gure Herria*, 183-184.
- IRIGARAY, Aingeru “Apat Echebarne” (1960-1961). “Zerbitzari hilda”, *Egan*, 110-111.
- (1971). “Corsarios y balleneros. Pellot”, *Noticias y viejos textos de la “Lingua Navarrorum”*, 139-152.
- IZURRATEGI, Jon (1923). *Jerusalen osterean semeak amari*. Zornotza: Jaungoiko-Zale’reñ irarkolan.
- J. P. (1916). “Verdun”, *Eskualduna*, 1916ko ekainaren 2a.
- KALTZAKORTA, Jabier (2003). “Sesenta y tres creencias populares recogidas por Jean Elissalde (1883-1961)”. *Etniker* 12: 225-253.

- (2011). “Jean Elissalderen Theophane Venard Dohatsua”. *Litterae Vasconicae-Euskeraren Iker Atalak* 12: 11-59.
- (2012). “Jean Elissalderen *Alemanak*”. *Idatz & Mintz* 53, 20-26.
- (2015). “Jean Elissalderen «Alemanak» testua”, *Erlea* 8: 33-37.
- (2019). “Jean Elissalderen *San Frantses Xabier*”, *Karmel urtarrila-martxo* 2019-1, 305 zenbakia, 3-67.
- (2021). “Jean Elissalderen “Erromarat” bidaia-kronika” *Karmel* 2021-2, 314 zenbakia, 17-68.
- LABÉGUERIE, Michel (1961). “Zerbitzari jaunari. Agur, esker, othoitz”, *Gure Herria*, 120-123.
- LACOMBE, Georges (1930). “L’Abbé Martin Landerreche”, *RIEV*, 652-653.
- (1930). “Académie de Langue Basque”, *Gure Herria*, 469-473.
- (1931). “Jean Elissalde aphez jaunak bere euskaltzain sarreran irakurri zuen itzaldiari, George Lacombe euskaltzain jaunak egin zion erantzuna”, *Euskera*, 68-76.
- LAFITTE, Piarres (1930). “Martin Landerreche apheza”, *Gure Herria*, 69-72.
- (1942). *Le Basque et la littérature d’expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Bayonne. 96 or.
- (1944). “Jean Hiriart-Urruty jaun Kalonje zena (1859-1915)”, *Zer eta Zer Jean Hiriart-Urruty jaun kalonje zenaren hamar bat artikulu, Eskualduna delako kazetan agertuak*. Collection “Aintzina”.
- Ithurralde (1945). *Martuts eta bertze... artho churitzetako zombait ichtorio chabar*, Collection “Aintzina”.
- (1952). “Apez eskualdun batek behar luken kulturaz”, *Gure Herria*, 2: 75-84.
- (1958). “Oxobi hil zaiku”, *Herria*, 1958ko otsailaren 13a.
- (1961). “Jean Elissalde jaun apheza Jainkoak bereganatu”, *Herria*, 11 de mai de 1961, n° 562.
- (1961b). “Jean Elissalde (1883-1961)”, *Euskera*, 345.

- (1963). “P. Laffitte-n ihardespena (Pierre Larzabalen sarrera hitzaldiari)”, *Gure Herria*, 1963-eko abendoa, 332-339.
- (1968). “Pierre Duhour itzali zaiku”, *Herria*, 1968ko urtarrilaren 25a.
- (1971). “Euskal astekarien ixtorioa”, *Gure Herria Almanaka*, 32.
- (1971b). “Jean Hiriart-Urruty et les débuts du journalisme en langue basque”, *Gure Herria XLIII*, 321-338.
- (1974). “Mende huntako euskaldun idazleen pentsa-bideak”, *Gure Herria*, 4, 207-218.
- (1975). “Joanes Chabagno (1881-1975)”, *Euskera XX*, 545-546.
- (1976). “Jean Barbier (1875-1931)”, *Gure Almanaka*, 13-18.
- LARRE, Emile (2008). “50 bat apez pilotari”, *Jean Haritschelbar-i omenaldia*, *Iker* 21: 367-420.
- LARTZABAL, Pierre (1963). “Euskalzaindian sartzeko mintzaldia”, *Gure Herria*, 323-331.
- (1968). “Pierre Duhour (1890-1968)”, *Euskera* 13: 283.
- LIZARTZA, Ritxi (1995). “LVIIa gerlan”, *Argia*, 1995-06-25.
- LUBERRIAGA, André (1984). “Zerbitzari”ren omenaldia”, *Euskera* 29: 197-200.
- LUTCHOKI, Jean Baptiste (1925). “Sabalo, Domingo eta Yatsa”, *Gure Herria*, 504-515.
- MARIE (1923). “Baiona, Lescar eta Oloron’go Jaun Apezpikuaren Letra Semenario ttipi baten egiteaz Uztaritzen”, *Gure Herria*, 643-656.
- MEYER, Jacques (1966). *La vie quotidienne des soldats pendant la Grande Guerre*. Paris: Hachette.
- MITXELENA, Luis (1960). *Historia de la literatura vasca*. Madrid.
- (1962). “Agustin Anabitarte. *Aprika-ko basamortuan*. Kuliska sorta 49’gn. zenbakia. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz’en, 1961”, *Egan* 4-6: 312-313.
- MOULIE, Charles (1932). *Le corsaire Pellot, qui courut pour le Roi, pour la République et pour l’Empereur et qui était Basque*. Paris.

- MUJICA, Gregorio (1914). “La tragedia europea. Los vascos en la guerra”, *Euskalerrriaren Alde* IV, 701, 738, 767; (1915) V, 37, 145, 557.
- OIHENARTE, Erramun (1930). “Pelot Hendayarra”, *Gure Herria* X, 112-116.
- OLABEAGA, Iñaki (1959). “Michel Elizanburu. Anai Inozencio, Salletarra. Bere bizitza eta lanak”, *Egan* 5-6: 142-154.
- RECTORAN, Pierre (1946). *Corsaires basques et bayonnais du XV^e au XIX^e siècle: Pirates. Filibustiers-Boucaniers*. Illustrations de Pablo Tillac. Bayonne.
- REDACCTION GURE HERRIA (1930). “M. l’abbé Jean Elissalde académicien”, *Gure Herria*, 364.
- SAINT-PIERRE, Jean “Anxuberro”, (1922). “Christophe Dufau”, *Gure Herria*, 1922 II, 673-675.
- (1998). *14eko Gerla Handia*. Piarres Xarriton (arg.). Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- SAN MARTIN, Juan (1989). “Euskal idazleen izenordeak, escritores euskéricos catalogoaren arabera”, *Egan* 1-6: 45-57.
- SARASOLA, Ibon, “Jon Izurrategi” (1990). *Jerusalen-go Osteran amari idazkijak*. Euskal Editoreen Elkarte.
- SARRIUGARTE, Iñaki (2017). “Autobusez. Maite idazle mungiarraren kronikak Euskal Herrietatik”, *Karmel*, 28.
- TAUER, Norbert (1961). “Elissalde Jean-en omenez”, *Euzko Deya*, Paris, octobre 1961: 12.
- (1972). “Jean Elissalde apezaren eskutitza (Jean Elizalde)”, *Diario de Navarra*, 1972-1-6. (Norbert Tauerren funtsean, KEH-0470-227).
- VILLASANTE, Luis (1966). “Kristoren lurraldera erromes (1)”, *Aranzazu*, 1966, Junio, n° 439, 164-167; (2): Julio, n° 440, 195-198; (3): Agosto, n° 441, 226-230; (4): Noviembre, n° 444; 328-331; (5) Diciembre, n° 445, 359-361. (1967) “Kristoren lurraldera erromes (6)”, *Aranzazu*, Febrero, n° 447, 36-38; (7): Marzo, n° 448, 74-76; (8): Abril, n° 449, 101-103.

- (1979). *Historia de la literatura vasca* (2 arg.). Editorial Aranzazu.
- (1984). “Jean Elissalde “Zerbitzariren” mendeurrena” 1883-1983, *Euskera* 1984-1: 201-202.
- VINSON, Julien. “Le Basque à Verdun”, *RLPhC XLVIII*, 180-181.
- VOVARD, André (1939). “Pellet ou le Corsaire et sa légende”, *Bulletin de Géographie Historique et Descriptive* LIV, 117-125.
- (1939) (1940) (1941). “Les marins du Pays Basque sous la Révolution et le Premier Empire”, *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres, Arts et d’Etudes Régionales de Bayonne* 1939, [LX], 23-45; 1940, [LXI], 63-74; 1941, [LXII], 38-46.
- ZAVALA, Antonio (1959). “Bertsolariak eta Europako Lenengo Gerratea (1914). Gure erriaren literaturaren erakusbide”. *Euskera* 4: 183-206.
- ZUBIRI, Enrike “Manezaundi” (1990). *Artikulu bilduma*. (Rosa Miren Pagolaren edizioa). Bilbo: Labayru.

GERRAKO KRONIKAK

1914-10-16

Frantzian, gerla tokitik

Jaun kazeta egilea,

Huna, nahi baduzu, *Eskualdunarentzat*, gerlaz bi lerro. Kazeta egileak eta gerlariak ez dituzte naski gauzak begi beraz ikusten; nik ikusten ditudan bezala ontsa bazauzkitzu, *Eskualdun*⁽¹⁾ maitean ezarriko ditutzu, bertzenaz, bota surat.

Guzieri hemen, hauche zauku: gerlak hainitz irauten duela. Zoin gure etchetarik, Baionako, Tarbeko eta Bordeleko kazernetan sartu ginelarik, iduri zitzaukun zortzi edo berantenaz hamabortz egunen buruko, berriz etchean ginela, etsaiak erhautsirik. Bainan aleman⁽²⁾ horiek gerlari gaitzak dire; ez dute amor eman nahi horren laster. Haste hartan, bortizki jazarri zitzauzkigun, gure lagunetarik frango hilez eta hainitz kolpatuz. Ustegabea, Belgikako lurak iraganik, Pariserat hurbilduak ginituen. Bainan laster iratzarri ginen, frantsesak. Lothu gu ere karraskan, errabia bihotzean, hek garhaitu nahiz. Hor ditugu orai gure aintzinean, zenbeit ehun metretan, bainan *Parisetik*. . . *urrun* on bazaiote.

Ah, zer tiroak hartzen dituzten, egunaz kanoietarik, gauaz zizpetarik. Milaka eta milaka hitzen ditugu; ez nahi bezenbat halere. Badituzte zilo batzu lurpean bi metra barna; hetan sartzen dire sagarroien pare; eta

⁽¹⁾ E. *Eskuldun*.

⁽²⁾ Modu bitara idatzi ohi du Elissaldek *Alaman* eta *Aleman*. Bi horietarik ugariena eta guk finkatu duguna *aleman* da.

gero lanak, handik khentzeko. Frangotan ez gituzte hurbiltzerat ere uzten beren kanoi urrunkari eta mitrailleuses debruekin. Bertzalde, badituzte aireplan horietarik andana gaitza; goizetik arrats ez dire baratzen, gure kanoiak nun diren ikusi-eta beren artillurrer pindar batez ezagutarazi arte. Beharrik da gure artilleria heiena baino hobe. Ez da, diotenaz, hain urrunkaria, bainan min gehiago egiten du. Jainkoak beira hunen menean aurki; gizon bat ez du chutik uzten. Infanteriak ere egiten du bere doia lan, gauaz partikulazki. Etsaia gauaz bere ziloetarik atheratzen da ba, uzten dugu hurbiltzerat. Menean dugularik, tira eta tira, azkenean baionetekin bere erresumetarat itzularazten dugu. Mementoko, gure aintzindariak ez omen dute bertzerik bilhatzen, hemen segurik. Gure aireplanak ere badire etsaienak bezenbat. Orai gain horietan ere hasiak dire tiroka. Atzo airekari frantses batek etsai baten tresnari tiroka su eman dio eta hau, parabira, lurrerat erori da. Airekari han ziren etsaiek⁽³⁾ ez dute geroztik sabelean min handirik: bia baitziren elgarrekin, lurrerat orduko ikatz eginak ziren biak. Airetan nausi, nausi lurrean, urez ere ba, diotenaz, nola ez dugu lasterrago garhaitzen, alemana guk? Lerro gaitza direlakotz. Hil arau, ordainak han dituzte. Ezin sinhetsia da nola, lerroa lerroaren⁽⁴⁾ ondotik, kantuz *à la baïonnette* heldu diren, bi begiz ikus ahala, bethi eta bethi.

Jaun kazeta egilea, negu huntakoa badugu naski, bainan zaude trankil bertze gerlarik hasteko gutizia khenduko diotegu behingotz.

1914-11-06

Jaun kazeta egilea,

Ez dut egun asti handirik berri hainitzen *Eskualdunerat* igortzeko. Ondoko egunetan ikus. Bainan ez nitake gehiago egon zenbait gauza hemen gertatuak zuen irakurtzaleri erran gabe.

⁽³⁾ Ez ote da Airezkarian ziren etsaiek.

⁽⁴⁾ E. erroaren.

* * *

Erraiten dute, herritik urruntzean, eskualdunek sinhestea han uzten dutela. Ez dakit orotako berri. Nik erraiten ahal dudana da eskualdunetan badirela zinezko fededunak. Hemen frogatu dut, atzo, azkenik.

* * *

Lau eskualdun, biga hazpandarrak, bat aldudarra, bertzea senperrarra elgarren lagun handi ziren. Etsaiari gordetzeko egin ziloetan ez zuten elgar galtzen. Beren chokoa bazuten. Zer artzen dire han lauak? Musean othe? Ez. Zer, beraz? Arrosario erraiten: batek, apheza balitz bezala bakharrik has; bertze hiruek elgarrekin ihardets arrats⁽⁵⁾ guziez. Egunaz, bakotcha bere alde.

* * *

Urriko azken astearte huntan han zauden ziloan, hiru erdi-lo, laugarrena lauentzat othoitzean. Bi peza-tiro hainbertzenarekin. Batek deusik ez diote agin. Zorigaitzez, bigarrenak makur gehiago egin du. Lauetarik bat hil; bertze hiruek kolpatu. Lau lagunek hola dute galdu elgar.

* * *

Senperrak errana zaundan hau: behin baino gehiagotan: arrosario hasia gero akabatzeke utzi zutela, heieri buruz heldu ziren etsai zenbeiten hiltzeko.

* * *

Ez da hau eskualdun horieri bakharrik gertatu, othoitz hasiaren uztea tiroka lotzeko. Asteleheneko gauean gertatu da Afrikako soldado moroeri ere. Huna nola. Gauerdi iria zen. Lo zauden: *tirailleurs* moroak, bat edo bien gain utzirik etsaien zaintzea. Bet-betan tiro bat, beilarietarik batek igorria. Chutitzen dira moroak oro tarrapatan hasten, tira eta tira. Astearte goizean etsaiak hantche zauden, mailka mailka etzanak,

⁽⁵⁾ E. arras.

hilgogor jada borzpasei mail oro. Tirari gaitzak dire moroak. Eta zer begiak gauaz ere hola ikusteko!...

* * *

Bertzalde, guziek dakitena da soldado frantsesetan bat ez dutela partidago alemanek moroa baino. Egia erran, nik ere nahiago dut heien adichkide etsai baino, guziz gauaz, oihan zoko batean.

* * *

Ni naizen lekuan baditugu eriak, aleman eta frantses. Atzo arte ez ginuen moro horietarik. Hain chuchen moro bat eman dute aleman baten aldean. Irri gochoki eginik gaude hantchet oren batez edo biez. Ikharan, alemanak burua kukutu du estalgietan, eta han atchiki oren pare bat, moroa urrundu zutela seguratu arte. Moroa, ukomilo erakusten alemanari, hortz zuri eder batzu hirrikatzen zituela, bere ohetik.

* * *

Gauari buruz, bazuen bere chedea moroak. Beharrik ez du chede hura beretzat atchikitzeke aski barne izan. Hurbilarazi du eri-arthazai-lea: “Li dormir ici? dio galdegin. “Si dormir ici, moi li couper cou!” Plazer badu eta ez badu, eri-arthazailea han egon da gau guzia, zain... lo egin nahia

* * *

Erraiteko baizik ez da, oraino zer herra duten moroek gure etsaiენტzat. Bat ikusi dut tripan kolpatua, nigar eta nigar zagoela. Hurbiltzen nitzaio: “Qu’as-tu, mon brave? Souffres-tu beaucoup pour pleurer ainsi?” —No souffrir...—Pourquoi pleures-tu donc? —No pouvoir tuer Boches!” Holako soldadoekin, nola nahuzue Frantzia ez dadien nausi!!!

* * *

Jaun kazeta gilea, banuke holako mila ichtorio. Bainan denbora badoa... eta egun badut bertze lanik ere. Ondoko egunak arte, nahi baduzu.

1914-12-04

Jaun kazeta egilea

Azkenean eskuratu ditut zenbeit *Eskualdun*. Aithor bat egin dezazudan: hanitz herritarrek *Eskualduna* zuk uste baino maiteago dute. Ikusi bazinu nola zauzkitan lothu harrapaka, kazetak eskuetarik khendu nahiz, nihaurek irakurtzeko astirik utzi gabe! Eta nola loriatu diren beren begietan gertatuak kazetan irakurtu-eta! Pentsatzen baitut, hemengoek bezala, eta gehiago menturaz, plazer dutela gerlako berrien izateaz horkoek, luma hartu dut egun ere.

* * *

Ukhan ditudan *Eskualdun*etarik batean irakurtu dut pilotari aiphatu bat ihesi joan dela. Ez zezaken segur ahulezia handiagorik egin. Ez da holakoa eskualduna. Hemen dire, hemen ageri egiazko eskualdunak. Ez daude hauk ukho egitekotan beren eginbideari. Deusek ez ditu lotsatzen. Gerlari gaitzak dire.

* * *

Guzien artean bat badugu hemen aiphu berezi bat merezi duena, Eskual Herriari omen⁽⁶⁾ handia ekharriko baitio. Nork ez du ezagutzen Chiquito kanboar pilotari gaitz hura? Ba gerlaria ere! Egun hautarik batez zenbeit soldadok beren lagunak galdu dituzte. Lagunetarik urrun egoiteko memento tcharra, etsaia hurbiltzearekin. Bainan nor mentura laguntzaketa?... Balak heldu dire barazuza bezen usu. Han baitzen gure Chiquito, hura badoa, chimichtaren pare, lasterka, firurikan doazin balek lotsatu gabe. Biba Chiquito! Hire egintzak Espainiarat pasatu delako pilotariarena balio dik. Eta Jainkoak nahi badu gerla ondoan itzul hadin herrirat, orhoituko gituk plazetan hi sarrichago ikustearekin. Biba Frantzia! Biba Eskual Herria!

⁽⁶⁾ E. *men on*.

* * *

Bertze eskualdun bat aiphatzea merezi duena: Petri Duhalde, uzta-riztarra. Aita familiakoa, bainan ihes joaterik gogoratu ere ez zaiona. Gau batez lur zilo erreka hetan zen bere errechimenduarekin. Gauerdi.

Bertze errechimendu bat herrestan heldu, han zirenen lekuaren hartzeko. Hainbertzenarekin, gure Petri gaizoak bi aleman ikusten ditu, alanbre ezartzen ari. Ah! Zer parada! Mira hartzen du Petrik nahi bezen ontsa eta tiro emaitera doa, noiz eta ere kapitainak erraiten baitio:

—Duhalde, debekatzen dautzut tiro egitea. Orai tiroka hasten bazine bihar arte hemen gintazke. Goazin aintzina.

Soldado ona baita Petri, umil-umila badoa, etcholan hiru uso huts eginik baino hitsago, gogoia ilhunago. Biharamun goizean, buruz buru egiten du gaizo Petrik bere herriko bikarioa, hura ere han soldado dena. Agur eta agur.

—Errazu, Petri, zenbat aleman hil ditutzu?

—Jauna, ez othoi aipha. Badut aski ene pena. Nituelarik barda chichparen puntan biga, ez nau bada kapitainak gibelatu tiratzetik! Den bezalako choroa! Segur, tiro beraz biak banituen! Bainan zaude; ez dire bethi hola espakatuko...” Gaizo Petri: biba hi ere, to. Chiquitok eta Petrik bezala, Durquet bastidar aphez gazteak ere ez othe du sorherria ohoratzen? Alemanak hantche⁽⁷⁾ karraskan tiroka ari ziren. Chutitzen da gure bastidar apheza, balen erdian, eta lagun guzieri besoa zabaldurik absoluzioea emaiten diote. Eta gero bortz sei hamarretan chutitzen da oraino bere lagun kolpatuen artatzeko eta kontsolatzeko. Zer kuraia eta zer bihotza! Sarjant da orai aphez hori, eta han dabila bere orhoitzape-nezko medaila ederra soinean tropa guzietako lehen aintzindariak berak emana.

* * *

⁽⁷⁾ E. *anche*.

Bertze hainitz ere behar nuzke aiphatu. Bainan nun da lekua? Uroski ez baitire aintzineko hiru horiek baino gehiago ohore gose. Bertzalde hola aski bada erakusteko zoin soldado onak diren⁽⁸⁾ eskualdunak, eta Frantziari zoin atchikiak.

Jaun kazeta egilea, agur eta egon ongi. Bertzaldi arte.

1915-01-01

Abendoaren 21ean⁽⁹⁾

Adichkidea,

Huna nun naizen bada ni berriz ere gerlako berrichkekin, *Eskualdun*ean choko bat balin bada. Baituzu aski lan eta buruhauste, ikusiko duzu balia detzazkezenez. Gerla hau lotu aitzinean, hainitzek uste zuten airetako tresna horiek ez zutela lan lan handirik eginen; “muchas palabras, pocas obras” behialakoak ziona. Ez baita, haatik, hala gertatu⁽¹⁰⁾. Gutu dire horietaz mintzatu, eta horiek halere lan handiak eta handiak egin. Nola othe?

Nola? Harat eta hunat ibiliz; aro eder ala tchar, egiazko arranoen pare, nor nun, norat zabilan ikusiz; zer chede zuen asmatuz; lehenago zaldizkoek egiten zuten lana eginez, miletan hobeki eta lasterrago. Haste hartan uste izan dugu etsaien choriak gureeri nausi zirela. Alabainan gureak ez gintuen ikusten, eta etsaienak ba, han zabilzala, bethi eta bethi, gure buruen gainean inguruka.

Gorde gintezen mendietan ala zellhaietan, tiro eta tiro; tiro eta tiro aleman kanoiek porroskatzen gintuzten, chori horiek gure lekuak salaturik. Noiz arte iraun behar dik josteta⁽¹¹⁾ hunek, to, ginuen galde egiten batek bertzeari?

⁽⁸⁾ E. *dire*.

⁽⁹⁾ *Eta huna zer dion bertze hunek?* Galdera dator Elissalderen gutunaren aurretik.

⁽¹⁰⁾ E. punturik ez dator eta hurrengo hitza letra larriz.

⁽¹¹⁾ E. *jostetu*.

* * *

Goiz batez, parrapataka tiroka entzunik gain hetan, altchatzen ditut begiak. Bi chori, airean. Batek bi kurutze beltz hegalpean; alemana; bertzeak, gorri, churi, urdin, hiru kolorezko arrunda bat: frantsesa. Inguru-ka, biak, zoin lasterrago, eta tiroka karraskan. Gu ikaran zoinek behar zuen nausitu. Patatras, horra bat lurrerat doala, chimichta bezen laster. Zoin da, zoin da? Bi kurutze beltz baditu hegalpean, dio nik baino begi hobearen duen batek. Biba Frantzia: chori frantsesak garhaitu zuen alemana.

* * *

Geroztik ikusi dugu airetan holako hameka gudu eta aldi guziz chori frantsesa nausitu da. Orai etsaiak bereak gutituche ditu. Bat edo bertze noizetik noizerat menturazten bada eskualde hautarat, ez du itzulika handirik egiten. Bere moko luzearekin, frantsesak *demi tour* eginarazten dio. “Thiztaria” deithua dugu chori frantsesa. Nork ere baiterabila, ez da barearen azken umea.

* * *

Aski erranik banuke hola egungo, bainan barka, solas bat oraino. Eguberri hurbiltzen ari da eta menturaz lerro hauk horrat heldu orduko, iragana izanen da. Nahiko ginuen Eguberri iragan hemengoek horkoe-kin. Jainkoak ez du hala nahi izan. Egitzue hor besta ederrak, guretzat hainitz othoitz⁽¹²⁾ eginez. Guk ere hemen zerbeit eginen dugu Jesus maitearen ohoretan, gero eta hobeki lagun gaitzan.

* * *

Azken hitz bat. Eguberriren ondotik Urthats. Jainkoak eman deza-zuela, jaun kazeta egilea, zuri eta *Eskualdunaren* irakurtzale guzieri *Urthe On bat*.

⁽¹²⁾ E. oithoitz.

1915-01-15

Gerla tokitik, urtharrilaren 9an⁽¹³⁾

Adichkidea,

Badakizu ez dela errech orai berri zerbeiten hatzemaitea horrat igortzeko. Gure erreketan hemen gaude, iduriz hein berean, bainan bate-re lotsatu gabe, egun eta gau, tiroka, etsaiari zer min egiten diogun ikusi gabe askotan. Lo gutisko eginik ere, ez gare hain urrikaltzekoak, uste duzuen bezen urrikaltzekoak (bederen). Hotzak jasan ditazke, ez dugu hanbat nekatzerik eta askitto jaten dugu. Etcheke eta herriko mina ez baginu, ez ginuke erraitekorik! Ah, hori ba, badugu! Eta hameka aldiz elgarri erraiten dugu: “Zer diote othe etchean, zertan othe dire gure bur-hasoak, gure emazteak, gure haurrak?

Baginaki gureek⁽¹⁴⁾ ez dutela sofritzen gu hemen izaiteaz, nola arin gintazken! Horko minak gaitu higatzen. Adichkidea, othoi hori errazu *Eskualdunear*: guk ez dugula bertze minik herrikoa baizik. Gerla hastean Jainkoari bihotzak altchatu ginituen, eta bethi hari gaude, kolpeez eta heriotzeaz, beraz, kasik orhoitu gabe. Ezen zer dire kolpeak eta zer da heriotzea bera, gero munduak izanen duen bake gozoaren aldean?

Guk hogoi, hogoieta hamar, berrogoi urthe iragan ditugu ikhara gorrian, gerla hunen beldurrarekin. Hori ez da bizitzea. Bizitzen hasi ginen egiazki aboztuan, alemana mundua beretu nahiz hasi zelarik karraskan. Nausitu balitz, akhabo ginen; akhabo bakea, akhabo erlisionea, akhabo denak⁽¹⁵⁾. Sekulako galduak ginen. Bainan kukuak makur jo dio eiki. Lehen uztarrak handiskoak eman baditu, iduri du orai ahalak gutitu zaizkola eta ez dugu, hastean nion bezala, min handirik, hari buru egiteko. Herria dagola trankil. Soldadoak, harma eskuan, hemen gaude

⁽¹³⁾ E. *Bertze batek* zehaztasuna dator eskutitza baino lehen.

⁽¹⁴⁾ E. *gurek*.

⁽¹⁵⁾ E. puntuaren ondoren minuskulaz dator: *sekulako*.

zuen zaintzeko. Eta laster ikusiko duzue zer bihotzaren jabe garen oraino. Alemanak du emanen amor, ez guk.

Othoi, ez lotsa hor, gu hemen baino gehiago. Altcha bihotzak! Egun ederrak ethorriko dire eta gure ondokoak baliatuko guk irabazi bakeaz. Eta gutarik zenbeit hemen gelditzen badire, odola bakearentzat emaitenko, Jainkoak har ditzala!

1915-01-29

Urtharrilaren⁽¹⁶⁾ 23an

Adichkidea,

Euri, haize, elhur, orotarik baginuen azken egun hautan. Egun iguzki churi pollit bat. Uste dut hori den oraino guretzat bihotz-altchagarri hoberena. Biba Frantzia! Lerro hauk zure eskuetarat orduko, sei ilhabete⁽¹⁷⁾ gerla. Nork usteko zuen hori? Bainan gaichtoena egina dugu: bentzutuz doa etsaia eta sekulan baino azkarrago gu. Ez dauku aintzineko egunetan bezenbat tiro igortzen orai. Zertako, pentsatzea errech da. Ez da orai gure herritarrek hain zuhurki egiten dute gerla, nun etsaien tiroak debaldetan igorriak baitire. Ez dugu kolpatu arras guti baizik.

Hemen diotenaz, primaderari buruz, gauza handiak ikusiko ditugu; alemanak gure herritik urrundua; rusianoak Alemanian⁽¹⁸⁾ sartuak; Autrichia funditua, bakea nahiz ibilki; Italia gure alde lotua. Horiek hola gertatzen badire, hobe; hola maiatzeko etchean gintazke menturaz. Bainan, egia: bake iraunkor batentzat, batere ez litzaukuke sobera, hemen bertze sei ilhabeteren iragaitea.

Zer gertatuko bada ere ondoko egunetan, ez dago Frantzian nehor lo. Kanoia kanoiaren gainera heldu zauku barne hortarik: *mitrailleuses*

⁽¹⁶⁾ E. *Utharrilaren*.

⁽¹⁷⁾ E. *ilabete*.

⁽¹⁸⁾ E. *alemanian*, hasierako hizkia xehea dela.

hoitarik ere leherra. Etsaia bere erreketarik athera baladi, ez lukete frantsesek oren handiren beharrik beren lurren hutsarazteko. Hori badakite alemanek, eta hortako dagozi sagarroiak bezala lurpean. Goseak norapeit higiaraziko ditu, gureak hanitz kechatu gabe. Zenbeitak baitiote zertako ez gitzaioten bortizki jazartzen, horra zertako. Zertako hilaraz gizonak? Denborak, gosetea ekharriz, lan bera eginen du. Anhartean errechimenduak aldizkatzen dire erreketan, eta uste dut egun ederrenak han daramatzaten; han aintzindariak bakea uzten diote, haraz geroz bakotcha bere gain: jatekoa pausuko direlarik baino hobea; lo egiteko nahiko astia; hotzik ez, atherbe ederrak.

Artetan kaskoinak *manillean* eta eskualdunak tira ahala *musean*. Zer hordagoak? Gauari buruz, bakotchak bere ohea ahal bezala antolatzen du. Zenbeit hamarreko kartsu orduan, Ama Birjinak lagun gitzan. Eta gure soldado gaizoez zenbeit kuluchka egiten dituzte, amets gozo batzu eginez nork hurrekin, nork bertze norbeitekin.

Pausuko direlarik, aldiz, soldadoek ez dute ichtantik berentzat; ehun mila guardia han eta hemen, “Marches d’entrainement, corvées” Bethi zerbeit debrukeria. Churiketak eta ponduak ahal bezala egin behar. Eta gehiago dena, erreketan baino hirrisku gehiago pausuan. Zenbeit lerro igorri gogo nituen oraino, bainan “Aux patates” oihuka ari dire behe-rean. Bertzaldi arte, beraz, eta egon ongi.

1915-03-19

Martchoaren 8an.

Adichkidea,

Aspaldiko partez bi lerro. Ez da bethi errech toki hautan, eta gure ofizioan, ichtant⁽¹⁹⁾ baten hatzemaitea izkribatzeko. Barka, beraz.

⁽¹⁹⁾ E. *Itchtant*.

Iragan larunbatean, itzuli bat egin dut inguruko hiri batetarat, eta han kausitu gure adichkide J.S.P., *Eskualdunaren* berriketari ona. Ezagun du ez dela oraino bere buruaz etsitua. Ederrik dago. Zokoz zoko zabilan *Eskualdunarentzat* zerbeit kausitu nahiz. Geroak erakutsiko, ean zer egin duen. Sudur chorrotcha du.

Aroa hala-hulakoa dugu: ez hain tcharra, bainan ez ederrenetarik ere. Lohi hanitz bazterretan. Bideak idortu arte, ez gare naski hemendik mugituko. Zernahi artilleria badugu. Bainan debaldetan gintuzke munduko kanoi guziak, holako bideekin partitu behar baginu. Denbora edertzearekin, haatik, zer tarrapatak! Hemendik Alemaniarat jauzi batez joanen dire frantsesak, etsaien ondotik, hatsa hartzeko astirik utzi gabe.

Belgikatik Pariseko alderat jautsi ginelarik nahi baino lasterrago, ez baikinuen lo handirik egin, debruek ez badute, alemanek ere ondoko egunetan beren hanka handiak zalu erabili beharko dituzte. Harritzeko da egun hautan zer bakea uzten daukuten! Noizetik noizerat kanoi bumbako ikharagarri bat: egunean bizpahiru. Tiro bat ere ez. Tarbeko errechimendu batek sei egun iragan baititu “trantchetan” badakizu zenbat kolpatu izan dituen? Bat. Hilik, batere. Agian ondoko egunetan, hola hola izanen da.

Aintzindariak diote frantsesek ez dutela beren indarra hemen eginen; bi hegaletan direla jokatu. Zenbeiten arabera, jada hasiak dire. Ez dakit zer gertatuko den. Bainan dakidana da, eskualdun soldadoek beren eginbidea eginen dutela. Ah, ikusten bazintu eta entzuten! Zer gizonak! Funtsean nola ditake bertzela? Fedea badute; Jainkoarekin bakean dire, heriotzeak ez ditu lotsatzen.

Zer meza-bezperak igandetan! Segur hemengo elizek ez dituzte ahantziko eskualdun soldadoen *Jainkoaren Ama* eta *Uhalde baten pare* ederrak. Gehiago dena, eskualdun soldadoeri ez zaiote aski igandetan elizarat ibiltzea; astein bi bilkura badituzte arratsetan, arrosorioaren emaiteko, Sakramendu Sainduaren benedizionearekin. Ez dea eder? Eta, bertzalde, zenbat othoitz ez dute egiten? Ori, huna froga bat, gogotik kazetan ezarriko duzuna. Baionako errechimendua trantchetarat abian zen:

orenaren goait. Durquet baztidar apheza, bere gizonekin choko batean zagon. Egon eta egon, orena ez heldu. Ohartzen dire bet-betan oren erdi bat goizegi prestatu direla. Zer eginen dugu, diote Durquetek bere lagueri? Gora-gora errosarioa erranen, dio batek. Eta Durquetek galde, bertzeek ihardets, errosarioa erraiten dute. Eta gero, orena baitzen, joan ziren trantchetarat. Eta badakizu nork zuen galdetu⁽²⁰⁾ errosarioaren hola erraitea? Chiquito kanboarrak. Aski egungo, jauna.

Sekulan Jainkoak nahi badu Alemanian itzuli bat egin dezadan nik ere eskualdun soldadoekin, pipa bat ekharriko dautzut orhoitzapentzat. Egon ongi.

1915-03-26⁽²¹⁾

Adichkidea,

Eskualdunean irakurturik zer gogoaren jabe den bizi gure kazeta maiterat gerlako berri heltzale jarraikienik duzulakoa, zoin guti den etsaien beldur eta lanari lotsa, gutizia jin zaut, behar nuela berriz ere hura dagon tokirainoko bat egin: ea zer zion; zer ari zen. Hanche bazkaldu gira elgarrekin; gerlan gerlako gisa, ba, nahi baduzu, bainan goseak pizten dautzu barnea, hortzetarik ezin utzizko gustu bat emaiten diola janik hilenari. Erran behar da deusen eskasik ez ginuela. Omone on eta elhasturi araberako.

Bazkalduta⁽²²⁾ gibelerako bideari lotzerakoan, besotik hartzen nu, ez nadin chuti. Egundainokoa baitugu eskualdunek, bazkaltiarak bethi

⁽²⁰⁾ E. *galdutu*.

⁽²¹⁾ Zerbitzariren testuaren sarrera, beste norbaitek egina: Berantche ukhanak, joan den astean emaiteko gerlatik jin lerroño hauk, igortzale beraren ganik ja baikinuen ere agerturik aldi baten doi ja, doazila hauk egun:

⁽²²⁾ E. bazkaldu-ta.

goizegi joaki: “Zer duzu presarik, gizona? Oraino joanen zira”. Zoko batetarik atheratzen daut karta pare bat, berri-berria, *Eskualdunari* esker, adichkide batek igorria. Jo musean, buruz buru. Partidaño bat bakarrik, ari izan girelako doi.

Gezurrez nausi dut biligarroa; behartu ere baitzaio, zuen joko hitsaren gatik. Bethi nolazpeit pinta irabazi daut. Erdi trufaz, kontsolatzeko, zauzkidala uzten erranik, kartak ere eman⁽²³⁾ dauzkit; bertze pare bat bazituela oraino; ni bezalako lehen tunanteari eskaintzeko, azkenak bere atchikiz. Erran gabe doa, *Eskualdunaz* mintzatu girela, maite baitugu biek itsutuki. Musean baino segurago nuke galtzea, zuri zoinek berri gehiago igor has baginite. Nere ahalaz baizik ez dezazuket on egin; hartaz ba, ordean, guziaz. Mementoan, ez ginuke hanbat zer igor; hein bertsuan gaudela bethi. Hola goazke, aro hau norapeit finkatu arte. Ari da onerat, emeki-emeki, hegalak kerrestatuz artetan, bainan astetik aстера chukoago luzara; zeru-zola garbiago. Primadera hau barne, zinkako bat gaitzaren egiteari gaude. Ez gira lotsa. Etsaia, hura, hasia dela lotsatzen, ageri da gero eta hobeki. Egun hautan, lagunetarik ihesi, jin zauzku zonbeit, preso har ginintzan othoizka. Gose hamikatuak, zikinak, oro zorri. Araberako balin badire bertzeak, ez dezakete luzaz iraun. Gaude, nola luke ten gure oldar handi ondoko egunetakoari iharduk ahalko?

Uste ez dugunik ez dakigula gertha!

1915-04-02

Martchoaren 21ean
Adichkidea,

Huna primadera. Iguzkia agertu da goizean goizik zeruan; lorea sortu larrean; choria kantuz hasi sasian. Ah, zer zoriona gerlarien bihotzetan!

⁽²³⁾ E. *ene eman*.

Aspaldi du: eskualde hautarat heldu ginenean etsaiari zafraldi bat ederra emanik, aintzindariak erran zaukuten: negua hemen iraganen ginuela, aintzinago joaitea, bilhatu gabe, aroarena⁽²⁴⁾ eta bertze asko zeren gatik.

Iragan da negua eta ethorri primadera. Ichilik zauden bazterrak. Egun hautan bereziki ez zuen gehiago iduri gerla zela. Orai, zer da gertatuko? Noiz eginen dugu oldarra? Nahiz ez naizen ni bertze bat baino jakintsunago, ikusiak ikusi, entzunak entzun, huna zer dutan uste; gerlak ez duela hainitz iraunen...

Hemen baditugu, ehunka, gizonaren izpirituak asma ditzazken gerlako tresna mota guzietarik; zoko-moko guzietan gordeak, ahoak zabaldurik daudela, zakur errabiatuaren pare, orroaz hasteko hein-heinean. Hasten direlarik, ez diote neholaz ere buru egin ahalko etsaiek. Zinkurinez, haikatuko dira beren parropietarat, gibeladea biribil.

Bertzalde⁽²⁵⁾ guziek dakitena da gosetea hedatzen ari dela Alemanian. Gure etsaiek ez dute ukatzen ahal, ez dutela ogi mikorik. Aspaldian K. K. delako ogi batez dire bizi. Uste zuten patata berriarekin zerbeit eginen zutela, bainan horra nun patata galdu zaioten. Nola bethe hertze luze⁽²⁶⁾ hek? Dutenarekin tronpatuko dituzte bizpahiru ilhabetez. Bainan gero? Gero... plazer badute eta ez badute, amor... eman beharko.

Hori da Ameriketako, Angleterrako eta Frantziako kazeta egile aiphatuenen ustea. Horiek hola, eman dezagun alemanek badutela ausarki jatekoa. Halere gerlak ez du hanitz irauten ahal. Egunetik egunera, flakaturuz, ahulduz doazi eta frantse-angles-rusoak azkartuz.

Ja hiru miliun gizon galdurik badute alemanek. Mainku⁽²⁷⁾, konkorr, okher eta mila debrukeria harturik ere soldadotzat. Heien armadak ez du ja⁽²⁸⁾ orai gure balio. Jeneral japonese batek du erran hori, ez nik. Eta

⁽²⁴⁾ E. *aroaren a.*

⁽²⁵⁾ E. *Vertzalde.*

⁽²⁶⁾ E. *l uze.*

⁽²⁷⁾ E. *Mainkum.*

⁽²⁸⁾ E. *jo.*

jeneral horren arabera, primadera huntan, azken ukaldia aise emanen diotegu. Alta, ez du bada Otrichiak lagunduko. Hau jada errekek behera joana da. Bere uliekin aski badu, bertzenetan sudurra sartu gabe.

Beraz, eskualdunak, altcha bihotzak: denborak heldu dire. Uste guzien arabera, udan gure Herria, gure burhasoak, gure etcheak, gure mendiak eta gure itsasoa ikusiko ditugu. Eta agian, orduan eginen den bakeak iraunen du, gure haurrak eta gure haurren haurrak handitu arte. Egon ongi.

1915-05-21

Maiatzaren 11an⁽²⁹⁾

Adichkidea,

Ez naiz hila, ez eta ere hiltzekotan. Ez badautzut aspaldiskoan deusik igorri, ez da nere falta: ez dut astirik izan. Bertzalde, baduzu hor bertze berrikerari bat hain jarraikia, hain biphila! Ezagun du ez dela phikaren azken umea. Begiak alde guzietarat badauzka: Belgika, Angleterra, Frantzia, Rusia, Serbia, oro hartzen ditu, eta orotako berriak cheheki igortzen. Horren ondotik, zer nahuzu nik erran dezadan? Gure chokoan nola bizi garen, hau ez baitu harek ikusten? Goazin hortarik.

Ehun eta sei arima dituen herrichka batean naiz. Herrichka huntan badire 3 mila artillur, beren kanoi, aroztegi eta tresna guziekin. Eta, bertzalde, eritegi handi bat Frantziako miriku aiphatuenetarik batekin. Ez da aski etche jendeketa horren kokatzeko. Eritegia egin dute gaztelu batean. Aitzindariak hartu dituzte etcheak. Soldadoek lurpean egin dituzte beren egoitzak. Eta zer egoitzak? Villa Jeanne d'Arc; Morticole-Palace; Villa Bayonne Miramar; Eskual Etchea eta holako izen.

⁽²⁹⁾ Eskualduna egunkarikoek "Ongi etorri berri igortzale huni ere" jarri dute eskutitza baino lehen.

Lurpean ez da hotza hala sendi gauaz ez eta beroa egunaz. Nahi bezen ongi lo egiten du, lasto puska bat duenak. Gerla ondoan, nere baratzean holako egoitza bat eginen dut segurki? Eta nere erranaz dudatzen baduzu, itzuli bat egin dezakezu eskualde hautarat. Eskualdun andana bat bagare hemen: 300 bederen. Arratsetan horko kanta ederrenak errepikan ematen ditugu, karrikan, bethi eskuaraz. Hemen bazine, uste zinuke Eihealarren zarela.

Artetan zenbeit pilota partida egiten ditugu, etche zahar bati kontra. Ez dugu berinarik hausten; kanoiek aspaldi hautsiak zituzten. Foot-ball hortan ere ari gare hartako doia. Ez du, haatik, gure pilota balio joko horrek. Itsasuko jaun erretorak dion bezala: “Ez utz pilota foot-baalarentzat, eskualdunak: astokeria litake.”

Etche bezenbat ostatu bada herri⁽³⁰⁾ huntan. Bainan ez diogu arnoari min handirik egiten, hemengo ostalerrek ez baitakite garbitasuna zer den. Jatekoaz ez dugu erraitekorik, tropak fornitzen baitauku. Hemen deusik ez litake kausi. Haste hartan bezen aski basa lapin, orai bat ez da ageri, oro garbituak dituzte artillurrek. Karakoillik ere ez da gehiago; oro janak hek ere. Egun hautan arrainari lotuak dire. Amu, kordela, sare, deus ez dute eskas⁽³¹⁾ gure arrantzaleek⁽³²⁾. Arrainak du bakarrik eskas eginen, egun laburrik barne.

Uruski ez gare bethikotz hemen. Diote bazterrak higitzen hasiak direla bi hegaletan. Uste duten bezala, Italia gure alde lotzen bada, nora-peit leher egin dezake. Eta orduan gosea eta egarria ahantziko ditugu, diren bezalako etsai horieri hurbildanik jarraikitzeke, kanoi eta zizpak ongi betherik.

Maiatz huntan othoitz egizu hori laster hola gertha dadin. Guk ere hemen egiten dugu oihu Andredena Mariari.

Egon ongi.

⁽³⁰⁾ E. berri.

⁽³¹⁾ E. eskaz.

⁽³²⁾ E. arraintzaleek.

1915-06-4

Maiatzaren 28an
Adichkidea,

Berri handirik ez dugu eskualde huntan. Berriz kanoiak ichilducheak dire. Tiro guti ere. *Bonba* hetarik bakhar zenbeit, bainan ez dute halako minik egiten. Gure eskualdunak osagarri ederrenean dire, erdi pausu huni esker. Noizetik noizera bat edo bertze ekhartzen daukute gure eritegirat; bainan hain guti, nun ez baitu kasik aiphatzea balio. Bada, haatik, bat, omen handikoa, egun hautan kolpatua: Chiquito pilotaria. Orai arte ederki bethe zuen bere eginbidea. Etsaiari gizon bat baino gehiago hilik bazuen, heintto bat chuchen bonbak heien erreketan sartuz. Orai bera da kolpatua: uruski ez du gerokorik. Sarrichago, ikusiko dugu segur Eskual Herriko plazetan eta eskualdun guziek merezi dituen laudorioak emanen diozkate. . .

Pilotari bat edo bertze balin bada ukho egin duenik, Chiquitok ez du egin; ez da ere egitekotan. Berak erran daut oraino hunat itzuliko dela:

—Aintzinetik pagatuak nituen handizki etsaiak. Orai kito gira. Ondoko egunetan hirugarren partida; bortz egin ahalak eginen ditut irabazteko eginahalak”.

Biba Chiquito!

Lurpean soldadoak erdi trankil daude; hitz dautzut aireplanak ez daudela hala. Ez dakit zeren ondotik dabiltzan zenbeit egun hautan. Gau eta egun hor dabilta, eskuin eta ezker. Uste dut denbora laburrik barne, hemen ere, gure ezker hortako zalaparta berak ikusiko ditugun. Aroa hortakoa da. Airean aleman baino frantses gehiago badabila. Elgarri tiroka lotzen direlarik, hamarretarik bederatzietan frantsesek dute gaina. Hala nola maiatz hunen 20an bi aleman hil dituzte bi frantsesek, elgarri tiroka aski denbora ari izanik.

Alemanek ba omen zituzten hamabortz bonba handi berekin: ez da dudarik hiri edo gara zenbeit zutela nahi funditu. Hortako ba, iduri du alemanak nausi direla: ez da kontzientziaren gainean ez duten itsuskeriarik. Ez dautzut kondatzen zer egin daukuten J.S.P., *Eskualdunaren*

berriketari ona dagon hirian. Nik baino chehekiago berak erranen dautzu. Hemen erran nahi dut bakarrik atseginekin jakin dutana: ez duela oraikoan ere minik izan. Jainkoari eskerrak.

Azkeneko aldian erran nautzun nere herrichkan baginela bederen 300 eskualdun. Geroztik gutiago gare. Berrogoi bat edo gehichago joan zaizkigu, ez dakit norat. Erran dute Reimseko alderat hartu dutela, bainan ez dut deus segurtamenik. Fama ibili da guk ez ginuela hemen hezur zaharrik eginen. Deus ez da ageri, haatik. Nehon ez ginezake hatzeman hau baino toki trankilagorik mementoko. Gauden behin hemen...

Akhabatu aitzinean erran nahi dautzut ere nolako bozkarioan ezarri gaituen Italiako *noizpeit* egin duelako urhatsak⁽³³⁾. Zenbeit beldur ziren azkenean gure kontra lotuko zela. Bertze zenbeitek uste zuten Italia nehoren alde ez zela mugituko. Mugitu da gure alde. Biba Italia. Miliun bat soldado berri gure kontra hasi balire, orok burua galduko ginuen. Gu baino gehiago othe dire alemanak? Nik ez uste.

Plazer badute, hertzetan dituzten guziak aurdikirik laster, laster gero amor emanen dute; ikusiko duzu. Anhartean, gure soldadoen kuraia doblatu da eta hemendik zenbeit egun edo asteren buruan, —buruzagiek nahi dutenean— oldar egiten badute, ez da izanen ez aleman, ez debru, baratuko dituenik.

1915-09-17

Irailaren 9an⁽³⁴⁾

Adichkidea,

Ilhabethe pare bat ichilik egon-eta, egun arte bat kausitzen dut zuri bi lerroren igortzeko. Ikusten ditugunak oro erraiten ahal bagintu,

⁽³³⁾ E. *urrhatsak*.

⁽³⁴⁾ Elissalderen testua baino lehen Aspaldikoari ongi ethorri sarrera dator.

banuke erraiteko. Bainan gure aintzindariak ichil egoitea manatzen daukute. Berek dakite zertako. Erran dezaket, haatik, iragan bi ilhabete hautan gure eskualdetan ez dela deus handirik izan. Etsaiak beren erreketan; gu guretan, oro ichil egon gare. Kasik ez iduri gerla zela.

Arte hortan, ez dakit zer egin duten etsaiek. Gu ez gare lo egon. Chokho guzietan erreka berriak egin ditugu. Lurrak iduri du iraulia. Alanbrez oihan eta bide, erreka aintzin eta gibel, oro estali ditugu. Guri buruz hasten bada etsaia, ez dauku hanitz eremu hartuko. Milaka eta milaka gizonak galduz har detzazke erreka bat edo bertze. Gero *balto, passage interdit*.

Diote egun hautan indar handi bat egin gogo duela gure kontra. Datorla. Hartu bidez itzuliko da bere parropietarat. Hitzemaiten dautzut, haatik, erreketarik jaliko direnak oro ez direla berriz hetan sartuko. Sekula santan alemanak ez dire Pariserat helduko. Egizu lo bi beharrien gainera. Eta hor balin bada norbeit duda bat huntaz duenik, datorla hunat. Itzuli bat eginaraziko diot eskualde hautan. Gero mintzatuko da.

* * *

Eta guk egiten baginu indarra alemanen kontra? *Eskualdunean* irailaren hiruko artikulu nausia irakurtzearekin iduri luke “debalde dugula erreketarik jalarazi nahiz artzea”, zenbeiten arabera. Alemanetarik hamabortz metretan baditugu errekek gure errechimenduan eta nere arratsaldeak hetan deramatzat. Nehork ez du, beraz, erranen *ban* banintz, ez nindakela hola mintza.

Déloger l'ennemi des tranchées n'est pas le moins du monde impossible. Hori da hori⁽³⁵⁾ egia. Neke izanen dela, nahi dut. Gostako zaukula ere. Bainan ez ditugula⁽³⁶⁾ jalaraziko, hori ez da egia. Nola, bada, hori? Erreka guziak irauliz. Hortako zer behar da? *Crapouillots* deitzen ditugun tresnetarik hanitz eta kanoi handiak milaka. Aintzindarieri dago ikustea zenbat

⁽³⁵⁾ E. bor.

⁽³⁶⁾ E. dtiugula.

tresna behar duten. Aski eskuratzen dutelarik, tira eta tira, egun eta gau, behar den denbora, eta orduan alemanak jaliko dire beren erreketan erhoturik, ezin egonez.

Ez da eder, baxotxa bere buruaz mintzatzea: barka huntan, haatik. Oren pare bat gelditu gabe tiratu daukutelarik etsaiek, buruari lotu naiz aldi bakotch, ustez eta zartatu behar zaundan. Nahi duten bezen odol hotzekoak izan ditezen, karraskan dotzena erdi bat egunez *obusak* heldu bazazkote erreketarat, heiek ere ez dute buru egin ahalko...

* * *

Hoin errech balin bada, zertako ez, beraz, hori egin? Obusen egiten ari direlaketz. Eta zenbat ez da behar! Gure kanoi ttikiak tira detzazke minutean⁽³⁷⁾ hogoita bortz obusetaraino. Bego *Joffre*. Ez du gerla behar den baino gehiago luzatu nahi harek ere. Badaki noiz hasiko den. Gu gauden ichilik. Goiz batez kazetan irakurtuko duzu, etsaiak ziloetarik jali direla. *Ce n'est pas impossible, c'est même facile, Mais... il faut des munitions.*

* * *

Herriko itzulia egin dutalarik, etchean kausitu bazintut, hori frogatuko nautzun *comme deux et deux font quatre*. Nik frogatzeko orde, geroak frogatuko dautzu. Mila goraintzi adichkider, eta bertze aldi arte.

1915-11-12

Urriaren 31an

Gerla tokitik, hemengo eskualdunek horkoeri mila goraintzi.

* * *

Zenbeit egunez, zalapartaka ari izanik, beren erreketan kukutu dire alemanak. Uste badute lotsatuko gaituela hortche agertzen zaukun

⁽³⁷⁾ E. *minuetan*.

neguak, diren bezalako kuiak ederki enganatzen dire. Badugu hats eta bihotz oraino...

* * *

Aroa euritsu da bizpahirur aste hautan: hotz ere arteka. Euriarentzat baditugu atherbe gaitzak eta hotzarentzat soineko beroak. Ez, beraz, othoi behar den baino odol gaichto gehiago egin gutaz...

* * *

Soldado hauta izan da egundainotik eskualduna. Orotan bethi lehen: laneko nola jostetako. Ez othe da hola behar?

* * *

Horra hortche, oihan choko batean, ehun bat gizon. Lehertuak, etzanik daude, palak eta aintzurak aldean, salbu hirur. Hirur hauk hortzez eta haginez, ari dire oraino: Zer, adichkideak, ez duzue naski zuek nekhea senditzen?

—Eskualdunak dire —daut hirur eskualdunak aintzinduz lotinant gazte batek ihardesten. Mandoaren parekoak dire eskualdun horiek!
—Ez zezaken itsuskiago konplimendu hoberik egin...

* * *

Pausuko delarik, haatik, pausua nahi du eskualdunak. Hartzen ditu kartak eta jo musean. Laur ezagutzen ditut azken pausuko sei egunak kartetan iragan dituztenak, eguerditan eta arratsean bi pokada kilimiliklik iretsiz eta gauaz bortz oren lo eginez bakharririk. Mahainean bazen, haatik, oren bezenbat pinta arno. Egia erran, laur eskualdun hoitarik hirur hazpandarrak dire!

* * *

Ah, ahanzterat nindoan! Bertze muslaririk ere balitake negu huntan nere errechimenduan. Bakharririk, kartak ditugu eskas. Balitake dotzena erdi bat pareren enplegu. Eskual Herrian balin bada norbeit guri atsegin

egin nahi duenik, *Eskualdunaren* medioz, igor detzala hunat kartak. Milesker eta barkatu...

* * *

Gure pausuko tokitik bi kilometretan bazen pilota plaza bat pollita, beren izerdiaren gostuz 249garreneko eskualdunek egina, ene ustez segurik. Artillur kaskoin batzuek arras funditu daukute. Geroztik burutik joanarazten dituzte gaizo kaskoinak eskualdunek, arras guziz kantu eskuarak errepikan aldean errepikatuz. Sudurra ukomiloaz makurtzea baino gisago zakote hori nere herritarrerri. Kaskoinek ere hobe dute nere arabera...

* * *

Kaskoin gaizok uste dute heien kontrako kantu zerbeit dutela eskualdunek kantatzen. Ontsa balakite! Kantuak berak erakuts lezokete zer muthiko onak garen gu:

Ni jiten nizanian denborak eginik,
frantsesa ikasirik,
bazterrak ikusirik,
ama, zaude ichilik,
ez, othoi, egin nigarrrik...

* * *

Holache da adichkideak. Denbora badoa. Frantsesa hein batean ikasten ari dugu. Ikusten dugu toki. Osagarria badugu. Badakigu gibel hortan zernahi tresna moldatzen dutela sarrichago etsaien fueratzeko. Zertako kecha, beraz?

* * *

J. S. P. *Eskualdunaren* berriketari hain biphila nun bizi da? Harra bezala gizentzen ari dela emana dut buruari, ez dakit zertako? Menturaz hola alfertua delakotz! Ondoko egunak arte. Ez ahantz kartak.

1915-11-19⁽³⁸⁾

Ortzegunean ginituen holetan⁽³⁹⁾ San Martinak! Usteko ginuen gure etsaiek egun horrekin egoitzaz aldaratu nahiko zutela. Ez omen. Hortche berean zaizkigu gelditu. Herritar maiteak, ez kecha. Ez baitugu etsaiekin behin ere kontraturik pasatu, plazer dugularik, diren bezalako-en fueratzeko errechtasuna izanen dugu. Anhartean har pazientzia. Aldairak hasten dituztelarik, esku-kolpe bat ona emanen diotegu...

* * *

Zer dut ikusten? Alemanek uste dute mundu guzia beren alde dutela. Baduk segurki hoberik. Chinako salbaiek, misionest baten medioz, hamar mila libera igorri bide dituzte Frantziako soldadoeri. Oi, zer arno tragoak sarrichago nunbeit!

* * *

Eta nun othe dire aintzineko egunetan galdetzen nituen karta hek? Goizak churitu dire. Ez da den mendren beldurrik. Alemanek sudurra ager dezaten holako hotzekin. Beraz, arima onak, bidal hunat karta pare batzu hemengo oren luzeak gochoki iragan detzagun...

* * *

Birika bere lekuan dute segur eskualdunek! Duela zenbeit egun, Champañako guduetan, azkaindar kaporal batek, herrestan etsaietarat hurbildurik, eta heien sudurpetik, frantses erreketarat ekharri du, bizkarreran, aintzindari bat aintzintchean kolpatua. Berehala, gerokoak geroko, sarjant izendatu dute muthiko bihoz duna. Emak hor, azkaindarra: herriari ohore egiten duk, hik...

* * *

⁽³⁸⁾ Sinatu gabe badator ere, inolako dudarik gabe Zerbitzarirena da. Aurreko artikuluan kartak eskatzen zituen eta oraingoan ere karten aipamena egiten du.

⁽³⁹⁾ E. *Holetan*. Ez ote da Heletan? Hitza letra larriz hastean *Heletan* hitzetik hurbilago jartzen gaitu.

Ah, eskualdun hoik! Orai arte baziren kozinetan, baziren eritegietan, baziren ordenantz. Eta nik dakita nun? Berritan ez deia bat sartu omotzier? Aingira harroka chiloan sartzan den bezen chuchen lerratzen dire noratnahi eskualdunak... Azkenekotz badakizue nun sartu duten sudurra? Behin, bietan? Pentsa hor?

Huna. Beraz, inguru hautako errechimendu batek ekarrarazi ditu *pigeons voyageurs* zenbeit, erran nahi baita uso berriketariak. Bainan nori eman uso horien karga? Erran gabe doa, eskualdun bati. Eta horra nola Gey, uztariztar⁽⁴⁰⁾ pilotaria, orai hantche bizi den, nahi bezen trankilki, uso pollit andana baten erdian. Gey gaizoa eta uso gaichoak gaizkiago eror zitazken...

* * *

Errazu, Chilar: heldu den Ezpeletako merkatuan behar ditutzu bi solas egin Sarako chantrearekin niri gero erraiteko *Eskualdunaren* medioz, zer diozuen huntaz: gan den larunbatean laur eskualdun gothor ari ziren tira ahala pleka. Bainan horra nun, kintze baten erdian, *obus* ikaragarri bat karraskan zapartatzen zaioten plazaren erdian. Erran gabe doa, pilotaren jotzera zoanak peto bat michterioa egin duela, bertze hiruak, ez nahi baino lasterrago, zabal-zabala hantche berean etzaten zirelarik.

Gero ziren, ordean, chistuak. Ba eta kintzea berritz bota zela. Ezetz. Baietz. Chachariak egundaino ez holakorik ikusi. Partida hortan baratu da. Eta geroztik laur pilotariak samur. Othoi laster hitz bat, partida segi dezaten. Berritz deia ala ez kintzea?

* * *

Ochtian niolarik eskualdunek sudurra denetan sartzan dutela! Igandean meza nausian nintzen. Aldarean, aphez eskualdun bat. Meza laguntzeko, eskualdun bat. Chantre, eskualdun bat. Musika jotzen, eskualdun bat. Hau, senpertarra. Elizaz dire, beraz, azkenekotz jabetu eskualdunak. Ez bezate sekulan gaizki handiagorik egin. Ohore eskualduneri...

⁽⁴⁰⁾ E. Uztariztar.

* * *

Ah; eta ez nuke hau ahantzi behar... Herri berean, jaun errientea eskualduna da hura ere. Mutiko gaizo puska on bat. Artho eta gasna. Hilen egunean barbera zaio aphezari galdetzerat ethorri eian arratsaldean bazen othoitzik elizan, eskolako haurrak libro uzteko. Ederki, hori...

* * *

Polliten pollitez eman dezagun ba hau ere. Igandean, herri berean, eskualdunak hala jabetuak diren eliza hartan, aiphatu mezan. Bederatzi soldado hurbiltzen dire mahain saindurat, bat bertzea baino ederkiago. Nongoak othe ditugu? Behatzen dut lumeroeri. Bat, biga, hirur... bederatzi lumero. Beraz, bederatzi eskualdetakoak. Zer zioten, beraz, *Eskual Herritik* kanpo ez zela gizon fededunik!

* * *

Hemen balitake liburu baten bethetzeko ichtorio pollit! Umia Saindu bezperan etsaien kanoiak karraskan ari ziren gure erreketarat tira eta tira. Hain chuchen harat heldu zauku aphez kartsu bat, kanoien beldurrik gabe. Zer padara arima batzuen salbatzeko! Lotinant batek galdeztzen dio aphezari zenbeit soldado kofesa detzazken. Baietz. Eta hantche berean jartzen da apheza zaku baten gainean, nor ethorriko zaion. Bat, biga... hamar, hogoi heldu zaizko churiketaren egiterat, lerro-lerro, haurrak lehen komunionean mahain saindurat hurbiltzen diren bezen ichil eta umil. Eta denbora hortan, lotinanta han zagon, harma eskuan, etsaia mugituko zenez. Gerlarat ethorri behar da holakoen ikusteko. Egia erran, lotinant horrek badu odol onik zainetan: Joanna d'Arc dohatsuaren ethorkitik jausten da, ondoren ondo.

* * *

Nere adichkide chahar Erramuspe, Bankako koblari aiphatua nun kokatua zen nindagolarik, chori urdin pollit bat ethorri zaut eta huna zer dautan kondatu: berri-berritan, bezperetarik lekora koblaka ari izana dela tira ahala Larralde luhosorarekin, bat infanteriaren, bertzea artilleriaren alde eta hango eskualdunek irri karkara onik botatu dutela. Ez dakit zoi-

nek izan duen azken hitza, bat bertzea bezen sanfretakoak baitire. Bainan othoi, muthikoak, ez dezagun elgar jan frantsesek eta guziz eskualdunek. Koblaka artzeko astia balin baduzue, badik toki *Eskualdunak*. Bota hari.

* * *

Azken hitza beharri chilorat Erramusperi. *Eskualduna* gose dugu egun hautan. Zer diozu zuk eta nik bazka pichka bat eman beginezo. Oxobi irriz hantche dagolarik Eskual Herri maite hartan? Bazireia?

Beraz bota hor zenbeit kobla,
nik hemendik dezadan dobla.

Ala nik hasi behar othe dut? Bainan kasu:

Emanen dautzut dutanetik
zuk kausitzekotz buztanetik!...

1915-12-3

Duela bi aste *Eskualdunean* galdetu nituen J.S.P. gure adichkide charraren berriak. Plazer handirekin ikusi nuen laster hemen berean bethi bizi dela. Eta zer den gerla? Atzo itzuli bat egin behar nuela aldeko herrichka batetarat, banoa, beraz, lagun batekin. Eta nor dut kausitzen? J.S.P. Buruari emana bainuen harra bezala gizendua zela, krok egina kausitu dut gaizoa, hezur eta larru kasik. Egia erran, lanean ari da azkarki: taulazko etchola batean zen, chardin fresko saltzen. Dotzena bat hartu diot, hogeita hamar sosetan. Alabainan nolazpeit bizi behar...

* * *

Egundaino ikusi ez dena, hau. Nere errechimenduan, hazilaren 20an, aphez gazte batek kantatu du bere lehen meza. Bietan kolpatua izanik, gerlan irabazi ditu lotinant kargua eta gerlako gurutzea. Permisionez izana baita doi-doia bere herrian han apheztu du aphezphikuak. Eta zer phesta hunkigarria igandekoa! Sarri hemendik itzultzen direnek konda-

tuko dute zoin gochoki nigar egin zuten beren aphez berri maitea alda-rean ikusi zutelarik lehen aldikotz, aingeru bat iduri.

* * *

Hau da ba penaren pena! Arrangoiztar artillur bat zeruari bezala zagon bere permisioneari. Alde batetik, aspaldi hemen, eta, bertzalde... berrogoita hamar bat erhaztun izanki berberak eginak hari eta huni herrian emateko. Eta horra nun, hain chuchen, hura orduko, gure herri-tarako permisioneak kentzen dituzten! Muthiko gaizoak, hori ikasiz geroztik, debruetarat igor letzazke aleman guziak... eta bertze zenbeit.

Oi nola, oi nola,

mundu hontan kontsola:

dio beharri chilorat charamelatzen *abeztar* batek goizetik arratserat.

* * *

Min bera aisechago kontsolatu du hori errechimendu bereko *bankar* artillur batek. "Ah, ez nuzue permisionez utzi nahi! Bueno *Pas permission, pas travailler!*". Eta bere zaldiari buztana errotik pikatu dio, zurda egiteko. Geroztik ez du egunik iragaiten epher pare bat gabe, segadetan harturik. Bainan aferak makurtzer baitira, kapitaina ohartu delarik zaldiak buztana murriztua zuela.

—Qu'as-tu fait, misérable?

—Ma capitain, le crin il a perdu la cheval...

Beharrik da gure bankarra soldado bat hauta. Irri bat eginik, bertzalderat itzuli zen kapitaina.

* * *

Aspaldi banakien sanfreta gaitzekoak direla larrosoarrak. Huna oraino froga bat. Larrosoar soldado bat, ophila bezalakoa, ari zen egun hautan lagunaren jatekoaren egiten. Horra nun sukalderat sartzen zaizkon bi jeneral. Zer eginen zinuten, zuek? Nik segurik, ez dakit. Dena den, bate-re burua galdu gabe, gure larrosoarra jartzen da supazterrean eta han hasten da lur-sagar churitzen. Churi eta churi, churi eta churi, eta bi jeneralak bethi han tente, hari beha.

Azkenean, oren laurden bat, erdi irriz, hitzik erran gabe han egon-eta, badoazi jeneralak, hintik egin gabe hura ere bethi lursagar churitzen ari delarik larrosoarra. Iguzkiak erori behar luke naski gizagaizoaren harritzeko. Aithortu daut, haatik, oren laurden horrek mende bat iraun ziola, eta golkoan sendi zuela bihotza pil-pil ari.

* * *

Agur, senpertarrak. Ez dakizue berri?

Denbora luze gabe omen handia bildu behar du zuen herriak, C. Dufau, zuen herritar jaun miriku gazteari esker. Huna nola:

Kolpatuen harat-hunat ibiltzeko gerlan mirikuek edo eri-artaitzaleek badituzte angelera gisa batzu. *Brancards* deitzen dituzte frantsesez. Zorigaitzez, angelera horiek ez ditazke gure erreka hertchietan pasa. Beraz, soldado bat kolpatu delarik, hainitzetan behar da gainez gain, agertuz ereman, bala edo obus gaichto baten irriskuan.

Dufau jaunak, izpiritu gaichtokoa baita, asmatu du angelera berri bat, nondiknahi pasatuko dena, edo erreketan edo arbolapean. Angelera hori luze-luzea egon ditake, ohe gisa: edo plega ditake eta ezar kadira gisa. Aintzindariak ikusi dute angelera berri hori eta armadetako onhartu. Mementoan paperak minichtroak ditu. Egun guti barne, Frantzia guzian hedatuko da *Le brancard Dufau*.

Biba, beraz, jaun miriku eskualduna! Biba Senpere!

1915-12-17

Huna berriz euria: barnean egoteko, nahi bezalako denbora. Zer egin? Ori *Eskualdunari* zenbeit lerrochka igor, hemengo berrien ikasteak plazer egiten omen baitiote hangoeri. Zenbeit egun hotz izan ditugu: hain hotz ere nun bide guziak hormatuak baigintuen. Ur handiaren gainean taka-taka ibil zitaken den pisuena, ithotzeko beldurrik gabe, laubortz erri trebes lodi hormak estalia baitzuen den-dena.

Hegaztinak haikatzen dituen bezala hotzak haikaturik araiz, egun hoitan gure eskualdetarat ethorri zaiku jaun omonier eskualduna. Gutik egin du gure aphez maitea hotzak ez baitaiku bidean hil. Sudurra bipherra bezen gorri zuen eta bizar guzitik hormazko orratz churi pollit batzu han zituen dilindan. Bardin biphil, haatik, horrengatik. Hura eta gu, negu huntan, lagunt gaitzala Jainkoak!

* * *

Ez dakizue berri?

Eskualdun gerlariek kaskoinek bezala egiteko, kazeta berri bat egiter dutela... Eta, chede horren bururatzetik, zerk othe ditu gibelatu? Oh, gauza gutik, arras gutik! Eskastu zaizkote berriketariak; eskastu, inpri-matzailea; eta azkenekotz, berri hartzeko, papera. Ez deus batentzat baginuen, beraz, hemen ere kaseta eskuara *Eskualduna* bezen ederra. Damu da ez baita sortu. Ez zaukun, haatik, *Eskualdunak* bezala, aste guziz herriko aire on hartarik bere lerroetan ekharriko... Hortako bai-zik ez balitz ere, nola ez maita gure *Eskualduna!*

* * *

Galde bat Ustaritz-Arruntzako jaun erreterari edo, *Eskualdunak* nahiago badu bertze edozoin eskualdun aphezi. Moda berri bat hedatzen ari zauku gerla toki hautan. Nun ez da hedatzen moda? Pausuko direlarik, kepia utzirik, poneta derabilkate orai gerlarietan gutiz gehienek. Eskualdun eta kaskoin, bakotchak badu berea, etchetik ekarrarazia. Nihork, haatik, ez daki, eskualdunek bezala, bere pleguekin, hantchet beharri chokoan ezartzen. Hein onekoak ere dituzte, ez oñdoa bezen ttiki ez eta ere parasola bezen handi, kaskoinek bezala. Bainan moda, moda da, eta halako bat zaut hortan ere ifernuko debru beltzari amor ematea, harek asmatzen baititu modak, berak daki zertako.

Bertzalde, hotzetik gerizatzeko ez da deus poneta bezalakorik. Nere osagarria ahalaz zaindu behar dut Frantziarentzat. Zer egin, jaun erre-tora? Zuri nago...

* * *

Ezpeletarrak, kasu huni. Egun hautan, etsaietarik bospasei kilometretan Ustaritzeko Agornague bouchearekin nindagolarik urrunchago ikusi-eta, solastatu dut zuen herritar Acheriberro, kontrabandicht Eskual Herri guzian ezagutzen dutena. Sekail, bainan suhar eta azkar. Bihozmin handi bat badu, haatik: hoin guarda guti delarik eskualdun mendietan, ez han izatea baliatzeko.

Ezen hemen deus ez du egitekorik. Mugak sobera ongi zaintzen dituzte buruz buruko muthurzuri handiek. Bainan bego. Acheribero kontsolatuko da nihork uste duen baino lasterrago. Urthe pare bat gorabehera...

* * *

Nun othe dire aireplanak? Hain polliki zabiltzan itzulika, kasik zeruan, miruak iduri! Bat ez dugu, errateko maneran, aspaldi huntan ikusten. Lo othe daude? Egia erran, etsaienak ere nunbeit dire. Lehen, lerro-lerro heldu baitzitzauzkun noiznahi bonba ikaragarri batzuen burutik behera botatzerat, hortarik bederen bakea dugu orai. Dena ere on!

* * *

Futcho, gerla dela orhoitzeko ez dugu segurki bonba beharrik egun hautan. Badugu bertze jostetarik. *Crapouillots* direlako mekanika tzar bazuatarik zernahi igortzen daukute. Hein eta gisa guzietakoak baditugu, luze eta labur, mehe eta lodi. Ttikiek botoila dute airean direlarik iduri. Bat hoitarik ez da hamasei kilo bolbora baino gutiago tripan duenik. Handiak, aldiz, egiazko barrika batzu dire. Zenbeitek badituzte ehun kilo bolboretaraino. Eta *crapouillots* handi edo ttiki gure erreketan zapartatzen direlarik, hitzemaiten dautzuet zinkako ederra hartzen dutela gure beharri gaichoek...

Beharrik ez dute harrabots bezenbat min egiten! Begi ona duenak, ehun bat metretan *crapouillot* bat ikusten duelarik, nahi duen bezen aise bazter egin dezake. Gerla gisa hortako ez da pilotaria baino abilagorik.

* * *

Ez da, bertzela, gerla huntan gure etsai debruak asmatu ez duenik. Egun guziz entzuten ahal dugu, gure errekek baino oraino beherago⁽⁴¹⁾, zanpa-zanpa zilatzen ari. Aski zilatu duelarik, han emanen du bolbora karga ikaragarri zenbeit. Eta gero bota su. Hanbat gaichto, oren latz hartan erreketan kausituko diren soldado gaichoentzat. Lan horiek nola egingen dituzten etsaiek, bai eta ere frantsesek, orai gehienak ikasi baititugu cheheki errateko, hortakoa behar litake. Zertako ez lezake, hortaz, bere solasaldia egin ondoko egun batez J.S.P. gure adichkideak? Bere itzulietan aise ikus dezake lan hortan ari den norbeit... Zer zautzu, adichkidea?

* * *

Badire sekulan burua galtzen ez dutenak... Goiz huntan lerro hauk⁽⁴²⁾ moldatu nahiz ari nintzelarik nere ziloan, sei metra behera, azeri zahar bat bezala, soldado bat ethorri zaut, saskia buruan, chardinik nahi nuenez erosi. Tratuan dire, beraz, azkenekotz hasi! Harma han utz, saskia har eta kurri trankilki eskuin⁽⁴³⁾ eta ezker. Hau da gerla bitchia! Damurik ez dute hola dabilzanek *Chardina bichi-bichia* irrintzinaka zeruetan barna botatzen ahal. Egia erran, bertzerik ere egin litake erreketan, etsaiak ohart beldur ez bagine...

* * *

Alemanak hain abilak badire, frantses guziak ere ez dire phikaren azken umeak... Badakizue norbeitek zer daukun gibel hortan asmatu? Bere gisako eskalapoin alimale batzu, zangoa eta aztala ederki hotzetik eta umiduratik gerizatzen dituztenak. Sarri lohian tapa-tapa ibiliko gare erromatismen beldurrik gabe. Nor baita ere eskalapoin egilea, biba hura!

* * *

Ohoin, mozkor, kontrabandicht eta holako, kasu! Hemendik goiti, arre-hasiko dire premisioneak. Hemen ditugun jendarmak ez dire naski

⁽⁴¹⁾ E. *beharago*.

⁽⁴²⁾ E. *Kauk*.

⁽⁴³⁾ E. *eskun*.

egonen horrat itzuli gabe. Bertze soldado guziak bezala bezti dire. Lehen urrunerat nor ziren ikus zitaken eta beharrorduan ihesari eman. Orai gainean ditudzu, ustez-eta lagun bat duzun. Oilo tchar baten ebas-teko, ikaran behar da jokatu. Gerlako trichtezia handienetarik bat da zenbeitentzat hori...

* * *

Holetan, bigarren aldikotz izanen dire⁽⁴⁴⁾ permisioneak! Hobe. Nihork hemen ez du nigarrik, hortaz, eginen. Norbeit ez bada, badakit zerbeit⁽⁴⁵⁾ egun hautan⁽⁴⁶⁾ bigarren aldikotz permisioneaz denik. Galtza pare bat! Senperen da. Aneia batekin lehenik, orai bertzearekin. Zer zoriona!

* * *

Milesker kartak igorri dauzkitedan guziera. Orai aski: ezen izan ditut 57 pare. Milesker berezi bat zuri, nere herritar Kattalin. Jada baitut zure kartekin sei pinta irabaziak. Goraintzi.

1915-12-24

Euri eta euri: ez dugu bertzerik egun hautan. Gaichtoagorik ez ditake erreketan bizi behar duenarentzat. Eta horrengatik ez da, errateko maneran, eririk gure errechimenduetan: egunean hogoi, hogoita bortz, hogoita hamar goren-gorenaz. Eta zer eritasun da? Mafrundi ttiki, buruko min ahul eta holako zenbeit pirriskeria. Herrian bezala balitz lana galdu behar eta mirikua pagatu, erituz ez lukete hemengo mirikuek moltsa hanbat betheko. Bainan hemen on baita noizetik noizerat egunaren gochokichago iragatea, hola ditugu eri horiek: jornala aintzinat doa.

⁽⁴⁴⁾ E. *di-*.

⁽⁴⁵⁾ E. *zorbeit*.

⁽⁴⁶⁾ E. *hauntan*.

Nere uste guzia da, Herrian bagine, eri gehiago baginukela, hango maina guzien gatik. Zer erran nahi du, bada, horrek? Ori, Jainko onak maite dituela gerlariak, Eskual Herrian hainbertze othoitz heientzat egiten dutelakotz... Erran gabe doa, mirikuek ederki arthatzen dituztela eriak: eri ttikienak eri handi balire bezala.

Nola errechimendu bakotchak baititu zazpi miriku eta behar diren erremedio guziak, Eskual Herriko ama onak, egizue trankilki lo. Zuen haurrak esku onetan dire, eta zuen esku gochoak ez badituzte hor arratsetan eztiki pherekatzeko, ez dute bederen bertze deusen eskasik.

Zer nahuzue gehiago?

* * *

Holetan etsaien kazetak bakeaz mintzo dire? Bazterrak gisa hartan funditu eta odoleztatu ondoan, bakea nahi dute diren bezalakoek, hamar urtheren buruan berriz oldartzeko? Ez, Pette, ez. Gerla hasi duzue, segi dezagun bururaino. Uztarrik handienak emanak ditzuzue. Guk, aldiz, zer dezakegun egin erakustekoa, bertzerik badaukate ere buruan mendiz bertzaldeko eskualdunek. Ez aipha bakerik oraino. Sarri dugu aiphatuko, tripan ditzuzuen guziak kanporat botatuko ditzuzelarik.

* * *

Ehun demuntren josteta ikusirik dagozi aste huntan alemanak! Asteazken arratsaldean nere errechimenduak igorri diozkate 600 *crapouillots* direlakoetarik. Noizetik noizerat beren erreketarik hasten baitzaizkigu oihuka: *Kochons de frantzozen* eta holako mila astokeria, segurutzen dauztuet azteazkenean ez dutela hainitz sudur-punta erakutsi. Hek ere arbola eihartuan aiseago egiten abarrak...

Lurpean baititugu etsaien solasen hartzeko tresna espresak, heieri esker, azteazkenean ikasi dugu 600 *crapouillots* hoitarik lehenak berak, bertzeak bertzalde, hil diozkatela bi sarjant eta kolpatu bi soldado. Sarjant horietarik batek *Fritz* zuen izena. Fritz! Ez zaitzue? Nolako izenak ditzuzten hautatzen diren bezalako zozoek!...

* * *

Ederki egina! Gure pausatokian badugu alimaleko gizon bat ehun mila ichtorioren tratuan ari dena. Badu jada ehun milerako bat bazterrerat emanik. Ez zaio aski. Gormanten gormantez, aste huntan hameka arroltze soldado bati seira sos saldu diozka. Ichil-ichila hartu ditu arroltzeak soldadoak, bainan nola jeneralak ez baitu nahi arroltzeak hoin kario sal ditezen, aintzindari horri jakinarazi dio tratulantaren egintza. Eta berehala jeneralak hamar egunentzat hetsarazi du botiga. Mila liberen zimikoa baduke hor gure gizonak. Hobe.

* * *

Atch! Ez dute orok irri egin behar sarri! Bira sos kazetak salduz, nahi zutena sosa egiten zuten zenbeitek, aintzineko aste hoitan behin erran dau tzuetedan bezala. Orai eta sekulan kazetek⁽⁴⁷⁾ ez dute sos bat baizik balio. Jeneralak erran diote egun goizean kazeta saltzaileeri, kazetak sos bana ez saltzekotzen ez detzaten sal. Nola nihork ez baitu tratu hortarik nahiko, beldurtzeko da kazetarik ikusi gabe egon behar dukegula ondoko egunetan.

Nik, aste guziez, izaiten baitituz berrogoi bat *Eskualdun*, ez nau jeneralaren solasak makurtzen. Erosi prezioan dituz herritarreri *Eskualdunak* ematen: milesker batean truk. Alta bertzerik ere balio luke ba gu bezalako berriketariak dituen kazetak!

Bizi bedi bethi *Eskualduna*.

* * *

Zertako bi lege? Pausatzen naizen lekuan bortz emazte adineko herrian gelditu ziren, orai urthea alemanak hurbildu zirelarik. Geroztik bethi hemen dire. Bortzetarik bat bet-betan aste huntan erhotu zaiku. Bainan zer erho echtia! Musikari dio nahi. Ba eta musikariak direla orai-ko nahaskeria guziez hobendun. Hola mintzo delakotz, bihar edo etzi bere gisako etche batetarat preso igorriko dute. Ez zaut hori zuzen dela. Mundu zabalean baita hainbertze gizon tzar orai-ko nahaskeriak aphezen gain ezartzen dituztenak, zertako ez hek ere preso ezar? Ala gure emazte gaichoak baino gaizki gutiago egiten dute?

⁽⁴⁷⁾ tazetek.

* * *

Igandean mezan nintzen. Etchean tiro batentzat ez bainuke meza saindua huts egin nahi, zertako behar nuke huts egin soldadogoan? Choraturua egona naiz mezako denboran. Gure usaiako senpertar musikariak charamelatu dauzkigu eskualdun aire ederrenak. Meza hastean: *Uholde baten pare*. Ebanjelioan: *Jainkoaren ama*. Sagaran: *Uso churia errazu*. Meza akabantzan: *Tiki tikitik*. Bi azken aireño hoik ez baintuen egundaino ostatuan baizik entzun, zer uste duzue polliki ematen dutela elizan ere!

* * *

To, to, to. *amerikanoak* oraidik alde omen ditugu? Heieri esker, gure erreketan baditugu kanoi berri batzu, bortz ahotakoak. Errebolberek bezal-bezala dituzte tiroak igortzen, hats bat hartzeko artean bortz tiro. Ba eiki, beren hanka handiak norapeit mugitu beharko baitituzte ondoko egunetan alemanek!

Biba *amerikanoak*!

* * *

Ohore *Kanboko* herriari. *Kanboko* bi aphezek, *Chorhy* jaun bikarioak eta *Jaureguy* aita churiak gerlako gurutzea irabazi dute. Gerlatik lekora, *Kanboko* garan bat eta bertzea jautsiko direlarik besoz beso, zoin eder izanen den!

* * *

Mila goraintzi eskualdun guzieri eta lehen lehenik, *Oxobi*, hiri. Agur eta heldu den aste arte.

1915-12-31

Kechuchko dire bazterrak aste huntan. *Obus* eta *crapouillots* hoitarik nahi bezenbat igorri daukute etsaiek. Asetzeko kasik aski. Debaldetan, haatik: kolpatu bat ez dugu. Gure kanoiak ere karraskan ari baitire,

etsaienek baino min gehiago egiten bide dute: ez litazke bertzela hola kecha *Fritz* zenaren lagunak. Behinik behin, ez dugu guk galdetuko ichil ditezen kanoiak. Josta hor, muthikoak!

* * *

Aroa bethi euritsu da. Arteka elhur pirrista bat. Ez hotz handirik, haatik. Horiek hola, achoinetaraino lohia dugulakotz, ez da errech, guziz gauaz, erreketan ibiltzea. Halere, lehen euriak tzartu dituen bezala, hartakoa baita lurra, onduko ere baititu errekek lehen hegoak, nihork hemen ez du errankura handirik. Gerla da eta gerla ez ditake min gutiagorekin egin.

* * *

Biba Bordaleko errechimendua! Ortzeguneko gauean, errechimendu hortako lau gizonek, *en patrouille*, buruz buru egin dituzte sei aleman. Lau seien kontra gau beltzean. Zer egin? Ohartzeko astirik utzi gabe, salto egiten diote alemaneri gainerat frantsesek, errebolbera esku batean eta kanibeta bertzean. Ez du haintz iraun guduak. Alemanetarik biga ihesari eman dire, gibelaldean suarekin naski. Hirur, hantche berean, hilak gelditu. Eta seigarrena? Seigarrena, *Bokales* soldado batek bizirik bizkarran frantses erreketarat ekharri... Ez othe da polliki egina, hori?

* * *

Gaicho oilarra... Badakizue nola etcheen eta guziz elizen puntan ezartzen dituzten burdinazko oilar zangar luze batzu, haizea nondik den ikusteko? Halako bat badugu, beraz, guk ere pausatokiko elizaren puntan. Alemanek eman diote hameka kanoi kolpe. Eta, guzien gatik, oilarra bethi han dago, tente potente, itzea bezen chuchen.

Gutik egin du, haatik, ez baita gaichoa egun hautan lurrerat nahi baino lasterrago jautsi. Argi-hastea zen senpeter ihiztari aiphatu bat ohartzen da, erdi bruma hartan, elizaren puntan badela ihizi bat. To, to, artchipote bat. Hartzen du bere soldado harma eta, dart, dart, mira heintto bat ederki harturik, bi tiro ematen diozka. Oilarra bethi han baita, haatik, elizaren puntan! Bainan bi bala tripan erdiz erdi baititu, orhoitzekoa badu gaichoak. Zer begia duzun, adichkidea!!!

* * *

Eskualdunak, gauden gerlaren gatik eskualdun, Zaldubi maitea ez dadin samur zeruan!

Beharren beharrez, gerla hau hasi zelarik, oro lothu ginen frantsesari. Orai gutiz gehienek badakigu gureztat askitsu. Frantsesa ikasteko, ez dezagun, haatik, ahantz eskuara. Eta guzien gainetik kasu huni: eskuara dagola garbi. Aski aberatsa da ez gure dohain beharretan izaiteko. Ez eman hitz berririk.

Nahi duzue jakin zerk dautan hori hemen ezarrarazten? Bortz eskualdunek batetarat jo dugu ustegabeen. Chorta bat elgarrekin edan. Asko gauzez mintzatu. Solasetik solaserat sua aiphatu. Milafrangar batek orduan galdetzen dio mehaindar bati zerekin egiten duen sua. —To, ahal dutan bezala—, du *mehaindarrak* ihardesten, bainan ardurenik *charbonarekin*.

Othoi, *eskualdun* lagun maiteak, eman dezagun eskuaraz eta erran dezagun: *sua egiten dut ikatzarekin*...

* * *

Gerla aintzinean jendea nigarrez zagon oihan guziak akhabo zirela ichtantean. Ichtant hura ethorri da eskualde hautako bederen. Bat bertzearen ondotik haritz, phago, churchuri eta gainerateko guziak lurrerat doatzi etsaien obusak ez bada, frantses haizkorek mozturik. Erreketako atherbeentzat hainbertze behar da! Nigar-egingarri da egiazki. Bainan ez dituke bertzerik.

* * *

Hau, ziburutarrak, zuentzat... Ur handi bat badugu hemen gaindi itsasorat doana. Aski arraintsua da. Duela zenbeit egun alemanek, plaf, ur hortan sartu dute michteriozko obusa bat. Ichtanteko, arrain guziak han ziren uraren gainean, hilak. Egizue zuek ere hori, ziburutarrak.

Baduzue hor gaindi *Javelot* delako untzi zahar bat. Bota detzala itsaso zabalerat bospasei edo hamar bat obusa. Hitzemaiten dautzuet biharamunean eskua hedatzea askiko duzuela arrainaren biltzeko. Ziburutik

Bordelerainokoak tripaz gora izanen baitire. Bainan gero, othoi igor hunat dozenatto bat...

* * *

Kasu, *Chiquito*.

Zoko-moko guzietan eskualde hautako haurrak pilotari emanak dire. Eta eiki, badire hein bat polliki hasiak direnak! Nork daki sarrichago Chiquitok ez dituen bere partidarik handienak hemen gaindi kausituko! Bethi uste ez den lekuan dago erbia lo...

* * *

Mila goraintzi hemengo eskualdunek horkoeri.

1916-01-7

Egun elhurra. Itzuli bat egin gogo bainuen J.S.P. dagon eskualdetarat, dotzena bat chardinen inguzinan, aro hunek gibelatu nau. Mila goraintzi halere gaizoari eta bertzaldi arte. Ez dugu berriagorik hemen. Bazterrak bardin kechu. Egun eta gau, kanoien burrunba ageri da alde guzietarik. Min guti, haatik. Gutu baino gutiago ere: batere kasik. Gerla ari othe da oraino... ala bakea egin dute?

* * *

Zertan dire eskualdun aphezak? Horkoez naiz mintzo. Hemengoen berri badakit. Hauk ez dute segurki iduri hanbat odol gaichto egiten dutela. Bospasei kausitu ditut berritan bide bazter batean. Pipa bana ahoan, tira ahala harri chehatzen ari ziren, bidearen antolatzeko. Gerlak beretu ditu eta Eskual Herriko kantonier zaharretan holako hatsean eman lezakenik ez dut uste baden. Sarrichago, laur libera beren zerga partea emateko orde, berek dituzte malobrak egin nahiko. Han-harat doatzila, lantegiari buruz, pala eta aintzurrarekin, chahakoa bizkarretik ikustearekin irri egiten badiotegu, barka dezagutela...

* * *

Oi eguberri gaua
Bozkariozko gaua...

Zer uste duzue phesta pollita izan dugula Eguberriz gerla tokian! Goiz-mezan, komunione andana bat ederra. Meza nausian, mundua elizan. Ez dakit nongo tiatretako kantariak ari izan diren⁽⁴⁸⁾ errepikan halako kantu batzuetan. Bainan elizako, bego bethi *eskualduna*, Baionako soldado gazte batek ditu bazterrak choratu bere chirribikarekin⁽⁴⁹⁾. Biba Lopez!,

Gauaz, haatik, bakotcha bere chokoan egon da, alemanen beldurrez. Diren bezalakoak elizeri baitire guziz aiher deusik sumatu balaukute gauerditan, karraskan hasiko zitzauzkun beren kanoiekin. Hainbertze nahiko ginuen ba, herritar maiteak, Jesus Haurrari zuenkin batean othoitz egin!

Aphairuño bat egin dugu, haatik, zenbeit eskualdunek. Oilachko bat edo bertze eta zenbeit gazteina, herritik izanak, nahi bezen gochoki klikatu ditugu. Hori bederen gabe, ez ginezaken gau maitea iragaiterat utz. Zor zaio hoinbertze...

* * *

Bihotz gabeak!... Doi-doia erraten nautzuen alemanak elizeri aiher direla. Eliza guti da eskualde hautan oso dagonik: alemanek beren kanoiekin fundituak daduzkate. Eliza eta bertze, ez dute bertzela deusentzat errespeturik. Azkenekotz hilherrieri dire jazartzen. Egun berean, huna zer dautan miarritzar aphez batek kondatu:

“Atzo, arratsaldeko hiruetan, elizakoak eginik, hilherrietan nintzen hil gaicho bat lurrean sartzeko azken othoitzetan ari. Etsaiak hirur ehun metretan gintuen. Zer ari ginen ohartu zauzkularik, firurikan igorri daukute *crapowillot* ikaragarri bat. Doi-doia baztertzeke astia dugu izan han

⁽⁴⁸⁾ E. *dire*.

⁽⁴⁹⁾ E. *chirriikarekin*.

ginen bospasei soldadoek eta nik: karraskan, hobian erdiz erdi, zapartatu da tresna zikhina. Gutik egin du hil gaichoa ez baitu han-harat fueratu. Zilorik ez zen, haatik, inguruan lur guzia iraulia baitzen. Berritz egin behar izan dugu”.

Egiazko salbaiak! Nola nahuzue Jainkoak lagun detzan holakoak! Zer, hil-eta bederen ez dezoketela gizagaichoari bakea utz?

* * *

Emak hor, Pantchoua!

*Eskualduna*k erran dauku nola duen aipamen ohoragarriena izan François Diharce donibandar jaun gazteak. Ohore gazte katoliko on horri... Zerbeit bihotz-altchagarri balin badu gerlak, hori du ikustea nola beren buruak agertzen dituzten Frantziako gazteek, *Jeunesse Catholique* eta *Patronages* horietakoak bereziki...

Zer obra ederrak, bat eta bertzea!

* * *

Bizi bedi *Eskualduna*!

Gerla hau zertan ginuen ikusteko kazeta baten bilha banindoan goiz huntan. Hain chuchen buruz buru egiten dut Senpereko jaun notaria. Agur eta agur. Baduen kazeta bat neretzat?

—Ez, adichkidea. Bat badut, bainan hura ez dautzut dirutan ere emanen...

—Zertako?

—Ori, irakurtu eta hantchet behar baitut ezarri oheburuan.

—Bainan, jauna, hura han izan dezazun edo ez, bardin gochoki duzu lo eginen!

—Sekulan. Nere *Eskualduna* han ez badut, trichtegi nintake. Harekin, aldiz, iduritzen zait Eskual Herrian naizela. Hori aski dut trankiltzeko...

Jaun bihozdun horri ez diot erran kazeta frantses baten ondotik ibilki nintzela, horrentzat, *Eskualduna* kanpo ez baita naski bat pirrit balio duenik. Zer atchikimendua herriari eta herriko gauzeri!

* * *

Ez da naski erreka hautan ikusiko ez dutanik! Orai arte hunat ekharri zauzkguten batzuek zakurrak, bertzeek⁽⁵⁰⁾ gathuak. Atzo lapin bat dut kaiola batean ikusi. Amak ez du bere haurra hala arthatzen nola arthatzen baitu lapina bere jabeak. Ehun mila aldiz bere bizia irriskuan emanen du ahurtara bat bazkaren biltzeko. Bainan zer gertha othe litake ustegabeen alemanak gure erreketan sartzen balire?

* * *

Urthe bat akabatu da; berri bat hasi. Gerla izan dadien edo ez, bethiko legea da hori. Aurthen ere gerthatuko da gerthatuko dena. Bainan Jainko onak lagunt gaitzala. Urthe on, beraz, hango eta hemengo eskualdun maiteak!

1916-01-21

Hala-hulako aroa oraikoa ere. Egun eder batentzat aste bat euri, gutien-gutienetik. Pilisti-palasta, ahateak bezala, lohian gabiltza gure eskalapoin handiekin. Ah! eskalapoin maiteak! Zer gizona horiek asma-tu zituen! Jainkoak benedika dezala... Eri, ez gehiago ez eta gutiago. Gure mirikuek badute lo egiteko asti... Eta zer omorea duten gerlariak! Josteta eta irria baizik ez dute gogoan. Bat itzultzen da ba permisionez izanik, ehunek berehala galdetuko diote:

—Errak, to, baduk haragirik Frantzia barne hortan?

—Ba, ba, hartako doia bederen.

—Bueno, ez gaituk, beraz, oraino harat itzultzeko bezperan...

Eta oro irri-karkaraz hasiko zauzkitzu ehun aldiz, munduko bitchi-keria handiena entzun balute bezala. Guti aski dute.

Ez da, bertzalde, harritzeko. Egundainokoa omen dugu frantsesek hola, beharrez eta behar gabe, irri egitea. Zertako nahuzue sanja detzan gerlak? Gerlari azkenekotz egiten da gizona oilachko jateari bezala...

⁽⁵⁰⁾ E. bertzek.

* * *

Lephoraino⁽⁵¹⁾ ase... Holetan frantsesak irriz. Eta alemanak? Oh, alemanak, kechu... Bat ethorri zauku aste huntan gure erreketarat, gauaz, herrestan: ba eta lephoraino bazuela, othoi preso har dezagun. Erran gabe doa ez gaituela bietan othoiztu eta menturaz nahi baino tinkiago gathea eman diogula esku-muthurretan. Hogoita bortz urtheko muthiko gothor bat zen. Hainitz denboraz Parisen muthil egona. Han esposatua. Andrea oraino han. Frantsesez ederki mintzo. Ez du uste gerlak hanbat iraunen duela orai, alemanek guti askiko omen baitute amor emateko...

Dagozila: kondua ausarki eginen diotegu, errenkurarik ez dezaten izan ondoko urtheetan!

* * *

Hau da sanfreta! Egun hautarik batez izan dugu *bonbardemendu* bat gaitza. *Obus, crapouillots, grenades*, orotarik trumilka. Sekulako musika, hots. Ni, ikharan nere ziloan, zer ikusi⁽⁵²⁾ behar nuen! Ichilduche direlarik bazterrak makhurrik ba othe dugun, itzuli bat egiten dut, ziloz zilo, etsaietarik hogoi bat metretaraino. Hilik, batere. Kolpaturik ere, ez: handia baita, holako pherekaldi baten ondotik.

Eta gehiago dena, hantche, azken ziloan, tira ahala fandagotan ari kausitu ditut hogoi bat soldado, eskualdun bat, zaku baten gainean jarria, musikari. Bere *accordeonean* erriak lerratzen zituen Pausuko bestetan izan balitz bezen trankilki. Zer den, haatik, gaztetasuna! Eta egia, gerla huntan ez nuela oraino holakorik ikusi...

* * *

Bi adichkide. Bat, Donibane Lohitzunekoa da: Jean Soudre. Bertzea, Chubero Garindañekoa: Jean Charo. Gerlan diren soldado gazteenetarik, bat eta bertzea. Gerla aintzinean, elgar ez zuten ezagutzen. Orai, munduan ez da adichkide hoberik. Zenbeit egunez, berechi dituzte. Bat,

⁽⁵¹⁾ E. *Sephoraino*. Geroxeago ongi dator *lephoraino*.

⁽⁵²⁾ E. *ikbusi*.

konpainian utzi: bertzea *crapouillots* hoitarat igorri. Bainan, bat bertzearen ganik urrun, ez zuten bizirik. Eta laster horri oharturik elgarretaratu dituzte bethikotz aintzindariak. Egiazki, orai bat egiten dute. Lo, zilo berean. Lana, batean. Guardiak, egun eta gau, bethi eta bethi elgarrekin.

Egun hautan, oihan beltz batean, etsaien alde-aldean, biak kausitu ditut, *en avant-postes garindaintarra* erhaztun baten leguntzen ari *donibandarrarentzat*, eta donibandarra gora-gora kazeta irakurtzen *garindaintarrak* entzun zezan... Othe ditake munduan adichkidetasun garbi eta hunkigarrigorik? Hiltzekotz, batean dute nahi hil. Bainan Jainko Onak zer zain⁽⁵³⁾ detzala, eta sarri, *Garindane* eta *Donibane* urrun izanagatik, bi bihotz maiz, airez aire, elgarretaratuko dire sekulan baino gochokiago...

* * *

On dakiotela! Gorachago erran dautzuet nere errechimenduak alemanetarik hogoi bat metretan badituela errekek. Gurekin adichkidetzeko alemenek egiten ez dutenik ez da. Guk bertze hauzorik ginuke nahi, Ezpeletako astoak bezen faltsoak baitire aleman guziak. Egun hautarik batez, beraz, banpakoan errekarat heldu zauku hekien errekatik paketa pizkor bat.

Zer da, zer da? Mila artharekin idekitzen dugu. Alaintso! Chingar puska eder bat. Dena ere on, otsoaren ahotik izanagatik. Ichtanteko, hantche berean freiturik, kilimiliklik iretsia ginuen. Chingarrarekin, paper muthur batean othoi aguardient chorta bat igor ginezoten bide beraz ezarria zuten.

Milesker handi bat igorri diotegu ba, paper batean guk ere, bainan ere gure aguardienta ez daukagula hekien sudur handientzat. Leher egin dezatela lehenago, guk zerbeit igorriko diotegun baino. Zer! Gure Chanpañako⁽⁵⁴⁾ arno aiphatu guziak ebatsi dituzten ondoan, orai aguardienta guk ematea nahi atrebitu tzarrek! Datortzila bilha, ikusteko...

* * *

⁽⁵³⁾ E. *zain*.

⁽⁵⁴⁾ E. *Champana*-ko.

Aintzineko mintzaldiari darraikio kasik hau, arteko tintila horien gatik. Aguardientaz hau ere. Ez naiz hanbat edariari emana, ezagutzen nautenek hori badakite. Aithortu behar dut, haatik, iragan astean sekulako karrosa biltzer dutala. Eta huna nula. Saratar bat berritan izan da permisionez. Hango guardak lo zagozila oharturik, herriko aguardientetik pinta bat galtzarrean ekharri du hunat. Bankar bat, arrangoiztar bat eta ni gonbidatu. Edan eta pipa, pipa eta edan, botoila guzia hantche hustu dugu, hats batean kasik. Hitzemaiten dautzuet ez ginuela beharrietan hotz handirik. Demuntren saratarra!

Guarda zenbeitak lerro hauk irakurtzen baditu, othoitz bat hari: ondoko egunetan begiak idek detzan... nere onetan...

1916-02-04

Zer da berri? Hemen zaharrak berri eta egun batek bertzea iduri. Alemanak beren ziloetan bethi: gu, guretan. Noiz arte? Dakiena ichilik dago...

* * *

Jesu, Maria eta Josepe! Kanoiak orroaz ari dire bazter guzietarik. Bainen gu bezalako gerlari zaharrentzat zer da hori? Gerlan bada lotsagarriagorik: *mitrailleuses* direlakoak. Zenbeit gau hautan ez zauzkigu ichiltzen, tarratata eta tarratata. Hori tresna debrua! Seiehun bala igortzen dauzkitzu minutan. Emanago eta nahiago; segan ari. Hiruetan hogoita hamarreko gerlariak othe zuten holakorik?

Eta Sebastopoleko aitatchi harek egundaino bere beharrien aldean ikusi othe du guk bezenbat erle? Beldur naiz ezetz.

* * *

Arima onari... Ez dut ene bizian hainbertze oilasko jan nola Urthats inguruetan. Paketak urririk igor zitazkelakoan, milaka igorri dauzkigute. Bat bederen baginuen bakotchak eta gutiz gehienek oilasko bat bazuten

barnean. Zenbeit egunez, beraz, asean egonak gare... Eskualde guzietarik baitziren paketak, uste dut, nere parte, Frantziako oilasko arraza guzietarik jastatu dutan.

Zoin den hoberena ez nakike chuchen. Hauche dakit bakharririk: *Orpingtons* direlakoak eta *Andalusak* ahotik ezin utziak direla. Eta orai nik ere, aphezak bezala, azken hitza nere. Beraz, gerla ondoan norbeitek plazer egin nahi badaut, mahainean eskain dezadala *Orpington* edo *Andalus*. Noratnahi gateko prest izanen⁽⁵⁵⁾ naiz: Biriatu ala Garindane, Juxu edo Jatxu. Eta bardin Arrauntxe. Galdetu lekurat, hots!

* * *

Nor baita ere pertsularia, biba hura. Eskual Herritik izanik zenbeit kanta berri, errepikan hasiak dire eskualdun soldadoak. Egia erran, hain polliki ezarriak dire Guillameren kontra lerro- lerro pertsuak!

Ori beha othoi:

Parisa jin beharra hintzan bazkaltzera,
aintzinetik hautatu Hôtel ederrera.
Bainan ez dituk ongi kontuak athera:
bazkaria utzi duk jan gabe hoztera...

Eta nik hitzemaiten diot den bezalakoari hotza ere ez duela ba bazkari hori milikatuko! Bainan beha oraino:

Zer pentsatzen duk, errak mustro alemana,
sekulako haizela mundurat emana?
Hola partitzen bahaiz Jainkoaren gana,
kontuen errendatzen izanen duk lana...

Ederki errana hori. Jainkoa luzakor da batzuetan: sekulan ahanzkor.

* * *

Debrukeria nausitua... Egun hautan gertatua da hau, nere errechimentutik hurbil *Moussy* derizan herrichkan. Frantses bat *en sentinelle* zen

⁽⁵⁵⁾ E. *iranen*.

alemanetarik hurbil. Bet-betan ohartzen da hari buruz etsai bat herrestan heldu dela. Zer da hori? Zer du horrek burutik egun bethean hola agertzeko? Eta jes, zoin bitchiki dabilan? Zertako dauzka besoak gorphutzari hola lothuak? Gogorat heldu zaio frantsesari zanpantzar bat diotela alemanek igortzen. Ez zuten lehen aldia eskualde hartan. Orain ere hala-halache zuen. Krako batekin gibeletik pusaka azkenekotz ikusten ditu alemanak. Zauzte, ez duzue ba irriz ase behar eta hurbiltzerat uzten du zanpantzarra. Dagola orai hortche, gaua arte!

Eta gauaz, nihor ohartu gabe, bizkarrean pollikiño harturik, sartzen du frantses erreketan. Agur, zanpantzar alemana: zer diok? Ikus dezagun nola moldatu hauten...

Biluzten dute kasu handienarekin, zer gerta ere: lastoa idekitzen. Urdeak? Tripa guztia bonba ttiki batzuez kargatua zioten, frantsesen eskuetan zapartatuko zelakoan... Beharrik dute frantsesek alemanek bezenbat sudur!

* * *

Nork nahi daut katichima bat igorri? Eskualde hautako erechimen-duetarik batek badu aintzindari bat berrogoita hamar urthetarar doana. Gerlari aiphatua da, deusek lotsatzen ez duena: bainan burua ponetari hurbil. Zerbeit nahi duenean, nahi du... Egun batez alemanek tiroz soldado bat hiltzen diote: erlijione handikoa zen gaizo muthikoa.

—Erlijionekoa zenaz geroz, behar diren guziak nik eginaraziko ditut, dio aintzindariak. Eta hain chuchen errechimenduan baitzen aphez eskualdun bat soldado, ekharrarazten du.

—Errazu, hil bat hor baitugu, meza erran behar duzu...

—Jauna, ez dezaket, ordean...

—Zertako?

—Arratsaldea baita eta goizean nere meza errana baitut!

—Zer munta du? Emazu orai bertze bat...

—Bainan...

—Ez duzu zeren estakururik bilha. Zure aintzindaria naiz. Nahi dut...

—Bueno... Eta lerro-lerro oro badoatzi elizarat arratsaldeko sei orene-tan. Elizan othoitz labur batzu egiten ditu aphezak eta ehorzten dute gai-cho hila... mezarik gabe bichtan den bezala. Bainan huna pollitena. Geroztik aintzindari horrek ez du espanturik aski ba eta arratsaldeko sei orene-tan meza aphez bati erranarazi diola. Dohakabeak, adin hortan, meza nola erraten den ikustekoa du... On othe luke katichimaren ikastea?

* * *

Fede ttikiko soldadoa... Eskualduna da, Bankakoa: artillur gerlan. Muthiko bat ona: dena bihotz. Bainan kaskoan duena ez du zangoan. Horren arabera, alemanek hau eta hura egiten ahal: guk tirrit ez balio. Ez othe da trichtezia soldado bat hola mintzatzea? Pena hartu behar balu nik hau hemen ezartzeaz, ez nezake egin. Ez da hartakoa. Bertzal-de, berari aintzinetik errana diot. Konberti dadien, mintzatu naiz. Azke-nekotz, badakizue zer dioten, sinhetsarazia? Ba eta alemanek Miarritze eresia dutela eta itsasoari buruz, lerro-lerro, ezarriak dituztela ehun bat kanoi gure untzien suntsitzeko!

1916-02-11

Altchatuko othe zauku azkenean aroa? Iduri luke. Noizetik noizera bederen, eguerdi alderat, iguzki churi bat agertzen da lanhoen artean, orentsu batez, guti bada guti, mendietako aire bichiak echtitzen dituela. Dena ere on. Aspaldi huntan ez ginuen hoinbertze ikusi...

Emeki-emeki, gogo kontra bezala, beren erreketan sartzan ari dire urak. Denbora handirik gabe, arraintzan hasiko dire soldadoak, arrain friko batek ez baitezake kalterik egin hemen ditugun guziak klikatu eta ere.

* * *

Zer othe dute tripan? Aro echti huntaz baliatzeko edo... nik ez dakit zertako, sekulan baino aiherrago zaizkigu alemanak. Tresna mota guziekin ari dire. Iduri luke kasik gure erreken itzulphurdikatzeko chedea dutela.

Bainan zenbat mirari onak baitire, ez daukute halako makurrik egiten. Lurra iraulia dutelakoan, guri buruz abiatzen badire, ez dute urrhats handirik eginen aintzinat... Gure kanoiak ere ez daude ichilik. Egun eta gau karraskan ari dire. Eta bethi kasik, gure artillurrek dute gaina. Gaizo muthikoak! Tira bezate tantoa behin. Sarri izanen dute bitoria... .

* * *

Eta airetakoak? Airetakoak berriz agertu zaizkigu. Zoin polliki dabiltzan airean, etsaienak eta gureak, hegalak zabal-zabala! Hortako ere, haatik, bego nausi frantsesa. Agertzen da ba gure airekoetarik bat fuera ihesari ematen dire alemanenak. Zalhutasun gehiago dutela iduri luke bizkitartean. Gureek bihotza bere lekuan baitute, ordean! Deusek ez ditu lotsatzen. Etsaia ikusi orduko, hari buruz badoazi hats gaitzean. Hortako dugu airea gure, itsasoak bezala...

* * *

Burutuko othe dugu? Eta zerekin? Etsaiekin aise, gorachago nion bezala. Bainan arratoin debru horiekin? Ez dakit. Ni segurik arras lotsatzen hasia naiz. Gathuak bezen handi dire, eta zer kopetakoak!

J.S.P. kechu da lasteia tokiz aldaratu behar izan duela, arratoin ohantze baten gainean zuelakotz. Zerbeit delarik, deus ez da hori guk ikusten ditugunen aldean. Nik lasteia eman dezadan eskuin edo ezker, airean edo lurrean, debaldetan dut. Begirik ez dezaket hets gau guzia. Azkenekotz, sudurretik ausikika zait bat lothu, karra-karra. Den bezalakoa! Hitz ematen dautzuet, haatik, hantche harat laster haikatu dutala, buztanetik harturik eta berriz lotzeko minak khendurik... Sekulan gerla hau ahanzten⁽⁵⁶⁾ badut, ez ditut bederen hemengo arratoinak ahantziko! Urdeak...

* * *

Hoik alimaleak... Ez da erran behar, izpiritu gaichtoa dute alemanek eta ez da hauk asmatuko ez duten gerlako tresna motarik. Frankotan hemen berean aiphatu dauzkitzuet *crapouillots* direlako tresna lazgarriak.

⁽⁵⁶⁾ E. abazten.

Horietarik berriak egin dituzte eta gure errekeri buruz igorri. Airean zapartatzen dire eta tripatik eskapatzerat uzten bospasei ume burfurria gaitzean, lurra hunkitzearekin, phorroskatzen direnak. Bainan igor beza-gute ifernuko debrua bere adarrekin, nahi badute; ez gaituzte lotsatuko...

* * *

Irri egiteko, hau: ez gaichtakeriaz... Gerlako bizia ez da kasernakoa soldadoarentzat. Irrisku gehiago du: nekhea ere ba. Eta horrengatik nihor guti sanjatzen du gerlak. Hala-nola, mendea iraun baleza ere gerlak, sarjant bat bethi sarjant geldituko zaitzue: orotan azken hitza behar. Duela egun pare bat, soldado kolpatu bat baderamate eritegi batetarat. Tente potente, athean eritegiko sarjanta. Marrumaka ari baita kolpatua, kechatzen da gure gizona:

—Haizen bezalako ninia, nahi duk ichiltzen haizela...

—Ai, ei, ai!

—Allo, egon hadi⁽⁵⁷⁾ geldirik eta ichilik, deus ez duk hori.

—Zuk bazinu...

—Muthiko bitchia, ichil hadi, hemendik fueratzea nahi ez baduk...

—Ai, ei, ai, hiltzerat noa...

—Hil hadi debruetarat: orduan egingen duk nahi dukan bezenbat oihu!

Bertzela, ez da gizon gaichtoa sarjant hori: orok amor ematea nahi. Eriak maite ditu eta eriek maite dute, bere atheraldien gatik. Miarriztarra da: dena oihu, beraz, pentsatzen duzuen bezala. Barnea achala baino hobe uruski. Zer atheratuko othe zuen luma eskuan haren atheraldieri nindagola ohartu balitzait?

* * *

Azken solasa orai. Hitz hauk *Eskualdunean* agertuko direlarik Eskual Herrian kausituko da permisionez Zerbitzari. Zor naute hoinbertze,

⁽⁵⁷⁾ E. *egoadi*.

hemeretzi ilhabete gerla egin-eta. Nola bi astez deus ez baitut *Eskualdu-*nerat igorriko, barka dezatedala herritarrek. Ez ditakenean, ez ditake.

Oraidik, nere agurra igortzen dut herritar guzieri. Agur ere, Eskual Herriko mendi zabalak: agur, gure itsaso ederra. Milesker bihotzean emanen dautazuen gozoarentzat. Zuek utziz hunat itzultzeko, nigar bat etortzen balitzaut begitik harritzeko othe litake? Hain maitagarriak zaizte guziak! Agur eta biba nere Herria!

1916-03-10

Aste huntan elhurra ari zaiku far, far, far, nahi bezen gozoki. Noize-tik noizerat iguzki churi bat agertzen bada hedoiien artetik, badu begi-tharte. Urak erreketarik kanpo ditugu, zabal-zabala. Bainan ez da hor kechatzekorik. Zubiak oso dituguno ez gaituzte ur handiek deusetan ere makurtzen. Etsaiak ez dire mugituko, baliatzeko. Debaldetan lukete. Urerat gabe baginuke, bertzalde, pherekaldi baten emateko aski eremu. Dezagun, beraz, bi beharrien gainean lo egin.

* * *

Kanoiek beren aho handiak hetsiche dituzte, gure alderdian. Gurek noizetik noizerat bazterrak oraino inharrosten badituzte, etsaienek ez daukute buruko min handirik ematen. Zertako? Jainkoak daki. *Crapouillots* direlakoetarik ere arras guti egun hautan. Hobe segurki.

Hala-hala mitraillusak maizago ari dire, tira eta tira. Balak erlea bezen usu airean badabiltza. Uruski ez dute erle guziek ausikitzen. Hor bezala hemen ere begiak eta bihotza Verduneko alderat itzuliak dauzkagu.

* * *

Eta airetarik? Hegalak chabaldurik egun guziez eguerdi alderat agertzen zaizkigu gureak. Itzulika-itzulika ibilirik orentsu bat ezti-eztiki pausatzen dire beren ohantzetan, mirua arroka-ziloan bezala. Etsaienak, aldiz, ilhunari buruz dire airatzen. Firurikan egiten dute beren itzulia,

han edo hemen “bonba” bat edo bertze erortzerat utziz. Hoinbertze ikusi eta ere, ber atseguina dugu airetakoak ikustean. Hain dire pollitak beren moko chorrotcharekin! Gizonak holakorik asma zezakela...

* * *

Biba eskualdunak! Zoin gehiagoka ari izan dire nere errechimenduko soldadoak *grenades* direlakoan besainka botatzen. Eskualdun bat da azkenekotz nausitu. Tresna tzarra berrogoi bat metretarat fueratu du, bertze guziek baino hirur-lau metra urrunago. Bergako sudurra egiten zuten kasakoinek. Handichagoa eginaraziko diote sarri etsaieri gaizo muthikoak.

* * *

Atheraldi eder bat. Badire ezdeus bat aski dutenak Frantziaz etsitze-ko. Frantziak zer odol on eta biziaren jabe den frogatu ez balu bezala. Alemanak har dezala erreka bat edo bertze, berehala marrumaka hasten zaizkitzu choro hoik: “Gureak egin du oraikoan! Sekulan ez ditugu garhaituko!”

Ez garhaituko? Galde zazue hori nik dakidan kanboar soldado gazte bati. Haur hotz bat da kasik. Egun hautan lehen aldikotz surat hurbildua, senpertar, eta ustariztar bi laborari eta Landibarreko aphezgei batekin. Gaua da. Bidean heldu dire lauak, bihotza gaua bezen ilhun, noiz eta ere su-firrinda bat ikusten baitute zeruan.

—Zer duk hori, du galdetzen gure kanboarrak?

—Hori? Alemanek igortzen duten argi bat, nihor erreketarik kanpo lanean ari den ikusteko.

—Diren bezalako alimale debruak, zer duten, azkenekotz, asmatu!

Hainbertzenarekin, bricht, huna bigarren su-firrinda. Hau argiago, zabalago, luzeago.

—Hau frantsesa duk, diote erraten kanboar choratua beha dagonari.

—Hau frantsesa? Biba, beraz, Frantzia. Leher eg... sekula santan ez gaituztela alemanek gu bentzutuko! —Eta bere loriarekin zeruetan barna igortzen du mirakuiluzko irrintzina sumin bat. Gaizo muthila! Bi egunen itzala baizik ez du bildu hortako.

* * *

Senpertarrentzat azken hitza. Bertze orduz *Eskualdunean* erran dauzuet nola zuen herritar C. Dufau miriku gazteak asmatu eta egin duen kolpatuen erreketan ibiltzeko tresna berri bat. Bertzerik ere egin du geroztik jaun horrek. Egiazki ohore egiten dio Senpereri. Egun hautan herrian baita permisionez, senpertarrak, egitzue jaun horri merezi dituen ohoreak.

1916-03-17

Urtu da elhurra. Erreketan sartu dire urak. Agertu da berriz iguzkia. Ongi ethorri dela! Ichilducheak baitziren kanoiak, sekulan baino hats gaichtoagoan ari zaizkigu orai, egun eta gau. Gureek hamar aldiz orro handiagoa dute, haatik. Ederki doa hola.

Bertzela, ez dute etsaiek gure eskualdean oraino sudurrik agertu. Menturaz, zenbeitek hala erranik ere, Verdun hortan ez dute azken oldarra hasi. Dena den, gauden beha. Has bezate, gustu dutelarik eta nahi bezen laster ez gaude gu behin ukho egitekotan. Zoko-moko guziak ederkisko alanbre horzdunez estaliak⁽⁵⁸⁾ ditugu. Eta alanbrearen zaintzeko, eskualdun odol garbiena bethi berme dago...

* * *

Gathu debru baten asmua. Duela bi egun, behin ere ikusi ez ginuen josteta eman daukute etsaiek, gure pausatokian, firurikan bizpahirur ehun *obus* ikaragarrienerarik, hamar minuta⁽⁵⁹⁾ barnean, igorritz. Eta nola zapartatzen ziren! Min guti egin daukute halere: salbu zuek eta bederatziz mando zahar phorroskatu. Bainan ez dute hoik ere egin ni nagon etchekeo gathuak bezala? Zertako ez dire gorde? Debru gathuak, harra-

⁽⁵⁸⁾ E. *estailak*.

⁽⁵⁹⁾ E. *minueta*.

bots ikaragarri hori entzun dueneko, chut-chuta eman ditu bi beharriak, nundik zen ikusteko. Ikusi dueneko, bere umea lepho-zokotik hartu du, eta gerizarat ereman. Jainkoak daki norat. Denboraren buruan, bazterrak ongi ichildu direlarik, lehengo lekurat ekharriko du ume gaichoa: supazterrerat. Jaun Barbier banintz, kanta pollitño batentzat zer sujeta hor!

* * *

Egiazko giristinoa

Martchoan gare, *san Josepen* ilhabetean. Heriotze onaren patroina gerlariak ez dugu ahanzten. Dakitan kapitain batek ez du ere ahanzten bere patroina duela Saindu maitea. Ilhabetearen lehen egunean hurbildu da mahain sainduetarat. Laur medail eder, lauak gerlan irabaziak, han zituen lerro-lerro, bulharraren gainean. Nola medail horiek ez baititu sekula santan agertzen kapitain horrek, hain da guti ohore gose, aphezak galdetzen dio meztatik lekora:

—Eta errazu, jaun kapitaina, nola, sekulan ez eta, egun agertu dituztu medail eder horiek?

—Ori, jauna —du ihardesten kapitainak— San Josepen ohoretan: nere patroina dut. Ez harri ilhabete huntan guzian ikusten badauzkidatuztu. San Josepi zor zaio hoinbertze.

Gaizo gizona! Ah, holako hainisko balu gure Frantziak!

* * *

Eta Acheriberro? Acheriberro, bertze hamar eskualdun lagunekin permisionez dugu. Beldur naiz ez dela hunat ethorriko itzuli bat edo bertze mendiz bertzalderat egin gabe, ontto zerbeit guri ekartzeko. Guzien gatik datorla laster huna, bere lagunekin. Trichte zaizkigu pausako orenak, harek eta haren lagunek hain airoski arratsetan charamelatzten dituzten *Andre Madalen* eta *Uso churiak* entzuten ditugunean...

* * *

Gezur handi bat

Berritan *Eskualdunak* gezur bati moztu diozka hegalak. Ongi egin du. Norbeitek nunbeit erran du ba eta gerlako erreketan ez dela aphez bat. Den bezalako nahasia! Nere errechimenduko berri dakit bakharrrik, nik. Aski badakit halere. Ezen hemen baditugu gurekin laur aphez: bat eskualduna da. Baditugu, bertzalde, laur aphezgei: hautan ere bat bada eskualduna. Bertze bi aphezgei, hastetik kolpatuak, beren denborako kolpatu dire. Beraz, nork ere baitu gezur hori hedatu, ageri du ez duela erreketarat sudurrik hanbat agertu! Errechago zaio ostatuan horditu eta aphezeri jazartzea...

* * *

J.S.P. adichkideari mila goraintzi. Milesker ere *Eskualdunean* igorri dauzkidan bi hitzentzat. Elgarretaratzeko ez dugu, zenbeit denboraz, bide laburragorik. Hagin gaichtoan nintzen harentzat. Harek erranik bospasei basurde ethorri zirela gure alde hautarat, arima herratua bezala ibili naiz zokoz zoko, zenbeit egunez. Hain maite dut basurde-azpia! Azkenean, basurde hek kausiturik, tiro emaiterat nindoan. Bainan zertako tira? Basa-ahuntzak zituen...

1916-03-31

Neguaren ondotik huna primadera, gerlako bigarrena. Jainkoari eskerrak! Nahiz ez dugun hain gaichtoa izan negua, aski euri eta elhur eman dauku nigarrrik gabe urruntzen ikusteko. Primaderak ekharriko dauku zero urdinean iguzki zabala: urrunduko lur bustian hotz saminak. Agur beraz, agur primadera!

Bertzerik zer daukun emanen, geroak du erakutsiko. Gauden, lotsatu gabe, beha. Ez dezake, itchura guzien arabera, onik baizik ekhar gure erresumari. Biba primadera!

Errechiñularen ondotik sasietan kantuz hasi dire choriño guziak. Zoin pollitak eta maiteak zaizkigun, kanoien orroaren erdian, erasia

hoik gerlako goiz-arrats lazgarrietan! Sortu eta zabaldu dire, erreka hegietan, lore ttiki usaindunak. Artharekin erhi punttez krikakoan mozturik, erematen ditugu gure eskualdun hilen hobietarat: hori zor diotegu naski gaichoeri. Noizetik noizerat ere loreñoetarik bat, nigar batekin bustirik eta musu gozo bat erdian, gure letretan igortzen dugu etcherat, amak laket baitu haurraren musua eta haurrak aitarena...

* * *

Bertzela zer da berri? Egun guziek gerlan ez dutela elgar iduri. Egun goizetik arratserat orroaz ariko zaizkitzu inguruetako kanoi guziak. Eta gero, bihar, hirur-lau karraska entzuten badituzu, munduko gorena. Zertako hori? Aintzindariak dakite. Gure eginbidea da, zer gerta ere, erne egoitea, begi-beharriak idekiz. Eginbide hori ahal bezen ongi bethetzen dugu, gaineratekoez bururik hautsi gabe. Airetakoak, gero eta usuago, hor zabiltzagu inguruka, zer ikusiko duten. Zerbeit ikusten badute ere, ez daukute hanbat salatzen. Diren bezalako barne handiak! Damurik ez dituzte airetarat emaztekiak igortzen! Hola menturaz zerbeit baginakike...

* * *

Chahako maitea! Sekulan, munduaren hastapenetik hunat, ez du chahakoak orai bezenbat begitarte eta ohore izan. Esku guzietan bada-bila, lurreko haurrik panpinena bezala. Aberats eta pobre, handi eta ttiki, musuka iretsia daukate orok chahakoa. Bainan horiek hola, nik hau dut uste: mundu zabalean gizon bat ez dela chahakoari halako amodioa ekartzen dionik nola baitio ekartzen hemen gurekin soldado dugun *larrosoar* batek. Zertako? Ori, huna:

Beraz, gure larrosoarra permisionez izan zaiku berritan. Neskatcha bat bezen ederki aphaindurik, urrundu zitzaukun gerla tokitik ilhuntze batez. Parisen gaindi, Bordelen gaindi, Baionan gaindi, Larrosororat heldu bi egunen buruko. Han sei egun gocho iragan. Eta gero, Espainiako alderat bururik itzuli gabe, berriz gerlako bidea hartu. Bainan, nunbeitik ere hura orduko, ez du ba treinak kontrako bidea hartzen! Edo, adichkidea, ez othe duzu zuk kontrako treina hartu?

Dena den, larrosoarra ez da oraino makur doala ohartu. Lo-kuluchka bat eginik, pipa bat erre. Zer egin orduan? Hoberena zuen trago baten egitea barnearen phizteko. Hartzen du chahakoa eta charra, charra, charra, hasten da edaten. Nonbeitkoak baitzituen lagunak, harritzen zaizko: ba eta zer duen tresna hori, nongo jende mota den, norat doan. Larrosoarrak chehetasun guziak ematen ditu: “Ez duk, beraz, hau hire bidea, diote gaizoari erraten orduan”. Nihor sekulan harritu bada, hura harritu. Treina gelditu deneko, jausten da eta bertze bidea hartzen. Eta chahakoari esker ez da hunat hogoita laur oren berantegi baizik itzuli. Zer den, haatik! Chahakorik izan ez balu larrosoarrak, Jainkoak daki nun izanen zen oraino egungo egunean...

Horra zer ichotorioa duen berberak aintzindarieri kondatu. Bainan niri chori batek bertzerik daut beharri chilorat erran: Parisen dituela hogoita laur oren horiek iragan... sekulako mozkorrarekin

Orduan du bidean gezurra asmatu,
ba-eta treinaz zela nunbeit enganatu...
Hire sudur gorriak aise dik salatu,
chahakoaz bertzerik huela churgatu...

* * *

Lertsunak eta airetako

Atzo elheketa nindagon, bide bazterrean, Sempereko jaun notariarekin. Hain chuchen airetako bat guri parrez par. Urruntchago lertsuna andana bat, lerro-lerro, heldu. Kleronari eskualdun batek jotzen du: “Garde á vous!” Hori egiten da airetako bat agertzen deneko, soldado guziak itzal ditezen.

Gutarik berrogoi metretan baigintuen hirur eskualdun jarriak, bat chutitzen da: ainhoar bat. Behatzen du alde guzietarat: airetakorik gehiago ez ageri. Urrun, urrun, bere begi chorrotcharekin ikusten ditu lertsunak. Irriz lehertzeko, oihuka hasten da kleronariari:

—Errak to, Petan, ez duk guti irri eginarazi behar kaskoineri. Ez zukan airetakorik!

—Ez airetakorik? Ba, bazukan.

—Behazak debruetarat oraino. Lertsunak dituk, hek, ni Eskual Herri Ainhokoa naizen bezen segur, debru ziria.

Irri eta irri, irri eta irri hori entzutearekin ez bazaizko hertzeak barnean lehertu Senpereko notariari, ez da ainhoarraren falta...

1916-04-14

Eta zer diote gerlariek?

Gu bethi gure erreketan, sekulan baino hobeki aro eder hunekin. Etsaiek ez gaituzte hainbertze kitzikatzen aspaldichkoan eskualde haultan. Aise ageri du hatsa laburtzen hasia dutela. Kanoiek noizetik noizerat dituzte bakharrik beren aho zabalak idekitzen. *Crapouillots* hetarik ere gutiago dabila airean.

Hala-hala, egunkariek diotenaz, zalaparta gaitzak dire oraino hanhemenka: Verduneko eskualdean, Argonne delakoan eta hurbiltchago Vile aux Bois hortan. Diote anglesak ere ez daudela lo. Baditake. Guk hemen, herrikoek bezala, horietako berriak bertzetarik ditugu ikusten. Noiz zaizkigu etsaiak guri ere oldartuko edo noiz gitzaiote gu oldartuko? Jainkoak daki. Behar orduko argi detzala gure aintzindari biphilak. Hekiekin bat, guk gure eginbidea betheko dugu bururadino, alegeraki.

Herritar maiteak, sinhets zazue oren hori hurbiltzen ari dela, menturaz hurbildua dela. Lagun gaitzatzue hortik. Egunetik egunerat, orenetik orenerat heda ditake gudua. Ustegabeen hedatuko da, sua mendian hedatzen den bezala. Orduan ichuriko da odol. Berriz busti beharko dute begiek. Sekulan baino kartsukiago, egizue guretzat othoitz...

* * *

Hogoita Hamalagarrenak bezala. Gan den asteko *Eskualdunean* irakurtu dut *Mont-de-Marsaneko* Hogoita Hamalagarrenak joko pollita egin duela Craonneko alde hortan. Alemanak ziloetarik jali: berrogoita

hamar bat bederen. Frantsesek hurbiltzerat utzi eta gero... obusa erauntsi izigarri batekin azkeneraino chirtchikatu diren bezalako alimaleak. Ederki hori. Bainan ez da gaizkiago jokatu egun hautan Bordeleko Ehun eta Berrogoita Laurgarrena. Vendresse delako herrichkari buruz abiatu dire hiruetan hogoi bat aleman. Erne baitzauden, haatik, frantsesak hor ere. Tira eta tira hasi alde guzietarik oro eta alemanak laster ziloetaratzituzuli, gibelaldea biribil, hamar bat hil bidean utziz...

* * *

Hau ezkertchago gertatua

Gure ezker hortan badugu nunbeitko errechimendu bat. Eskualdunik ez da hor. Berritan ethorriak ditugu hunat. Hunat ethorri ziren arratsean, joko tzar bat egin zioten etsaiek, eskualde hauk ez zituztela ezagutzen nolazpeit ikasirik. Ez zuen ondorio gaichtorik ekharri joko horrek, uruski. Bainan gustu hartu alemanek eta berriz jazarri zaizkote gure aldekoeri. Hauk erne egoki. Harrabotsari ohartu eta tira eta tira ari izan oren pare batez, gau ilhunean. Biharamunean, alanbreari hurbil ikusi dituzte, han utziak gau hartan, zortzi chichpa, bertze hainbertze pala, *grenades* hetarik hogoi bat... eta artilleriaren ohartarazteko su-firrin-da bere gisako bat. Mako batekin bildu dituzte horiek oro. Zertan othe zabiltzan hor alemanak? Jainkoak badaki, guk ere. Beldurtzeko, haatik, ez zutela chede onik...

* * *

Airetakoak?

Aro ederraz balia, airean dabilta goizetik arratserat, nun zer ikusiko duten. Kanoiek firurikan igortzen diozkate milaka obus handienetarik, bainan ez du iduri⁽⁶⁰⁾ jazko haizeaz baino kechuago direla hortaz. Noizbeit buruz buru egiten badute airean etsaienek eta gureek, laster tiroka hasten dire zoin gehiago. Orduan kasu: tcharrenak amor... Tcharrena nor

⁽⁶⁰⁾ E. idur.

da? Ehunetarik lauetan hogoita hemeretzieta alemana. Biba, beraz, chori frantsesak!

* * *

Emak bor, aburea!

Lehenago erran dautzuet hemengo jendeak ez duela pirrit balio. Erlijione mikorik ez dute. Frantzia bera uste dut aise sal lezaketen gutiz gehienek. Badire bakar⁽⁶¹⁾ batzu bertzelakoak. Hola nola guziak maite dugun ahure zahar bat. Lauetan hogoi urthez goiti badu. Bihotz oneko gizona da. Egun hautan galtzer dugu gaizoa. Hirur metretan zapartatu zaio obus ikaragarri bat. Haizeak han-harat fueratu du gure gizona. Uruski ez zuen izialduraz bertze minik. Arratsean ikusi dutalarik, erran diot:

—Holetan, gaicho gizona galtzer zaitugu?

—Nere adinean ez othe da hobe hola hiltzea, eta ederrago ere, eze-nez zaldi uztar batez...?

Herioak ez balitu gehiago lotsatzen soldadoak! Egia erran, gizon hori elizari jarraikia da: maiz sakramenduetarat hurbiltzen ere. Hori da herioak ez lotsatzeko sekretua. Dezagun gogoan atchik...

1916-04-28

Erreketarik urrun dauzkitzuet egungo lerrochka hauk moldatzen. Ez ginuen uste sekulan holakorik gertatuko litzaikula. Hango arras eginak ginen. Han nahiko ginuen gerla akabatu. Bainan aintzindariak guk ez bezala dituzte gauzak ikusten. Zer dute gogoan gu hola gure erreketarik urruntarazteko? Geroak erakutsiko.

Behinik behin, ez dugu uste berriz erreketan sartuko garela. Holahola, kanoietarik urrun, zenbeit egun erdi pausuan iraganen ditugu. Eta

⁽⁶¹⁾ E. bakpar.

gero? Gero naski oldar handi bat eginen, etsaien lerroak hausteko. Nun? Ez dakigu. Han edo hemen, bardin balio du guretzat. Nun-nahi izanen dugu zer egin. Nun-nahi ichuriko da odola. Horren gatik nihor ez da lotsatua gutartean. Jainkoak lagun gaitzala.

* * *

Zer gozoa hemen!

Kanoien orroak ez dauku beharirik hausten. Ez zaiku crapouillots tzar hetarik aldean zapartatzen. Ez du guti balio. Airetakorik ez da nihon ere ageri. Hau ez da gerla. Hola iraun ginezake. Nasaiki kausitzen dugu zer jan zer edan: haragi, arroltze, arrain, arno churi eta gorri hobereneta-rik. Eta hitz dautzuet nihor ez dela lotsa moltsaren husteko. Zertako atchik sosa! Ondoko egunetan nola ginezake gasta?

* * *

Konduak garbi

Pausu huntan, tripaz gorago behatzen dute soldadoek. Phazko denbora baita, elizan dabilta lerro-lerro guziak, beren phazkoen egiteko. Alabainan, sarri Jainkoaren aitzinean agertu behar baginu, ez othe litake hobe konduak aintzinetik eginik agertzea? Hala dugu uste, eskualdunek bederen. Hanbat gaichto errechtasun huntaz baliatzen ez direnentzat.

* * *

Hegalak motz

Norbaitek herritik egorri daut berria Verdun hartarat gan beharko dugula guk ere. Baditake. Bainan hori nihork ez daki oraino. Hori erra-ten duena airerat mintzo da. Ibiliko da herrian holako gezur. Motz las-ter hegalak. Hastean nioen bezala, ez dakigu batere zoin alde hartuko dugun, eta noiz. Bardin har dezakegu Verdun hortarat, bainan ere Belgi-karat. Bertze noratnahi, bardin. Gauden beha. Herritarrak, ez lotsa. Gu ez gaude lotsatzekotan. Othoitz egizue baxharrik guretzat.

* * *

Eta gure *Eskualduna*? Gure *Eskualduna* ez dugu ahantziko. Ahal bezen maiz, gure berriak cheheki igorriko diozkagu. Ordainez dakargula orai arte bezala, bethi herriko orhoitzapen gozo maitea. Agur, gure *Eskualduna*. Agur, heritarrak. Biba Eskual Herria eta Frantzia⁽⁶²⁾!!

1916-06-02

Aspaldiko partez, huna gure berriak. *Aisne* delako eskualdeak utzi-eta, itzuli frango eginik oinez, treinaz eta beribilez, huna nun garen gu ere Verduneko eskualdean. Ja badu hamalau egun gudu gaitz huntan ari garela. Zer ifernua, hau! Lehen bagintuen erratekoak. Bada! deusik ez ziren hangoak hemen ikusten ditugunen aldean. Bainan gauzen hobeki errateko, goazen, usaian bezala, sailka.

* * *

Aroa

Gudu huntako, aroak hainitz egiten du. Denbora ilhun da ba, harra-bots guti bazterretan. Iguzkiarekin, karraska gorriak eta orduan burutzeak lan du. Gauak eguna du iduri. Gau argia egun argia bezala. Gau ilhuna, egun ilhuna bezala. Hunat ethorritz geroz, hamalau egunetarik hamar eder izan ditugu. Zer karraskak ere! Nere parte, beharriak hau-tsiak bezala ditut. Bainan gerlak ez badaut bertze makhurrik ekartzen, ez dut hortaz hanbat achola...

* * *

Kanoiak

Zoko-moko guzietan kanoia da: handi, arteko eta ttiki, milaka eta mila-ka. Zoinek othe gehiena, frantsesak ala alemanek? Nork erran? Iduri luke

⁽⁶²⁾ 1916-05-19 ohar bat dator: Eta Zerbitzari. Ez da hila ez. Haatik minez egona zauku zenbeit egun. Eta nola ahoko minarekin, ez baitzitzen bera ahoko minaz baizik mintza, ichildu da. Nahigabe hori ere ez dauku berak salatua. Izanen du laster zer erran, ikasteko toki onerat abiatua baita.

kanoi handiez bardintsu direla. Ez dute batek bertzeari ausiki handirik egiten. Bardintsu igortzen dute obus larrietarik. Hala-hala obus ttiki hoitarik, bortz aldiz bederen gehiago igortzen diotegu frantsesek: 75 delako hori ez da bere saingatik ichiltzen. Nola ez duen zintzurra larrutzen!

* * *

Mitrailusak

Ez du kasik balio aiphatzea. Hemen oraino lehen tiroa entzutekoa dut. Nori tira? Nihor nihon ez da ageri kanoiarekin itsurat igor ditake obusa; bethi edo kasik bethi bere balioaren makhurra eginen du. Ez da bardin mitrailusarekin. Debaldetan ez tiratzeko, behar da zerbeit ikusi...

* * *

Eta errekek!

Othoi ez detzagun aipha. Nigarra begirat heldu zaut, lehengo lekuan halako errekek utzi eta hemengoak ikustea. Obusek egin ziloak ditugu errekatzat eta han gaude, gau eta egun, zerua atherbe. Ez ditake urhatsik egin, burua ez ditake altcha, han berean ez hiltzekotan. Hemendik bizirik atheratuko dena zerbeit ikusirik atheratuko da.

* * *

Jan-edanak

Garizuma egiten dugu hemen. Ogirik ez, ez eta arnorik. Baginu bederen ura nahi bezenbat? Hirur egun chortarik gabe iragan eta orai badugu ez ithotzeko doia, biziaren irrisku gauaz ekharririk. Baitezpada-ko hura badugunaz geroz, ez dugu zeren nigar egin. Munduan bada naski gaizkiago denik ere: edatekoa izan eta ezin edan. Bertzalde, bada-kigu ez garela bethikotz hemen...

* * *

Airetakoak?

Hor ditugu airean goizetik arratserat, hamar, hamabortz, hogoietaraino batean. Hunat gabe entzuna nuen eskualde hautan aleman airetako

gehiago bazela. Ez ditake gezur handiagorik. Aleman batentzat badire bortz edo sei frantses. Eta zoin gogotik jazartzen diren etsaiari hanharat fueratu arte, lurrerat sutan igortzen ez badute. Hori ere egun guziz ikusten duguna da. Biba, beraz, frantsesak!

* * *

Azken hitzak

Horiek hola, ez gaude uko egitekotan. Ederki frogatu ere du Baionako Berrehun eta Berrogoita Bederatzigarrenak. Etsaia jazarri zaio. Debaldetan. Laster bere parropioetarat haikatu du. Ederki jokatu dire hor aintzindari eta soldado eskualdunak. Guzien artean ohorezko aipamen bat Dibar, luhusuar gomandantari eta Ybarnegaray jaun deputatuari. Gerlari gaitzak dire bat eta bertzea. Biba horiek. Galtze borthiskoak izan baditugu hemen, ez da aintzindari horien falta. Zenbeit oraino bizi badire, bi jaun horieri dute zor.

Agur

1916-06-09

Eta zer diote, bada, eskualdun gerlariak? Ifernuan zenbeit egun iraganik orai zeruan direla. Eta zer ifernua zen!... Huna, beraz, nun garen orai sutik urrun, den mendreneko irriskurik gabe. Kanoien orroa bera ez da ageri. Pausatzeko ez du guti balio. Jateko eta edateko, hemen ez da eskasik. Egia erran, sosaren puntan baizik ez ditake gauza kausi. Gutaz ongi baliatzen da hemengo jendea. Bainan *Verduneko* garizumaren ondotik, ez othe da zuzen hemen Phazko egitea? Moltsak “atch” erraten duelarik geldi... eta kito. Horra soldadoarentzat zer den zuhurtzia.

Zer loak ere! Verdunen begirik ez ginuen hesten ahal. Alde batetik, etsaiak jazarriko zaizkigulako beldur mina, eta, bertzetik, kanoia mota guzien musika dorphea. Hemen, ilhuna sartu orduko, gure lastorat goazi,

oilok iduri. Eta hitz dautzuet ez dugula oren handirik galtzen loaren beira. Lo bat, lo handi bat oilarra kukurukuka hasi arte. Zer bizia, hau!

* * *

Gure ametsak...

Ez nuke, haatik, juramentu egin nahi batzuek eta bertzeek ez dutela beren lo gozoan ametsik egiten. Nahita ez noizbeit gogorat ethorri behar dute Verdunen ikusi ditugunek: lurra hala itzulia, iraulia hainbertze eremutan, nun begiak heda ahala ez baitute belhar ondo bat ikusten; oihanak hala chirchikatuak, nun dudatzen baituzu sekulan arbola ondo bat ere izan den han; herrichkak eta herriak hala erroz gora emanak nun harri-meta bat baizik ez baita gehiago ageri, etche orde... Bainan gure ametsetan gehienik ikusiko duguna da naski hauche: Fleury deitzen zuten herrichka churi pollit batean, Douaumont delakotik hurbil, emazteki gaztesko bat jarria, hamar bat ilhabetetako haurra besoetan, hila; eta urruntchago, bi gizon zahar, elgarri lotuak eskua eskuan adio errateko bezala, hilak hek ere...

Ez, holakoak ez ditazke ahantz.

* * *

Eta arratoinak?

Denboraz errateko handiak zituzten arratoinentzat *Eskualdunaren* berriketari batek edo biek. Orhoit naiz oraino J.S.P. nere aspaldiko adichkide onaren lerroetan irakurturik burua galaraziko ziotela naski arratoinek. Makur handiagorik ez zitaken gerta gerla huntan guzian. Bainan orai ez dut beldurrik. Bai eiki, haikatu baitire norapeit arratoinak⁽⁶³⁾! Ez bide dute horiek ere kanoiarentzat amodio handirik!

Dena den, bake osoa uzten daukute arratoinek. Bainan badire bertze halako zangodun ttipi batzu, kanoiak lotsatu ez dituenak. Moroak ibili dire eskualde hautan eta sekulako zorri keta utzi dute hemen gaindi. Ura baita nasaiki, egin ditake garbitasuna. Bainan ez balitz! Ai, ei, ai...

⁽⁶³⁾ E. arratoinek. Gure ustez arratoinak behar luke.

* * *

Lagun berriak

Ez da egia bezalakorik. Verdun hortan gizon hainitz galtzen da. Gure errechimendutan lerroak argituche dire, eta, diotenaz, gure eskualdetan gizonak gutituak. Bethikoa ezin eman Eskual Herriak ere! Nor uste duzue igorri daukutela? Beltzak. Ba jauna ba, beltzak! Zenbeit egun hautan gurekin ditugu. Hek beren mintzairan, guk gure eskuaran, nola uste duzue elgar aditzen dugula! Elgarrekin jan, elgarrekin edan, elgarrekin josta edo lanean har, eta oraino lehen hitz makurra elgarri erratekoa dugu. Guk hekien mintzaira ez dugu naski ikasiko, frantsesa ez dugunaz geroz ikasi. Hek ez badute eskuara ikasten, ez dugu makur handirik izanzen elgarren artean. Futcho, zerbeit balio du horrek ere. Biba, beraz, beltzak eta eskualdunak.

* * *

Arraintzaleak

Eskualde urtsuak ditugu hauk, eta urak arraintsu dire. Horra zertako arratseko “zopa” jan orduko, beren tresnak eskuan, hainbertze soldado lasterka urari buruz doazin. Badire amuarekin doazinak. Zenbeit, sarearekin. Bainan gutiz gehienak, *grenades* direlakoekin. Urean zapartarazten dituzte. Eta berehala inguruetakoa arraina tripaz gora ur-gainerat heldu zaitzu. Eskua hedatzea aski orduan. Irriskurik ez balu josteta⁽⁶⁴⁾ horrek, gerla ondoan banakike nun zer egin...

* * *

Laborariak

Hauk bethi zokoz zoko dabilta nun zer ikusiko eta ikasiko duten, geroa gogoan. Gizon zuhurak. Choratuak dagozi hemengo phentze gizeneri, hemengo ogi-eremu zabaleri. Jelos kasik hemen lana zoin errecha den ikusi eta. Guzien gatik, bihotzak Eskual Herria diote galdetzen.

⁽⁶⁴⁾ E. *posteta*.

Han dire sortu. Han handitu. Han dute zahartu eta zango-herrestatu nahi. Ah, Eskual Herri maitea!...

*Herrialde guzietan toki onak badira,
bainan bibotzak dio: zoaz Eskual Herrira.*

* * *

Elizan

Bazter choragarri hauk oraino ikusten baditugu, badakigu nori dugun zor. Hainbertze gelditu dire⁽⁶⁵⁾ sekulakotz Verduneko eskualde lazgarrietan. Esker bihurtzeko, ospeka elizarat badoazi arrats guziez soldadoak. Eta zer bildutasuna! Zer kartsutasuna arrosorioa aphezak hasten duelarik! Eta gero zoin gogotik duten kantatzen! Ez da norbeiti pherekaldi bat onaren emaita baino hoberik harekin adichkidetzeko. Jainkoak ederki pherekatu gaitu Verdunen. Horrek ditu hoinbertze elizarat itzularazi. Sekulakotz balitz!

* * *

Noiz arte

Gure herritarretan zenbeit kurios litazke noiz arte egonen garen pausuan? Nihork ez daki. Beharbada hamabortz bat egunen buruan, beharbada bihar berriz abiatuko. Dakiguna da nihun ez garela aintzineko egunetan izan garen egunetan baino gaizkiago izanen. Igor gaitzatela nahi duten lekurat. Eskualdunak non-nahiko on dire orai. Biba eskualdunak!

1916-06-23

Agur, eskualdun herritar maiteak. Huna gu berritz ere, bigarren aldikotz bidez bide ibilirik. Ederki pausatu gare sutik urrun, akhituak gine-

⁽⁶⁵⁾ E. dice.

nak. Zauri ttikiskoak izan zituztenak, sendaturik itzuli zaizkigu. Kolpatu handien eta hilen ordainak igorri dauzkigute. Aintzinean bezen eder dire orai gure errechimenduak. Eta zer haginean dagozin bazinakite!

* * *

Aroa

Uda hain polliki hasi zitzaikun. Laster akabatu zaiku, zorigaitzez. Errearoaren lehenetik negua dugu. Iguzkiak ez du gehiago agertu nahi. Euria ari goizetik arratserat, uharka. Gauak luze. Hotz. Eta zer hotzak! Choriak berak trichterik dagozi aldachkaren puntan, burua hegalpean, beren charamela gozoez bazterrak choratu gabe. Igelek dituzte espanturik handienak, gau eta egun karrankaz. Negua da, beraz, uda bethean negua. Itchura guzien arabera, azkena baitugu gerlan, ez gare lotsatuak.

* * *

Errekak

Verdunen ez ginuen. Hemen ederrak baditugu, kasik *Aisne* hartan utzi gintuenak bezen ederrak. Eta bizkitartean ez luke iduri hemen behar handirik badela. Bertzela ere etsaiari aise gorde ditake oihanpean.

Kanoiak ichilik dagozi: egunean hamarretan ahoak zabaltzen dituzte, munduko gorena. Urthea omen du eskualde huntan alemana ez zaio-la frantsesari jazarri. Ez zen urhats batez ere aintzinate. Ez dugu den mendreneko⁽⁶⁶⁾ beldurrik jazarriko zaikula. Bertze ulirik badu. Rusoen oldarra kraskatu nahi badute, soldadoak eta kanoiak hemendik urrundu beharko dituzte. Orduan, kasu angles eta frantsesari. Gerla azken bururat hurbiltzen ari othe den?

* * *

Eskualdea

Eskualdunak choratuak gaude. Arrunt. Eskual Herrian garella zaiku iduritzen. Egia erran, ez dire hango mendi ederrak nihon ere ageri, ez

⁽⁶⁶⁾ E. demendrenko.

eta ere hango itsaso urdin zabala. Bainan hango oihan beltzak, hango mendichka pherdeak, hango herrichka bilduak dire hemen. Eta egun hautan, nagon tokia ikusi eta durduzatu naiz ez othe nintzen Itsasun. Horren niri arras sinhetsarazteko, bi gauza dire eskas: Itsasuko gerezi onak eta Elizaldeko arno gozoa, Beronikaren irri argi eztiarekin.

* * *

Gerla

J.S.P. hain ederki mintzatzen zaitzue gerlako gorabeheraz aste guzietako mintzaldietan nun ez baitut haren eremuetan sartu nahi. Bainan chehetasun hau barka dezadala. Vaux eta Douaumont direlakoan artean eremu laburra da: bi-hirur kilometra. Nere begiez negurtua dut, batetik bertzerat ez baititake hel. Bi-hirur kilometra, ez da hanbat. Bainan zenbat uste duzue arte hortan sartzan dela hiruetan hogoita hamabortzeko kanoiaren obusetarik? Egunean, ehun eta berrogoi mila. Ba, jauna, ba: egunean ehun eta berrogoi mila.

Kanoi larriskoen eta larrienak, bertzalde, ezin sinhetsia. Eta bizkitartean nihaurek kondatuak banitu bezen segurki erran dezaket hori hola dela. Ez da, beraz, harritzeko galtze gogorak badituzte gure etsaiek eskualde hortan...

* * *

Epher zango gorri

Egia erran, ez dakit zango churiak edo gorriak dituzten hemengo epherrek: dakidana da hunat ethorriko litaken ihiztariak ez lezakela bere eguna gal. Zoko-moko guzietan epherra ageri da; bide berriaren erdian ditut azkenekotz ikusi bospasei. Zoin pollitak ziren! Bainan nik chichparik ez! Harri bat besainka igorri diotet, bainan... makurchko.

Bi basurde ere ikusi ditut, niri buruz heldu, bainan haukieri ez naiz harrika hasi. Zertako ez aithor? Putza biribil, etche zahar batean sartu naiz. Zer egin?

* * *

Obore Senpereri.

Duela bi aste *Eskualdunean* atseginekin irakurtu dugu Senpere Erebia-ko semeak izan duela Verduneko alde hartan gerlako gurutzea. Biba Gantchume! Bainan badire bertze bi senpertar eskualde hortan berean aiphatuak izan direnak. Batek eta bertzeak, Gantchumek bezala, gerlako gurutzea irabazi dute. Lehena C. Dufau miriku gaztea da. Haste-hastetik bere burua ederki agertu zuen, eriak gain-gainetik arthatuz eta gerlakotz lan baliosenak eginez. (Gan den asteko *Eskualdunean* agerrarazia dugu Senpere Gichonkieneko miriku gazteari eman dioten aipamen ederra.)

Bigarrena, Etchegoyen Jean-Baptiste. Huna hunek zer egin duen: “Chargeur de la deuxième compagnie de mitrailleuses le 15 Mai 1914 au fort de Vaux, s’est présenté volontairement pour porter un ordre sous un bombardement des plus violents. Est resté 23 heures enseveli par l’explosion d’un obus. Bien que fortement contusionné a repris son poste et n’a consenti à être évacué que lorsque sa section a été relevée.”

Emak hor, Achkona. Zer bihotzaren jabe haizen! Egia erran, zertako harri hitaz? Ez othe ditek hik bezala Gazteria katoliko hartan diren hire lagunek ere zernahi zernahiren gatik egiten gerlan?

Azken solasa

Harritzeko da hemengo soldado guzieren nola phiztu zaioten bihotza Verdun hortako itzulia eginez geroz. Deusek ez ditu gehiago lotsatzen: ez goseak, ez nahigabeak, ez hotzak. Huna froga bat. Gan den gauean euria egin du, egundaino chortarik erori ez balitz bezala. Gure ziloetan ez gaitu hanbat makurtu. Lo egin dugu gozoki. Bainan goizean iratzartzearekin huni ohartzen gare, ba eta gure lagunetarik bat eskas dugula: André Chuquebit, Baionakoa. Muthiko bat ona, jostakorra, lagunkina. Maitagarrietarik, hots.

Nun othe dugu? Jo eskuin, jo ezker. Nihon ere gure gizona ez ageri. Bilha eta bilha, azkenean, hantche kausitu dugu, haitz baten ondoan etzana, harria bezala lo. Hamahirur oren bazuen hantche lo zagola, euriak euriari, iratzartu gabe. Eta errazue gero soldadoak kechu direla! Eta zenbat Chuquebit gutartean!

1916-07-07

*Ez da lurrean erregerik
gu baino urusago denik.*

Eta nork othe dio hori? Nere errechimenduko hiruetan hogoi eskualdunek. Kaskoinen erdian galduak ginauden, itsasoan ur chorta bezala. Ezin ahoa idek, kaskoinak trufaka hasi gabe: “To, horra paristarrak”! Paristarrak gu baino gehiago balire bezala! Fu !!!

Bertze bizirik dugu gerla toki berri huntarat ethorritz geroz. Eskualde hauk ikusiz geroz, kopeta goratzen hasia ginuen, Eskual Herrian ginela hemen buruari emanik. Eta horra nun egun hautan alderat ethorri zaikun Baionako errechimendua, bere eskualdun andana ederrarekin. Sarri zer kantak, zer dantzak, zer irrintzinak! Datorzila orai munduko kaskoin guziak. Tirrit dela hekientzat. Biba Berrogoita Bederatzigarrena. Biba Berrogoita Hamazazpigarrena. Biba eskualdunak!

* * *

Aroa

Eskualdunak hemen hola elgarretaratuak ikusirikako kontentarekin, iguzkia irriz hasi zaiku. Goizean bortz orenetako zeruan agertzen da, Santa Graziko gasna ederrena bezen zabal eta gustagarri. Egunaz erre nahi du. Hala-hala, egunak bero diren bezen gauak hotz. Negukoak iduri kasik. Baititugu atherbe ederrak eta soineko hautak, behartzen zaiku, hemen ez baita haizu *Aisne* hartan bezala surik egitea. Guziak konda, haatik, holako aroa onhar ginezake, kontratuz, gerla hau bururatu arte.

* * *

Noiz arte?

Ba, noiz bururatuko othe da gerla hau? Duela bi edo hirur aste, J. E. delako *Eskualdunaren* berriketari aipatuak erran dauku haren arabera udazken huntan trenkatuko dela gerla. Damu da ez baitu erran zertako

duen uste hori. Hain ederki chehatzen ditu gauzak nahi duelarik! Hala-ko eskuara garbian ere! Berak daki zertako ez den mintzatu. Nik ez ditut ichiltzeko arrozoin berak. Beraz, noiz akhabatuko da gerla? Heldu den urthatsi buruz. Nolaz dezaket ba hori erran? Idek begiak.

Hemendik zenbeit egunen buruan rusianoek esku emanen diote Salonikan ditugun soldadoeri. Ordu berean angles, rusiano, italiano eta frantsesak karraskan jazarriko zaizkote etsaieri. Guduek iraun dezakete zenbeit denbora. Bainan azkenekotz ziloa gutarik norbeitek kausituko du Alemaniarat sartzeko. Orduan debruak egin du pulloa. Amor⁽⁶⁷⁾ eman beharko du etsaiak. Horra zer dutan nik uste. Badire naski ni hola mintzaturik irri eginen dutenak eta erranen: gaizoa! Baditake gaizo bat naizen, bainan hori uste dut. Bertzerik uste duena mintza bedi. Eskual Herriko mendiak urrundik ikusiko ditudalarik gerlatik etcherakoan, ez dut gutiago atsegin izanen bihotzean. Eta zer irrintzina Baionan jaustean! Zintzurra larrutu arte...

* * *

Hemengo gorabeherak

Lehengo bertsuak dire. Ez dugu segurki zeren errenkura. Ez balitz Frantzian soldadorik gu baino gaizkiago, ez litake nigar handirik. Ez uste izan, haatik, bake osoa dugula ere. Gure aintzinean hemen zirenek ez bide zuten sekulan kanoiarik entzuten, frantsesek berek ez baitzuten deusik igortzen. Eskualdun artillurrak ez dire holako odolekoak. Egun⁽⁶⁸⁾ guziz zinka bat edo bertze egiten dute, gutienik ustean. Karraskan hasten dire orduan etsaiak. Ba bainan, gu, orduko ziloetan baigare. Min guti dugu, beraz, hemen, arras guti. Dena ere funtsean, ez daukute kanoiek egiten? Zer, bada? Direlako *crapouillots* urde hek. Nun behar gintuen berriz ikusi! Ez ditugu begi onaz ikusi duela bospasei egun, burfurian heldu, ikusi ditugularik. Guzien gatik, toki onean erori garela daukagu.

⁽⁶⁷⁾ E. *amor*.

⁽⁶⁸⁾ E. *gun*.

* * *

Airetakoak

Aisne hartan franko airetako bazabilan zeruetan barna. Verdunen hainitz gehiago, haatik.

Eta hemen Verdunen bezenbat. Han baino kopeta gehichago dute, haatik, chori alemanek. Noizetik noizerat gure Ierroetaraino sartzen dire. Laster jazartzen zaizkote orduan fransesak. Zer gudu pollitak airean derabiltzaten guduak! Hori ikusi ez duenak deus ez du ikusi. Eta nolako zanpetan ari zaitzun bihotza, guduak diraueno. Zertako? Ikustea errech da. Bethi frantsesak irabaztea nahi baiginuke, guk! Egun hautan hirur chori aleman erortzen ikusi ditut. Zer atsegina nuen! Zorigaitzez frantses bat ere ikusi dut kolpatua jausten. Zer zimikoa bihotzean egun hartan guzian! Eta bazinakite nor zen chori hura⁽⁶⁹⁾ zuek ere! Gizagaizoa laster sendatuko ahal da bere hamabigarren etsaia lehertzeko! Jainkoari dezagun hortako guziek othoitz egin, holako gizon guti baita Frantzian!

* * *

Zenbeit gezur

Nun othe dabila hemen baino gezur gehiago? Gizon gezurtia⁽⁷⁰⁾ has-tio dut. Batak lau sakatu dauzkit atzo. Eta zer heinekoak! Ederren ederrez, huna lauak: Lehena: anglesek *Lille* deitzen den hiria alemaneri khendu diotela, oldar gaitz batean hogoita bortz soldado preso harturik. Bigarrena: egun berean, Angleterran untzitarik jautsiko direla ehun eta berrogoita hamar mila... japonen. Hirugarrena: Suisa Alemaniaren kontra hastekotan dela, egun luzerik⁽⁷¹⁾ gabe.

Laugarrena... eta ederrena: frantsesek⁽⁷²⁾ eta anglesek preso ezarri dutela Constantin Greziako errege errebesa, eta Grezian errepublika eginik ororen buru izendatu Venizelos delako gizon aiphatua. Holako

⁽⁶⁹⁾ E. *buro*.

⁽⁷⁰⁾ E. *gezurkia*.

⁽⁷¹⁾ E. *luzeri*.

⁽⁷²⁾ E. *Frantsese*.

gezurrek ez dute makur handirik ekartzen. Behingotz⁽⁷³⁾ barkatu diot gezurtiari. Ondikotz! bada hameka, Eskual Herrian berean, barkatzea merezi ez dutenik. Nundik eta Frantzia mendratuko duten ari direla iduri dute. Diren bezalako itsuak... edo... Bainan gauden ichilik, bitoria eder batek oro antolatuko eta agian ahantzaraziko ditu. Biba Frantzia!

* * *

Ezin sinetsia

Nork sinhes gerlan badela gizon bat ere oraino permisionez izan ez denik, hastetsutik gerlan delarik. Bizkitartean egia da. Eskualduna da gizon hori. Haur ttiki eder eta maitagarri baten aita. Izan zezaken permisionea. Ez du galdetu ere. Beldur zen etchetik itzultzean bihotzak gaindi eginen ziola⁽⁷⁴⁾. Lagunek hameka egin diote ba, gan zedin herri-rat. Debaldetan. Ez du behinere deliberatu. Hola bere burua ezagutzen duen gizona, hola bere buruari gogor egiten dakien gizona, zer gizona! Ez ditut urrikari horren emazte ona eta haur maitea! Jainkoak eman dezotela laster, eta orduan bethikotz, elgarretaratzeko zoriona!

1916-07-14

Aroa

Iduri luke arras ederrerat emana dugula oraikoa aroa. Goizetik arratserat hor dugu bethi iguzkia zeru urdin batean. Bero ari du. Hobe. Gure ziloetako urak emeki-emeki agortuko dire hola eta egun guzia zangoak chuko atchikiko ditugu, mafrundi higuingarri baten beldurrik gabe. Goiz alderat hotzak loa khentzen baigintuen, gauak ephelduko dire... eta gu loz aseko.

* * *

⁽⁷³⁾ E. *Behin gotz.*

⁽⁷⁴⁾ E. *ziola.*

Bizia

Egia dena den erran ditake orai. Frantziako egunkariak ehunetan errepikatuko dautzute ba eta Alemanian ez zutela bethi nahi zutena jaten: hau eta hura eskas zituztela. Baditake eta sinhets errecha da. Hau gordetzen zuten, haatik: Frantzian eta soldadoeri gero eta gehiago gutitzen ari ziotela jatekoa. Ez ginuen oro egun guziz asetzen. Zertako? Ez dakit.

Orai, berriz, ederki jaten dugu: sekulan baino hobeki. Deusen eskasik ez dugu. Ogia hauta da. Etchekoa baino hobea dela ere erran nezake, etcheko arthoa bera ez balitz hemengo ogi churi ederra baino hobea. Haragia hoberenatarik dugu eta aski bada. Baratzekariak, berriz, ematen dauzkigute eta ausarki. Arnoa ona da. Aise ageri da Frantzian badela sos... edo gerla bururatzen ari dela. Hau balitz, harri zintazkete, gu ikustearekin, nola edertuak garen!

* * *

Gerla

Aiphatu behar othe dut gerla? Ez luke kasik balio. Egun osoak iragaten ditugu gure tokietan kanoia kasik entzun gabe. *Crapouillots* hetarik ere gutiago dabila artean. Lo othe dagozi buruz buru ditugun alemanak ala bertze norapeit igorri othe dituzte hemen zituzten gerlako tresnak. Nork naki?

Hala-hala gure eskuin eta ezkerretan karraska gorria da zenbeit egun hautan. Bran, bran, bran atabala bezala ari da kanoia. Zer da hor? Zuek bezenbat dakit, ez gehiago: deusik. Ondoko egunetan ikusiko. J.E. *Eskualdunaren* berriketaria uste dut eskualde hoitarik batean den. Erran dezala zer diren orro horiek.

* * *

Eskualdun soldadoak

Eskualduna ez banintz, espantu egin nezake eskualdunetz: soldadoetan hoberenak direla, garbienak, ichilenak eta maitagarrienak. Eta ez dakit nik orano zer-enak! Dena den, ez naiz bakharra hori erraten

duena. Gure aitzindariak gauza bera diote. Huna froga. Egun hautan khe bat ikusirik ehun bat metretan, haritz handi batzuen gerizan, zer othe ditaken han, banoa harat: To, to, to 49garreneko kozinak! sei kozina eder eta garbi, sekulako usain onarekin. Eskualdunik badenetz geldetzen dut. Eskualdunik badenetz? “Ba, jauna, ba” daut batek ihardesten. Batetik bertzerat, orenak hantchet iragan ditut. Salbu bizpahirur, kozinari guziak eskualdunak ziren.

Nork eman ditu hor? Aintzindariak. Zertako? Zeren eta eskualdunak diren orotan hoberenak. Eta ez dire bakharririk kozinetan sartuak eskualdunak. Non-nahi badire: ordenantz, musikari, berriketari *telephone* delako tresna debruan, eri-artatzaile, eri-ketari. Bainan enplegu bat gertan behar-eta, nik, *Gey* ustariztarrak duena nahi nuke, ustegabeen kausitu dut atherbe pollit batean. Han dago goizetik arratserat zortzi uso mai-tagarrirekin, hekien zaintzeko, hazteko eta beharrorduan paperño bat zangoan ezarririk han-harat igortzeko. Zer bizi ederra hori! Ez du bere usoez espanturik aski *Gey*ek. Berriketari hautak omen dire. Bi kilometra minutan⁽⁷⁵⁾ egiten dituztela dio. Hainitz zaio. Nik joka nezoke, haatik, zenbat ongi baita usoezin *Gey*, haren bihotza usoezin baino maizago dela etchean utzi dituen hurrekin eta haren gogoak haren usoez baino lasterrago egiten duela Eskual Herrirako bidea!

* * *

Eskualdunaren buruzagiari.

Orai arte hemengo eskualdunek ez zuten *Eskualdunarentzat* erraitekorik. Beldur ziren zerbeit erran balute, ez zutela gehiago izanen. Beldur hori ez bide dute gehiago, ezen soldado batzuek erran dautet Eskual Herriko berri gehichago oraino nahi lutekela ikusi, eta guziz *Eskualdunak* sekulan ez dituela aiphatzen herrian jokatzeko dire pilota partidak.

Jaun kazeta egilea, ikus hor zer egin dezakezun. Oraitik milesker... eta heldu den aste arte.

⁽⁷⁵⁾ E. *minuetan*. Bi modutara dator Elissalderen testuetan *minuta* eta *minueta*.

1916-07-21

Oraiko egunak!

Denbora ederrerat zoala gan den astean aiphatu ginueneko, berriz euria hasi zuen egundaino bezala. Geroztik euria dugu: uharrak goizetik arratserat. Lohian gaude lephoraino gure erreketan, achoinetarik gorago ura dugularik atherbeetan beretan. Hola irauten badu uda huntan, zer erromatismak gerla ondoren! Akiztarrak aberasten ez badire, nihor ez da aberastuko. Osagarria baita oraiko eta geroko gauza guzietan beharrena, herritar maiteak, dezagun, zuek eta guk, othoitz egin iguzki eder eta bero bat berriz ager dadien eta behingotz bederen gaina har dezan...

Kanoiak oraikoan ez dagozi lo. Beren aho zabalak ideki dituzte. Ez zaio, egun hautan bereziki, etsaiari nihun epherik utzi behar, hemendik tropak harturik kechuago diren eskualdetarat bidal bailezazke. Tokian tokikoekin joka dadiela. Beharrietarik badaukagu, ez dezagun utz eskatzerat, den bezalako!

Crapouillots direlakoak, aldiz, gordeche dire. Bat edo bertze bakharrik egunean, bethi hemen ditugula etsaiari erakusteko. Erreken itzuliphurdikatzeko tresnak dire horiek: egun hautan euriak egiten dauku lan bera. Airetakoak berak atherbean dagozi. Choriak ere ez othe dire euriarekin ostopean gordetzen, burua hegalpean sarturik? Denbora den gutieneko bat altchatzen bada, ez dute gure airetakoek astirik galduko eta firrindan ibiliko zaizkigu gainez gain zer berri den etsaien aldean ikusteko beren begi chorrotchekin.

* * *

Gerlaz asea

Adineko bat ethorri zaiku azken gau hautan gure erreketarat: othoi-eta har ginezan, gerlaz asea zela. Lepho-zokotik hartu du, beraz, eskualdun batek eta, bidean jostatu gabe, aintzindarieri ereman. Aintzindarien galdeeri huna zer duen ihardoki: "Nere errechimendua duzue buruz

buru⁽⁷⁶⁾: Ehun eta Hamargarrena. Nere lagunak gerlan diren zaharrene-
tarik dire. Gutiz gehienak, ni bezala, gerla huntaz aseak. Aintzindarien
beldur ez balire, ehunka ethor litazke zuen ganat gau guziz. Hamabortz
egun hautan hek eta nik ez dugu haragi mikorik jastatu. Ogia tzarrene-
tarik dugu. Etchetik gosetea dutela daukute gure emazteek eta hurrek
igortzen. Nola nahuzue ez ditene gure adineko gizonak gerlaz aseak izan?
Gau huntan sei lagun abiatu gare “en patrouille”, seiek hunat ethortzeko
chedea ginuen. Bide erditsutarik itzuli dire, bertze bortzak tiroka hasi
zaiztelakotz. Bihotzak eskas egin diote. Nik orai ez dut deusen urriki-
rik. Bainan othoi emadazue jaterat”.

Eman diote ogi eta gasna pichka bat. Bazinakite nola lothu den jaten!
Zakur hamikatua zaldiki ustelari bezen gogotik. Eta gero eskualdun
eskualdunenak bezen ederki bi trago hartu dauzkitzu chahakotik!!

* * *

Bat gutiago

Doi-doia nion goragoko sailan adineko etsai bat, gerlaz ase, ethorri
zaikula gure erreketarat. Egun berean bertze etsai bat ikusi dut gure
erreketan. Hau gaztea, haatik. Eta zer muthiko baphoa! Uste ez zuelarik
dute bi frantsesek ederkisko bildu. “En patrouille” zabilan zenbeit lagu-
nekin gure alderdian zer ikusiko zuen. Ustegabetan lagunetarik urrundu
eta... frantsesen aztaparretarat erori da. Horra zer den kuriosegi izaitea.

Zertako egin du bekatu?
Orai beharko du pekatu.

Ezen izan gaiten frantses, aleman, moro edo turko, desterruko ogia
baino guziera onago zaiku etcheko arthoa. Dena den, etsai bat gutiago
guretzat. Ochala ez balitz bertzerik...

* * *

⁽⁷⁶⁾ E. buruz-buruz.

Bazterretako berri

Zuek bezala, guk ere atsegin handienarekin irakurtu ditugu azken egun hautako berri onak. Pentsatzen dut bertzerik ere ikusiko dugula ondoko egunetan. Hasian hasi, behar ginuke orai jarraiki. Bainan hola gertatzen bada, ez naiz eskualdun zenbeiten zintzurrentzat beldurrik gabe. *Somme* hartan frantsesak eta anglesak etsaiari hain borthizki jazarri zaizkoten egunetik, goizetan argi-hastean eta arratsetan ilhuntzean, zoin gehiago irrintzinaka ari dire. Bai, eiki, phiztu baitire soldado eskualdunak. Nork atchik gu, sekulan etsaien iphurditik abiatzen bagare? Urrikari ditut...

* * *

Diren bezalako zoroak!

Oraiko atseginekin baditugu ere gure bihozminak. Permissionetik hainbertze lagun ez zaizku gehiago itzultzen! Diren bezalako choroak! Bi urthe gerla egin dituzte eta orai ukho egiten dute, gerla bururatzer doalarik. Zerk diote, bada, burua itzularazten? Hemen zireno ez zuten chede gaichtorik. Burhasoek othe diote ukho eginarazten?

Sekulako lurrak galtzea, zer haurkeria! Balakite zenbat nigar eginen duten sarri! Egundainokoa da: uste dute mendiz bertzaldean kausituko duten eltzea izanen dela bethea urrhez. Balute lurrez. Eta gero, uste ez duguna gertatzen balitz sekulan, deserturrak uzten balituzte Frantzian sartzerat, thu egin ginezokete guk bi begien erdirat. Fuera ukho eginbideari egin eta eginarazten dutenak!

* * *

Norbeiti bi hitz

Nere adichkide chaharra.

Badauzkitzut bospasei guthuna igorriak. Behinere zuk ez dautazu bat ere bidali. Emagun ez ditutzula izan, bidean galdu direlakotz. Hau ez da galduko, *Eskualdunak* ekharri dautzu.

Ni ongi naiz, Jainkoari esker. Zu ere bai, agian. Gerla badoa bere bidean. Etsaiak asetzen hasiak dire, itchura guzien arabera. Laster tren-

katu behar du hunek. Emazu oilo bat chitan. Itzultzearekin oilasko-ichter batek plazer eginen daut. Bainan arraza ona hauta zazu gero! *Arruntzako* jaun erretorak omen du zernahi oilo mota. Zoazi haren ganat: khen zotzu hamabi arroltze andalus. Handi litake chito bat bederen ez balitz sortzen! Egon ongi. Aguardienta arras ona zen.

Zure adichkidea

Nere adichkideari bi hitz horiek moldatu ditudaneko, iguzki churi bat agertzen hasi da zeru gainean bi hedoi enartetik. Herabe dela iduri du agertzeko. Aise, horrenbertze denbora bipher egin-eta! Bainan zato, zato, gaichoa, ez zaitut segurki erasiatuko. Ez eta nere lagunek ere. Zato eta erematzu Eskual Herrirat gure goraintzi hoberenak.

1916-07-28

Zer da moda hau?

Uste dut ez dugula udarik ikusi behar aurthen. Egun bat eder eta bero egiten badu, badakigu zer izanen dugun ondotik: bospasei egun euritsu eta hotz. Etchean bagine, baginuke hor ehunetan eritzekoa eta hiltzekoa. Hemen ez dugu deusen beldurrik. Aspaldiko denboretan ez dut mafrundi bat ez eta buruko min bat ikusi. Harrigarri da, hots! Iraun dezagula hola-hola osasunak eta sarri ez dugu erraitekoak izanen gerlarren ondorioez.

* * *

Zertan garen

Egun hautan ez gare soberarik ados gure buruz burukoekin. Gibelaldea minbera dute arras. Den gutieneko harrabotsa sumatzen dute ba, karraskan hasiko dire chichpekin, mitrallusekin eta guziz direlako *grenades* hekiekin. Debaldetan, haatik. Ez daukute min guti baino gutiago bairzik egiten. Eta erran gabe doa ez ditugula hortan kito uzten. Batentzat biga, hirur edo lau ematen ikasi daukute aspaldian gure aintzindariak.

Pilota plazan bezen gogotik *grenades* horiek besainka fueratzen dituzte-larik han-harat eskualdunek, bazinakite zoin laster eztitzen zaizkigun etsaiak...!

* * *

Airean

Hor ere bethi josteta bertsuak dituzte. Jo harat jo hunat badabilta, denbora altchatzen deneko. Bainan soldadoeri ez zaiote gehiago balio begien altchatzea ikusteko. Hainbertze ikusirik badute orai arte. Gauza hoberenaz asetzen da azkenekotz.

Gerla hunen aintzinean omen ziren franko airetakoez bizi zirenak, eta, diotenaz, biltzen omen zuten sos. Baditake. Bainan beldur naiz gerla ondoan bizipide hori baizik izanen ez duenak kaka mehe egin beharko duela. Askiko dute lanean artzea bertzeek bezala, tunante horiek!

Dena den aithortu behar da lan onik egiten daukutela airetako frantsesek. Airea arras berena dute. Etsaiak ez dire guti baizik gure parro-pietan sartzerat menturatzen. Eta sartzen badire zenbeit aldiz ustegabeta ez dute hor hezur luzerik egiten...

* * *

Irakurtzen ez dakitenentzat

Hemen eta Eskual Herrian sekulan baino gormantago dire eskualdunak gerlako berriez. Orok zertan garen etsai higuinarekin jakin nahi! Damurik, hainbertze bada irakurtzen ez dakienik. *Eskualduna* hortakotz ez dute erosten. Nola ikas, beraz, berriak? Aski dute Ehun eta Berrogoi-ta Laugarren errechimenduko eskualdun batek bezala egitea.

Landibarreko aphezgei batek kondatua daut ichtorioa, bere begiez ikusi baitu. Egia da, beraz. Erreka batean zoan bere atherbeari buruz. Aiphatu errechimendu hortan gaindi zoan, noiz eta ere norbeit entzuten baitu euskaraz mintzo. Begiak idekitzen ditu: deus ez da ageri. Nun dire, bada, eskuaraz mintzo? To, to, hortcheko atherbe hortan. Badoa eta atherbean sartzen da. Zoko batean bi soldado jarriak. Batek *Eskualduna* eskuan.

—Agur, agur, adichkideak. Hemen ere badire, beraz, eskualdunak? Zer diozue, bada?

—Zer diogun, —du berak ihardesten— deus handirik ez. Zer berri den Eskual Herrian ikusteko. *Eskualdunaren* irakurtzen ari ginen. Nere lagun hau ez dut eskualduna, nahiz alderdi hetakoa den. Nola nik ez baitakit irakurtzen, hunek irakurtzen dauzkit bere moldean berriak. Ordainez gero, nik nere erdaran erraten diot zer irakurtu duen. Zer nahuzu, batek egin dezakena biek egin behar.

Ez othe da hori ederki pentsatua? Aski dute hola-hola egitea irakurtzen ez dakiten guziek. Egun hautan bereziki, ez zaiote urrikituko. Hain berri onak dire!

* * *

Fandangoak gerlan

Zer gerlariak, fandangotan ari direla! Bai, jauna, bai. Nigarrez ari bagine hogoita lau ilhabete hautan, urtuheak gintazke naski! Chaharskoa da, haatik, ichtorioa: Verdunetik lekora eman zaukuten pausa denborakoa. Hiri eder batean zen pausan Berrehun eta Berrogoita Bedertzigarrena. Hiri den alegerena: dena musika. Eskualdun musikarieri ez zioten hatsaren hartzeko astirik utzi nahi hango jendeak. Arratsalde batez, beraz, aintzinetik hitz harturik, fandango arin bat hasten dute eskualdun musikariek. Erhotzen dire gure herritar guziak, eta irrintzinka fandangotan hasten zoin gehiago zoko guzietan. Bainan zer da, zer da? Koronelak musikariak ichilarazten... Zertako?

—Eskualdun guziak, hunat! —du manatzen, zerbeit gaztigu eman nahi baliote bezala.

—Zer ditutzue manera horiek? Ez duzue deusetako plantarik. Zoazte dantzariak musikariak diren⁽⁷⁷⁾ gain hortarat, musikariek behere huntarik joko dituzte beren aireak. Guk ere ikusi nahi zaituztegu. Eta berma hor, muthikoak!

⁽⁷⁷⁾ E. *dire*.

Bai eiko⁽⁷⁸⁾, bermatu baitziren orduantche eskualdunak. Ez dut egundaino⁽⁷⁹⁾ halako saltorik ikusi, ez eta hain irrintzina saminik entzun!
Nigar egin zuen loriarekin kolonel gaizoak!

1916-08-04

Aroa

Hau gerta ditake: gerlako berriketarietarik batek aro ederra dela erranen duela *Eskualdunean* eta bertzeak aro tzarra dela. Biek egia diote bizkitartean. Beren berriak ez dituzte egun berean igortzen *Eskualdunera*: hortarik datorke makhurra.

Bizpahirur egun hautan, aroa ederrenetarik dugu. Bero batzu gaitzak ari ditu. Iraunen dute? Beldurtzeko da ezetz. Jada zeruan agertzen hasi zaizkigu zenbeit hedoi zuri luze. Pentsatzeko da zer ekharriko daukuten. Hanbat gaichto hori gertatzen bada. Hain laket zaiku iguzki bero gozoa!

* * *

Gerla lurrean

Eskualde hautan ez dugu batzuek eta bertzeek elgarri min handirik egiten. Lo bezala dagozi etsaiak. Gu ere halatsu. Alabainan bertze ulirik badugu, hek eta guk, memento huntan. Sommeko aldean eta Verdunen ez dire naski gelditzekotan. Ez dugu, haatik, deusetan ere lotsatzekorik. Ederki buru egiten dugu Verdunen... eta eginen. Hek, aldiz, lotsatzerat omen doazi Sommeko aldean. Doala hola-hola gerla. Ederki doa.

* * *

Gerla airetan

Gehichago ozartzen ari zaizku etsaien airetakoak. Goiz eta arrats gehienetan bortz-seik itzuli luze bat egiten dute hemen barna. Egun

⁽⁷⁸⁾ E. *eski*.

⁽⁷⁹⁾ E. *egandaino*.

hautan gureek bakea uzten diote. Zertako? Eskualde hautarik bertze zenbeitetarat urrundu othe dire... ala arras ozartzerat utzi nahi othe dituzte hek gero pherekaldi baten emateko? Sarrichago⁽⁸⁰⁾ erranen. Zer nahi izan dadien, segur naiz bethi gure choriak ez dagozila gogoia saldurik!...

* * *

Arratoinak

Harrigarri da zenbat arratoin den hemen ere. Bainan hemengoak maltoak dire: bethi tun, tun, tun, zokoz zoko dabilta. Harrapatzeko eskua hedatzea aski da kasik. Bakotcharentzat sosa badugu. Badire jornal ederrak egiten dituztenak josteta hortan. Nere lagun batek chakur tchar batekin egun batez atcherman ditu berrehunta hemezortzi.

Sosa izaitekotz, arratoinak behar dire aintzindari bati erakutsi: hunek paper bat ematen dautzu sosaren hunkitzeko. Paper horrekin gure gizona badoa, beraz, errechimenduko moltseroaren ganat:

—Jauna, berrehunta hemezortzi sosen bilha heldu nitzaizu...

—Eta zertako?

—Nere arratoinentzat.

—Nola atcherman dituk?

—Nere chakurrarekin.

—Zer chakur duk?

—Kukuso bat...

—Eta arratoinak handiak zitukan?

—Asto batzu...

Kukuso batek berrehunta hemezortzi asto egun batez hez detzakela! Zer aho pollita!!!

* * *

Arregak

Duela zenbeit denbora, eskualde hautarat ethorri gineneko, erran nautzuen zer Itsasuko chokoaren itchura duten. Gereziak zirela bakarrik

⁽⁸⁰⁾ E. Sarri chago.

eskas. Geroztik ohartu naiz gerezirik ere ez dela eskas. Damurik ez gaituzte asetzerat uzten aintzindariak. Gerezi batere ez dezakegu hunki. Hala-hala, zer arrega aseak oihanetan! Ahurka ditutzu arregak biltzen ahal hemen barna. Eta arregek jaberik ez dute, bilha dabilana baizik. . .

* * *

Eskualdunari

Milesker handi bat nere eta hemengo eskualdun guzien partez azkeneko artikulu nausiarentzat. Zer bihotz-altchagarria guretzat gure herri-tarrek ez gaituztela⁽⁸¹⁾ ahanzten ikustea: ez dutela gehiago plaza-bestarik: gazteak, ostatuak utzirik, pilotan ari direla sarri guri nausitzeko!

Emazue hor, puttikoak! Berma gogotik!

Gerla akabatu-eta lehen igandean eginen diagu partida bat ederra: horko hirur, hemengo hirur. Irabazten baduzue partida, plaza zuentzat izanen duk handik aintzinat. Berma, beraz. Eta biba pilota!

* * *

Permisioeak

Hirurgarren aldikotz hasterat doazi, zenbeit egun gorabehera, permisioneak. Eskualdun hainitz Eskual Herrirat ganen da. Hek eta burha-soek ez bezate ahantz: gerla bururatzen ari dela: egun batetik bertzerat akaba ditakela. Desertatzea astokeria litake. Kasu, beraz, mihiederreri: ez dute zuen ona bilhatzen.

1916-08-18

Ez da goizegi

Berant bada berant, azkenean ethorri zaiku uda. Hamar egun hautan erretzeko beroak ditugu. Gauaz ere itho nahi du. Nihor gutartean ez da, haatik, hortaz errenkuratuko. Euritik gerizatzeko, deusik ez dugu. Iguz-

⁽⁸¹⁾ E. *gait uztela*.

kiaren kontra, aldiz, ez othe ditugu tupina ederrak buruan? Iraun dezagula, beraz, uda hunek. Erre beza oraino gehiago. Agur, iguzki samina. Uda da. Ez da goizegi.

* * *

Eta gerla?

Harritzeko da guk eman behar ditugula gerlako berriak! Bazterretik beira dagonak, miletan hobeki ikusten ditu guzien urhatsak, Guk gure choko huntako berri dakigu bakarrik. Hemen zenbeit egun ichil egon dire kanoiak. Orai berriz hasiak ditugu karraska gorrian. Egunaz eta gauaz ari dire. Zertako? Nork daki... Bazterretarik berri onak ditugu. Verduneko eskualdean frantsesek gaina dute bizpahirur egun hautan. Hango kanoien orroa hunaraino ageri da. *Somme* hartarik berri oraino hobeak. Frantsesak eta anglesak emeki bainan segurki, aintzinat doazi. Huna zer dautan han dutan anaia batek izkribatzen. “Ba, muthikoa, oraikoa eskuko choriak ditiagu. Gure kanoiek hekieneri ez ziotet kasik ahoa idekitzerat uzten. Gogor egin dezaketek zenbeit denbora, bainan, debruek ez badute, noizbeit amor eman beharko ditek”!

Frantzian bezala Rusian aferak ederki doazi. Han, hemen bezala, gure etsaiak ahultzen ari dire. Guazen hola-hola eta...

* * *

Bertze berri zenbeit

Gan den astean nion etsaien airetakoak ozartzen hasiak gintuela eta ez nakiela zertako zaunden lo gureak: denbora luze gabe iratzar zitazke-la. Hola-hola da gertatu. Berriz ere airea beretu du airetako frantsesak eskualde hautan ere. Etsai bat menturatzen bada hunasko, aski du gure batek agertzea, etsaiaren iphurdian su balu bezala, firurikan ihes abiatzeko. Arras ezinbertzea behar dute etsaien airetakoek guduan sartzeko. Ederrago zaiote urrundik amor ematea. Egia erran, hola probetchu hobe dute...

Oi ba, zer birikaren jabe diren gure chori pollitak!

* * *

Ohore Eskual Herriari

Semearen ohoreak semea bezenbat ohoratzen du ama. Nun da ama gerla huntan gure ama Eskual Herri maiteak bezenbat ohore izan duenik? Hain ederki gudukatu dire Ehun eta Berrogoita Bigarreneko zaharrek eta Berrogoita Bederatzigarreneko gazteak, Eskual Herriaren seme, batzu eta bertzeak! Eta huna nun egun hautan, Ste Menehould delako hirian, Joffre et Gouraud jeneralek laudorio handienak eman diozkatzen Berrehun eta Berrogoita Bederatzigarreneko eskualduneri. Biba, beraz, bethi Eskual Herria. Berrehun eta Berrogoita Bederatzi garreneko eskualduneri. Biba, beraz, bethi Eskual Herria.

Berrehun eta Berrogoita Bederatzigarreneko eskualdun guziak gerlari ederrak dire. Hainitz sariztatu dituzte. Bat bada, haatik, guzien artean aiphagarria: gure deputatu biphil eta suharra Ybarnegaray jauna. Ste Menehould hortan Joffre jeneral berberak eman dio “Croix de la Légion d’Honneur”, gerlan irabaz ditaken sari handiena. Egia erran, ederki irabazia zuen. Jaun hori ere, bertze deputatuak bezala, egon zitaken Parisen. Edo armadetan sartu nahi bazuen, atcheman zezaken irriskurik gabeko kargu bat. Hori, uko egitea zitzaion. Haste-hastetik bere herritarrekin ibili izan nahi du, irrisku beretan kausituz, bihozmin berak jasanez. Zer bihotzeko gizona hautatu ginuen diputatutzat, hemen da ageri. Ohore Ybarnegaray jaunari! Bihotz mikorik duenak sekula santan ez du ahantziko nola ohoratu duen Eskual Herria, beraz, nola ohoratu gaituen jaun horrek...

* * *

Irrintzina gau beltzean

Lo nindagon gauerdi alderat astelehenetik astearterako gauean eta ederki lo, noiz eta ere iratzartzen bainau irrintzina samin batek. Zer da, zer da? Huna bertze irrintzina bat oraino saminagoa. Etsaiak othe ditugu bederen hor? Zango puntuen gainean banoa, irrintzinari buruz. To, to, to, to! Bi eskualdun permissionetik itzultzen, chahakoak bizkarrean. Sekulako karrosa dute. Ichilarazi nahi ditut. Debaldetan. Nik othoitz gehiago eta hek irrintzina saminago. Debruak deramatzala! Hantche

uzten ditut eta banoa. Behartzen zait, ezen biek zortzira egun presondegi biltzen dute, kapitain bat iratzarrarazi dutelakotz. Uste duzue hanbat kechatu direla? Biharamunean ikusi ditut:

—Ah, ah, bildu duzue! Aski ninduzuen sinhestea...

Eta, dautet ihardetsi. —Holako besta batek ez othe ditik zortzi egun presondegi balio? Ba eta hamabortz ere—. Eskual Herrikoetik zukan gero. Zer larru-lazoak hazpandar horiek!

* * *

Ahoan gurutze

Zenbeit denbora huntan ederki jaten dugula errana dautzuet. J.S.P. adichkideak gonbidu bat igorria daut, harekin bazkari baten egiteko. Geroxago, hemengoa mehetzen zaikularik... Mementoan ez dugu deusen eskasik. Azkenekotz, badakizue zer daukuten eman? Erriza esnean... Hauta omen zen. Nik ez dut hastik jastatu. Zeruari bezala nindagon ba!

Ustariztar bati erran nion, ustariztarrak behar den bezalako gizonak omen direlakotz:

—Errak, hartuko duk nere erriza eta ekharriko.

—Ba, ba, ago trankil.

Debruetarat. Luze bezen zabal erori omen da bidean... eta nere erriza han-harat igorri. Dena den, nik ez dut errizarik jastatu. Sekulan. Ustariztarren⁽⁸²⁾ baitako konfiantza galtzen badut, Jean-Baptiste Casenave atabalariaren falta izanen da parte. Zerbitzarik Loulouiri mila goraintzi Argonatik⁽⁸³⁾.

1916-09-01

Euria berriz ere

Hogoita sei egun lerro-lerro eder eginik, gaitzeko bero batzuekin, huna egun euria. Euri mehe eta hotz bat. Ez dezala iraun. Hain lakhe-

⁽⁸²⁾ E. Kronika honetan hiru aldiz dator *ustariztar* hitza, lehen bietan *us-*, azkenean *uz-*.

⁽⁸³⁾ Azken esaldia *Zerbitzari* izenpearen ondotik dator.

tago dire errekak idor delarik! Beldurtzeko da, haatik, oraikoan behingotz bustiko zaizkigula. Gurekin badugu aroan hainitz ezagutzen den gizon bat. Aspirant Gilson deitzen da. Harek errana dugu duela hirur egun arras eurirat goazila. Hola bada, hanbat gaichto.

Hemengo deus ez du balio euriak. Oren bat irauten badu, lur kara hunekin achonetarainoko lohia baduzu. Emazu orduan sudurra kanporat, ez zare urdetu gabe zure zilorat sartuko. Gauden, beraz, barnean.

Gu sar eta arrotainak athera. Hauk euriarekin dute beren besta. Euriarekin ederki zaintzen dauzkigute errekak. Holako errechimenduak ikustearekin ez litazke aintzinzatzerat etsaiak mentura: ihesari kurrinkan eman litazke arratoinak... eta gu zerbeit badela ohart.

Orhoit naiz gerla aintzinean holatsuko ichtorio bat ni nehorriri gertaturik. Arratoinen orde, astoekin nuen izan afera. Akhelarrerat nindotan, beraz, aspaldiko adichkide bat ikusi nahiz. Errebelatua nindabilan. Euria baitzen, ez zen gocho. Gibelat egiterat nindoan noiz eta ere han nunbeit ikusten baititut bospasei asto. Jo dezagun astoetarat, menturaz zaintzaleak bide onean emanen naik. Eta banoa. Ni hurbildu orduko, gure astoak marrumaka hasten dire eta puttinka ihesi abiatzen, aldeko landa batean barna. Urruntchagotik gizon bat orroaz hasten da, astoak handik fueratzeko. Nere adichkidea zen. Gaizo astoak!

* * *

Aux crapouillots

Jainkoak berak daki zer oren gochoak iragan ditugun, azken denbora hautan, gerlan eta kasik gerlarik gabe. Huna bi ilhabete eta erdi oihan hautan garela. Bigarren egunean konpainiatik gizon bat galdu ginuen. Geroztik nihor ere ez. Hain da egia gerlako tresneria guziak tirrit ez duela balio, ziloak balin badituzu gordetzeko! Deus egitekotz, zilo horiek behar dire itzuliphurdikatu.

Lehen ere erran dautzuet hortako direla *crapouillots* direlakoak. Gutitucheak gintuen aspaldichkoan. Berriz agertu zaizkigu. Ez daukute, haatik, makur handirik egiten oraino. Zertako bada? Kukusoak bezen tti-

kiak direlakotz. Harrabots gaitza ba egiten, bainan ez araberako kaltea. Chakur tcharrenak du bethi sainga saminena.

Atherbeak hola osorik daudeno, kanoiek ez dute zeren orroaz has. Ichilik dagozi aspaldichkoan. Eskualdun artillurrek izerdi ederrik ichuri bazuten Verdunen, hemen ez dute lanean hezurrik hausten. Onjo eta arrega asean harra bezala gizentzen ari dire guziak. Jo dezagula norapeit higitzeko orenak laster, ez litake eder horiek holako ardurarekin hirugarrenen aldikotz permisionez etcherat agertzea. Horra laburzki lurreko manerak.

* * *

Eta airetan?

Sekulan baino kechuago hor bazterrak. Ala aleman ala frantses, bethi norbeit airean. Ehunetan errepikatu dautzuetedan bezala, bego, haatik, airetako frantsesak nausi. Choriak bezen artechak ditugu kasik hor gaindi itzulikatzeke. Birazka dabilta, gutiz gehienetan, gure airetakoak. Bat, mendia bezen handia; bertzea, ttiki-ttikia. Handia apha! dabila, hobeki lurreko manerak ikusteko. Ttikia hedoietan gordea kasik, etsaiaren urruntzeko. Chimichta bezen zalhua da hau. Etsai bat agertzen da ba, kukuso debru hori buruz beheiti jausten da hari buruz, hosto hila bezala itzulika-itzulika, eta zapartaka hasten bere mitraillusarekin. Kolpea huts egiten badu, urruntzeko bizpahirur itzuliphurdi egiten ditu, bat bertzearen ondotik. *Looping the loop* deitzen dute josteta hori soldadoek. Itzuli handi bat eginez, berriz zeruetarat altchatzen da, handik hosto hila bezala bigarren aldikotz erortzeko... anhartean etsaia ihesari eman ez bada.

Ezin sinhetsia da gizona hein hortarat ditakela. Zer ez dugun ikusiko nago...

* * *

On les aura

Petaïn delako jeneral aiphatuaren solasak dire, horiek. *On les aura*: erran nahi baita, goiz edo berant alemanak bentzutuko ditugula: nahi badute eta ez, azkenean amor eman beharko dutela.

Joffre nausien nausiak solas bertsuak erran ditu egun hautan amerikano batzueri. Ez da naski airerat mintzatu. Elhe alfer guti duen gizona da: espantu are gutiago. Sinhets dezakegu, beraz. Bainan alemanak laster eskuko choriak ditugula sinhesteko, orai bertzerik ere badugu. Badakizue zer kausitu dioten aleman aintzindari bati sakelan *Somme* delako hartan? Paper-muthur bat bere jeneralak igorria eta paper hortan jeneralak aintzindari horri galdetzen dio:

“Lebenbailehen erran dezon bere meneko tropetan zenbat zaldi dituen bide luze bat gibelat egin dezaketenik”. Eta oraino *“bere soldadoeri ongi buruan sarraraz dezoten gibelat luze eginik ere gerla ez dutela galdua.”*

Eskuara garbiz solas horiek erran nahi dute “alemanek putza biribilduthea dutela!” Altcha, beraz, bihotzak eta dezagun guk ere Petain jeneralaren konfiantza berarekin erran: “On les aura”!

* * *

Eskualdunak gerlan

Aphezak azken hitza bere, da errana. Bai eta futcho eskualdunak ere. Gure herritarretan hoinbertzek eginbideari uko egin dutelakotz, badire bazterretan Eskual Herriaren kontra mintzo direnak. Bizkitartean gerlan garen eskualdunek othe dugu erraitekorik? Ez othe dugu, nornahik bezen ongi, manatu daukutena egin ala Belgikan, ala Marne hartan, ala Aisneko eskualdetan, ala Verdunen? Eta Argona huntan nork ditu gehienik Joffre jeneralaren konplimenduak merezitu? Gan den astean nion bezala, eskualdunek eta guziz Berrehun edo Berrogoita Bederatzigarrenekoek murde Ybarnegaray deputatu eskualdun biphilarekin. Eta *Somme* hartan ez othe dire ederki ari Ehun eta Berrogoitagarreneko, Ehun eta Hemezortzigarreneko, Colonialetako eta Génie Hamargarreneko eskualdunak?

Desertur dohakabe batzuen gatik behar ditugu, beraz, holakoak entzun. Ah, sinhetsi nahi bagintuzte, zoin laster itzul litazken gutarterat! Zor diote hori herriaren omenari. Ez othe da bizia bera baino baliosago omena? Eta futcho, ez dire gerlan ere denak hiltzen! Allo, beraz, muthikoak, zatozte lehenbailehen hunat, aleman urdeari azken ukaldiak emateko.

Bertzalde, ahuzue zerbeit jakin? Idek ongi begi eta beharriak: bere baitarik itzuliko ez dena, denbora luze gabe itzuliko duk... bortchaz. Kasu ondoko egunetan zin eta mineri. Ez dautzuet egun bertze chehetasunik emanen, ederrago baitukek gehiagoko solasik gabe zuek itzultzea. Denbora duzue oraino, chuhur baduzue, balia denboraz. Bainan mugi zaizte.

Aski erranik hola. Zuen ahuleziaren gatik zuentzat badugula amodio hor frogatu dautzuet. Froga zuek orai bertze hoinbertze baduzuela guretzat. Eta ondoko egunak arte.

1916-09-08

Gerlako berriak

Onak ditugu oraino. Eta kasik onak baino hobeak, bazter guzietarik. Verduneko eskualdean emeki-emeki hiritik urruntzen ari ditugu etsaiak. Fleury delako herrichkaz jabetu gare. Berenaz deusere ez da herrichka hori. Horko etche guziak aspaldi erroz gora ezarriak dituzte bai etsaien bai gure kanoiek. Bainan malda batean hain da ederki jarria, Souville delako dorreari buruz, nun balio handiena baitu gerlarientzat. Sekulan Verdun hartzekotz, Souville behar dute lehenik hartu alemanek. Eta Fleury gabe, Souville ez dute hartuko. Horra zertako ziren azken denboretako gudu ikaragarri horiek guziak. Gostatzen dena gosta, Fleury behar dute eta behar dugu. Guk dugu orai. Atchikiko dugu agian.

Somme hartan, zenbeit egun lo bezala egonik frantses eta anglesak, berena gogoan naski, berriz lothu dire sekulan baino hats gaichtoagoan. Bethi aintzinat goazi han ere. Emeki ba, bainan segurki, hartu eremu guziak antolatuz beharrorduan buru egiteko. Gogor egiten dauku itsuski etsaiak, bainan hainbertze gizon galtzen du nun azkenekotz amor eman beharko baitu.

Bertzalde, bertze eskualde batean ere buru egin beharko du etsaiak denbora luze gabe, uste guzien arabera. Han diren kanoia-lerroak eta

gizon ketak! Bainan gauden ichilik... geroak emanen dautzute hortaz behar den argitasuna. Rusiari, Italiari eta orai Salonikari buru egiteko, alemanak izanen othe du ba luzez aski gizon?

* * *

Hemen?

Zaharrak berri hemen. Denbora eder hunekin airetakoak bethi hor dabilta gainez gain, beren hegalak chabalduak. Kanoiak, lo edo erdi lo bederen, beren oihan zokoetan. Beharrik balin bada, ederki pausatuak izanen dire ondoko egunetan.

Hala-hala *crapouillots* horiek fur fur fur hor dabilta airean beren zorroak bolboraz betheaz. Egun hautarik batez sekulako josteta ikusia dute horiekin alemanek. Oren pare batez igorri diozkotegu lerro-lerro seiehun. Eta zer heinekoak! Kintal bat bolboraz goiti bakotchak tripan!

Beren errekek hala itzuliphurdikutzen ari ikusi dituztelarik alemanek, gainez gain abiatu dire ihesi. Zer besta orduan frantsesek iphurdian barna tiroka! Segurutzen dautzuet ez dituztela egun hartan hango aleman guziek beren berriak etcherat igorri. Zenbeit badire menderen mendetako hantchet berean etzanik daudenak! Nun eta ez dioten debruak ifernuan atherbe bat ematen!

* * *

Buruz buru

Aiphatu inharrosaldi hori egun bezala guk eman eta bihar bezala, alemanek ordaina eman behar zaukutela, jazarri zaizku, beraz, gauerdi alderat. Uruski ez ginauden lo. Beren erreketarik atheratu direneko, grenada tiraka hasi gitzaiole. Etsai bat da bakarrik sartu gure erreketan. Nundik eta nola? Jainkoak daki. Sarjanta zen. Hogoi urthe. Alemaniako gerlako gurutzea bulharretan. Puñal luze bat eskuan. Gerria sokaz inguratu eta soketarik zaku bat dilindan. Gure errekan sartu deneko, ohar-tzen da *sentinelle* bat baduela hirur urhatsetan. Marruma itsusi batekin salto egiten dio gainerat frantsesari. Hunek burua galdu gabe hartzen du bere baioneta eta sastakoan tripan barna tresna lazgarria sartzen. Atch

bat erran gabe lurrean zen alemana, hilgogorra. Bat gutiago. Aski zuen ez ethortzea.

* * *

Zer urdekeria

Higuingarriak zaizku beren eginbideari ukho eginik Espainiarat doazinak. Bainan zenbatetan ez dire higuingarriago gure erreketarik alemanen erreketarat doazinak han hemengo berrien salatzeko. Gertatzen dena da hori ere, noizean behinka.

Orhoit naiz Aisne hartan ginelarik frantses batek lan hori eginik. Ondoko egunetan franko gizon galdu ginuen, haren gatik. Hemen bertze batek berritan lan bera egin dauku. Zer urdekeria! Tiro bat ez othe luke holako gizonak merezi? Gordetzeko gauza hobeak dire horiek, eta segurki ez nituen aiphatuko azken hau bederen eskualdun baten gain eman ez balute. Ez, ez zen eskualduna eta esperantza dut nere herritarretan ez dela holakorik. Frantzia barne hortakoa zen delako urdea, charrentesa. Bakotchari berea...

* * *

Biba Senpere!

Beraz, eskualdunek beren eginbidea ederki betetzen dute gerlan, lehen ere erran dautzuetedan bezala eta zenbeitek bertzerik erranik ere. Lehengoan gainerat, huna oraino bertze senpertar bat gerlako gurutzea irabazi duena: denek ezagutzen eta maite duten Dominique Larrea, Muntegiko semea. Emazu hor, Dominique.

C. Dufau miriku gaztea ere gradutan goratu da: urhezko hari bat ekharriko du besoan hemendik goiti, zilharrezkoaren orde. Ederki merezitua du. Lehen erran dautzuet zer lan baliosak eginak zituen jaun horrek armadarentzat. Horren paperak minichtroan barna ibili ziren. Orai, berriz, jeneralak berberak⁽⁸⁵⁾ galdeginik, egin du eriketako tresna

⁽⁸⁵⁾ E. *be-berak*. Gainerakoetan *ber-berak* etorri ohi da.

berri bat, hemengo burdinbide hertsietan barna gizon batek laster eta nekatu gabe ibiliko duena. Kolpatu batentzat ez baitu guti balio eritegi-rat laster heltzeak! Biba, bai, biba C. Dufau! Ederki goستن duzu zuk ere Senpere. Egia erran, hoinbertze zor zaio Senpereri.

* * *

Edater ez edan!

Nola, haatik, solas batek gogorat ematen duen bertzea? Senpere hor aipatu eta, berehala zer gertatu zaitan bertze senpertar batekin heldu zait gogorat...

Berri-berritan, Sainte-Menehould delako hirirat nindoan zenbeit pirriskeriaren erosterat: oinez, bero gaitzarekin: egarriak ithoa. Hain chuchen bide erditsutan bezala, aspaldi ikusia ez nuen adichkide bat kausitzen dut: Senpereko jaun notaria.

—To, to, to, to, aspaldikoa, daut erraten ikusi orduko, zu hemen? Zer diozu, bada, mende huntan?

—Ori, egarriak ithoa nagola.

—Ba, gizona, gaitz hortarik aise sendatuko zaitut, ez mirikua izana gatik. Zato. Bi botoila champaña baditut choko batean.

Bagoazi, beraz, solas eta solas, oihanetan barna. Zer choko pollitean dagon! Ez da harritzeko lakhetua baita. Haren palabra guziek ez nautela egarria khentzen, sartzen gare zilo batean eta nunbeitek agertzen du botoila bat jaun notariak. Ehun mila artha artuz, idekitzen du azkenekotz. Ni lorietan champaña horri, zeruari bezala. Ba, baduk hoberik! Purrustan kanporat abiatzen da arno debrua... eta azken chortaraino ichurtzen, ezen basoak agertzea ahantzia zuen jaun notariak...

—Bigarren botoila hunekin bederen ez dezagun holako lanik egin!

Ur chirrista batean pasaturik, mahainean pausatzen ditu bi baso eta lotzen da bigarren botoilari, tira eta tira.

—Badut oraikoan!

Banpakoan idekitzen du botoila eta huntan ere purrustan abiatzen arnoa. Eskuarekin berehala tapatzen du jaun notariak. Ba bainan, ez aski

ongi. Arno zirrizta bat tiroa bezala eskapatzen zaio erhien artetik edo begietarat heldu zaio zaflakoan. Itsutzen daut nere notaria... eta bigarren botoila hantchet husten da, ni... eta jaun notaria ohartu gabe. Debruak gan du, beraz, pulloa... eta adio motz bat erranik ni banoa nere egarriarekin...

Milesker halere, adichkidea, eta agian, ondoko egunetan berriz agertuko baintzaitzu, hobeki jokatuko zare. Horra, beraz, nola, nere bizian lehen aldikotz, edater dutan Champañako arnotik: bainan, ez edan...

Lerro hauk agertuko direlarik, Eskual Herrian kausituko othe dire J.S.P. eta Zerbitzari? Agian ba.

1916-09-29

Hemengo berri

Zenbeit egun gocho Eskual Herrian etcheko chokoan iragan-eta, huna nun heldu nitzaitzuen berritz hemengo berriekin. Egia erran, ez da hemen berri handirik. Etsaiek ez omen dute espantu handirik ibili iragan egun hoitan. Orai ere lo bezala dagozi, tiro bat bera igorri gabe. Ederra litake bihar edo etzi ohartzen bagine ihesi ganak direla! Bainan ez dut holako beldurrik: barne gaichtoegia dute hoin aise amor emateko. Beude halere: orenak, uste baino lasterrago, joko diote.

* * *

Bazterretarik

Gero eta berri hobeak ditugu bazter guzietarik. Somme hartan oldar gaitzean goazi aintzinat, etsaiak milaka preso hartuz, kanoiak eta mitrailusak ehunka guretuz. Ochala aroa alde baginu ilhabete pare batez! Hoin ederki hasia dugun lana burura ginezake han. Verduneko eskualdean ez dute entseiu bat ere gehiago egiten alemanek. Debaldetan lukete, bertzalde. Hor ere gu goazi emeki-emeki aintzinat, ziloa ziloaren ondolik hartuz. Ez dugu, beraz, kechatzekorik. Ez da sekulan gure zerua hoin argi izan. Biba Frantzia.

* * *

Berritz ere elgarrekin

Zenbeit denbora gurekin Argona huntan egon-eta, gan zitzaizkun hemendik Baionako Berrogoita Bederatzigarrena eta Mont-de-Marsane-ko Hogoita Hamalagarrena. Champagne hartarat igorri zituzten. Ez dute hezur luzerik egin han. Gau huntan, berritz, Argonarat ethorri dire. Ongi ethorri. Zertako ez utz eskualdunak eskualdunekin? Agian gerla elgarrekin akabatuko dugu, orai duela hogoita sei ilhabete elgarrekin hasi ginuen bezala.

* * *

Negua

Negua heldu zaiku. Hotzak hasi ditu. Eta zer hotzak! Ez da harritzeko apetitua chorrochtu baitzaiote soldadoeri. Asetzeko, beharko dute zerbeit ondoko egunetan! Nago ere denak aseko othe diren bethi, etchetik zerbeit igortzen ez badiote!

Permisionez nintzen berri-berritan. Hunat itzuli naiz hirur azkaindarrekin. Badakizue zer iretsi duten bidean, egun bat eta erdiz? Bospasei urinetako, bortz oilasko, bi ahate, gasna bat, dozena bat arroltze egosi, hogoita bat pinta arno, bi pinta aguardient. Ez da gaizki! Beharrik ez dute Frantziako soldado guziek azkaindar horien apetitua! Pollitena hau da. Ni hoieri irriz erran: “Zer apetitua duzuen, nere adichkideak!” eta irriz hoik ere: “C’est la guerre d’usure” daitet ihardetsi.

* * *

Gerlaren iraupenaz

Duela franko denbora J.E. astekari hunen berriketari aipatuak gerla udazkenean trenkatuko zela haren arabera zaukun erran. Deus erraten ez duena ez da enganatzen. J.E. enganatu da, ezen hostoak lurrerat doazi eta gerlak irauten⁽⁸⁶⁾ dauku oraino.

⁽⁸⁶⁾ E. izauten.

Nik, urthatseko nautzuen hitzeman bitoria. Hirur ilhabete baditugu oraino, ordu arte. Bainan... Funtsean, geroak erranen zer gertatuko den. Ederki doa gerla guretzat: mementoko ez dezagun bertzerik galde. Fuera alemanak!

1916-10-06

Aroa

Berritz ere aro tzarra. Erreka guziak urez betheak ditugu. Atherbeetan beretan acheinotarik goiti ura. Egunak labur eta gauak luze, hezurretan barna sartzen den haize hotz batekin. Hostoak arboletarik purrustan lurrerat ari. Choriak berak urrundu zaizkigu eskualde hautarik. Negua da Argonan, elhurra guti.

* * *

Gerla

Erdi bakea dugu hemen. Kasik ez da tiro bat. Ohartuak gare, haatik, lur azpiz hasia zaikula etsaia zenbeit egun hautan. Tokika ederki aditzen ditugu haren haintzur kolpeak. Bichtan da ez duela chede onik. Bainan dagola: ez gaude lo gu ere, eta nahi ez duena zaio ondoko egunetan gertatuko.

* * *

Ezker hortarik

Champagne deitzen duten eskualdea dugu ezker hortan. Duela urthetsu bat, gudu garratzak izan ziren hor. Aurthen ere holako zerbeiten beha ginauden. Zerbeit asmatu dutelakotz edo Jainkoak daki zertako, alemanak hats gogorrean jazarri dire egun hautan eskualde hortako soldadoeri. Zer haro gorria zaukaten kanoiek! Erran gabe doa, debalde-tan hasi direla alemanak. Verdunen ez eta, nola nahi daukute irabazi Champagnan? Kukuak makur jo diote behin, eta kontu ez dioten oraino makurrago joko hanbat denbora gabe.

* * *

Eta Verdun hortan?

Hortik ere ez gare hain urrun: hogoita hamar berrogoi kilometretan. Kanoiak ari direlarik, ederki ezagun dire hunaraino. Egun hautan ichilsko dagozi. Uztarrik handienak⁽⁸⁷⁾ emanak baititu naski etsaiak Verdunen ere! Baditake oraino entseiu bat edo bertze duen, gu enganatu nahiz, han hainitz soldado atchik dezagun. Bainan gure airetakoek begi onak dituzte eta ez daukute segur behar den soldadorik han atchikaraziko.

* * *

Egia ala gezurra?

Fama abiatua dugu eskualdun soldadoek Argonako eskualde hauk utzirik, bertze norapeit jo behar dugula. Zenbeiten arabera, hamar bat egunen buruko aldaratuko gare eskualde huntarik. Egia den ala gezurra, ez dakit segurki oraino. Aintzinariek ez daukute ezetz erraten, bainan ez daukute ere segurtamenik eman. Gauden, beraz, beha. Hemendik bazterten bagine, norat jo ginezake? Ez dakit: ichilik nago, beraz. Jo dezagun, eskuin edo ezker, Verdunerat, Champagnarat edo Somme hartarat, eskualdunek ederki gure eginbidea betheko dugu. Nun-nahi halako gisan gudukatuko gare nun ohore ekharriko baitiogu gure ama Eskual Herriari. Guk galdetzen duguna hau da: gure herritar guziek othoitz egin dezaten guretzat.

* * *

Rusianoak

Denek dakitena da Frantzian baditugula rusianoak. Zenbat? Aintzindarien sekretua da. Gure eskualde beretan direlakotz, arras ikusi nahiak ginen. Azkenean izan dugu zorion hori. Zer gizonak diren! Metra bat eta lauetan hogoi gutienetik ttikien-ttikienak. Adin ederrekoak, hogoita bizpahirur urthetakoak. Bethi irri zabal bat ezpainetan... eta pipa ahoan.

⁽⁸⁷⁾ E. *han dianak*.

Gure Frantzia zerua zaiote. Ongi jaten bide dute, hobeki edaten. Ez zuten egundaino holako erreka ederrik ikusi. Gure artilleriaz ere harrituak daude. Holakorik izan balute Rusian, aspaldi⁽⁸⁸⁾ garhaituak omen zituzten alemanak, diren gizon-ketarekin.

Rusian orai dutela egiazko gerla hasten daukute erran. Hola bada, noiz arte⁽⁸⁹⁾ iraunarazi gogo diote ba? Dena den, bihotz-altchagarri ederra da frantses batentzat hemen ditugun rusiano ederren ikustea eta gaitzoeekin bi solas egitea.

* * *

Ezti ase bat

Ez da naski Argona huntan kausituko ez dutanik. Udan gereziz, arregaz eta onjoz nahi bezenbat ase gare. Orai badugu hoberik. Eztiari emanak gare. Egun hautan oihanez oihan nindoan, noiz eta ere erle bati ohartzen baintzaio. Zer, erle bat hemen? Ez diat ba galdu behar. Begiz segitzen dut. Ederki egin dut ezen kofoina oren bat gabe kausitu dut. Aire pozoindatuen kontrako zaku ttikia emanik, urruntzen ditut erleak. Zer jostetak ikusirik, haatik! Eta gero ezti bil eta bil. Zenbeit egunena badut orai, han berean egin dutan asearen gatik. Eta zer ezti den! Egundaino eta nihon ere ez dut holakorik jastatu, salbu behin Arrauntzan, hango erretorak emanik. Bakotchari zor zaio berea.

Gerlak badu, beraz, onik ere. Erlerik ez dut eta ezti asean nago. Eta, aldiz, Arrauntzako jaun erretorak erleak dituelarik ezti erosi du. Zer den, haatik!

* * *

Ederra dugu hau!

Permisioenez etchean izatu naiz, dakizuen bezala, duela hogoi bat egun. Denboraren buruan, pollita gertatzen zait. Etche batetarik, suan

⁽⁸⁸⁾ E. *aspa di*.

⁽⁸⁹⁾ E. *azte*.

zuten tupina ereman eta gorde omen dut. Bakezko jujerat galdetzen ez banaute! Othoi, othoi ez egin holakorik: *Eskualdunari* nork igor letzazke berriak? Bertzaldi arte.

1916-10-20

Lerroetarik urrun

Azken egun hoitan erraten nautzuen, famaren arabera Argonako zoko hau utzi beharko ginuela. Hala-hala da gertatu. Jada urrundua zen gure armadaren erdia. Hau gan-eta, segur ginen ez ginuela hezur luzerik eginen guk ere. Hogo bat kilometra egin ditugu oinez, hasteko. Gero, beribilak hartu. Arratsalde bat osoa hetan ibili eta *Camp de Mailly* delakoaren inguruetan gelditu, herrichka ttiki batzuetan.

Jendea Argonan baino maitagarriagoa da. Hemen sosarekin bederen zerbeit ukhaiten ahal da. Sukaldea franko aise idekitzen dautzute friko baten egiteko. Baratzetan har dezakegu frikoaren ontzeko behar dugun guzia. Gure kurridetan ez ginuen oraino hoin bihotz onik kausitu. Jainkoak itzul dezotela. Hemengo etcheak Eskual Herrikoa du iduri: pareta churiak eta teila gorria. Ez, haatik, barneak han bezen garbi. Egia erran, jendea ez da hango trankiltasunean bizi. Etsaia behin hemen ikusi dute eta bethi ikaran dagozi berritz ez duten ikusiko, kanoiaren burrunba, noizetik noizerat bederen, hunaraino ageri baita. Ez da harritzeko ez badute laneko hanbat gustu!

* * *

Gure manerak

Argonan eman dugun denboran ez gare hala lehertu. Behartzen zaiku orai. Goizean sei orenetan hasten ditugu gure eskola berriak, arratsaldeko bortz orenak arte, goizeko hamarrak alderat bi pokado kilimiliklik iretsirik.

Ilhuntzeak eta gauak, hala-hala, nihun baino hobek ditugu. Nahi duena ostaturat⁽⁹⁰⁾ libro da, borts orenetarik zazpi orenak arte: nahi duena elizarat. Eta egia hau da ostatuan baino gizon gehiago ibilki dela elizan. Ostatuan ez badute askok denborarik galtzen, hitz dautzuet elizan dabilzanek oraino hobeki badakitela denboraren balioa. Zer kartsutasuna! Zoin hunkigarria den hoin gizon gazteak holako bildutasunean ikustea, ostatua alde-aldean dutelarik! Eskual Herriko adorazione ederrenean ez da eliza hala bethetzen nola bethea baitzen gu gauden herri ttikikoa gan den igandean. Errepikan kaskoa elizari ereman nahi zioten soldado gaizoek.

Egia erran, bazuten musikari gain-gaineko bat organoan, laguntzeko. Damurik, ez dauku aire eskualdun bat baizik eman! *Uso churia* bezenbat gustatuko zitzaikun *Sorlekhua utziz geroz*. Bainan milesker halere, jaun senpentar mutikaria...

* * *

Zeri gauden...

Egia den bezala errateko, gutiz gehienen ustea da hemendik lekora *Somme* delakorat gan beharko dugula. Bakar batzuek *Champañan* geldituko garela diote. Dena den, gudu handi zenbeitetar goazi. Lerro hauk agertuko direlarik, erdiz erdi suan izanen gare.

Eskualdunetan bat ez da lotsaturik. Fedea laguntza handia da hola-koetan. Badakigu guziek ez dela munduan Jainkoak nahi duena baizik gertatzen: Konfiantza osoarekin goazi, beraz, gerta dakigula zernahi.

Eskualdunek frogatu dute orai arte gerlari ederrak direla, erreka beltzetan etsaiak ichiltasunean zainduz, hotzaz, euriaz eta gainerateko nahigabez lotsatu gabe. Orai bertzela frogatuko. Kanpo zabalean hasiko dute gerla. Eskual Herriaren omena urrun hedaraziko dute, beren odolaren gustuz. Herritarrek hori ez dezatela ahantz, eta sekulan baino kartsukia-go othoitz egin bezate guretzat. Guziek, altcha bihotzak!

⁽⁹⁰⁾ E. *osturat*.

* * *

Hemengo berriak

Horra zer berri dugun, beraz, hemen. Bertzerik izanen dugu ondoko egunetan. Bainan berdurtzeko da, igortzeko ez dugula asti handirik izanen, guduan sartuz geroz. Eginahalak eginen ditugu, bi lerroren moldatzeko, halere. Jainkoak eman dezagula grazia eskualdun guzieri, zeruan chuchen-chuchena ez jartzekotz, gudu huntarik lekora laster gure sorherri maiteaz gozatzeko.

1916-11-3*Erdi pausutik*

Uste ez ginuena da gertatu. Argonatik atheratu ginelarik, guzien ustea zen hamabortz egun gintuela gehien-gehienaz sutik urrun iraganen. Eta huna Hogoita Borzgarren eguna Camp de Mailly hartako inguruetan gaudela. Gehiago dena, nihor ez da oraino hemendik baztertzeaz mintzo. Dakiguna da, haatik, gerla ez dugula hemen akabatuko. Goizchago edo berantchago, berritz surat jo beharko dugu.

Hemen ez dugu denborarik galdu. Igandetan salbu, goiz-arrats guziez, kasik hatsik hartu gabe, lanean ari izan gare. Orai, gerlako molde berria ikasichea dugu eta noratnahi gateko on gare. *Somme* delakorat, Champagñarat, Verdunerat eta Salonikarat igorriko othe gaituzte? Norbeitak badaki, bainan nik ez. Eta hemen diren guziak, aintzindari eta soldado, ni bezen jakintsun dire. Gauden, beraz, beha, ichilik.

* * *

Jatekoaz

Gure hertzeak denetarat egiteko edo nik ez dakit zertako, ez dugu aintzineko denboretan bezen ederki jaten. Maiz mehe-eguna dugu. Handik eta hemendik ez baginu, sosaren puntan bederen, zerbeit eskuratzen, irauteak lan luke. Etchetik ere zerbeit igortzen baitaukute, ez

gare oraino arras ahulduak. Bainan, egia erran, lan hainitz egin eta guti jan, *no me gusta*, españolak dion bezala.

Arrauntzako jaun erretorak salatu dautzue zer apetitua dutan eta lerro hauk irakurtzearekin erranen du: “gizagaizoa ez bada bethi asezten, ez da harritzeko”. Jaun erretora, ni bezala baitire, haatik, bertzeak ere hemen. Eta maiz:

Mahain petik kokoriko,
gardian dago Churiko

eta hezurtooa ez zaio sekulan eroriko, guhaurek baitugu churgatzen. Damurik, ez dugu zure... Bainan ez dezagun kanta bera has berritz. Badakizu orai nere triparen berri...

* * *

Igandeak

Jada erran dautzuet bertze aldi batez eliza nola bethetzen den igandetean eta zer kartsutasunean duten soldadoek othoitz egiten. Ezin sinhetsia da kasik. Bezperetarik lekora, landa zabal batzuetarat biltzen dire gero gutiz gehienak eta han foot-ball delako jostetan ari dire, hamazazpi urthe balituzte bezala. Eskualdunak ez dira hortako ere ttonttoenak. Pilotako plazarik hemen ez baita, zer egin? Hitzemaiten dautzuet, igandetean bertze egunetan baino hobeki, bazkaria zango-puntetan dutela arratseko.

* * *

Gerlako berriak

Sinhetsiko du nahi duenak: egunkari bat ez dugu hemen eskuratzen ahal, salbu *Eskualduna*, eta huntan ditugu gerlako berriak ikusten.

Egun fama dabila Verdunen urhats handi bat egin dugula, Vaux eta Douaumont direlako dorreeri buruz. Agian egia da. Bainan dorre horiez jabetzea bat da: horien gero zaintzeko izanen da lan. Ez dezagun, beraz, oraino espantu goregi egin. Ez da gutiago egia, nihon ere ez duela gehi-ago alemanak nahi duena egiten. Han zituen kanoia ikaragarrien gatik, Verdunen berean gaina dugu. Guk ere kanoi ederrak baditugulako frog.

Horieri esker goazi bethi aintzinat Somme delakoan. Eta anglesen arabera, handienak ikusten ditugu. Ochala⁽⁹¹⁾.

1916-11-24

Aroa

Hamabortz egun hautan guzietarik ikusi dugu: egun eder baino tzar gehiago, haatik. Bainan hemen ez da erreketan bezala: han, nolana hikoia izan dadien aroa, lanak egin behar du; hemen, aro tzarra balin bada, ez dugu kanpoan ibiltzerik. Euriak ez gaitu, beraz, hanbat kechatzen. Egin ditu ere gau churi hotz batzu orhoitzekoak eta hitzemaiten dautzuet holakoetan ez zaukula goiza lasterregi heldu. Bertzerik litake lasto ahur baten orde, oheak bagintu etzateko. Gerla baita. . .

Hotz handi horiek direla medio, eri hainisko bada: baino ez eri handirik. Arratsean arno bero chorta batek gutiz gehienak sendatzen ditu. Bakhar batzuek arno hotza nahiago dute, Jainkoak hotza edateko egina duelakoan. Eta futcho, zer den fedea? Arno hotzak beroaren on bera egiten diote. . . aski edaten baitute. Horiek hola, negu huntan ez dezagula gehiagokorik ikus: Jainko onari eskerrak bihurtzeko gintuzke!

* * *

Lana

Ez gabilta orai haste hartako zalaparta beretan. Estakuru ttikiena aski barnean egoteko. Ez dugu halere denbora handirik galtzen. Guzietan bezala hemen ere gizonkia gutitua baita gerlari medio, hekien orde soldadoak ari dire landetan: beterraba atheratzen, iraultzen, ogi eraiten. Ez du guti balio hemengo jendearentzat hola langileak ukhaitea. . . jorنالیک eman gabe. Jornalarekin ere on litazke asko tokitan, hala nola Eskual Herrian. Ala ez othe?

⁽⁹¹⁾ E. Ochola.

* * *

Othoitzza

Orai bezenbat othoitz ez dute maiz egin soldadoek. Nola izan dute ere orai bezenbat errechtasun? Igande goiz-arratsaldetan eliza mukurru bethetzen da. Eta zer errepikak! Astean arrats guziez andana handi bat, zazpi orenak aintzintchean, biltzen da elizarat aphezarekin arratseko⁽⁹²⁾ othoitzaren egiteko. Zuhurrak dire holako soldadoak. Badakite ez dutela bethi othoitz egiten ahalko, eta bide luzeari lotzerat doanak bezala dute egiten: gerokoa hartzen. Chahakoa aintzinetik bethetzea ez othe du hobe, zer gerta ere?

* * *

Gerla

Balio othe du gerlaz mintzatzea? Ez gare gehiago gerlan eta gerlako berriak *Eskualdun*ean ditugu, gure herritarrek bezala, irakurtzen. Ongi gero eta hobeki doala, dio gure egunkari maiteak. Hobe eta agian hola-hola segituko du.

Negu hau etsitua dugu, guk. Primaderari buruz dugu eskualdunek naski gure zinkakoa eginen, nihor ez baita oraino hemendik urruntzeaz mintzo. Hori ere geroak du erakutsiko.

* * *

Permisioeak

Ez da gerla hasiz geroztik orai bezenbat gizon ibili permisionez. Lehen hamabortz-hogoi zoazin egunean errechimendutik. Orai, hogoita hamarretaraino. Lehen sei-zazpi ilhabete behar gintuen permisione batetik bertzerat: orai lau-bortz ilhabete, goren-gorenaz. Ez du guti balio. Neguko hotz handietan, etcheko supazterrean zenbeit egun bero-tzea, zer plazera!

⁽⁹²⁾ E. arrasteko.

Oi, neguko arratsak, supazter chokoan,
 haizea ari dela hichtuka kanpoan,
 atheak hetsirikan, suaren ondoan,
 elgarri kontra guziak berotzen sukaldean.

1916-12-15

Bidez bide

Gutienik uste ginuelarik ethorri zaiku mezua, gure pausua akhabo zela. Astirik galdu gabe, zakuak egin ditugu eta bideari lotu. Lau egun du *Camp de Mailly* delakotik abiatu ginela eta jada baditugu ehun bat kilometra eginak. Aro hauta dugu bideko. Kantaz bagoazi bidez bide. Norat? Ez dakigu: gehienen arabera *Meaux* delako hiriaren inguruetarat han zenbeit egun gocho iragaiteko. Egia denetz geroak erakutsiko. Hala balitz, ez ginuke errenkuratzeko eta sarrichago Somme hartan jokatzeko bil ginezake indar pausa toki berri hortan.

Dena den, ez dugu zeren bururik hauts: bihar edo etzi jakinen dugu egia, eta, ahal bezen laster *Eskualdunari* jakinaraziko dugu.

* * *

Zortzi egunen buruan

Bertze lau egun bidean eman-eta, heldu gare *Meaux* delakoaren inguruetarat. Eskualde arinak dire hemen eta uste dut, oraiko itchuraren arabera, ez garela unhatuko, hemen hezurak zaharturik ere. Azken lau egun hauk ez ditugu lehen lauak bezen ederrak izan bideko eta kasik hek eder bezen hits, hauk. Goiz batez euria, bertze batez elhurra, eta bertze bietan, lanho lodi eta umi bat. Bada mafrundi baztarretan, bainan pausuak denak antolatuko ditu.

* * *

Bideko berri

Egun hautan ibili ditugun urhatsetan ikusi dugu bazter eta gauza ederrik. Zer hiriak! Zer landak! Zer bazterrak! Zer oihanak! Guzien gai-

netik orhoituko naiz sekulan laborari-etxe batez. Hango ontasun zabala! Zer aberetegi aberatsa! Etche hartan bazituzten ere mila ardiz goiti: seiehun bildotch, zazpi ilhabetetakoak, barnean gizentzen ari zituztenak egun guzietz, goiz-arrats beterraba xehe-xehea, ogi eta olo ahotzarekin nahas-mahas emanaz.

Bertzalde, bospasei ehun oilo, nihongoak baino ederrago. Ez da halako andalusik ez bertzerik. Lanak, haatik, ahal den bezala egiten dituzte hor ere. Mementoko badituzte hamar bat preso dauzkagun aleman soldadoetarik. Nausiak erran daut ezinbertzea behar dela soldado horien etcherat hartzeko: laneko ez dute gure molde bera. Alferrak dire eta ez dute janaren lana baino hainitz gehiago egiten. Egia erran, janaz bertzalde, ez dituzte lau sos baizik. Nausiak zion ere presoner horiek ez dutela ihes egiteko gutizia handirik gerlaz lephoraino aseak dire. Ez da harritzeko!

* * *

Hemengo bazterra

Aberastasuna zer den badaki hemen laborariak, lan gutirekin sos hainitz biltzea balin bada aberastea. Lan errecha dute. Beterrabaz dire bizi. Eremu osoak eraiten dituzte eta gero, nahi duten prezioan, beterraba saltzen sukre egiteko. Hortan ez dute nekhe handirik.

Zorigaitzez, sosaren biltzea baino dorpheago zaiote atchikitzea. Zoko-moko guzietan ostatua da eta hitz dautzuet ostatuko athean ez dela belhar ondo handirik. Zer trichtezia! Hala-hala, elizako athea ez da hola legundua!

* * *

Permissioneak

Bidez bide abiatu ginelarik duela zortzi egun gelditu zauzkgiguten permissioneak. Egun berritz hasten dire. Agian, oraikoan ez dire geldituko. Hain gocho da, sasoin huntan, etcheke suan berotzea!

1916-12-29

Nun garen

Azkeneko aldian gure berriak igorri nituelarik, Meaux delakoaren inguruetan ginela erran nautzuen, eta nere ustez zenbeit denborentzat. Baduk hoberik. Egun baten buruko, gure izanak bizkarrean, berritz bideari lotharazi gintuzten. Bospasei egunez Pariseko inguru guzia eginik, Somme delakoari buruz jokatu ginen. Harat arras heldu gabe ere gelditu, haatik. Huna jada sei egun Chaumont eta Beauvais direlako hirien erditsuan gaudela Chaumont delakotik naski hurbiltchago. Camp de Mailly hartako urhats berak hartzen ari ditugu. Ez dituzte gure hezurak sobera gogortzerat utzi nahi.

* * *

Noiz arte

Noiz arte? Ez dakit eta uste dut gutiz gehienak ni bezen jakintsun diren. Aintzindariak berek deus ez dakitela diote, hala ez bada ere. Ez da dudatzeko, haatik, zenbeit egun egonen garela hemen: menturaz, uste baino gehiago. Zernahi gerta dadien, Eguberri hemen iragaiteak ez du guti balio. Hola-hola negua badoa eta hitz dautzuet, neguko, hemengo atherbe tcharrenak balio duela erreketako ederrena.

Nahiz ez den gaztelua,
maite dut pausa lekua
negu huntako hartua.

Hemengo jendea

Egia erran, ez da nihun ere ez dena baino gure itzulietan ikusi dugu makurragorik. Hauk, dutenetik emanen dautzute sosean truk bedere. Gutiz gehienek lanari tiro emana diote, haatik. Soldadorik ez balitz, ez dakit nola egin letzazketan beren kanpo-lanak. Nun eta ez dagozin hola alfer, lan horiek bardin soldadoek eginen dituztelakoan! Langileak urririk dituzte, baina nago ez duten jornalaren arabera lana egiten soldadoek!

* * *

Gerlaz

Egun hautako berri onek nihori ez diote atsegin gehiago egin, eskualdun soldadoeri baino. Verdun hori ezagutzen ginuen han egonak ginelakotz. Ikusiak ikusirik, harrituak gaude nola ez diren etsaiak lur galduez berritz jabetzerat lehiatu. Hola lotsatzen othe ditugu, bada, frantsesek alemanak? Hobe guretzat. Ondoko guduetan lan onik eginen dugu, beraz, guk ere, eremu baten hartzea ehunetan errechago baita atchikitzea baino. Verdunen bezala egiten badute etsaiak, min handirik gabe atchikiko dugu hartua. Horra zertako gauden hola loriatuak egun hautako berriez...

* * *

Bertze berriez

Verduneko berri onarekin batean ethorri zauku bertze berri bat ere: ba eta Joffre gure lehen aintzindariaren ordain hautatu dutela Nivelle jenerala. Adichkide batek letraz galdetu daut zer dioten hortaz soldadoek. Soldadoek maite zuten Joffre, bainan badakite aintzindari hoberenentarik dela Nivelle hori ere. Hau izan dezaten edo hura buru, bardintsu zaiote. Horra egia.

Frantziak baino soldado hoberik duen erresumarik ez da. Gauza bera erran ditake aintzindariez. Joffre, Nivelle, de Castenan, Petain eta Gouraud dituen erresumak bi beharrien gainean egin dezake lo... baldin behar den gerlako tresneria ematen badiote. Hortan dugu orai bitoriaren gakhoa.

* * *

Urthe on

Hitz hauk *Eskualdun*ean irakurtuko ditutzuelarik, urthe berria ez da naski urrun izanen. Ekhar dezazuela guzieren aurthengoak baino atsegin gehiago. Horko eskualduneri bihotzetik dugu hemengoek igortzen gure urthe ona.

Zerbitzari

Abendoaren 19an

Azken bitza

Ez den bichi? Lerro hauk doi-doia eginak nituen noiz eta ere mezu berria ethorri baitzauku: laster gure zakuak plega ginetzan eta bidea har.

Norat joko dugu? Oraikoan ez da dudarik: Somme delakorat. Guduan berehala hasteko? Hori ez dakit. Gerochago erranen, nere Eskual Herriko itzulia eginik Eguberri eta Urtheberri artean.

1917-01-12

Somme delakotik

Oren oneko sortu ginen. Gerla huntan hoinbertze kurrinda badabilkagu, urririk. Erdara, entzunaren bortchaz, guti edo aski, ikasten ari gare... errientero sosik⁽⁹³⁾ eman gabe. Gau guzietz besta gorria, ehun mila argi-firinda airean. Ez da erran behar sortzeko orena hautatu behar-eta, ez ginezaken hoberik hauta. Zer den, haatik! Duela zenbeit egun erraten nautzuen bezala, huna nun Somme delakoan garen gu eta orai Chaulnes eta Peronneko artean, etsaiari hartu lurean.

* * *

Hau da saltsa!

Verdunen ifernua ginuen: hemen purgatorioa. Nigar-egingarri da gizona holako plantan ikustea, zango puntetarik bururaino lohiz estalia. Belhaunetarik goiti dugula lohia erranez ez dut aski erraten, tokitan baitugu gerritik goiti. Hainitzetan, batek bertzea saltsatik atheratu behar, itzea bezala han sekulakotz landatua ez egotekotz. Ez da, beraz, harritzeko *pieds gelés* hoitarik hoinbertze balin bada: ehunka igorri dituzte eri-

⁽⁹³⁾ E. *sosir*.

tegiatarat. Egiak dena-den erran behar baitu, uste dut gutiz gehienak laster sendatuko diren, haatik.

Holako aroarekin ez dezakegu hezur luzerik hemen egin, nihor lotsatua ez delarik. Menturaz berritz itzuliko gare hunat, bainan behin goazen hemendik, aro hau altchatu arte.

* * *

Hemengo gerla

Egun hautan ez du hemengo gerlak, hurbiltzeko ere, Verdunekoaren garraztasuna. Kolpatu guti orai arte gutartean; hil, are gutiago. Gure kanoiek ez dabilkate karraska handirik egunaz: gauaz ahoak gehiago zabaltzen dituzte. Hala-hala angles horiek ez diote epherik uzten etsaiari. Horien kanoi hein guzietakoak orroaz ari dire milaka, egun eta gau. Nork konda horiek orenean igortzen duten obus-keta? Buruz buru dituzten alemanak ez badire erhotzen! Aroa edertu⁽⁹⁴⁾ arte, ez da hemen bertzerik ikusiko.

* * *

Airetakoak

Lehen bizpahirur egunetan, aroa hartakoa ere baitzen, ehunka zabil-tzan airean airetakoak. Etsai guti, haatik, eta denak ere gutarik aski urrun, herabe balire bezala. Egia erran, badute lotsatzeko hemen ditugun chitoekin. Kopeta gaitzekoak dire gure Guynemer, Nungesser eta Dorme airezkariak. Nola jazartzen diren etsaiari! Guynemer hori da guziz harrigarria. Berak baditu jada hogoita bortz etsai phusketan lurre-rat aurdikiak eta ez bide da hortan gelditzekoa. Haur hotz bat da kasik Guynemer: hogoi bat urthe ditu. Eskoletan zabilan gerla hasi zelarik. Bere “bakantzak” Miarritzen zituen iragaiten. Eskualduna ez bada ere, gure herriari atchikia da eta ez gaitu ukatzekoak, gu eskualdunak. Jainkoak hortakotz ere atchik dezagula!

* * *

⁽⁹⁴⁾ E. edartu.

Lur bartuak

Eskualde huntan eremu phuska khendu zioten etsaiari frantsesek. Baian nigar-egingarri da ikustea leku hau. Lurra osoki iraulia da, menturaz Verdunen baino oraino gehiago. Han-hemenka badire mina-zilo batzu ikaragarriak: bat guziz ikusi dut orhoitzekoa Fay eta Estrées zirelako herrichken artean: gutien-gutienetik baditu ehun metra luze eta zabaltasunean berrogoita hamar metra barna. Sinhesteko, ikusi behar, hots!

Herrichka pollit andana bat ere bazen: orai kasik ez ageri nun ziren, hala phorroskatuak baitire. Zer egin behar dute sarri hemengo jende gai-choek? Han eta hemen, erdi chutik gelditu baitire alemanek egin zilo batzu, hetan sartu eta egon beharko arima onek eman sosarekin etche berriak egin arte. Nun eta ez diren sekulakotz beren sorlekuetarik urruntzen, bihotzak hautsiak!

* * *

Azken solasa

Gerla hau hasi zelarik, mendiz bertzaldeko eskualdun zenbeit gure kontra agertu ziren, egunkari batzuek erran zaukutenaren arabera. Bihozmin zorrotza eskualdun gerlarienzat izan zen horren ikastea. Zer, anaiak anaia hola ukatu behar zuela, gure zerua ilhundu zelakotz! Zer bihozgabetasuna!

Eta horra nun bet-betan gure egunkari maite hunek gan den astean erran daukun ez zela egia: bethi *Zazpiak bat* garela, Espainiako eskualdunak Frantziako alde direla. Laguntza guzietan baliosena ematen daukute guretzat hain kartsuki eginez. Eta orai bertze gisa batetarat ere frogatu nahi daukute guretzat duten atchikimendua⁽⁹⁵⁾. Oraidanik milesker diotegu eskualdun gerlariak. Sekulan ez dugu hori ahantziko, anaia maiteak. Zuek bezala gu ere gero ta gehiago lehiatuko gare zuenkin bat izaiteko. Biba *Zazpiak bat*!

⁽⁹⁵⁾ E. *achimendua*.

Milesker, hortarat, Espainian lehiatzen diren jaun bihozduneri. Milesker ere chede beretarat lanean kartsuki ari diren egunkari eder eta oneri eta guzien gainera zueri, *Euzkadi* eta *Napartarra*.

1917-01-19

Leku beretik

Ez zaizkigu oraino ageri leku hau hartu behar dituzten anglesak. Bainan ez da orai dudarik goizchago edo berantchago ethorriko direla, ezen hemen barna lekuen ikusten ibili dire hekien aintzindariak. Gauden, beraz, beha. Menturaz lerro hau *Eskualdunean* agertuko direlarik, gu bertze nonbeiterako bidean izanen gare. Zer baitzaiote aintzindarieri etsaiaren bentzutzeko hoberenik eta hura egin bezate. Umilki jarraikiko gitzaizkote eskoadun soldadoak, zernahi gostarik ere. Hortako gare gerlan. Bainan Jainkoak lagunt gaitzala...

* * *

Aroa

Nihun ez litake hemen baino iguzkiaren behar handiagorik, bainan den bezalakoak ez du sudur-punta ere agertu nahi. Zerua oraino kopeta ilhunik dago. Gisa hortan ez da harritzeko bethi belhaunetarainoko saltsaren erdian balin bagare. Saltsa horren khentzeko zerbeit egitea, debaldetan litake: sobera bada. Iguzkiak dezake bakharrik lan hori egin. Beharrik aferaren antolatzeke ez da euria ari! Urrikaltzeko gintazke orduan...

* * *

Gerla

Hemen ez du gerlak egun hautan errabia handirik. Kanoiak bethi ari dire, bainan ez dute espantu egiteko karraskarik. Bertzerik ikusi dugu hameka aldiz. Ageri da aroa ez dugula gerlako. Hala-hala uste ez ginuen gerlako tresna bat ikusi dugu hemen: aspaldiko ezaguna, haatik:

crapouillot delakoa. Ehunetan engoitik errana dautzuet tresna hori erre-ken itzuliphurdikatzeko dela. Hemen ez ginuen bertze deusen beharra-gorik gure saltsaren emendatzeko!

Grenades hetarik ere badabila bakhar zenbeit airean, bainan ez dauku-te oraino min handirik egin. Bertzela, ez dute etsaiek hanbat sudurra agertzen. Sathorrak bezen barna, lurpean dagozi. Mementoan ez deza-kete bertzerik egin, hezurrez eta haragiz eginak baitire gu bezala. Ondoko egunetan, aroa edertzen bada, paperak churituko dituzte anglesekin. Denbora hortan guk pherekaldi bat emanen diotegu bertze nunbeit. Geroak erakutsiko nun...

* * *

Airetakoak

Euria ez ginuelakotz, gure choriak airatu dire egun hautan. Airetan kondatu ditut batean berrogoietaraino, elgarrekin jostetan bezala ari. Erran gabe doa etsaienak ez direla guretaraino menturatzen. Holako kopeta lukeena segur naiz ez litakeela osorik etcherat itzul. Baitire gizon batzu bethi etsaiaren nausitasunaz hartuak direnak, aski dute hunat ethortzea: ikusiko dute nor den nausi airetan. Bardin-bardina nausituko gare lurrean, baldin hortako behar dena egiten badugu. Hori hola da zure semeak bertzerik baderasa ere, andere Kattalin Bezkoizekoa. Och-pine!

* * *

Huntan akhabo

Zenbeit denbora huntan ohartzen hasia naiz, berri eskasez, *Eskualdu-nak* frantsesez bethetzen dituela bere chokoak. Ez dago niri berri gal-deka artzea egunkari hunentzat. Bainan guretzat bederen igor ezotzue, herritar maiteak. Hain laket zaiku horko berrien jakitea! Guk hemendik ahal ditugun guziak igorriko dauzkitzuegu ordainez, orai arte bezala... edo hobeki. Barka egungoak labursko badire. Ez da nere falta. Kantariak dion bezala:

Bertze orduz bazen, beraz, bele bat zaharra:
hegal bat zuen luze, bertzea laburra.
Hegalño hau ez balitz hoinen tcharra,
kondera hau izanen zen luze-luzea, haurra!
Urtharrilaren 10ean.

1917-02-02

Bethi Somme delakotik

Uste guzien arabera, huna Somme delakotik. *Eskualdunari* igorriko ditudan azken berriak. Denbora badoa, eta, aspaldian dioten bezala, bertze nunbeit oldar berri bat hasi behar badugu frantsesek, noiznahi hemendik urruntzeko tenorea dugu. Bertzalde, badakigu gure adichkide anglesak guri buruz heldu direla. Jada gure esker-eskuinetan frantsesen tokiak hartuak omen dituzte edo hartzen ari. J.S.P. *Eskualdunaren* berrikariak hori erran dezake, lekuan baita. Dena den, ez dugu guk ere hezur luzerik engoitik eginen eskualde huntan. Nahiz hil eta kolpatu guti baino gutiago izan dugun hemen iragan ilhabetetsuan, leku hitsa zauku hau: urrun egoteko hobe. Lazgarri da bethi lohian kasik ithoak ibili behar izatea eta gu hala ibili gare hemen. Eta balitz bertze deusen manerarik? Bainan ez. Hemen egonen dena, hola-hola ibiliko da zenbeit denboraz, hori nahi baitu hemengo lur motak. Bi egun hautan elhurra ari zauku, par, par, par. Ez baiginuen bertze deusen beharragorik saltsa hunen gutitzeko!

Datorzila, beraz, anglesak. Lasterrago eta hobeago ditake guretzat. Hemendik urruntzean, ez dugu nigar handirik eginen, zer ikusi behar badugu ere gero. Ongi bada edo gaizki bada, egunean egunekoari du behatzen gerlariak...

Hemengo hilberriak

Verdunen bezala gero kanoiek han berean phorroskatzeko, gudu tokian gelditzen ziren soldado hilez orhoitu-eta, bihotz-altchagarri handia da guretzat hemengo hilherrien ikustea. Nahi dut hemen ere soldado frango hil diren tokian gelditu direla, eta zorigaitzez gero kanoiek phorroskatu. Ezin dezaket hori ukha, nere begiz ikusi baititut hemen buru bat, han beso bat, urrunchago ichter edo zango bat. Eta behin baino gehiagotan. Ezinbertzea delarik, nihork ez du hortan hobenik. Egia hau da halere: hemengo hil gehienak altchatu dituztela lagunek eta behar den errespetuarekin hilherri pollit batzuetan ehortzi. Hobiak han daude, han-hemenka, lerro-lerro bidearen bazterrean eta bakotchak badu bere gurutzea hilaren izenarekin. Gurutzea besoak zabaldurik han dago, gerlako karraska guzien gatik, hilaren zaintzeko bezala eta denbora berean bidean doanari mintzatzeko: “Hoa, dio erraten, hoa trankil, durduzatu gabe: egizak bethi hire eginbidea eta hil hadi, beharbada. Ez haiz suntsituko, ezen nik emanen daiat hilari zor zaion geriza!” Artea nuelarik sartu naiz hilherri horietan eta denetan othoitz labur bat egin. Nigar-chorta zenbeit ere ichuri, gurutzean eskualdun izen bat irakurtu dutalarik. Ezen hemen ere, naski denetan bezala, hil dire eskualdunak. Badakit: muthiko maite horien amek herriko elizaren gerizan nahiko zituzten horien gorphutzak, noizetik noizerat lore bat eskaintzeko. Ama onak, loreen orde emotzute zuen othoitzak. Hitz dautzuet eskerrak guzien gatik zor dituzuela Jainkoari.

Hil dire zuen haurrak. Bainan badute egoitza. Nihor bidean ez da iraganen haur gaichoentzat othoitz bat egin gabe. Eta gisa hortan hil gaichoak ez dute deusen beharrik izanen, zuen orhoitzapen baten baik. Altcha, beraz, bihotzak.

Lurpean lo dagozi zuen soldadoak,
iguzkirat itzuliz zango ta besoak:
zeru gainerat, aldiz, daduzkate soak,
direlakotz gelditzen eskualdun osoak.

* * *

Bi hitz anglesez

Hainitzek menturaz usteko dute gu frantsesak Somme delako huntarik goazilakotz, hemengo guduak akhabo direla. Hori, ez. Gu bertze nunbeit etsaiari jazarriko gitzaio. Geroak erranen nun. Bainan ez dute hortakotz bakea izanen eskualde huntan etsaiek. Angles horiek hagin gaichtoko gizonak dire eta buruan dutena ez dute zangoan. Jainkoak begira anglesari behin huts egitetik!

Egun hautan, guti edo aski mintzatu naiz aintzindari angles batekin. Haren arabera, hemen egiazko guduak oraino hastekoak dire. Orai arte-rainokoak haur-josteta batzu ziren. Anglesak ez dio⁽⁹⁶⁾ alemanari epherik utziko, tripako hertze guziak khendu arte. Bai, esku onetan utziko dugu Somme delako hau eta sarrichago zalaparta onik ibiliko da hemen. Bai, segur, beren hanka handiak mugitu beharko dituzte alemanek!

* * *

Anglesen ondotik, eskualdun batez...

Egungo mintzaldi luzearen akhabatzeko, deus ez dezaket hoberik kausi eskualdun baten aipamen ederra baino. Landibarrekoa da eskualdun bihozdu hori.

“Landetcheberry Jean, canonnier au... d’artillerie. Excellent soldat, dévoué et plein d’entrain: au front depuis le début de la campagne, n’a cessé de donner toute satisfaction à ses chefs. Blessé très grièvement le 3 juin 1916 pendant un ravitaillement de nuit, a conservé ses souffrances et a été pour ses camarades l’exemple du plus beau courage. Amputé de la cuisse droite”.

Biba zu, muthiko bihozduna. Eta Jainkoak zorionez itzul zaitzala zuk Frantziari eman duzun bezenbat. Haren baitan sinheste handia duzulakotz, ditutzu hoin etsenplu ederrak eman zure laguneri. Aski fede baduzu zure nahigabea haren eskutik hartzeko. Ez ahantz ere lur huntan

⁽⁹⁶⁾ Eusk. *diot*.

denbora gutirentzat garela. Giristino onak ez du zerua begietarik gal-tzen, zernahi gerta dakion.

1917-02-16

Lekhu beretik oraino

Uste ginuen oraikotz Somme delakotik urrun izanen ginela, angle-sak guri buruz heldu zirelakotz. Ez da hala gertatu, ez baita hori egun batez egiteko lana. Bainan orai ez du luzatuko. Otsailaren lehenetik goiti ez du nere errechimenduak hemengo erreketan zangorik emanen. Eta bertze eskualdunek ere hamabortzeko lekhuak hustu behar dituzte... Azken egun hauk hobecheagoak izan ditugu. Hormak idortu ditu erre-kak. Bertzelako aisia dugu orai hemen gaindi ibiltzeko. Choriak bezala arinduak dire gizonak, kantaz eta chichtuz loriaz chokho-moko guzie-tan. Zer hotza, haatik! Arnoa bera untzietan hormatzen zauku. Guti izan eta dena ere hormatzen, zer lastima!

* * *

Kanoien karraska

Kanoiak ichilsko egon dire zenbeit egunez: orai orduko karraskak badauzkate. Etsaienak zalapartaka ari dire, erhotu balire bezala, gureak gutichago: hein on batean halere eta uste dut etsaiek guri baino min hainitz gehiago egiten duten hauk etsaieri. Chokhoak bilhatzen dituenak ditu pilotan ere kintzeak hobekienik hausten. Orai arte baino kolpatu gehiago ez badugu hemen egon behar dugun azken egun hautan, ez dauku bihotzean min handirik eginen sarri Somme delakoaz orhoitzeak. Ah, nihun ez balute gure armadako eskualdunek hemen baino odol gehiago ichuri!!!

* * *

Airetakoak

Egia den bezala errateko, etsaien airetakoak ozartzen ari zaizkigu egun hautan. Gure lerroetarik barnago sartzen dire noiznahi. Zertako

bada? Gure chori gehienak bertze norapeit hegaldatu direlakotz eta angle-senak oraino ez ethorri. Segur naiz, haatik, ez dela luzez hola izanen, anglesek ere baitituzte airezkari artechak. Bainan hola ozartuak izanagatik, ez dute nahi dutena egiten airetan etsaiek. Gurekin dugu oraino berritan aiphatu dautzuetedan Guynemer gaztea eta hau ez dago sekulan lo. Egun hautan ere, bat bertzearen ondotik, lau etsai phusketan lurrerat igorri ditu. Beraz, orai baditu hogoita bederatzi garhaituak. Biba Guynemer!

Bertze bat ere bada hemen lo ez dagona: harek ere egun hautan lau etsai phorroskatu ditu. Heurteaux du izena. Baditu hunek hola-hola hemeretzi debruetarat igorriak⁽⁹⁷⁾. Biba, beraz, Heurteaux ere!

* * *

Astoak gerlan

Banakien aspaldi sekulako astoketa saldu zutela españolek Frantziari, gerlako. Hemen kausitu ditut. Nolakatuak, haatik! Hezur eta larru eginak: irrintzina guti daukate. Egia erran, ez da harritzeko: egun eta gau lanean, jan-edan ttikiekin. Eta zer kargak dabilzkatzen bizkarrean, andarka bide guzia hartzen dutela. Kasu zuri bidean bat kausitzetik: tiroka ere ez zinezake bazterraraz, zuk behar duzu baztertu. Lan huntan nahitaez leher egin behar dute, denbora luzerik gabe. Gaicho astoak! Desertatzen ahal balire eta mintzatzen balakite...

* * *

Gezuraren iduriko egia

Hemen ere ez dire asto guziak bardin urus: batzuek bertzeek baino lan errechagoa dute. Batek guziz arras errecha du: arrats guziez, gomenant bati jatekoa ereman behar, soldado bat gidari. Paueko inguru horietakoa da soldado hau: mandoa bezen azkarra, bainan dena bihotz. Egun batez astoa ahultzen ari zitzaiola oharturik, berak bizkarrean ereman du gomenantaren jatekoa. Lehen egunean deusik ez dio erran gomenantak, bainan bigarreanean soldadoari hasi da mehatchuka bezala.

⁽⁹⁷⁾ E. *igorriak*.

—Errak, ez diat gehiago holakorik nahi: bihar astoak ditik nere jatekoak ekharriko.

—Jauna, chutik ez dagoke.

—Nahi badu ba. Leher egin beza. Hobe duk harek egitea hik baino. Bihar ez badiat asto hura hemen ikusten, hanbat gaichto hiretzat...

Ezin sinhetsia da biharamunean nere begiz ikusi dutana: gizon bat asto bat sorbalden gainean erreka erreka gaki! Hola ikhasia dut ichtorio hau eta horra zertako hastean eman dutan: gezur baten iduriko egia. Nago zoinek duen bihotzik hoberena, gomenantak ala soldadoak? Zer zautzue zueri, *Eskualdunaren* irakurtzale maiteak...

* * *

Eskualduna gerlan

Egun hautan bidez bide nindoan lagun batekin, Estrees delakoaren inguruetan. Bet-betan bide bazterrean ikusten ditut hirur hitz hauk: Vente de journaux, eta urruntchago bospasei egunkari lerro-lerro ezarriak: *L'Echo de Paris*, *L'Action Française*, *Petit Parisien*, *Matin* eta ez dakit zer. Bururat heldu zaut *Eskualduna* ere han utzi behar nuela, ikusteko. Hain chuchen biga banituen zarpan. Saltzaleeri uzten diozkatet, urririk. Biaramunean banoa ikusterat. Nere *Eskualdunak* bira sos salduak zituzten. Bertzerik ere salduko bide zuten, izan balute. Nork usteko zuen?

* * *

Azken oreneko berria⁽⁹⁸⁾

Egungo mintzaldian aipatu dautzuet Guynemer airezkaria. Erran dautzuet berberak bazituela hogoita bederatzi etsai garhaituak. Geroztik ikasi dut bertze bat ere garhaitu duela: hola heldu baitu hogoita hamar. Zer puttikoa hau!

⁽⁹⁸⁾ Ohar hau *Zerbitzari* izenpearen azpian dator.

1917-02-23

Partitzeko tenorea

Kantuak dion bezala: partitzeko tenorea huna nun den jina. Bihar goizean nere errechimendua sartuko da beribiletan eta firrindan eremanen gaituzte han-harat. Bertze errechimenduak jarraikiko zaizkigu, lerro-lerro, ondoko egunetan. Norat goazi? Behin pausurat zenbeit egunentzat. Gero? Ikusiko.

Soldadoak sekulan deus ez daki ibili behar dituen urhatsez. Ez eta jakin behar ere. Lagunekin hortaz mintza litake nun-nahi eta noiznahi, eta etsaiak beharri luzeak ditu. Idekiak dauzkala⁽⁹⁹⁾ hitz dautzuet, bertzalde. Holetan, berrogoita bortz egun eman ditugu *Somme* delakoan. Armada guti da gu bezenbat hemen egon denik.

* * *

Hemengo azken egunak

Aspaldi du euririk ez dugula hemen ikusi eta haste hartako lohi ikaragarria idortu zela. Idortu othe? Ez, bainan ba hormatu. Lurra harriaren pare egina da: metra erdi batez barna hormatua. Egia erran, zer hotzak ari dituen? Egun hautan ikusi dut eskualde hautako emazte bat: hiruetan hogoita hemeretzi urthe baditu. Haren arabera, ez da haren bizi guzian holako hotzik izan. Baditake. Gauza berbera erran daut eskualdun miriku batek, Sarako jaun miriku gazteak.

Dena den, hitz dautzuet lurraren gainean, zerua lekuko, lo egiten duenak, nahi den bezenbat ardi-larru eta estalki izanik ere, ez duela bero handirik goizean hirur edo laur orenak alderat! Harrigarri ere da nola ez dugun sekulakoa biltzen! Neretzat ez da dudarik: Jainkoa urrikaltzen zaiku, Eskual Herrian guretzat hoinbertze othoitz egiten dutelakotz. Sarri jakinen dugu nori zer dugun zor!

* * *

⁽⁹⁹⁾ E. *daukala*.

Gerla zertan den bemen

Haste hartan, kanoiak ichilsko zauden. Orai karraskan ari zaizkigu egunaz ala gauaz. Bainan anglesek daukate guziz harrabots gogorra. Ehun mila atabalari hor bagintu, ez litake parrapata usuago. Ez dute halere lur handirik hartzen etsaiari: ondoko eguneri buruz ari dire segur. Gauden, beraz, beha. Eta gauden beha konfiantza handienarekin. Niri gerlari gaitzak zaizkit angles horiek!

* * *

Zenbeit egun anglesekin

Noiz ethorriko zitzaizkun anglesak ginauden. Orai gurekin ditugu. Zortzi egun huntan artillur angles batzuekin dugu jaten eta lo egiten. Zoin lagunkinak diren! Frantses hitz batzu ikasi dituzte: guk, angles hitz batzu. Eta hola, keinu batzuekin, elgar aski polliki entzuten dugu. Guk zerbeit emaiten diogutelarik, *mertzi* erraiten daukute. Eta guk, hek zerbeit emaiten daukutelarik: *Sen kiou*. Mintzaira guziak ikasiko baititugu naski gerla hau bururatu orduko!

* * *

Pittounflet eta Tintero

Bi hendaia dire Pittounflet eta Tintero; munduko gizon hoberenak. Nola adichkidetu diren anglesekin harritzeko da: anaien pare dire orai bizpahiruekin. Ez nuke jokatu nahi bihar ez dutela batzuek eta bertzeek nigarrik eginen elgar uztean. Zarpak⁽¹⁰⁰⁾ zituzten guziak trukatuak dituzte, orhoitzapen bezala. Eta zer bestak egin dituzten elgarrekin, hemengo ostatu tchar batean!

Sekulako irriak eginik nago arrats hautarik batez. Erreketarik heldu nintzen, beraz, gauerdi alderat. Burdinbidean gaindi ikusten dut norbeit heldu, andarka, burdinbide guzia hartzen zuela. Pittounflet nuen. *Gau on, Pittounflet*, diot erraten. Bainan gure gizonak ez daut kasurik eman. Bere buruarekin elheketa bidea segitu du: *ingles bon, ingles bon* zerasala.

⁽¹⁰⁰⁾ Eusk. *zarpar*.

Hain chuchen urruntchago nere Tintero kausitzen dut. Zer airepuska hunek ere! Hau anglesekin zoan. *Good, good England* zion Tinterok, eta *très bonne Française* anglesek!

Hauk ere ez dautet Pittounfletek baino gehiago nere agurra itzuli. Herrarik ez dezoketet halere atchik, munduan orai hetaz bertzerik badela ez baitzaiote iduri!

1917-03-23

Erreketarik

Pausuan hamabortz egun gochoki iragan-eta, —hain gochoki nun arte bat ez baitugu hartzen ahal izan *Eskualdunari* gure berrien igortzeko— gure armada zenbeit egunentzat bi erdi egin dute eta bi eskualdetarat igorri. Bat, ez dakit norat: J.S.P. han baita, hango berriak igorriko ditu. Bertze erdia —gurea— berritz erreketan da, anglesari hurbil, Roye eta Lassigny direlako hirien artean, vallée de l'Avre delakoan.

* * *

Zer eskualde den hau

Frantzian ibili ditugun eskualdetan ez ginuen oraino holakorik ikusi. Erreketarik hirur-lau ehun metretan, ez du iduri gerla dela. Gizona gainez gain badabila, chichtuz eta kantaz: sekulan kolpatu bat ez da hor halere. Erreketarik bortzehun metretan baita bide berri bat, han gaindi oinezko, zaldizko, beribil, Bordeleko karriketan bezen trankil badabiltza egun eta gau. Erreketarik bi kilometretan badugu hirichka pollit bat: oraino oso-oso dago. Horko jende guzia hor da, bere lanetan ari, igandetan meza-bezperetarako eskualdunak Eskual Herrian bezen trankil elizarat bilduz. Harrigarri ere da.

Hala-hala erreketan beretan, zer irriskua⁽¹⁰¹⁾. Egun eta gau —behinere ikusi ez ginuena— bala kasik erlea bezen usu dabila airean eta erre-

⁽¹⁰¹⁾ E. *burriskua*.

kak ez dire aski barna gizonaren gerizatzeko: konkortua behar da egon eta ibili hor. *Crapouillots* zikintsu hetarik ere bada nihun baino gehiago. Kanoiak berritz ichilsko daude. Mementoan etsaiek dituzte hemen burfurua handienak. Bainan beude zenbeit egun oraino, hemen dugun kanoia-ketarekin, sartuko zaizkote irriak.

* * *

Zer denbora ari zaikun

Pausuan aise ahantzi gintuen Somme delakoan ikusiak: hango lehen egunetako lohi ikaragarria eta geroko hotz samina. Egia erran, pausurat orduko denbora edertu zen. Iguzki gocho bat agertu zen eta iduritu zitzaiakun primadera ginuela. Baduk hoberik. Hunat ethorri gareneko, elhurra far far far berritz hasi zaiku. Lurra churi-churia dugu, zenbeit egunentzat naski orai. Sarri, hemengo lur motarekin, achoinetarik goiti saltsan sartu beharko dugu. Baitakigu lehen ere holako baten berri!

* * *

Noiz arte garen hemen

Aspaldiko denboretan ez dugu nihun hanbat laketzen. Maiz toki sainda dugu. Hemen laketuko othe dugu, bada? Ez. Hemendik hamar bat egunen buruan guk bederen hemengo aldia egina izanen dugu eta hemendik urrun izanen gare. Diotenaz —bainan hortaz nihork ez daut halako segurtamenik eman— gure armadaren bertze erdia ethorriko da hunat gure ondotik, bainan ez haintz denborarentzat hura ere. Ikusiko...

* * *

Ondoko eguneri buruz

Guk bezala guziek badakite engoitik primadera huntan gudu handiak izanen ditugula. Iduri du behar den tresneria guzia badugula orai etsaiaren erhausteko. Bainan ez da hortan guzia: lurrean ez da Jainkoak nahi duena baizik gertatzen.

Guk ere, beraz, gure lagunuen izenean, J.S.P. adichkidearen othoitz bera eginen dugu gure herritarrerri: ahal duten moldean lagunt gaitzaten. Bai, eskualdun gure herritarrak, guk gure bortz eginahalak eginen ditu-

gu etsaiaren hemendik aurthen fueratzeko. Zuek, hor egizue othoitz. Othoitz dirua bera baino beharrago da gerlako ere. Hori gabe, debaldetan loth gintazke primadera huntako oldarrari. Beraz, gu maite balin bagaitutzue, gu aurthen⁽¹⁰²⁾ etcherat itzultzea nahi baduzue, eta hemen hil behar baginu gu zeruan sartzea nahi baduzue, zoazte maiz elizarat eta han, Lurdeko Andredena Mariaren arartekotasunaz, galde zozue Jainkoari hemen behar dugun indarra eta sua.

Hola eta hola bakharrik ditake gerla hau aurthen trenka.

1917-04-06

Pausutik

Pausuan gare sei egun hautan. Ezen guretzat bethi pausua da sutik eta irriskutik urrun iragaiten dugun denbora. Horrengatik ez ditugu hemen gochotasun guziak: lana bada eta egin behar: gu, burdinbide egiten ari gare mementoan, eta ariko oraino bizpahirur egunez. Goizean sei orenetako lantegian sar eta arratseko sei orenetan lana utz, eguerdi alde rat bi pokado kilimiklik iretsirik arno chirrista batekin. Gure armada ez dakigu batere nun den, gure errechimendua baita bakharrik hemen. Diotenaz, haatik, aste hunen ondarrerat gure lagunetarat bilduko gare berritz suan sartzeko. Ikusi behar.

* * *

Egun hautako berriak

Onak dire egun hautako berriak; onak baino hobeak. Ez ginuen aspaldi holakorik ikusi. Gure loria! Bainan berri horiek ez gaituzte harritu: beha ginauden. Andechy delako herrichkan dire lehen-lehenik frantsesak etsaien erreketan sartu, guk arrats hartan berean utzi ginioztekun erreketarik atheraturik. Ez dugu, beraz, guk egin lana. Bainan egia hau da halere:

⁽¹⁰²⁾ E. *aurthan*.

merezimendu zerbeit badugula guk ere. Bakotchari berea. Andechy delakoan bietan izanak ginelakotz gauaz, aise ohartuak ginen etsai guti ginuela aintzinean. Hori erran dugu gure erreken hartzerat ethorri direneri eta hauk gau berean, gizon bat galdu gabe, herrichka hortaz jabetu dire. Badakizue zer den gertatu orduan. Esaiak lotsatu direlakotz edo ez dakit zertako, berehala ihesari eman dire. Hirur egunez berrogoi kilometra hartu dituzte frantsesek. Agian bertzerik hartuko dute ondoko egunetan! Ez han izanik ere, ez da gure atsegina ttikiago izanen...

Zer othe diote orai alemanak ez gintuela sekulan beren erreketarik khenduko ziotenek? Bai, eiki, bai, khendu. Eta khenduko ere berritz erreketan sartzen badire, eskutan dugun tresneriarekin. Sinhets nezazue.

* * *

Zer dioten soldadoek

Bethi badire mihigaichtoak. Zenbat ez dire alhatu gutaz gerla hontan: soldadoa ase zela gerlaz, bakea baizik ez zuela nahi, nolana hizko bakea. Zenbatetan ez dut erran gezurra dela hori?

Bai, gerlaz aseak gare. Bai, bakea nahi dugu. Bainan etsaia lehertu-eta! Ikusi bazinetzake orai gerlaz hain aseak diren soldado hauk. Nola mintzo diren! Pausuan dena bera, tokiaren gainean ez dagoka. Suan erdiz erdi nahi luke egun hautan etsaiari min baino min gehiago egiteko. Zer haginean gauden! Ez da harritzeko. Egun hautan libratu diren emazte gaicho batzu ikusi ditugu. Hek ikusi dutenik ez da. Alemana baino jende urdeagorik ez ditake lurrean, salbaietan beretan ere. Otsoa herrirat hurbiltzen delarik, guziek bortz eginahalak egiten dituzte haren hiltzeko. Otsoa baino tzarrago da alemana. Hil dezagun.

* * *

Gezurrak⁽¹⁰³⁾

Egun hautan gezur hainitz ibiliko da: hiri hau, hiri hura hartu ditugula. Eta gero egunkariek deus ez dutelakotz aiphatuko, zenbeit lotsa-

⁽¹⁰³⁾ E. *Gegurrak*.

tuko dire berritz. Eman dezagun, beraz, kasu. Ez dezagun sinhets segura dena baizik. Emeki eta segurki goatzi aintzinat, hartu tokia zer gerta ere antolatuz. Iraun dezake oraino denbora bat gerlak. Ez ahantz zazpi izpiritu badituela alemanak. Bainan ez lotsa: bego⁽¹⁰⁴⁾ gure gain horren lehertzea.

Martchoaren 20ean

1917-05-11

Egun hautako oldarra

Ez dugu naski nihori deusik ikasiko egun hautan oldar handi bat hasi dugula erranez. Hasi, dut erraten, ezen guzien gatik esperantza dut ez dela hortan geldituko. Aspaldi baginakien oldar hortan parte hartu behar ginuela eskualdunek ere; erdiz erdi ginen. Huna, beraz, berant bada berant, hortaz zenbeit chehetasun.

Kanoiak aspaldiko hasiak ziren orroaz eskualde huntan. Bainan egia den bezala errateko, uste ginuen oraino orro handiagorik izanen zutela azken egunetan. Ez baitakigu gure aintzindarien chedeen berri, gauden, hortaz, ichilik. Gure ustez, Verdunen eta Somme delakoan ikusi ginuen artilleria hemengoari negurtuz, hemengoak bertze orrorik atchik zezaken azken egunetan. Dena den, apherilaren 16ean, argiari buruz, prest ginauden etsaiari jazartzeko. Sei orenetan ginuen hasi oldarra. Soldado beltzak ziren lehenik ziloetarik atheratu: gu, ondotik. Lurra iraulia zen kilometra bat edo bietan: etsaia⁽¹⁰⁵⁾ ez zen nihun ere ageri. Eremu hori hartu ginuen gizonik galdu gabe.

Bainan gero zer chichtuak! Harpe ikaragarri batzuetan gordea, etsaia hasi zitzaikun tiroka errabia gaitzean. Soldado beltzak, erhotuak, hamarretan, hogoietan, alde-alderat hurbildu zitzaizkoten: aldi bakotch,

⁽¹⁰⁴⁾ E. *bege*.

⁽¹⁰⁵⁾ E. *etsaik*.

etsaien mitraillusek gelditu. Han berean gaude geroztik, buruz buru, hek gordeak, gu agerian. Ez dute amor eman nahi, hek: guk, hartu lurrak atchiki nahi, ezen ondoko egunetako oldarrentzat, baitezpadakoak ditugu guretu ditugun oihanak eta mendichkak. Jada bospaseietan, metaka jazarri zaizkigu alemanak, gu, lehengo erreketarat fueratu nahiz. Debal-detan: hilez lurra estali dugu eta beren harpe debruatarat itzuli dire. Horra zertan garen eskualde huntan. Galdu dugu gizon, bainan ez hurbiltzeko ere etsaiek bezenbat. Ez gare lotsatuak ichuri den odolaren gatik ez eta lotsatuko. Zer gertatuko den beha gaude... eta prest. Horko eskualdunek hemengoak lagunt detzatela kartsuki othoitz eginez: othoitz da gerlako gakhorik hoberena.

* * *

Airetakoak

Airetako hainitz badabila hemen gaindi: guretarik hainitz gehiago. Egia erran, hemen ditugu gure airezkari aiphatuenak: Dorme, Heurteaux, Deullin... eta Guynemer. Hunekin bi solas egin ditut aintzineko egunetan. Zer gizon maitea den! Hogoita hamasei etsai baditu lurrerat igorriak, bainan ez da hortakotz batere bere buruaz hartua: “Hola baita gertatu, daut erran”. Ez zen hola gertatuko Guynemer ez balitz Guynemer izan: bat da munduan horren parerik eta bat hura Guynemer deitzen da. Jainkoak atchik dezagula...

* * *

Biba Hazparne!

Hazparne bezen herri eder guti da munduan. Nun da ere herri⁽¹⁰⁶⁾ horrek bezenbat soldado Frantziari eman dionik? Eta zoin ederki gudukatu diren hazpandar soldadoak gerla ikaragarri huntan! Huna, bertze guzien ondotik, Brioutegiko semeari eman dioten ohorezko aipamena.

“*Labirigoyen Edouard*: Caporal très vigoureux, ayant toujours donné l'exemple du courage et du sang-froid, notamment à Guise le 28 août

⁽¹⁰⁶⁾ E. herria.

1914, où blessé une première fois au bras, il a continué à se porter à l'assaut avec ses camarades. A été blessé une deuxième fois au mollet en abordant les lignes ennemies. Blessé une troisième fois à la cuisse pendant que l'on procédait au pansement de ses deux premières blessures”.

Emazu hor, Edouard: denboraren buruan eman badautzute aipamen hau, ageri da geroztik ere zuen eginbidea egin duzula nun-nahi. Biba zu eta Hazparne!

1917-06-01

Aspaldiko partez

Aspaldiko partez huna egun zenbeit gerlako berri. Ez balin badugu maizago lerro bat *Eskualdunari* igorri, ez dugu batere faltarik. Astirik ez ginuen. Ez da harritzeko, azken denboretan ikusi ditugunekin.

* * *

Zer dugun egin

Gan den apherilean moroek zuten gehienik egin oldarra. Lur phuska bat hartu ondoan, gelditu behar izan zuten, egunkari hunek berak eman dautzuen arrozoin batentzat artilleriak ez zuen bere lana bururatua. Oraikoan guri zagon oldarraren egitea. Maiatzaren bortzean dugu egin.

Hainitzetan hemen berean erran dugu eskualdunek ez zutela toki baten zaintzeko parerik. Oldar huntan frogatu dute lur baten hartzeko nornahi balio zutela. Gerla tokiko eskualde gaichtoenean ziren, plateau de Craonne delakoan eta hori diote etsaiari khendu. Biba eskualdunak.

* * *

Nor ginen parrez-par

Alemaniko soldado aiphatuenak gintuen parrez par, maiatzaren bortzean, grenadiers de la Garde direlakoak. Bakotchari berea: soldado gaitzak dire. Bortzean amor eman badute, ezinbertzea zuten. Galdu zuten lur eremua, metraz metra dute galdu. Damu da holako soldado

ederrak Guillaume tzarraren azpiko baitire... Eta zer keta utzi duten lurraren gainean!

* * *

Kanoien lana

Lehen oldarreko ez bazuten beren lana bururatua kanoiek, hala zuten bigarreneko. Lurra ederki iraulia zen: errekarik nihun ere ez zen gehiago ageri: atherbe gehienak chirtchikatuak ziren. Oldar egunean ez diote etsaiari epherik utzi; zokho-mokho guziak zafratuak zauden. Bertze errechtasunik zen hola guretzat!

* * *

Kanoiek holako lan ederra egin badute, airekoeri esker dute egin. Zenbeit egun hetan, airean zabiltzan metaka. Etsaiak ez zezaken urhatsik egin, airezkariak ohartu gabe. Oldar egunean, goizeko laur orenetako buruen gainean gintuen, kasik ehun metretan, eta zortzi orenetan gure erreketarik gu atheratu ginelarik, hek etsaiari tiroka ari ziren jada bizpahirur oren hetan, beren mitraillusekin. Erran gabe doa gure airezkari aiphatuenek bizpahirur etsai phorroskatu dituztela egun hoitan. Guynemer delakoa hogoita hemezortzietan dugu.

* * *

Zer dautan erran etsai batek

Etsaiek ez zuten uste sekulan plateau de Craonne delakotik fueratuko gintuela, gain-gainetik antolatua baitzuten. Ez zakiten norekin izanen zuten egiteko: eskualdunekin. Harrituak zauden preso hartu ditugun guziak. Hautan, bat kausitu dut frantsesez ederki mintzo zena, aintzindariska bat, eta galdetu zer zion gutaz: "Oh les Français son très forts, daut ihardetsi: Ils nous ont surpris par leur fougue. Ce n'est pas un déshonneur pour nous d'avoir été battus par eux..." Uste nitek, Pette! Nere lagunetarik batek bertze etsai bat kausitu bide du espainolez... eta eskuaraz aski polliki mintzo zena. Damu da hau ez baitut ikusi eskualdunez zer zion galdetzeko.

* * *

Zer dutan uste

Zer dutan uste? Maiatzaren bortzean gure oldarra segitu baginu, eremu handigoa khenduko giniola etsaiari. Gu ederki ginoazin: etsaia harritua zen. Bainan aintzindariak behar baitute ikusi noiz zer behar den egin, manatu tokian gelditu gare. Baditake zuhurrago zen, gerokoaren gatik.

Dena den, toki choragarriak ditugu hartu: orai etsaiak ez dezake, eskualde huntan, urhatsik egin, guk ikusi gabe. Mugitzekotz gauaz behar du mugitu. Eta hori guti da. Handiena hau da: ondoko egunetan bertze oldar bat hasten bada, jakinen dugu zeri eta nola joka. Bertzeak bertze, zerbeit da: ez ginen hola oldartzen orai arte...

* * *

Gure aintzindariak guduan

Eskual Herrirat permisionez egin ditudan itzulietan, galde hau egin dautet hainitz herritarrek: “Eta zer diozu zure aintzandariez”?

Mihigaichto batzuek zikhinduak zauden gure aintzindariak: hau egi-ten, hura ez egiten: beharrorduetan ihesari ematen. Eta holako. Ez dut egun urrikirik egundainotik hau erranik: gure aintzandarietan konda ginezakela. Ederki baino ederkiago egin dute beren lana aintzindariak maiatzaren bortzean: hilda⁽¹⁰⁷⁾ eta kolpatu franko: bat grenada eskuan, bertzea baioneta eskuan, hirugarrena nun zen etsaia tente chutik beha. Eta hola. Araberaka gizon baino aintzindari gehiago erori da. Horra egia... Aintzindari eta soldado, biba, beraz, guziak.

Maiatzaren 15ean

⁽¹⁰⁷⁾ E. bil da.

1917-07-06

Hitzak ederrak, bainan...

Hori zion Eskual Herriko kanta zahar eta eder batek. Bainan zer othe diote guretzat gure herritarrek eta *Eskualdunaren* buruzagiek? Hitzak ederrak gintuen guk ere: maíz eta maíz baino maizago gure berriak igorriko gintuela. Eta gero deusere... Zer nahuzue! Bertze lanik baginuen azken egun hautan. Bidez bide ibili gaituzte hoinbertze egun, oinez, beribilez, treinaz. Barka dezagutela, beraz, gure herritarrek.

* * *

Nun garen...

Mihiaren puntan izanagatik, ez dut salatuko. Hainbertze badagozi, begi eta beharriak zabaldurik, nun zer kausituko duten gero etsaiari salatzeke! Nik erranik, ez dire egun jakintsun eginen... Erran dezakedana da, egundaino ez ginuela eskualde hau ikusi: eskualde ederrenetarik dela, eta arras aberatsa: hemengo jendea maitea dela, garbia, langilea eta ichila. Gaizkiago erori izan gare hameka aldiz gure itzulietan!

* * *

Zer ari garen...

Zer ari garen, irriskurik gabe sala dezaket. Ori, tripa iguzkiari arbolapean pausan edo, altcharraztelu bat eskuan, belharretan. Bakhan batzu arraintzarat badoazi, bainan ez dut oraino ikasi nihork ere halako ketarik kausituko duela. Zenbeit zokhoz zokho ikusten ditut, chichparekin, erbi zahar bat kausitu nahiz: bainan erbiak hankak arinegi ditu hirur urthe gerlan ibili denarentzat... Dena den, gehiagokorik erran gabe, ikusten duzue, oreneko, ez dugula hezurrik hausten lanean ez eta odol gaichto handirik egiten. Craonneko zinka haren ondotik, ez othe ginuen hoinbertze merezi? Ba naski...

* * *

Biba eskualdunak

Mundu guziko egunkariak mintzatu dire eskualdunetz: guziek gan den maiatzean kondatu zuten nola eskualdunek Alemaniako soldado hobereneri khendu zioten Craonneko eskualdea. Badire egunkariak gutaz oraino espantuka ari direnak, sekulako harritu bagintu bezala. Huna atzo berean zer zion Angleterrako egunkari handienetarik batek, *Times* delakoak:

“Bere gizon ederrenak ekharriak zituen Guillaumek Craonnerat, Rumanian asean eta bethean atchikirik, guk behiak landan atchikitzen ditugun bezala. Debaldean: eskualdunekin zuten egiteko. Eskualdun pilotariak laster garbitu zituzten hainitz eta hainitz, eta gaineratekoak han-harat fueratu. Biba eskualdunak”.

Behin harritu dugu mundua eskualdunek. Agian ondoko egunetan Alemania bera dugu harrituko eta bakearen galdetzerat bortchatuko. Dena den, ahultzen ari zaukula bihotza diotenek, ez bezate beldurrik izan: guk, behar deno, behar dena eginen dugu. Bainan ez da gutan guzia: guk bezala, bakhotchak bere lana egin dezala. Bertzerik erran gabe, hola behingotz aski. Eta biba eskualdunak!

* * *

Bakotchari berea eta biba Azkaine

Noizean behinka berri bat edo bertze nere mintzaldietan aipatu ditudalakotz, zenbeit hauzo-herri jelostu dire. Frangotan, hortako arrazoinik gabe. Egungoan, bai. Ezen nun da herria Azkainek bezenbat soldado on eta eder duenik? Beha, bada.

Azkaindar soldadoetan, jada hogoita hamabi hil dire Frantziarentzat: bospaseiek aspaldian ez dute berririk igortzen. Eta nun othe da Azkainen bezenbat gerlako gurutze? Chuchen-chuchena ez nakike zenbat, bainan nere ustea da hamabortz erranez, guti erranen dutala. Biba, beraz, Azkaine! Holako herri giristinoak ez zezaken gutiago egin Frantziarentzat!

* * *

Napartarrari

Behin edo bertze hemen aipatu dugu *Napartarra*. Egunkari eder eta maitea da eta lakhet nuen haren irakurtzea. Bainan aspaldian ez dut gehiago eskuratzen ahal. Eta nork igorriko nauen hunat? Nere bidalgia (adresse) *Eskualdunak* emanen dio.

Milesker oraidanik⁽¹⁰⁸⁾ eta barkatu.

1917-07-27

Zer diren gure chedeak

Hamabortz egun pausuan egonik eta gero bortz egun oinez bidean ibilirik, huna, beraz, nun garen etsaiaren kontra zaindu behar dugun eskualdean.

Zer eskualde ederra! Eta, nahi duenak nahi duena erran dezan, zer jende Frantziari atchikia! Ez, ez du gehiago eskualde hau etsaiak beretu behar! Ez, ez ditu jende gaichoak, berrogoi urthez goiti egin dituen bezala, zangopean ibili behar!

Eskualdun soldadoak hemen egonen garen, ez du zeren mugi alemanak: ez dauku zehe bat hemengo lurretik khenduko. Bertze eskualdetan, deusek ere ez gaitu lotsatu: nihun ere ez dugu ukho egin. Are gutiago hemen.

* * *

Zer ditazken etsaiaren chedeak...

Ez da sekulan errech alemanak zer duen tripan jakitea: halere ez du iduri chede gaichtorik baduela hemen. Ichil eta trankil dago. Ez da, errateko maneran, tiro bat goizetik arratserat. Zer lanak dabilzkatzen buruz buruko soldadoek, haatik! Egun eta gau, orenik galdu gabe, erreka berri egiten ari dire, alanbre berri ezartzen. Hortarik aise ageri baita alemanak ez duela deusik egin gogo eskualde huntan eta... gure beldur dela. Hobe segurki.

⁽¹⁰⁸⁾ E. oraidanik.

* * *

Hitz bat airezkariez

Nihun baino gehiago badabilta hemen airezkariak, goizetik arratserat airean, zer ikusiko duten. Etsaia ohartu othe den gure armada eskualde huni buruz heldu zela eta gure chedeak nahi othe lituzken ikasi —edo berak harat-hunat zenbeit badabilkan— ez dakit.

Frantses eta aleman, azkarki jazartzen dire elgarri: bainan orai arte, min handirik gabe, atheratu dire airetako gudu hoitarik bat eta bertzea. Ageri da Guynemer ez dela hemen. Orai, berrogoita bortz etsai baditu phorroskatuak gaizo muthikoak...

* * *

Hemengo bazterra

Hiruetan hogoita hamarreko gerlatik lekora eskualde hau beretzat atchiki bazuen alemanak, bazakien zer ari zen. Zer eskualde aberatsa hau! Oihanak berak hemengo jendea haziko du. Bainan bada oihanez bertzerik. Sagar, udare, gereziz estalia da bazterra. Bide berriaren bazterrean lerro-lerro landatua da tillura, lur mikorik ez galtzeko.

Landetan zer lur sagar-keta: hainbertze nun iduri baitu Frantzia guziaren haztekoa badela. Zenbat betterraba ere! Ogi eta olo ere bada aski polliki. Hala-hala ez dut artho ondorik nihun ere ikusi. Arras mahats guti. Egia erran, hemengo jendeak ez du arno guti baizik edaten: dena ere, churitik. *Biera* hortarik dire ari. Uretik baino hobe dute hortarik edatea halere. Ala ez othe, eskualdunak? Galde hori hazpandar zenbeiti. Ez zaiote zorro hura hola biribildu ezpainak urez bustiz...

* * *

Hemengo jendea

Gisakoenetarik da hemengo jendea. Hirur urtheren buruan, soldadoa oraino begi onez ikusten du: gogotik laguntzen ere. Bainan zoin bitchiki mintzo den: flau, flau, flau, flau, diola. Alemana ditake mintzaira hori edo hartarat doan zerbeit. Haurrak, haatik, gure eskoletan ibilki baitire, aski polliki frantsesez hasiak dire. Gerla aintzineko zaharretan ere kausitu ditut berrogoita bortz urtheren buruan frantsesa ahantzia ez

zutenak. Eta guk Eskual Herrian baititugu neska ergel batzu, bi urthe hirian sehi egon direlakotz, eskuara ahantzi dutenak!

Adin batekoentzat, beraz, dorpe izanen da aleman mintzairaren uztea: alabainan ez dute bertzerik ikasi. Hortan ez dute hobenik: barka zakiokete, bihotzez frantses baitire.

* * *

Hemengo jendearen fedea

Gerla hastetik hunat ibili ditudan harat-hunatetan, ez dut nihun ere erlijione mikorik kausitu. Nigar-egingarri da. Elizako athea belharrean ithoa denetan. Hemen bertzerik dut ikusten. Zer jendearen fedea! Igan-detan elizak bethetzen dire emaztez eta gizonez, eta bada emazte bezenbat gizon. Asteko edozoin egunez, meza saindurat biltzen da hainitz jende: gizon zahar, adineko eta gazte, kasik emazte eta haur bezenbat. Bospasei ostatuetan, erdiz erdi landatua paretan, han ikusi dut gurutzefika handi bat. Ez othe da eder hori? Egia erran, chokho bateko berri dakit bakharrik eta ez dezaket denetan hola dela erran. Gorachago baita J.S.P., mendiari buruz, eia zer dion?

* * *

Botu bitchi bat

Hemengo hirichka batean kausitu dut aphez zahar bat eta bi solas egin harekin. Huna zer botu egin zuen hiruetan hogoita hamarreko gerlatik lekora: pipatzaile handia baitzen, ez zuela gehiago astean bietan baizik pipatuko, Frantzia berritz haren herriaz jabetu arte. Hitza atchiki du... eta behar deno atchikiko.

Bi pipa ditu aphez gaizoak erretzen: bat ortziralean bazkaldu-eta, eta, bertzea, igandetan. Hiruetan hogoita hamarrean Belforteko hiri aiphatua zaindu zuen gerlari handiak emana dio orhoitzapentzat bere pipa eta hura du mukurru erretzen aphez gaizoak. Lehenbailehen ikus dezala bere herria, oso-osoa. Frantziari itzultzen, bere pipa maitea egun guziez, behin, bietan, hamarretan plazer badu, goza dezan!

1917-09-07

Hau da aroa!

Ez dugu naski aurthen udarik ikusi behar. Egun batez eder egiten badu, biez euria dugu. Eta nola! Uharka, neguan bezala. Agian neguan euria ikusteko orde, iguzkia dugu ikusiko egun guziez, argi eta bero, udako partez. Barnetan itho nahi eta ezin athera euriaren gatik, ez da josteta hain gocho litakelarik hemengo sorhopiletan zabal-zabala etzatea.

* * *

Bi hitz gerlaz

Verduneko eskualdean egin gogo ginuen oldarraren gordetzeko edo nik ez dakit zertako, karraska gaitzean ari izan dire hemen ere kanoiak. Alsaceko eskualde huntan ez dugu bertzerik ikusi aspaldiko egunetan.

Verdun hortan dute frantsesek joko ederra egin. Bi egunez alemanak galdu dituzte lur zerrenda baliosenak, bereziki Mort-Homme eta Côte 304 deitzen direnak. Zer ohorea lan eder hori egin duten errechimenduentzat! Han ziren Hamabigarren errechimendua, Tarbekoa, eta Seigarrena, Saintekoa, eta guziek badakite hainitz eta hainitz eskualdun bade-la bi errechimendu horietan. Ohore, beraz, orai ere eskualduneri! Dela Belgikan, dela Guise delakoan, dela Craonnen, dela Verdunen, bardin gerlari on agertu dire gerla hunen lehen-lehen egunetik.

* * *

Beljikatik

Berri hoberenak heldu zaizkigu eskualde hortarik ere. Anglesek hor hasia dute oldar borthitz bat etsaiaren han-harat fueratzeko. Ez da egun batez egiteko lana hori, bainan anglesek kaskoan dutena ez dute zangoetan, eta ez da dudarik, luze bada luze, diren bezalako aleman tzarrak herri gaicho hortarik haikatuko dituztela. Behinik behin, oraikoan zafraldi bat ederra eman diote, gizonketa gaitza hil eta kolpatu eta zenbeit mila preso hartu.

Zenbeiti ez zaiote menturaz aski. Zerbeit gaizki doa ba, nigarrasketan dagozi. Ongi doa afera, zerbeit errateko badute. Ni ez naiz holakoetarik: neretzat hobe da holako muthurrekoa ematea ezinez hartzea. Ala ez othe, eskualdunak?

* * *

Croanneko eskualdean

Eskualde hortarik urrun izanik ere gure begiak itzuliak dauzkagu eskualde hortarat. Croanneko punta guk uste ginuen baino baliosago ditake gerlako, ezen alemanek ez dezakete denboraren buruan ere irets hortik kanpo izatea. Egun gehienez indar zerbeit egiten dute Craonnez berritz jabetu nahiz. Orai arte bederen debaldetan. Dela aire pozoindatu, dela olio egosi, dela su, gehien urdekeriak asmatu dituzte han dauden gure lagun gaichoen lotsatzeko. Frantsesa deusek ez du lotsatzen eta Craonne bethi gurea da.

* * *

Eta airezkariak?

Egunkariak airezkariak ez dituztelakotz hainbertze aiphatzen egun hautan, ez zazuela uste izan lo dagozila. Sekulan baino lan gehiago egiten dute sasoin huntan. Argiko airetan dire eta ilhunean itzulika-itzulika dabilta oraino.

Angles airezkarietan badire zenbeit arras artechak: beljicanoetan ere ba. Bainan nausien nausi bethi Guynemer frantsesa dago. Zenbat etsai garhaituak dituela duzue uste? Berrogoita hamarrez goiti. Zer choria, ez zauzue!

Egin dezan euria, egin dezan eder:
etsaiak datozila hamar, hogoi, leher:
beti oror nagusi nor dugu? Guynemer...

* * *

Aspaldiko ezagunak

Aspaldiko ezagun batzu kausitu ditugu eskualde huntan: arratoinak. Ifernuko debruekin othe duten horiek ere ahaidetasun zerbeit, hola

zokho guzietan kausitzeko? J.S.P. nere adichkideak aski partida baititu, ez dakit zer bilakatu behar duen: mendia bezalakoak dire hemengo arratoinak. Eta zer kopeta duten! Sudurretik ausikika hasiko zaizkitzu gauaz, burua estalkietan gordetzen ez baduzu! Ez duzu zeren jateko pichka bat agerian utz: mikorik ez da geldituko: burua itzuli artean, kili-miliklik milikatua dautzute. Gure zaku gehienetako larruak berak iretsiak dituzte, diren bezalakoek! Eta badakizue zeri diren jazartzen azkenekotz nere atherbean? Burdinazko untzieri, barnean zilhatsu eta zerbeit kausituko dutelakoan. Karra, karra, karra nola diren⁽¹⁰⁹⁾ ari!

Nola urrikari dutan gizagaizo J.S.P.

* * *

Azken bitza

Azken hitz hau milesker handi baten errateko bi eskualdun oneri. Lehenik, Etcheber jaun aphezari. “Jauna, gain-gainetik zure soldado eta aphez eginbidea bethe baituzu, sari guzietan handiena eman dautzute gure aintzindariak: Légion d’honneur delako gurutzea. Eskual Herriari eta eskualduneri ohore egiten duzu. Milesker. Bi lerro nahi nauzkitzun igorri soldado eskualdunen izanean milesker horren errateko. Horra nun duzun hainbertze maite duzun *Eskualdunaren* medioz. Bihotzaren erdi-erditik igortzen dautzugu: jauna, har zazu”.

Eta gero, Larrekoa jaunari “Zer atsegina izan dugun aboztuaren 17ko *Eskualduna* irakurtzean, ikustea zenbat eskualdun gudulariez orhoitzen zaren eta nola Jainkoari guretzat, othoitz egiten duzun! Kanoietan eta bertze gerlako tresna mota guzietan baino hobeki, othoitzean da gerlako gakhoa. Gudulariek urtheak eta urtheak behar dituzte gerlaren trenkatzeko: Jainkoak oren bat eta gutiago aski du. Milesker, jauna, guretzat egiten ditutzun othoitzez. Ez ditugu ahantziko sekula Jainkoak emaiten badauku gure Eskual Herri eder eta maiterat itzultzeko grazia.”

Aboztuaren 25an egina

⁽¹⁰⁹⁾ E. *diru*.

1917-10-12

Oraiko gure berri

Gauza hoberenek ez dute denbora bat baizik: akabatu zaiku, beraz, gure pausa ere. Bainan, egia den bezala errateko, ez da gero uste ginuena gertatu. Uste ginuen pausatik lekora oldar zenbeit egin beharko ginuela Craonnen bezala, eta lehengo erreketarik gibelachago ari gare lanean. Hoinbertze salatari baita bazterretan, ez dut egun erranen chuchen nun ari garen ez eta zer lan dabilkagun.

Hauche erraten ahal dut, haatik, nihor galtzeko beldurrik gabe, ez dabilkagula lehertzeko lanik eta ere den mendreneko irriskurik ez dugula hemen. Ez gintazken, beraz, hobeki eror. Ez zaitzue, itsu-itsurat, hola hobe dela gureztat ezinez etsaiari jazartzea? Eiki ba, nahiz oldar batek ere⁽¹¹⁰⁾ ez gaituen behar den baino gehiago lotsatzen... Zenbat iraunen othe du bizimodu eder hunek? Ez dakit segurki, aintzindarien sekretua baita hori, bainan ilhabete bat edo gehichago itchuren arabera. Eta gero zer gertatuko da? Gero ikusiko eta... nik erranen...

* * *

Atzoko gure berri

Zoin gochoki iragan ditugun, bertzenaz, gure pausako zortzi-hamar egunak! Zotzik hunkitu gabe, herrichka pollit batean, batzu arraintzan, bertzeak eskuin eta ezker beren gostuko jostetatan... Eskualdunak pres-tuki arbola baten ondoan jarriak musean ari ginen maizenik, arteka chahakoa churgatuz. Zer enbidoak! Zer ordagoak! Eta gezurra libro ari ginen!

Ilhunte batez nere lagunak beren chokhoan utzirik itzuli bat egin dut aldean ginuen errechimendurat: Baionako Berrehun eta Berrogoita Bederatzigarrena zen. Nere errechimenduan badakigu jostatzen: bai eta futcho eskualdun errechimendu hortan ere! Azkaindar bat eta itsasuar bat pilotan ikusi ditut, bidearen erdian, sagar batekin. Urruntchago lau

⁽¹¹⁰⁾ E. ene.

azkaindar elheketa zauden ortzaiztar batekin. Behin batzueri eta bertze-eri agur erran-eta, ostatuari buruz abiatu denak tropan. Harat gabe, errechimenduko musika ikusi eta hurbildu. Choratua han atchiki naute eskualdun musikariek! Nola charamelatu dituzten *Bethi eskualdun*, *Reverte*, *Kinkirri Kunkurru* eta akabatzeko *Arin-Arin*.

Egia erran, ez da harritzeko Jakes garaztarra bezalako musikariek, Donibane-Lohitzuneko Charles Larre biphila dutelarik gidatzeko! Biba berak Berrehun eta Berrogoita Bederatzigarren errechimenduko musikariak.

Ah, eta ez nuke ederrena ahantzi behar: musikari horiek eman daukute-ere fandango bat eskualdun batek moldatua: *Sencilla* delako fandagoa, Vicendoritz donibandarrak moldatua. Jaun hori gerla aintzinean hoinbertze ongi egina delarik Eskual Herriko gazteriari, horra, beraz, nun daukagun orai ere eskualdun gazteriarekin haren jostatzeko. Gu gabe ez dauke, ezagun du. Bainan ere zer saria duen: gu hura gabe ezin egon, gerlan berean! Milesker, Vicendoritz jauna, guzien izenean. Zure bizia orai arte higatu duzu Herriaren eta eskualdunen alde: Jainkoak luzez atchik zaitzala gutartean eta eman dezagula zu bezalako gizon hainitz!

* * *

Anglesen berri

Orai ere berenatarik egin dute anglesek: etsaiari lur-zerrenda bat khendu Beljikako eskualdean eta hirur mila presunerez goiti hartu. Ez dauzke geldirik. Egunkari aiphatu baten arabera, anglesen oldar hortan alemanek galdu dituzte hogoita hamabi mila gizon gutien-gutienetik. Hobe segurki eta sinhesten ahal duzue, beren burfuria guzien gatik, alemanak ederki lotsatuak dauzkala anglesen manerak. Haste hartan gure lagun gaizo hauk ez bazakiten gerla egiten, ikasi dute geroztik eta ez dakit orai ez diren nornahiri eskola emateko aski jakintsun.

Behinik behin, anglesak, alemana lepho-zokhotik hartua dauka: noiznahi urka dezake, menturaz gutienik ustean. Idek detzagun begiak eta altcha bihotzak: biba anglesa.

* * *

Rusianoen berri

Hala-hala zer berri hitsak Rusiako aldetik: nahasmendu gaitzak dire herri hortan: denek nausi izan nahi eta ezin izan: soldadoek, hori ikusirik, eginbideari ukho egiten! Eta denbora hortan alemanek hartu dituzte lehenik Riga itsas-hegiko hiri baliosa eta gero Jacobstad delako bertze hiri bat. Agian hortan baratuko dire, rusianoak iratzartzen badire.

Hemengo gerlariak hau eman dezagun, haatik, buruari: hango makurrek ez daukutela deus handirik egiten ahal hemen. Frantzian Alemaniarrenak⁽¹¹¹⁾ egin du: nahi duen alderdirat joka dadien, hemengo lerroak ez ditu hautsiko orai dugun tresneriarekin.

Gerla ba, hortakotz, luzatuko da, aurthen akaba ginezakena. Eginak egin, ez dugu zeren bururik hauts: amerikanoak ere heldu zaizkigu eta hekiekin aurthen egin ez duguna heldu den primaderan eginen dugu. Nun eta hemendik harat anglesek ez dioten alemaneri amor emanarazten. Gertha ditakena da. Zertaratu behar zuten azkenean gaizo rusianoek!

* * *

Verduneko alde hortan

Frantsesen kanoiak ichilsko daude eskualde gehientsuetan! Craonnen noizetik noizerat ari dire, bainan Verduneko alde hortan marruma gaitzetan daude egun eta gau. Zertako? Zeren egun horietako zaflaldia ezin iretsiz, noiznahi jazartzen baitzaizkigu alemanak. Debaldetan, haatik; gure kanoiek phorroskatzen dituzte higitzen direneko. Gorachago nion bezala, nahi badute eta ez badute, gu baino gutiago dire orai gure etsaiak. Ez badugu guk ere bethi nahi duguna egiten, hek aspaldiko egunetan ez dute deus egiten gure kontra, eta gero eta gutiago dute eginen.

* * *

⁽¹¹¹⁾ Frantzian alemanarenak egin du edo Frantzian Alemaniarenak egin du aukeren artean zein ote da zuzena? Eskualduna aldizkarian Frantzian Alemanarenak egin du irakurtzen da.

Paristar bati gertatua

Gerla huntan eskualde gehienetako gizonak ezagutu ditugu, betroin, norteko, paristar. Paristar hauk ez dire batere gizon gaichtoak, baina espantulari gaitzak, denak jakin, abilak. Baina eskualdunak baino ardurago zakuan sartuak, horrengatik! Huna bertze hainitz frogen artean hartua, bat. Paristar bat badut adichkide min bertze guziak bezen espantulari handi delarik. Atzo jateko tcharskoa baiginuen erraten daut:

—To, etchez etche banoak: ase behar diat han edo hemen. Heldu haiz? —Nik ezetz, ez bainuen deus onik nihun senti.

—Ago, beraz, zozoa— eta nere paristarra badoa. Etche batean ematen diote jaterat: ogi pichka bat eta zenbeit hala-hulako hezur churgatzeko. Jan-eta, kontua galdetzen du.

—Laur sos ogiarentzat, eta biga haragiarentzat.

—Bi sos haragiarentzat bakharrik?

—Ba, jauna, usaintzerat baitzoan, chakurrarentzat ginaukan: ez zaitela ofentsa!

Bai eta ofentsatu baita paristarra! Furia gorrian berak kondatu daut ichtorioa eta, ikusten duzuen bezala, nik ez erotzerat utzi. Ez da gerlan ere bethi nigar egin behar. Gaizo paristar palabreroa!

1917-10-19

Belforteko inguruetarik

Errana da nihun ere ez dugula hemendik goiti hanbat lakhetuko. Nunbeit erroak egiten hasi orduko, aldaratu behar dugu. Belforteko inguru hautan ez ginen gaizki: lakhet-leku zen. Jende maitagarria, soldadoari atsegin egiterat ekharria. Aise ihardokitzeko lana. Eta guziz, den gutieneko irriskurik ez: kanoiak ahoak hetsirik dagozi: airetakoak goregi badabiltza, dabiltzanean, min egiteko. Bai lakhetuko ginuen eskualde huntan.

Eta horra nun atzo aintzindariak erran daukuten bizpahirur egunen buruko mugitu behar dugula hemendik ere. Nihork ez daki oraino zer bide hartuko dugun eta zoin eskualderi buruz. Frantzia zabala da. Dakiguna da ez dugula etcheko bidea hartuko. Deus ez litake denbora heldu delarik bide hori hartzen balute hemen diren eskualdun guziek. Bainan hirur urthe eta gehiago gerla ikusi ditugulakotz, badakigu ez ditakena galdetzea dela horren galdetzea eta horra zertakotz hemengo eskualdun guziek, zenbat dorphe baita, bihotzaren erditik erraten dugun: egin bedi Jainkoaren nahi saindua. Berritz ere heldu da negua euriarekin, hotzarekin: berritz ere ikusiko ditugu gudu lazgarriak, odol ichurtze haundiekin. Berritz ere bihotza zaurtuko daukute Frantzia barne hortako ahuleziek eta batzuetan itsuskeriek: bainan, guzien gatik, guk gure eginbidea betheko dugu. Alemana, munduaren onarentzat, lehertu behar da eta... lehertuko dugu, goiz edo berant egintchea da, bertzalde.

* * *

Bi bitz airezkariez

Egunkari huntan hainitz eta hainitzetan aiphatu izan dut omen handiko airezkari bat: Guynemer. Berria ethorri zauku gizagaizoa galdu dela, Beljikako eskualdean. Nihork segur ez dezake erran zer bilakatu den: horrengatik hila dela beldurtzeko da. Munduko airezkari artechena zen: kopeta gaitzekoa, hiltzeaz kasik futitua. Berrogoita hamahirur airetako etsai bazituen berberak tiroka phorroskatuak. Haren orena ere ethorri ordean: Guynemer galdua da Frantziarentzat. Lastima handia baino handiagoa!

Pariseko inguruetan sortua zen duela hogoita bi urthe: gerla hastean eskola handi batean zabilan. Urthean ilhabete pare bat iragaiten zituen Miarritzen, mainhoetan, eta beraren ahotik entzun izan dut zoin atchikia zen gure Eskual Herriari. Ongi ezagutzen zituen Ustaritze, Kanbo, Donibane Garazi, eta guziz Donibane Lohitzune, Azkaine eta Larrungo mendia. Sortzez ez bada, bihotzez herritarra ginuen Guynemar. Beraz, othoitz egin dezagun kartsuki harentzat eskualdunek.

Bainan zenbat nigar-egingarri baita galtze hori gure erresumarentzat, horrengatik alemana ez doa airetan ere nausitzerat. Guynemer nausien nausia zen, bainan gurekin uzten ditu bera iduriko onak: horietan Nun-gesser, Heurteaux eta Pinsard direlakoak dire aiphatuenak. Hogoita hamar etsai baditu phorroskatuak Nungesser delakoak, hogoita lau Heurteaux delakoak eta hamasei hirurgarrenak. Galdua galdu, altcha, beraz, bihotzak: esku onetan dugu oraino airetako gerla.

* * *

Nola doan gerla

Nola doan gerla errateko aski da etsaier behatzea eta zer urhats dabilkaten ikustea. Nihundik ere bakea nahi dute: hortaratzeko athe gehienetan jotzen dute. Bakea nahi dute, bakearen beharretan direlaketz: ezin iraun dezakete. Bi gizon borroka eta kolpeka ari direlarik, azpian denak du amor galdetzen. Zertako ez diogu, beraz, bakea ematen? Zeren den bezalakoak, garhaitua izanagatik, beretzat abantailosa lukeen bake bat nahi baitu. Hori ez da zuzen. Alemanak bezenbat nahi dugu, gure lagunek eta guk, gerla akaba dadien; bainan tcharrena denaz geroz, utz gaitzala nahi dugun bakearen egiterat.

Behin, oiheanean zoazin bi gizonak sagarrondo baten puntan sagar bat ikusi zuten. Bat, gizon ona⁽¹¹²⁾ zen, bertzea, chirtchila, harek⁽¹¹³⁾, erran zion huni erditik egiten zutela sagarra. Hunek, ezetz, beretzat nahi zuela sagarra, eta oso-oso. Kolpeka hasi ziren eta gizon chirtchilak, ezinbertzean, amor galdetu gizon onari. Zer gertatu zen? Pentsatzeko den bezala, sagarra gizon onaren triparat jautsi, oso-oso. Hori da legea. Gerlan ez da bertze legerik, ifernuko debruak izanik ere gurlari: tcharrenak amor eman behar eta azkarrenaren nahia egin behar: zafraldi bat aski ez badu tcharrenak, biga ematen diozka azkarrenak. Hinka hortan gare gerla huntan orai.

⁽¹¹²⁾ E. *onna*.

⁽¹¹³⁾ E. *berak*.

* * *

Azken hitza

Aphezak azken hitz bere da errana. Horrengatik nihork ez dezala uste izan neretzat mintzo naizela. Nere hemengo herritar gaizoentzat dut, *Eskualdunaren* medioz, galde bat egun egiten, Eskual Herrian denek ikus dezaten. Bizia laburra da eta bizkitartean orenak luze zauzku hemen. Nolazpeit herriko mina ahantzi behar. Pipa makur bat ahoan ditugu gure bihozminak ahanzten, erre eta erre. Bainan pipa ez da aski: barnekoa behar. Eta hemen nihundik ere sos batenik ezin eskura⁽¹¹⁴⁾.

Beraz, eskualdun maiteak, nahi duzue plazer egin zuen gerlarieri? Igor noizetik noizerat pipatzeko belhar pichka bat. Ez hainitz, haatik, aldian: orhoitzen zarezelako hura bakharrik. Aski izanen zaiote nere lagun gaizoeri. Eta akabatzeko, beharri chilorat hauche erran dautzuet: zuen bonbona eta fruitu guziak baino nahiagoko dute hori. Barkatu. Agur. Eta bertzaldi arte.

1917-11-02*Aroa*

Neguari buruz ez doa sekulan edertuz aroa⁽¹¹⁵⁾. Ez da, halere, gutiago egia sasoineko euri hainisko dela aurthen: hamar egunetarik sei-zazpiez pesia gorriak; haize mehe hotz batekin. Harri pichka zenbeit ere izan dugu, bainan ez du eskualde hau euriak baino gehiago makurtzen harriak, dena oihan baita. Hotz ari du: gauaz, goizalderat, ez da josteta gerlari-entzat. Eta gauaz, hoinbertze egur menean dugularik, etsaiak ikus beldurrez, surik ezin egin! Gogor egiten dugu eta eginen negu guzia, bertzea etchean iraganen dugulako esperantzan. Jainkoa urrikalduko ahal zaiku noizbeit!

(114) E. *eskuiira*.

(115) E. *roa*.

* * *

Gerla eskualde huntan

Duela bi urthe gudu gaitzak izan ziren eskualde huntan: gizon hainitz hil ginion eta hogoita hamar bat mila presoner hartu etsaiari. Lurzerrenda eder batez jabetu ginen. Bainan gizon hainitz galdu baiginuen guk ere, hortan gelditu ginen. Ikusiak ikusirik, ongi egin genuen. Geroztik ere, egun alemanek bihar frantsesek, zinkako frango egin da, bainan ez da espantu egiteko gudurik izan. Orai erdi trankil dagozi batzu eta bertzeak, berena gogoan, nihun ez baita hau bezalako tokirik gerlako. Kanoiek harramantza gaitza dabilkate, bereziki ilhuntzetan: bada airezkari zeruetan barna: chichpak eta baionetak lo dagozi. Gutienik ustean, sua berritz pitz ditake. Erne egon behar...

* * *

Bertze eskualdetan

Ez dire denetan hemen bezala lo egoki chichpak eta baionetak. Beljikan bortz-sei egunetarik alemanari oldartzen zaizkote anglesak eta uztar handiak ematen. Eta handik heldu⁽¹¹⁶⁾ zaizkigun omenen arabera, ez da gelditzekotan hango gudua. Emeki-emeki Beljika guzia khendu nahi diote etsaiari gure lagun gaizoek. Jainkoak lagunt detzala lan dorphe horren bururatzen!

Craonneko eskualdean ere sekulan baino kechuago dire aste huntan bazterrak. Bospasei egunez orro gaitzak ibili dituzte kanoi hein guzietakoek. Airezkariek ikusi dute lur guzia iraulia zela. Asteazken goizean oldartu gitzaizko etsaiari, sekulan baino borthizkiago. Guretu ditugu goiz batez hirur kilometra eta erdi lur: zortzi mila presoner hartu.

Nahi dut ez dela hortan akhabo gerla. Etsaia ez da oraino gure erresumako mugetan. Bainan ez da gutiago egia urhats baliosa egin dugula hor eta geroko guduentzat esku gaitza dugula orai eskualde hortan. Laon deitzen den hiritik hamar bat kilometretan gare orai. Sekulan hiri

⁽¹¹⁶⁾ E. *bandi kbeldu*.

hori khentzen badiogu etsaiari, harenak egin du Frantzian. Asteazkene-ko urhatsari esker, bide onetan gare orai...

* * *

Rusiatik

Gero eta berri hitsagoak heldu zaizku Rusiatik. Gerlaz aseak direla-kotz edo ez dakit zertako, hango soldadoek ez diote behar den bezala etsaiari gogor egiten eta hau emeki-emeki aintzinat doa, Pedrograd Rusiako hiri nausia hartzeko chedearekin naski. Oraino urrun baitute hiri hori alemanek eta negua heldu behartuko zaio Rusiari. Hango gobernamentuak solas eder hainitz badu, obra guti: nere arabera hobe litazke, españolak dion bezala, *pocas palabras y muchas obras*.

Horrengatik ez dugu esperantza galdu behar. Orain arte frangotan uste izan dugu Rusiarenak egin zuela eta gero ustegabetan oldar gaitzak egin ditu. Agian hala gertatuko da oraikoan ere. Basurdea nahi bezen ongi kolpaturik ere, bethi kasu emateko du ihiztariak...

* * *

Zertan dugu Grezia

Denbora batez egunkariak aski mintzatu dire Greziako erresumaz. Hango errege zen Constantin, Alemaniako enperadorearen koinata. Zerna-hi itsuskeria egin zuelakotz, bere kargutik khendu ginuen guk fransesek anglesekin eta errege ezarri Alexandre, errege ohiaren bigarren semea. Hau gizon gisakoa da. Ikusirik deus ez zezakela egin gure alde jarritz baizik, ministro nausizat hautatu zuen Venicelos delako gure adichkide mina.

Munduko mintzatzailerik ederrena ditakelarik Venizelos, arras pala-bra guti dabilka. Lana maiteago du eta gure alde lanean ari da egun eta gau. Soldado aintzindari hainitz gure kontra baitziren, fueratu ditu eta gure aldekoak hautatu: soldadoeri eskola berriak eginarazi. Eta orain berrehun mila gizonekin guk hautatu orenaren beha dago gerlan sartze-ko. Nahi duenak nahi duena erran dezan, guziz mendiz bertzalde hortan, ezagun da nunbeitik Jainkoa alde dugula holako mirakuiluak gure alde egiteko!

* * *

Bertze berri on bat

Frantsesari baino oraino anglesari aiherrago dire alemanak. Zeppelins direlako airetakoekin, noiznahi Angleterran gaindi badoazi min baino min gehiago egiteko. Ez haur ez emazte, nihori ez diote barkatzen anglesa den ber. Bainan kukuak makur jo baitiote aste huntan Zeppelins direlakoeri! Bidean beren lan tzarra eginik heldu zirelarik, lanho lodi batek hartu ditu eta bidea galdu dute: ustegabetan Frantziako lurretarat lerratu dire. Hamar baitziren, bortz bederen ez dire behin Alemaniarat itzuliko. Hirur mila phusketan dire, bat itsaso-zolan naski eta borzgarrena preso oso-oso. Nola Zeppelin delako bakotchean baitire hogoi gizon, alemanek ehun gizon gutiago dituzte. Eta zer gizonak! Ez da gero nornahi hola airetan ibiltzeko on!

Eta zer sos keta! Ainhara tzar hoitarik bakotchak bi miliun hurbil balio ditu. Heldu baita egun batez hamar miliunen galtzea. Zerbeit bada hori ere...

* * *

Orhoitzeko ibizia

Gorachago duzuen sailan nion Zeppelins direlakoetarik bat oso-oso hartu diogutela alemaneri. Eta huna nola. Bidea galdurik zabilan eskuin eta esker, noiz eta ere mugetarat gabe, laur airetako frantses agertu baitzaizko. Tiroka hasi da gure airezkariak lotsatuko zituelakoan. Baduk hoberik. Ihesari emateko orde, oraino gehiago hurbildu zaizko airezkari debruak eta menerat ethorri direlarik tiroka hasi laur aldetarik. Lotsatu da alemana eta emeki-emeki lurrean pausatu.

Lurrean alemanen aintzindariak nahiko zuen bere airetako errearazi eta lan horri buruz hasi da, guk ez ginezan Zeppelins direlakoetako sekretua har. Boiteux derizan gizon bat han hurbil ihizin zabilan. Etsaiaren jestuari ohartu da, bere chichpa altchatu eta alemanari erran dio “Chuhur baduk, ago geldirik eta tiro bat ematen daiat hertzetan barna!” Bai eta gelditu ere alemana!

Horra nola dugun Zeppelin bat eskuratu. Boiteux gaizoari gerlako gurutzea hitzeman dio de Castelnau jeneralak. Ez du ebatsia. Behinik behin, orhoitzeko ihizia du eta Frantziarentzat nola beretzat pekada bat hilik baino katura hobea egin du. Ohore, beraz, Boiteux gaizoari!

* * *

Airezkari handi bat

Airezkarien nausien nausia hil badaukute ere alemanek, gelditzen zaiku frango airezkari deusek lotsatzen ez dituenak. Huna bat aiphamen berezi bat zor zaiona: Boyau akiztarra. Bizpahirur ilhabete du airetan abiatu zela eta jada baditu hamar etsai phorroskatuak: hamarretarik bortz, aste batez. Ez othe da ederki hori?

Boyau delakoak hainitz adichkide baditu Eskual Herrian. Bat guziz min-mina Hendaian: Humbert, gerlan kolpatua eta orai hango garan lanean ari dena. Munduan ez baita Humbert hori baino gizon chehegorik, nun-nahi denak galde dezoke zer dion Boyau airezkariaz. Hitzemaiten diot ez zaiola urrikituko. Ala ez othe, Fil de Fer?

Ongi ethorri

J.S.P. *Eskualdunaren* berriketaria minhartua zela baginakien. Berak erran dauku sendatuche dela. Hobe. Berritz *Eskualdunerat* itzuli zaiku. Ongi ethorri dela! Eskualdun guziera mila goraintzi eta ondoko egunak arte.

1917-11-23

Aroa

Nahiz ez dugun ederrenetarik oraino aroa, ez du bizpahirur egun hautan erraiteko handirik. Noizetik noizerat bere sudur-punta agertzen du hedoi en artetik iguzkiak. Dena ere on. Kontratuz negu guziko har ginezake hoinbertze. Euria da gerlari en etsairik handiena. Atheri den ber oriatzeko⁽¹¹⁷⁾ dugu eta esker onak bihurtzeko, Jainkoari.

⁽¹¹⁷⁾ E. *oriatzeko*. Ez da hutsa *oriatu* delakoak “hodeitu” esan nahi du.

* * *

Laon delakoari buruz

Bitoria bat erematen dugunean, ez da den baino handiago egin behar. Hala da. Bainan hori hala bada, ez da ere den baino gutiago erran behar. Eta nik hala erran dautzuet gan den astean Laon delakoari buruz egin dugun guduko azken berriak ez bainituen eskuetan. Zer da, beraz, egia? Huna: etsaiari khendu ditugula ehun eta laueta hogoi kanoi, mitrailusak ehunka, crapouillots direlakoan botatzeko tresna hainitz eta hainitz, eta hameka mila presonerez goiti. Bertzalde, guretu ditugu bospasei hiri eta hirichka, gerlako gain-gainetik etsaiek antolatuak. Egia erran, zerbeit bada bitori hori.

* * *

Hemen gaindi

Hemen gaindi ez da kondatzeko handirik. Bizpahirur egunez kanoiek izan⁽¹¹⁸⁾ dute aski orro, bainan oraino ichilducheak ditugu. Hala-hala, crapouillots direlakoak berritz agertu zaizkigu. Nahiz aspal-diko ezagunak ditugun, ez ditugu plazerekin ikusi. Debrukeria hoitarik batek lan onik egiten ere du: gure adichkide J.S.P. oraino mundu huntan bada, ez da haren falta. Lurrez osoki estali dauku gizagaizoa eta arras gutik egin du ez baita han itho. *Eskualdunarentzat* baitzituen lerro batzu hasiak, han galdu ditu. Behingoa deus ez da. Jainkoari eskerrak ez baitzaizkigu sekulakotz faltatuko.

Ez dagozi artillurak bezala lo airezkariak. Egun hautan bezala, airtan noiz ibili othe dire? Umiasaindu egunean hogoika zabiltzan. Nere begien aintzinean bi airtako etsai phorroskatu dituzte gure airezkariek eta gure bat etsaiek. Gurean amerikano bat zen gidari. Airtakoak su hartu diolarik mila metra goretan, salto egin du: lurrean ez zuen giza-gaizoa ezagun gizona zen ala zer. Heriotze lazgarria hori ere, gerlan ditaken lazgarrietarik...

⁽¹¹⁸⁾ E. ezan.

* * *

Beljikatik

Berri onak ditugu bethi Beljikatik. Anglesek ez diote eskualde hoitan epherik uzten etsaiari. Lotsagarriki kanoiekin lurra irauliz, bortz-sei egunetarik urhats berri bat egiten dute, berek halako galtze handirik gabe. Aldian lur gutisko hartzen badute, hartua ederki atchikitzen dute. Hori da ongi gerla egitea.

Badakit: hainitzek nahi lukete hats batez anglesek etsaiari Belgika khentzea. Ez ditakena⁽¹¹⁹⁾ da. Bainan jada miletan bederen erran dutan bezala, anglesek ez dute hasi lana bururatu gabe utziko eta ez diotegu bertzerik galdetzen ahal.

* * *

Berri hitsago bat

Italianoak gibelat ari dire. Orai arte bitoria bitoriaren gainean eremantik, etsaiari hartu lurren gerlako antolatzen ari zen, noiz eta ere oldar gaitzean autrichianoak eta alemanak jazarri baitzaizkote. Hutsartea nunbeit atchemanik, Italiako lurretan sartu dire, italianoak beren aintzinean fueratuz. Beharrik, nahigabe horren gatik, nihork ez du ez han ez eta hemen bururik galdu.

Anglesek eta frantsesek igorri dute berehala Italiarat behar den laguntza. Gudu gaitzak izanen dire Italian ondoko egunetan. Agian etsaiak phorroskatuko ditugu! Behinik behin, harat gan baita franko eskualdun, hemen bezala Eskual Herrian eginen dute athoitz han diren herritarrentzat.

* * *

Eta Rusian?

Rusiatik ez da azken egun hautan deus handirik ageri. Bethi hein bertsua, ez da makurragorik, ez eta chuchenagorik ere. Sekulan deus

⁽¹¹⁹⁾ E. *detakena*.

egin gogo badute onik rusianoek, orai dute mementoa. Etsaiek soldado hainitz khendu diote aintzinetik Italiarat igortzeko. Bai, mementoa litake. Ondikotz, beldurtzeko da rusianoak ez direla mugituko? Ogi baino gasna gehiago nahi dute hango soldadoek eta hor ez baita guduetan kausitzen orai arte bezala ukho eginen dute. Jainkoak argi baletza!

* * *

Neguari buruz

Gertatu dena Italian gertatu ez balitz, negu hau bertzeak baino gochokichago iraganen ginuen⁽¹²⁰⁾, noizetik noizerat pausarat ganez. Nere lagun bachenabartar batek erran dautan bezala, “orai debruak joan du pulloa”! Gure ordainak Italian ditugu. Ez du, halere, balio bururik haustea. Neguan pausatzeko orde, primaderan pausatuko gare. Eta nork daki ez othe den hola hobeki?

Purrustan heldu omen da Ameriketarik soldadoa. Jada badire erreketan, gerla ikasteko. Primaderako ikasiko dute eta orduan gu gabe oldar bat eginen. Dena ere on!

Horra zer dioten egunkari batzuek. Hala bada, hobe. Eta ez bada? Gu aintzinean bezen prest etsaiek kausituko...

* * *

Erranak erran, mila goraintzi herritar guzieri. Bai eta zuri ere, L.D. ... Zaren bezalako, zure berriak hitzeman-eta ez dautazu goraintzi bat ere igortzen! Nun zare eta zer ari? Allo, hitz bat.

1917-12-07

Zabarrak berri

Oraikoan ere zabarrak berri gure eskualdean. Aski burfurria badabilkate kanoiek. Aroa altchatzen deneko itzulika-itzulika hor dabilta aire-

⁽¹²⁰⁾ E. *gingen*.

takoak. Bainan gu, bethi gure erreketan, mugitu gabe. Hameka gogoeta egiten dugu. Hoinbertze egun deusik egin gabe hemen iragaitea, Eskual Herrian gure beharra dutelarik, latz iduritzen zaiku. Euriak euriari, hotz minenekin, tente kanpoan egotea, chichpa eskuan, supazter chokoan, amacho ichtorio kondari, hain gocho litakelarik, dorphe zaiku.

Eta guzien gatik gure etsia hartzen dugu. Deus onik ez ginuke igurikitzen ahal, gerla orai akabatzen baginu. Partida tzarra dugu: arras bentzutzen ez badugu hemen gareno, gero ere laster jazar litzakegu. Ez da aski gizon hiltzale bat buruz buru egitean, beharriondoko bakar batekin aurdikirik bide bazterrean uztea: berritz, phiztu orduko, bere lan tzarreri lehen bezala lothuko da. Menean deno, hertzeak behar zaizko idiki. Den gizon hiltzalerik tzarrena baino tzarrago dugu alemana. Urkatu arte, ez dezogun barka. . .

* * *

Beljikatik

Beljikatik ez zaiku, aintzineko egunetan bezala, berri onik baizik heldu. Kasko-fuinetan barna buruan sartua dute anglesek Beljika hori alemaneri khendu behar diotela eta karraskan baderamate hasi lana. Orai ere urhats handi bat egin dute *Paschendaale* deitzen den herria mendichka batean hartuz. Berenez deus handirik ez da hiri hori, bainan hortik urrun ikusten ahal dute anglesek zer urhats dabilkaten alemanek eta beren kanoiekin toki⁽¹²¹⁾ hortarik sarraski gaitzak eginen diozkate etsaiari. Biba, beraz, anglesak. Laguntza ederrik egiten daukute gaizzoek aspaldiko egunetan. . .

* * *

Craonnetik hurbil

Craonnetik hurbil, beren errekek hustu dituzte alemanek. . . eta guk hartu. Hortaz, Alemaniako egunkariak mila gezur baderabilate: ba eta nahitarat hustu dituztela erreka horiek: orai ehunetan hobeki direla. Eta

⁽¹²¹⁾ E. *bori*. Uste izatekoa da *bori* beharrean "toki" izan behar duela.

nik dakit zer! Ez du balio hemen ezetz erratea: nihork ez ditu gezur horiek sinhetsi. Gerla aintzinean pilotan artzea laket nuen, josteta ederra baita. Ez ditut egin partidak bethi irabazi. Galtzen nuenean, aldi guziz zerbeit estakuru banuen: edo itzea sortu edo chacharia kontra izan, edo bertze zerbeit. Behinere ez nuen aithortu nahi nere partida ni baino gehiago zela. Eta bizkitartean...!

Alemenek ere ez othe dute berak baino partida hobe atcheman? Nere arabera, bai.

* * *

Verdunen gaindi

Verdun horrek min diote gure etsaieri. Bizpahirur egunetarik oldartzen zaizkigu eskualde hortan lotsatuko gaituztelakoan. Behauzu minhar, Pette. Zafraldi onik ematen diotegu... eta emanen, behin bethikotz etsiarazi arte. Verdun gurea da eta gurea egonen. Aski pagatu ahal dugu gauden urthean, orai ez etsaiari uzteko!

Alemanek eskualde hortan badituzte gutien-gutienetik bortzehun mila soldado utziak. Eta egia erran, hek direnekin handia litzaiket bertze bortzehun mila gizon galdu gabe etsitzen balute. Astoari zerbeit buruan sarrarazteko eman behar zaio panpako. Ala ez, Nani?

* * *

Italian

Harrigarrizko guduak ari dire egun hautan Italian. Hastean gaina izan dute gure etsaiek eta italianoak gibelat ari izan dire. Orai ur erreka handi baten gerizan hobekichago buru egiten dute etsaien oldarrerri. Anglesek eta guk harat igorri ditugun soldado andanekin, ondoko egunetan gudu handiagoak oraino hasiko dire. Zenbeit gorabehera izanen da gudu horietan, bainan nik uste dut guzien buruan zafraldi bat orhoitzekoa emanen diogula etsaiari...

Harat igorri dugun general nausia munduko aiphatuenetarik da. Foch du izena. Jainkotiarrenetarik ere da. Ez dugu, beraz, zeren etsi. Esku onetan da auzia. Gauden beha.

* * *

Daranatz jaun kalonjeari

Gan den asteko *Eskualdunean* jaun kalonje jakintsun horrek agerrarazi du liburu zahar batean kausitu duen eskuarazko sail bat. Hemengo bizpahirur eskualdunek irakurtu dugu sail hori. Lehen behakoan ez dugu hortan ez bururik ez buztanik atcheman. Greka zela ginauden noiz eta ere ohartu baigare zer sari maitea jaun kalonjeak igorriko duen abendoaren leheneko zer derasan sail horrek hobekienik erraten duenari. Berritz ere bilha gabiltza.

Jaun kalonjea, beharri chilorat erran behar dautzut lan hori bururaztea uste dugula. Bainan, cho! Baldin guk irabazten bagintu palomak othoi Arrauntzakoetarik igorriko dauzkigutzu. Behin arima on batek emanik bat jan nuen eta egungo egunean oraino barne guzia kilikan ari zait. Hain ona zen! Othoi hau ez ahantz denbora heldu delarik.

* * *

J.S.P., azken bitza zuretzat

Bai. Campaña zorritsuan naiz zu bezala ni ere, bainan ez zorritz ithoa. Ura hurbil dut eta egin dezaket garbitasuna. Ez duzu hala, zuk? Kontu hortan,

Gure gathuak buztana luze,
berak⁽¹²²⁾ bezala bertzeak uste.

Mille souvenirs et sans rancune, cher ami.

1918-01-04*Aroa*

Aroak ez du erratekorik: sasoinetako dugu, hotz eta motz. Bazter guzia elhurrez estalia. Zerua hits eta aphalt. Neguak bere itzulia egin behar du. Utz dezagun eta gauden ichilik.

⁽¹²²⁾ E. bera.

* * *

Hemengo gerla

Hemen ez dabilkagu zalaparta handirik: zimikoka ari gare oraino eta ariko naski zenbeit egunez. Gero? Ikusiko. Airetako hainitz badabila airetan. Kanoiek ere badaukate aski orro. Aire pozoindatu zenbeit igortzen daukute etsaiek. Bainan hortan dago guzia. Bertzerik ikus dezakezu, haatik, hanbat denbora gabe...

* * *

Biba azkaindarra

Duela zenbeit egun guardiako zen nere errechimenduko azkaindar. Saltoan gainerat kasik ethorri zaizko lau etsai. Burua galduko zuen bertze batek eta ihesari emanen zen. Ez, ordean, eskualdun batek: tiroka hasi dela⁽¹²³⁾ ohartu deneko gaizo muthikoa hirur etsai hilhotzak aurdiki ditu eta laurgarrena lotsaturik, ihesari eman da. Hirur hiletarik batek hogoita bortz bala tripan bazituen. Baten doia, hots! Biba azkaindarra! Merezi zituen bezala gerlari eder horri aintzindariak eman diozkate gerlako gurutzea eta... sei egun permisione bere hamarren gainerat. Denak ere on! Bertze holakorik ere baita Azkaingo herrian, ohore herri horri!

* * *

Urthe on

Mila bederatziehun eta hamazazpigarren urthearen ondotik hasterat doa hemezortzigarrena. Ekhar dezagula bakea. Izan dadiela bethi urthe on bat eskualdunentzat, izan ditezen gerlan ala Herrian. Bai, bihotzetik “Urthe on”, nere herritarrak! “Urthe on”, nere gerlako lagunak! “Urthe on”, *Eskualdunaren* egileak!... “Urthe on” *Eskualdun* egunkari maitea! “Urthe on”, Eskual Herria! “Urthe on”, J.S.P., J.E., Oxobi eta Larreako! Jainkoak dizuela osasuna eta zorion! Laster elgarretarat gaitzala Eskual Herrian, hango mendiez eta itsasoaz gozatzeko, hango kanta zaharrak

⁽¹²³⁾ E. dai.

lorietan entzuteko, hango pilota partida ederrak ikusteko, hango elize-
tan othoitz egiteko sekulan gehiago Herria ikusiko ez duten lagun mai-
teentzat!

Abendoan 25ean.

1918-01-18

Hemengo modua

Zaharrak berri oraikoan ere hemen. Elhurra eta bethi elhurra. Hotza hогоi ozkaz jautsi zaiku egun batez: hamar-hamabietan egon da bertze egunetan. Zerbeit baita hori ere, tente zain egon behar delarik erreka hautan edo mihiserik gabe lo egin! Berotzeko haurrek bezala dugu egi-
ten: elhurra ahurrean bil, pilota batzu egin eta besogainka elgarri bota. Batek bertzea jo duelarik muthurra hausteko heinean, hemengo irri-kar-
karak! Hortaz kanpo, hemen ez da egun hautan gudu handirik. Kanoiak kasik lo dagozi. Crapouillots direlakoetarik guti dabila airean. Airetako aski halere, bethi on baita etsaiak zer duen tripan jakitea...

* * *

Iraunen othe du horrek?

Bai, luzez irauenen othe du horrek? Gutienik ustean ez othe dire kanoiak iratzartuko? Crapouillots direlako debrukeriak ez othe dire bet-
betan trumilka airatuko, erortzean errekak eta erreketan direnak leher-
tzeko? Dakiena ichilik dago. J.S.P. nere adichkidearen arabera, ez da holakorik gertatuko. Etsaiak espantuka ari badire, diren baino azkarrago agertzeko dire ari. Baditake. Bainan nere arabera, debrukeria zerbeit badute gogoan. Alemana gathuaren parekoa da: zazpi izpiritu baditu. Egun hautan fama ibili da hemen gaindi, baizik eta diren bezalakoak *tanks* direlako tresnekin jazartzerat zoazkigula. Ikusiak ikusirik, deusek ez nau harrituko eta nere lagunak deusek ez ditu lotsatuko. Nere adich-
kideak dion bezala: berantegi, berantegi, oilaskoa oilar atchemanen dute.

* * *

Nola lotsa holako soldadoak?

Kanoiak karraskan ari dire, bazter guziak phorroskatzen dituztela. Etsaiak herrestan heldu dire, sugeak bezala, gure errekez jabetzeko. Laur soldado horri ohartzen dire eta grenada ukaldika hasten. Laugarrena tira eta tira ari da, tente, hatsa hartzeko astirik gabe. Etsaiak bakharrik lotsatzen ditu eta urrun fueratzen. Nor da, bada, bihotz gaitzeko soldado hori? Frantses soldado bat eta gehiago dena, eskualduna, Bezkoitzekoa.

Bertze egun batez, mitraillus batek sarraski gaitzak egin dauzkigu eta bethi ari da zakur tchar bat bezala saingaz. Burua agertzea aski, hilgogor erortzeko. Soldado bat chutik badoa irriskuari buruz, kanoi ttiki bat belapean.

—Norat zoazi?

—Han den etsaiak ala nik hil behar dugun ikusterat...—Eta tiroka lotzen da etsaiari, etsai hari⁽¹²⁴⁾. Oren erdi baten buruan, aleman mitraillosa gure eskuetan zen, phorroskatua, haatik. Nori esker? Soldado frantses bihoz dun bati esker, eskualduna hau ere, Hatsukoa.

Verduneko eskualdean frantsesek lur zerrenda bat ederra khendu zioten alemaneri, gan den aboztuan. Errabia gaitzean jazartzen dire alemanak frantseseri, galdu lurra berritz eskuratzeko. Huna soldado andana bat, mitraillus batekin. Hauk buru egiten badute alemaneri, hartu lur guzia geldituko zaiku. Bainan ukho egiten badute, etsaiak khenduko daukute. Mitraillusarekin hasten dire frantsesak, bainan, huna nun betetan obus ikaragarri batek phorroskatu dituen frantses guziak bat salbu. Hunek anaia aldean baitzuen, hil zaio hura ere. Burua galdu behar du naski? Batere. Minari gogor egiten dio, mitraillusari lotzen eta etsaiak hurbildu baitziren, azkeneraino erretzen. Eta frantsesek hartu lurra atchiki zuten. Soldado bati esker: eskualduna oraino, larrosoarra.

Horra hirur soldado eder, gure herritarrak. Milaka eta milaka badire holakoak gure armadetan. Nola nahuzue, beraz, alemanak lotsa detzan

⁽¹²⁴⁾ E. etsaia hari.

frantsesak? Datorzila ifernuko debru guziekin nahi badute, tanks edo bertze edozoin tresnetan sarturik, debaldetan dute.

* * *

Azken bitz bat

Eskualdunaren buruzagiak barkatuko daut egungo nere sail hau luzeskoa iduritzen bazaio. Eskualdunez mintzatzen hasi, eta, ez ditake ichil. Hain gerlari ederrak dire eta zenbat errateko nuken oraino hetaz! Hitz bat akabatzeko: Larrekoari. Hitzeman zinautazuna ez ahantz, jauna: *Napartarra* berriz agertu da. Othoi igor zazu Uztaritzeko jaun erretorari, neri igortzeko harek. Eta bieri, nere goraintziekin milesker handi bat.

1918-02-01

Aroa

Elhurra duela zenbeit egun urtu zaikuneko, euri higuigarri bat nunbeitik ere hasi da, erreken antolatzeko. Deus gaichtoagorik ez da gerlarientzat... Bizpahirur egun huntan, haatik, iguzkia agertu nahiz bezala dabila. Datorla, gaizoa, ongi ethorri bihotzetik erranen diogu.

* * *

Zimikoka

Ez da halako zalaparta handirik hemen oraino: zimiko zenbeit elgarri egiten dugula. Egun batez ichilka ethorri zaizkigu etsaiak gure erreketarat eta gizon bat galdu dugu. Biharamunean, haatik, ordainak hartu dituzte. Lehenik, gure kanoiek phorroskatu dituzte alanbre horzdun guziak. Gero gu saltoan etsaien erreketan sartu. Hamar etsai gurekin ekharri ditugu eta amor eman nahi ez zuten guziak garbitu. Presoner horietarik ikas dezakegu zer chede duten eskualde huntan aleman aintzindariak. Ez du guti balio horrek gerlan.

* * *

Airetakoak

Ez dute hanbateko denbora airezkariek airetan ibiltzeko. Arte bat dutenean, haatik, ez dute galtzen. Tropaka dabilta orduan. Gerla hau akabatzen delarik, mundua harrituko da gure airezkarietarik zenbeit ikustearekin beren tresnekin airetan josteta bezala ari. Ez ditake asma nola futitzen diren heriotzeaz...

* * *

Minichtro nausia bemen

Bai eiki, gutartean ikusi baitugu Clemenceau, Frantziako minichtro nausia. Itsasuko eliza bezen zaharra izanagatik, nola uste duzue ibili zai-kula erreka erreka, huni beha hari beha, hau hunki hura hunki. Ez du laudoriorik baizik eman guretzat, gure aintzindariak derasatenaz. Hitzeman dauku tripako behar dugun guzia emanen daukula: sekulan ez duela Frantzian baitezpadakoak faltatuko. Erran dauku Rusiak uko egin badu ere ez dugula lotsatzekorik, Alemania nihork uste duen baino ahalago delakotz. Hobe segurki...

* * *

Gizonaren kopeta

Erreketan zabilalarik gure minichtro nausiak ikusten du gizon bat.

—Norat hoa— dio galdetzen.

—Ori, jauna, zu ikusi nahiz nindabilan.

—Eta zer nahi duk?

—Zuri galde bat egin: eian ez zaren lotsatu Caillaux delakoa preso harrarazi duzularik?

—Zertako lotsa? Ah, ez diat erraten haren emaztea preso harrarazi izan banu!

Nahi zuena bazakien gure gizonak eta agur erranik urrundu zen. Bainan debruaren kopeta, ez zaitzue...

* * *

Nor den erosle? Baginuen zakur bat gauaz guardia hartzeko. Saingaz hasten zen etsaia sumatu orduko. Hamahirur ume egin ditu. Arrauntze-ko ihiztari horietan ba othe litake erosle?

1918-03-01

Zer erran aroaz?

Zenbeit egun pollit izan ditugu primaderakoetarik, bainan huna nun dugun berritz ere euri zikhin eta higuigarria. Belhaunetaraino lohian gare. Iguzkia ez bazaiku laster agertzen, ahantzi beharko baititugu naski bertze eskualde guzietako egun hitsenak! Ez uste izan, haatik, lotsatze-kotan garela hemengo soldadoak. Hori sekulan, lurra ez bada ur bilakatz-en⁽¹²⁵⁾... Ochala arno bilaka baledi; chuhursko bezala baitugu hamar bat egun hautan!

* * *

Asetzen hasiak othe diren?

Rusiatik ethorriak ditugu buruz buru ditugun etsaiak. Hango gerla ez zelakotz hemengoa bezen ikaragarria edo jateko gutisko dutelakotz egun hautan hogoi bat beren baitarik ethorri zauzkigu gure erreketarat. Ez dakit hola heldu diren⁽¹²⁶⁾ bertze eskualdetan. Hala balitz, laster erran nezake tropa bat hortaratu denean gerla laster akabatze-kotan dela. Azkenik, hola etorri zaikun etsaia aintzindariska bat zen. Hogoi bat urthe. Sortzez Alsace hartakoa. Hau ethortzea ez da harritzeko, bainan bertze hamazazpi edo hemezortziak... Asetzen hasiak othe diren? Agian.

* * *

Bazterrak ichil

Bertzela, bazterrak aski ichil dagozi hemen. Kanoiek ez dabilkate burfuria⁽¹²⁷⁾ handirik crapouillots direlakoetarik gutichago dugu, bainan pizkorrak, haatik, airetan dabiltzan bakharrak. Urrikaltzeko litake bat burutik beheiti eroriko litzaiokena.

⁽¹²⁵⁾ E. bilaketzen.

⁽¹²⁶⁾ E. direni.

⁽¹²⁷⁾ E. bururia.

* * *

Arratsalde on bat

Duela zenbeit egun, makhila eskuan eta pipa ahoan, itzuli bat egin dut oihanez oihan, nun zer kausituko nuen, hemen deusetaz ez baita hainbertze artha hartzen nola tripaz. Afari eder bat eginik eta bero-beroa itzuli naiz nere parropietarat. Eta norekin uste duzue egin dutala afari eder hori? *Eskualdunaren* berriketari on eta biphil J.S.P. delakoarekin.

Adichkide maitea, bidea ikasi dut. Begitharte ona egin dautazu aintzineko egun hortan. Bertzaldi arte, beraz. Hitzemaiten dautzut nihori ez ditudala salatuko arraunztarrez eta gaineratekoez ibiliko ditugun solasak.

Dena ere on

Lan bat da bethi lagunen artean *Eskualdunarentzat* zerbeit moldatzea. Charabia handik eta charabia hemendik, ez dautzute bakerik uzten. Laur baditut aldean zer derasadan nihundik ere jakin nahi luketenak. Hetaz mintzo naizela diotet erran. "Gutaz mintzo. Pinta bat arno ezetz". Baietz-Ezetz!!!... Hortako aiphatzen ditut. Eskuara ez dakite. Nola frogatzen? Izenak eman. Huna, beraz, lerro-lerro: Pierre Lavielle, Gaston Massieu, Octave Masson, René Sabardin. Horra pinta bat arno irabazia. Dena ere on.

1918-04-12*Othoi barka*

Bai, *Eskualdunaren* irakurtzale maiteak othoi barka ez badautzuet aspaldi hemengo berririk igorri. Permisioez izatu naiz eta handik lekora su izigarrienean sartu. Ez ditakenean, ez ditake. Egun ere berri guti, aste handirik ez baitut. Dena ere, loari khendu behar.

* * *

Bidez bide

Martchoaren hogoita hiruan etorri zitzaikun, pausuan ginelarik, mezua beribilak har ginetzan.

“Norat othe goazkate” zioten soldado guziek? Berritz ere surat naski, ezen gerla ez duk oraino akhabo... Hala-hala zen. Hogoita hamar bat oren bidez bide ibili-eta, bazterretako edertasunez begiak aseak, Noyon delako hirirat sarthu gare. Geroztik hiri pollit horren inguruetan dabizkagu gure urhats guziak. Anglesen lekua harturik, hauk gorachago buru egitea gatik.

* * *

Gerla hastean bezala

Gerla hastean, beren gizon eta kanoi ketari esker, alemanak purrustan sartu zitzaikun gure Herrian. Bardin egin nahi zuten orai ere eta ustegabetan Parisen. Bainan kukuak makurtchago jo diote. Behin ba, anglesak beren kanoiekin leherturik, urhats handisko bat egin dute gure lurretan. Orai, ordean... Burua itzuli artean irabazia ez den gudua galdua da: jo dezaten eskuin, jo dezaten ezker, debaldetan dute orai alemanek. Egundaino ez dugu bertzerik erran.

* * *

Guk zer egin dugun

Hogoita lauean dugu guk etsaia kausitu. Sugea bezala, oihanez oihan heldu zen, herrestan. Ama maitea, zer tiro parrapatak hartu dituen orduantche bizkarreko hezurak behera! Noyon delakotik hurbil baita mendiska bat, hau nahi zuen hartu. Huntarik urrunerat zaintzen zituen gure urhats guziak. Ez baitiogu, ordean, guk mendiska hori hartzerat utzi!

Ez, ez, utziko. Ezen bethi⁽¹²⁸⁾ horri lotuak gaude. Sei egun huntan, hamahirur aldiz oldartu zaizku alemanak. Milaka ditugu⁽¹²⁹⁾ hilak gure

(128) E. *gethi*.

(129) E. *dituku*.

anitzinean. Bainan ez dut dudarik berritz ere jazarriko zaizku. Bainan bego. Unhatu cheak ikusiko ditugularik, entzun dezakete bertze chichturik ere... Herritarrak, othoitz bat guretzat. Goraintzi hemendik horrat...

1918-04-19

Aintzin solas

Gure berriak maizago igortzen ez ditugulakotz, lazatu edo alfertu garela uste dute menturaz gure herritarrek. Batere. Bakharririk astirik ez dugu. Gudu handiak hasiak dire eta gu hain chuchen hetan erdiz erdi. Zerbeit bat igortzen dugularik, choko bat baizik ez baitugu ikusten, nihork ez dezala uste izan hemen bezala dela guzietan. Hamarretarik bederatzietako ez litake egia. Othoi ez ahantz.

Noyon delakotik hurbil

Engoitik Frantzian nihor ez da omenez bederen Noyon delako hiria ezagutzen ez duenik. Hiri pollit bat da, Parisetik ehun bat kilometretan. Jazar zaizko bethidanik alemanak. Berenaz ez du deus handirik balio gerlako. Bainan aldean badu mendiska bat, Mont Renaud deitzen dena, hau baitezpadakoa eremu handi baten zaintzeko. Mendiska horren puntan gare, martchoaren hogoita seitik hunat, bihotzak azkar eta begiak erne.

Hamalau oldar

Alemanek beren egunkarietan kondatua dute Mont Renaud delako mendiska hori hartua daukutela. Ongi nahi dutelako froga. Bainan, nahi dutena erran dezaten guk baitaukagu, haatik! Eta ez aise uztekoa!

Hogoita seietik hunat, hamalauetan lerroka jazarri zaizku. Uruski ez ginauden lo. Zer etsai-ketak igorri ditugun lurrerat. Ura errekan bezen lodi zoan aldi bakotch aleman odola, lurtean. Behartuko zaio alemanari balin bazuen gizon. Gisa huntan ez du hanbat iraunen. Ez baitu hemen rusoe kin egiteko!

Botearen errefera

Etsaia hamalauetan oldartu zaiku eta urhats batez ez da aintzinatu. Guk ez dugu hoinbertze fantesia eta hiruetan baizik ez gitzaio oldartu. Bainan ere hiruetan nahi ginuen sistakoa egin: aldi bakotch bospasei ehun metra lur eta zenbeit mitraillusa khendu, bietan bospasei kolpatu-rekin eta behin den mendreneko minik gabe. Dena ere on.

Eta airetakoak?

Eskualde huntarat ethorri ginelarik, gure airetakoek zaukaten zain hori guzia. Aleman bat ez zen nihun ere ageri. Gero zenbeit egunez gureak lo bezala egon dire, kasik agertu gabe. Orduan alemanak ozartu. Alabainan zer irrisku zuten bakharririk, nihor partidarik gabe. Aphal-aphala jausten zitzaizkun buruan gainerat eta beren mitraillusekin tiroka hasten. Martchoaren hogoita zortzian bat hain aphal jautsi zitzaikun nun tiro batez ohantzerat itzultzeko mina khendu baiginion. Hegalak hautsiak hor dugu oraino, gure lerroetan, ikusgarri pollita. Egun hotan gure airezkariak berritz agertu dire. Ba eta bertzeak gorde ere! Hortarik ageri da nor den beldur. Egia erran, tresna batzu baditugu chimichta bezen zalhu dabilzanak...

Azken hitza

Alemanak gerlari gaitzak dire. Bainan nausien nausia bethi frantses soldadoa da. Ernea, zalhua, hinka gaichtoenetan burua galtzen ez duena, luzaz bethi nausituko da herratsu, itsu eta tontoari. Frantziak ez dezake, beraz, gerla hau gal. Nola akabatuko zaikun badakigu. Noiz, ez. Herri-tarrak, guri dago gerla irabaztea eta irabaziko dugu. Hortako konda zazue gure gainean. Bainan zueri dago gerlaren laburtzea. Othoitzak⁽¹³⁰⁾ badu hortako aski indar. Guk eskas dugun astia eta bakea baduzue othoitz egiteko. Berma, beraz, zuek ere: khartsuki othoitz egin elizan eta etchean. Zuek gure gainean bezala kondatzen ahal othe dugu guk zuen gainean?

⁽¹³⁰⁾ E. othoitzka.

1918-05-10

Eskualdunaz orboit den bat

Sei egun badu, argia ikusi gabe, lamina zilo ikharagarri batzuetan hemen bizi naizela. Hemengo bake gozoa! Ziloz zilo ibil zitazke, kilometretan, arima bizirik kausitu gabe, den gutieneko harrabots bat entzun gabe. Jendetarik urrun bizi nahi lukeena, datorla hunat. Lakhetuko du.

Egun, aphilaren 25garren egun edo gau huntan, tente bidechka baten erdian nindagon, laminak nun ikusiko nituen noiz eta ere ilhumbetan norbeit hurbildu baitzaut. Zer zoriona! Eskualdun bat nuen, Azparne Brioutegiko seme Edouard, bere bidea galdurik zabilana?

—Demuntrea, nun zabilta?

—Eta zu?

Elhetik elherat, gure egunkari *Eskualduna* hor aiphatzen dugu.

—Eta aspaldiskoan ez dut zure mintzaldirik⁽¹³¹⁾ ikusi *Eskualdunean*.

—Hala da, adichkidea. Egun berean luma hartuko dut eta gure herritarrerri erranen nork orhoitarazi nauen gutaz bertzerik badela mundo zabalean...

* * *

Gerlaz bi hitz

Mont-Renaud delakoan alemanak hamalau aldiz debaldetan oldartu zitzaizkigula *Eskualdunean* erran nuen egunetik, bertzerik ere ikusi dugu. Bertze bederatzietan oldartu zaizkigu diren bezalakoak. Bainan guziz aphilaren hamahirua izanen da guretzat orhoitzeko eguna. Goizean, zazpi orenak alderat aleman kanoiak hasi ziren karraskan, aire pozoindatu lotsagarrienak hedatzen zituztela. Zortzi orenetan, erreketarik atheratu ziren etsaiak sua purrustan tresna berezi batzuetarik igorritz guri buruz. Zer oren ikaragarria! Aise ageri zuen baitezpada guk ginaukan mendiska hartu nahi zutela. Ez baiginen, ordean, gu lotsatu! Tiroka,

⁽¹³¹⁾ E. mintzalderik.

grenade ukaldika, bertzerik ez zelarik harrika, behin atchiki ginuen etsaia, eta gero oldar gaitzean han-harat fueratu... Erran ez ditakena da egun hartan zoin ederki, aintzindari eta soldado, eskua-eskuan gudukatu ziren. Metaka, hilak, han gelditu ziren etsaiak. Ondikotz, guk ere bagintuen galtze handiskoak! Eta guziz han hil edo kolpatu zitzaizkun aintzindari batzu ezin hobekak, hala-nola Lesgoirres Halsukoa eta Montalibet Maulekoa. Ez dugu, haatik, atsegin gutirekin ikasi, bigarren aintzindari hunek ez duela gerokorik. Hamahirutik hunat, erdi bakea dugu. Orduan hartu pherekaldiak on egin dio etsaiari.

* * *

Eta aireko gerla?

Zerbeit bada lurreko gerla. Futcho, bai eta ere airekoa! Ez da egunik iragaten hamar, hogoi, berrogoi airetako elgarri tiroka guk ikusi gabe, gain hartan. Eta handia da aldi bakotch airetako bat edo bertze, zenbeitetan hirur eta lauotaraino, ez baitire sutan edo mila phusketan erortzen. Zer heriotzea hori ere! Uste dut, haatik, guziak konda, etsaiak guk baino galtze gehiago duten. Lurretik ikusiz, aleman eta frantses airezkariak batzu bertzeak bezen artechak dire, baina iduri luke gure tresnak zaluchago direla. Alemanek inguru hautan galdu dute beren airezkari hobereena: Richtofen zuen izena. Frantses airezkorik hoberena Fonck deitzen da: hogoita hamabortz etsai baditu phusketan lurrerat igorriak. Guynermer zena bera baino artechago omen da. Zer puthikoa, beraz!

* * *

Azken hitza

Hola-hola banuke naski askitsu erranik behingotz. Baina hitz bat oraino. Badire gizon batzu gauza guziak hekien gogorat ez doazinean, gaizki doazila erraten dutenak. Ez da dudatzeko egun hautan errateko izanen dutela. Herritarrak, ez zatzuela sinhets: uste gabetan, etsaien aldea daukate eta etsaiarentzat ari dire lanean. Goiti-beheiti hainitz bethi bada gerla batean. Gerla hunentzat ere ez da bertze legerik. Izanen da, beraz, ondoko egunetan ere goiti-beheiti. Egund eder baten ondotik

izan ditake bertze bat hitsa. Ez da lotsatu behar. Frantzian, Angleterran eta Ameriketara bada gizon eta tresna. Munduan ikusi den jeneral handienetakoa bat dugu gidari: Foch jenerala. Hogoita hameka eskutik izaki-eta, zertako lotsa?

Aphirilaren 25ean egina.

1918-07-12

Agur herritarrak...

Mendeak ditu *Eskualdunari* ez nuela gure berririk igorri. Astia noiztenka bederen izan dut, gogoan nuen eskas. Behin, J.S.P. nere adichkide mina galdua zela ikasi, eta gizagaizoa Alemanian preso zela jakindu orduko, nere anaietarik bat eskatu zela berria ethorri. Nola nahuzue deusetako gogorik izan nezan? Egunak gan dire, egunak ethorri, eta nere anaiak ere Alemaniatarik bere berriak igorri. Eskerrak Jainkoari! Eta orai huna ni ere, mila chede onekin...

* * *

Egun garratzak...

Mont-Renaud delakoan martxoan eta aphirilean egun garratzak iragan gintuen. Beren tenorean igorri niozkan *Eskualdunari* hango berriak. Geroztik, ordean, zer ez dugu ikusi? Laur egunez Soissons delako hiriarren inguruetan ibili ditugun urhatsak orhoitzekoak ditugu. Aphirilaren 29an, beribiletan harturik, burrunban ereman gintuzten aipatu hiri horri buruz. Beribiletarik jautsi orduko oldar egiteko manua ginuen. Goizeko bederatzi orenetan atheratu ginen ziloetarik. Hamar orenetan, bi kilometraz aintzintatuak ginituen gure lerroak, etsaiari hamabi mitrailusa eta ehun eta hogoita bat soldado eta aintzindari khenduz, bertzeak ehunka hilik.

Zer gudu ikharagarria! Ogipean ginohazen, herrestan, sugeak iduri. Noiznahi etsai multzo bat buruz buru egiten ginuen. Eskuak berehala

altchatzen ez bazituzten, pan, pan, pan, tiroka bota lurrerat. Eta segi aintzinat, kolpatueri ere kasurik egin⁽¹³²⁾ gabe, arthatzeko lana gibeletik heldu zirener utziz. Zer egun ederra guretzat apherilaren hogoita bederatzia! Hala-hala, biharamunean, aleman kanoien karraskak. Milaka heldu zitzaizkun burutik behera obus ikharagarrienak. Orobat maiatzaren lehen eta bieran. Hiruan, gizonik bizirik atchikitzekotz, gibelatu behar izan gintuen gure lerroak. Ondikotz, berantegi. Eskuinetik zila-tuak zituzten frantses lerroak alemanek. Osoki inguratuak ginen. Handik atheratzeko ikusi gintuenak! Zer gizon-keta galdu ginuen! Halere arratsaldeko hirur orenetan etsaiak amor eman zuen eta guk lerro berriak egin. Arratsean, haatik, beribilak han gintuen berritz bilha ethorriak, pausurat eremateko. Erran gabe doa, ederki gochatu ditugula pausuko egunak. Damurik ez dute gehichago iraun. . .

* * *

Aspaldiko erreketan. . .

Erreketan gare, beraz, orai. Orai duela bi urthe eskualde huntan berean egon ginen. Oihanpean gaude. Udako ez ditake asma toki hobetik. Orai duela bi urthe, hunat ethorri nintzanean, uste izan nuen Itsasun sartzen nintzela. Bi urtheren buruan, hala-hala zait iduri. Bainan orduan bezala eskas baitugu orai ere Elizaldeko arno churia. . . eta Veronikaren irri churi gozoa. Denboraren buruan ere ez ditazke ahantz, bat eta bertzea. . .

* * *

Eta erleak?

Duela bi urthe zernahi ezti jan ginuen oihan hautan. Eta zer ezti! Norbeit hasarretu zitzaitan hoberik ez zuela erran niolakotz. Ez diot holakorik erranen aurthen. Erle bat ez da gehiago nihun ere ageri. Ahoan gurutze egin beharko. . . nun-eta, jauna, ez zaren nitaz urrikaltzen. Ez ahal dautzu guri bezala zuri ere bihotza harriaren pare egin gerlak!

(132) E. ezin.

* * *

Hemengo gerla

Ikusiak ikusirik, ez gaitu gerlak hanbat lotsatzen ahal hemendik goiti. Bainan hemengoa halere ez da gerla. Tiro bat ez da entzuten goizetik arratserat eta arratsetik goizetat. Etsairik⁽¹³³⁾ othe dugu bederen buruz buru? Sarrichago ikusi beharko, behin zauriak sendatu-eta, hatsa ongi hartu-eta.

* * *

Azken bitza

Nitaz egun hautan kechatu direneri, milesker eta goraintzi handi bat. Eta heldu den aste arte.

1918-07-19*Argonako berri*

Gan den astean erran dautzuetedan bezala. Hemen ez da harrabots handirik. Egunaz ez da tiro bat nihondik ageri. Hala-hala gauak ez dire gu hunat ethortzean bezen ichilak. Aski marruma badabilkate kanoiek. Halere bizi ditake hola.

* * *

Airekoak

Duela zortzi egun bat ez zen ageri. Nahiz orai ere ez dabilan espantu egitekorik, egun guzietzenbeit ikusten dugu, polliki hegalak chabalduak, airetan. Zer gauza miragarria den, haatik, airetakoa! Aspaldi du ez dautzuetedala gure airezkari aiphatuenen berririk eman. Segurki ez

⁽¹¹³⁾ E. etsaiik.

daude lo: Fonck, berrogoita hamarretan dugu; Nungesser, berrogoietan; Madou hogoita hamaseietan; Boyau, hogoita bietan. Fonck dugu, beraz, nausien nausia. Ez ahantz Fonck horrek zuela debruetarat igorri, mila phusketan, Guynemer gizagaichoa hil zaukun aleman airezkaria...

* * *

Permisioneak

Zenbeit kechu dira oraikoa beren soldadoak luzechko etcherat heldu zaizkotelakotz. Ondikotz, bertze luzamenik ere izan ditake! Baina zer nahi duzue egin ezinbertzea delarik! Aintzindariak erregelan dire otsailaren lehenetik abendoaren lehenerat soldado guziak bietan igorri badituzte permisioneez...

* * *

Arregak

Holetan, ez dugu eztirik duela bi urthe bezala atcheman. Hala-hala, zer arrega aseak egin ditugun. Makurtzea aski ginuen, arrega ahurka biltzeko. Eta jakin zazue ez giniotela segurki thu egiten, larrienetarik ez zirelakoan...

* * *

Borzgarren urthea

Horra, beraz, laur urthe gerla hasi zela. Ez da naski akabatzekotan oraino, itchura guzien arabera. Herriko girichtinoak, zueri dago gerlaren laburtzea, orai arte bezala, orai arte baino hobeki othoitz eginez, Jainkoa noizbeit urrikalduko ahal zaiku...

* * *

Adichkide guzieri...

Aspaldi du ez dutala nere goraintzirik igorri nere adichkidetarik hainitzi. Baditake zer bihozminak nituen: eztitu ditu berri on batek. Beraz, mila goraintzi egun, aspaldiko partez, nere adichkide onak: zuek guziz, Oxobi, Larrekoa eta L.D.

1918-07-26

Bi bitz aroaz

Ez du erraitekorik aroak: sasoinetia da. Zenbeit egun hautan, erre nahi du. Beharrik, ustegabetan bezala, bi gauz euri parrasta batzu egin baititu, lurraren freskatzeko doia! Gerla delakoan, ez ginuke itho nahi soinetia lodi hautan. Uda eta negu, hemen bethi moda bera dugu. Huna gerla aintzinetia gure urguilu handiaren gaztigua, soinetia bat higatu gabe bertzea erosi behar baiginuen modaren gatik. Jainkoa luzakor, ez ahanzkor...

* * *

Hemengo gerla

Gan den asteko ichiltasuna ahantziche dugu aste huntan. Zer kalapitaa daukaten kanoiek! Denik ere, egunak ichiltchago dire. Bainan, gauak!!! Ez dute, haatik, etsaiek oraino sudurrik agertu eskualde huntan. Ez dakit zertako. Gu, harmak eskuan, prest gaude. Datorzila...

* * *

Aire pozoinatuak

Ez dakit zer igortzen dioten alemaneri gure kanoiek, holako mementoetan ez baita eskuin eta ezker ibiltzeko asti handirik. Dakitana da bakharrrik alemanek aire pozoinatuetarik ausarki igortzen daukutela. Eta zer aire pozoinatuak! Soinetiaetan barna sartzen zaizko menean kausitzen denari eta bi, hirur-lau egunen buruan gorputz guzia erretzen haragi biziraino. Hanbat gaichto ere zuretzat aire pozoinatu zerbeit iresten baduzu, ahoko tresna berantegi emanik. Zortzi egun gabe zure bulharrak ustelduko zaizkitzu: ahotik odola igorriko duzu eta... Agian ordainak hartzen dituzte!

* * *

Berri onak

Uztailaren hamabortzean oldar izigarri bat hasi dute alemanek, lauetan hogoi bat kilometretan. Bospasei orenez kanoiak karraska gorrian

ari izan dire eta gero trumilka gerlariak atheratu dire beren erreketarik azken ukhaldiaren emateko frantsesari. Frantsesa ez baitzagon lo orden! Bereak hartu ditu alemanak. Behin hori, eta gero frantsesa bera zaio oldartu, han-harat fueratuz den bezalakoa, milaka presonerak eginez, eta kanoia eta mitraillusa sekulako keta hartuz. Ederki hori. Bazinakite berri on horrek nola bihotza altchatu daukun! Gure lotsatzeko orde horren bilha bazabilan alemana, ttanttoa segur irabazi du. Milesker, gai-zoa: bainan⁽¹³⁴⁾, kasu ondoko egunetan!!!

* * *

Goraintzi

Egungo, huntan aski, hemen ez denaz geroz oraino berri handirik, Heldu den aste arte, herritarrak, eta guzieri, hemengo eskualdunen ize-nean, goraintzi.

1918-08-9

Argonako berri

Bazterrak berritz ere ichilduche dire Argona huntan: etsaiak ez zaizkigu oldartu; Champagña delakoan gaindi hartu duten pherekaldiak lotsatu ditu. Egia erran, lotsatzekoa ere bada hoinbertze gizon eta tresna galtzen denean... Prest ginauden, zarpak⁽¹³⁵⁾ eta ahurrak grenadaz betheak. Ez dute sekulan jakinen zerk igurikitzen zituen hemen ere, ethorri balire. Horiek hola, orai atchemanen ditugu gan den egunetako lo eskasak, hemengo haitz handien itzalean. Eta ez dugu erleek iresteko beldurrik, hek ere gan dire norapeit: gerla luzegi zoakoten...

* * *

⁽¹³⁴⁾ E. *baino*.

⁽¹³⁵⁾ E. *zapark*.

Airetakoak

Gu, lo gaude, beraz. Bainan gure zaintzeko airetan hor ditugu gure airezkariak, batzuetan zeruan barna, eta bertzetan kasik lurrean. Alabainan, zeruetarik lurreko urhatsak ez lituzkete aski ongi ikusiko. Zer kopeta behar duten, haatik, hoin behera jausteko, mitrailusak alde guzietarik zakur batzu bezala saingaz ari zaizkotelarik!...

Egun hautako gudu lotsagarrietan, lan onik egin daukute gure airezkariek. Nausien nausia baizik ez aiphatzeko Fonck berrogoita hemeretziatan dugu. Biba hori!

* * *

Segak bizkarrean

Nahiz, dudarik gabe, *Eskualdunaren* bertze berriketari zenbeitek cheheki kondatuko dauzkitzuen egun hautako guduak, nik ere erran nahi dautzuet gudu hoitan gauza batek harritu nauela zoin ustegabetan oldartu zaizkoten alemaneri frantsesak. Ez zuten etsaiek holakorik⁽¹¹⁴⁾ asmatzen. Beha, bada: herri batean frantsesak jauzian sartu direlarik, etsai andana bat kausitu dute segak bizkarrean: belhar pikatzerat zoatzin... Nahi duenak nahi duena erranik ere, ez zitzaikun guri oraino holakorik gertatu.

* * *

Biba amerikanoak

Aspaldiskoan amerikanoak bagintuen erreketan gurekin, bainan ez ginezaken erran zer soldado diren. Zoazi zu norbeit pilotaria dela erraterat, pilotan ikusi gabe! Oraikoan, amerikanoak ikusi ditugu: gerlari handienetarik dire eta alemanekin paretzeko. Egia den bezala errateko, behartzen zaiku gure alde jarri baitire. Akhabo, beraz, gure etsaien amets zoroak: Parisen egonen dire Parisetik beren emazteeri eta andregeieri ebatsirik igorri gogo zituzten orhoitzapenak!

* * *

Eta italianoak?

Denek badakizue Frantzian ere baditugula italianoak, beren herritik gure laguntzeko ethorriak. Gudu hautan ederki baino ederkiago buru

egin diote alemaneri. Biba, beraz, italianoak ere. Nola-holako soldadoak badire, gan den urthean hain aise etsaia beren lurretan sartzerat utzi dute, bada? Galde hori bekoz beko egin diot italiano aintzindariska bati eta huna zer dautan ihardetsiko:

—Italian gertatu denaz, ez dugu harritu behar: harri zaitezte gehiagokorik ez baita gertatu. Gosearekin chutik ez ginauken: etsaia jazarri zaikunean, ez ginuen chichparen altchatzeko indarrrik.

—Eta orai?

—Orai, zueri eta amerikanoeri esker, han ere ez da deusen eskasik. Orai jazar ditake etsaia: ikusiko du... berritan ikusi duen bezala.

—Bai, bai, bitoria eder bat ereman dute hor: agian bertzerik ere entzunen dut ondoko egunetan.

—Zaude trankil: Diaz dugu nausien nausi eta hunen gainean kon-datzen ahal dugu. Lehengo nausien nausia, ez ginuen maite.

Nere italianoa hortan utzi dut, nere chahakotik trago bat edanarazirik. Harritzeko da Frantziarat heldu diren guziek zoin laster eta ongi ikasten duten chahakotik edaten, izan ditzen italiano, angles, amerikano edo otcho quarto!

* * *

Aspaldiko adichkideak

Bai, eiki, bai. Argona huntan kausitu baititugu aspaldiko adichkide batzu. Nor, bada? Ori, nihori ez salatzeotan, huna: gure mendietako asto ttiki pollit hek! Zer lanak dabilzkatzen gizagaizoez, erreketan barna, bala, grenada eta bertzi mila zikinkeriaz kargatuak! Asto pollit maiteak...

1918-08-16

Argonako berri

Holako aro ederrarekin ez ditazke bazterrak bethi lo egon. Zenbeit egun hautan gau gehienez harrabots puska bat badugu. Bainan ez oraino

espantu egitekorik... Erran behar dut, haatik, aire pozoindatu hoitarik nahi baino gehiago igortzen daukutela etsaiek. Ez, haatik, segurki uste duten mina egiten! Zerbeit chede tzar othe dute golkoan? Ondoko egunetan ikusiko. Hek berena gogoan. Ba eta futcho guk ere gurea! Zerbeit egiterat abiatzen badire, bego gure gain partida; hogoita hameka eta eskua guk ditugu oihan hautan...

* * *

Eskuin eta ezkerretik

Nahiz Verdun dugun eskuinean, aspaldian deusik ez da ageri handik. Ordu zuen. Hala-hala zer burrunbak Champagnan gure ezkerretik! Hemendik Main de Masiges delakotik⁽¹³⁶⁾ hamar-hamabi kilometra dire bakarrik. Hor ibili dituzten zalapartak! Guzien buruan, hor ere frantse-sa nausitu eta ni beldur behingotz etsaiari khendu diogun berritz oldartzeko mina...

* * *

Airezkariak

Egun hautan maiz hemen ditugu buruen gainean gure airezkariak. Ez da etsaienatarik hanbat ageri. Gudu guti, beraz, airetan eskualde huntan. Ez bide da gauza bera guzietan, ezen gure airezkari aiphatuenak zoin-gehiagoka⁽¹³⁷⁾ han-harat doazkigu. Fonck, berrogoita hemeretzietan dugu; Nungesser, berrogoietan; Madon, hogoita bederatzietan; Pinsard, hogoita batean, eta artean direnak utzirik, Artigau eskualduna, hamarretan. Biba, beraz, gure airezkari guziak, bainan bereziki biba Artigau. Ez zait itsusi eskualdun bat holako ohoretan ikustea!

* * *

Gure asto gaizoak!

Bai, erran dezaket segurki: gure asto gaichoak! Zerbeit ikusirik daude egun hautan aire pozoindatuekin! Bia hil zaizkigu, artha guzien gatik.

⁽¹³⁶⁾ E. *delakorik*.

⁽¹³⁷⁾ E. *zoin-gehiagota*.

Eta geroztik bertze guziak trichteago zaizkit iduritzen. Hoik ere aire pozoindatuetarik⁽¹³⁸⁾ iretsi dutelakotz, ala bi lagun galdu dituztelakotz, nork erran... Zer den, haatik! Astoek ere gerlan hil behar dutela! Ez da gerla huntan ikusiko ez dugunik naski...

* * *

Besta eder bat

Besta eder bat izan dugu egun hautan, gure erreketarik zenbeit kilometretan. Fourragère delakoa eman diote Ehun eta Hogoita Hirugarren (123e) errechimenduko banderari eta gerlako gurutzea aldachkarekin Berrogoita Hamazazpigarren (57e) errechimendukoari. Lehenik, soldadoak lerro-lerro jarrarazi eta, irakurtu dituzte bi errechimenduen oho-rezko aiphamenak. Ederragorik ez ditake. Batek eta bertzeak lan handiak egin dituzte gerla huntan; bainan Frantzia guziak ahantzi beharko ez duena da, bi errechimendu horiek dutela gan den martchoan gure

Herria salbatu, Noyon delakoan lehenik eta gero Mont-Renaud delakoan etsaia lehertuz. Gero Hirschauer gure jeneral ohia mintzatu da, bi errechimendueri beren laudorioak egiteko eta aintzindari handienen eskerrak bihurtzeko. Ez zaio aski sari handirik badela guziz Berrogeita Hamazazpigarrenak (57e) egin duenaren sariztatzeko⁽¹³⁹⁾. Errechimendu horrek leku batean hogoita zortzi etsaiaren oldar bentzutu dituela eta, gehiago dena, han berean lur puska bat bortz aleman⁽¹⁴⁰⁾ errechimenduren kontra hartu duela, ezin sinhetsia zaio!

Nola bi errechimendu horietan baita hainitz eskualdun, ez zaiku itsusi holako solasak aditzea. Eskualduna gerlari gaitza da, grenada eskuan. Hirschauer jenerala harritia badago egin ditugunez, oraino gehiago harrituko da eginen ditugunez. Gerla ez da akhabo eta alemana gero eta higuinago dugu.

⁽¹³⁸⁾ E. *pozoindatuerik*.

⁽¹³⁹⁾ E. *sariztatzeko*.

⁽¹⁴⁰⁾ E. *aleinan*.

1918-09-27

Eskual Herrian

Nik ere egin dut nere itzulia Eskual Herrirat. Gerla luzeago eta atsegina handiago gerlarientzat toki hits hauk uzten dituelarik, hango mendiez, hango itsasoaz, hango bazterraz, hango jendeaz gozatzeko. Ochala sei edo zazpi ilhabetetarik Eskual Herrirat gateko orde, ilhabetetik gan behar bagina! Ez ditakeena baita, haatik, hori: gerlak gizon hainitz ires-ten du eta norbeitek hemen ere egon behar, etsaiaren zaintzeko...

* * *

Aro onean

Horiek hola, nik oren onean izan dut nere permisionea. Aroa eder zen eskuin eta ezker ibiltzeko. Hitz dautzuet baliatu dutala. Egunaz jo harat eta hunat, eta gero ilhuntzetan lehertua pilotan. Ez dire, haatik, handituz gaki Eskual Herriko pilotariak ere! Eta denbora hortan, nere lagunak gerlan ari ziren, eta nola gerlan. Ni Eskual Herrian nintzelarik berrogoi kilometraz goiti khendu diote etsaiari.

Ez nuen sekulan uste erreka berrietarat heldu behar nuela! Behin ikusi ditut etsai presonerak ogi pikatzen ari, ez baitzuten diren bezalakoek uste aurthen guretzat pikatuko zituztela. Urruntchago, herriak phorroskatuak. Ez zagon harririk harriaren gainean. Urrunago oraino, jendarma batzu, zubichka batean tente, lurra bezen ilhun, ustez eta han zirelakotz hil behar zutela. Demuntretarat, ez zuten hainitz irrisku! Eta gero, urrun, urrun, gure gaicho asto pollitak, phuska garreion ari zirela. Erreketan nintzen, berritz gerlan.

* * *

St Quentin delakoari buruz

St Quentin delako hiri handiari buruz oldartu dire nere lagunak etsaiari. Bi herrichketan diote alemanek gehienik buru egin: Rouy-le-Petit eta Voyennes direlakoetan. Nere lagunek hartua da ere Nesles deriz-kan hiria, bainan ikus bazinezate Nesles hori zer plantan utzi daukuten!

Behinere gizonaren begiek ez dute holako itsuskeriarik ikusi. Eta guziz Eliza gaichoaren planta! Zabal-zabala, hil bat bezala, lurrean dago phorroskatua. Errient batekin izan naiz eliza horren ikusten: “Agian —daut erran errient horrek— sekulan ez duzue eliza hau berritz eginen, menderen mendek jakin dezaten zer ziren alemanak”

* * *

Zer khendu dioguten!

Lurraz bertzerik ere galdu dute etsaiek egun hautan. Nere errechimenduaz baizik ez mintzatzeko, lauehun presoner egin ditugu, ehun mitraillusez goiti bildu, bi kanoi ere bai: chichpak ehunka, obusak milaka eta milaka. Nere errechimenduak berak etsaiari hamar miliun diruren phuska khendu diola erranez, guti erraten dut. Ez direla batere gu baino gehiago alemanak, horra froga, nahi duenak nahi duena erranik ere...

* * *

Eta orai?

Orai pausarat goazi. Hogoï egunez, begirik hetsi gabe, obusen karrasken erdian bidez bide ibili denak noizpeit pausatu behar du. Ondikotz, badire gurekin pausatuko ez direnak. Han eta hemen galdituak dire sekulakotz. Duela hogoi egun gazte ziren, osasuna bazuten: bihotzak menturaz amets ederrenez betheak zauden. Eta orai lo daude, bethiko loaz. Jainkoak gizagaizoak bere ganat har detzala eta hekien burhasoeri eman dezotela bihozmin handi horren jasaiteko indarra.

1918-10-18

Pompon gure laguna

Badugu lagun bat errechimendu huntan haste-hastetik dena. Muthiko ona, langilea eta beharorduan gerlari ederra. Deusek ez du lotsatzen: Bainan getlaz lephoraino ase da. Chorta bat edan-eta, aise ferafutro igor letzazke aintzindari, lagun eta gainerateko guziak! Bainan ikus bazinezate egun hautan! Loriarekin erhotua dugu. Hain berri onak dire!

—Nahi huke gerla orai berean akhaba baledi?— diot egun goizean galdegin.

—Gerla orai akhaba? Ez ahal ditek gure aintzindariek holako astokeriarik eginaraziko— daut ihardetsi.

Hori hola mintzo denaz geroz, ikusazue zer haginean dauden bertze soldado guziak...

* * *

Bazter guzietarik

Bai, behinere izan othe da, gerla hasiz geroztik, berri hoberik? Orotan amor eman behar dute etsaiek. Ez dute, lehen bezala, buru egiten gure oldarrerri. Milaka eta milaka eskuak altchatzen dituzte, etsiturik, ikhara hezurretan barna sartua. Aintzindarien arabera, negua gabe, bertzerik ere ikusiko dugu: mugaraino noiznahi fuera detzazkegu. Eta orduan bakea, gure bakea, galdetzen ez badute, heldu den urthean beren herrian dituzte ikusiko chichtuak. Eta hitz dautzuet gure herritarrerri eta herrieri egiten dituzten kaltearen ordainak izanen dituztela...

* * *

Angles soldadoez bi hitz

Gan den martchoan amor eman zutelakotz soldado anglesek, hainitzek erran zuten deus ez zutela balio. Egundainokoa da. Zerbeit egizu ederki, ez da zu bezalakorik. Huts egizu, tirrit ez duzu balio. Egun hautan berritz ere ikusi ditut anglesak: lehen aldian bezala, harritu naute. Gerlari paregabeak dire: frantses soldadoari ez diote zorrik oldar baten egiteko. Hobeki ikusiko duzue oraino, herritarrak, ondoko egunetan.

* * *

Bakhotchari berea

Bada Frantzian bertze soldado bat ere aski prezatzen ez duguna: beljikanoa. Hainitz harrabots egiten ez zuelakotz, ez zitzaizkun gerlari. Horren kontra erran ez den gezurrik ez da: aspaldi ukho egina zuela, etsaiari aise saltzen zela. Eta holako. Egun hautan beljikano soldadoak ere ongi irakutsi dauku zer duen balio. Orhoitzeko ukhaldia emanik

dago alemanari. Lur phuska gaitza khendu dio eta tresneria gogorra. Ederki hori, beljikano gaizoa. Bainan othoi, herritarrak, ez erran ongirik baizik soldado hortaz: merezi du eta ongi merezi...

* * *

Sutik urrun

Duela zenbeit egun, pausarat ginoazila erran nautzuen. Beraz, orai, sutik urrun, herrichka pollit batean gare, pausan. Ihizin, arraintzan edo onjo-keta doazi gure egunak. Ilhuntzetan, elizarat itzuli bat egin-eta, elgarretaratzen gare eskualdun mutcho bat Eskual Herriaz mintzatzeko, hango kanta zahar zenbeiten errepikatzeko. Zer orentto gozoak iragaten ditugun han! Hemen hola biziz, kasik iduritzen zaiku Herrian bizi garel. Ondikotz! Ez baitaukute luzez iraunen oren gozo horiek!

* * *

Goraintzi

Herritar guzieri goraintzi. Eta hiri guziz, gaizo Oxobi. Bertze orduz, aski erasia bahabilkan maizago *Eskualdunari* gure berriak igortzen ez nituelakotz. Eta hi orai, zer ari haiz, bada?

1918-11-15

Guduaren erditik

Zenbeit egun badu ez dautzuetala gure berririk igorri. Ez duzue batere harritzeko. Gudu gaitzak ari dire ni naizen eskualdean, eta holako gduetan lumaz bertzerik behar da eskuetan. Egund badut arte bat, ikusten duzuen bezala. *Eskualdunaren* irakurtzaile maiteak, zuentzat dut.

* * *

Etsaiaren ondotik

Urriaren hamarrean akhabatu zen gure pausua. Geroztik etsaiaren ondotik gabiltza. Emeki-emeki behar gitzaio jarraiki, min handiegirik

ez dezagun izan. Etsaiak ez du halako kanoia ketarik, bainan soldado bakotchak, errateko maneran, badu bere mitraillusa. Beharrik, oraiko aleman soldadoak ez du gerla haste hortakoa balio!

* * *

Egun hauta lana

Dotzena bat kilometra lur guretuak baditugu urriaren hamarretik hunat, bospasei herrirekin: hala-nola Nouvion-le-Comte, Cheresis-les-Dames, La Ferté, Chevresis Monteau. Jenderik batere ez zen herri horietan guzietan. Bainan herriak hemen bederen chutik dagozi eta hola gerochago atherbe bat badukete hemengo jende gaichoek. Bildu ditugu ere ehun bat etsai, bizpahiru errechimendukoetarik. Eta etsai baino oraino mitraillusa gehiago. Hiruzpalau kanoi ere ba. Gutiz ez utz.

* * *

Zer dioten etsaiek

Etsaiek etsitucha dute orai, guziz aintzindariak. Soldadoak ez daki kasik bere chokho hartako gerlaren berri baizik. Amor lasterregi eman ez dezan, egia gordetzen diote. Alemanaren arabera, Enperadoreak jada bere kargua utzi du, eri delakotz eta kargu hori ez du enperadorearen seme zaharrenak hartu. Ez eta artuko. Alemanian gosetea dute eta jende guzia gerlaz asea da, eta nolana hizko bake batez nahitua. Hobe segurki. Aleman soldadoek ez dakite Bulgariak amor eman duela. Beldur bat badute, haatik, Autrichiak bakea laster galdetuko daukula. Nik, aldiz, ez dut holako beldurrik. Errainak ez ditu aski azkar hortako Autrichiak, bainan ez ere luzez irauteko.

* * *

Zer dioten gure aintzindariak

Bichtan da ez dakitala gure aintzindari handien barnearen berri. Ez dire hoin aise gure heinekoeri idekitzen. Hein batekoetz naiz, beraz, mintzo. Hauk zer diote? Diote alemanak uztarririk handienak emanak dituela. Eskuin edo ezker itzul dadien, galdua da. Ez du amor ematea baizik. Eta laster, arras laster, bakea dugu. Datorla egun eder hori nahi duen bezen laster.

* * *

Eta orai noiz arte?

Noiz arte? Ez dakit. Pausarat gatekotz, heldu den aste arte. Bainan etsaiak arras ihesari ematen badire barne-barnetik esperantza dutan bezala, *gerla ondo arte*.

1918-11-22

Azken orenak

Holetan gerla ikharagarri hau akhabo dugu! Guzietan, azken orenak orhoitzeakoak izanen dire. Etsaiak buru egin nahi zuen eta ez zezaken. Alde guzietarik zafratua zen. Teilatu bat chilatzen hasiz geroz, ez da antolatzerik. Emeki-emeki lurrerat doa. Gure kanoiek zer orroak ibili dituzten! Hemendik hogoi urtheren buruan, alemanek izanen dute zer konda beren haurreri supazterrean.

* * *

Zer dioten gerlariak

Ez dakit aise sinhetsiko nauzuen: gerlariak, berri ona ikastean, ez dute halako harrabotsik ibili. Zozotuak bezala ziren. Denek kaskoari emana ginuen gure hezurak gerlan hingatuko gintuela: horri arras eginak ginen. Eta bet-betan gerla akhabo dela erraten daukute: nola sinhets!

Ilhunari buruz, arno chorta bat edanik, zenbeit eskualdun irrintzina entzun ditut. Bainan ez hainitz denboraz. Laster orhoitu dire hainbertze lagun eskas direla, gutartean. Atsegin handienek badute bethi zerbeit itzal. Zeruan goza dezatela lurrean gozatu ez duten zoriona, lagun hilek!

* * *

Eta orai

Orai, herritar maiteak, adios guzieri. Gerla akhabo denaz geroz, Zerbitzari bere chokhoan ichil-ichila egonen da. Gerlako berrien zueri ema-

teko galdetu ninduten *Eskualdunaren* jabe eta buruzagiek, gerlan erdiz erdi nintzelakotz. Bertze mende bat hasi da: *Eskualdunak* atchemanen du nitaz bertzerik Frantziako gorabeheren ederki kondatzeko. Izanen du segurki zer erran.

Beraz, herritar maiteak, berritz ere adios. Goraintzi guzieri... surik ez den tokitik. Azken aldikotz, zuen

Zerbitzari⁽¹⁴¹⁾

Hitz dautzuegu ez dela zinez mintzo, eta berriz ere maiz mintzatu beharko duela hemen berean.

1919-02-28

Hitza janik...

Gerla akhabatu zelarik, nere ustez bethikotz utzi nuen nere luma, bertzerik bazela egunkari *Eskualdunaren* bethetzeko. Baduk hoberik: geroztik ez dauret bakerik uzten, baizik eta⁽¹⁴²⁾ zertako Herrian ez duten gehiago hemengo berririk jakin behar. Hitza janik, huna nun naitzen, beraz, herritarrak, hala nahi duzenaz geroz.

* * *

Nun diren eskualdunak...

Orai bakotchak erran dezake nun den eta zer ari den. Eskualdun gutiz gehienak *Alsace* delako eskualdean gare: ni, Mulhouse deitzen den hiri handi eta ederrean. Ez dabilkagu halako lan handirik: kasik bazterren zaintzea baizik ez dugu, nihork ez dezan gure kontra tzarkeriarik egin: Alemaniatik heldu direnak eta hemendik harat doatzinak zer chedetan dabiltzan ikus duda-mudakoak preso har... eta bertzeeri begitar-te hoberena egin...

⁽¹⁴¹⁾ E. Zerbitzariren izenpearen ondoren zehaztasun bat dator: *Hitz dautzuegu ez dela zinez mintzo, eta berriz ere maiz mintzatu beharko duela hemen berean.*

⁽¹⁴²⁾ E. baiziketa.

* * *

Hemengo jendeaz bi hitz

Guziak konda, hemengo jendeaz ez dugu ongirik baizik erraten ahal. Ongi-etorri ederra baino ederragoa egin zaunkun eta oraino itchura eder bera egiten dauku. Nahiz guti baizik ez dakien frantsesez mintzatzzen, bere urhats guziez hemengo jendeak erraten dauku zer zoriona duen gure bitorioaz: bethi bihotzez frantses egon zen arruntean, eta orai izaitez ere hala da.

Hemengo bandereria leihoetan, churi, gorri eta urdin! Athe guzietan frantseseri ongi-ethorri maite bat! Etche guzietan musika bat baita, frantses airerik baizik ez dute gehiago jotzen!

* * *

Karrikaz karrika. . .

Aro tzarra egun hautan: elhurrez estaliak dire bazter guziak. Uste duzue halere supazter chokhoan dagola hemengo jendea? Ez segurki. Zahar, gazte, haur, hor dabilta firrindan⁽¹⁴³⁾ karrikaz karrika lera ttiki batzuetan, zoin lasterrago, bizkar hezurak hausteko irriskuan. Neguko josteta guzia hori dute eskualde hautan. Ni hunat ethorritz geroztik, bi gazte hil dire josteta hortan, bainan biharamunean bazen bezperan bezenbat jende karriketetan. Hola da bizia. . .

* * *

Gazteak. . .

Hogoi urthetarat doazin gazteak ethorri zaizkigu egun hautan⁽¹⁴⁴⁾. Sekulako eskualdun andana bagare orai, elgarrekin. Karrikan kasik iduri du Eskual Herria dela hau.

Soldadogoaz asetzeko astia izanen dute naski gure herritar horiek, bainan gerlarik bederen ez dute ikusiko. Ez othe du orrek ere zerbeit balio?

⁽¹⁴³⁾ E. *firrindin*.

⁽¹⁴⁴⁾ E. *autan*.

* * *

Azken egunak

Eta nik, aldiz, nere azken egunak hemen. Martchoaren hogoieko etxean! Bethikotz gozatuko Eskual Herriaz, hango mendi ederrez, hango itsaso urdinaz! Jainkoari eskerrak... Guzien gatik, gerla aise ahantziko dut. Ez, haatik, gerlariak. Hauk egiten duten lana, hauk pairatu dituztenak bitoria eremateko! Zoin aise odola ichuri duten, zoin aise hil diren! Bai, orhoitzekoa da hori. Nik baino gehiago, nihork⁽¹⁴⁵⁾ herrian ez dezala ahantz...

1919-04-11

Ave Caesar, morituri...

Qu'es aco? Ori, guti edo aski eskolan ere ibilia bainaiz, erakasle batek buruan sartu zaizkidan hitzak. Ez naiz ongi orhoit zer erran nahi duten. Ustez, haatik, hau: mando zaharrari ez zaiola barkatzen, salbu zuek eta, azken uzkerra botatu ez dueno. Mando zahar eta tzar batentzat naukate ni ere eskualdunek. Alde guzietarik oihuka ari zaizkit: "Hu eta ho, Zerbitzari, nun bizi zare? Ahantzi gaitutzu? *Eskualdunari* ez duzu, bada, gehiago deusik igorriko? Othoi, othoi, hil ez dadin *Eskualduna*. Ori, ni baino mediku hoberik ez badu behar, ez da hanbat eri. Eta azkenekotz, *Eskualdunaren* buruzagi den jaun kalonje maitea zait galdeka hasi: "Behazu zer berri heldu zaikun Laphurditik, Bachenabarretik eta Amikuzetik? Nola ase gure egunkari gaichoa? Ahamen bat bederen emozu. Urrikal zitzaizko!" Huna, beraz, berritz Zerbitzari. Arri arri mandoko! Guzieri agur, gatheo lepoan...

Bainan, erdarak dion bezala: zertako bethi bera hilaraz? Nun dire bertzeak? Biga segurik badire zerbeit egin dezaketenik *Eskualdunarentzat*;

⁽¹⁴⁵⁾ E. nikork.

J.S.P. eta Oxobi! Eta hitz dautzuet, ez direla gero phikaren azken umeak!
Eia, eia, adichkideak...

* * *

Gerla akhabo

Ez ditake duda, gerla oraikoan akhabo da eta ongi akhabo. Bat bertzearen ondotik, etxerat heldu dire soldado guziak.

Mandoak berak, gerlan gintuen mando kankail itsusiak, libratuche dire. Berri-berritan Donibanen eta gan den larunbatean Ustaritzen mando andana baten saltzea zoan, jendeketa gaitzaren aintzinean. Ustaritzeko plazan kondatu nituen lerro-lerro berrogoita zortzi mando, larunbat hortan. Harrituak zagozin, beharriak chut-chuta. Espainian sortuak naski, espainola baizik ez zakiten, gerla hau arte. Han gurekin frantses den mendreneko bat eta amerikanoekin bertze hainbertze angles ikasi orduko, horra nun Eskual Herrirat igortzen dituzten. Hemen eskuara ikasi behar. Aise zagozin, beraz, harrituak Ustaritzeko plazan! Bainan beharrien ibiltzeko moldetik iduritu zait anglesa baino legunago zaiotela eskuara. Ikas bezate laster eta debruak baino hobeki. Hori balitz, zer erakaspena litakeen burhaso zenbeitentzat! Ondoren ondo eskualdunak direlarik, zertako ez diote beren haurreri arbasoen mintzaira erakusten? Dorpheegi delakotz?

* * *

Bertze bi bitz mandoez

Ustaritzen ziren berrogoita zortzi mando horietan, bazen guzietarik: handi eta ttiki, zuri eta beltz, garbi eta zikhin. Ustaritzeko jaun gazte batek eta nik, biga bagintuen begietan hartuak, ederren ederrez. Bat saldu da mila liberaz goiti eta bertzea... berrehun liberaz azpitik. Adichkidea, zer begia dugun, haatik...

* * *

Kopla bat

Hola-hola mando horietaz aski erranik banuela nindagon, noiz eta ere muthiko gazte batek kopla bat ekharri baitaut *Eskualdunarentzat*. Huna, polliten pollitez.

Ustaritzen baziren plazan berrogoita zortzi mando,
eta bakhotxak bazituen bi beharri eta lau zango.
Mehesko ziren ba, bainan osasunean frango
halere naski hemengo baino hobeak hango.

Zer diozue, Larramendy, Erramuspe, Barbier eta gainerateko, koplak hortaz? Eta barura zen gero koplaria...

1919-04-18

Aroa

Egunak ditu ez dugula behar den bezalako aro bat ikusi. Altchatuko othe zauku, bada, azkenean? Den gutieneko planta hartzen ari du. Egun hautan ikusi dut sorgin begigorri bat. Zer aro egingen zuen ondoko egunetan galdetu diotelarik, huna zer dautan ihardetsi:

“Astelehenean, asteartean eta, asteazkenean orai duela ehun eta hamazazpi urthe egin zuen aro berbera dugu izanen. Ortzegun sailduz, nolako haizea den. Ortziralean eta larunbatean, aro bera.

Eta gero,
hotz ez denean bero,
Pues,
Mues,
Bazkoz aurthen euririk ez”.

Sorgin demuntreak enganatu bagaitu, aski diozkatzue beharriak errotoz atheratzea. Han bizi da Dantcharienetik Betrieneko tarte ilhune-tan.

* * *

Oraino mandoak

Gan den asteen Ustaritzeko plazan saldu ziren mandoetarik zenbeit baxhar bederen Ustaritzen berean gelditu ziren. Bainan nik uste baino kasko gogorrago omen dute eskuararen ikasteko. Ez “harri” eta ez “so”

ez zaizkiote buruan sarrarazten ahal. Cadet Ezkerrak bat erosi baitzuen, etsiturik mando horren saltzerat doa. Nornahiri utziko du zortziehun liberetan. Eia nork erosiko dion? Niri igor, haatik, galdea...

* * *

Donibane Lohitzunen...

Bertze orduz entzun izan dut Donibane Lohitzuneko eskuaraz trufatzen. Baditake hiri hortan ere, bertzetan bezala naski, eskualdun zenbeitak gure mintzaira ederra ahantziche duten. Dohakabeak! Ez ahal dakite zer galdu duten!

Bainan holako eskualdun batzuekin badire Donibanen bertze batzu ederkisko eskuaraz mintzo direnak. Baten izena emateko, ez naiz ausartatzen. Bizkitartean zer atchikimendua gure aiten-aiten mintzairarentzat! Nigar egiten zuen berri-berritan muthiko suharrak hauche erraiten zautalarik: "Ah jauna, gure faltaz galtzen ari da eskuara, ez dakienari ez dugulakotz aski erraten eskuara dela mintza guzietan ederrena!" Bizi dadin eskuara, ez da buruan ez duenik. Azkenekotz, badakizue zer zaion gogoratu? Tokian tokika, norbeitak gerlarien ichtorio ttiki bat egitea, sarri haurrek jakin dezaten zer duten beren aiteri zor! Hain gaizki othe litake hori? Eta eia nor lothuko den lehenik lan eder horri?

* * *

Pilota eta pilotariak

Gure mintzaira bezala, gure pilota ere hilen othe zauku? Ez litake behar. Badire oraino pilotari bakhar batzu gure herrian. Bothere guziez lehiatuko dire ondoko egunetan pilotaren alde. Ohore segurki egiazko eskualdun horieri.

Bainan, arruntean, eskualdunak nola utzi duen joko eder eta balios hori! Egun hautan itzuli bat egin baitut adichkide chahar batzuetarat, nigarrez itzuli naiz etcherat, Kanboko, Ustaritzeko eta bertze zenbeit herrietako plazak ikusi-eta? Burutik buru belharrak janak dauzka.

Ustaritzen gan den astean plazan ikusi nituen berrogoita zortzi mandoak, asean eta bethean egonak dire. Eta geroztik, Cadet Ezkerrari

bere mandoa plazarat ihesi gan omen zaio. Ez ahal zen, nausiaren orde, pilotan hartzerat gana...

* * *

Oboina eta Bazkoak

Ez du zortzi egun ichtorio hunek gertatua dela. Ez dut, haatik, erran nun, herri hartan ez baita ohoin bat baizik, jenden jakinean bederen. Nahi duzue baitezpada jakin nori zaion gertatu? Niri, bainan ez zazuela othoi nihori sala. Beraz, etche batean izanik, beransko heldu nintzen karrikari buruz. Nunbeit, gizon bat ikusten dut egur zama handi bat bizkarrean. Tenore hartan eta gizon hura! Laster nere baitan egin dut: to, egur hori ebatsia dik. Eta, bi begien artean, erraten diot:

—Adichkidea, ez baduzu pherekaldi bat nahi, utzazu egur hori.

—Ba, jauna, norbeitek baitezpada behar luke.

—Ez da zurea ez eta harena. Utzazu, beraz.

—Jauna, bederen ez zazula nihori sala. Bazkoetan antolatuko dut ichtorioa.

—Ori, bi lan ez detzatzun izan, aithortzekoa eta gero egurra hunat itzultzekoa, ebatsi dena edo haren balioa itzuli behar baita, hobe duzu egurra hemen uztea.

Eta futxo, egurra han utzi nere ohoinak. Ez dakit, haatik, noiz arte...

1919-04-25

Aroa

Zer den, haatik! Nola Sarako sorginak erdiz erdi atcheman duen aste huntako aroa! Eta, horrengatik, kontu emateko omen dut horren erraneri, haizea bezen saindakorra delakotz. Bueno, beraz. Laborariak ez dezatela hemen bilha zer aro egin dezaken ondoko egunetan: berenetik har bite. Ezen, huna, hitzez hitz, zer erran dautan adichkide batek:

“Sorginetan sinheste handiskoa duzula iduritzen zait. Sarakoa bertzeak iduria da. Behin edo bertze, zerbeit chuchen erraten badautzu, ustegabekoa du: hamarretarik bederatzietan zakuan sartuko zaitu. Ez da ni baino sorginago: diruarentzat ari da sorgingoan. Badakizu behin zer zitzaitan gertatu? Sorginaren etche aintzinean iragatean gan den udako bero ikaragarri batez, etchean sartu nitzaion chorta baten edateko. Athe gibelean gelditu nintzen, barnean mintzo zirela entzunik. Sorgina eta sorginaren emaztea ziren, aurthengo armañakarren moldatzen ari, zer aro eginen zuen. Sorginak erran eta emazteak paper-punta batean ezar.

—Ori, Kattalin, eman asteleneko, bruma.

—Eta gero?

—Astearteko, eman: euria.

—Bainan, gizona, bokata diagu asteartean...

—Hala dun, haatik. Eman, beraz, astearteko: iguzki ederra...

Ez da harritzeko geroztik nere adichkideak ez baitu zurezko Jainkoan baino sinheste gehiago sorginetan. Eta erran behar ote dautzuet ez naizela ni ere sinheste hortan tematuko, San Thomas bezala?”

* * *

Kadet Ezkerraren mandoa

Badakizue Kadet Ezkerra hasarretzer zautala haren mandoaren ichtorioa *Eskualdunean* kondatu dutalakit! Egia da plazan izatu dela mandoa, bainan ez eskapaturik. Berak igorria omen zuen, Kadetek, eder ez zitzaiolakit Ustaritzeko plazan holako belharrik ikustea. Bertzalde, egia bada mandoak ez diola eskuara ikasten, ez omen du hain kasko gogorra. Kadetek guti edo aski baitaki espainolez, ederki elgar aditzen dute.

—Erran orduko, tiroa bezen chuchen han nuen plazan— daut erran Kadetek.

—Eta zer diozu, bada, erran?

—Ori hauche: plaza de pelota, belhar no behar. Tu comer leher.

Eta, ala jokoa, mandoak obeditu...

* * *

Hazparneko merkatuan

Haltsuar emazteki bat Hazparneko merkatuan zen gan den egunetan. Han badoa mundu guziak ezagutzen duen saltzaile baten ganat. Agur eta agur.

—Ez zaitut maiz ikusten, anderea.

—Zer nahuzu jauna. Senarra gerlan-eta ni bezalakoak ezinbertzea behar hunat ethortzeko...

—Eta zer nahi duzu?

—Orraze bat.

—Nolakoa?

—Ori, duela bederatzi urthe erosi bainautzun bat, hala-halakoa. Hain ona zen! Zazpi-zortzi biltzen zituen kolpe guzian...

* * *

Orai urthea

Aste sainduko besta ederrak nere herriko elizan ikusi-eta, gogorat ethorri zait nun othe ginen duela urthea. *Mont-Renaud* delako mendichkan, Noyoneko inguruetan. Han gintuen etsaiak kausitu, oldar gaitzean Pariserat sartu nahiz abiatuak. Zer gudu garratzak ibili gintuen hantche! Bat, lau edo bortzen kontra ari ginen eta futcho, etsaiari halere nausitu; den bezalakoa han geldiarazi. Bainan nola ahantz sekulan han Aste Sainduan eta guziz Bazko egunean galdu lagunketa! Jainkoa urrikal dakiotela guzieri eta eman dezotela lehenbailehen zeruko zoriona, Eskual Herriaz gozatzekoa galdu dutenaz geroz!

* * *

Soldado obieri

Alde guzietarik galdeka ari zaizkit eia nola soldado ohiek eskuratuko dituzten hartzeko dituztenak. Ez da hain gaichto! Aski da herriko etcherat agertzea: han bethearaziko edo betheko dautzute paper bat, adichkidea. Eta hortan akhabo. Paper harek eginen du bidea... eta lana. Ikusten duzue itsasoa hustea baino errechago dela!

Erran gabe doa, herriko etchean ez balute behar dena egin nahi, herriko aphezak lorietan egin lezakela. Horiek hola, nere soldado lagun guzieri milaka goraintzi, eta nihor jelos ez dadien bertze guzieri ere bai.

1919-05-16

Huna primadera

Azkenean agertu zaitu iguzkia, eder eta gozo. Gelditu da haize hotz hura, hezurretan barna sartzen zitzaikun haize mehe hura. Eskerrak Jainkoari. Belhar pherdea sutan heldu da landa guzietan, laborarien kontsolagarri. Haitzak hosto zabalez bethetzen ari dire. Choriak kantaz hasiak dire sasian. Huna primadera: ongi-ethorri dela. Horiek guziak ikusi-eta gogorat heldu zaizkit Atxoborro Donostiakoak duela zenbeit urthe moldatu zituen koplak:

Uda berriyan gaude! Ama, Udaberriya!
 Yaiki zaitezte denak! Una Udaberriya!
 Gora Yaungoikua.
 Ama Eskual Erriya, neguan zaudena!
 Noiz sortuko ote zaigu zure udaberriya!
 Ai ama gaichua!

* * *

Ostatu batean

Gerla huntan, hainitz herri ikusi baitugu ohartu gare nihon ere bat ez dela gure Eskual Herria bezen eder eta maiterik. Zoin paregabe zai-kun hemengo bazterra, zoin gustagarria hemengo aztura⁽¹⁴⁶⁾ guziak, gure pilota, gure kanta zaharrak!

Choratua egona naiz igande arratsean kantari batzueri. Ostatuan ziren, edan eta kanta, kanta eta edan. Burutik buru kantatu dituzte Elis-sanburu Sarakoaren kanta choragarriak:

⁽¹⁴⁶⁾ E. *azturra*.

Ikusten duzu goizean,
argia hasten denean,
menditto baten gainean.

Nor baitziren kantariak, hitz diotet ez naizela aise hekien kantaz ase. Eta damu da gure kanta zaharrak gazteriak utzi baititu bertze ehun mila astokeria erdaraz kantatzeko!

* * *

Chuhurrenean

Luhoson gertatua da ichtorio hau. Etchea ere badakit. Izena gordeko dut, haatik, hango etcheko andre gaichoa ez dezaten trufaz irets. Norbeitek baitezpada jakin nahi badu hori, eman dezagun, etcheak Chuhurrenea duela izena. Beraz, Chuhurrenean badute muthil bat, aski etchalde ona baita eta muthil horrek hamasei urthe ditu. Muthiko ona eta langilea, bainan futcho dena tripa. Eta ez naski egun guziz asetzen.

Ilhuntze batez etcheko andrea ari zen muthilarentzat gachuraren berotzen. Horra nun muthiko gaizoa hipaka hasten den, tripari lotua. Etcheko andreak erraten dio:

—Zer duk tripan min, Pettan? Eginen daiat dute chorta bat eta ganen haiz oherat.

Pettanek:

—Ez, andre, ez dut tripan min, beldur bakharrik zure gachura horrek eman dezadatan? Chingar puska batekin bi arroltze antolatzen bazintu...

Ez dakit zer ihardetsi zion etcheko andreak eta zer eman zion afaltzeko. Zenbat Chuhurrene munduan muthil gaizoentzat!

* * *

Hau ere Chuhurrenekoa

Luhoson bezala, Makaian ere ba omen da Chuhurrenea. Egia erran, nun ez da? Beraz, Makea Chuhurrenean aspaldi muthil baten galdez zauden. Heldu zaiote gerlan ibili muthil gothor bat. Laster antolatzen dire, hain plantako gizon baita Chuhurreneko nausia. Halako planta

baitu ere Chuhurreneak! Lerro-lerro dilindan sukhaldean ikus ditazke zenbat urthetako chingarrak!

Muthil berria chingarrerri harritua beha dago, gerlan ez baitu holakorik ikusi. Ohartzen zaio etcheke andrea:

—Ganich, hemen ez duzu zeren lotsa: ikusten ditutzu chingar eder horiek?

—Bai, bai, etcheke andrea. Bainan ez naute hanbat alegeratzen, hor!

—Eta zertako, bada?

—Ori, behar den denboran eman bazintu ez bailitazke hor.

* * *

Soldado obieri

Gerla aspaldi akhabatu zen-eta, nahi duenak nahi duena erran dezan, ez da berritz hastekotan. Gu etchean gare eta etchean egonen. Eta han direnak ere laster ethorriko. Bainan gerla egin dugu Frantzia eder eta handi izan dadin. Ez ginuke orai gerla aitzineko heinerat herria erortzerat utzi behar. Baionan chede hortarat soldado ohi batzuek egin dute batasun bat eta nahi lukete gerlan ibili diren guziak batasun hortan sar ditezen.

Adichkideak, han elgar ezagutu dugu. Badakigu⁽¹⁴⁷⁾ elgarren gainean kondatzen ahal dugula. Bada egin dezagun herriaren alde. Igor⁽¹⁴⁸⁾ zuen izenak lehenbailehen Baionako laguneri⁽¹⁴⁹⁾ gerla irabazi-eta herrian dituzuenak gal ez detzagun. Hori laster baino lasterrago eginen duzuelako⁽¹⁵⁰⁾ esperantzan, agur guzieri. Ikusiko dugu⁽¹⁵¹⁾ baduela onik batasun horrek.

(147) E. Baigu.

(148) E. *igor* hitza baino lehen *De-*.

(149) E. *lagunari*.

(150) E. *duzueo*.

(151) E. *du*.

1919-05-23

Bi sorginekin

Zernahi ikusia dut egun hautarik batez bi sorginekin! Kanborat nindoan, Chikito pilotaria ikusi nahiz, Halsuko errekan gaindi, Harbidean trago bat eginik, noiz eta ere Lauriphurdiko ondoan bi sorgin kausitu baititut. Jaun-andreak bide ziren. Baitezpada niri, zenbeit sosetan, denbora zer behar dugun uda huntan erran nahi, hek:

—Nik ez nuela horren jakite beharrik.

—Jende cheheaz trufatzen nintzela, beraz.

—Ezetz.

—Baietz.

—Ezetz eta funtsean sorgin guziak gezurri handi batzu direla...

Erran badut erran, hantchet asto churiarenak eta beltcharenak entzuznak ditut debru atso hamiamoko haren mihitik. Eta hitz dautzuet gero, bortz urthe gerlan ibilia izanagatik⁽¹⁵²⁾, ez naizela nahi baino lasterrago urrundu Lauriphurditik! Baita hainbertze eri Kanborat sendatzeko heldu denik, holako panpinen hauzoan nola laket dezaketen nago. Ni bethi Jainkoak begira nezala sekula santan Kanbon zangoak sartzetik...

Jainko maitea, Lauriphurdiko bi sorginen begi gorriak!

* * *

Itsasun

Gerezi sasoina heldu zaiku eta laster zenbeit itzuli egin beharko dut Itsasurat; gerezi aspaldikoak hartzeko ditut. Bainan gauza batek nau Itsasun lotsatzen norbeit elheketa hasten bazait, nola eta noiz naizen etcherat itzuliko. Han bethi astia badute. Beha, bada.

Duela sei urthe, herri pollit hortan izan nintzen. Bichtan da beharrez izan nintzela. Hain chuchen, etcherakoan, buruz buru egiten dut aspaldi ezagutua nuen emazteki on eta gozo bat. Hasten zaut ichtorio kondan.

⁽¹⁵²⁾ E. izanagatik.

Bazoakon ithurritik ura bezala. Orenak gan, orenak ethor eta hura bethi ichtorio kondari. Nik, etcheko bidea hartzerat egiten nueneko, hura besotik lothua: egoteko eta egoteko. Egon nintzen haren mihiaren berri jakin behar nuela ba.

* * *

Zertako?

Gerlatik ethorritz geroztik, zenbatetan ez dut solas hau entzun: ba-eta haurrik ez dela gehiago. Denak pipari, ostatuari, tzarkeriari emanak direla. Nork du falta? Bi egun du bakharrik bidean kausitu dudala hamahirur urthetako muthiko bat, pipa ahoan. Nor harritu, bada, eta ni harritu.

—Haizen bezalakoa! Pipatzen hire adinean! Nork emana duk hori?

—Aitak.

Lehenago⁽¹⁵³⁾ aita batek hamasei urthetan ere bere muthikoa hola kausitu balu, han beherean galtzak beheiturik, gibelaldea pherekatuko zion. Hala-hala, orduan haurrak baziren. Zertako? Burhasoak ere bazirelaketz. . .

* * *

Beretik

Igandean lagun batekin ostatuan sartu-eta, zer dut mahain baten puntan ikusi? Gizon bat bere sei urtheko haurra belhaunetan eta maite-ari edaterat ematen ari. Ederki, aita, haurra hola zaintzea eta minhartze-ko irriskuan, eskuin eta ezker bera ez uztea. Bainan on othe da hola ostaturat ekhar dezazun? Ni beldur aski goiz ikasiko dautzun horko bidea. Ez othe litake ederrago bi soseko pilota bat eros bazinezo eta plazarat segi, sarri zenbeit Perkain, Azantza eta Chilhar berritz ikus detzagun? Zure semea gabe, ostatuek badukete pilar. . .

* * *

Ostatu hortan berean

Bertzela, ostatu hortan irri ere egin ditake. Ez da hor ikusten ez denik, hor entzuten ez denik. Bertzeak bertze, bada muthil bat gaizo

⁽¹⁵³⁾ E. *Lehenbo*.

hutsa. Nola atchikitzen duten ere holako asto putza! Igandean, hain chuchen han nintzelarik, afaltzerat heldu zaiote Eskual Herri guzian dabiltzan pezetero horietarik bat. Bezperan ere han bide zuten. Muthilak ekhartzen dio salda.


—Salda hau mindua duzu: usainetik aise ageri du.

—Ez ditakeena da, jauna.

—Nola, ez ditakeela?

—Ori, jauna, atzo arras ona kausitu baitutzu zeronek eta hartarik beretik baita...

BERROGOITA HAMAZAZPIGARRENA GERLAN



“Berrogoita Hamazazpigarrena Gerlan” gerra-oroitzapenen kronikako lehen atal argitaratua Eskualduna astekarian 1936-12-25 datan, 4 orrialdea. Argitaratutako kronika hauek Zerbitzarik berak artaziekin ebaki eta kaier batean itsatsi zituen.

I. Lehen egunak, lehen guduak

Mila bederatziehun eta hamalaua! Eskual etcheetan hameka nigar egina-razi duen urthea! Gerla hasteko urthea! Bainan gerla aiphatzea balio othe du denboraren buruan? Ezetz iduritzen zitzaukun. Baietz iduritu zaiote gure adichkide batzueri, eta bazinakite zer elhe pollitak atcheman dituzten lan huni lotzea delibera dezagun! Horren gainerat Soubelet jaun kalonjeak jakinarazirik *Eskualduna* gerlako berrieri lorietan zabalduko zuela, egun huna gu, lan hau Jainkoaren laguntzarekin noizpeit bururatuko dugulakoan! Badakigu: gerlarietan bakarrak badire guk baino gehiago ikusi eta egin dutenik, bakarrak gerlan ikusiak guk baino hobeki hemen erran zetzazkenik: ez dire ausartatzen holako lan bati lotzerat. Hutsak barka detzotela ausartatu denari, othoi. Sobera galdetzen othe dugu? Ondikotz, ez dezakegu gerlako chokho bat baizik aipha: gurea. Beraz, ez dugu hemen Berrogoita Hamazazpigarren Oinezkoa baizik aiphatuko: hartan egina dugu gerla. Bainan uste dugu bertze errechimendu guziek horrek bezenbat egin dutela: bat nola ibili den ikusiz, eskualdunek ikusiko dute nola ibili diren bertzeak...

Jauntzi berri ederretan, Arrochaforte eta Liburnako hiri ederreri behingotz adio erranik, Berrogoita Hamazazpigarrena treinetan sartu da. Orai badoa. Badoa Lorraina deithu eskualdeari buruz, lehenik. Ez du, haatik, hezur zaharrik eginen han: lau egun ttipiren buruko Beljikatik galdea heldu zaio. Euriak euriari, hartzen du harateko bidea. Commercy, Bar-le-Duc, Ste Menehould, Vouziers, Hirson eta Avesnes laster iraganak dire. Huna, Beljika. Agorrilaren hogoita bata zen. Egun hortan ohartu ginen egiazki gerlarat ginoazila. Jada ihesi zoazin chaharrak, emazteak eta haurrak, ahal zituzten guziak bizkarrean, nigarrez, abiatu orduko lehertuak. Ikhara, gainerat.

Salatuko othe dautzuegu hemen egun hartan erran elhe batzuez, airerat eman kontseilu batez dugula gure gerla guziko urriki bakarra? Bide bazter batean ginauden, etzanak. Hurbiltzen zauzku bi neskatcha. Bi ahizpa zitazken itchuratik hartzeko:

—Barkatu, jaun soldadoa: kontseilu bat eman behar daukuzu. Burhasoak hilak ditugu, gure anaia soldado da: etchea utzirik Frantziarat joan behar othe dugu berehala edo egon othe gaitzke hemen gaindi irrisku handirik gabe?

—Haur maiteak, nihundik ez zauku iduritzen lotsatzekorik baduzuela oraino: itzul zaizte, beraz, zuen etcherat, hoinbertze eta hoinbertze harat-hunatekin bideak ere baditu bere irriskuak zuentzat! —Ethorri bidetik itzuli ziren etcherat, eta, ondikotz, segur alemanen aztaparrat erori! Gaicho neskatchak! Bai, orhoitzeko eguna guretzat, hori: bainan orhoitgarriagoen ikusterat ginoazin laster! Jada bi armada frantses Sambre derizan ur handiaren kontra alemanarekin zalapartaka ari ziren hiruzpalau egun hartan. Gure aldia hurbildua zen: arras hurbildua.

Agorrilaren hogoita hiruan ethorri zitzaion manua, eta Berrogoita Hamazazpigarrena berehala zabaldu zen landa handi batzuetan. Fontaine-Valmont delako herrichkan gelditu ginen geroni⁽¹⁾, elizaren inguruetan, chichpa puntaraino kargatua, nor nundik agertuko zen. Thuin begien bichtan ginuen eta jada hango karriketan tiro bakhar batzu adi zitazken. Ez zen oraino lotsatzekorik. Irri egiten ginioten ere, han nunbeit, airean zapartatzen ziren aleman obusa batzueri.

Irriak sartu ziren, haatik, bet-betan chara batetik gainerat ethorri zitzaunkun tiro parrapatarekin! Hain chuchen, largabichtak begietan, chokho batean chutik zagon kapitain bat. Tiro batek kopetaren erdian atchemanik, zabal-zabala erori zen, hila, doi-doia oiuhu bat eginik: “Haurrak, gorde ongi!” Berrogoita Hamazazpigarreneko lehen hil maitea, geroztik gure ondoan hil diren aintzindari eta soldado gutiz gehienen izenak ahantzicheak balin baditugu, zurea sekulan ez dugu ahantziko: bethi odolezko hitzez nun-nahi gure begiek eta gure bihotzak irakurtuko dute: Constans!

Constans kapitaina erortzen ikustearekin, alemanek uste izan zuketan aintzindari guzietan handiena hil zaukutela eta lotsatuak ginela. Kantuz eta irrintzinaka charako zuhaitz guzien gibeletik atheratzen

⁽¹⁾ Ms. *landi*.

ikusi gintuen guri buruz abiatzeko, beren gapelu gris marra gorriekin. Gainerat igorri ginioten chimichtarekin, ez ziren nahi baino lasterrago sartu berritz beren charan! Hola egiten dire gerlako aprendizkoak. Guk ere arratsalde hartan egin behar gintuen!

Gure koronelari iduritu othe zitzaion chara hartan ez zela aleman hainitz? Ez dakigu, Borzgarren konpainiari manatu zion bethi zoala baionetekin charatik alemanen fueratzerat! Gure lagun gaichoak abiatu ziren eta alemanetarik berehala ukhan guk doi-doia emana giniotenaren ordaina: tirokaldi bat ikaragarria.

Jo handik, jo hemendik, alemana aintzinatzerat ez uzteko gure bothere guziez bermatu ginen oro, handik goiti, eta arratsalde apalak lekhu bertsuetan atcheman gintuen, elgarretarik bizpahirur ehun metretan.

Gauari ginauden loriatuak, ilhunari esker charan sartuko ginela ichilka eta alemaneri emanen giniotela orhoitzeko pherekaldi bat. Gerla ez da zathika egiten: ez da zathika egin behar. Lan onik egitekotz, ez da bakotcha bere alde bermatu behar: orok bat eginez ere, bada zer egin. Aintzindari handiek jakinarazi zaukuten, beraz, ez ginezan chara haren aintzinean bertze denborarik gal eta emeki-emeki egin ginezan gibelat. Zer errabia beltzak hartu gintuen oro! Bainan manatua egin behar! Lehenik, lauzpabortz, gero bospasei, han-hemenka elgar laguntzeko itzuliz, abiatu ginen, beraz, Beaumont deithu herrichkari buruz. Gauerdiko han behar ginuen.

Eta horra nun ilhuna nausitzerat bezala zoalarik, gutarik aski hurbil, soldado tropa handi bat ikusten dugun trankilki guri buruz heldu, oraino ezagutzen ez ditugun jauntzi batzuetan. Aintzin-aintzinean hiruzpaulau gizon alimale Beljikako bandera handi batekin, eta hautarik batek frantses zerratu ederrez oihu egiten dauku: "Adichkideak, ez gaitzatue gero tiroka!" Gero eta hurbilago gintuen: kasik ehun urhatsetan. Beharrik orduan norbeit ohartu baitzen alemanak zirela! Bildots-larruarekin otso hek gure bandera nahi zaukuten ohartgabean ebatsi! Kukuak makhur jo zioten eta, baionetak chichpen puntan, jauzi egin ginioten gainerat. Gehienak hantche gelditu ziren lurrean, ahoz goiti. Gehiengehienak gero! Bainan min ederrik egin zaukuten hek ere eta gerochago

Beaumont hartako karrika bakarrean gure sailak kondatu gintuelarik, zer hutsartea! Sei aintzindari eta lauetan hogoita hamar bat soldado hilak: bertze hoinbertze kolpatu eta galdu, bertzalde. Gerla hasia ginuen. Ez litake guri espantu egitea gure Berrogoita Hamazazpigarrenaz, bainan nola ichilik egon gure lagunen bihotza arratsalde hartan ikusi-eta? Gerla bururatu arte egintza harrigarri frango ikusiko dugu: harrigarriago guti. Jainkoak nahi izan baitzuen Thuin jada aiphatu herri hartako jende gaicho batzu ondoko egunetan nunbeit kausi ginetzan, nahi duzue salatzea zer erran zaukuten? Huna hitzez hitz: “Bi egunen buruan, alemanak urrunduche zirelarik, joan ginen gudu ikaragarri hura egin zinuten gunerat. Bidea ez ginuen⁽²⁾ aise iragan: hilez emokatua zen. Chokho batean bi frantses eta bi aleman atcheman gintuen beren baionetekin oraino elgarri josiak!”

II. Bertze gudu ikharagarri batzu

Agorrilaren hogoita laua, zer egun hitsa! Are hitsagoak ondoko hiruzpalauak! Hogoita lauean zortzi orenetako alemanak pur pur pur ikusi gintuen oihan batetik atheratzen. Gure tiroek laster itzularazi zituzten beren gerizetarat. Bainan huna manu berri bat heldu zaukun hainbertzenarekin: gibelat egiteko lehenbailehen, alemanak nausitzen ari direla gure bi bazterretan! Gure zakuak bizkarrean hartu gintuen eta han-hemenka, etsaiaren zaintzeko, lagun batzu utziz, joan, joan eta joan gibelat bizpahirur egunez, beldurra zamari eta gose-egarriak bideko lagun. Pipatzeko belhar miko bat ukhan baginu bederen!

Artetan alemanak soberachko hurbiltzen bazitzauskun, gure beilari eta zaintzaleek bi tiroz laster frogatzen zioten bidea ez zela oraino arras libro, ez ginela oro hilak. *Nach Paris* eta *nach Paris* nahi duten bezenbat oiuhu eginik ere, behin baino gehiagotan, bide erditarat ere joaiteko, luma

⁽²⁾ Ms. *ginen*. Uste izatekoa da *ginuen* behar duela.

ederrik utziko dute Berrogoita Hamazazpigarrenaren eskuetan. Bertze eskuetan utziko dituztenak, bertzalde!

Agorrilaren hogoita zortzian Guise derizan herrichka pollit baten parrean ginen. Gure bidetik bazterrarazi gintuzten, herrichka hortan amor ematerat zoazin batzuen laguntzeko. Egun hartako harat-hunat, jauzi eta kalapitek ez dute izenik eskuaraz! Arratsean gure chichpak ez ginezazken gehiago hunki, hala berotuak ziren! Lauehun gizon galdu gintuen hantche! Haatik, uste ez zuten zafraldia hartu zuten alemanek ere egun hartan eta badakigu, aleman gerlako liburu batean irakurturik, egun tcharrago guti ukhan dutela gerla guzian!

Ondoko gauean beterraba batzu landa batean kausiturik, zoin gogotik lothu ginitzaioten oro ausikika, gosez baino gehiago egarriz! Bainan jan-edanek baino indar gehiago ematen dio gizonari bihotzak, eta nola ez ginioten bizpahirur egunez alemaneri oraino frogatu ez ginela ahulduak, are gutiago lotsatuak. Agorrilaren hogoita hamarrean, Chevresis-les-Dames delakoan ginauden, beraz, bethi erne nundik agertuko zitzaunkun etsaia. Han gaindi ziren anglesek amor emanik, iduri zuen bere indar guziak gure kontra egin behar zituela. Ez. Algeriako tropa zaldizko batzu artean sartu zitzaunkun eta gu, bake denboran bezen trankil, berritz bideari lothu *Marne* derizan ibai famatu hartaraino. Horra nun eta nola atcheman gintuen goiz batez guziek dakizuen Joffre jeneralaren oihuak. Buruilaren bortza zen: biharamunean behar ginuen alemaneri oldartu, orok, hilka...

Eskualdunek guk bezen ongi badazkite orduan ikasi izen batzu: Montceaux-les-Provins, Montmirail, Chateau-Thierry, Fismes, Merval, Maizy, Craonne, Craonnelle. Sobera ongi gogoan hartuak ditugu sekulan ahanzteko. Herri horietan hasi ginuen oldar handia.

Egia, hau da bizkitartean: seietatik hamahiruraino Berrogoita Hamazazpigarrenak ez zuen deus handirik egin. Ez zaukuten galdetu. Urrunskotik jarraiki ginen, beraz, gudu ikaragarriari, beharorduan eskukaldi bat nornahiri emateko prest, haatik...

Hamahiruan, suaren erdian ginen berritz, Ventelay, Poucy eta Pontavert iraganik, Corbeny hartzeko. Erratea bezen errech balitz egitea, bere-

hala hartuko ginuen Corbeny. Lanak ikusi gintuen, eta ez gintuen arratseko baizik hartu azken etcheak. Alabainan emeki ibili behar ginuen harat doatzin bideetan, segurak⁽³⁾ ez baitu parerik. Eta ongi egin ginuen hola jokatzeari ezen, usnatu gintuzteneko, alemanak⁽⁴⁾ karraskan tiroka hasi zitzaizkion Craonneko patarretarik.

Jendeak baziren oraino Corbeniko etche batzuetan. Aditu bazintuzte heien loriazko oihera eta karrasiak gure ikustean! Bainan guk ez ginuen konplimentuen egiten gelditzeko astirik: urruntchago chara bat bazen, alemanak charan eta lehenbailehen hek handik fueratu behar. Ez zuen luzatu eta gau hartan delako charan egin ginuen lo. Lo arin bat, haatik, gathuek bezala begi bat artetan idekiz; chichpa kargatua gorphutzari kontra, zer gerta ere.

Ez zen deusik gertatu gau hartan. Bainan biharamunean! Argiko aleman kanoiak orroaz hasiak ziren. Eta zenbat! Behinere ez ginuen oraino hoinbertze aditu! Bederatziak alderat etsaiak abiatu ziren gutarik hurbildu nahiz bezala. Oren batez gure tiroek beren lurrari itzatu zituzten.

Gisa hortan eta buruz buru nihundik ez zaukula amor emanaraziko ikusirik, bertze zerbeit asmatu zuen orduan alemanak: gibeletik behar zitzaukula oldartu. Berry-au-Bac gure eskuinean baitzen, jauzian joan zen harat, hango beilariak phorroskatu, eta itzuli handisko bat eginik berritz guri jazarri, erran dugun bezala, gibeletik. Zer odolak ichuri⁽⁵⁾ ziren hantche oren pare batez! Bi aldetarik ulia bezala zoan gizona lurre-rat! Bainan sobera baziren, aise sobera, guk bakarrik buru egiteko, eta, hori ikusirik, jeneralak manatu zaukun Corbeny berehala uztea eta doi bat bederen gibelatzea. Ahal zen bezala, obusa erauntsi ikaragarrienaren azpian jo ginuen, beraz, La Ville-aux-Bois herriraino eta han kokatu, etsaia hurbiltzerat utziko ginuen baino lehen oro hilen ginela zin eginik

⁽³⁾ Ms. Azken hizkia, *segura-* horren ondoren datorrena, ez da ondo irakurtzen. Testu argitaratuan *segurak* datorrenez gero, hitz hori jarri dugu hemen.

⁽⁴⁾ Ms. *Alamanak*.

⁽⁵⁾ Ms. *ichuri*. Hala ere beti *ichuri* datorrenez gero, halaxe jarri dugu.

elgarri. Hirur aldiz oldar gaitzean ethorri zen lehen etchetaraino; hirur aldiz gure baioneten puntan urrundu ginuen han barna.

Gutituz ginoazin, haatik, eta beldurtzeko eta gau hartan berean amor eman beharko ginuela, handik goiti Gutaraino atrebitzen ziren etsai guziak Tarbeko Hogoita Laugarrenak bere kanoiekin phorroskatu ez balitu! Gau hartako bakea ukhan baginuen hola, ez dugu uste bezperan baino lo haintz gehiago egin ginuela horrengatik...

Egundaino bezala tiroka ari ginen argi-hastean. Bainan zertako gero-ko chehetasunetan sar? Holakoetan bethi chehetasun berak ditazke. Egun guzia jozak eta emak ari izan ginen bezperan bezala, lur phuska frango hartu, eta gero galdu. Ondoko gauean La Ville-aux-Bois hustu ginuen, haatik, etsaien kanoiek eta oldarrek azkenean leherturik, gose-egarriekin ezin chutik egon...

Hamaseia, aski egun gochoa, guziak har. Paueko errechimendua gu baino pausatuchago baitzen eta ez hala hondatua, gure tokiak harrarazi ziozkaten eta gu ezkertchago igorri. Etsaia ez zitzaukun batere oldartu, izan ez bagine baino gehiago. Egia erran, pabetarrekin ukhan zuen nun josta!

Hala-hala, hamazazpian argia gabe etsaiaren kanoiak guri buruz hasiak ziren. Ez ziren ichildu arratsaldeko bi orenak arte. Etsaia noiz agertuko zitzaukun aintzinat behar ginauden, gibeletik heldu zitzauzkula aldi huntan ere beilarik batek oihu egin zuelarik. Harritu ginen, bainan ez lotsatu, eta, behin han atchikirik, lagunetarat joaiteko bidea moztu ginion bi jauziz.

Hortan bururatu zen guretzat Bataille de la Marne erdaraz erraten dioten gudu lazgarria, eta aztaparka zilho egiten hasi ginen, zilho hetan ilhabeteak eta ilhabeteak kasik higitu gabe egoteko...

Aise asmatzen duzue hiruzpalau egun horietan sarraski ederrik ikusi ginuela; zortzi aintzindari hil zauzkuten, eta ehun eta hamabi soldado; zazpi aintzindari kolpatu, eta lauehun eta hogoita hemezortzi soldado. Galdu gintuen eta eritu zauzkun gizonekin, hemeretzi goizean konduak egin gintuelarik, Berrogoita Hamazazpigarrenak bazituen zortziehun eta hamabi gizon eskas. Oi, lagun maiteak!...

III. Bizi berri bat

Bizi berri baten hasterat ginoazin. Gerlan ibili direnek badakite zer izan den: sathorraren bizia. Sathorra noizetik noizerat lurpetik menturatzan da kanporat: ez gindauzken bethi lurpean gu ere, atheratzen ginen arteka. Hola ezagutu ditugu Cuiiry-les-Chaudardes, Concevreux, Blanc-Sablon, Maizy, Beaurieux, Glennes, Meurival. Herri hautan hartzen ginuen hatsa. Bereziki Meurival delako herrirat zer atseginarekin joaiten ginen! Han baziren orduan bospasei aphez eskualdun, batzu bertzeak baino maitagarriago: ez zakiten zer egin guretzat. Bat Azkaraten erretor da egungo egunean, bertze bat irakasle edo holako zerbeit Miarritzen. Gaineratekoak hil othe ziren? Dena dela, begietarik galduak baditugu, ez ditugu ahantziak ez ahanztekoak...

Erran ditake zango bat airean ginuela oraino: ez ginakien nun kokatuko ginen azkenean. Ondoko egun batez ereman gintuzten Bourg-et-Comin derizan herrichka pollit, argi eta arinean egoterat.

Ez ginen, haatik, arras besoak gurutzaturik egon harat joan arte. Beha. Urriaren hamahiruan jeneralak manua igorri zaukun Moulin de Vauclerc hartzeko, eta hartzeko *gostako zena gosta*. Goizeko sei orenak ziren lehen gizonak eiherari buruz abiatu zirelarik. Ahal zuten bezenbat gorderik ere, etsaiak ikusten zituen, ondikotz! Hiruzpalau ehun metra egin orduko ez zen urrunago joaiterik hango obusa eta tiro parrapatarekin. Jenerala bera ohartu zen beharrietarat heldu zitzaion ihurtzuritik sobera galdetu zaukula *gostako zena gusta* eiherarat joaita galdetuz, eta bigarren mezu batean erran zaukun *ahal ginuena egiteko*, aleman kanoiak ichilik zauden epheez baliatuz. Hola bizpahirur ausiki eder egin gintuen etsaiaren eremuari, bainan gutiegi ginen urrun joaiteko eta guziz bururaino heltzeko. Orduan, oro ikusi eta pisaturik, jeneralak manatu zaukun, ginen tokietan gelditzea eta finkatzea. Ez ginuen bertzerik galdetzen.

Bakea zitzaukun hori. Horrek ere ez zuen, haatik, luzez iraun behar. Hamalaeuan, eguerdi gainean berritz manua ekharri zaukuten delako

eiherarat lehenbailehen heltzeko, eta, gure kanoiek zenbeit orro bakar egin orduko, abiarazi gintuzten jada egintcheak gintuen zilhoetarik. Arratseko hamar orenetan eiheratik ehun metretan ginen. Ehun metra! Eskua luzatzea aski kasik eihera mila sorginaren hartzeko, eta guk gehiago eskua ezin luza indar eskasez! Ez ginuen, beraz, hartu, bainan ba lauehun lagun gaicho bidean hedatu!

Orduan gintuzten Bourg-et-Comin delako hartarat ereman, handik Chemin des Dames zaintzeko. Verneuil eta Beaulnen hartu behar gintuen errekek.

Hamazazpi ilhabetez etchean bezala jarri ginen Bourg-et-Comin hartan. Noizean behinka alemanak ez balauzku inharrosaldi batzu eman, ez dakigu ez ginen arras eta arras hangotuko!

Herrian bagintuen hirur ostatu jaterat eta edaterat arras ongi eta erdi merke emaiten zaukutenak. Han edo hemen bakhotchak bere egoitza moldatu zuen eta egoitza hortan deusik ez zen eskas, sasoineko lore pollitetaraino.

Kaskoinek bazuten beren jostalekua phentze handi batean eta noiz-nahi han ikusten gintuen *foot-ball* delako joko basan, galtza motz batzu soinean, odoletan ari. Eskualdunek pilota maiteago dugu eta gure plaza baginuen etche baten kontra. Ez dugu segurki behin ahantziko nola egun batez, Salaberry bildoztar eta Castagnet Lekunberrikoarekin geroni ari ginelarik, obusa ikaragarri batek lastersko lekhuak hutsarazi zauzkun!

Ihiztariak berek bazuten nun josta. Elizaren puntako gurutzearen puntan bazen burdinazko oilar bat, haizea norat zoan irakusteko Nork konda ihiztariak igorri ziozkaten tiroak! Biga bazituen triparen erdian: Gantchume Senpereko ihiztari famatu batek emanak zituela erraten zuten. Baditake.

Eta, horiek guzien gainerat, bazen elheketako chokho bat: *le salon de l'Eloquence* erraten zioten erdaraz. Dominique Dufau Senpereko notari maitagarria zen chokho horren jabe ta nausia. Zenbat aldiz ez ditugu haren alderat bilduak ikusi Ybarnegaray deputatua, Leixelard jaun apheza, Jean-Pierre Larregain Donibane-Lohitzuneko, orai Garroan buru-

zagi den Landetcheberry jaun apheza, J. Paris Senperekoa, Zerbitzari eta bertze frango!

Eliza maite zutenek ez zuten urrun: herriaren erdi-erdian. Elizkizun ederrak baziren noiznahi, bainan eskualdunek egiten zituztenak baino ederragorik ez dugu ikusi. Bereziki bazen han musikari eskualdun bat elizkizun horieri ezin sinhetsizko eskual usain baten ematen nihork baino hobeki bazakiena. Aitortuko othe dugu geroneri egundaino eliza batean deusek ez daukula bihotza hala zarraztatu nola arrats batez, benedizionario denboran, gure musikariaren erhieki ez ziki eta kartsuki charamelatu zuten *Uso churia errazu* batek? Oi, hango elizkizun maiteak!

Gorachago lañoki erran baitautzuegu Bourg-et-Comin hartako eskualdean azkenekotz ederki lakhetuko ginuela noizetik noizerat nun ginen alemanek orhoitarazi ez bagintuzte, arras egia da. Han baitziren, haatik, alemanak!

Umiasaindu eder bat iraganik, uste ginuen Hilen-Eguna ere hala-halakoa iraganen ginuela, eta elizarat abian ginen lagun hil gaichoentzat othoitz baten egiterat, bet-betan zortzi oreneri buruz ehun aleman kanoia marrumaka hasi zauzkunean. Erreketan utziak gintuen beilariak nahi zituzten ohartgabean lehertu alemanek, gero guri buruz heldu ziren bideez jabetzeko. Bi jauziz erreketarat joanarazi gintuzten oro. Ez ditugu zeren egun hartako harat-hunat eta zalapartak aipha: beren eginahal guzien eta gainerat igorri zauzkuten erauntsi guzien gatik, alemanek ez zaukuten berrogoita hamar bat metra lur baino gehiago hartu. Han ichuri zituzten odol purrustek gehiago balio zuten!

Ez zuen ilhunak ere gudua arras gelditu: tiro zalapartaka ari ginen oraino goizeko hirur orenetan... aireari naski. Iduripena dugu gudu hortan ikusi eta aditu gintuela lehen aldikotz soldado gaichoeri zainak hala inharrosten eta odol guzia hala itzuliphurdikatzen ziozkaten *minenverfer* debruak!...

Abendoaren hogoita lauean Eguberri gocho bati beha ginaudelarik, horra nun bospasei soldado polones alemaneri espakaturik gure erreketarat heldu zauzkun herrestan. Gure harritzea! Jainkoak igortzen zauzkun. Batek bazakien aski ongi frantsesa eta, bertze askoren artean, salatu

zaukun “biharamunean oldar bat gaitza gure kontra egin gogo zutela alemanek.” Ez zuen gezurra. Eguberri egunean argia gabe frogatua ginuen, inguruetako kanoi guziak orroaz hasiak baitziren! Ehun hilez goiti baginuen arratseko, bainan alemanek ere ez zuten sudurrik agertzen ahal izan: ez gintuen utzi. Horra, bada, nola iragan ginuen gure lehen Eguberria gerlan...

Eguberri baino Urthats hobea ukhanen⁽⁶⁾ othe ginuen ginauden oro. Hala ukhan ginuen, eta Beaulneko errekek utzirik zoin gogotik joan ginuen gure *Urthe On* hoberenaren adichkide batzueri erraterat! Lahirigoyen anaiek, Leiciaguezahar amikuztar liotinantak, Capendeguy doniandarrak eta bertze zenbeitek egin zaukuten begitarte ez dugu aise ahanztziko: arratsean ez ginakien lurrean ala zeruan ginen!

IV. Verduneko ifernua

Mila bederatziehun eta hamaseigarren⁽⁷⁾ urthea hasi da: zer ekharriko ote dauku? Deus onik naski! Jada ez ginuen gerlaren laster bururatzeko esperantza mikorik gehiago...

Hamazazpi ilhabete lekuaren gainean iragan dituen soldado batek ez du aise egun guzietz gertatu zaiona erranen: egun hainitzek elgar iduri zuten. Maizegi gauza berak errepikatu behar lituzke eta irakurtzaileak ase letzazke. Ez gintuzke sobera ase nahi! Jauzika ibil gaiten, beraz, larrienetarik larrienetarat, gogorat heldu zauzkun heinean, eta bezala!

Urtharrilaren hamalauean “minen” eraunsi ikaragarri bat burutik beheiti igorri ondoan; berrogoita hamar bat alemanek jauzi egin nahi izan zaukuten gainerat. Hobeki eginen zuten higitu ez balire; erdiak hil gintuen gutienetik. Geronek, bi hil eta zenbeit kolpatu.

⁽⁶⁾ Ms. *ukanen*. Gainerako kasu guztietan, ordea, *ukhan*.

⁽⁷⁾ Ms. *hamabortzgarren*. Lapsus calami izan behar du, Verduneko ifernua 1916ean hamar hilabetez izan baitzen. Hamazazpi hilabete pasatu badira 1914tik, geroxeago dioen moduen, 1916 urtea izan behar du.

Otsailaren hemezortzian, aintzinean nor ginuen jakiteko, dotzena batek jauzi egin ginuen alemaneri buruz. Ez ginuen nahi ginuena egin guk ere, bainan bospasei lagun galdu, ba. Zenbat behargabeko urhats ez dugu hola egin haste hartan!

Uztailaren hogioita bortzean rusiano alemanekin gune hartan lanean ari zen batek ihes egin zioten eta gure erreketan sartu, jada aiphatu polones batzu bezala. Egia edo gezurrak, zernahi berri eman zaukun.

Gerochago, Champagnako gudu handia hasi zelarik, uste izan ginuen guk ere gure zilhoetarik atheratu beharko ginuela eta norapeit aldaratu. Ez: han berean utzi gintuzten oraino eta bethi. Nihork ez luke, haatik, gure gerla hori ez zela gerla edo holako gerla aise egiten dela erran behar: zilho horietan iragan dituen hamazazpi ilhabetetan Berrogoita Hamazazpigarrenak lauehun hil ukhan ditu eta seiahun kolpatu. Hirurehun galdu, bertzalde. Hori ez bada gerla?

Hola atcheman gintuen ondoko apherilak. Ez zen orotan gehiago Verdun baizik aiphatzen. Harat deithu gintuzten, beraz, denboraren buruan. Ez dugu gordeko batere ez ginela berantetsiak!

Zenbeit egunez bidean eskola berezi batzu eginarazirik, goiz batez hartu gintuzten beribil handi batzuetan eta, haizea bezala, Givry-en-Argonne, Triaucourt, Nubécourt eta ez dakigu nun gaindi ereman. Lapitzak ez dauzku izen guziak paperean atchiki! Landrecourt delako herri beltz zikhin batean egin ginuen lo, moroek selhauru batean utziak zituzten zorrien erdian. Herri hortan ukhan ginuen, haatik, atsegin bat: zenbeit eskualdun buruz buru eginik arratsari buruz, hetan atcheman ginuen hurreko adichkide handi bat: Frantchua Iribarne, Baionako trinket berriko nausia. Zer oren gochoa iragan ginuen elgarrekin! Frantchua, milesker hogoi urtheren buruan...

Maiatzaren hiruan⁽⁸⁾ lau egunen jatekoa eman zaukuten eta gauaz gudu tokiari buruz abiarazi. Bide guziak harat eta hunat zabiltzan sol-

⁽⁸⁾ Ms. *hiruran*.

dadoek zauzkaten: ez, ez zen errech ibiltzea. Jada ageri zen nunbeit zerbeit handi bazela. Nun? Laster ikus behar ginuen gure gostuz.

Ez da gure eskuetaratu libururik aski erran duenik zer ifernua izatu den *Verdun*. Hamabi egunez gure begiz ikusi dugu geronek, bainan ez dezakegu bertzeek baino gehiago erran! Eskuarak ez du aski hitz handi eta sarkorrik hortako! Norbeiten izpirituak berak ez dezake-eta asma! Hain chuchen, egun batez, Douaumont delakoari buruz ginoazilarik, bidean buruz buru egin ginuen Ybarnegaray jaun deputatu gure adich-kidearekin. Hango ifernua jastatua zuen jada. Jauzi batez gainerat ethorri zitzaunkun, besarkatu gintuen, eta erran: “to, gaizoa, Jainkoak zaint hezala!” Jainkoak zaindu gintuen, ezen hau finka dezakegu, eskuetako bortz erhiak juramentu egiteko elgarri lothurik: Verduneko ifernutik ez da bizi eta oso atheratu, Jainkoak zaindu duena baizik!

Baitire erraten dutenak egungo egunean ez dela gehiago mirakuilurik ikusten, gu bezala Verduneko ifernuan sartu balire eta handik erre gabe atheratu, ez litazke hola mintza! Guk eta gure lagun batzuek zango-besoak oraino ukhaitea, horra mirakuilua!

Gau guzia bidean ibili ginen, nihun gelditu gabe: argia ginuen halere gure tokitarat heldu orduko. Argi zabala gero! Batzu gelditu ziren Tunnel de Tavannes delakoan, bertzeak Fort de Vaux delakoan, gutiz gehienak erreketarat joan, haatik. Erreketarat joan? Nun ziren errekek? Ez zen nihun bat ageri lur irauli hortan...

Manua ukhana ginuen, harat joaitean, zernahiren gatik zehe batez gibelat ez egiteko, lekhuaren gainean hiltzeko oro alemanak buruaren al-tchatzerat utziko gintuen baino lehen. Manu bera eman zaukuten bizpahirur edo lauzpabortz egunen buruan Thiaumont deithuaren aintzinerat igorri gintuztelarik ez dakigu zertako. Obusa erauntsi lazgarrienen gatik, aire pozoindatuen gatik. jada han eta hemen usteltzen ari zirenen usain ezin jasanaren gatik, gose-egarrien gatik, ororen gatik, ez ginuen bururik gibelat itzuli. Berrogoita Hamazazpigarreneko gizonek Verduneko aldia bururatua ginuela erran zaukutelarik baizik. Lauehun eta berrogoi hil han utzirik, joan ginen pausurat. Ehunka kolpatu, bertzalde.

Verdunen izan diren soldadoetan bat ez da, gogoz edo bortchaz, bere eginbidea ederki bethe ez duenik. Batzu badire, haatik, bertzeek baino gehiago egin dutenak. Nola ez aipha eskualdun bat hemen? Etchegoyen senpertarra, Achkonatarretarik bat. Donibanen dago egungo egunean. Karrikan ikusten duten haurrek gapelua khentzen ahal diote lurreraino! Kanoiak karrasiaka ari ziren batez, mandatari bat galdetu zuten hitz bat norapeit helarazteko. Bere burua eskainirik, eta kasik segurki heriotzeari buruz zoala jakinagatik, Etchegoyen abiatu zen lasterka. Horra nun bide erditarat gabe obusa batek ehorzten duen. Lurpetik hats bahi hamahirur orenen buruan ateratu zutelarik aintzindariari badakizue zer erran zuen gaizo eskualdunak? “Barka othoi, hitz hau ez badut oraino helarazi! Nahuzue oraino egin dezadan?” Erran gabe doa ez zutela utzi; bainan ba gerizarat *nabi bazuen eta ez joanarazi*.

Ez dugu menturaz bertze behin soldado kaskoinik hemen aiphatuko, eskualdunekin berekin ukhanen baitugu zer erran, bainan Camales dei-thu gure lagun batek merezi du. Mandatu baten norapeit erematerat z oan hura ere, Etchegoyen bezala. Kolpatua da bidean: zangoek ez deza-kete gehiago ez ibil ez atchik. Herrestan helduko da bururaino, odola purrustan doakiola, mandatua doi-doia egingen du eta han berean... hila eroriko! Gaizo Camales!

Hoberenetik ere, soldadoek ez zezaketen luzez irauin Verdunen: gehieneri zainek gaina hartzen zioten, bertzeak zenbeit egunen buruko burutik joanarazten zituen egartsuak. Ez daki pairatzea zer den behinere luzez edan gabe egotu ez denak! Sofrikarioen sofrikarioa, hori da segur! Aise sinhetsiko duzue, beraz, nola atsegin hartu ginuen hamabi egunen buruan ifernu hartarik atheratu ginelarik!

Ligny-en-Barrois herri pollit bat da eskualde pollit batean. Harat ereman gintuzten pausatzerat, eta han iragan gintuen hogoi egun gocho. Arrats gehienetan inguru guzietako eskualdunak elgarretarazten ginen, elizan elizkizun maite zerbeit eginik, gero bi mus partidaren ostatuan egiteko. Han egin gintuen bereziki hendaiar andana baten ezagutzak. Zer gizon gazte maitagarriak B. Pardo, E. Molle, J. Avril, B. Olascoaga,

A. Eguimendi, A. Etchenausi eta izenak galdu ditugun bertze batzu! Bainan, gerlako denboran erreka beretan hain adichkide ikusi ditugun adichkide horiek zertako behar ditugu orai bi erreketan ikusi? Hainbertze eta hainbertze lagunek beren odola bakearentzat ichuri-eta, zertako behar dugu orai gerlarien arteraino gerla ikusi? Ezin sinhetsia da holarikorik badela nihun.

Verduneko akhidura joan orduko, gure zainak beren ozkan eman orduko, Argonarat manatu gintuzten, eta treinek lau oren laburrez ereman gintuzten haradino...

V. Argonan lau ilhabetez, eta handik lekora

Argonan ba omen zen gerla aintzinean La Harazée deithu herrichka pollit kochkor bat. Gu harat orduko, han ez zen gehiago etche karkail bat baizik chutik zagonik. Aski dilindan hura ere segur! Etche haren aintzinean iragaitean gu baino lehenago han ziren gure bi adichkide maite L. Dassance uztariztar eta orai Baionako Ikastegi handi batean irakasle den A. Bourdet jaun aphezari doi-doia erhi punttez agur eginik, berehala jo ginuen Fontaine-aux-Charmes delakorat. Laster erran dezagun, haatik, ez dakigula nihork zer atcheman dion egundaino holako zokoari holako izenaren emateko! Hango errekek behar gintuen atchiki, lau ilhabetez, aldizka gure lagunekin Camp-de-Dubiefville eta Croix-Gentin oihan artean⁽⁹⁾ gerlak sorrarazi taulazko bi herrichketarat jautsiz, Ste Menehould eta Florent ez ziren urrun noizetik noizerat aire hobechago baten hartzerat joaiteko.

Mila bederatziehun eta hamabortzean gudu itsusienak, ikaragarrienak ikusi ziren Argona hortan; gu harat heltzean ez zen gehiago kalapita handirik, bizpahirur egunetarik *crapouillots* direlakoan kalapita okhazta-

⁽⁹⁾ Ms. *oibanartean*.

garría salbu. Ez zuten, haatik, beilariak lokhartu behar, etsaia noiznahi gutaraino hurbiltzen baitzen othardiz othardi, soldado bat edo bertze ebatsirik berrien jakiteko. Bere chederik ez zuen behinere bururatu. Behin gure errekarat jauzi egin zuen achuant aleman alimale bat hantche gelditu zen zabal-zabala gure beilariaren aintzinean, hunen baioneta alde bertze!

Geroneri aste gehienez hola-holako entseiu bat edo bertze eginarazi zaukuten lau ilhabete horietan aintzindariak. Debaldetan, gutiz gehienak. Atzarriak zauden, gu bezala, alemanak.

Agorrilaren hogoita zortzian atsegin handirekin ikasirik Italia gure alde gerlan sartu zela, paper muthur batzu harri batzueri lothurik, berehala besainka, hek ere ikas zezaten, igorri giniozkaten alemaneri. Alemanez emana ginioten berria. Ez du iduri hainitz lotsatu zirela, eta frantses edereanean badakizue zer ihardetsi zaukuten bide beraz? “Hemendik goiti ez du balioko bururik hauts dezazuen guri berrien alemanez igortzeko: frantsesa ere badakigu”. Zer musikariak! Bainan heien musikak bezenbat harritu gintuen aleman batek harria guk bezen urrun igortzeak!

Gerochago bertze berri handi bat hedatu zitzaukun bet-betan: biharamunean Clemenceau zaharra ethorriko zitzaukula ikusterat. Ez ginuen sinhetsi. Bainan biharamunean han baiginuen gure Clemenceau! Oren pare batez errekarat erreka ibili zen, ikusi zituen soldado guziekin elhe egin, pipa eta muntra zernahi partitu, eta, alemanak zerbeitez suspichtu orduko, lohiz belhaunetaraino orratua etcherat itzuli... gu erauntsi eder baten azpian utzirik! Segur ez zuen holakorik bilhatu gizagaizoa, ez: bainan, lehengoaren gainerat, bai benedikatu zutela orduan zenbeitek! Ez da gutiago⁽¹⁰⁾ egia halere adin hartako gizon batek, hura ibili zen bezala eta behar gehiago gabe, han ibiltzeko, birrikak bere lekhan behar dituela!

⁽¹⁰⁾ Ms. *Ez da guti egia.*

Handik goiti Argona phizten hasi zen gehichago. Alemanek uste othe zuten Clemenceau bethi han zabilala! Ez zen gehiago egunik joaiten alemanekin grenada partida bat egin gabe. Behar andiz? Ez dakigu. Batzuetan aintzindariak manatzen zaukuten, eta bertzeetan etsaiak berak kitzikan hasten. Hola galdu gintuen hogoita hameka lagun gaicho eta kapitain bat, urriaren lehenean *Camp de Mailly* delakorat abiatu arte. Gerlako molde berri batzu ikasi behar omen gintuen lehengoan gainerat.

Ikasi othe ginuen deusik? Ez dakigu, denboraren buruan. Dakiguna da bi ilhabete handiz oren gocho onik iragan ginuela han eta inguruetakoko herrichketan, kanoietarik urrun, jan-edan ederretan, ilhuntsetik argi handiraino nahi ginuen bezenbat loz aseak!

Oren gocho horiek ongi pagatu gintuen, haatik, hazilaren hogoita bederatzitik harat. Orduan, *Ramerupt* eta hango atsegin guziak utzirik, mando batzu bezala kargatuak lothu ginen bideari. Eta hamahirur egunez bideak ereman gintuen l'Oise deithu eskualderaino. Zer izerdiak ichuri gintuen Frantziako hegal batetik kasik bertze batetaraino joaiteko? Bizkarrerat hartu gintuen euri eta barazuzak, bertzalde!

Han ere ez gintuzten gudura berehala deithu. Abendoaren hogoita laua zen Berny-en-Santerre delakoari buruz abiatzeko eta han Hamaseigarrenak zenbeit egun hartan zerauzkan errekek hartzeko manatu zaukutelarik. Eguberri pollita iragan ginuen, beraz, gure toki berrien ondolik... belhaunetarainoko saltsa ikaragarri batean!...

Eskualde guti ikusi dugu gerlak larrutuagorik orduan ikusi ginuena baino. Herririk ez etcherik ez zen nihun gehiago ageri. Bideak, phentzeak eta oro bardintsu ziren, oro kanoiek irauliak. Bertze orduz *Verdunen* ikusi gintueneri ez zuten batere zorrik *Somme*koek. Eskuarak dion bezala: Jatxu eta Haltsu, bigak igualtsu!

Ez zuen oraino hainitz denbora alemanak handik joanak zirela, kukuak makhur jorik. Ez gintazken, beraz, nolanahi eta noratnahi mentura: minak izan zitazken gutienik uste zen lekhan. Nahi eta ez, ahal den bezalako geriza lasterregi egin batzuetan behar ginuen etzan eta pausatu, zangoak bethi bustiak, hotzak koropilatuak. Eskual Herrian ez

dakigu segurki han gaindi ukhaiten dituzten hotzen berri. Guziz urthe hartan batzu egin zituen ikaragarriak! Ogia bera zenbat aldiz ez zaukuten hormatua ekhartzen! Eta hitz dautzuegu ogi hormatua zer den ez dakienak ez dakiela zer den jateko higuingarri bat!

Bertzalde, gure zango gaizok zer ez zuten ikusi hango lohi zuri hotezean! Badire gure lagunetan han beren biziko maingutu direnak, eta geronek ez dakigu hainitzetan zangoen gainean gabiltzan ala taula muthur batzuen gainean! Urus oraino gu bezenbat ere ibil ditakeena...

Balio othe du hau ere erran dezagun? Haurrentzat bederen, ba. Eskualde hortan egun batez asto ttipi-ttipi bat hil urren oihan batean atchamanik, Edouard Lahirigoyen hazpandar gure lagun batek berehala ereman zuen *Sukaldeak* deitzen ginuen generat. Amodiorekin artatu zuen ondoko egunetan, eta gure astoa phiztu, alaintso! Cappy eman ginion izena, herri hortan sortua zitakeelakotz. Gerla guzia gurekin egin zuen asto gaichoak eta ibiltzen ginuen herrietan guk baino behatzaile gehiago bazuen. Gerla ondoan *Libournerat* Berrogoita Hamazazpigarrenarekin ethorri zelarik, harritzeko begitartea egin omen zioten orok. Egia erran, haren fama aspaldi hedatua zen hiri guzian: egunkariak berak zenbat aldiz ez ziren hartaz mintzatuak! Hain maitagarria zen bertzalde! Aski zuen Berrogoita Hamazazpigarreneko norbeit nunbeit usnatzea, berehala ondolik ter ter ter jarraikitzeke. Gaicho *Cappy!*

Bainan gure irakurtzaileek othoi barka dezagutela asto batez hoinbertze mintzatzea. Gure zangoetako gaitzarekin hura dugu Somme deithu guneko orhoitzapenik handiena...

VI. Bide-lanetan eta... ostatuan

Le Gallet, Catteux, Le Saulchoy, hirur izen deus handirik erraten ez daukutenak hogoi urtheren buruan. Eta hor ditugu gure paperetan! Bizkitartean kaskoari arras emana dugu hirur herri horietan kausitu gintue-

la bide egiten ari *Compagnies Disciplinaires* famatuak. Beren uliekin utzi baigintuen, ez zaukun den gutieneko makhurrik gertatu heiekin gurutzatu ginen lauzpabortz egunetan.

Bainan bethi ikharan bizi behar denean ez da bizirik eta ez ginuen guti atsegin hartu chori horietarik urrundu gintuztenean, l'Avre ibai kochkor baten bazterrerat joanarazteko. Han ez ginuen etsaia zaintzea baizik, higitu gabe.

Ez gintuen, haatik, bederatzi egun labor baizik iragan ur hegi hortan; bainan, zer elhurak! Jainko maite-maitea! Gure bizi guzian ez dugu hainbertze ikusi nola han denbora gutiz! Etsaiak bakea utzi zaukun, beharrik: *Ligne Hindenbourg* delakoari buruz zoan jada, jauzika-jauzika, guri ohartzerat sobera eman gabe. Ez ginuen, beraz, sei gizon baizik galdu gune hortan bederatzi egunez. Deusik ez da segurki, bainan sei seme horiek galdu zituzten burhaso gaichoentzat aski halere!

Orok amets gozo bat egina baginuen aspaldi: alemanak gibelat abiatuko zirelarik, gu ondotik jarraikiko ginitzaiotela hek hastean guri egin ziren bezala, irriz eta kantuz, trufa mihiaren puntan, banderak haizeari zabalduak. Eta horra nun, martchoaren lehen egun hetan aintzinat abiatzeko keinuaren beha ginaudelarik, bertze zerbeit galdetzen daukuten⁽¹¹⁾: Ehun eta Hogoita Hirurgarrenarekin lehenbailehen joaiteko Méry eta Tricot deithu herrichketarat, han ukhanen ginuela nola josta... bide antolatzen! Zerua gainerat erori balitzauku, ez ginen manu hori aditzean baino gehiago harrituko. Guk gerla egin nahi eta bide antolatzen denbora galdu behar!

Aise sinhetsiko gaitutzue zerbeit aitortzen badautzuegu: bide hetan ez ginuela, haatik, hezur handirik hautsi! Ardura ostatuan ginen. Ofizioak nahi othe duen hori?

Tricot herri pollit bat baitzen gutarik aski hurbil, *Hazparne* eta *Ezpeleta* bezala dena ostatu, gure irabazi guziak eta gehiago harat zoazin.

⁽¹¹⁾ Testu argitaratuan *Eta horra nun, [...] galdetzen daukute*; eskuizkribuan *Eta horra nun, [...] galdetzen daukuten*. Bi aukera hauetatik eskuizkribukoa da zuzena zehar-galdera garbia baita.

Egun batez hamar bat eskualdunek deliberaturik elgarrekin afari ontto bat egin behar ginuela, ilhuntsuan joan ginen herriko ostatu pollitenerat. Irri pollit bat ezpainetan etcheke andereak sarrarazi gintuen barnerat eta zer nahi ginuen galdetu. Afaldu nahi ginuela, eta ahal zen bezen ongi afaldu oraino. Mila intzirina hasi zauzkun orduan, baizik eta deusik ez zutela etchean, edo bederen deus guti, ez zitzaioleta errech jateko zerbeiten eskuratzea, eta mila holako. Orotako leloa baitzen hori, ez ginuen amor eman eta hitzartu ginuen bira arroltze erreko zauzkula, beraz, chingar zathi eder banarekin, ordu arte bi pinta arno churi edanen gintuela. Hamar eskualdunek zer egin bi pinta arnoren aintzinean, museko manerarik ez badute? Kantuz hasi ginen eman ahala. Iduripena dugu “Andre Madalen” hasi ginuela lehenik, etcheke andereak Madalen zuke-ela menturaz izena. Bainan berehala athea tanpalakoan idekirik, itzuli ginen oro eta han tente etcheke anderea ikusi, bi nigar chorta handi matheletan, gure beha eta beha, harritua.

—Eskualdunak othe zaituztet?

—Bai, anderea.

—Eskerrak Jainkoari! Ni ere hala naiz. Gerla hasiz geroztik egun hunen beha nindagon. Oi, Eskual Herri maitea!

Et orduan dar dar dar bere ichtorio guzia erran zaukun gure aldean jarririk, nola gazte-gaztean Pariserat joan zen sehi, adihkide batek tokia bilhaturik, nola Parisen ezagutu zuen ostatu hartako semea, nola Chuberoko herrichka batean ezkondu ziren, nola aita-amek geroztik ostatua utzirik hek hartua zuten, eta hau, eta hura. Gu jaten hasi eta ere, ichtorio kondan ari zaukun oraino. Emazte gaicho haren atsegina!

Erran gabe doa arrats hartan afari onsko bat egin ginuela, chubero-tarrak eskualdunentzat chingar eta arroltzez bertzerik atchewan baitzuen.. hasteko intzirinen gatik! Eta, gehiago dena, sosik ez zaukun hartu, gure Eskual Herriko kantuekin aski jende bildu giniola ostaturat! Alta, untzi gehienak milikatu giniozkan, ba!

Denbora hortan, alemanak *ligne Hindenbourg* hartarat biltzen ari ziren. Frantsesak ere bertze manerarik hartu behar zuten, beraz. Horra zertako

gerla hastean⁽¹²⁾ ezagutu gintuen chokho batzueri buruz abiarazi gintuzten martchoaren hogoita bortzean. Sai egunez elhur-erauntsien azpian St. Just-en-Chaussée, Liancourt, Creil, Senlis eta Nanteuil iraganik, lehertuak jo ginuen *Sains-Morainvillers* delakoraino.

Herri hortan ongi pausatu-eta, apherilaren bortzean jauzi batez joan ginen Bezu-St-Germain delakorat: zortzian Villemoyenne ikusi eta goratu ginuen ederki: Chéry-Chartreuse hamabitik hamalauerat.

Artean erran dezagun, ikusten duzue ez dela gerla bezalakorik lutelestiaren ikasteko. Lutelestia? Ba: erdaraz *la géographie* erraten diogu lutelestiari.

Hamabortzean, egundaino bezala, bidearen gainean ginen. Zer atseginekin ikusi gintuen *St-Gilles, Baslieux, Blanzly-les-Fismes, Glennes* eta aspal-di ezagutzen gintuen bertze herri batzu. *Revillon* ez zen arras chehatua oraino: han egin ginuen lo.

Eta huna apherilaren hamaseia. Oldar handiaren eguna, diotenaz. Argia gabe aireetan zabiltzan munduko airetako guziak, batzu gurutze beltz bat azpian, bertzeak Frantziako hirur koloreekin. Marchand jeneral famatuaren soldado beltzek behar zuten lehen jauzia egin. Heien ondotik behar ginuen, guk, suan sartu.

Bainan baduk hoberik! Egun guzia leze beltz batzuetan iragan ondolan nundik zer ikasiko ginuen, horra nun arratsari buruz berri tzar bat ekartzen daukuten: gure kanoiek uste zuten baino lan gutiago eginik, soldado beltzek ez zutela etsaia aski urrun fueratu. Biharamuna leze beretan iragan ginuen, beraz, eta ondoko gauean, Marchand eta beltzak beren lanari utzirik, itzulika-itzulika bideari lothu. Zer euriak ari zituen! Hirur egunen buruan Craonnelle sudarraren aintzinean ginuen.

Ezagun chahar bat Craonnelle ere segurki. Bainan nola hondatua guk mila bederatziehun eta hamalauetan ikusiz geroztik? Ageri zuen han gaindi ibili ziren soldadoak ez zirela bethi geldirik egon. Funtsean, etche

⁽¹²⁾ Testu argitaratuan *Horra zertako gerla gastean*; eskuizkribuan *Horra zertako gerla bastean*. Garbi dago eskuizkribukoa dela aukera on bakarra.

guziak oraino chutik ikusi bagintu ere, frogatzeko askiko zen bide bazterrerri behatzea: alde guzietan ez zen gurutzerik baizik ageri! Taulazko gurutze ttipi batzu izen choil batekin! Zenbeit aldiz, izenik ere ez!

Gurutze batzu izenik gabe? Nola ditake hori? On da hemen bi hitzez erran dezazuegun. Hileri ez bazen seinale zerbeit atchematen, batzuetan nola eman izen bat kanoiek phorroskatu haragi phuska heieri? Hilak berehala altchatzen ahal izan balire, kanoikaldi berrien phazka utzi gabe, nihor ez zen galduko sekulan, edo bederen nihor guti galduko zen. Hilak ez zitazken berehala altcha bethi, horra egia. Eta horra zertako burhaso gaicho batzuek ez duten egundaino beren haurren berririk ukhan! ez ukhanen!

VII. Maiatzaren bortza eta seia

Hogoita batean berritz etsaiaren parrerat joan ginelarik eta berrehun bat metretarat hurbildu, ez ginen, menturaz uste duzuen⁽¹³⁾ bezala, zalapartan tiroka hasi. Gure haintzurreri lothu ginen berehala, eta oro. Iguzki choragarri bat agertu zen hainbertzenarekin. Horri esker, zer lanak egin gintuen hantche hamar bat egunez! Alemanak ez ziren haintzurtzen ari denbora hortan: erran ditake ez zauzkula ichiltzen. Lagun frango hil zaukuten.

Zertako ez ginioten ihardesten? Maiatzaren lehen egunetan egin gogo ginuen oldarrantzat, zer gerta ere behar baigintuen aintzineko egunetan kanoiek hala itzuliphurdikatuak ziren erreka hek hein bat bederen erreberritu: horra! Plateau de Vauclerc behar ginuen, guk, etsaiaren aztaparretarik khendu.

Maiatzaren laua hautatu zuten aintzindariak oldarra hasteko. Airetako batzu aski goiz oharturik frantses kanoiek oraino lan gutisko egin

⁽¹³⁾ Testu argitaratuan *menturaz uste dugun bezala*; eskuizkribuan *menturaz uste duzuen bezala*.

zutela gure aintzinean eta zokho frangotan, geriza ederretan, zimentaz eginikako geriza ederretan, alemanak ongi gure beha zaudela, ez ginen higitu. Gure eskuinean, arratsaldeko lauak ondochean, bertze soldado frantses batzu oldartu ziren, haatik, etsaiari eta, begiak idekitzeko astirik utzi gabe *Craonneko* malda hartu zioten.

Gure erreketarik choratuak beha egon ginitzaioten lagun gaizoeri, eta, nihork manatu gabe, oro esku joka hasi ginen herriko pilota partidetan bezala, maldaren punta-puntan frantses banderaren landatzen ikusi ginuelarik soldado bat. Jauzian oro aintzinduak zituen. Ondoko egunetan ikasi behar ginuen bakarrik soldado hura aphez eskualdun bat zela, sortzez milafrangarra. Egungo egunean Afrikan aphezpiku da: Mgr St Pierre.

Oi, bortzean argiko aditu gintuen orroak! Gu baino lehen iratzarri-rik, goitika zalapartaka ari ziren Alemania guziko kanoiak. Hileri zainak inharrosi ez baziozkaten goiz hartan, sekulan ez diozkate inharrosi!

Bederatzi orenetan abiatu ginen alemaneri buruz, othoitz labur batean gutiz gehienak Lurdeko Ama Onari gure buruak fidaturik. Hiltzeaz nola orhoitzen den holakoetan gizona, munduko irri, phesta eta jauzietan⁽¹⁴⁾ aisegi ahanzten badu ere!

Guk ez dugu gerlako aski jakitate phondutik phondurat bi egun horietako gudueri jarraikitzeke. Laster eta laster gal gintazke “boyau Camberg”, “boyau Stauffen”, “boyau Neckar”, “boyau Ranstadt” eta bertze holako erreka batzuetan. Badakigu, haatik, izen horiek guziak alemanez direla. Eta nola maiatzaren bortzean edo seian Stauffen eta Ranstadt eta orotan sartu baiginen, alemanak garhaitu gintuen. Ausiki eder bat egin ginuen heien eremuari. Nahi bezalakoa? Ez naski. Bereziki zimentaz eginikako bizpahirur gerizek ez gintuzten hurbiltzerat baizik utzi. Bazinakite zer odol-errekak zoazin geriza horien aintzinean, bortzean, eguerdi gabe jada!

⁽¹⁴⁾ Ms. *jauchietan*. Uste dugu *jauzi* hitzak ez lukeela bustidurarik behar. Bestela esan, hutsa dela uste dugu.

Bizpahiruetan etsaiari iduritu zitzaion naski lotsatuak ginela, odol hustuak ez baginen, eta guk hartu lurra berritz beretzeko jauzi egin zaुकun gainerat. Hamar urhatsetaraino errabian ari izanik tiroka eta grenadakaldika⁽¹⁵⁾, azkenean baionetekin urrundu gintuen alemanak aldi bakhotch. Bainan ez zuten aise etsitzen eta ezin bertzela eginak sarrazten zituen beren gerizetan segurki azkenean! Aitortu behar da gerlari handiak direla alemanak eta heien garhaitzeko ez dela nornahi aski! Ez, futcho!

Hirurehun hilez goiti ukhan ginuen gudu horietan, eta bortzehun kolpatu hurbil-hurbila.

Hemen egia erran dezagun zabal-zabala orai: bi egun horietan gizon frango galdu ginuela funts handirik gabe eta debalde, zimentazko geriza heieri buruz! Kanoiek beharko zituzten lehertu lehenik, nun ziren airetakoek ongi erakutsi ondoan, eta gero guk phikondo⁽¹⁶⁾ batzu bezala biltzen ahalko gintuen min gutirekin. Hola, hamar lagunetarik zortzi ez ziren eroriko. Egia erran, halabeharra bazen!

Nahiz bi egun horietan aski egiteko ukhan ginuen gure buruarekin... orok bezala, hainitz behatu ginioten gure laguneri. Harritu gintuzten. Aspaldi baginakien, froga hoberenak emanak baitzauzkuten, hainitzen egiteko on zirela: ez ginuen halere uste hoinbertze egin zezaketela aire pozoindatu eta obusa erauntsien kontra. Jainkoaren kreatura guzietan segur bat ez da gizonak bezenbat bihotz duenik ez eta ere gizonak bezenbat jasaiten ahal duenik! Zer eginik eta zer jasanik ez zituzten azkenekotz begiak hetsi hainbertze eta hainbertzek han! Nahiko gintuen hemen han hil zauzkun eskualdun lagun guzien izenak lerro-lerro ezarri, haur guziek gogoz ikasteko: ondikotz, oro ahantziak ditugu salbu batena: D. Larretche guzien artean maite ginuen laphurtar ichil eta gozo bat⁽¹⁷⁾.

⁽¹⁵⁾ Testu argitaratuan *grenada ukaldika*; eskuizkribuan *grenadakaldika*.

⁽¹⁶⁾ Ms. *phiko ondo*.

⁽¹⁷⁾ Testu argitaratuan *gocho bat*; eskuizkribuan *gozo bat*.

Han kolpatu zaukun ere lagunetan hoberen hoberena: J. Landetcheberry aphezgeia. Ilhabete baten buruko gibelat ethorria ginuen, haatik, erdi sendo, bainan begitarte churi oraino, bertze zenbeit bezala eritegie-tako bizi gochoari aztaparka lothu gabe. Alta, bere hamabortz edo hogoi mila arimekin Fontainebleau hiri gustagarria eta lakhet-lekhu ditake⁽¹⁸⁾ ba!

Maiatzaren seian kolpatu zen J. Landetcheberry. Gerla aintzinean Baionako apheztegian herritar bat baitzuen aphez egiten ari zena hura ere, Beurieux derizan herrichkan atcheman zuen, bera bezala kolpatua, artatzerat joaki. Maiz gertatu othe da herri bereko bi aphezgeiak bi gunetan egun berarekin kolpatzea? Naski ez. Bigak sendatu ziren, Jainkoari esker. Bat Garroko ikastegiaren buruzagi da, bertzea Baionan eskola ematen ari. Bainan herritarrak direla erran badugu⁽¹⁹⁾, ez othe dugu erran behar zoin herritakoak? Landibarrekoak dire. Eta, hasian hasi, lehenaren izena salatu dugunaz geroz, sala dezagun orobat bigarre-narena: J. B. Lompageu.

Hogoita bat aintzindari eskas, hamar hilak eta hameka handizki kolpatuak, Berrogoita Hamazazpigarrena gehiago ez zagoken etsaiaren aintzinean. Bururik gabe, gorphutzik ederrena deus ez da. Erreka lazgarri hetarik atheratu gintuzten, beraz, eta pausatzerat jautsarazi inguruetako herrichka batzuetarat. Han ukhan ginuen atsegin handi bat: egun batez Goñi kanbo-arrarekin eskuin eta ezker aire hartzen ginabiltzalarik, Baionako Territorialak ikusi gintuen. Gure lagun gaizoa ez zen guti harritu, gutienik ustean, bere anaiarekin bidegurutze batean buruz buru egin zuelarik! Nola elgar besarkatu zuten bi anaiek! Familia handi batetako zaharrena eta gazteena ziren eta ez dugu uste gerla hasiz geroztik elgar ikusia zutela...

Baslieux eta Maizy jada aiphatuak ditugu bizpahiruetan: harat ethorri zitzauzkun errearoaren hamabi edo hamahiruan beribil handi batzu, hartu eta Alszakako eskualderat eremateko. Gure odol gorrienaz busti, bietan busti gunek ez gintuen gehiago ikusi behar...

(18) Testu argitaratuan *litake*; eskuizkribuan *ditake*.

(19) Testu argitaratuan ez dator adizki honen ondoren komarik, eskuizkribuan, bai, ordea.

VIII. Ballersdorff eta Champagne

Ez dakigu Alsazako eskualde guzian baden Balledorff baino herrichka pollit eta gustagarriagorik. Hartan gelditu ginen, herri eta eremu frango bidean ikusirik. Hango jendea han bizi zen bethi: jende on bat, soldado frantsesari arras atchikia. Nihork nihun ez dauku behinere begitarte hobeagorik egin. Chaharrek bereziki ez zakiten guretzat zer egin. Gazteekin ere ederki elgar aditzen ginuen, haatik, nahiz frantsesean baino trebeago ziren oraino alemanean. Bizkitartean etche gehientsueta-rik norbeit bazen ba Alemaniako armadetan!

Atchiki eta zaindu behar gintuen errekak ez ziren handik urrun: hiruzpalau aneurkin edo kilometretan goretetik. Gure alanbre sailetaraino lur guziak ibiliak ziren. Hortarik ageri da ez zela gune gaichtoa. Hain guti nun egun bethean laborariak beren ontasunetan ikus baitzitazken, haintzurra edo sega bizkarrean! Alemanek ez zuten oraino uste gerlarik galdu behar zutela eta ez zituzten aintzinean berenak zituzten eskualde hek funditu nahi. Egun gochorik iragan ginuela han gaindi erratearen beharrik othe dugu, beraz? Bi ilhabete handiz ez ginuen berrogoita hamar bat gizon baizik galdu, eta hil guti horietan...

Frantses eta alemanen errekak ez ziren bertze gunetan bezen hurbil elgarretarik: lauzpabortz ehun metretan. Egunaz ez ginezaken min handirik egin elgarri: kanoiak ere lo zauden ardura. Gauaz egon behar zen erne, nihor ez hurbiltzerat uzteko. Eskualdun bat bederen badakigu gerla Alemaniako goseteian bururatu duenik, bere zaintzale geriza ttipian lokharturik.

Altkirch deithu herri handisko bat baginuen begien aintzinean. Hango karrketan gure largabichtekin noiznahi aleman soldado batzu ikusten gintuen harat eta hunat ibilki: egundaino ez diotegu tiro bat igorri, bethi inguruetan jostetan ari zaizkioten haur gaichoak hil edo kolpa beldurrez. Guk bezenbat bihotz ukhanen othe zuten alemanek kasu berean? Beldurtzeko da ezetz.

Hala-hala hango elizadorre ederreko leiho batek zer tiro parrapatak ez ditu hartu! Zaintzale batzu baziren han, noiznahi gure airetakoeri tiroka ikusten gintuenak. Ez dakigu behinere bat atchewan dugun, haatik, leihoa zabal izanagatik.

Holako gune on eta gocho baten uzteak min eman zaukun. Nork ez du aise sinehitsiko? Bainan gerla batean ez dago bethi bereri bakean ez eta erdi bakean bizitzea. Champagnarat joanarazi gintuzten, beraz, bidez bide, *Belfort*, *Chaumont*, *Bologne*, *St. Dizier*, *Reigny* eta *Givry* direlakoetan gaindi. Oinetako hoberenen higatzeko bide aski, segur! Hazparnen eginak zitazken gureak: iraun zaukuten.

Champagnan bada herrichka bat Souain deithua, Suippes herri nausiaren aintzinean, Tahure gerla denboran hainitzetan eta handizki aiphatua izan den bertze herrichka bat baino ezkertchago: hango erreketan egon behar ginuen bortz ilhabetez. Nihun sekulan ez dugu han gaindi bezenbat hilherri ikusi. Aise ageri zen noizpeit gudu ederrik izan zela han ere.

Eskualde hortan galdu behar ginuen ondoko egun batez gerla hastetik bethi gurekin edo gure inguruetan zabilan errechimendu eder eta maitagarri bat: Baionako Berrehun eta Berrogoita Bederatzigarrena. Italianoek amor emanik, Italiarat igorri zauzkuten hortako herritar gehienak *Chasseurs* direlakoen jauntziekin, kontrabandichtak mendietan trebe direla.

Berrogoita Bederatzigarrena gurekin utzi zaukuten halere, eta Champagnan noiznahi gurutzatzen ginen hango adichkide onekin herriaz mintzatzeko, bi mus partidaren elgarrekin egiteko... edo chahako zahar zenbeiten husteko. Holako batez egin gintuen zuhaitz motz batzuen gerizan Blazy Uztaritzeko jaun aphez nausiaren ezagutzak. Zer aphez chehe eta bihoz duna!

Ez zen zalaparta handirik gune hartan orduan. Egun gehienak gure haintzurak eskuan iragan-eta, gauari buruz hartzen gintuen bakarrik chichpak eta grenadak, edo alemanak gutaraino heltzerat ez uzteko, edo geroni aleman bat edo bertze gure sareetarat bilduko ginuen ikusterat joaiteko.

Hola galdu ginuen hazilaren hiruan gure achuantetan famatuena. Ez zen ordu arte gizon horrek egin ez zuen eskukaldi ezin sinhetsirik eta guziek oraino gogoan ginuen nola Plateau de Vaclerc hartan berak, berberak, hamalau aleman alimale preso hartu zituen eta tete batzu bezen umil gure erreketan otchatcho⁽²⁰⁾ sarrarazi! Harritzeko biria zuen. Behinere deusek lotsatzen ez dituen gizon hetarik bat, hots. Champagnan atcherman behar zuen bere azken orenak. Ilhundu orduko hamar bat soldadorekin joan zen parrez-parreko lehen errekek bederen ikusi behar zituela eta hango zaintzaleak preso hartu. Etsaiaren alanbreetan bide bat eginik, ororen aintzinean iragan zen eta, bi grenada eskuan, aleman erreketarat jauzi egin “Altcha eskuak” oihu egiten zuelarik han zitazkeneri. Bi chimichtek ihardetsi zioten gau beltzean eta hantche erori zen gehiago ez chutitzeko. Ez dakigu lagunak nola egin zuten gorphutz haren gibelat ekhartzeko alde guzietarik hasi ziren tiro parrapatekin...

Hazilaren hemezortzian liotinant bat harat bererat joan zen gau beltz bati esker. Berrogoi soldado bazituen berekin. Alemanen sathor-zilho guziak ikhertu zituzten, bainan, zerbeiti oharturik, etsaiaren beilariak nunbeit kukutu ziren,... eta gure lagunak eskuak hutsik itzuli etcherat.

Eta bertze zenbat holako itzuli ez dugu Champagnan egin! Astean bat gutienetik. Biga gau berean egiten ere gertatu izan zauku eta lau aleman gurekin ekhartzea!

Alemanak ez ziren gu baino gutiago nahi. Hek ere noiznahi oldartzen zauzkun. Ez zuten, haatik, behin baizik guretarik norbeit ereman, eta, aldiz, frangotan gure eskuetan bizpahirur lagunetaraino utzirik itzuli behar izan zuten!

Holako aldietan baginakien, haatik, biharamunean argiko zer ukhannen ginuen: obusa erauntsi bat ederra. Urus baiginen oraino aire pozoindatuak heldu ez zauzkularik!

⁽²⁰⁾ Eskuizkribuan otchatcho dator. Badirudi lapitzez marra leun bat goitik behera duela: *ot/chatcho*.

Horra nun eta nolatsu, Eguberri-Urtatsak elhurpean iraganik, hasi ginuen gerlako azken urthea: mila bederatziehun eta hemezortzia. Nihork, haatik, ez zuen oraino holako ametsik gutartean: guk irabaztea baizik ez ginuen gehiago gogoan, baiginakien denbora guretzat ari zela lanean, eta alemanek nihundik ez zuten oraino erakusterat ematen amor ematerat zoazila. Gehiago dena, azkartzen ari zirela iduri zuten kasik eta fama bat hedatzen hasia zen erreka gure kontra laster oldar baten egiterat deliberatuak zirela. Baina ez gintuen Champagnan atcherman behar oldar horrek. Martchoaren hogoita batean, kanoi guziak bizpahirur egunez ororen lehertzen ari izan ondoan, hasi zelarik, gure Champagnatik aski urrun ginen jada pausatzerat joanak. Akhabo gintuen, haatik, pausu eta egun ederrak guk ere gerla bururatu arte. Su handia lothua zen.

IX. Noyon eta Mont-Renaud

Georges Gaudy gure adichkide handi bat da: gerlan ezagutu ginuen. Ahal zen guziez elgarretaratuak ginen eta elgarrekin ginabiltzan, politikan eta gainerateko guzietan asmu berak edo bertsuak baigintuen. Gerlaz geroztik ere ikusten izatu zauku. Holako adichkidantzak deusek ez ditu hiltzen, ez urtheek, ez urruntasunak. Bada, Georges Gaudy denboran gerlari on bat balin bazen, orai liburu egile handi bat da. Gure jakinean baditu jada, aski gaztea delarik oraino, bortz liburu choragarri agertaraziak: hautarik bat *L'Agonie du Mont-Renaud* derizana. Erdara dakiten guziek atsegin zorrotz batekin irakur lezaketen liburua, hain da eder eta hunkigarria⁽²¹⁾! Eskuetan ukhan dugu, gure adichkideak berak igorrririk. Ehun edo berrehun herritarreri irakurrarazi dugu, prestaturik. Erran gabe doa azkenean norbeitik ez daukula itzuli. Prestatzen diren

⁽²¹⁾ Ms. *unkigarria!* Hurrengo aldietan, ordea, *bunki-*.

liburu guzien zortea omen da. Jakin baginu! Ezen orai liburu horrek laguntza ederra eginen zaukun errateko ditugunen aski moldean errateko. Gogoz ari beharko dugu edo paper muthur ttipi batzuen laguntzarekin doi-doia. Berrogoita Hamazazpigarreneko gerlari ohi zenbeitetik *Eskualduna* irakurtzen badute, barka dezagutela gure chuhurtzia...

Martchoaren hogoita hiruan sartu ginen beribil handi eta zahar batzuetan eta Epernay, Mareuil-sur-Ourcq, Crepy-en-Valois, Compiègne, Montdidier eta ez dakigu nun gaindi, zoin aldachkaren gainean geldi ez dakiten chori errebelatu batzu iduri, itzulika ibilirik, hogoita hamazazpi orenen buruan *Noyon* deithu hiri ederreko inguruetan pausatu. Jada hango jendea ihesi zoan, harritua. Anglesek amor emanik, alemanak gainerat heldu zitazkoten alabainan. Ez dugu uste Beljikan berean deus lotsagarriagorik ikusi ginuela ahure chahar bat, bere emazte chahar ezindua eskorga batean etzanik, hari pusaka baino! Astelehen bat zen naski, eta hogoita bortza.

Eguerdi alderat manua ekharri zaukuten lehenbailehen joaiteko *Noyon* baino haratchago, etsaiak bethi hurbiltzen ari zirela. Jatekoaren egiten ari ginen bide hegian: tupina guziak ostikoka uzkaile gintuen eta gerrikoak gehichago tinkatu. Erretzeko bero bat bazen. *Noyon* iragan ginuen saltegietako edergailueri hainitz behatu gabe, eta Baboeuf izena zuen herrichka bati buruz abiatu, etsaia han geldituko ginuela athe eta leiho guzietarik tiroka. Baduk hoberik! Alemanak gu baino lehen harat helduak ziren eta athe-leihoetarik guk hek gelditu beharrak, hek gelditu gintuzten gu! Haste ona.

Hain chuchen gure armadako jenerala harat ethorririk, etsaieri ihardetsi gabe berehala gibelat itzultzea manatu zaukun, gostako zena gosta Noyoneko karrketan ahal zen bezenbat denbora atchikitzeke. Horra zer chedetan ginauden gau beltzak hiriaren erdian atcheman gintuelarik. Etche andana bat bazen jada sutan.

Su horiek orotarat hedatzen zuten argiaren gatik, Alemanak ez zitazken guk ikusi gabe hurbil. Kantuz hurbildu ziren hamekak ondochean. Ez zuten uste nihor bazela karrketan. Menerat ethorri zireneko frantses

chichpek beren ametsetik iratzarrarazi zituzten segur! Kantuen ondotik nigar eta karrasiak entzun gintuen...

Bainan, jada errana dugun bezala, alemanak gerlari hautak dire. Behin gibelatzerat bezala egin-eta, berritz laster ikusi gintuen guri buruz heldu baionetak eskuan. Tiro parrapata eder batzuek han berean itzatu zituzten gutiz gehienak, bethikotz.

Handik laster bertze batzu hiriaren bertze buruan gure lagun batzueri agertu zitzaizkoten eta urrundik oihuka hasi anglesak zirela, othoi uzteko hurbiltzerat. Beharrik begi eta beharri erneak zituen beilatzen han zagon liotinant eskualdun batek, Aignerren Sarako jaun errientak. Laster usnatu zuen jukutria eta alemaneri bere gizonen baioneten puntak jastarazi⁽²²⁾.

Hamar, hogoï aldiz oldartu zitzaizkzun oraino gau hartan alemanak: argia hek baino lehenago sartu zen *Noyoneko* karriketetan. Ez, ez zen etsaia hiriaz jabetu, guk aintzindarien manuz utzi giniotelarik baizik, eta zortziak alderat Dauvé jenerala berbera ethorri zitzaizkzun laudorio handien egiterat *Noyon* hola zaindurik, eta othoi bihotz berarekin *Mont-Renaud* zaintzea galdetu zaizkuzun, Pariseko gakhoa zela...

Haran luze eta aberats baten aintzinean mendichka gothor bat, horra zer zen Mont-Renaud hori. Alde guziak ageri ziren puntatik, eta hartuko zuenak hogoita hameka eta eskua bazituzken eskuin eta ezker ibiliko ziren tropen zaintzeko... eta irrisku handirik gabe bere kanoiekin zafrazteko. Beha, beraz, zer balio ikharagarria zuen bai frantsesentzat bai alemanentzat mendichka horrek! Bai eta punta-puntan zeruetan goiti zoan jauregi dorredun batek! Lasterka joan ginen, beraz, mendichkarat eta han landatu.

Ez zen alemanik agertu goizeko hamarrak arte. Gau hartako zauri minen artatzen egon ziren ordu arte, dudarik gabe. Mendichkaren bertze aldean higitzen ikusi gintueneko, tiroka hasi ginitzaioten. Bainan

⁽²²⁾ Ms. eta E. jasta-arazi.

tiroek batere lotsatu gabe, bide guzia hilez emokaturik ere, kasik jauregiraino ethorri ziren eta handik trufaka hasi *franzosen kaput* eta *franzosen kaput!* Bainan gure baionetek sarrarazi ziozkaten trufak eta haratchago joanarazi laster...

Hainbertzenarekin horra nun ordu arte ichilik zauden aleman kanoiak zirurikan hasten diren eta, sekulako grenada-meta baitzen mendichka baino beheratchago Passel deithu herrichkan bildua, hari su ematen dioten. Ikusten duzue orduan gure planta: aintzinean etsaiak gero eta errabia handiagoan oldarka, gibelean mila grenada bederen alde guzietarat zalapartaka! Gerlan ibili denak baizik ez dezake amets gure lana. Gutik egin zuen egun hartan oro ez baiginen han garbitu eta alemanek ez bazuten hainbertze gutiziatzen zuten Mont-Renaud hartu!

Arratsaldeko lauak alderat, mendichka gibeledu su ikharagarriari oharturik, bi aldetarik inguratu nahi izan gintuzten etsaiak. Tiroka phorrokatu gintuen eta ez zuten urhats bat egiten ahal ukhan... aintzinat.

Orduantche aditu ginuen egun guziko lehen frantses kanoikaldia. Zer atsegina egin zaukun! Eta zer esperantzak sorrarazi zituen gure bihotzetan hain ongi ezagutzen ginuen chichtu mehe harek! Ezen orai baginakien ez ginela gehiago bakarrik eta, galdetu orduko, Tarbeko Hogoita Laugarren famatuak ederki lagunduko gintuela! Eta hola ethorri zen gaua, alemanak sudur puntaren agertzerat berritz menturatu gabe...

Biharamunean, beraz, marchoarean hogoita zazpian, argiko kitzikan hasiak gintuen, haatik, berritz, han edo hemen nun atchemanen zuten artechka bat jauregiraino bederen lerratzeke, eta zazpi orenetan meta osoak gainean gintuen. Gure tiro tarrapatek behin lotsatu zituzten eta zortzi orenak arte ez ziren gehiago higitu. Hobeki eginen zuten orduan ere geldirik egon balire. Agertu guziak kalitu gintuen terrepente. Bainan min ematen zioten gu nausi uzteak eta berritz ere oldartzeko, chokho batean elgarretaritzen ikusi gintuen ilhunari buruz. Laster hutsarazi giniozkaten lekhuak. Bardin-bardina, zazpiak ondochean.

Hogoita zortzian ez ginuen hoinbertze kalapita ukhan eta alemanak ez zauzkun behin baizik oldartu. Beren kanoieri batere laguntzarik gal-

detu gabe, ustez eta hola lo atchemanen gintuztela, goizeko zortzi orenetan herrestaka hurbiltzen hasi zitzauzkun. Berehala frogatu ginioten ongi iratzarriak ginaudela eta urrundu ziren... salbu gure aintzinean zabal-zabala gelditu ziren berrogoita zenbeitak...

Are maltoago egon ziren hogoita bederatzian. Bainan gauaz aditu harrabots batzuetarik iduritu zitzaukun hogoita hamarrean zerbeit ikusi behar ginuela. Hala-hala gertatu zen. Zazpiak eta erdietako jada baionetan puntan fueratu behar izan gintuen, hogoita zenbeit gizon alimale⁽²³⁾ preso harturik. Ez, gure bizian ez dugu halako gizon handirik ikusi!

Bederatzietan lehenik, hamarretan gero berritz beren eginahal guziak egin zituzten jauregirat heltzeko. Debaldetan. Eguerdi alderat aleman airetako bat kasik buruen gaineraino jautsirik, airezkaria tiroka hasi zitzaukun. Gosta zitzaion bere kopeta, berehala gure tiroek mustupilka⁽²⁴⁾ lurre-rat aurdiki baitzuten. Denboraren buruan ongi gogoan dugu oraino airezkari haren izena: Max Linder. Hain chuchen denbora hartan bazen zinema horietako komediantetan izen hori izengoitizat hartua zuen bordeles bat eta hunen anaia gurekin ibilia zen gerla hastean: Leuvielle liotinanta.

Handik goiti zer bakea hirur egun handiz! Apherilaren hirua arte aleman bat ez zen higitu. Orduan, haatik, zer tropak oldartu zitzauzkun arratsaldeko hiru orenetan! Tarbeko adichkideen laguntzarekin phorroskatu gintuen.

Ederki da, egin ginuen bezala, behar hortako mendichka baten zaintzea eta etsaia tokiaren gainean itzatzea: ederkiago, ahal bada bederen, handik urruntzea. Horra zer lani lothu ginen hirutik lauerako gauean. Ilhunari esker soldado erne batzu aintzinat menturatu ziren, eskuin eta ezker ibili nun zer ikusiko edo adituko zuten, eta argia gabe berriz kargatuak itzuli Bussy gure koronelaren ganat.

⁽²³⁾ Testu argitaratuan *animale*, eskuizkribuan *alimale*. Elissaldek testu honetan berean beste bi aldiz gehiagotan darabil *alimale* hitza.

⁽²⁴⁾ Testu argitaratuan *mustuilka*, eskuizkribuan *mustupilka*. Hitz zuzena *mustupilka* da.

Izen hori lumaren puntarat ethorri zaukunaz geroz, iduritzen zauku Bussy gure koronela bezalako gizon bati *Eskualdunak* berak zenbeit hitz zor diozkala. Aintzindari handienetan ere ez dire dotzenan hamahirur holakoak. Bertze bizpahirur koronelen ondotik ethorri zitzaukun Berrogoita Hamazazpigarrenerat Bourg-et-Comin hartan ginelarik oraino. Adin bat iduri zuen ordukotz. Gerla Afrikan ikasirik, sekulan ez zuen gudu bat urrundik segituko: bethi han zen bere soldadoen erdian. Ikusi izan dugu oro baino aintzinago ere irrisku guzien gatik. Soldadoak maite zituen eta ez zituen nolazpeitka manatu nahi. Guk ere maite ginuen. Baginakien sekulan ez zuela odol chorta ttipiena debaldetan ichurraraziko⁽²⁵⁾. Orok begiak itsutzen gintuen, beraz, harek zerbeit manatu orduko eta noratnahi baginoazin, lorietan ez bazen, fidos gutietetik. Gerla gurekin bururatu zuen. Hogoi urthe badu horrek, bainan gutarik nihork ez du Bussy koronela ahantzia. Ez du hanbat denbora oraino eskualdun zenbeitek hitzarturik makhila eder bat Larresoron eginarazi ginuela eta gure koronel maiteari igorri. Ordainez hitz bat igorri zaukun berehala eta aithortu egundaino deusek ez ziola halako atseginik egin nola dohain horrek, eta hitzeman hil arte bihotzeko chokhorik hoberenean atchikiko zituela bethi Eskual Herriko bere gerlari ohiak...

Aphirilaren lauean ez ginen oro hilak izan bagine baino gehiago higitu: alemanak lokhartzea nahi ginuen. Bortzean bortz orenetako oro chutituak ginen, haatik, eta zenbeit aintzinat abiatuak. Bide frango egina baginuen etsaiak guri ohartu zireneko. Guk baino lo pisuagoa othe duten alemanek?

Jauzi ederrena bi liotinat eskualdunek egin zuten beren gizonekin: Montalibet maulettarrak eta Lesgoirres Haltsukoak. Urrunago joateko harrasi handisko bat iragan beharko zuten, bainan etsaiak jada haren gibelerat bilduak ziren eta handik tiroka hasiak. Nola hurbil? Ez ziren menturatu: ez zitaken.

⁽²⁵⁾ Ms. *ichur-araziko*.

Seiean, argi-hastean Lesgoirres liotinantak harrasiari buruz bortz eginahal egin zituen. Kanoia ttipi berezi batzu galdeturik, egiazko erauntsi bat igorri zuen harrasiaren gibelean tiroka hasiak ziren alemaneri. Oro debaldetan. Ez zen hurbiltzen ahal izan bezperan baino gehiago. Eta horra nun hainbertzenarekin inguruetako aleman kanoia eta minenverfer guziak marrumaka hasten zauzkun! Berehala ezagutu ginuen zertarat ginoazin: alemanek oldartu nahi zuten. Oren osoak ez ziren kanoikaldiak ichildu eta jauregi eder hura azken harriraino lurrean zen jada, etsaiak chutitzen⁽²⁶⁾ eta hurbiltzen ikusi gintuelarik mendichka guzia zeraukaten erhauts eta khearen erdian. Konda ahala baino gehiago baziren ukhondoa ukhondoari: guk lurrerat aurdikitzen ginuen baten-tzat, biga edo hirur berehala gure chichpen puntan han ziren, irri tzar bat ezpainetan, lurretik atheratu debu batzu iduri. Amor emateko orde, arratsaldeko bi orenetan harrasiatik haratago igorriak gintuen eta geroni harrasiaren kontra landatuak. Ez hainitz denborarentzat, ondikotz! Lauak gabe berritz handik urrunaraziak gintuzten, bati hamar oldarturik. Orduan, hasian hasi, nahi izan zuten eremu gehichago hartu: gure baionetek ez zituzten utzi.

Aphirilaren zazpi-zortzi-bederatzietan zalaparta guti: kanoiak ari izan ziren gehienik. Ageri zuen oro nekhatuak ginela. Hamarrean, haatik, lagun batzuek ustegabeko jauzi bat egin zuten argi-hastean harrasi-raino eta, gainerateko guziak hilik, bi aleman preso hartu. Urrunago ere itzui bat egin zuten eta bertze bi aleman berenkin ekharri. Arratsaldean, alemanen aldi. Ederki bermatu ziren bizpahirur aldiz harrasiari buruz. Debaldetan: aldi bakhotch hondatu gintuen eta gibelat igorri.

Aphirilaren hameka-hamabietan sobera harat-hunat eta kalapita izatu zen oro gogoan hartzeko eta orai hemen errateko. Hamar aldiz bederan alemanak ondo-ondoraino etorri zitzauzkun erho batzu bezala. Erho batzu... edo gizon edan batzu bezala! Ez zaukuten zehe bat lur khentzen ahal izan, bi egun horietan gainerat igorri zauzkuten grenada

⁽²⁶⁾ Testu argitaratuan *chutitzen* beharrean *zeraukaten* irakurtzen da.

meta eta aire pozoindatu guzien gatik. Egun eta oren ikharagarriak segurki. Handiena ikustekoa ginuen!

X. Apherilaren hamalaua eta ondoko egunak

Hogoi bat egun bazuen jada gudu lazgarri horrek hasia zela. Aintzindariak errana zaukuten Mont-Renaud Pariseko gakhoa zela. Ez ginioten etsaieri utzi ez utzi nahi gakho hori. Gutik egin zuen halere apherilaren hamalauan.

Goizeko zazpiak gabe hamar bat airetako aleman, rruuu, rruuu, rruuu, gure buruen gainean itzulika han zabiltzan. Zazpi orenetan hasi ziren kanoiak. Handi eta ttipi, orotarik bazen. Nihun ez dugu egundaino hoinbertze eta hoinbertze aditu batean. Ez ziren luzez ari izan. Oren laurden baten buruko ichiduche ziren. Orduan agertu zauzkun etsaiak. Aintzinean, debru batzu bezala *flammenverfer* direlako su igortzaile lotsagarriak beren mitriolatzeko tresnak bizkarrean; ondotik sekulako grenadari sail luzeak. Kantuz eta irrintzinaka ari ziren, jada bertze nunbeit aditu gintuen bezala, edanak oro. Lehenik, bidean eta traban kausitu zituzten⁽²⁷⁾ frantses gaichoek ez zuten luzez iraun: erreak erori ziren, karrasiaka. Hetan zen, ondikotz, Lesgoirres liotinant eskualduna, jada kolpatua izanagatik bere menekoen kuraieztatzeko han zagona. Hola hiltzen ziren egiazko aintzindariak!

Ez dakigu Haltsun gerlako hilen harrian liotinant maite eta bihoz-dun horren izenik baden. Balin bada, hurrek egun guziez behatzen ahal diote: gerlarien liburuetan ez dute ederragorik irakurtuko. Duguesclin, Bayard, Soult eta gaineratekoekin parrez par ezar dezakete aise Lesgoirres beren herritarra...

⁽²⁷⁾ Testu argitaratuan *Lehenik bidean traban eta kausitu zituzten* [...]; eskuizkribuan *Lehenik bidean eta traban kausitu zituzten* [...].

Gure lehen sailak suarekin garbiturik, bide frango egin zuten alemanek, urrundik igortzen giniozkaten tiro parrapatzen gatik. Ez zitaken bertzela. Eta gehiago ere aise eginen zuten norbeitik nunbeitik oihu egin ez balauku: “Bainan orok tiro egizue bada su-untzieri, bertzeak geroko utzirik!” Hala egin ginuen eta laster aleman mitriotzaile guziak lurrean ziren, sutan berak. Bardin ginen orduan alemanekin. Ez gintuzten gehiago lotsatzen ahal. Hain chuchen, *flammenverfer* hek erortzearekin, duda bat ukhan zuten ondotik zarraizkiotenek. Beren baitaratzeko astirik ez ginioten utzi. Berrogeita hamar bat frantses jauzian sahetsetik agertu zitzaizkoten eta baionetekin erhainen chichtatzen hasi, haratchago joanarazteko. Ez dugu zeren erran alemanek berehala beren gibelaldeak erakutsi zauzkutela.

Bainan laguntzerat heldu zitzaizkotela lasterka bertze batzu ikusirik, jauregitik ehun bat metretan bezala gelditu ziren. Denbora laster badoa holakoetan: bederatziak eta erdiak baziren jada. Bardin laster joan zauzkun gainerateko orenak, tiroka, baionetakaldika, azkenekotz errabiaren errabiaz chichpa muthurrekin burutik beheiti elgarri kaskaka. Arratseko zortzi orenetan harrasiaren gibelean ziren alemanak... egundaino bezala. Zer eguna! Orhoitzekoa segurki...

Biharamunean nihor guti higitu zela erraiten badautzuegu, sinhetsiko othe gaitutzue? Aise. Alabainan nekheak ez du legerik. Berrogoita Hamazazpigarrenat hondatua baitzen, kasik chirtchikatua, laguntzaileak igorri zauzkuten orduan: Hirurehun eta Hemeretzigarreneko berrehun bat soldado. Hain chuchen zernahi eskualdun bazen horietan. Laster elgar ezagutu ginuen, berehala ez bada. Bethi gogoan dugu nola gero nek oren gocho frango iragan ginuen gure laguntzerat ethorri bi sariant eskualdunekin. Bat mugazaina zen, bertzea Laphurdiko kontrabandicht handienetarik bat. Ez zen, haatik, berehala errateko, Senpereko jaun erretor zenaren Piarres famatu hura: mugari hurbiltchagokoa zen oraino. Gerla hasi baino zenbeit egun lehentchago mugazain harek baziozkan kontrabandicht hari ehun ardiz goiti mendian khenduak. Adichkide handi ziren halere, eta nola musikatzen zuten elgar gure aintzinean!

—Gerla ondoan ez da gehiago menturatuko ene ardieri lotzerat: hemen gizon hiltzen ari izana, badaki makhilarekin kaskako bat emanen diotala!

—Errak, hi bezala ari izana nauk gero ni ere gizon hiltzen! Hire makhilkaldi tcharrari tiro batez ihardesten badiot, adio hi eta hire ardiak! Orhoit hadi!

Eskualdun horiekin mendichka haren puntan iragan gintuen lauzpabortz egunak baino lakhetago guti ukhan dugu gerlan. Arras ongi elgar aditu ginuen alemaneri buru egiteko eta ez gintuen urhats baten egiterat utzi. Egia erran, alemanek beren aldetik ez zuten halako errabiarik erakutsi: iduri zuten kasik gure herritarrekin ongi gochatzerat utzi nahi gintuztela!

Hogoita bi egun bazuen Mont-Renaud gure gain ginuela. Aski egun segurki. Handik jautsarazi gintuzten, beraz, ezkertchago joanarazteko *Ville* deithu herrichka baten aintzinerat, gure mendichka Ehun eta Hogoita Hirurgarreneko soldado biphil eta erneeri fidaturik. Ez ginezaken ordain hoberik utz han. Ez ginuen uste berritz harat itzultzerik izanen ginuela. Bainan apherilaren hogoita hamarrean alemanen *minenverfer* eta kanoiek Ehun eta Hogoita Hirurgarrena kasik leherturik, eskulkaldi bat eman behar izan ginion, jada jauregirat heldurik urrunago abian ziren alemanen gelditzeko, lehenik, urrunago fueratzeko gero. Zer eskerrak bihurtu zauzkun ondoko egun batez Ehun eta Hogoita Hirurgarreneko koronelak! Merezi gintuen...

Erran gabe doa, lehen jada chirtchikatua bazen, orduan azken piruraino higatua zela Berrogoita Hamazazpigarrena. Bagintuen zortzi aintzindari hilak eta hamasei handizki kolpaturik joanak: ehun eta hirur soldado hilak, lauehun eta hiruetan hogoita hamabortz kolpaturik edo eriturik Frantzia barnerat igorriak. Zenbeit galdu, bertzalde.

Hainitz laudorio ethorri zitzaukun Armadatik eta alde guzietarik. Bat bakharrak ez zaukun halako atseginik egin nola gure eskuinean gerlan ari zen tropako koronelarenak. Hona hitzez hitz zer erran zaukun: “Martchoaren hogoita bortzetik hunat bethi elgarri hurbil ginabiltzan,

zuek eta gu. Ez zintuztegun orai arte guti baizik ezagutzen. Harritu eta choratu gaitutzue. Hogoï aldiz irabazia zinukete gerlako chingola. Bozkatuz ematen balitz, urhezko bat eman ginezazueke berehala ene soldado guziek eta nik⁽²⁸⁾. Bai, gora Berrogoita Hamazazpigarrena”.

Atsegin egiten dutela holako elhe batzuek gerlarieri, ezin dudatua eta ukhatua da. Handiagoa eta miletan handiagoa ukhan ginuen, haatik, ondoko egun batez, Mont-Renaud eta inguruak utzirik, handik urrun Berrogoita Hamazazpigarrena eskualdun gehienek elgar atcheman ginuenean! Zer besarkadak elgarri heldu orduko, oro bertze mundutik atheratzen bagine bezala Margny-lès-Compiègne derizan herrichkako ostatu tchar batean! Nausiak uste izan zuen hatean oro erhoak ginela! Bainan gero, oro erran giniozkalarik, zoin gogo onez eman zauzkun zenbeit pinta arno chahar... konduaren gainerat! Kondu eder baten gainerat...

Eskual Herriko elizetan maiatza heldu delarik kantatzen aditzen baitugu *Maiatza da urtheko sasoin ederrena*, mila bederatziehun eta hemezortzikoa baino ederragorik ez da egundaino argitu guretzat...

Bainan maiatzean Ama Birjinari kantatzen zaion kantu maite horrek badakizue bet-betan zertaz orhoitarazten gaituen? Mirakuilu handi bat iduri duen zerbeitez. Behabada. *Passel* jada aiphatu dautzuegun herri ttipian etche guziak aspaldi lurrerat joanak ziren, aleman kanoiek leherturik. Doi-doia elizako alderdi bat zagon chutik eta hartan, chilo batean, Ama Birjina Lurdekoa, erostean bezen berri eta oso. *Mont-Renaud* gure mendichkari beha zagon, zaintzeko bezala. Eta nork daki ez duen harek zaindu, guk baino hobeki edo gurekin? Guillaume Alemaniako enperadoreak oihuka errana zuen Lurdeko Ama Birjinak ez zuela aski bothere izanen aleman soldadoek hautsiko zituzten besoen antolatzeko... eta Lurdeko Ama Birjina baten aintzinean zer hautsi zen? Alemaniako soldadoen nausitasuna. Handik goiti ez dute maiz onik ukhan...

⁽²⁸⁾ E. *eatnik*; eskuizkribuan *eta nik*.

XI. Mont-Lavé eta Saconin

Aitzindari jakintsuna egiten zuten Alemanian Ludendorff: ez ginion gutiago Pariseko bidea moztu, guk. Nola iretsiko zuen hori? Bertze alde batetarat itzuli zituen, beraz, begiak eta *Chemin des Dames* hain ezaguturat bere armada hoberenak igorri. Eta, ondikotz, zilho bat nunbeit eginik, armada horiek abiatu ziren aintzinat, iduri aldi huntan oro erhautsi behar zituztela!

Bethiko beribil handi hetan hartu gintuzten berritz Compiègne Johanna d'Ark Saindu gerlaria erortzen ikusi zuen hiriaren inguruetan eta bederatzi orenen buruan *Laversine* derizan herrichka bati hurbil pausatatu. Herrichka hortan erran beharra zaukuten zoin gune har. Bardinbardina zitzaukun harat edo hunat igor ginetzaten, fidos ez ginuela jada aintzineko egunetan ikusiak baino handiagorik ikusiko. Egia hau da: ez ginuela, haatik, hainitz jostatu behar, manatu gintuzten eskualdean!

Jada iguzkia gora zen, *Saconin* iraganik, eskuin eta ezker abiatu ginearik: airetako alemanek nahi bezala segitu zituzten gure urhats guziak. Horrengatik min handirik gabe heldu ginen gudua karraskan ari zen gunerat. Afrikako soldado batzu ziren han ordu arte. Aldizkatu gintuen berehala eta... oren laurden edo oren erdi baten buruko alemaneri hama-bortz ehun metra lur khendu. Jauzi handia! Ondikotz, handiegia! Horrek galdu behar gintuen arratsari buruz eta biharamunean. Gure eskuin-ezkerretan nihor ez zen higitu: alde guzietarik hartuak ginen, beraz. Maiatzaren hogoita hameka zen.

Ilhuna hurbilago eta etsaien tiro parrapatak usuago heldu ziren. Baina laster ezagutu ginuen zeri buruz jokatu gogo zuten: goizean hartua baiginioten *Ferme Mont-Lavé* erraten zioten laborari etche handi bat haren zaintzen utziak zituzten ehun eta hogoita hamar soldado preso terrepentean harturik, hari buruz. Arrats guzia jauzika ibili ziren alde guzietarat eta halere deusik ez egin: Arostéguy liotinant miarritzar batek ederki buru atchiki zioten: ez zituen hurbiltzerat utzi...

Errearoaren lehenean aleman airetakoen burrunba aditua ginuen argia gabe: zerbeit ikusi nahi zuten... Kanoikaldieri bidea erakutsi zioteneko, Arosteguy liotinant bihozdua zen lekhuana lehertu eta ehortzi zuten bere lagun gehienekin, eta lasterka laborari etcheari buruz abiatu bizpahirur tropa handi. Bospasei ehun bazitazken, elgarri lothuak⁽²⁹⁾. Tiro parrapata batzuek berehala erakutsi zioten ez zela oraino heien sudurrarentzat gure lurrik ez eta etcherik, zaintzale guziak ez zituztela oraino hilak. Orai handik, gero hemendik, azkenean alde zuten lekhotik, hamar aldiz bederen gure lagun gaichoeri oldartu ziren aleman horiek. Bethi debaldetan: ez zuten beren bidea hilez emokatu baizik.

Uste ginuen ilhunak bederen geldiaraziko zituela. Batere. Eta horra nun oihu bat aditzen dugun hamarrak alderat laborari etcheko athean: “frantsesak, ez du balio gehiago tema zaitezten: zatozte!” Alemanek zer irriak eginen zituzten barnean ziren frantsesek sinhetsi balituzte eta chichpak pausatu! Urruntchago harrituak ginauden, gu, zer ikusi edo aditu behar ginuen. Ez ginen luzez beha egon. Botaren araberrako errefera ethorri zitzaieten alemaneri, eta hitz batek, hitz bakhar batek ilhuna inharrosi zuen: “kaka dela!” Gau beltzak beharrietarat ekharri zaukunean, zer atsegina egin zaukun hitz horrek! Argia urratu arte ez ginuen bertzerik ibili gogoan: kaka dela!

Etchea ez dutela lausenguka hartuko etsiturik, zer egiten dute orduan alemanek? Ilhunari esker beren *minenverfer* berrienak hurbiltzen dituzte eta, harria harriaren ondotik etche guzia lehertzen argiko. Beharrik barnean zirenak aski goiz ohartu baitziren irriskuari eta, etsaiak beren lanari utzirik, den mendreneko harrabotsik egin gabe gibealeko athe batetik, bi jauziz, urruntchagoko harpe batean sartu!

Berrogoita hamar ziren gorenetik hola alemaneri buru egin zutenak. Berrogoita hamar bat bakharrik, baina zer gizonak! Ondikotz, hemen

⁽²⁹⁾ Testu argitaratuan *elgar lothuak* dator; eskuizkribuan lehen idazkeran *elgar lothuak* baina zuzendu ondoren *elgarri lothuak*.

emateko ez dakigu Durat kapitainaren izena baizik! Lehentchago⁽³⁰⁾ kapitain horrek igorria zioten dakizuen hitza etsaieri. Ez da harritzeko holako gizona, sariant choil gerlarat ethorririk, kapitaingoraino heldua bazen. Ezin sinhetsia da nola egin zuen oraino buru oldar handieneri delako harpean, eta batere ez dakigu azkenean noiz eta nola atheratu zen handik bere azken hamar gizonekin! Dakiguna da koronelak manatu ez balio atheratzea, hantche hilen zela lorietan! Jada buruan emana omen zuen “kepi” gorri-gorri bat hirur galonekin, orori erakusteko ederki erortzen bazakiela kapitain frantses batek...

Denbora hortan zer ari ginen gu? Sinhetsazue nihor ez zagola lo: ez zen han lokhartzerik. Emeki-emeki alde guzietarik inguratzen ari gintuzten alemanek. Hortzez eta haginez ariz, hein batean atchiki gintuen behin eta oraino bi egunez. Bainan eskuin eta ezkerrean laguntzailerik ez bada gudu batean, deus egitekorik ez da... eskuak altchatzea eta amor ematea baizik. Ez ginuen amor eman nahi. Ez ginuen amor eman. Nolazpeit jeneralari gure manerak jakinarazirik, manua igorri zaukun alemanetarik lehenbailehen urruntzeko. Errearoaren biga zen. Gaua hedatu orduko, parrez par baiginuen malda bat, *Saconin* ahal ginuen bezala erauntsi lotsagarrienen azpian iraganik, malda hari aztaparka lothu ginen. Herriko etche gehienak jada lurrerat ari ziren karraskan.

Eskuineko frantsesak leherturik, argiko berritz gainean gintuen etsaiak. Gu gintuzken naski gehienik partida han gaindi. Egitate batzu badire gizonak sekulan ahantz ez detzazkenak: ez othe zituzten gure batzu oraino gogoan alemanek? Iduri luke.

Berrogoita Hamazazpigarrena urtutchea zen bizpahirur egun hartan. Bainan Bussy bezalako koronel batekin zer ez ginezaken egin oraino? Urhatsez urhats baizik ez ginuen, beraz, gehiago lurrik utzi.

Zehe bakhotcha ederki gusta zitzaion etsaiari, eta, laguntza gibeletik ethorri zaukunean, jada malda hartako ogi-eremuetan itzatua ginuen!

⁽³⁰⁾ Ms. Elissalde *Lehentchago* idatzi baino lehen *Bezperan ere* egin du. Azken hau ezabatu ondoren, ordea, *Lehentchago* jarri du.

Nahi duzue orai jakin zer erraten duen gudu horietaz geroztik esku-ratu dugun egunkari aleman batek? Huna:

“Horra hirur egun gudu gaitzak ari direla *Saconin* frantses herrichkaren inguruetan. Bai, frantsesek bihotz handia erakutsi dute gudu horietan! Tropa troparen gainean igorri dute guri bidearen hesteko! Halere zehez-zehe lur phuska bat hartu diotegu. Ohore, beraz, hogoi bat frantses erre-chimenduren kontra gudukatu diren alemaneri! Frantzia guziko errechi-mendu hoberenak zituzten aintzinean, *Division de Fer* famatua barne”.

Berrogoita Hamazazpigarrenak ez othe detzazke beretzat har eta atchik elhe horietarik zenbeit? Baietz iduritzen zauku. Bizpahirur egun horietan ez ginuen gure aldean soldado frantses handirik ikusi. Norekin parti, beraz, laudorioak? Guretzat atchikitzen bagintu ez bakharrik zenbeit, baina⁽³¹⁾ oro?

Ederki pagatu gintuen, haatik. Maiatzaren lauean koronelak oro bildu gintuelarik handik zenbeit mila urhatsetan, badakizue zenbat soldado eta aintzindari ziren eskas? Hameka ehun. Eta hameka ehun horietan, hirur ehun hil naski!

Hiletan batek min egin zaukun guzien gainetik, adichkideetan leialena baitzen. Hendaiaarra sortzez, Antoine Lafosse postetako enplegatu bat zen gerla aintzinean. Gerlan liotinangorat heldua zen jada. Begitarte onaren egiten bazakien nornahiri, bainan guzien artean euskalduneri, fagore edo laguntza baten galdetzerat⁽³²⁾ joaiten zitzaizkonean. Orok maite zuten. Gaicho Antoine! Hiltzeko bezpera arratsean ikusia ginuen⁽³³⁾ eta mintzatua. Halako lotsa bat bazuen jada hil behar zuela eta ez zaukun gorde. Frangotan gerlan gertatu dena da, hola, hiltzerat zoazinak lotsa horrek hartzea: nor ez diote hori aditu gerlari guzieri?

Eta orai bakhotchari berea. Erran dezagun, beraz, maiatzaren hiruan Tarbeko Hogoita Laugarrenako soldado batzu ikusi gintuela gutarterai-

⁽³¹⁾ E. *baino*.

⁽³²⁾ Testu argitaratuan *galdtzerat*, eskuizkribuan *galdetzerat*.

⁽³³⁾ Testu argitaratuan *ginuen*, eskuizkribuan *ginuen*.

no beren kanoiekin menturatzen eta gutartetik beren kanoiak etsaiaren kontra deskargatzen zirurikan. Segurki birikak beren lekhuak zituzten gizon horiek! Eskuaraz mintzo ziren elgarren artean... nunbeitik⁽³⁴⁾ ere! Ez da, beraz, harritzeko...

XII. Berritz Argonan eta alemanen ondotik

Zer herri ederrak ikusi gintuen oraino berritz Argonarat joaiteko: Pantin, Gretz, Esternay, Fère-Champenoise, Vitry-le-Francois Revigny, Ste Menehould, Clermont! Gogotik treinatik jautsiko ginen segurki karriken ikusteko, bainan gure beha zagon Berrehun eta Hamaseigarrena, Vienne-le-Château eta La Harazée jada ezaguetako gune ilhunetan.

Ez gintuzten toki hobego batetarat igortzen ahal gure zaurien sendatzeko. Hamabortz egun gocho baizik ez ginuen, haatik, iragan hango erreketan. Aitzindariak nunbeitik ikasirik bake denborak akhabo zirela Arbonan⁽³⁵⁾ ere, hamabortz egun lehenago han berean aldizkatua ginuen Berrehun eta Hamaseigarrena gau batez ethorri zitzaunkun eta guk baino hobeki ezagutzen zituen erreka hetan eman, lehen oldarrari buru egiteko. Gu bospasei kilometretan kokatu gintuzten, oihan beltz batzuen erdian, handik galdea zen tokirat jauzian joaiteko. Bizpahirurlaueetan aleman eta frantses kanoiak orroaz hasirik, uste izan ginuen alemanak agertu zirela eta abiatu. Bainan ez. Argonan deus ez zen higitu; Champagnan hasi ziren gerlako azken guduak, uztailaren hamabortzean.

Ez ginuen oraino Argonatik joan behar hango erreketarat itzuli bat egin gabe. Ondoko gau batez hartu gintuen. Ez luzerentzat: hiruzpalau aleman esku-kolpe ttipiren urruntzeko eta geronek bertze hainbertzeren egiteko denbora doi-doi! Italianoak gure gune ona hartu zaukuten ago-

⁽³⁴⁾ Ms. *nubetik*.

⁽³⁵⁾ Ms. *Arbonan*.

rrilaren hamabian eta Argonari erran ginion adio. Adio, bethikotz! Eta bizpahirur egunen buruan treina harrarazi zaukuten Breteuil delakoan jausteko. Bidean hiri eder frango ikusi ginuen berritz; Chalons-sur-Marne, Meaux, Le Bourget, Chantilly eta Creil bederen. Bertzeen izenak aspaldi galduak ditugu gogotik eta paperetarik.

Egun guti zuen oraino gu ginoazin guneetan alemanek zafraldi bat ederra hartua zutela. Gibelerat zoazin, bainan ederki buru eginez han-hemenka. Zerbeit onik egitekotan, ez ziren nihun lurrari lotzerat utzi behar: horra zer erran zaukuten aintzindariek *Fouquescourt* delako herri baten ondoan Kanadako soldado eder batzuek aldizkatu gintuelarik hogoita seiean.

Biharamunean eta hogoita zortzian ez ginen hainitz lehertu *Cote 87* deithu mendichka hartzeko. Ez eta ere haratchago lur umi luze batzu etsaiari khentzeko. Are gutiago Nesles hiriaz jabetzeko. Zer dire kilometrak eta han-hemenka tiro parrapata batzu garhaitia jada eskuen puntan dutela dakiten gerlarientzat? Bi airetako aleman ozarrek bizpahirur orenez aski kechatu bagintuzten noiznahi ehun metretaraino jautsiz eta handik agertzen gineneko tirokatuz, aireak hutsarazi giniozkaten azkenean heieri ere: itzuliphurdika erorrarazi gintuen sua zariotela. Barneko laur airezkarietarik bat ez zen atheratu: lauak gure begien bichtan hantche chirrigarratu ziren chori batzu bezala.

Eguerdi ondochean ibai gothor baten aintzinean ginen: l'Ingon. Orai gerla aintzinean baino ezagutuago da segurki Frantzian. Bertzaldean etsaiak erne zaudela⁽³⁶⁾ ikusi ginuen. Ez zen zuhurtzia egun argiz oldartzea: ibaiari hurbildu orduko erreko gintuzten alemanek. Gau beltzaren beha egon ginen, beraz, eta hamar orenetan berritz abiatu. Ondikotz, ez gintuen bi zubichka baizik bertzalderat joaiteko. Hurbiltzen ziren guziak lurrerat edo urerat zoazila ikusirik, koronela ez zen tematu eta inguruetan etzanarazi gintuen oro, gau guzia lo egin ginezan manaturik... ahal baginuen. Nola egin lo holakoetan!

⁽³⁶⁾ E. *azudela*, eskuizkribuan *zaudela*.

Dena dela, sei orenetako berritz bazterrak higitzen hasiak ziren biharamunean. Bainan Cote 77 delakoan beren zimentazko geriza bazuetan, bertze orduz Plateau de Vauclerc hartan bezala, ongi gordeak, oro phorroskatuko gintuzten eta laster alemanek, bezperan baino gehiago tematu bagine. Ez ginuen huts hori egin. Ez gintuen eskuak gurutzatu ere, haatik, bainan multchoka hameka itzuli egin ginuen eskuin eta ezker nun zer chilo atchemanen ginuen azeri batzu bezala sartzeko. Ez zen chilorik.

Bizkitartean ibaia iragan behar zen. Iragan... ahal bezen laster eta gostako zena gusta, aintzindariak nahi zuten bezala buruïlaren lehen egunetako Somme ibai handiaren hegietarat heltzekotz! Jainkoak beharrik argitu zuen orduan Bederatzigarren konpainiako liotinant gazte biphil bat: Carayon de Talperaic. Gure kanoiak bet-betan orroaz hasarazi zituen. Alemanek erauntsi horren azpian buruak aphal zetzaten, hura kanoikaldieri berrogoi bat lagunekin hogoi urhatsetan jarraikiko zela. Hala egin zuten eta sudurrak oraino lurrean sartuak atcheman zubiz bertzaldeko lehen etsaiak. Ez zuten nihoren preso hartzeko astirik, oro kalitu zituzten, jauzian han-harat joan eta, berehala egin erreka ttipi bazuetan etzanik, etsaiak menean atchiki! Orduan delako liotinantak argi churi bat zeruetan gora igorri zuen, zuba iragan ginuen orok eta eskuinagotik tiroka ari zitzauzkun guziak hil edo preso hartu. Laurehun preso hartu gintuen, zenbeit⁽³⁷⁾ gorabehera. Azken denboretan frantsek baino mila aldiz aiseago altchatzen zituzten eskuak gure etsaiek, irriskua gainean zutenean: batek ez zuen *kaput* nahi...

Ibaia iragana ginuen eta eremu eder bat hartua: zerbeitrek traba egiten zaukun halere. Eta traba handia, urrunago menturatzeko: herrichka tchar batek. *Rouy-le-Petit* zuen izena: alemanez bethea zen. Zer lanak ikusi gintuen heieri herrichka horren hutsarazteko. Buruïlaren lehenean hartu ginioten, gehien-gehinik Drouault eta Fischer bi liotinant gazteeri

⁽³⁷⁾ E. *zenbeit*, eskuizkribuan *zenbeit*.

esker. Hau kanboarra zen: orai Hendaian bizi da bere emazte eta haurrekin. Noiznahi ikusten dugu, bainan egun eta oren lazgarri horiek ez ditugu behinere aiphatzen: ez du maite. Guk ere ez gintuen eginen, *Eskualdunak* galdetu ez balauzku...

Gauari esker Fischer liotinanta lagun batzuekin hurbildu zen lehen etcheraino eta hango beilariak lo atcheman. Ez da bethi errech loari ihardokitzea, alemana izanik ere. Eta beilari dohakabeak ez ziren oraino arras iratzarriak, handik aski urrun gure korenelak bira ostiko eman zio-telarik nunbeit! Herri bat hartu behar denean, lehen etchea etsaiari khentzeak ematen du lanik handiena. Hura baginuen eskualdun bati esker. Handik, argia ethorri orduko, bertze guzietan sartu ginen, baionetan puntak alemanen gibelaldetan ederki kamusturik...

Horra nun eta nola irabazi zuen Berrogoita Hamazazpigarrenak bere bigarren⁽³⁸⁾ ohorezko⁽³⁹⁾ aiphamena. Ez zaukuten eman zaukutena baino ederragorik ematen ahal. Bainan ez ginuen ebatsia. Bertze hainitz eta hainitzen artean han galdu ginuen gure gomenantetan maitatuena: Pimouguet zaharra. Gerla hastetik gurekin zen. Orok Pimpim erraten ginion, trufaz baino gehiago amodioz. Hala erratea nahi zuen berak ere. Olata bezen ona zen bere meneko gizonentzat. Aspaldi gerlako chingolaren beha baitzagon, ukhan ginuen egunean hetsi ziozkan begiak kanoi-kaldi batek.

Pimouguet gomendantak ere bezperan ukhana zuen hiltzerat zoazinen eta jada aiphatua dugun lotsa hura. Haren meneko soldado batzuek zutelakotz l'Ingon lehenik iragan, eskuen tinkatzerat joana zitzaioten orori, loriaren loriaz. Drouault liotinanta ikusirik joan zitzaion eta bere haur bat bezala besarkatu zuen. Eta orduan harekin ziren lagunuen alderat itzulirik: "Oi, zertako behar dugu holako gizona bihar galdu!" Oro harritu zituen elhe horrek. Oharturik, huna zer erran zuen oraino gure gomenant zaharrak: "Bai, bihar hilen da... eta ni ere bai!" Egia zen, ondikotz!

⁽³⁸⁾ E. *bigaren*, eskuizkribuan *bigarren*.

⁽³⁹⁾ E. *ohorezko*, eskuizkribuan *ohorezko*.

XIII. Azken guduak: azken egunak

Buruilaren lehena. L'Ingon ibaia orok iragana dute: Rouy-le-Petit hartua da. Gerla ez da halere bururatua: hiltzerat doan lehoinak aztapar-kaldi ederrik ematen ohi du oraino.

Bi orenetan manu berri bat ethorri zitzaukun: lehenbailehen joaiteko Somme ibaiaraino⁽⁴⁰⁾, eta abiatu ginen berehala. Chichtu ederrik aditu behar ginuen, haatik, bidean. Nihun ez zen hesi bat: agerian aintzinate behar ginuen nahietaez. Eta, horren gainerat, uste baino hainitz aleman gehiago aintzinean! Oro gain-gainetik armatuak, bertzalde! Zer parrapat-ak igorri zauzkuten burutik beheiti! Hainbertzetaraino nun, ilhunari buruz, gu oro etzanak ikustearekin lotsatuak ginela egin baitzuten! Eta oldartu zauzkun. Garhaitu gintuen oraino eta beren tokietarat joanarazi. Biharamunean hartu ginioten *Cote 77*, bainan zer zalapartak ibili ondolan! Biderik ez zen gehiago ageri, hainbertze hil bazen! Prusiano fama-tuak gintuen partida: ez da, beraz, harritzeko... *Voyennes* eta *Courtemanche* urrunchago ziren. Jauzi berean aise joan gintazken haradino, bainan ez zen zuhurtzia: gure eskuineko tropa frantsesek urhats ttipi bat baizik ez zuten oraino eginik. Ez ginuen *Mont-Lavé* hartako ethokeria hasi nahi: sobera gusta zitzaukun. Bertzalde, ez ginen aski, sobera menturatzeko. Eremu ederra hartu ginuen halere, bi herrichka horietako lehen etcheta-raino kasik, bazterretik oraino chehatu gintuzten tiroen gatik. Erran ditake biharamunean, aldizkatu gintuztelarik, phikoak onduak atche-man zituztela Ehun eta Berrogoita Laugarreneko adichkideek. Laster hartu zituzten bi herrichkak.

Ondikotz, Berrogoita Hamazazpigarrenean ez ginen gehiago hiruz-palau ehun gizon baizik gelditzen! Gure hiletan bazen bertze aintzindari eskualdun bat, P.B. Montalibet. Mauletarra zen. Delako zimentazko geriza hetarik baten aintzinean hil zaukun, hango aleman guziak kalitu

⁽⁴⁰⁾ E. *ibaiaraino*.

ondoan. Laster ikharagarriko etsai tropa batek inguratu zuen, haatik: ez zuen amor eman nahi izan: grenada bat eskuan zeraukan oraino, biharamunean han iragan ginelarik. Heriotza ederra aintzindari batentzat!

Ez ginuen, phorroskatuak izanik ere, ephe handirik ukhan: bi egunen buruko galdea ginuen berritz eta emeki-emeki jarraikiarazi gintuzten guduan ari zireneri, zer gerta ere. Horrengatik buruilaren hamabia arte ez ginuen tiro bakhar bat igorri. Orduan *Hamel* delako herrichkari hurbil zernahi ikusi ginuen mendichka bat alemaneri ezin khenduz. Ez zaukuten segurki aise utzi eta ez dugu sekulan ahantziko han iragaitean zer ikusi ginuen biharamunean: hogoi bat etsai⁽⁴¹⁾ hilak lerroan beren “mitrallusen” aldean: lehenak zigarro erdi bat bazuen oraino ahoan, bigarrenak arrosorio batzu... eskuan!

Handik bizpahirur egunen buruan gune hura utzarazi zaukuten eta beribil handietan ereman gintuzten, lagun berrien bilha, Villers-Cotterets jada guti edo aski ezagutzen ginuen hiri pollit batetarat. Ondikotz, eskas gintuen hamabortz ehun lagunentzat, ez gintuen han ehun bat baizik atcheman!

Urriaren hamarra arte nihork ez zaukun deus galdetu, ez bagine baino gehiago. Guk ere ez nihori. Bainan ez gintuzten ahantziak: zakuak bizkarrean harturik, berritz bidearen gainean ginen hamekan argiko. Orduan ikusi ginuen lehen aldikotz Soissons, fama handiko hiri bat. Erran gabe doa ez zuela gehiago hiri baten itchura handirik: ez zen orotan harria harriaren gainean baizik ageri.

Ez ginen, haatik, han sartu berritz suan. Ez eta berehala. Bainan ez ditugu hemen ezarriko alemanetarat hurbiltzeko iragan gintuen herri eta herrichkak. Sobera dire. Hau erran dezagun bakharrik: hobe zen herrichka horietan ez gelditzea, nun-nahi “minak” utziak baitzituzten alemanek!

Berritz tiroka hasi ginenean, ezagun chahar bat baginuen begien bichtan, *Chevresis-les-Dames*. Lau urtheren buruan lehengo begitarte polli-

⁽⁴¹⁾ Ms. *etsai* hitzaren ondoren *baziren* ezabaturik dago.

ta galduchea zuen, haatik. Ez ginen harritu. Bospasei egunez zalaparta ederrik ibili ginuen hango inguruetan, azkenean alemanak berritz ihesari eman arte.

Handik goiti frango aldiz, eta azkarki, buru egin zaukuten oraino: nun, ahantzia dugu. Ahantzia ez duguna da harasko fueratuak gintuela hazilaren hiruan pausatzerat igorri gintuztelarik zenbeit egunentzat aintzindariak. Ez ginuen gehiago tirorik aditu behar. Hazilaren hamekan eskualdun tropa baten kantu eta irrintzinek *Compiègne* ederki inharrosi zutela erraten badautzuegu, sinhetsiko othe gaitutzue? Ba naski.

Iduritzen zauku ez duela hainitz balio bertze deus handirik erran dezazuegun orai. Ez da Eskual Herrian etcherik *Mulhouse* eta *Alsaza* guzian handik goiti orok iragan gintuen egun ederren berriak cheheki aditu ez dituenik. Han atcheman gintuen oren handiak. Oren handia? Bai, gure Euskal Herri maiterat bethikotz itzultzeko orena! Ordu zuen berrogoita hamasei ilhabeteren buruan.

Horrengatik aithortuko othe dautzuegu ez giniola bihozminik⁽⁴²⁾ gabe adio erran Alsazari? Ez baitezpada ederra zaukulakotz, ez eta ere hango jendea maitagarria delakotz! Eskualdunarentzat deusek ez ditu Eskual Herria eta eskualdunak balio! Bihozmin harek bertze errorik zuen: han utzi behar gintuen oraino gerlako lagunetarik hainitz! Han utzi behar hainbertze aintzindari on! Han utzi behar gure koronel maite chaharra! Eta han utzi behar... sekulan gehiago ez ikusteko!

Eta, salbu bakhar-bakhar batzu, gehiago ez ditugu ikusi! Menturaz frango bada jada gerlako bi mila berrehun eta hogoita hemezortzi lagunnen ganat joanik! Hek eta bizi direnak zeruan ikusiko ditugu egun batez, agian...

Gerlari bat
P.C.C.
Jean Elissalde

⁽⁴²⁾ Eskuizkribuan eta testu argitaratuan bihominik, aurreraxeago, ordea, *bihotzminik*.

THÉOPHANE VÉNARD DOHATSUA

I

1940! Duela ehun eta hameka urthe, hazilaren 21ean, sortu zen Théophane Vénard, S. Loup-sur Thouet deithu herrichkan, Deux-Sevresetako departamenduan. Aita eta ama girichtino hoberenatarik zituen⁽¹⁾: egun berean bathaiarazi zuten, beraz, haurra⁽²⁾. Aita errienta zen: herriko hurreri harek erakasten ziozkaten othoitzak eta katichima: orobat harek zaintzen zituen igande guzietako meza-bezperetan. Ondikotz, ez zuen hain osagarri ona amak, eta elizako urratsetarik kanpo guti ikusten zen bideetan.

Jean-Théophane Vénard haur erne ta bichi bat izatu da, eta bichia bezen jostakina. Eskolarat abiatu orduko hainitz pausatu zen, haatik. Eta liburueri zoin gogotik eman zen!

Eskolako orenatarik kanpo aski lakhet zuen sukaldean amattoren laguntzea, baina oraino lakhetago etcheke ahuntzaren zaintzerat joaitea norapeit. Egun batez, denboraren aiseago iragaiteko, Fedearen Hedameneko liburu bat berekin eremanik, ez zen guti harritu han ikustez nola paganoek Tonkinen hil zuten Charles Cornay Bada, Charles Cornay herri-tarra zen. Herritarraren heriotzeak hala hunkitu zuen nun arrats hartan berean hauzoko andere bati martiraz mintzatu baitzitzaion:

⁽¹⁾ Elissaldek lehen idatzialdian *ziren* jarri du, gero, zuzenketa eginez, *zituen*.

⁽²⁾ Elissaldek lehen idatzialdian *beren haurra* jarri du Elissaldek, gero, *beren* posesiboa ezabatu egin du.

—Anderea, badakizu Charles Cornay, Tonkineko eskualdean martir hil dela?

—Ba, badakit, haurra: heriotze ederra segurki!

—Ni ere Tonkinerat joanen naiz handitzearekin.

—Zertako?

—Charles Cornay bezala martir hiltzeko!—Andereak ez zuen orduan nihori deusik erran, bainan geroztik zenbeit aldiz errepikatu ahal ditu Théophane ttipiaren hitzak!

Doué-la-Fontaine delako hiriak ez ditu eremu handiak, bainan han bada bederen ikastegi bat hauta. Harat igorri zuten Théophane, aitari apheztu nahi zuela erran zioneko. Han bururatu behar zituen eskolak. Hartze onekoa, bethi lagun guzien aintzinean ibili zen orotan. Bainan jada haren ikasteko errechtasunari bezen ohartuak ziren oro haren othoitzeko kharrari. Oraino odol beroskoa omen zuen, haatik. Théophane Vénard ez bide da, beraz, gero⁽³⁾ ezagutu dioten aingeru eztitasunerat bere jitea ongi eta ongi zapatu gabe heldu!

Hemezortzi urthetarat zoan, Montmorilloneko eskola handiago batetarat igorri zutelarik. Ez zuen urthe bat baizik han iragaiteko. Erran gabe doa ederki baliatu zuela hura ere, eta Poitierseko aphezgeiekin zen ondoko urthean. Jada⁽⁴⁾ ez zuen gehiago urrungo misioniak baizik gogoan eta misionest ona baino hobeia izaiteko chedeak zabilkan orotan. Oro orok baino hobeki egin nahi zituen. Hainbertzetaraino nun diosesako aphezphikuak batere ez baitzuen gordetzen “Théophane Vénard baino lore ederragorik ez zuela diosesako baratze handi guzian”. Eta halere ichtudiant gazteak bere chedea gordea zeraukan bethi: ez zion oraino nihori salatua bere indarrak han nunbeit higatu nahi zituela, jende basen artean. Burhasoeri bereri behin edo bertze hitz erdi bat

⁽³⁾ Hitz bau baino lehen, Elissaldek *orok* hitza jarri eta ezabatu du.

⁽⁴⁾ Elissaldek hitz hau baino lehen *Bainan* idatzi du. *Bainan* delakoa ezabatu eta esaldia *Jada* batez hasi du Elissaldek.

erran bazioten, munduko gorena! Sudiakre egin ondoan mintzatu zen, haatik, lañoki. Huna aitak nola ihardetsi zion berehala: “nere semetto guziz maitea, gogoari emana nion hurbilsko ikusiko zintudala aphez eta zure alderat bilduko nintzela, hiltzeko. Ametsak! Bainan deusik ez dut eginen zu hartu duzun chede handitik urruntzeko: Jainkoak urrunerat deitzen zaituenaz geroz, zoazi. Deusek ez zaitzala gibela. Badakit goldeari lotzen denak ez duela gibelat behatu behar. Badakit ere Jainkoaren deiari jarraikitzeke aita-amak uzten dituena, Jainkoak ez duela uzten, bainan ba ederki laguntzen eta sarizatzen. Aski da hola. Nik baietz erraitea nahi baduzu, haur maitea? Bai, zoazi. Nik benedikatzea nahi duzu? Bai, benedikatzen zaitut. Eta nere bihozmin guziaren gatik, atsegin hartuko dut zure atseginaz: zoazi, beraz. Azken agurraren eguna baino lehen, har zatzu nere musu gozoenak”.

Azken agurra! Jada bazakien Théophane gazteak zer gostako zitzaien agur hori. Alabainan, munduan oro baino maiteago zituen aita, bi anaia eta arrebak utzi beharko zituen! Ama hila zuen jada, doi-doia hamahirur urthe zituelarik. Bainan aita han zen oraino etchean bere ile churiekin, han ere arrega on bat, han bi anaia maite, bat jada aphezten hasia, eta horieri agur erran beharko zioten bethikotz. Bethikotz! Utzi beharko zituen, gibelat behatu gabe!

Sakrifizio handia! Ez da handiagorik lurrean. Bainan otsailaren 27an, belhauriko aitaren aintzinean, misionestgeiak gogotik egin zuen sakrifizioa halere. Eta aitak benedikatu zuelarik, nigarririk gabe ihardetsi zion:

—Aita, ez zaitut gehiago ikusiko lur huntan. Halere, ikus arte. Bainan ikus arte... zeruan!

Poitierseko geltokian hartu zuen Pariserako treina, beneditano batek harat segiturik. Treina abiatzean beneditanoak oiñu egin zuen oraino:

—Agur, eta agur: ez zaitela batere lotsa: aphezpiku bezala ikusiko zaitut oraino hemen gairi.—Eta misionestgeiak ihardetsi zion:

—Ni, aphezpiku? Mila aldiz nahiago dut martir!— Haurreko amets bera oraino! Ametsa, ala Jainkoak igorri aintzin-argi bat?

II

Horra Théophane Vénard Pariseko misionest-ikastegian. Zer atsegina harentzat Jainkoak hautatu bidean kausitzea eta nola eman zen berehala lanari misionegoari doazkon jakitate eta saindutasunaren lehenbailen ukhaiteko! Hala-hala, handik laster misionesten buruzagiek ez zuten aski espantu misionestgei gazteaz.

Eta berak zer othe zion? Huna ilhabete bat eta erdiren buruan zer erraiten zion bere arrebari: “Oi, zoin maite ditudan etche huntako ichiltasuna, hemengo ikasgei guziak, nere lagunen begitartea, eta guziz hemengo kapera ederra bere orhoitzapen handiekin eta airean dabilan hainbertze martir sainduen usain onarekin!”.

Egiazki, Pariseko misionest-ikastegi hortan zangoak emaiteko zoriona ukhan duten guziak ez dire bertzela mintzo. Bai, zoin maitagarriak diren etche hortan oro, ichiltasuna, othoitzak, liburuak, irakasleak! Hauk, urrungo misionetan ibiliak dira berak. Badakite, beraz, nola moldatau behar diren misionetgeiak. Holako irakasleekin Théophane Vénard bezalako ikasleek bide egiten dute. “Egundaino ez zuen deusetan huts ttipiena egiten” horra zer erraiten duten hartaz han ezagutu duten guziek. Egunetik egunerat saindutasunari buruz urrats handiagoak egiten ari zituen, eta etchekoak batere ez ziren harritu berak eginikako othoitz hau igorri ziotelarik, maiz eta maiz egin zezaken harekin batean: “Oi, nere Jainkoa, iduriz minez porroskatuak behar luketelarik, gure bihotzetan sorraraz zatzu kontsolamendua eta atsegina. Gure arteko atchikimendua sekulan baino azkarrago da, elgarretarik hain urrun garelarik bizkitartean, eta elgarretarik urrun, menturaz bethikotz. Oi Jauna, garbi zazu atchikimendu hori. Bai, maita dezagula segurki elgar, bainan maita zuretzat. Izan gaitela bat, bainan bat zu baitan. Halabiz”.

Orai sakrifizio handia egina da. Orai misionestgeiak ez du gehiago gibelat behatuko. Ez ditu oraino hogoita bi urthe eta jada “han” nahi luke. Beraz, zer egun ederrak harentzat diakretu eta apheztu den egunak! Ekxhainaren 5ean apheztua, zonbeit egunen buruko bazakien buruzagiek

erranik, urrungo misionetarat joaiteko hautatua zela. Huna zer erran zioten etchekoeri: “Berritz ere erran dezagun elgarrekin: Benedikatua izan bedi Jainkoa! Banoa, beraz, etcheko maiteak, banoa, zuek oro hemen utzirik, zeruan baizik gehiago elgar ez ikusteko! Anverseko portuan hartuko dut untzia, Chinari buruz. Aita ona, arreba eta anaia maiteak, besarkatzen zaituztet nere bihotz guziaz”.

1852garren urthea zen, buruila erditan goiti joana, bere egun argi eta gochoekin, Pariseko misionesten kaperan urthe guzietan egiten den partiadako elizkizun ederra egin zelarik Théophane Vénard eta bere lagun-
nen ohoretan.

Hain chuchen egun hartan kaperan bazen soldado bat, Théophanen herritarra, ikusterat ethorria: René Midy. Laster ohartu omen zen bere adichkidearen begitarte sainduari. Misionest chahar eta misionestgei, lerro-lerro oro hurbildu ziren misionest berrien ganat, zangoetan musu eman zioten, ohi den bezala, eta gero bi mateletan besarkatu. Misionesten kantua ari zen denbora hortan:

Zoazte berri onaren mandatari onak:
zer gozoa zuentzat egungo egunak!
Ez, orai ez zaituzte deusek estekatzen:
zoazte, adichkideak! Zoin urus zarezen! etc.

Kantu horrek iduri zuen Théophane Vénard gaztearen bihotzeko sentimendu eta aspaldiko ametsen erraiteko egina zela. Elizkizun ederra bururatu eta René Midy joan zitzaionalarik agur baten egiterat, misionestak bihotz guzia zabaldu zion, bere etchekoeri eginen zuen bezala. Soldadoak geroztik erran izan duenaz “Théophanek ez zuen gehiago gizon bat iduri, bainan Jainkoak zerutik igorri norbeit”.

Ez zen errech denbora hartan Chinarat heltzea. Nihor ez da, beraz, harrituko itsasoaren iragaiteko eta Hongkongeko ugartearen sartzeko Théophane Vénard eta haren hirur lagunek lau ilhabete handi eman zituztela erraiten badugu. Hongkongen, han kausitzen ahal diren bizitzeko errechasunen gatik, Pariseko misionestek badute etche bat egina.

Misionest berri guziek guti edo aski han egon behar dute, han gaindiko mintzaireri ohartzeko, hango bizimoldeari egiteko. Erran ditake Hongkongen hartzen dituztela azken eskolak.

Errana dugu hurrean Tonkineko eskualdeaz egina zuela amets gure misionestak. Chinarat manatua zen eta arras buruzagien manuari zagon Théophile Vénard. Eta horra nun 1854ean, otsailean, Parisetik manu berri bat heldu zaion: “Théophile Vénard, berehala zoazi Tonkinerat”. Zer atsegina! Ahuntzaren zain bidearen hegian amestua zuen bezala, Tonkinerat joan behar zuen! Huna zer ihardetsi zioten Pariseko buruzagieri: “Edozoin chokho maitatuko nuen segurki, bainan oro baino gehiago maitatuko dut Tonkineko chokhoa. Paregabea da neretzat. Milesker, beraz. Jainkoari egun guziz othoitz egiten dut eta eginen bethi izan nadien misionest on eta saindu”. Eta etchekeori bereri ez diote gehiago gordeko egundainotik bihotzean garraiatu duen esperantza handia: “Tonkinerat igortzen naute! Tonkinerat noa! Charles Cornay gure herritarra han hil zen, martir. Han ichuri dute orobat beren odola, duela lauzpabortz urthe doi-doia, aita Schoeffler eta Bonnartek. Han dire oraino erlisioneari gehienik aiher diren paganoak...”.

Eta etchekoen guthunaren bururatzeko, hitz aski harrigarri hauk anaia aphez edo aphezgeiari buruz: “Errozu othoi Paziot jaun aphezari lehenbailehen molda dezan untzi bat nere ondokinenzat”.

III

Tonkinerat joateko manua ukhan orduko, Théophilenek kantu bat moldatu zuen misionest liburu guzietan irakur ditakena. Kantu horren arabera, segur Théophile Vénard ez zoala han eskuen gurutzatzeko chedearekin. Bidean hamabortz egun luze eman zituen eta uztailearen 13a zen Vinh.tri delako hiri batean bere aphezpikua besarkatu zuelarik.

Berrogoita hameka urthe zituen Retord jaun aphezpikuak eta jada bazuen hogoita bortz urthe hurbil urruno misionetan zela. Bihotz

handi eta azkarreko gizona, eta behinere paganoek bake handirik utzi ez ziotena. Egundainotik haren oihua hau izana zen: “Biba gabezia eta gurutzea!” edo bertze hau: “Biba atsegina, halere!” Apezpikua eta misionest berria ongi elgar aditzeko eginak ziren, beraz.

Iduri luke hoinbertze martir hoin denbora gutiz ikusi duen misione batek aski gaizki moldatua behar lukeela, han eta hemen deus handirik gabe, ez elizarik, ez komenturik, ez ikastegirik, ez eta bertzerik. Bada, itsasotik Ibai Gorriraino doan misione hortan baziren elizak, baziren ikastegiak, bazen komentu bat, eta orotarar berrehun mila girichtino.

Erlisioneari eta misionesteri hain aiher zen erregea, Tu Duc, aski urrun egoiten zen handik: Hueko jauregian. Han gaindi Erregeren mandatari ziren suprefet eta gaineratekoekin elgar aditzea aski errech zen. Bertzalde, apezpikuak halako erroak eginak zituen herrian nun nihor ez baitzen gehiago menturazten erhiaren altchatzerat haren kontra. Gogo onez eman nahi ez ziotena, apezpikuak bazakien bortchaz hartzen. Oro egun argiz eta agerian egiten zituen, beraz. Théophane Vénard Vinh. Tri-rat heldu zen egunean berean, goizean eginak bazituen lau sudiakre, bortz diakre eta hirur aphez. Eta den gutienekorik gorde gabe gero!

Théophane Vénard ilhabete bat eta erdi egon zen apezpikutegian eta han indar berriak hartu zituen lanari lotzeko. Vinh-tri-n kausitu zuen eskolako eta bideko lagun handi bat, Joseph Theurel, orduan apezpikute-giko moldiztegiaren buruzagi zena. Urthe bat bazuen jada Joseph Theurel han zela. Pentsatzeko da, beraz, kontseilu eta argi frango eman zituela bere adichkideari. Hain gogotik hartzen zituen oro! Eta dudarik gabe horra zertako igortzen zuen etcherat hitz hau: “Gocho da hemen bizitzea!”

Gocho segurki han bizitzea, bainan sobera iduritzen zitzaion, han luzez egoiteko, zokho guzietako paganoak oihuka ari zaitzaizkola, konbertitzerat joaiteko! Jada mintzaira bazakien guti edo aski. Hobeki ikas zezan, apezpikuak igorri zuen Ke-Roan delako elizadian bizi zen herri-ko aphez baten ganat. Han zer jauzia egin zuen! Ilhabete baten buruko predikatzen ari zen... anamitaz eta aditu zuen norbeitak dioenaz, “haren predikuak arras pollitak ziren, argiak eta gustagarriak!”

Umi-sainduz eri zen, haatik: eri, jada hirurgarren aldikotz, eta hirurgarren egoitza batean. Airez kanbiatzeko, urez Ke-Dam-erat ereman zuten. Umi-saindu-saindu arratsean urruna behar izan zuen handik ere, etsai batzueri eskapatzeko. Girichtino baten etchean behin gordea egonik, jo zuen Ithurri Hori-ko ikastegiraino. Han kausitu behar zuen eta han kausitu aita Castex, apezpikuaren ordaina. Agur erran zioneko, aita Castexek ihardetsi zion: “Hemen ez da bertze agurrik, gure jaun Apezpikuaren oihua baizik: biba atsegina, halere!”

Ondoko bi urtheetan, oraino eri, ezin predika, ezin kofesa, ezin erietan ibil, aita Théophanek zenbatetan ez othe du oihu hori bere buruari errepikatu, ez lotsatzeko: “biba atsegina, halere”. Alegeratu nahiko zuen eta gero eta eriago zoan, bethi eztulak ithoa, asma tzar batekin. Eta hola zelarik noiznahi ihesi joan behar berritz! Azkenean, apezpikutegirat joan behar izan zuen berritz. Nola khanbiatua jada! Apezpikuak besarkatu zuen: “Oi, nere haur maitea Jainkoari sofrikarioa galdetu diozu, beraz, bethiko laguntzat?” Eta hala-hala zen. Théophane Vénard aitak⁽⁵⁾, bertzerik ezin gehiago eginez⁽⁶⁾, bere sofrikarioak eskaintzen zituen konberti ziten paganoak!

Misionest gazteak uste izan zuen orduantche harenak egin zuela, sekulan ez zela altchatuko. Huna zer gaztiazten zioten etchekoeri: “Jainkoak emana zautan osagarria eta Jainkoak khendu daud. Beldurra badut sekulan ez naizela sendatuko, ezkerreko bulharra bederen hunkitua duket. Bainan othoi ez zazue odol gaichtorik egin. Othoitz egizue bakarrik eritasuna balia dakidan saindutzeko”. Eta Pariseko buruzagieri: “Egizue hainitz othoitz, nere gorputza hiltzen bada, bizi dadien arima. Jesusek eta Mariak lagunt zaitzatela oro. Elgar ikusiko dugu zeruan!”.

Eta egiazki haren arima bizi zadien, zer ez zuen egiten misionest onak? Beha zer erraiten duen aita Thinh, gehien-gehienik ikusi duen apez anamitak: “Ez ditake erran zoin kartsua zen, zenbat othoitz egi-

⁽⁵⁾ Eskuizkribuan *Théophanek Vénard aitak*.

⁽⁶⁾ Ezin da guztiz zehaztu eskuizkribuan *eginez* edo *eginaz* jartzen duen.

ten zuen Jainkoari eta Ama Birjinari. Eri handi zelarrik, zenbatetan ez du mina garhaitu Meza Saindua, liburuko Othoitz handia eta Arrosarioa erraiteko! Ez dut arras ezinbertzean baizik ikusi horien uzten. Meza Sainduaren aintzinean luzez belhauniko egonen zen bildutasun handiegan, gero kartsuki erranen zuen meza, ez lasterregi, ez emekiegi, hein on batean. Meza ondoan, mirikuak manatu erremedio bat hartu orduko, berritz othoitzean hasiko zen, Jainkoari eskerren bihurtzeko. Liburuko othoitz handia bethi oren beretan erraiten zuen eta othoitz ez du naski egundaino utzi, aphezpikuak berak arrosarioa manatu dien⁽⁷⁾ egunetan baizik. Arratsetan ez zen sekulan ohean sartuko azken arrosario bat erran gabe. Théophane Vénard erran ditake othoitzez ezin ase zela”.

Eri, ez zezaken ez predika ez kofesa elizan. Bainan zenbat girichtino ez zitzaion ganbararat heldu. Nihaur hari kofesatzen nintzen. Ez ditake asma hura baino gidari hoberik nihorentzat, eta bereziki zoin ederki eta zer amodiorekin mintzo zitzaitezun Ama Birjinaz!”.

Bai, jada saindutasuneko bidean han-harat joana zen Théophane Vénard: hemendik goiti erranen ditugun guziek ez dute bertzerik frogatuko.

Misionest gazteak segurki uste izan zuen hiltzea udako bero ikharragarrietan. Ez da gaztetasuna bezalako erremediorik eta, udazkena ethorri orduko, phizkortu zen.

Horra aita Théophane Vénard chutik. Zer galdetzen du berehala? Berritz paganoen erdirat joaitea. Apezpikuak ez zuen utzi, segur on zukeela pausatzea oraino. Ondoko haustez berekin ereman zuen, haatik, konfirmazioneko itzulia diosesan egiteko. Oi, misionest gaztearen zoriona!

Herriz herri ibili ziren, orotan predikatu, orotan kofesatu: Kien-Be eta But-Son deithu herrietan egon ziren gehienik, nihun ez baitzen han bezenbat girichtino: batean bi mila, bertzean mila. Aphezpikuaran ordu-

⁽⁷⁾ Zer jartzen du eskuidatzian *duen* edo *dien*? Guk uste *dien* jartzen duela.

ko izkiribuetan irakurtzen dugunaz, "lan handia egin zuten". Aste Sainduko Ithurri Horietan ziren...

Aphezen urratseri hain aiher giren eskualde batean, nola ibil zitazken hola? Théophanek etcherat igorri guthun batek ihardetsiko du galde horri: "Ez da dudarik: Jainkoak zaintzen gintuen eta Andredena Mariak laguntzen!".

Itzuli handi hori bururaturik aphezpikua bere egoitzarat itzuli zeneke, harat bilduak ziren jada diosesako aphez guziak, elgarrekin urtheke erretretaren egiteko. Zer egun gocho eta sainduak iragan zituzten elgarrekin Mgr Retard, Mgr Jeantat, aita Castex, aita Titaud, aita Charbonnier, aita Theurel, aita Mathevon, aita Vénard eta aphez anamita guziak!

Bakotcha bere alderat abiatu zireneko, denbora hurbildua zen nun urthe guzietz Ibai Gorria bere errekatik jalitzen baitzen burrunban, bere-tarik egiteko. Desmasia ikharagarrienak egin zituen urthe hartan. Vinh-tri ez zuen, haatik, guti baizik jo, aita Théophanek pezoin handi batzu aspaldi eginaraziak baitzituen uren oldarraren hausteko. Hala-hala urek berritz errekan sartzean han-hemenka utzi zituzten zikhinkeriekin, zer izurritea gerochago! Gutiz gehienak eritu ziren hirian. Oro baino lehenago, Théophane Vénard. Gutik egin zuen sukhar ustelak ez baitzuen ereman. Sasi-miriku batek aski laster sendatu zuen halere bere gisako erremedio batzuekin. Hola nun aphezpikuak gerochago Pariseko buruzagieri hau heltzen baitzioten: "Aita Théophane Vénard? Berritz arrosa bezen fresko da eta choria bezen alegera. Oraiko ustearen arabera, behingo eta behingo misionest da segurki!". Bainan nork dakizka sekulan Jainkoaren chedeak?

IV

Hueko jauregitik ethorri manu guzien gatik, ordu arte Ninh-triko inguruetako suprefetek ez zioten gerla handirik egiten misionesteri.

Suprefet horietarik handiena —eman dezagun prefeta zela— Hung delako bat, berenaz arras ezta zen, eta ez zuten harek baino gehiago egin nahi bertzeak. Alabainan Hung ez zen nornahi: Tu-Dug erregearen aitagarreba zen. Denboraz begietako min tzar batekin egona zen eta aphezpikuaren katichima erakasleatarik batek sendatua. Katichima-erakasle horrek Paul Tinh zuen izena eta denbora hartan preso zen. Hung sendatzea sari bazuen paper balios bat ukhana: nun-nahi eskola bat idek zezaken eta erakats. Vinh-triko eskolako buruzagi zen mementoan.

Horra nun girichtinoen kontrako errabia berri bat lotzen zaion erregeri: zer? Aita Schoeffler eta aita Bonnard hilez geroztik, hainbertze suprefetek ez dutela gehiago aphez bakhar bat nihun atchemaiten ahal? Eta eskuin eta ezker manu berriak igorri zituen suprefeteri, higi ziten beren onetan. Eta bazterrak higitu ziren eta suprefetak berak buru orotarat hedatu soldado tropak. Vinh-Tri inguratu zuten eta laster hartu. Ustez bere paperarekin zernahi ardietsiko zuen, Paul Tinh joan zitzaion suprefetari. Suprefetak papera sakelan ezarri zuen eta Paul Tinh preso altchatu, bere burua jujeen aintzinean garbi zezan. Bildu ziren jujeak, Hung buru. Paul Tinh bere aintzinean ikusi zuelarik harritu zen. Zuzen kontra emana zion papera ukhatu zuen, beraz... eta Paul Tinh hiltzerat kondenatu. Apirilaren 6ean martir bat gehiago bazen Tonkinoko lurretan!

Vinh-tri erroz gora ezarri zuten laster soldadoek. Beharrik, Mgr Retord jada norapeit itzalia zen bere aphez eta ichtudiant guziekin. Bainan ondoko egun batez aita Charbonnier eta aita Théophane Vénard lagun harturik, berritz bere hiri maiterat itzuli zelarik, zer bihozmina! Gutik egin omen zuen ez baitzen alditchartu eta lurrerat erori. Laster berebaitaratu zen halere eta Jainkoaren ganat itzuli, bethiko hitzak ezpainenat: “Biba atsegina, halere!”.

Ez zen, haatik, misionestentzat gehiago hiri hartan bizitzerik: zelaritariz emokatua zen Hung bera, bezperan oraino, ichilka bederen, girichtinoen adichkidea, ez zen gehiago batere gizon ezta bera: burutik joana iduri zuen. Ez zuten misionest gaichoek bakotcha bere alde joaitea bai-zik. Mgr Retord eta aita Charbonnierrek hartu zuten oihan handi bate-

tako bidea, eta aita Théophane Vénard abiatu zen Ithurri-Horietako eskualdeari buruz.

Noizpeit harat heldu zelarik, zer bihotz haustea! Aita Castex lurrean etzana zen, ezin higi, erromatismek jana. Ez zen urrun joaiten ahal gaicho misionesta. Doi-doia elizakoen hartzeko denbora ukhan zuen eta hil zen. Aphezpikuaren ordaingoa hilak egiten zuen eskualde hartan. Hilaren kargua aita Théophane Vénard, oraino hain gazteari, eman zion aphezpikuak. Ez zitaken hautu hoberik. Ez zen batere urguilutan sartu eta huna, labur-laburra, zer erraiten zion ondoko egunetan bere arrebari: “Hemendik goiti herriz herri ibili beharko dut nahi eta ez, oro ongi doazin ikusteko, makhur doazin guziak chuchentzeko, behar orduetan dispentsa zenbeiten emaiteko, bai eta zenbeit aldiz aphezpikuaren plazan konfirmatzeko. Orobat erretreta zenbeit beharko dut predikatu. Hitz batez, begiak idekiak atchiki beharko ditut, orai arte baino hobeki, fedea azkar eta garbi egon dadien bihotzetan”.

Eskualde hartan bada hirurehun bat mila pagano. Misionestak ez ditu segurki oro ikusten ahal. Halere aita Théophanek zenbat bathaio ez zuen egin han gaindi, zenbat eri ikusi eta konbertitu. Bethi gordeka ibiliz, haatik!

Artha handia hartzen zuen, orobat, meneko zituen aphez eta katichima erakasle guziez: ez zioten gutitan errepikatzen orok baino hobeak izan behar zutela, orok baino othoitz gehiago egin, ikasteko orok baino liburu gehiago irakurtu. Sakelako sosak ez zituen aski batzuen eta bertzeen laguntzeko. Han gaindi ez dute behin ahantziko nola behin bere soineko ederrenak eman ziozkan erromes bati, ahalgerik gabe joan zadin mezarat eta misionestaren ikusterat.

Eta zer mina zabilkan bihotzean ikusiz guzien gatik, oraino hainbertze eta hainbertze pagano belhauniko Jainko faltsoen aintzinean: “Oi, zoin nigar-egingarri den eskuin eta ezker behatzearekin hoin eliza guti ikustea hoinbertze herritan! Debrua da nausi: Jesukrichto gure Jau-naren adichkideak gorde behar dute, ez badute gaichtoek hiltzerat kondenatzea nahi!”

Bainan huna nun oraino gehiago phizten den girichtinoeri hasia dioten gerla. Soldadoak etchez etche abiatzen dire nun zer ikusiko duten, nun nor atchemanen duten. Gehiago dena bide gurutze guzietan gurutze batzu zabal-zabala emanak dituzte, orok zangopean erabil detzaten. Nornahi preso baderamate: bi apezpiku: zenbeit aphez, eta katichima-erakasle hainitz. Hainbertze girichtino berri, bertzalde. Eta berritz odola purrustan ichurtzen hasten da. Bi apezpikuetarik bati lephoa moztu zioten, bertzea mila pusketan ezarri. Eta nor zen berritz ere gaichtaginen manatzaille eta buruzagi? Hung.

Eskuin eta ezker bildu zituen zituenetan, batzu baziren Hungek hainitz gehiago kitzikatzen zituenak: aphez churiekin bizi ziren hango aphez eta katichima-erakasleak. Aphez churiak nun gordeak ziren erranarazteko zer ez zuen asmatzen? Zango azpiak larrutzen ziozkaten, behatzak errotik atheratzen, gorputz guzia burdin gorriekin erretzen. Eta holako! Bainan girichtinoek, hango aphezek eta katichima-erakaslek ez dituzte ezpainak egundaino ideki othoitz egiteko baizik!

Horra zertaratua zen Hung. Ithurri Horietan ez zuen ikustekorik. Sudurra sartu zuen halere eta erregeri jakinarazi han gaindi bazela frango aphez oraino, eta hainitz girichtino. Horra zertako 1858ean, ekhainaren 11an, hirur mila soldadoz goiti etche guzian harrotzen hasiak ziren argiko. Hirur aphez anamita atchemanik, laster hilarazi zituzten. Bainan aita Théophane Vénard, aita Theurel eta ichtudiant bat mendietarat eskapatuak ziren ordukotz. Zelatariak hurbildu ziren, ondikotz, harat ere, eta bakotchak bere alde hartu zuen.

Aita Théophanek nahiago izan zuen hiltzekotz, bere girichtinoen erdian hil eta ez zen hainitz urrundu. But. Dongen bada serora komentu bat: harat jo zuen eta han atherbea galdetu. *Mariaren adichkideek* lorietan eman zioten bat, komentutik aski hurbil. Han aski trankil bizitzen ahalko zen, behin bederen, aita Théophane Vénard. Ez zen eskuen gurutzatzeko egina: lana behar zuen, lana nahi, eta laster, irrisku guzien gatik, eskuin eta ezker hedatu zen.

Bi urthe, lanez betheak, bi urthe handi hantchet iragan zituen. Zer ongia eginez! Nihori ez zion halere *Mariaren Adichkideeri* bereri bezenbat egin, elheez baino gehiago etsenpluez: “Ez da gisa guziez aphez sainduagorik agertu gure eskualdetan” erranen dute hainbertze serorek Erroman, Théophane Vénard dohatsuen herrunkarat altchatzeko auzia hasiko delarik.

Behin, ikusterat joaiteko zukeen irrisku handiaren gatik, serorek batere ez zioten erran nunbeit bazela eri handi bat. Nola kechatu zitzaioten jakin zuelarik!: “Gizon gaichoa sakramendurik hartu gabe hil balitz, nork izanen zuen hobena? Nahiago dut, gero, nihaurek hil, laguntzarik gabe nornahi hiltzen ikusi baino!”

Gerizatik athera ez zitakelarik, liburuetan iragaiten zuen bere denborra. Hura bezalako gizonak sekulan ez dakite aski! Horra zertako orai herri hetarat doazin misionestek ez duten ordukoek bezalako buru hausterik: liburu gehienak badituzte hango mintzairan eginak. Ez gerizatik athera ez zitakelarik ere, ez zagon lo aita Théophane Vénard...

V

1860: urtharrila. Aita Théophane Vénard But-Dongen zagon, emazte erromes baten etchean gordea. Berri-berritan aphezpikutua, Joseph Theurel ere harekin zen. Zer bihozmina ukhan zuen aita Théophanek Mgr Retord apezpiku adichkidearen hilberria ekharri ziotelarik! Zer bihozmina orobat *Mariaren Adichkideen* komentu maitea paganoek erroz gora ezarri zutela ikasi zuelarik! Serora guziak alde guzietarat barraiatuak ziren. Ondikotz, zerbeit gehiagoren jakiteko, bera nihorat ez zitaken mentura. Choko-moko guzietan ez zen gehiago zelataririk baizik. “Menturaz, —etchekoeri erraiten ditu hauk nolazpeit igorri guthun batean— menturaz, galdetuko dautazue nola bizi naizen sekulan argirat atheratu gabe, aiererik gabe, higitu gabe? Galde dezadazue orobat nola ez

dutan burua galdu? Nere zilhoan ezin chuti, urrats bat nihorat ezin egin: armiarma, arratoin eta aphoak jana! Eta horien gainerat sekulan berri on bat ez ikasten, bethi tzarrak: bethi gero eta tzarragoak! Eta ezin jakin holako bizia noiz bururatuko den! Orai eta bethi ez dut hau baizik erranen: burua ez galtzeko, zerutik norbeitek ongi lagundu nau”.

Oren gaichtoetan ez bazuen burua galdu, eta gehiago dena bethi alegera egon bazen, froga da hiltzeak ez zuela hainitz lotsatzen, froga Jainkoaren aintzinean agertzeko prest zela. Ez zuen dudarik, bertzalde, gerlaren ondotik bakea ethorriko zela. Bake eder eta aberats bat Tonkineko Elizarentzat.

Zerbeitek erraiten zion, haatik, bakearen eguna ez zuela ikusiko, baina halere bake horrentzat ari zen lanean bere zilho lazgarrian. Haren arabera, bakea ethorri eta zer egin beharko zen paperean ezartzen ari zen, norbeitek balia zezan egun batez. Han ere ez zuen denborarik galdu nahi...

Gau batez, ilhun-tuntari oharturik, handik ihes egitea deliberatu zuen bet-betan eta lasterka jo zuen Dong-Baorat. Ez zuen han ere hainitz kokatu behar. Jada ikusten bezala zuen “orena” hurbiltzen ari zaitzaiola. Oren handia! Haur-haurretik igurikatzen zuen orena! But-Dongeko komentutik urruntzean seroreri errana zioten: “banoa hemendik segur nere odola Jainkoarentzat ichuri beharko dutala! Nun eta nola, ez dakit. Baina segur naiz!” Bada, egunetik egunerat segurago iduri zuen...

Egia erran, aspaldi ez zuen bere othoitz guzietan bertzerik galdetzen: martir hiltzea. Aphezpikuari galdetu zion chede hortarat othoitz egiteko baimena! Galdetua... eta ardietsia zuen.

Hori ardietsi zuelarik⁽⁸⁾, ez zen, haatik, choro bat bezala bidez bide abiatu, lehenbailehen atchewan zezaten etsaiek: gordeka ibili zen oraino eta bethi, chendra gaichtoetan barna, ahal bezenbat denboraz ongia egiteko. Jainkoak nahiko zuen arte, hots! Hazilean, egundaino bezala

⁽⁸⁾ Lehen idazkeran, *Hori ardietsi zelarik* jarri du Elissaldek. Gerora zuzendu du adizkiaren gainean, *zeborren* gaintxoan, —u— bat jarririk.

But-Dongen zen. Horra nun ikasten duen Mgr Jeantet bere mendietan arras eta arras ezintzen ari dela. Ez zaio gisa, hura oraino aski aise bizi delarik, aphezpikua ezin biziz ibiltzea, eta jakinarazten dio But Dongen hobeki litakeela, ethortzeko, hura joanen dela mendietarat. Eta aita Théophane Vénard lothu zen bideari. Aski gaizki hartu zuten Kim-Bangen eta ez zen gelditu. Dong-Baorat jo zuen eta han, Pierre bere katechima erakasle hoberenarekin, andere Can hautuzko girichtino baten etchean gorde. Etchea ugarte batean da. Ez du iduri sasoin hartako urekin nihor menturatuko dela harat. Ondikotz, andere onaren jendekian baziren paganoak eta batek salatu zituen.

Biharamun goizean soldadoek preso zeramatzen⁽⁹⁾ aita Théophane Vénard eta Pierre katichima-erakaslea, hura gaichtagin handiak bezala kaiola batean preso, zortzi gizonek bizkarrean, eta hau, taula zilhatu batean burua sartua, oinez. Ez zuten ihes abiatzeko beldurrik. Phu-Lyko presondegirat ereman zituzten, suprefeta herri hortan egoiten zelakotz. Harat orduko misionest gaichoari gathe bat ezarri zioten lephotik, zangoak ere hartzen ziozkana. Ongi preso zen. Preso, bethikotz. Hitz hau etcherat igortzen ahal izan zuen, haatik, nolazpeit: “Nere maiteak: Jainkoak nahi izan du oraikoan gaichtoek atchewan nezaten. Hazilaren hogoita hamarrean atchewan naute eta kaiola batean preso ekharri. Bihar suprefetaren aintzinean agertu beharko dutala jakina dut, jada. Ez naiz lotsa. Jainkoa nerekin da eta Andredena Mariak ez nau ahantziko. Agian hitz bat edo bertze igortzen ahalko dautzuet oraino. Bizkitartean, zer gerta ere, zaintzale pagano baten bidez nere azken agurra balitz bezala igortzen dautzuet agur hau. Orai arte bederen suprefetak ez daut ongirik baizik egin eta ez dezaket segurki erran gaizki-gaizki naizela. Hainitz jende heldu zaut ikusterat eta ororekin mintza naiteke. Erran gabe doa orori erlisioneaz mintzatzen nitzaiotela, eta badire frango arras gustatzen zaiotenak. Kasik konbertitu nahi lukete, bainan erregeren beldur dire. Horra, beraz, nun naizen martiren bidean, orai. Egia

⁽⁹⁾ E. *zeramatzen*. Uste dugu *zeramatzen* beharrean *zeramatzen* izan beharko lukeela.

da Jainkoak egundainotik ttipiak hautatu dituela handien erhausteko! Nere guduak ikasi orduko, agian ikasiko ditzue orobat nere garhaitiak. Ez dut hortako nere indarretan kondatzen, baina bai Jainko guziz botheretsuak igorriko dautan laguntzan. Ez zaituztet ahanzten, baina martir hiltzen banaiz, oraino gehiago orhoituko naiz. Jainkoa baitan agur, guziz maiteak! zeruan elgar ikusiko dugu”. Baina Phu-Lyn ez zen deusik gertatu. Abendoaren 4ean Hanoi-ko hiri nausitzat ereman zituzten hirurehun soldadoek, aita Théophane Vénard bethi bere kaiolan, Pierre oinez eta bere taula lephotik. Ez zen oraino eguna.

VI

Hanoi-ko bidean ez omen zen segurki nigarrez joan aita Théophane Vénard. ”Zoriona ageri zuen begitartean” dio bidean ikusi zuen norbeitek. Berak urtharrilaren 2an igorri guthun batean, huna zer erraiten duen: ”Ikusten nauzue trankilki nere kaiolan, ikusteko bildua den jendetzearen erdian? Noiznahi adi nezaken: Zoin pollita den gizon churia! Iduri luke horren begitartetik phestarat deramatela! Ez ahal da biziki lotsatua! Ez du bekatu horrek! Ez zen Anamerat ongiaren egiteko baizik ethorria, eta halere hiltzerat kondenatuko dute! Kondenatuko dudarik gabe!”

Hanoi-ko jujeak beha zauden jada. Juje nausiak egin ziozkan galde guziak.

—Zertako ethorri zare gure Anamerat?

—Egiazko erlisionea ezagutzen ez duteneri ezagut-arazterat.

—Nork igorri zaitu?

—Ez Frantziako erregeak, ez eta Frantziako bertze buruzagiak: nere-nere baitarik nahi izan ditut paganoak konbertitu eta eskolako buruzagiek gidatu naute hunat.

—Badakizu gure legeak gizon churieri debekatzen diotela lur hautan sartzea? Zertako, beraz, hunat ethor heriotzearen ondotik?

—Nausien nausiak, zeruko erregeak, manatzen dauku ez dakiteneri erlisionearen predikatzea! Nun-nahi bizi diton lurreko erregeeri obeditzen dugu, bainan are gehiago zeruko erregeari!

—Hiltzeak ez zaitu lotsatzen?

—Batere. Bertzalde, hunat egiazko sinhestearen hedatzerat ethorria bakarrik, ez zait iduritzen heriotzerik merezitu dutala, bainan anamitek hilarazten banaute, gogotik hilen naiz anamitentzat.

—Herrarik baduzu preso hartu zaituztenen kontra?

—Den gutienekorik. Gure erlisioneak etsaien beren maitatzea manatzen dauku.

Gurutzefika bat eskuetarar eman zioten hainbertzenarekin eta zangopean ibil zezan erran, hiltzerat kondenatzea nahi ez bazuen. Misionest sailduak hartu zuen gurutzefika eta besarkatu ondoan juje nausiari ihardetsi:

—Zer? Gurutze maite hunen erlisionea predikatu dut orai arte, eta nahi zinuke ukha dezadan, lotsaz? Bizia ez dut aski maite, holako itsuskeriarik egiteko.

—Bainan hiltzeak hoin guti lotsatzen eta, nola bada gordetzen zinen guk ez atchemateko?

—Jainkoak ez du nahi nihork sobera konda dezan bere indarren gainean eta bere burua etsaieri eskaint dezan. Bainan ni preso hartzea onhartu duenaz geroz, badakit ez nauela utziko, bururaino lagunduko nauela!

Katichima-erakasle dohakabearen aldi, gero. Ederki ihardetsi zuen harek ere galde guzieren. Alta, makilkaldi ederrik hartu zuen burutik beheiti, bainan ez zioten amor emanarazi. Nihor ez zen, haatik, menturatu misionestaren hunkitzerat erhi puntaz ere. Bainan Pilatus berriek hiltzerat kondenatu zuten. Katichima-erakasleak lekhuak hustu behar zituen, bakarrik. Eta bi jujamenduak igorri⁽¹⁰⁾ ziozkaten erregeri, bere zigiluan finka zetzan.

⁽¹⁰⁾ Nola da *igorriko ziozkaten* edo *igorri ziozkaten*? Eskuidatzian —ko ezabatuxea da eta dudak ditugu batera edo bestera transribatzeko.

Aita Théophane Vénard ezarri zuten kaiola berri batean eta berritz presondegirat ereman. Eskualde hartan etchekoek eta adichkideek jatekoa igor dezokete preso duten jende edo adichkideari. Jue nausiak bere gain hartu zuen misionestaren haztea. Ez zuen, haatik, luzez atchiki behar hitza, eta bertze norbeit urrikaldu ez balitz, aita Théophane Vénard laster hilen zen gosez!

Handik goiti misionest maiteak ez du gehiago sailduki hiltzea baizik ukhanen buruan. Ezin sinhetsia da haren zoriona. Komentuetan fraile eta serorageiek erretreta bat egiten dute, botuak egin baino lehen: aphezgeiek orobat, apheztu aintzinean. Martirgeia hala-hala eman zen erretretan. Hil baino bi ilhabete lehenago, arras bere baitan sartua zen. Haren atsegina hain handia zen, haatik, nun, noiznahi, kantuz hasia baitzen zaintzaleen sudurrean.

Zaintzale horietan bazen soldado girichtino bat. Bere burua berehala ezagutarazi zion misionestari. Hunen azken berriak haren bidez dakizkagu. Azken bi ilhabete horiek, ichtudiantak bere denbora bezala iragan omen zituen: othoitz handiko liburu eta arrosorioa bethi eskuetan, othoitz berak bethi oren beretan erranez, batzuetan chutik, bertzeetan belhauniko. Gauaren parterik handienia ere othoitzean iragaiten, edo elizako kantu ederrenen kantatzen: Ave Maris Stella, Salve Regina eta bertzeak. Eguberriz, eguberriko kantuak eman omen zituen, haatik, lerro-lerro, oro gogoz.

Polizako gizon bat ere, girichtinoa, aski maiz ethortzen zitzaion ikusterat. Hunen bidez asko eta asko letra igortzen ahal izan zituen eskuin eta ezker, bereziki Mgr Theurel, bere adichkide handiari. Batean komunione Saindua galdetu zion. Bainan nola egin? Ostia Saindua untzi batean ezarririk, untzia emazte chahar bati fidatu zion, eta emazteak presondegirat heldu. Geroztik hainitzetan komuniatu zuen misionestak, hola. Delako emaztea aski maiz presondegian zabilan, preso zireneri puskateria batzuen saltzen. Erran gabe doa girichtinoa zela.

Zaintzaleen aintzindaria ohartua zen emazte chahar haren jokoari, bainan ez zezaken sala: bera girichtinoa zen. Gehiago dena, behin berak

aphez bat kaiolatik hurbilarazi zuen, aita Théophane Vénard kofesa zadien. Oro, beraz, erran ditake kasik nahi bezala zoazkiola misionest sainduari. Salbu, Tu-Duk bethi ichilik zagon, eta martirgeia beha zagon manua ez zen ageri. Zeruetarat hegaldatu nahia zen, aspaldi.

VII

Erran ditake saindutasuneko gradu gorenerat heldua zela orduan Théophane Vénard. Ez zituen halere hautsiak lurreko lokarri maiteak. Ikusterrat heldu zitzaizkon bi chaharrerri paper eta lapitzak galdetuak ziozkatzen. Ekharri zituzten. Geroztik zer eskutitz miresgarriak bere buruzagieri, bere adichkideeri, eta guziz etchekoeri! Huna eskutitz horietarik zenbeit.

“Geandet jaun aphezpikuari eta aphez-lagun guzieri: Nihork ez daut tapalako bat bera eman; nihork ez nau trufatu. Orok aldiz begitarte ona egin dautet. Uste dut nihork ez luken nahi hil nezaten. Gutu jasaiten dut, beraz, bertze zenbeiten aldean. Askiko dut doi-doia buruaren eskaintzea eta zeruan izanen naiz Jesusen aintzinean: Jauna, huna zure martira. Eta Andredena Mariari hurbildurik nere martir-korona eskuetarat emanen diot: Agur, Ama; agur, Erregina! Eta orduan martiren saillean sartuko naiz bethiko. Halabiz:

Agur, adichkideak, adichkide onak,
ilhuntzen ari baita, parti gaiten denak:
bainan ichil zatzuen zuen nigar minak,
Nihun ez du parerik nere atseginak!..”

“Mgr Theurel bere adichkideari: Jaun maitea, huna nun hurbiltzen ari zautan aspaldi igurikatzen nuen eguna: menturaz, bihar izanen da. Nolanahi, laster ditake. Nere kaiolako oren luzeetan jada izpirituz zerurat airatzen naiz noiznahi. Bai, joantchea da denbora: adios erran behar dugu elgarri. Zuk San Martinen hitza errepika zazu: Jauna, zerbeitetako on banaiz oraino, lanak ez nau lotsatzen! Nik, aldiz, erranen dut: joai-

teko orena hurbildua da: Kristo da Bizia: neretuko dut nere heriotzeaz! Erranen dut orobat liburu sainduekin: oi, zoin ederra den sainduen egoitza! Boza bat jada aditua badut: Zorion Jainkoa baitan hiltzen direneri! Behinere zerbeitetan huts egin badautzut, othoi barkha zadazu. Nork ez lezoke barkha Jesukrichtorentzat preso denari? Nere azken agurra doala nere aphezpiku onari eta nere aphez-lagun guzieri. Ez dakit bertze hitzik helarazten ahalko dutan. Gogotik lanean ariko nintzen zuenkin: hain maite nuen misione hau! Izerdien orde, Jainkoari eskainiko diot odola... Ezpata hor dut buruaren gainean, eta ez naiz lotsa! Jainkoak laguntzen nau, zer atsegina dutan! Noizetik noizerat kantu batzu kantatzen diozkatet eta zaintzen dauden soldado gaizoe-ri!... Burua moztuko dautedarik, Ama Ona, har zazu zure zerbitzari ttipia. Ave Maria... Jauna, zuri eta orori, agur!”

Vénard jaunari: Aita maite-maitea: erregeren hitzak luzatzen du eskutitz hau igor dezakezut, beraz, oraino. Presondegiko bizia ez da hain ezin jasana. Guziek aski begitarte egiten dautet: zenbeit badire maitagarriak. Handienetik ttipienerat, orok nahiago lukete naski ez banintz hiltzerat kondenatua. Ez dut orai arte deus ikusi: gero ez dut deus handirik ikusiko, ezpatakaldi ttipi batek lephoa moztuko dautanaz geroz, nausiak behazkaldi batez baratzean lorea mozten duen bezala. Oro, lore batzu gare lurrean, Jainkoak mozten dituen lore batzu. Zenbeit goizago, bertzeak berantago. Ez dire bardinak arrosa, julufraia eta bertze loreak: bakhotchak badu bere usaina. Gu ere gusta gakiola nausiarri gure usain edo distiradurarekin... Aita maitea, chahar zaite eta saindu. Bizi huntako gurutzea arinki eremazu heriotze eder baten galbarioraino. Aitak eta semeak elgar ikusiko dute zeruan. Ni, egun batentzat sortu lorea bezala, lehenik noa. Agur, Jainkoa baitan...”

“Andere Mélanie Vénard arrebari: nere azken orenak hurbiltzen ari baitire, hitz berezi bat nahi dautzut igorri, arreba maitea. Egundainotik gure bi bihotzek hain ongi elgar aditu dute! Egundaino deus ez dautazu gorde, nik ere ez zuri. Haurrean, urthetik urtherat eskoletarat joaiten nintzelarik; zuk biltzen zintuen nere jauntzi eta gainerateko guziak; zuk

alegeratzen ninduzun zure elhe maitagarriekin; zuk zinuen gehienik parte hartzen nere ichtudiant atseginetan, eta badakit zoin ongi lagundu nauzun gero eta gero ere zure othoitzez. Behinik behin 1851ko otsailaren 26eko gau hura ez dut ahanzten ahal. Zure solas saindu eta onak ez gintuen erabili buruz buru, san Bernatek eta bere arrebak bezala! Eta gero itsasoak iragan ditudalarik toki hauk nere izerdiez eta nere odolaz bustitzeko, sekulan ez nauzu ahantzi: chuchen zure boza heldu zitzautan bere tenorean, bethi azkar egon nadin. Gisa da, beraz, azken oren hautan anaia-arrebaz orhoitzea eta azken hitz hau heltzea. Gauerdi da: nere kaiola lantza eta ezpataz inguratua da; bi urhatsetan kartetan ari dire nere zaintzaleak. Noizetik noizera atabala jotzen dute, pan pan pan, ez lokartzeko. Argi ttipi bat badut aldean, hola igortzen dautzut hitz hau. Noiznahi berri handiaren beha nago. Bihar hilen othe naute? Ez dakit. Baina zer heriotze ederra! Aspaldi igurikatzen nuen heriotzea! Bizia hastapena! Uste guzien arabera, lephoa moztuko dautet; ikharagarrikeria horrek zeruko athea zabalduko daut. Berria ikasiko duzularik, nigar egingen duzu, baina ez dut dudatzen zure nigarrak atseginetako nigarrak izanen direla. Beha zazu orduan anaiari eta ikus zoin ederra den martiren koronarekin! Oraino zenbeit egun, menturaz zenbeit oren eta nere arima hegaldatuko da zerurat! Zerua, egiazko aberria, garhaitiaren saria! Hautatuen egoitzan sartuko naiz, gizonaren begiak ikus ez detzazken edertasunak ikusiko ditut, musika ederrenak adituko, atsegin ezin asmatuak jostatuko eta gozatuko! Baina aintzinean ogi-bihia behar da eho, mahats-bihia lehertu. Aitaren gostuko ogia, aitaren gostuko arnoa izanen othe naiz? Agian ba! Hori igurikatzen dut bederen Salbatzaile onaren laguntzarekin, Ama maitearen gerizan. Horra zertako, nahiz oraino lurrean naizen, jada kantuz eta kantuz aditzen nauzun zeruan banintz bezala. Eta zu, arreba maitea, zaude oraino eta bethi bertute eta obra onen alhor ederrean. Uzta handi bat bil zazu zeruko, fedea, esperantza, karitatea, pasientzia, ezintasuna, iraupena, eta ororen buruan heriotze saindu bat. Agur Jainkoa baitan, Melania! Agur Jainkoa baitan, arreba maitea! Agur”.

“Eusebe anaia aphezari: Anaia maite-maitea. Ez zinezake ongi har, eta arrozina zinuke, zuri ere nik ez hitz berezi bat igortzea. Merezi duzu,

igorri dauzkidatzun hainbertze eskutitz eder eta maitagarrirentzat. Badu, haatik, hainisko denbora batere zure berririk ez dutala. Pentsatzen dut apheztua zarela orai. menturaz, misionest. Dena dela, eskutitz hau irakurtuko duzularik, zure anaia Théophane ez da gehiago bizi izanen; zuk ere zure indar guziez bilhatu behar duzun egoitza batean izanen da: zeruan. Lephua moztua izanen diote paganoek, odol guzia ichuria izanen du Jainkoarentzat. Martir hila izanen da! Haur-haurretik ez dut bertze ametsik egin. Bederatzi urthetako, etcheko ahuntzaren zain joaiten nintzelarik, ez nuen begirik Charles Cornay zeruan den gure herritarraren bizia eta heriotzea irakurtzeko baizik eta jada nornahiri erraiten nuen: Nik ere Tonkinerat joan nahi dut eta martir hil! Eta orai Jainkoak hala nahi du. . . Anaia maitea, ez othe ditutzu nik bezala eskerrak bihurtu nahiko haur ezdeus batez hola artha hartzen duen Jainko guziz Onari? Eusebe, nere bihotz guziaz maitatu ditut eta maite oraino anamitak. Hainitz urthez egon behar izan banu hemen, uste dut hortzez eta haginez lehiatuko nintzela hemengo Elizaren sorrarazterat. Ez dut osagarri handia, baina deusek ez ninduen lotsatuko. Erran dezagun orai gizonak chedeak hartzen baditu, Jainkoak egiten dituela obrak. Bizia eta heriotzea Haren eskuetan dire. Bizia emaiten badauku, bizi gaiten Harentzat: heriotzea igortzen badauku, hil gaiten Harentzat! Zu, anaia maitea, oraino gazte uzten zaitut lurrean: bethi ibil zaiten chuchen bethi zuhurtziak eta umiltasunak gida zaitzatela. Jainkoa eta Maria baizik ez duzu begietan izanen. Eta, zer nahi gerta dakizun, ez zare lotsatuko hola, eta porturat helduko zare. Argia hiltzen ari zaut. Anaia maitea, ikus arte. . . zeruan!

VIII

Otsailaren lehenean ethorri zen erregeren mezua. Hilmezu bat, erran gabe doa. Soldado girichtino batek hartu zuen eta heldu mezu hori Hung dohakabeari. Lo zagon Théophane Vénard. Goiz hartan hitz bat

igorri zion oraino Mgr Theureli: "Uste baino gehiago irauten du nere beilak. Mezulari frango ikusten dut, bainan batzuek eta bertzek deusik ez dute neretzat. Goiz guziera agur erraiten diotet gogotik, azkena direlakoan, eta sekulan ez da azkena: eternitateko athe ederrek ez dute oraino zabaldu nahi. Bainan egin bedi Jainkoaren nahia, ez nereal!..."

Horra zer sentimedutan zen Théophile Vénard, hilmezua ethorri zela erran ziotelarik. Kanderailu zen. Andredena Mariaren phesta-egun batez sortua, Andredena Mariaren phesta-egun batez hil behar zuen, beraz. Ez da dudarik hori ere gogoan erabili zuela laster.

Zortziak eta erditan soldadoek bere kaiolatik atheratu zuten eta jujeen aintzinerat joanarazi, eta auzitegiko irakurtzaileak irakurtu zion erregearen mezua: "Errege bezala manatzen dugu lephoa motz dezoten Ven deithu aphez churiari. Hogoita hameka urthe ditu. Horren burua, orok ikus dezaten, ziri baten puntan hirur egunez atchiki ondoan, urerat igorria izan dadiela".

Misionestak berritz ere erran zioten ez zela harat ethorri behar ez den zerbeiten egiteko, bainan ba egiazko sinhestearen hedatzeko, eta oraino bere bortz eginahalak egin zituen jujeen buruan sarrarazteko zer den Jesus maitearen erlisionea. Eta jujetarik urruntzean, harat bildua zen jendetzeari berritz ez mintzatu nahi izan zuen: "badakizue ez dutala nik deus gutieneko hobenik, eta horrengatik hilarazten naute. Bainan bazinakite nere zoriona! Nere herria utzi dut, itsasoa iragan, eta hunat ethorri naiz zueri egiazko Jainkoaz mintzatzeko, zuetarik hainitz eta hainitz zeruko zorionerat helarazteko. Oi, zer saria dutan! Heriotzea, ... bainan heriotze guzietan ederrena!" Eta orduan, burua aphas, espanturik gabe, bera joan zen soldadoen erdirat. Batek jada han zuen altchatua haizkora. Misionest sainduak agur ezti bat egin zion ooren artetik.


Harat bilduak zirenetan chede oneko zenbeit baziren. Gutiz gehienak chede tzarrez ethorriak ziren, haatik: martiraz trufatu nahi zuten. Irriak eta trufak sartu zitzaizkoten Théophile Vénard, lotsatua ikusteko orde, kantuz aditu zutelarik. Eta ooren erdian iragan zen misionesta, bildotsa otsoen erdian, otsoak oldartu gabe. Bazoan, lephoa oineri lo-

tzen zioten gathe ikharagarriaren gatik, arin eta zalhu, alegrantzia handi bat begitar-tean, hamabi soldadoen artean. Soldadoak manatzen zituen aintzindaria hurbildu zitzaion eta ahapetik erran ezpatak chorrochtu beharrak zituela oraino, eta aita Théophanek ihardetsi zion lañoki: “ez zazula hortaz bururik hauts: gaztigua luzeago eta gutziagarriago da nere kasuan!”

Ibai-Gorriaren aldean gelditu zen jendetzea. Soldadoek berehala gatheak khendu ziozkaten misionestari eta, doi-doia azken benedizione baten emaiteko denbora utzirik, ur hegian landatua zuten pazotari este-katu. Burua gora, begiak zeruari, Théophane Vénard othoitzean ari zen. Aitzindariak zerbeit erran zion haizkora eskuan zagon soldadoari, eta hunek bere indar guziez misionesta lepho gibelean jo. Bainan edana zita-ken soldadoa. Mathelan atchewan zuen martira, eta burua ez zen borz-garren ukhaldian baizik erori. Berria laster hedatu zen eskualde guzieta-rat, eta guziek goretsi zuten martiraren bihotz handi eta indarra.

Handik laster Fedearen Hedameneko liburuek Théophane Vénard misionestaren eskutitzak agertu zituztelarik, Frantziak ez zuen doi-doia izenez baizik ezagutzen. Geroztik hainitz liburu ederrek ederki ezagu-tarazi dute, Eskual Herriko choko gordeetaraino. Hemen agertu chehe-tasunak ez dire orhoitarazteko baizik. Mende hau ahal bezalakoa da: gure beharrak sekulan baino handiago dire. Urrikal dakigula, beraz, Théophane Vénard dohatsua. Badu gure laguntzeko ahala...

SAN FRANTSES XABIER



San Frantses Xabier sainduaren kontakizunaren Zerbitzariren eskuizkribuko lehen plama.

I. Sainduaren arbaso eta burhasoak. Sortzea– haurtasuna –gero

Bizpahirur ehun arima badire orai Jaxu Bachenabarreko herrichka argi eta pollitean. Hemen aiphatzerat goatzin denboretan ez zen hurbiltzeko ere hoinbertze: erditsuak bezala naski. Hautan, etcheko jaun

handi batzu: ezagutuenak Lascortarrak. Aphaltchagoetarik ziren Franses Xabieren arbaso Etcheberriatarrak.

Hamalagarren mendearen erditsutan Jaxuko Etcheberritarretarik bat, premua, ezkondu zen Suhuskuneko nechkatcha batekin. Ezkontza huntarik sortu haurretarik bat joan zen Donibane-Garazirat eta han kokatu. Anaia gehienari Etchebarriatarren deithura utzirik, bertze bat hartu zuen, hainitz chuberotarrek oraino egungo egunean egiten duten bezala: Jassu. Horra zertako ez den geroztikako paperetan Pedro Jassu baizik ikusten. Chuberotarrek etchearen izena hartzen dute, haatik, mai-zago. Kargu handi zerbeit Donibanen ardietsirik, sos frango egin zuen Pedrok, ederki ezkondu zen eta bere haurreri eskola handiak harrarazi ziozkaten. Bertzeak bertze, haur hautarik batek bide handia egin zuen eta gazterik ezkondu zen Guillerma Othaondo, Iruñako korteko kargudun baten alabarekin: Arnalt zuen berak izena.

Arnalt eta Guillermaren sei haurretarik zaharrena Juan deithu zuten bathaio-harran. Erran gabe doa gain-gainetik eskolatu zela. Juan de Jassu erresumako lehen karguetarat heldu zen, beraz, laster. Etche partearen gainerat, hor irabazi zituenekin, diruz eta ontasunez okhitu zen. Ez da, beraz, harritzeko hein ederreko etheko alaba frango ethorri bazitzaion aintzinerat: Maria de Azpilcueta, Xaberi deithu gaztelu famatu batetako alaba gehiena hautatu zuen guzien artean.

Ez zezaken hautu hoberik egin: Maria de Azpilcueta, korteko ohore eta josteten erdian lilluratzeko orde, bethi gorphutzaz baino gehiago orhoitu da arimaz, munduaz baino gehiago zeruaz. Orduko paper guziak ez dire mintzo hango eta hemengo eliza eta komentueri egiten ziozkaten emaitza choragarriez baizik. Bazakien Jainkoak ez dituela aberastasunak nolanahe erabiltzeko ematen, bainan ba, bethi eta bethi, ongiaren egiteko...

Juan de Jassu, garaztarra, eta Maria de Azpilcueta, baztandarra, horra Franses Xabierren aitamak. Mila bortz ehun eta seiean, apherilaren zazpian, ethorri zen mundurat mundua hala inharrosi behar zuen muthiko ttipia: aste saindua zen. Haurrak azkarra iduri zuen, bainan

errana da egun berean bathaiatu zutela halere. Ez dute luzatzen, ez luzatu behar, burhaso girichtinoek haurren bathaiatzea!

Badire diotenak ez zutela Frantses Xabier Xaberiko gazteluan hazi, Jaxu edo Eskual Herriko bertze herrichka zenbeitetarar ereman zutela. Ez du iduri egia dela: Xaberin sortu zen eta hazi, Juan de Azpilcuetak guti gorabehera dionaren arabera: “Frantses Xabierren ahaidegoan naiz guti edo aski. Haur-haurretik ezagutzen dut, amañoetan⁽¹⁾ zelarik ezagutua. Hainitzetan ikusi dut, hainitzetan mintzatu eskola handietako bidea hartu duen eguna arte. Zenbatetan ez naiz Xaberiko gazteluan egon neroni!”.

“Ez ditake gure Frantses ttipia baino haur erne eta maitagarriagorik, dio bere paperetan Navarro gure sainduaren anaia gehienak: oro harritzen eta choratzen gaitu!”.

Ez dakigu bertze deus handirik Frantses Xabierren lehen-lehen urtheez. Sei urtheak Xaberiko gazteluan egin zituen. Orduan hasi zitzaizkoten oro gaizki joaiten gazteluko senhar-emazte oneri. Emeki-emeki atzeek Nafarrako erresuma ederrari bere eskupide gehienak eba-tsirik, Juan de Jassu ere erori zen. Ohoinek larrutu zuten kasik. Ez zen gehiago holako zorigaitzari ihardokitzeko adinean: hil zen. Ez zituen, haatik, heriotze horrek gaichtakeriak geldiarazi behar, eta handik laster Frantses-Xabierek bere begiz ikusi behar zituen langile batzu gazteluari eta gaztelua zaintzen zuten murru zaharri pikotcheekin joka, lurrerat botatzeko. Deusek ez du herrak bezala itsutzen gizona! Xaberiko gaztelu ederra ez zen gehiago nun-nahiko etche arrunt bat baizik, eremu larrutu batean etche oraino larrutuago bat baizik!

Bertze oren tzarrik ikusi behar zuten oraino gazteluan. Nafartarrak berritz Erregeren kontra altchaturik, gorabehera frangoren ondotik, azkenekotz zafratu eta chehatuak izan ziren Mayan, bainan ez zuten San Frantsesen anaietarik bigek bereziki aise amor eman oraino. Odolak hala manatzen zioten.

⁽¹⁾ Ms. *amañoetan*.

Beharra eragile handi baita, bakea arras ethorri eta guduak ahantzi zirelarik, Maria de Azpilcuetak hitz bat igorri zion Erregeri lehengo dretchoetan sartu nahiz, eta Azpilcuetan nola Xaberin soldado espainolek egin ziozkaten kalteen ordainez diru zerbeit galdetzeko. Hitz ederrak eman ziozkaten berehala, eta gero deusik ez! Andere gaichoak sos bat ukhan baino lehen hil behar zuen... orori oro barkhaturik!

Jada zerbeiti lotzeko adinean zen Frantses Xabier. Anaiek aspaldi eginahal guziak eginak ziozkaten tropetan sarrarazteko. Debaldetan. Liburuetarat ekharriago zen. Bazakien aita kargu handienetarat liburuak altchatu zutela eta iduritzen zitzaion hari ere bide eginaraziko ziotela.

Beraz, ordu arte etchean edo Iruñako eskola batean hortzez eta haginez ari izanik, mila bortzehun eta hogoita bortzean hartu zuen Frantziako bidea. Hemeretzi urthe zituen. Sos guti moltsan, bainan amets handiak gogoan, lothu zen bide horri bere ama maiteari bi musu gozo emanik... Liburu egile batzu azkarki guduan ari izan dire frantsesa zen ala espainola san Frantses Xabier. Frantsesa zela finkatu dutenek beren arrazoinak badituzte: Nafarra frantsesen menean zela, Frantses Xabier sortu zenean. Bertzeek, aldiz, egundainotik Sanguesa, Frantses Xabieren sortherria, mendiz bertzaldean izatu dela erraten daukute. Hori ere hala da. Guretzat San Frantses ez zen ez frantsesa ez espainola: eskualduna zen, kantikak dion bezala:

Aitaz garaztarra, amaz baztandarra,
eskualdun garbia zen ta nafartarra...

Urrunago joan gabe, hitz berezi bat orai. Nor edo nor ohartu ditake hunat arte behinere ez dugula erran Frantses Xabierrek othoitza bertze haurrek baino maiteago zuela jada, elizan ibiltzaleago zela, edo holako bertze zerbeit. Egia. Huna zertako? Nihun ez dugulakotz argi ttipiena kausitu hortaz. Irakurtu ditugun liburuetan bethi gauza berak ikusi ditugu: ama arras eta arras elizako jendea zela, aphezak maite zituela, herriko elizari zernahi ematen ziola eta bere haur guziekin noiznahi othoitzean ari zela. Bainan Frantses Xabierrez sekulan nihun aiphu berezi bat! Guzien

buruan baditake bere adineko bertze haur guziak bezalakoa zen: ez hobea ez gaichtoagoa. Jainkoaren orenak Parisen jo behar zion eta herritar batek behar zuen, itzulika frangoren ondotik, bere baitan sarrarazi eta arras zeruko urhatsetarat itzuli. Egiazki Jainkoaren chedeak harrigarriak dire!

Frantses Xabier bere baitan sarrarazi behar zuen herritarra, Inazio Loiolakoa bera, ez zen bethi hoberen-hoberenatarik izana. Huna zer aithortu zioten behin predikalkitik bere herritarreri: “Ene anaia maiteak, uste nuen sekulako utzi zintuztedala, bainan kontzientziako arrangura batzuek ekharri naute oraino zuen arterat. Aspaldian boz batek saminki erraten zautan gazte erho agertu nintzen herrian behar nuela agertu zentzatura, urrikitan sartua. Jainko Jaunari othoitz egiten diot egun guziz; eta nigar-auhenetan othoitz egiten, ahantz detzan ene gattetasuneko urtheak. Zueri ere, herritar maite-maiteak, barkhamendu galdetzen dut eta othoizten zaituztet Jainkoari gomenda nezazuen. Eta zuetarik zenbeit eni behatuz gaizki abiatu balin badire, berehala sar dite-la beren baitan eta beren bekhatuez urrikiturik Jainkoaren ganat itzul...”

Bai, egiazki Jainkoaren chedeak harrigarriak dire! Bainan nork daki ez diotegun guzien buruan ama girichtino handi baten othoitzeri zor san Frantses Xabier, egundaino Eskual Herrian ukhan dugun saindu handienatarik bat? Ama maiteak, ez zazue hori ahantz eta zuen haurrentzat egizue othoitz hainitz... bethi!

II. Parisen

Huna Frantses Xabier Parisen. Laster eta hainitz ikasi nahi zuen: Pariseko ikastegi handienatarik batean sartu zen, beraz. Santa Barbara zuen ikastegi harek izena. Bainan Parisek irrisku handiak ditu gaztearentzat. Jada Santa Barbaran berean irakasle eta ikasle frango bazen galdurik. Eta arras galdurik! Gutik egin zuen ez baitzen galdu gure Eskualduna ere. Utz dezagun, haatik, hemen bera mintzatzerat: “Ene lagune-

tarik hainitz arras phestari emanak ziren jada: ikastegiko buruzagia bera ere ba. Noiznahi gauaz ikastegitik atheraturik etche tzarretan zabiltzan eta behin baino gehiagotan neroni berenkin joanarazi ninduten. Bainan eskerrak Jainkoari, orok gaitz itsusienak biltzen ari zituztela oharturik, lotsatu bainintzen! Hainbertzenarekin ikastegiko buruzagi galdu doha-kabea hil zen eta bertze bat ethorri arras gisakoa eta behar zen bezalako. Haren kontseilu oneri esker arras ene baitan sartu nintzen eta, oraino behinere erori gabe, irrisku hetarik urrundu...”.

Bainan ez othe zuen bertze zerbeitak ere Frantses Xabier begiratu gehiago lerratzetik? Baietz iduritu zaiote hartaz mintzatu diren guzieri. Zerk, bada? Gela berean lo egiten zuen ikasle lagun baten kontseilu eta etsenpluek...

Santa Barbarako gelak arras handiak ziren eta bethi kasik bizpahirur ikasle baziren baxhotchean. Eskualdunaren lagunetarik batek Piarres Lefèvre zuen izena: frantsesa zen. Haur-haurretik jakitate gose, eskola berezi batzu hartu zituen herriko irakasle on batekin. Bere eskola handien egiterat Pariserat joatea galdetu zioten orduan burhasoeri eta, beren semeaz fida baitziren, burhasoek lorietan utzi. Adineko gizon bat bazen gizon segura zen jada Piarres Lefevre. Ichila, bertzalde, langile errabiatua, bihotz onekoa, kartsua. Horra gure herritarrari Jainkoak gelan eman zion lagun ona.

Elgar lagunduz eta lotsaduretan elgar ederki sustatuz, bi adichkide berriek airez aire egiten zituzten lan guziak. Ez da, beraz, harritzeko laur urtheren buruko batek eta bertzeak titulu handi batzu ardietsi bazituzten. Handik laster Frantses Xabier bera irakasle bezala hautatu zuten bertze eskola batetako. Ez zituen horrengatik bere gela eta adichkidea utzi. Bere baitan sartzen hasia zelako froga!

Mila bortzehun eta hogoita bederatzigarren urthea polliki gainbeheiti abiatua zen jada. Egun batez bi adichkideeri lagun berri bat eman zioten gelan hirugarren bezala. Aspaldi ikustez ezagutzen zuten batek eta bertzeak, hainitzetan karrikan buruz buru eginik. Berrogoi urthetarat zoala iduri zuen jada eta, oraino ohartgarriago izaiteko,

eskuineko zangotik bazuen maingu aire zerbeit. Bere trastu arrunt eta higatuekin ikasle baten baino hainitz eskale baten planta gehiago zuen. Horrengatik, zer aire ederra eta begitarte maitagarria! Inazio Loiolakoa zen.

Lagun berriak bazituen bere chedeak: berrogoi urthetan holako gizonak ez du deusik airerat egiten. Adinak lotsatu gabe hortzez eta haginez bere eskola handien egiten ari zelarik, lagun eta laguntzaileketa zabilan jada Jainkoaren alhorreko. Piarres Lefèvre laster bildu zuen. Ez zuen aise bildu behar Frantses Xabier! Eskuarazko liburu eder batean irakurtzen dugunaz, bertze batek aspaldi etsituko omen zuen: Inaziok ez zuen etsitu, Frantses Xabierren elhe batzuetarik noizpeit iduriturik, egun ez bazen bihar, bihar ez bazen etzi, eskuratuko zuela. Hortakotz eztiki mintzatzen zitzaion, ahal bezenbat ile alde: hala nahi zuen herri-tarraren jite minberak. Bainan uste dugu Inazioren elhe guziek baino gehiago bertze zerbeithek idekarazi ziozkala begiak eta hunkitu bihotza Frantses Xabierri. Huna zerk.

Santa Barbaran sartzean Inazio Loiolakoak ikastegiko buruzagiari erdi hitzeman zion ikasle laguneri ez ziotela sobera gerla eginen bere urhatseri jarraikarazteko. Bainan hitz hori nola atchik Jainkoarentzat bihotza Inaziok bezala su eta kharrez bethea delarik? Ez zitaken ichil: ez zen ichiltzen. *Non possumus non loqui* erraten zion bihotzak, bertze orduz apostolueri bezala. Gaitzitu zitzaion buruzagiari eta egun batez ororen aintzinean gaztigatu zuen. Eta nola gaztigatu oraino! Haur bati bezala soinak agerrarazirik, azotekaldika chehatu zuen! Ez zuen hitzik erran Inaziok, ez zuen hintik egin. Harritu zen buruzagia bera; Inazio kanporat joanarazirik luzez bigak mintzatu ziren elgarrekin, eta gero, berritz ororen aintzinerat itzulirik, irakasleak barkhamendu galdetu zion ikasleari!

Hortan egiazki adichkidetzen hasi ziren bi eskualdunak. Ez zen, haatik, oraino erori Frantses Xabier: erroak barna dituen zuhaitza ere ez dute lehen haizeek lurreratzen. Jada aiphatua dugun eskuarazko liburu eder hortan irakurtzen dugun bezala “bihotz suhar baten munduko

lokharrien hausteko, lan behar da eta denbora”. Ez da gutiago egia, haatik, handik goiti bere bihotza hobeki idekitzen ziola herritarrak herritarri. Bere amets handi eta ederrak berak ez ziozkan gehiago hala gordetzen. Eta amets horieri Inaziok bethi hitz berez ihardesten zioten: *“Quid prodest homini, si universum mundum lucretur, animae vero suae detrimentum patiatur?”* Zer ari da gizona mundu guzia bereturik ere, arima galtzen badu?”

Gogor egin zuen oraino ere oraino Frantses Xabierrek, ba; baina, errana den bezala, bethi joz harriari ere phuska khentzen zaio. Laur urtheren buruan amor eman zuen, Piarres Lefevre kanpoan zen egun batez. Huna, bethi eskuarazko liburu berari harturik, egun handi hortako chehetasunak:

—Ene Frantses maitea, lehen erranak behar dauzkitzut, beraz, berritz erran? Gizona zer ari da mundua irabazirik ere arima galtzen badu?...

—Jakintsun bilhakatur, jakhintsunaren aiphamena karreatuz, ez othe niteke salba?

—Beharbada bai, beharbada ez. Zuk dakizuna da, Jainkoak nahi duela haren amoreagatik mundua utz dezazun!

—Mundua utz? Eta idea hertsu batzuetan sar?

Hertsuak, frantses?... Arimari hegalak ematen dituztenak! Salbatzaileak hitzez eta obraz gomendatu dauzkunak! Salbatzaileari jarraitzeak, arima aphaltzetik urrun, arima edertzen du eta zeruraino altchatzen: zuzenegi da zure izpiritua gauza horren ez ikusteko. Xabier maitea, galdeitza bat egiten dautzut; zure izpirituari nago, zure bihotzari nago. Zer da hobe? Arimaren zorion eternaletan maite denaz orai gabetzea, ala arimaren zorigaitz eternaletan maite denaz orai gozatzea? Zer diozu? Zer da zuhurrago?

Frantsesek ez du ihardesten: haren begitartearen kharbiatua da, haren eskua ikharan dago Inazioren eskuan, gudukan ari da haren bihotza.

—Zure ichiltasunak ez du guti erran nahi: hortan gauden egun. Segur naiz bihar zuhaurek erranen dautazula: Zer ari da gizona mundua irabazirik ere, arima galtzen badu?

—Ez dut biharrerat utzi nahi, garhaitua naiz, aithortzen dut. Baina ez ditzazket guziak utz... ez ditzazket!

—Gaur iduritzen zaitzu ez dezakezula, baina zure naturalezako gizon bat ez da bide erditan baratzen. Egia behin ezagutuz geroz, begirik ez du haren ikusteko baizik, mihirik hartaz mintzatzeko baizik, bihotzik haren maitatzeko baizik, indarririk haren zerbitzatzeko baizik.

...Bat bertzearen besoetarat erortzen dire bi eskualdunak, bigak bozkariozko nigarretan, Jainkoari eskerrak bihurtzen dituztela, batek irabazi handi bat eginik, bertzeak bere burua irabazterat utzirik...

Inazio Loiolakoak nola ezagutzen zituen gizonak! Ez, Frantses Xabier ez zen bide erditan gelditu behar. Berehala barurari eman zen, berehala egun guzietz bere gorphutzaren bortizki azotatzen hasi. Hainbertzetaraino nun Inaziok berak erran izan behar baitzion orotan badela hein bat, indarrak dituenak ongi egiten duela ongiarentzat atchikitzea. “Urrunegi joanen zen, Inazio hola mintzatu ez balitzaio”, dio bere liburuan aita Brou jesuista famatu batek.

Mila bortzehun eta hogoita hamalaua urthe handia izan dela Elizarentzat ez da dudarik. Agorrilaren hamabortzean, Andredena Mariaren phes-tan, zazpi gizon baziren Montmartreko kapera ttipi batean bilduak: Inazio Loiolakoa eta Frantses Xabier bi eskualdunak; Lainez, Salmeron eta Bobadilla espainolak; Portuges bat, Simon Rodriguez; eta Piarres Lefevre jada frangotan aiphatua dugun frantsesa. Inaziok berrogoita hirur urthe zituen: hogoita zazpi bertze seietarik zaharrenak. Bira botu egin zuten orok kapera ttipi hartan, bethi garbi eta erromes gorri egonen zirela.

Horra, bada, munduan egin diren lehen jesuistak, egungo egunean oraino tzarrek begiko zikhina baino gehiago ikusi nahi ez dituzten aphez on eta suhar batzuen aintzineko eta aitak⁽²⁾. Eskual Herrian ez ditugu jesuistak hainitz ezagutzen, eskualdun guti sartzen baita horien komentuetan. Bainan aita Lhande zalgiztar aiphatu eta gure adichkide Etcheverry ziburutar bi anaietarik jujatzeko, aise finka ditake Jainkoaren alhorrean langile hobe guti dela.

Bainan aldeko solasetan galdu gabe itzul gaiten laster Frantses Xabierren ganat. Handik bi urtheren buruan joan zen Parisetik: zer egin zuen ordu arte? Lehenik, bakantzak ethorri zireneko, erretreta edo

⁽²⁾ Elissalderen oharra: Erran dezagun, haatik, zenbeit urthe geroago hartu behar zutela “Jesuisten” izena, Aita Sainduaren baimenarekin.

gogo-biltze luze bat, Inazio gidari. Gero? Ez dakigu: nihun ez dugu deusik ikusi. Ez da dudarik lanean ari izan zela sekulan baino gehiago, lana othoitzta baita, eta bere lagunekin arras Inazioren eskuetan eman zela, orok bihotz bat eta arima bat baizik ez egiteko...

III. Bidean. —Italian—Lehen Meza

Parisen elgarretarat bilduak ziren aldi batez, jesuista berriek —izen hori eman dezogukete naski jada makhurrik gabe, nahiz ez ziren oraino hala?— Lur Sainduetan hasi behar zituztela beren lanak egina zuten, bainan harat joaiteko traba zerbeit gerta zitakeela erranik Inaziok, hitzartu zuten Benizako hirian elgarretaratuko zirela mila bortzehun eta hogoit hamazazpian. Ez zen apheztua oraino Frantses Xabier, bideari lothu zelarik zenbeit lagun chahar eta hirur lagun berrirekin. Inazio Espainiarat joana zen zenbeit denbora hartan eriturik, sendatzeko, bai eta etcheko antolamendu batzuen egiteko. Negu bethea zen. Oinez abiatu ziren, “*makhila eskuan, othoitzeko liburua besapean, errosoioak lephotik, chakutto bat bizkarrean liburuz eta paperez bethea*” dio eskuarazko liburuak, euriak eta elhurrek lotsatu gabe. Urtharrileko heldu behar zuten Benizarat. Ez zuten aise egin behar. Lehenik, frantsesen eta espainolen artean gerla hasirik, itzuli handi bat hartu behar izan zuten Alemanian gaindi. Gero Frantses Xabier bet-betan eritu zen. Nigarra begian goiz batez bere bideko laguneri erran zioten ez zezakela gehiago urhatsik egin.

Zer gaitz othe zuen? Utz dezagun oraino eskuarazko liburua mintzaterat: “Hoinkari edo jauztekarri bezala aiphatua zen Frantses Parise guzian. Laudorio bat baino gehiago entzuna zagon bere membro zalhoinez, bere urratsaire ederraz, bere itchurantz begikoaz, bere gorphutz azkar eta lerdenez. Laudorio hek on hartu zituelakotz, heien ondotik ibili zelakotz, azpiak ezarri zituen khorda mehe batzuez finkaturik, eta hainbertzetaraino hantu zitzaizkon nun ez baitzen gehiago khordarik ageri”.

Ez zuen mirikurik nahi, bainan lagunek bat ekharrarazi zuten halere. Hau harritu zen eta lañoki aithortu khorda hek handik khentzekotz eria hil behar lukeela, Frantses Xabierrek Jainkoa zela mirikurik hoberena erranik, lagun guziak belhaunikatu ziren eta othoitzean hasi. Lo chortarik ez zuten egin gau guzian, bainan ere biharamunean khordak eroriak ziren, hertuak hantura lotsagarriak... eta gure eria egundaino bezen azkar eta zalhu!

Alemanian sartu ziren. Bainan gau batez jostetak ikusi zituzten hirichka batean hango buruzagi batekin. Hau, ostatu bethean, sekulako jendetzearen aintzinean, katolikoek kontra zernahi erranka hasirik, berehala bidekari guziek buru egin zioten, eta erhautsi. Ez dakigu Bobadilla gazteak lorietan ez zion panpaldi bat ere emanen. Gaitzitu zitzaion alemanari: oihuka, zalapartaka hasi zen lehenik, mehatchuka gero. Ez othe zituen hilaraziko? Bainan beren chakuttoak harturik, lekhuak hustu zituzten lastersko gizagaichoek... bertze nunbeit jateko menturan. Egia erran, jan gabe gehichago egoteak ez zituen hainitz lotsatzen!

Mila bortzehun eta hogoita hamazazpigarren urtheak bidean atcherman zituen oraino. Urtharrilaren zortzian heldu ziren bakharrik Benizarat.

Munduan Beniza baino hiri ederrago guti da. Begia ez ditake ase hango etche eder, argi maite eta itsaso paregabeaz. Bainan beldurra dugu gure bidekariak ez zirela horieri guzieri hainitz ohartu. Bertze minik bazuten sabelean: Inazio Loiolakoa nahi zuten lehenbailehen ikusi. Zer bozkarioa agertu zitzaiotenean eta zoin gogotik besarkatu zuten orok! Alabainan hura gabe errebelatuko zirela zitzaioten...

Erran ditake Frantses Xabierrek hiri hortan egin zituela misionestgoko lehen apendizkoak. Aitorren semea, lehenik, athez athe ibili behar izan zen eske, hemen aza buruchka bat, han bi lur-sagar, urrun-tchago ogi mokhor mutzinduak galdetuz, bidean haur tzarren harrikaldiek, atheetan etcheke andere urguilutsuen trufek lotsatu gabe. Bainan Jainkoaren izenean Inaziok hala manatzen zuenaz geroz, zer egin?

Gero, Inaziok eritegietako bidea harrarazi zion. Oi, zer okhazadura hastean zauri eta gaitz ikharagarri batzuen aintzinean! Ez zuen bere burua aise garhaitu Frantses Xabierrek. Bainan bazakien gaitz handieri erremedio handiak ematen zaizkotela, eta huna zer egin zuen goiz batez. Chokho batean karrasiaka ari zen lepradun bati oharturik —nihork arthatu nahi ez zuen lepradun bati— hurbildu zitzaion. Usteltzen hasia zen jada eria eta ez ditake erran zer usaina hedatzen zuen. Goitika has-teko heinean izan zen behin eskualduna bera, bainan, Jainkoari bihotza altchaturik, besoetan hartu zuen eta besarkatu, eta, orduan, bere okhaz-taduraren bethikotz garhaitzeko, zauri lotsagarrienean ezpainak pausat-urik, hango zorne guzia hurrupatu! Erhokeria miresgarria eta jada sain-du handi den gizon batek bakharrik egin dezakena! *Nos stulti propter Christum!*

Primaderako aro ederren beha zagon Inazio Loiolakoa bere lagun maiteen Aita Sainduaren ganat igortzeko, bertzeak bertze, Lur Saindue-tarat joiteko baimena galde zezoten. Erran gabe doa oinez joan zela Erromarat Frantses Xabier bere lagunekin. Garizuma zen: bideko nekhe guziak ez zitzaizkoten aski iduritu behinere baruraren hausteko. Eta bizkitartean irakurtzaileek aise sinhesten ahal dute orduko barurek ez ziotela oraikoeri zorrik! Bideko nahigabe batzu bertzalde! Aita Bartoli aiphatuak oro lerro-lerro erraten ditu liburu batean. Ez ditugu oro erra-nen, guk; hauk bakharrik: noiznahi kanpoan etzan behar izan zutela, zerua estalki eta lurra mihise; nola Rabenako eritegian berean ororen-tzat ez zuten ohe bat baizik atcheman, dena ere zikhina, ta nola hartu zuten... bi nekhatuenek: nola Ankonako hirian, onthuts, larruraino bus-tia, eta guziz goseak hamikatua, Frantses Xabierrek eske ibili behar izan zuen... ez hiltzekotz! Bainan Erromarat heldu ziren halere oro.

Paulo III zen Aita Saindua orduan. Arras gustatu zen Frantses Xabier eta bere lagunnez. Kondatua da Erromako teologo handienekin gudukarazi zituela frango aldiz nihork sekulan garhaitu gabe, berak ere behin baino gehiagotan bere etcherat deithu zituela eta bere mahainean jarrarazi hobeki ezagutzeko.

Hainbertzetaraino nun zenbeit denboraren buruan, oro ongi pisaturik, lorietan eman baitzizkaten nahi zituzten baimen guziak. Salbu, erran zioten ongi eginen zutela Lur Sainduetarat ez oraino menturatzea, irrisku handiak bazituela bideak. Turkoen gerla hasterat zoan. Bainan kontseilu horrek eman zezoketen bihozminaren berehala eztitzeko, aphezgoaren nahi zuten bezen laster eta nahi zuten aphezpikuaren eskuetarik hartzeko dretchoa gogo handiz utzi zioten. Chori batzu baino arinago itzuli ziren, beraz, Benizarat eta ez zioten segur nahi baino lasterrago salatu Inaziori berri handia gure bidekariak.

Ikusiak ikusirik, orai nornahik aise asma dezake Frantses Xabier eta bertze aphezgeiek zer bildutasun, othoitz eta penitentzietan igurikatu zuten ekhainaren hogoita laua, aphezteko egun choragarria. San Inazio-ren bizian irakur ditazke chehetasun hunkigarri batzu. *“Aldarerat igan baino leben, berrogoi egunetako barur bat egin zuten. Bizenzeko komentu erori batean iragan zituzten berrogoi egun bek. Azken gerlak ez zion komentu hari ez atbe bat, ez leibo bat utzi. Iguzkiak, euriak, hotzak, beroak, zeruko haize guziek joiten zuten. Hantche jarri ziren saindu maiteak, ahal zuten bezala: obetzat lastoa, alkitzat barria: edaritzat ura, aburrean dena ere: janbaritzat ogi hutsa. Batere jan gabe ere egon bide ziren zenbeit egun. Gorphutzari kbendua arimari emana zen”*. Bainan egiak behar du bere bidea: Frantses Xabier batere ez omen zen komentu hortan. Inazioaren bizia ematen daukun eskuarazko liburua agertuz geroztik, paper chahar frango atchegan dute bilhatzaileek eta heieri esker orai segurki badakigu Montselizen, Paduako inguruetan, iragan zituela nafartarrak berrogoi egun horiek, etchola galdu batean, munduko harrabotsetarik urrun. Pentsatzeko da Bizenzeko komentuaren iduritsukoa zela gutienetik Montselizeko etchola eta sartzeak libro zituztela hartan ere euri, haize eta gaineratekoek. Aspaldi zuen ez zela gehiago aisiaren ondotik ibilki Frantses Xabier, alabainan...

Dena dela ekhainaren hogoita lauean apheztu zen bertzeak bezala, Arbeko aphezpikuaren eskuetarik. Eskualdunek maite dugun saindu handi baten phesta zen, Jondoni Joani Batichtarena.

Liburu egile bat bada lehen meza handik ilhabete baten buruan baizik ez zuela eman erraten duena: ez zauku iduritzen. Hobeki sinhesten dugu meza hori ematean pur, pur, pur nigarrez ari izan zela erraten duelarik...

IV. Italiatik Portugalerat. Egiari bere bidea

Horra, beraz, Frantses Xabier apheztua: haren lagunak ere ba. Biharamunean berean Inaziok berritz bilarazi zituen oro Bizenzeko komentu hartarat, zer egin behar zuten elgarrekin aiphatzeko eta ikusteko. Turkoen eta benezatarren artean gerla hasia zen: ez zitazken, beraz, aphez berriak Lur Sainduetarat nihundik mentura. Italian berean hasiko zirela lanean hitzartu zuten *Jesusen Lagundia* lege berri batzuetan finkaturik. Inaziori eman zioten kargua Aita Sainduari lege berri horien irakusteko, eta, ahal bazuen, onhartarazteko. Inaziok behar ziren urhatsak abiatu zituen berehala. Traba ederrik atcheman behar zuen bidean! Bainan, guzien buruan, gizonek deusik ez dezakete Jainkoak nahi duenaren kontra, eta trabak garhaitu ziren.

Bolonian lehenik eta gero Erroman eri arthatzen, predikatzen eta katichima egiten zenbeit denboraz ari izanik, Frantses Xabier Italiatik urrundua zen ordukotz. Juan III, Portugaleko errege girichtinoak misio-nest batzu galdeturik itsasoz bertzaldeko bere eremuetako, Frantses-Xabier eta Simon Rodriguez igorriak ziozkan, Aita Sainduaren baime-narekin, Inaziok.

Aita Sainduarekin luzeki mintzaturik eta Aita Sainduak urrungo lurretako bere mandatarigoa emanik, mila bortzehun eta berrogoigarren urthean eta marchoaren hamaseiean nafartar saindua oinez lothu zen Portugaleko bideari. Ez zen bakharririk: Portugaleko enbachadorea eta hunen muthilak berekin zituen.

Huna, jada bospaseietan bederen aiphatu dugun eskuarazko liburu chahar hartan nola kondatzen dauzkuten bideko berri batzu, orai:

Erroma utzi zuen, sotana larrutu bat soinean, kapa chabar bat bizkarrean, othoitzeko liburua besapean. Leiborrez egin zuen Lisbonarako bidea, Portugaleko enbachadorearen lekhaio.

Xaberiko jauregian jakinak ziren Indietako urbatsa ukhan zuela Frantsesek, Portugaleko erregeak Lisbonan igurikatzen zuela eta Lisbonarat Iruñian gaindi juan behar zela. Guziek uste zuten sorlekhuaren eta ama chabarraren ikusterat baztertuko zela. Ahaidego guzia, esperantza horrek bildu zuen Xaberiko jauregirat. Amak egun guzietz muthil bat igortzen zuen Iruñarat semearen berriketa, eta muthila butsik ethortzean, amak hatsberapen batekin erraiten zuen: “Bihar, beharbada, jakinen dugu zerbeit: gauden begira”. Eta begira zagon, eta dembora bazoan, eta semerik ez zen ageri. Gain-gaineko ganbararat igainik, Iruña aldeko bideari so so egoiten zen, noiz ikusiko zuen semea. “Hamazazpi urthe badu ez dudala ikusi, zion bere semeri: halere, ethor baladi, segur ezagut neza-ke.”— “Bai, ama, bai, ibardesten zioten semek, ezagut zinezake oraino”. —“Pedro Ortizek igorri daut ene semea bethi eder dagola, ontsa mebe dela haatik, zeren ene haur maite hura saindu bat baita eta bere gorphutza azoteaz joiten omen baitu!

Azken orhoitzapen horrek bibotza hausten zion: begiak behar zituen orduan nigarrez busti: gero, haatik, Jaikoari altxatuko zion bibotza eta erranen zuen: “Egia da Jainkoarena dela, guzia Jainkoarena! Ez da gehiago enea!

Noizpeit hurbildu zen Portugaleko enbachadorea eta Nafarroan sartzean Frantsesi erran zion: “Aita Frantses, ez gare Iruñatik urrun, han egonen naiz zure begira”.— “Ene begira, Jauna?”— “Bai, aita Frantses: pentsu dut ezik Xaberirat nabiko duzula jua-jin bat egin?”—“Ez, jauna, ez naute Xaberin ikusiko”.— “Nola ez? Jakizazu, Aita maitea, Europa beharbada sekulakotz uzten duzula!”—“Baditeke sekulakotz uzten dudana”. —“Bada, hoinbertze urthe badu ez ditutzula etchekoak ikusi: zure ama ona chabartua da gaichoa”. —“Horiek guziak hola dire, jauna. Bainan ez nau Jainkoak Xaberirat deitzen, Indietarat deitzen nau”. —“Ene Aita, miresten dut zure bertutea: erranen dautzut, haatik, zure amak igurikatzen zaituela eta sobera atsegabe eman zinezokela ikusterat ez juanez. Ene Aita maitea, zure amaren gatik, zoazi othoi Xaberirat! Ama chabarrari othoi egiozu atsegin hori!”—“Atsegin horri, jauna, adiorik erdiragarriena larraikiok. Ene ama maitearentzat, ene abaide guziz maiteentzat eta enetzat, hobe da ez dezagun elgar ikus zeruan baizik. Zeruan, zeruan, gure biltzarrea izanen da adiorik gabekoa! Zeruan deusek ez du histuko, deusek kbirestuko gure zoriona”... Enbacha-

dorea, bere ustez, bertze zerbaiten erraiterat zitzaion: obartu zen Frantses eta erran zion: “Naizen guzia, ditudan guziak, Jainkoari eman diotzat: ez ditzazket gibelerat bar; ez dut gibelerat hartzeko ez dretchorik ez eskurik”. Orduan ichildu zen enbachadorea eta ez ziren Iruñan gelditu bizigailuen hartzeko denbora baizik...”

Asma othe ditake gisa guziz ichtorio hori baino hunkigarriagorik eta pollikiago erranik? Nekhez. Bainan egiari bere bidea: ez dakigu eskualdun kondariak nun irakurtu zituen chehetasun horiek guziak ala berak amets egin othe zituen. Dena dela, ez dire egiak: hameka urthe bazuen jada Frantses Xabierren ama maitea hila zela, alde batetik... eta, bertzetik, bidekariak ez ziren Iruñan gaindi iragan! Iruña eta sorlekhua ezker-rago utzirik, Loiolarat jo zuten chuchen-chuchena...

Ibiltzeko ez ziren orduan oraiko errechtasunak. Orai airetan dabil-tzan tresna horietarik batean sartzea aski da oren pare batez Erromatik Lisbonarat joateko: Frantses Xabierri bi ilhabete handi hartu ziozkan bideak. Luze iduritu othe zitzaizkon? Ez dakigu. Dakiguna da laster adichkidetu zela ororekin eta ongi frango egin ziotela. Eta gero holako bide luzeak bethi baditu bere ustegabeak. Ez zitzaiotena egun batez enbachadorearen muthil bat urerat erori? Gutik egin zuen ez bazen gizagaizoa itho. Komentuan sartzeko chede zerbeit ukhana omen zuen lehentchago. Bainan huna nola kondatzen duen gertakaria Frantses Xabierrek berak: “Urak zeramalarik, segurki nahiagoko omen zuen, Jainkoak deithu zuenean, komentuan sartu izan balitz! Leihorrerat orduko mintzatu nuen eta hau erran zautan: galdua nintzela ohartu orduko, urriki samin batek bihotz guzia hartu zautan denbora zenean ez maizago eta hobeki azken orenaz orhoiturik! Zer oren lazgarria! Ez da orduan aise salbatzen!”

Artean errateko, enbachadorearen muthilak nun irakurtua othe zuen san Agustin, hola mintzatzeko? Ezen iduripena dugu san Agustinek erranak direla hitz hauk: *Penitentia quae ab infirmo petitur infirma est: penitentia quae a moriente tantum petitur, timeo ne et ipsa moriatur...* Lege Zaharrean jada deus ez zuen balio presondegian egin testamentak!

Loiolan Frantses Xabierrek ikusi zituen Inazioren anaia eta jendekia. Begitarte egin zioten guziek eta lorietan berenkin atchikiko zuten zenbeit egun. Bainan ez zuen denbora galtzekorik: Lisbonan beha zagon Juan III. Beha ere, jada aspaldi itsasoz heldua, aita Rodriguez. Bideari berritz lothu zen, beraz, lehenbailehen. Ekxhainean heldu zen Lisbonarat...

Ondoko egun batez Frantses Xabier eta Rodriguez ikusi eta mintzatu nahi izan zituen erregeak: harritua eta choratua utzi zuten bi jesuistek. Hainbertzetaraino nun norbeiti handik laster erran baitzion: “Zernahi eta zernahi gostako balitzaut ere, ahal balitz, *Jesusen Lagundiako* aita guziak ekharraraz netzazke hunat” Ez zitaken.

Frantses Xabierrek bederatzi ilhabete iragan zituen Lisbonan, Indietarat zoan untzi baten beha. Denbora hortan ez zituen eskuak gurutzatu. Nork erran ibili zituen lanak? “*Hiri guzia azpikoz gora itzuli zuen bere predikuen eta bertuteen indarraz*” dauku erran *San Inazioren eta San Frantsesen Bizia* derizan liburuak. Ez zion bertzerik jakinarazi Frantses Xabierrek berak Inazio-Loiolakoari: “*Kortea hala kbanbiatua da nun ez baita gebiago Kortea, bainan ba komentu bat!*” Jaun eta andere handienak berak zortzitik bederen kofesatzen eta Mahain Sainduan zabiltzan.

Ez da, beraz, harritzeko erregeak bihozmin handirekin ikusi bazuen ondoko apherilaren zazpian Frantses Xabier untzian sartzen Indietarat joaiteko. Bere amets maite eta gochoenaren bethetzerat zoan nafartarra!...

V. Untzian.—Mozambikan.—Goako Hirian

Denbora hartan untzi batean urrun joaiteko sartzen zenak lanik errechena egin zuen. Nork erran, urthe bat iraganik eman baitzuen itsasoan, zer ikusi zuen nafartar sainduak? Itsasoko min lotsagarriak bi ilhabetez lehertua atchiki zuen lehenik, gero beroek itho zuten. Horrenगतिक ez zuen oherik nahi eta ogi hutsean bizi zen. Eta halere sekulan ez

zen bere buruaz kechu: bertzeen minek egiten zioten min. Erien arthazten, predikatzen eta kofesatzen iragan zuen bidea. Untzia mukhuru bethea zen eta erran ditake iragaileetan bazela guzietarik. Girichtino on guti, haatik. Bat bertzearen ondotik oro bildu zituen, bihurrienak berak Jainkoaren ganat itzularazi. Errana da untzi hartan denboraren buruan oraino, lehengo kantu okhaztagarren orde, Frantses Xabierrek egin eta irakutsi kantika ederrak noiznahi adi zitazkeela! Zer saindutasunaren indarra! Eta egiazki ez du saindu batek baizik egiten harek egun batez egin zuena. Sukhar ikharagarri batek lurrari itzatua zagokan. Mariñel bat eri handi bazela aditurik, herrestan joan zen haren ondorat, elizako guziak eman ziozkan, hiltzen lagundu... eta orduan bera, hats bahi, panpalakoan lurrerat erori! Bainan dohakabe bat debruaren aztaparretarik atheraturikako loriak berak berehala sendatu omen zuen! Sendatu? Badi-take, bainan hobeki uste dugu indar berriak eman ziozkala, gaitzaren gatik, berritz erhokeria sainduenak egiteko! Hein hortaratua zen jada gure herritarra!... Badakigu jada ez ziola deusetan eta sekulan bere buruari amor ematen. Berak salatzen dauku, batere bilhatu gabe haatik, bidetik Inazio Loiolakoari igorri guthun luze batean: “Aita maitea, othoi barkha zadazu ez badautzut egungo huntan berri gehiago igortzen: eri naiz, zazpigarren aldikotz odol zorta bat khendu dautek egun berean. Benedikatua izan dadiela Jainkoa halere!”.

Haize gaichtoek Mozambika deithu Afrika behereko eskualde batean untzia geldiarazirik, harritzeko lanak ibili zituen han ere, helde gaichto bat jauzirik, osasuna sekulakotz galtzeko heineraino kasik: “Orotan eriena Frantses Xabier da, bainan horrengatik ez dagoke geldirik: bere burua ahantzirik, goizetik arratserat bertze erien ondotik dabila” dio hango miriku baten guthunak. Ez da, beraz, harritzeko Mozambikako jaun gobernadoreak arras maitatu bazuen eta egundaino nihori baino begitarte gehiago egin bazion...

Haize onak hasi ziren azkenean eta Frantses Xabier berritz sartu zen untzian, maiatzaren seiean Goa deithu hirirat heltzeko. Harat buruz Portugaletik abiatua zela bazuen urtheaz goiti, hamahirur ilhabete.

Hiri eder bat zen Goa. Karrika ederrak bazituen: eliza nausi bat cho-ragarria: komentu zenbeit. Misionest berriak, nahi izan balu, aise hamar egoitza atchemanen zituen batzu bertzeak baino eder eta gochoagoak: eskaini ere ziozkaten zenbeit, haren famak jada harat helduak baitziren nolazpeit. Bainan untzitik eritegirat joan zen chuchen-chuchena eta han kokatu. Alabainan nihor ez zuen eriak baino maiteago, nihorekin ez zen heiekin baino lakhetago...

Irakurtzaile maiteak, nahi duzue zerbeit aithor dezazuegun orai? Batere ez dakigu hemendik goiti nola jarraiki behar gitzai onafartarraren obra miragarriari. Hainbertze eta hainbertze urhats ibili du han gaindi eta nun-nahi! Hainbertze eta hainbertze lan egin! Eskualde frango hala inharrosi! Oro errateko sobera bada eta zerbeit bakharririk erratea lan zauku. Agian san Frantses Xabier handiak berak argituko, gidatuko eta lagunduko gaitu. Nolanahi, eskualdunek barkha dezagutela gure esku eskasa eta beha dezotela bakharririk gure chede onari...

Errana dugu Goa hiri eder bat zela. Hiri eder eta handi bat. Bainan zer hiri galdua hainbertze eliza, komentu eta aphez onen gatik. Merkatu batzu gaitzak baziren egun guziz. Eta zer saltzen zela uste duzue merkatu hetan? Neskatcha gazteak. Hogoita hamar sosetarik hirur liberetarraino, nahikoa bazen, churi, beltz, hori eta kolore guzietakoetarik. Aise asma ditake, beraz, zer bizia zeramaten egiteko zerbeitez harat zoazin portuges eta gaineratekoek. Bainan handik zenbeit denboraren buruan ez zen gehiago holako merkaturik eta bertze manerarik ikusten zen Goako karriketan. Nori esker? Frantses Xabier sainduari esker. Erran gabe doa! Haren prediku sarkor eta katichima paregabeki eginek jende guzia sarrarazi zuten bere baitan. Handik goiti, beraren ahotik ikasten dugun bezala “hainbertze jende kofesatzerat heldu zen nun, hamar tokitan batean kausitzen ahal izan banintz, orotan izanen bainuen lana burutik goiti!” ...

Nunbeitik zerbeit denbora atchematzen zuen oraino erientzat, preso zirenentzat, behardunentzat eta guzien gainetik lepradun dohakabeentzat athez athe eske ibiltzeko! Horientzat zerbeit egin zezaken ber, ez

zioten ez nekheari, ez burutik beheiti ukhan zezazken trufa zozoeri, ez bertze deuseri behatzen...

Horren gainerat, deusek ez zuen lotsatzen. Ez zen-eta lotsa etche galdu batzuetan noiztenka sartzeko ere eta han hango dohakabeeri bi begien artean egia zorrotzenen errateko! Zenbat ez zuen bekhatutik bide onerat ekharri hola! Ez, deusek ez zuen lotsatzen ongiaren egiteko. Handiekin handitzeko, beharrean nornahi bezen on zen, eta nihork baino hobeki bazakien ttipiekin ttipitzen, ororekin ororena egiten,... Jainkoaz mintzatzeko orena joaiterat utzi gabe sekulan.

Badirela gizon batzu segur beren putzuan uzteko hobeak, ez da dudatzeko. Badirela toki berezi batzu, aphezek berek, nun eta ez diren jada San Frantses Xabier edo Arseko erretor bat bezala arras sainduak eta sainduztat ezagutuak, ihes egin behar diotenak, egia hori ere. Bainan Jainkoak begi gaichtoz ikhus ote lezake aphezek eta ahala duten girichtino batzuek kanpoko zer batzuetan ere erhi bat bederen sartzea noiztenka, asko bilkuretari kausitzea, beren handi iduriaz jende gaichoa beren ganik urruntzeko orde? Ez du iduri Garpard Barzée aita jesuistari bederen hainitz urrikitu zaiola behinere hola jokaturik, ezen beha zer erraten daukun: “Nola ari naizen lanean? Huna bi hitzez. Hainitz ofizio ikasi eta erabili nuen munduan: orai heiekin berekin lehiatzen naiz ahal dutan ongi guziaren egiterat, lehen egin gaizkiaren orde! Deus ez zaut sobera arima baten biltzeko. Ongi egiten othe dut? Ala gaizki? Ez dakit; Jainkoak erranen daut; ikusten nau. Irriz ari direnekin, irri egiten dut; kantuz ari direnekin, kantu; erhoekin erhotzen naiz; nigarrez ari direnekin, nigarrez hasten. Banaki dantzan ariz norbeiti zerbeit on egin nezokela, zer dantzak ibil netzazken! Orai arte molde horrekin ez naiz gaizki heldu. Guzien buruan, sobera airatzen banintz hola, hanbat gaichto! Zerbeitok atsegin handi bat ematen daut, haatik: Frantses Xabier ere holatsu ari izan dela lanean... eta nik ez dut merezi haren oinetako lokharrien hunkitzea ere!”

Bortz ilhabete iraganak bazituen Frantses Xabierrek Goan, eta Goa ez zen gehiago Goa. Lana galdetzen zuen, eta lan gaichtoa, nafartar suharrak. Aphezpiku eta gobernadorearekin mintzaturik, Goa bere

aphezen gain utzirik, ez bat eta ez bi, goiz batez berritz untzian sartu zen, urrunagoko pagano batzuetarat joateko. Haren zoriona! Ez zion gorde bere buruzagi eta adichkide Inazio Loiolakoari: “Aita maitea, ene loria bazinaki! Itsasoan bidetze berri luze bateko nekheak jasanen ditut, beraz, ene bekhatuek lehertua naukatelarik, bertzerenak oraino gainerat hartuko, paganoen erdian biziko, iguzki gorrienaren suan erreko... eta horiek oro Jainkoarentzat! Ez ditake Jesukrichtoren adichkidea dela erran hola baizik!”

Mila bortzehun eta berrogoita bigarren urtheari *udazkena agur erraterat zoon*, Eskual Herrian aditzen den bezala: buruila zen...

VI. Palabarrekin.—Trabankoren

Ez ditugu eskualdunak diren baino gutiago egin nahi: badakigu gutiz gehienak eskolan ibiliak direla orai eta lutelestia⁽³⁾ guzia ezagutzen dutela nornahik bezen ongi. Ez dugu, beraz, denborarik galduko Comorin eta Manaarreko ugarte eta liburu huntan hemendik goiti irakurtuko dituzten herri batzu nun diren errateko.

Palabarrak erraten zioten Comorinetik Manaarreko ugarteraino bizi ziren populueri. Itsasoarekin eta itsas-ohoin mahometanoekin borroka ari behar zuten arrantzale gaicho batzu ziren gehientsuak. Ebanjelioko egiez argituak izanak, ez zuten gehiago girichtinoen izena baizik. Horra noren ganat joan zen Goatik Frantses Xabier.

Han bi urthez ereman zuen biziak bertze nornahi hamar aldiz hilaraziko zuen: arima gaicho heien amodioak orori ihardokitze indarra eman zion misionest sainduari. Ez zen segur oinez baizik ibiltzerik han: ez zuen sekulan bertze janik berak egosten zuen irrisa pichka bat baizik; edaririk, ura baizik: egunean bi oren lo, eta dena ere lurraren gainean, arratoin, gau-ainhara eta sugeen erdian. Horren gainerat, chinaurri zuri

⁽³⁾ (1) Zerbitzariren oharra: Erdaraz “la géographie” erraten zaio lutelestiari.

tzar batzuek sotana eta soineko gehienak laster iretsicherik, erdi biluz ibili behar izan zuen, hotzak hila zenbeitetan, iguzkiak errea bertze batzuetan: maizago naski errea, toki hetan!...

Bainan bada zerbeit lekhu hetan gehiago kechatu zuena, huna ezen handik hamalau ilhabeteren buruan igorri zuen guthun batean zer irakurtzen dugun: “Hemengo mintzaira palabarra da; enea aldiz, eskua-ra!”. Nola predika, beraz, nola egin katichimak? Ez da dudarik predikuak eta katichimak ongi aditzea nahi duenak herri batean herritarren mintzairan egin behar dituela!

Segurki ez dugu ahanzten ahal, Frantses Xabier dohatsutu zutelarik, lekuko zenbeitetik hau finkatu zutela eta Elizak onhartu: bertze orduz apostolueri bezala Jainkoak eskualdunari noiztenka bederen eman ziola ez zakien mintzaira batean mintzatzeko dohaina! Bainan Jainkoak ez du nahi duenean baizik holako mirakuilurik egiten. Nolanahi, aphez batek ez dezake konda, ez du kondatu behar Jainkoak eginen duela lan guzia: bermatu behar du herrian herriko mintzairaren ikasterat, eta ahal bezen ongi ikasterat! Bermatu zen Frantses Xabier eta, bethi berekin zituen hango bi laguneri esker, palabarrarekin aski trebatu.

Zer lanak ibili zituen orduan herriz herri! Dakitenek erraten dute-naz, zenbeit denbora egoten zen herri bakhotchuan. Goiz-arrats guziez chilintcha bat eskuan etchola multcho guzietarat joanik, haur eta burhaso guziak norapeit bilarazten zituen, lehenik orori batean othoitzak eginarazten ziozkaten, eta gero, bethi, harroka edo zuhaitz zenbeiten puntarat iraganik, prediku labur eta sarkor bat egiten. Holako lanek jada lehenago girichtino zirenak beren baitan sarrarazi zituzten eta laster urhats onetarat itzularazi. Bainan paganoak berak ez ziren gogor egon, ezen errana da ilhabete bakar batez hamar mila bathaiatu zituela, edo bathaiarazi⁽⁴⁾, hobeki errateko! Berak nola eginen zituen?

Apostoluaren famak aditurik, Trabankoneko erregeak haren meneko lurretan fedearen predikatzeko baimena igorri zion hainbertzenarekin.

⁽⁴⁾ Ms. *bathai-a-razi*.

Hala hunkitu zituen hango jendeak ere nun beren jainko faltsoak chehatu baitzituzten hainitzek eta heien tenploak aurdiki.

Egia hau da, haatik: Frantses Xabierren predikuekin, jada egiten zituen mirakuiluak ederki lanean ari zirela predikuen alde! Bainan hango eta bertzetako mirakuiluak utz detzagun bertze nunbeit oro lerroan kondatzeko...

San Inazio eta san Frantses Xabierren eskuarazko liburuan hitz hauek irakur ditazke nunbeit: *“Coilaneke jendea kausitu zuen bakharrik gogor eta herrebes”*. Ba, uste dugu nihun ez duela hura bezen gogor eta herrebesik kausitu! Bainan nihork ez luke uste izan behar bertzetakoak guk hemen erraten dugun bezen aise biltzen zituela. Trabankoren ere debrua ez zagon lo: ez da sekulan lokhartzen, ongiari traba zerbeit egiten ahal dion ber. Eta Madureko erregeak Trabankoreko erregearen etsai minak baitziren, heieri eman zioten ifernuak bururat girichtino berrieri bederen ukho eginarazi behar ziotela. Beharrik, otso errabiatuak ez ziren heldu bildotchetaraino! Sainduak lotsatu zituen. Huna nola.

Mila bortzehun eta berrogoita lau zen: ekhaina erditsutan. Goiz batez Madureko soldadoak gero eta gehiago hurbiltzen ari zirela aditurik, untzi batzuekin heieri buruz abiatu zen Saindua. Bidez erditaratutche zireneko, horra nun jauzten diren haize gaichtoak eta hasarretzen itsasoa. Gibelat egin behar izan zuen beren lagunekin Frantses Xabierrek eta oinez lothu ziren bideari. Ez zituzten berehala buruz buru egin behar etsaiak. Hirur ilhabete handiren buruan bakharrik! Urrunean ikusi zitueneko, bere guretzefika eskuan hartu zuen Sainduak eta airea lau aldetarat benedikatu. Ihesari eman ziren etsaiak... eta geroztik beren eremuetan egon, higitu gabe. Gurutzefikak lotsatu zituen.

Paganoak ere herrian jazarri zitzaizkon frangotan. Behinik behin, badakigu aldi batez gaua hosto meta baten azpian iragan behar izan zuela nunbeit hil nahi zuten choritto batzuen aztaparretarat ez erortzeko. Bertze aldi batez norbeitek harrikaldi batez aski kolpatu zuen. Hirurgarren batez gutik egin zuen ez baitzuten bere lastozko etcholan bizirik erre...

Jada bertze norapeit joan behar zuela buruari emana zion Sainduak. Bainan ez zen itsua eta bazakien haren obrak ez zuela iraunen, ordaintzat norbeit uzten ez bazuen. Lur hoberenetan landare tzarrak aise nau-sitzen dire, lantzen ez badire. Misionest batzu Goatik ekharrarazi zituen, beraz, eta Trabankoren landatu. Ongi egin zuela geroak ongi frogatu behar zuen. Ezen horra zeri esker, handik ehun bat urtheren buruan, Trabankoren errege bat kausitu zen aski girichtino on eta azkarrira misionest protestanteri buru atchikitzeke eta heien elhe polliteri ihardesteko: “Gu protestant egin? Gutartean egizue lehenik Frantses Xabier sainduak bezenbat lan on eta mirakuilu... eta ikusiko dugu!”

Manaarreko ugarterat misionest bat bazuen igorria hirur ilhabete hartan. Hain chuchen horra nun berri tchar batzu heltzen zaizkon handik. Oi, zoin gogotik joanen zen harat hango errege tzarrari bi begien artean egia zenbeiten errateko! Bainan itsasoa handitu eta hasarretu zen bet-betan, ez zitaken untzirik mentura. Zer egin? Eskuak gurutza eta pausa? Ez zen odol hortakoa Frantses Xabier.

Coilaneke alderat itzuli zituen orduan begiak. Jada errana dugu nihun ez zuela han bezen jende gogor eta herrebesik kausitu. Alabainan lur sakratu bat zen Coilan hainitzentzat. Lehenik paganoentzat, Rama heien jainkoak gaztean han hautatu baitzuen Sita bere emazte pollita! Gero Boudharen dizipulentzat, Gautama famatua Coilanerat joan omen baitzen orotarik ihesi! Azkenean, mahometanoentzat, heien ustea omen baita Adam eta Eba, lurreko Parabisutik igorri zituelarik, Jainkoak Coilanen kokatu zirela!

Bertzalde denbora hartan dotzena bat erregechka bazen Coilaneke ugartean. Ez ziren bethi elgarrekin ados oro. Horra zertako portugeseri laguntza galdetu zioten Frantses Xabierrek. Eliza katolikoa⁽⁵⁾ maite zuten han gaindiko Portugesek, bainan beren buruak maiteago, eta Coilaneke erregechkak ez samurtzeko, ez zuten misionest saindua lagundu.

⁽⁵⁾ Ms. *katolikoa*.

Gaitzitu zitzaion eta, portugez guziak beren alde utzirik, Pasioneko igandean Nagapatameko portuan berritz untzia hartu, norat joaiteko? Meliaporrerat...

VII. Meliaporren

Teixeira jaun aphezpiku portugesa Meliaporren egoten da egungo egunean. Hiri famatu bat zen Meliaporre ordukotz, ezen inguruetan bazen hobi bat zernahi jende bilarazten zuena: San Tomas apostoluaren hobia. Argi galdez zoan Frantses Xabier apostoluaren hobirat. Coilanen ez zitaken aise sar eta Comorinen ez zuten haren behar handirik gehiago. Zoin eskualde berriri buruz abia? Hori nahi zion San Tomasen medioz Jainkoari galdetu.

Ez zen hirur ilhabeteren buruan baizik ethorri argi hori. Badakigu anhartean itsasturien artean zabilala Saindua egunaz: gauak othoitzean zeramatzan, parte handi bederen.

Meliaporre, ahal zen hiria zen. Gaichtakeria eta lohikeria baizik ez zen alha hango etche eta karriketetan. Elizak ardua hutsak zauden. Hainbertzetaraino nun norbeitek erraten omen baitzuen “ez da hemen gehiago onik San Tomasen gorphutza baizik!” Frantses Xabierek erroitik khanbiatu zuen. Hango aphezak berak harrituak zauden nola hoinbertze lan egin zitaken hoin denbora gutiz!

Gaspard Coelho aphezaren etchean egoten zen Frantses Xabier. Arrats batez loriatua ikusirik, Sainduari galdetu zion zer zuen bada:

—Zer dutan? Ori, Jainkoa orhoitu dela nitaz! Bihotzeko bake eta gozo handi bat igorri dauzkit azkenean!

—Eta zer erran nahi du horrek?

—Ez dudala hemen egon behar gehiago!

—Norat joan gogo duzu, beraz?

—Jainkoak manatzen dautan bezala, Malakarat. Ez banintz joaiten, gaitzi lakioke eta segur goiz edo berant, mundu huntan ez bada bertzean, zorrozki gatzigatuko ninduke! Joanen naiz haatik!

Bainan ez dezagun Frantses Xabier Meliaporretik Malakarat abiatzerat utz Maliaporren egin zuen lan handia liburu bati khendu gabe:

—Meliaporre guziak famaz ezagutzen zuen Aita handia. Heldu zela entzutearekin, jende oste bat joan zitzaion biderat. Apostolua berehala lothu zen lanari, zer egin bazela iduriturik. Haren hitzak bekatorosik handienak hunkitu zituen eta baren butsen aithortzerat ekharri. Errankizun bat bazen, Frantses-Xabieri ibardokitzen zuten guziek beriotze gaichtoa egiten zutela, eta etsenplurik ikharagarrienak ematen zituzten errankizun horren alde. Hortakotz gutiak ziren, bura entzunez geroz, bekatuan gogortzen zirenak: baziren, haatik, bakbartto batzu, eta Jazinto portuges aberats bat, Frantses-Xabieren adichkide chabarra, betarik zen.

Eguerdi batez, bazkaltzerat heldu zaio Frantses-Xabier. Jateko denboran elbeketa basten dire eta Sainduak choratzen du bere elbe eder eta maitagarriez, bere izpirituko bedaduraz: bainan egitekorik handienaz, orori aiphatzen dioten salbamenduaz ez dio hitzik aiphatu. Gogoetatzen da Jazinto eta bere buruarekin egiten galdutzat daukala Sainduak, ez dionaz geroz salbamendua aiphatzen. Deboilatua, badoa Sainduaren ganat.

—Aita, zure ichiltasunak lotsatu nau: nitaz ez abal duzu etsitu?

—Ez, Jazinto maitea, ez. Zertarik iduritu zaitzu etsitu dudala?

—Ene arima dohakabeaz ez baitautazu hitzik erran!

—Deus irabaziko othe nuen? Entzunen othe ninduzun? Uste ukban dut ichilik egotea nuela hoberena!

—Ah, Aita maitea, zuk deus ez erraiteak nau lotsatu eta inbarrosi! Zurekin bazkalduz geroz, ez da enetzat sosegurik, ez da bizitzerik! Oraino denbora bada, urrikal zakizkit!

—Jazinto maitea, astia baduzu oraino, bainan sakrifizio handiak egin bebar zintuzke!

—Eginen ditut: salbatu nabi dut...

Bizi guziko konfesioa eginarazten dio Frantses-Xabierek, eta bertze gizon bat egina arras girichtinoki bizi izan zen Jazinto...”.

Agorrilaren ondartsuan hartu zuen untzia Malakarat joiteko. Huna Meliaporretik zer gaztiatua zioten lehentchago Erromako jesuisteri: “Hiri hau uzten dut, Malaka alderat joiteko: harat deitzen nau Jainkoak. Ez badut untzirik, taula baten gainean joanen naiz. Jainkoa da ene untzia, Jainkoa ene izarra. Jainkoaren ondotik, zueri nago, anaia maiteak!”

Bainan, norapeit joitea deliberatu zueneko, nola ez zuen untzi batean chokho bat atchemanen Frantses-Xabierek? Jada itsasturi guziek eza gutzen zuten omenez bederen eta oro fida ziren harekin ez zitzaioleta makhurrik gertatuko, halako Saindua zabilkan untzia ez zela galduko. Hango itsasoan irrisku hainitz bazen. Zenbatetan, ondoa ez jotzeko, untziak ez ziren oro gainez gain urerat igorriarik hustu behar! Othoitzak baizik ez du itsaso hasarre baten kontra indarrik eta guziek bazakiten eskualdunaren othoitzek indar handia zutela. Behin baino gehiagotan batzuek edo bertzeek jada frogatua zuten, liburu guzietan irakurtzean dugunaz. Nork daki ez zuen holakoetan Frantses Xabierrek *Manual Debozionezkoak* dakharren othoitz hau egiten?

Jauna, ikhasazu gure ezin egin handia,
nola doakun ondora, ura hartuz, untzia:
Arren fagora gaitzatu zolara ez goazen
eta supituki urean itho ez gaitezen...

Bertzalde bere bidea gal zezala untziak eta lotsa zadiela gidaria, othoitz bat egin orduko eskualdunak bazakien nuntsu zen. Jainkoak argitzen zuen holakoetan eta itsasoan ibili den bizpahirur urthetan frango aldiz lurra aintzinetik asmatu izan du: “Bihar ez bada, etzi lurra ikusiko dugu: ez lotsa!” Eta lurra agertzen zitzaioten nunbeit...

Horien ondotik, eta hasian hasi, batere ez zauku tokiz kontra iduritzen bertze elhe batetarat lerratzea hemen. Othoitzean othe zeraman, beraz, untzietan bere denbora guzia Sainduak? Ez. Bazakien, behar zenean, itsasturieri eskuaren ematen laneko: bazakien heien solasaldietan mihiaren sartzen. Heiekin jostatzen ere ba zenbeit aldiz. Eta lan, solasaldi eta josteta guziak bethi bardin bururatzen ziren: belhauniko.

Errana da behin Frantses Xabierrek guzien artean ahal den bezalako itsasturi baten untzia hautatu zuela norapeit joaiteko. Dohakabe harek ez zituen Phazkoak eginak... zazpi urthe hartan. Egun batez, kartetan lagunekin hasirik, zituen sos guziak galdu zituen eta arneguka hasi. Hurbildu zitzaion Saindua eta diru puchka bat eman, harekin, galduak irabaziko zituela erranik. Egin zituen... eta bertzerik ere ba. Handichagorik irabazi behar zuen ondochean: Jainkoaren adichkidantza.

Bertze behin Frantses Xabier hola-hola adichkidetu zen aintzindari galdu batekin. Hasten ez ziozkan haize onak eta kontrakoak, iguzkia eta izarrak baizik aiphatu. Jainkoaz mintzatzen hasi zitzaionean, aintzindariak ez adituarena egin zuen: kofesatzea aiphatu zionean, irriz hasi. Hainbertzenarekin portu batetarat heldurik, Sainduak galdetu zion eian ez luken itzuli ttipi bat inguruetararat harekin egin nahi. Baietz. Eta berehala joan ziren bigak, besoz beso. Bainan horra nun sasi batean Frantses Xabierrek bere sotana chaharra khentzen duen, eta zaharo batekin bere burua phorroskatzen duen, odola purrustan abiatu arte!

—Aita, zer egiten duzu hola?

—Zer egiten dutan? Zuk egin dituzun bekhatu ikharagarrien bar-khamendua galdetzen Jainkoari, zeronek ez duzunaz geroz egin nahi!...

Aitzindariak, jauzian joanik, zaharoa khendu zion eskuetarik, han berean belhaunikatu zen, eta hipaka nigarrez kofesatu...

Holako Sainduak itsasoaren hasarreak eztiturik ere ez da harritzeko...

VIII. Lehenik Malakan. Urrunago gero

Itsasoetan harasko da Malaka: ilhabete oso bat eman zuen bidean untziak. Traba guziak garhaiturik portuan sartu zeneko, berria laster hedatu zen hirian “el santo Padre” hartan zela eta portuges guziak lasterka bildu ziren itsas-hegirat. Amek beren haur ttipiak han zituzten

besoetan. Ez ziren guti harritu haur bakhotchari bere izenaren erraten aditu zutelarik gerochago Saindua!

Ondikotz, elizetarik aspaldi urrundua bizi ziren, girichtinoak izanagatik, portuges horiek berak. Aspaldiko legea da, beraz, etchetik eta herritik urruntzea aski dela aintzineko ohitura⁽⁶⁾ on guziera ukho egiteko eta laster lazakeria okhaztagarrienean pulunpatzeko. Ez da harritze-ko egungo egunean hori bera gertatzen bazauku sorlekhutik hirietarat doazin hainbertze eskualdunekin! Are gehaiago, Ameriketarat doazin zenbeitekin bederen! Ochala bidean kausi balezate Frantses Xabier bat, denbora deno, beren baitan sarraraziko dituen!...

Malakako portugesek biharamunetik beretik elizako bidea hartu zuten, orok ez bada, gutiz gehienak. Jada aipatu eskuarazko liburu harek hain polliki erraten dauku azkenean oro onerat itzuli zirela! “*Arrainik handienak gibel egon ziren hastean, bainan bek ere bere amu sainduez bildu zituen...*”.

Zer othe ziren amu saindu horiek? Badakigu segurki, orotan irakurturik, nihun ez duela egundaino Malakan bezenbat mirikuilu⁽⁷⁾ egin Frantses Xabierrek. Bainan mirakuiluek ez dituzte, bakharririk, holako jendeketak konbertitzen. Egiten ikusten dituztenak, ba: bertzeak ez. Amuak, Sainduak Malakan ere orotan bezala egiten zituen prediku sarkor, katichima paregabe eta bertze lan hek ziren, beraz! Othoitzak, bertzalde, erran gabe doa. Eta Malakako Sainduaren hauzoek salatua dugu nola gau guziaz etcholako kanaberen artetik oren osoak belhauniko ikusten zuten bere gurutzefikaren aintzinean, mar mar mar othoitzean ari, azkenekotz loak harri handi eta idor baten gainerat aurdiki arte!

Nafartarrak bazuen urrunagoko ugarte batzuen aditzea: hetarat joaita deliberatu zuen, Malakarrak urhats onetan finkatuak ikusi zitueneko. Itsasoan zernahi ikusirik eta itsas-ohoin batzueri doi-doia espakaturik, sei asteren buruan zangoa pausatu zuen Amboineko leihorrean.

⁽⁶⁾ Ms. *oitura*.

⁽⁷⁾ Ms. *mirikuilu*.

Amboinen hirur jende mota baziren: portugesak, malesak eta alfourrouak. Alfourrou hauk jende basa batzu ziren, biziki gochoak, haatik; kanpotiar bat ikusi orduko lasterka sasietan gordetzerat zoazin. Ez zitzaioten aise hurbildu Frantses Xabier. Sainduaren kantu eztiak bildu zituzten azkenean. Gero hainbertze lausengatu zituen eta hainbertze ongi egin zioten nun arras maitatu baitzuten! “Hainitz lan egin dut” dauku Sainduak erraten, gerochago Erromarat igorri zuen guthun eder batean.

Ternate deithu ugarte bat bazen oraino urrunago. Harat ere joan zen eta hango jendea hala bildu nun gauaz urrundu behar izan baitzuen, girichtino gaichoen nigarrek bihotza ez hausteko. Beldurra dugu nihun nihork ez duela hainbertze maitatu kurritu dituen herrialde guzietan!

Bainan Jainkoa oihuka ari zitzaion Moreko ugartetik ere. Adichkide guziek zernahi egin zioten harat ez uzteko. Alabainan basa zen hango jendea, eta basa gaichtoenetarik. Errana zen kanpotiarrrik ez zutenean hiltzeko, beren emazte eta haurrak hiltzen zituztela hango gizonek! Ez zuen heriotzeak lotsatzen Saindua.

Guzien gatik ugarte lotsagarri hartarat abiatu zenean, sendagailu eta kontra-pozoin batzu bederen eman nahi izan ziozkaten. Ez zituen hartu, hobeki irakusteko Jainkoak bere langileak ez dituela uzten. Eta egiazki iduri du Jainkoak berak ez zuela nahi deusik har zezan, bere gurutzefikaz kanpo. Beha bada. Egun batez itsaso bethean denbora oihestu⁽⁸⁾ zitzaioten eta haize gaichto bat jauzi. Uhinek untzia phorroskatu behar zutela iduri zuten. Itsasturi guziak lotsatzen hasi ziren. Saindua, batere. Othoitz labor bat eginik, bere gurutzefikaz itsasoa hunkitu zuen. Ondikotz, itsasoa berehala eztitu bazen, Sainduak gurutzefika eskutik lerratzerat utzi zuen eta urak ereman zion! Nornahik aise asma dezake Frantses Xabierren bihozmina orduan! Nigar ere egin zuela irakurtzen dugu eskuetan ditugun liburuetarik batean. Alabainan gurutze-

⁽⁸⁾ Ms. *dembora obiestu*. Delako “dembora oiestu” Laphitzek darabilen kolakazioa da. Uste dugunez, —h— erdikoa beste gisa batera izan behar du: *oihestu*.

fika hura zuen bere bethiko laguna: hura bere bihotz-altchagarria; hura bere ontasun guzia. Ordu arte harekin garhaitu zituen oro eta bazakien handik goiti ere hala egin beharko zituela. Belhaunikaturik, mirakuilu guzien Obratzaileari suharki galdetu zion itzul zezon. Biharamunean, Moreko leihorra hunkitu zuteneko, orok zamar handi bat ikusi zuten gurutzefika aztaparretan uretik atheratzen. Jainkoaren mandataria zen. Ederki Saindua hurbiltzerat utzi zuen, eta gero, gurutzefika aztaparretarik khendu zioneko, berritz urean sartu eta urrundu...

Zer egin zuen Frantses Xabierrek Moreko jende basa lotsagarrietan? Huna zer erraten daukun berak: “Hainitz eta hainitz bathaio egin nuen eta chokho guziak ikhertu.” Iduritzen zauku hainitz erran nahi dutela, beren laburraren gatik, hitz horiek: Chokho guziak ikhertu! Bainan ere zer ez ahal zuen jasan gose, sukhar, pozoin eta etsaien saeta zorrotzekin! Mahometanoak frangotan jazarri zitzaizkon eta oihaneko sasietan gorde behar izan zuen. Eta, Moretik urrundu zenean, ez othe zuen bertze orduz Jondoni Paulok bezala erraten ahalko: heriotzea noiznahi hurbildik ikusi dut? Aise sinhets ginezake baietz.

Eta orai, eskuarak nahi balu bertze mintzaira zenbeitek bezala ple-gatu, badakizue gogoan duguna nola erran ginezaken? *Frantses-Xabier nibun ez dugula jende basa horien erdian baino Frantses-Xabierago kausitu*, dena su eta dena amodioa lagunarentzat, achola gutirekin edo hobeki batere gabe beretzat!

Han gaindi bada bertze ugarte ttipitto frango. Gutiz gehienetan ager-raldi bat egin zuen Sainduak, bainan ez zauku balio orotako chehetasunetan sartzea: bertsuak litazke. Gure irakurtzaileek ikusi dute orai arte ez dela hainitz geldirik egon Frantses Xabier: han ere egin zukeen bide eta lan. Eta bihotza atseginez bethea itzuli zen Malakarat mila bortz-ehun eta berrogoita zazpiko uda hastean, gerochago igorri zuen guthu-neko bi hitzek salatzen daukuten bezala: “Kontsolatu nautel!”.

Jainkoak zabilkan. Hemezortzi ilhabete bazuen Malakatik joan zela. Itzuli zeneko, aintzinerat ethorri zitzaion egundaino ikusi ez zuen gizon beltzaren begibichi bat eta lurrerainoko agur pollit bat egin: Angero

zuen gizon horrek izena eta japonesa zen. Aspaldi Sainduaren ondotik zabilan, haren famak aditurik, konbertitzeko.

Ez zituen japonesak ezagutzen Frantses Xabierrek, baina laster ikusi zuen ez zirela ordu arte ezagutu zituen gizadiak bezalakoak, hainitz eta hainitz erneagoak zirela eta zerbeit ikasi nahiagoak, eta Angerori mila chehetasun galdetu ziozkan bere herriaz eta herritarrez:

—Errazu, Angeru, uste duzu Japoniarat joaiten banintz, zure herritarrek entzun nindezaketela?

—Aita, ez berehala naski, deus ez baitute airerat egiten: baina zure elheak gustatzen bazaizkote eta nik bezala frogatzen ahal badute zure elheen araberakoa dela zure bizia, oro laster jarraikiko zaizkitzu!

—Ba othe?

—Ez dut den gutieneko dudarik...

Handik zenbeit egunen buruan, egundaino bezala untzi batean zoan Frantses Xabier, amets handi eta gozo bat gogoan...

IX. Han eta hemen, Japoniarat joan aintzinean

Itsasoan hirur egun handiz behinere oraino ibili ez zituen bezalako jauziak ibilirik, baina berritz ere othoitz batez ur-mendoi ikharagarriak zebaturik, Cochin jada ezagutzen zuen herrian jautsi zen eta gelditu Frantes Xabier, handik agian Japoniarat helduko zela zerbeit gisaz. Hain chuchen, Cochinen kausitu zuen, bere karguko itzuliaren egiterat athorria, Goako jaun aphezpikua. Zer atsegina segur batentzat eta bertzearentzat! Baina mintzatzen hasi zirelarik, ez zioten berri guziek atsegin bera egin Sainduari. Alde batetik gobernamentuak igorri gizonak ez zituzten misionestak lagundu nahi, bertzetik misionestek berek ez zuten naski bethi arras ongi elgar aditzen! Bihotzak gaindi egin⁽⁹⁾

⁽⁹⁾ Ms. *egon*.

zion eta Japonian baizik ez zuela sosegurik izanen gehiago egin zuen bere baitan. Horren gatik ez zuen berehala itsasoari lothu nahi izan eta Comorineko bidea hartu zuen. Zer egun gochoak iragan zituen aita Enriquez, Criminale eta Cyprianorekin! Ederki lanean ari izanak zirela ikusirik, gain-gainetik laudatu zituen hiruak.

Trabankorerat ere joan nahiko zuen, hasian hasi: ez zen joan. Asti eskasez ala errechtasunik ez ukhanez, ez dakigu. Hitz bat igorri zion, haatik, hango misionestari, lotsatzen hasia zela idurituri: “Uste duzun baino ongi gehiago egiten duzu Trabankoren, ez lotsa, beraz. Debruak ez zaitu ikusi nahi, hortakotz ematen dautzu bururat bertze nunbeit lan hoberik egin zinezakela. Ez zazula uste izan. Zaude, beraz, othoi hor berean!”.

Ezagutzen dugunarekin, Coilanerat agerraldi bat bederen egin gabe nola egonen zen Frantses Xabier. Egin zuen, bainan lehengo traba berak kausiturik, Goarat joateko untzian laster sartu zen. Goako gobernadore berria zen. Soldado bihozduen bezen girichtino azkar, Sainduarentzat laguntzaile hauta izan behar zukeen Juan de Castrok. Ondikotz ez zuen Frantses Xabier ezagutzen! Ezagutu zueneko, nahi zituen guziak hitzeman ziozkan. Berantegi: Jainkoak ez zion hitzaren atchikitze⁽¹⁰⁾ astirik utzi: bere ganat deithu zuen, bet-betan.

Anhartean Comorinetik galdeka ari ziren Frantses Xabierri, behinere baino gehiago gaichtakerian hasiak zitzaizkotela Madureko etsaiak. Erran dezagun berehala aita Criminale hil zutela handik laster etsai horiek. Frantses Xabier Comorinerat itzuli zen, beraz. Harritzeko ongi-ethorria egin zioten hango girichtinoek. Loriatu zen Saindua. Loria horrek ez zion irau behar. Han ere laster frogatu zuen Elizak eta misionestek ez zutela deus igurikitzeorik Portugaleko mandatari handien ganik. Eta etsitu zuen: “Japoniarat abiatzeko chedea dut, gehiago holakorik ez ikusteko! Jada ez othe dut behar den baino denbora gehiago galdu?”

Horrengatik, bertze itzuli bat egin zuen oraino Goarat. Azken manuak eman nahi ziozkatzen hango jesuisteri: esku hori bazuen Erro-

⁽¹⁰⁾ Ms. *atchikiko*.

matik abiatzean Aita Sainduak eman zion mandatarigoaz. Baina manu baino kontseilu gehiago eman zioten. Kontseilu horiek egungo egunean ere balia ditazke nornahiri: Eskual Herriko aphezari, urrungoeri bezala. Argitara detzagun, beraz, hemen, Frantses Xabierren hobeki ezagutarazteko bederen: “Bertzeak sailduarazi nahi dituen, bera saildu bedi lehenik... Apezak ez gaitela harri zenbeitak Penitentziako eta Gorphutz-Sainduko sakramenduez dudatzen badute, geronek ez badugu bizi saildua: nola ez dute dudatuko?... Apez batek bethi begitarte ezta eta ona behar luke. Gutienetik, ez dadiela nihorekin borthitza izan. Horrengatik ez dadiela aisegi adichkide nornahirekin, eta bereziki bertze munduko zerez mintzo delarik ez dezala ahantz egungo adichkidea bihar etsai dukeela... Eskuak bethi libro atchik detzala apezak, nekhe baita zerbeit eman duenari beharorduan jazartzea. Dohain handiegirik ez har, beraz... Predikuetan ez mintza predikalkiarekin ikustekorik ez duten zerez: behinik behin politikarik ez aipha... Kofesorrak kofesioan ez dezala lotsa nihor: bekhatoros handieneri ez dezala erasiarik egin, bederen bekhatuak aithortu ez dituzteno, baitire erasia ttipienak mututuko dituenak. Hobeki, apezak kofesatzerat heldu zaizkonak lagunduko ditu: zenbeit aldiz, handiagoak ere egiten dituztenak badirela erranen diote. Eta guziz mintzatuko zaizkiote Jainkoaren bihotz on eta barkhatzerat ekharriaz...”.

Erran gabe doa kontseilu horiek gure eskuarak baino hobeki eta sarkorkiago ematen zituela Frantses Xabierrek: nihork ez dezala duda.

Mila bortzehun eta berrogoita bederatzia da. Apherilaren hogoitak bortzean abiatu zen Japoniari buruz Saildua, laguntzat Angero, aita Cosme de Torres eta Juan Hernandez frailea harturik. Ez zezaken lagun hoberik hauta: Angerok bazakien Japoniako berri, Cosme de Torres ez zuen deusek lotsatzen, ez zen Juan Fernandez baino gizon legunagorik. Illhabete baten buruan Malakan ziren: alabainan ez zen bertze biderik: ez zezaketen han baizik untzi bat atchewan bururat heltzeko.

Irakurtzaile guziek aise asmatzen dute Malakarrek bidekarieri egin zioten ongi-ethorria: guziz eskualdunari. Hain gogoan zuten oraino!

Lorietan geldiaraziko zuten berenkin eta egin-ahalak oro egin zituzten hortako. Begietan eman ziozkaten Japoniarateko bideko irrisku ikhargariak, erran harat abiatzen ziren untzietarik erdiak bederen galtzen zirela, eta bertze holako zernahi. Debaldetan; ez zuten bildu, eta irriz ihardesten omen zioten: “Oi, fede gutiko gizonak! Nik ez dut Jainkoaren beldurra baizik: Hura da ooren Nausia!”.

Ez zuen aise atcheman, haatik, untzi bat: adichkide guziek azkenean hitza jan zioten, eta Jondoni Joani arratsean Lapurra deitzen zuten gizon tzar baten untzian sartu behar izan zuen. Ederrik ikusi zuen Lapurrarekin bidean eta beldurtzeko da sekulan ez zuela Japoniako leihorrik ikusiko Jainkoa bera urrikaldu ez balitzaio eta, Sainduaren othoitzek hunkiturik dudarik gabe, egun batez nihork igurikatzen ez zituen haize batzuek hartu ez balute. Hartu, eta, Lapurrak golkoan zituen chede gaichto guzien kontra, zirurikan Kihusuko ugarterat ereman! Agorrilaren hama-bortza zen, Andredena Mariaren phesta. Egun handia Eliza katolikoa-arentzat, geroak frogatu behar zuen bezala. Sekulan ez zituzten menturaz Mugabure, Gracy, Lissarrague, Chabagno eta Japonian ibili diren misio- nest suharrek bildu dituzten uzta ederrak bilduko!

Egun batez Frantses Xabierrek hitz hau igorria zion Goatik Inazio-Loiolakoari: “Aita zenbeit balin baditutzu horko lanetako on ez direnak, aski dauzkidatzu igortzea: hemen gaindi osagarria eta arimen amodioa aski dituzte, ez dute jakitate handi beharrik”. Ageri da eskualdunak ez zuela oraino Japonia ezagutzen. Laster frogatu behar zuen, han zerbeit lan egitekotz, jakitatea ere behar dela. Goako eta Japoniako basaphezak arras biga ziren. Bainan Frantses Xabierrek aski eskola handiak eginak zituela badakigu japonesez bertzeeri ere buru egiteko, japonesez bertzeak ere garhaitzeko...

Sainduak bidean, edo lehenago, buruari emana zuen Japoniarat heldu orduko hiri-nausirat joanen zela eta Erregeari berari erranen ziola zertarat heldu zen. Ez zakien hango eremuen berri: hiri-nausia aise urrunegi zen Kihusutik harat menturatzeko, eta Kangoshimako herrian hasi zituen bere lanak, zuhurki.

Kangoshima —geroztik Kagoshima erraten diote orok —ez dakigu zer heinetako herria zen orduan; orai hiri handi eta eder bat da bere karrika, saltegi, ikastegi, eliza eta hiruetan hogoi mila arimekin. Lehen hiri hauzoa Nagasaki du...

X. Japoniako lehen lanak

Kangoshiman bizi zen ugarteko erregechka, Zimatzu. Erregechka horri “daïmio⁽¹¹⁾” erraten zioten japonesez. Ikusterat joan zitzaion zenbeit egunen buruan, Angero lagun harturik, Frantses Xabier. Angerok erran ziozkanen gainean uste izan zuen Portugaleko arrakardari guziak berehala han zituela beren untzi ederrenekin, eta, ez baita Japonesez bereri diruaren amodioak eginarazten ez duenik, Japoniako jainko faltso guzien gatik, Sainduari eman zion nahi zuen tokietan eta nahi zuen bezenbat predikatzen hasteko baimena.

Ondikotz, hango mintzaira ez zakien Frantses Xabierrek! “Hemen ez dut ichiltzea baizik” dio berak ondoko egunetan igorri guthun batean. Bainan zerbeit bat⁽¹²⁾ bederen aski laster ikasi zuen eta karrikaz karrika abiatu zen predikatzen. Zer egin zuen?

San Inazioaren eta san Frantsesen Bizia derizan liburuari aspaldi deus ez diogu hartu. Huna, bada, hitzez hitz, zer erraten dautzuen hemen: “*Buru-zagiak aita handiaren aiphamena entzunik, baimena eman zion haren peko herri guzietan fedearen predikatzeke. Kangoshimako hirian gebienek ezagutu zuten eta besarkatu*”.

Nun eta Kangoshiman ez zen arras eta arras jende guti, hori ez da egia, ezen Frantses Xabier harat joan eta urthe baten buruan ez zen oraino ehun bat girichtino baizik, bertze liburu egile guziek erraten daukutenaren arabera. Eta hori finkatzen du ederki denboraren buruan Japonian aditzen den elhe hunek: “Bertze eskualde batzuetan sareekin ari

(11) Autorearen oharra: “Daïmio” horrek ez othe du gure “jauna” iduri?

(12) Ms. *zerbeitbat*.

izana bazen arraintzan Frantses Xabier, Japonian amuarekin ari izan behar izan zuen!”

Eskualdun liburu egile beraren arabera, huna nola bildu zuen hango jendea: *“Itsas-begian dabilan batez, arraintzari batzueri so baratzen da Frantses. Arraintza tcharra dute. Sarea hamarretan aurthikitzen dute urerat, eta hamarretan butsa altchatzen. Etcherat butsik dobatzilarik, frantsesek erraten diote: —Zerentzat etsitu duzue, haur maiteak? —Aita maitea, ez da egun arrain aro. Bertzalde arrain guti da itsaso huntan eta ez dugu leben aldia butsik gobazila. —Hots, ene haurrak, berriz aurthikazue sarea. —Bainan, aita maitea, hainbertze aldiz aurthiki dugu, eta bethi alferretan! —Ez etsi, ez etsi: harrazue Jainkoa baitan konfidantza, eta aurthikazue sare hori urerat.*

Urerat aurthikitzen dute sarea eta trenkatu hurrana altchatzen, bain da arrainez bethea. Biharamunean, ondoko egunetan, gauza bera gertatzen zaiote. Handik barat guzia arrain zen Kangoshimako ura”...

Gertakari hau ez dugu bertze nihun irakurtu, bainan deusek ez dauku dudatzeko dretchorik ematen: hori bezen mirakuilu handiak egiten ditu Frantses Xabierrek! Baditake, beraz, hola ere zenbeit japonese bildu zituen. Gehiago egin zuken halere, bertze eskualde guzietan bezala, ongi moldaturik gogoz erraten zituen prediku batzuekin eta orori ematen zituen etsenplu ederrekin, sekulan, haren mintzaira hala-hulakolari, haren trastu bitchiari egiten ziozkaten trufek lotsatu gabe: munduan ez da Japonesa baino jende trufantagorik.

Basa-aphezak ez zagozken kechatu gabe: herritarrak konbertitzearekin beren irabazpideak galtzen zituzten, alabainan. Etchez etche abiatu ziren, beraz, baizik eta eskualduna sorgina zela eta ifernuko debruekin bat egiten zuela! Handiagorik ere atheratu zuten: bereziki, gizonki haragia janez bizi zela! Eta frogatzeko, noiznahi Sainduaren etcholako athearen ondoan mihise odoleztatu batzu hedatuko zituzten gauaz. Horra zer asma dezaken herrak!

Denbora hortan Zimatzu bera kechatzen hasia zen: ez zoazkion oro nahi zuen bezala eta portuges arrakardarien untziak ez zaizkion, uste izan zuen bezala, porturat heldu. Bertzalde, nunbeitik ikasi zuen Frantses Xabierrek bazituela itzuli bat edo biga eginak urruntchagoko ugarte

batetarat, harat ethorri portuges batzuen ikusteko. Arras gaitzitu zitzaien. Basa-aphezek burua beroturik hainbertzenarekin, herritar guzietan jakinarazi zioten handik goiti konbertituko zirenak hilen zituela.

Nola lan onik egin holako etsaiekin? Sainduak laster deliberatu zuen urrunago joaitea begitarate hobearen bilha. Urthea zuen Kangoshiman zela. Hango girichtinoak Angerori fidaturik, aita Cosme de Torres lagun, hartu zuen bidea. Hiruzpalau egunek Firandoko jauregi handiraino eremana zuten: Zimatzurekin guti edo aski jende zen hango nausia, Nüro. Sainduaren famak bazakizkan aspaldi: lorietan ideki ziozkan, beraz, jauregiko atehak. Huna zer erraten daukun Frantses Xabierrek berak: “Firandoko erregeak sekulako ongi-ethorria egin zaukun eta zenbeit egunik barne ehun bat bathaio egin ginuen ugartean”. Nüro bera ez bazen konbertitu, badakigu girichtino berritan zirela haren emaztea, seme gehiena eta zenbeit sehi. Berehala errateko, handik hamar urtheren buruan bethi urhats beretan atchewan omen zituen Luis de Almeirak Firandoko girichtino guziak.

Haste ona zuen Sainduak: ez zen lokhartu eta denborarik galdu gabe jo zuen Hiradoko ugarterat, aita Cosme de Torres Firandon utzirik elizadi berriaren buruzagi. Bainan ez gitzaio Sainduari ugartez ugarte jarraikiko. Badakizue, bertzalde, zenbat ugarte handi edo ttipi omen diren Japonian? Hirur mila eta zortzi ehun. Ez zen segurki Frantses Xabier orotan ibili, bainan nork daki zenbatetan? Kioto, Japoniako hiri handienetarik bat zuen begietan: hari buruz zoan bethi. Bideko berri zenbeit, Yamaguchi bertze hiri handi batetarainoak Juan Hernandez jada aipatu fraile jakintsun harek emanen dauzku: “Deusek ez zuen lotsarazten ahal aita Frantses-Xabierri, ez haize hotz ikharagarri batek, ez elhurak berak. Ohoinak baziren alde guzietan, guziz itsasoan: zenbat aldiz ez ginuen untziko zokho gordeenetarat jautsi behar izan herrestak! Leihorrean, zakhu bana bizkarrean, phuskatto bakhar batzuekin, aise nunbeitik ethorri bi eskaleentzat hartzen gintuzten orok. Estalki bat baizik ez ginuen bigentzat kanpoan lo egiteko eta behin baino gehiagotan zangoak eta aztalak hantu zitzauzkun hotzarekin. Deus ez zen biharamunean etchetarik harrika urruntzen ez gintuztenean haurrek!...

Hola heldu ginen Hatakarat, orok dakiten herri langilerat, eta Aita berehala joan zen hango basa-aphezen egoitzarat. Ongi hartu zuten has-tean, bainan gero? Egia erran, zernahi egia igorri zioten bi begien arte-rat. Ez ginen nahi baino lasterrago berritz bideari lothu!...

Ondoko bospasei egunak baino borthitzagorik guti ikusi dut ene bizi guzian! Eta horren gainerat ez zen Aitak egiten ez zuen peniten-tziarik. Ez ditake sinhets, nik bezala ikusirik baizik. Bide guzia othoi-tzean egiten zuen, begiak sekulan altchatu gabe, eskuin edo esker itzuli gabe. Besoak berak, nekhezago ibiltzeko, bethi gorphutzari josiak zauz-kan. Jana ez dezagun aipha; oro onegiak eta sobera zitzaizkon: ez zituen irrisa egosi pichka bat eta ura baizik nahi... Hola heldu ginen Yamargu-chiko hiri handi eta ederrerat". Yamaguchi ez omen da orduko itzala baizik egungo egunean.

Hain chuchen merkatua edo zerbeit holako zitaken egun hartan: karririk jendez betheak omen ziren. Urrunerat ikusi zituzten haurrek bi bidekariak eta oro jarraiki zitzaizkoten, harrituak. Arrats hartan ere ez zuen aise atcheman atherbe bat Frantses Xabierrek. Egundaino athe-etan begitarte guti dute hura bezala jauntziak dabilzan gaichoek...

XI. Japonian oraino

Sainduak hitz bat bazuen norbeitek, urrikaldurik, bidean emana Yamanguchiko adichkide batentzat. Saindua lagunt zezan galdetzen zion. Biharamunean argiko eremana zion mandatariak eta aise asma ditake zer laguntza galdetu zion berehala: othoi zerbeit gisaz eta lehen-bailehen ardiets zezon Yamaguchiko erregeari mintzatzeko fagorea. Ardietsi zion laster.

Yoshitaka zen errege. Phestari eta lohikeriari aski emana izanagatik, ez zen hain gizon makhurra. Ongi hartu zituen Frantses Xabier eta Juan Hernandez. Zertarat heldu ziren galdetu ziotenean eta Japoniseri ira-

kutsi gogo zuten galdetu, Frantses Xabierrek Hernandezi, hau hango mintzairan trebeago zelakotz, irakurtzeko eman ziozkan jada eginak zituen katichima eta prediku batzu. Predikuetan baziren, han-hemenka, elhe bortitz batzu: hala-nola, Japonesen jainkoak eta basa-aphezak deus ez zirela; Japonese gehienak urde batzu bezala bizi zirela, ez zutela chakhurrek eta abere hainitzek baino ongi gehiago egiten, eta Jainkoak joko zituela ez baziren khambiatzen; eta holako. Erregeak beretzat har zetzazken elhe horiek. Ez zituen egin edo bederen ez zuen irakusterat eman deusik. Oren luze baten buruan Frantses Xabier eta Juan Hernandez sarrarazi zituen bezen polliki kanporat igorri zituen keinu batez, hitzik ihardetsi gabe heien predikatzeo galdeari. Juan Hernandez, berak salatzen daukunaz, ez omen zen guti harritu kanpoan bere burua oraino soinen gainean haztatu zuelarik!

Ezetz erraten ez duenak baietz erraten duela iduriturik duda gabe, Frantses Xabier biharamunean berean predikatzen hasi zen. Bidegurutze guzietan adi zitaken noiznahi sekulako jendetzearen aintzinean. Bainen irri egiten zioten aditzaileek, edo bera bitchia atchematen zutelakotz halako larru churi, sudur chorrotch eta begi biribilekin, edo haren japonésaren mintzatzeko moldea ahal den bezalakoa zelakotz. Nun eta ez ziren oihuka eta harrika hasten Sainduaren athermaldi batzuetan!

Dena dela, Frantses Xabierrek bi ilhabeteren buruan urhats bat bakharra ez zuen oraino eginik. Denbora galtzen ari zela iduritu zitziaion Yamaguchin eta Kioto, Japonia guziko hiri-nausirat joaitea deliberatu zuen. Abiatu zen.

Negua ethorrichea zen ordukotz urthe hartan. Jada bide guziak elhurrez estaliak ziren. Zenbat aldiz ez zuen gerrirainoko uretan ibili behar izan! Sukhar gaichto batzuek hartu zuten hainbertzenarekin. Oro garhaitu zituen eta heldu Sakai deithu herri gothor batetaraino. Han pausatzea uste zuen, bainen haurrek harrika urrunduzuten etche guzie-tarik eta kanpoan iragan zuen gaua.

Jainkoak ez ditu sekulan bere zerbitzariak uzten eta norbeit, han ere, urrikaldu zen Sainduaz. Hari esker, hain chuchen buruzagi handisko bat

baitzen Kiotorat bere sehi guziekin abian zena, buruzagiak onhartu zuen Frantses Xabier eta Hernandez beren trastu tcharren gatik sehien artean jarraik zaizkion. Bidean sehi horiek egin ziozkaten trufa eta gaichtakeriak ez ditugu, haatik, erranen.

Frantses Xabier nola heldu zen bizirik Kiotorat, Jainkoak daki. Mirakuilu bat zauku kasik hori bera. Zangoak hantu zitzaizkon zapartatzeko heineraino, erorka eta erorka gorphutz guzia zauritu zuen. Ez zuten, bada, sehiek jaterat eman ziozkaten ondarek hainitz atchiki, ez! Kiotorat heldu zen halere.

Errecheda egin zuen. Kioton behar baitzituen Gurutzea landatu, Ama Birjinari eliza eder bat altchatu, jainko faltso guziak lehertu, ondikotz ez zuen Gurutzea landatu, ez zion Ama Birjinari eliza ez ederrik ez tcharrik altchatu, eta jainko faltso guziak chutik utzi zituen. Zer bihozmina! Nihork ez zion atherik ideki nahi izan, nihork ez zion hitz on bat erran, eta hamar egunen buruko etsitu zuen. Arras etsitu gero! Hamekagarren goizean, lurra baino ilhunago, Hiradoko bidean zoan Juan Hernandez bere lagun leialarekin, aspaldiko “*In exitu Israël de AEgypto*” hunkigarria gogoan. Otsaileko Firandon zen eta martchoko Yamaguchin.

Ichura guzien gatik ez zuen debaldetan egin Sainduak Kiotoko itzuli hori: japonesak ezagutarazi ziozkan bederen. Aditurik edo ikusirik, hauche ikasi zuen: deusek ez duela Japonian bihotz bat hunkitzen... dohain ttipi batek bezala! Eta lehen aldian hain laguntza guti egin zioten Yoshikata erregeari zenbeit pegeseria ereman ziozkan, bere trastu tcharren orde jauntzi eder bat emanik. Jauntzi ederrak balio gehiago, balio handia eman behar zioten alabainan pegeserieri. Hala-hala gertatu zen eta gure Yoshitaka gaizoa choratua gelditu! Hainbertzetaraino nun diruketa handi bat eskaini baitzion ordainez Sainduari. Sainduak ez zuen dirurik hartu, bainan aspaldi erran nahiak zituen hitzak erran: “Errege, ni ez naiz diruketa ibilki hemen; arimen salbatzerat ethorria naiz!” Elhe horiek oraino gehiago harritu zuten Yoshitaka eta Sainduari aise eman ziozkan nahi zituen baimen guziak. Eta gainerat komentu zahar bat, han bizi zadin bere lagunarekin...

Erregea alde, gehienak alde behar zituen handik goiti Frantses Xabierrek eta bi ilhabetez nihor konbertitu ez zuen herri hartan, laster bathaioa galdetu zioten zenbaitek bederen. Huna nola ethorri omen zitzaien lehena. Egun batez, Juan Hernandez jendetze handi bati katichimaren irakurtzen ari zelarik, emazte tzar batek thu egin zion begitarterat. Frailea batere ez zen kechatu: mokanesa hartu zuen⁽¹³⁾, begitartea chukatu eta... katichima segitu. Urruntchagotik beha zagon Aitorren seme bat: oro ikusi zituen. Hernandezi jarraiki zitzaion etcheraino, han Frantses Xabier ezagutu eta harekin berehala katichimaren ikasten hasi. Jada badakizue gaineratekoa.

Gorachago errana dugu Yamaguchin Frantses-Xabierrek zenbeit bathaio egin zituela. Zenbeit, bainan ez hainitz! Japonesa leguna da: ez da aise hartzen aztaparretan. Japonian iragan zuen denbora guzian Sainduak ez zuen bi mila japonese baino gehiago konbertitu. Badire-eta bi miletarat ere ez zela heldu finkatzen dutenak! Ez dakigu, beraz, norbeitek liburu batean nola erraten ahal izan duen *“Jainkoaren eta Elizaren haur bilbakatzen zirenak, bastean ebunka kondatzen bazituen, gero milaka egiten zituela Frantses-Xabierrek!”*

Zernahi izan dadien, Yamaguchin ere lan ona hasia zen: aita Cosme de Torres deithu zuen, beraz, harat, eta Bungorat joan bera, handik Chinarat heltzeko gibel-asmuarekin. Nola urratu ahal zitzaion bihotza Cosme de Torres eta Juan Hernandez azken aldikotz besarkatu zituelarik! Yamaguchiko girichtino guziak jarraiki nahi izan zitzaizkon itsasoraino bederen, zer gerta ere: ez zituen utzi. Bi lagun hartu zituen bakharririk, eta, zakhua bizkarrean, oinez bideari eman. Adina gabe zahartzen eta pisutzen hasia zen jada: zernahi ikusi omen zuen, beraz, porturaino ezin helduz. Untzi batek laster ereman zuen gero Hijirat. Han zituen bilha ethorriak Funai Bungoko hiri-nausiko portugues eta Erregeren mandatari guziak. Zer ongi-ethorri choragarria egin zion hiri-nausiak! *“Karririk, atheak, leihoak, teilatuak berak jendez betheak ziren”* dio orduko berrikerari batek.

⁽¹³⁾ Ms. zen.

Yoshishige zuen Bungoko erregeak izena. Ez ditake asma errege hori baino gizon hoberik. Berehala esku guziak eman ziozkan Sainduari katichima egiteko, predikatzeke eta ahal bazuen ugarteko jende guzien konbertitzeko. Berak ere katichima ikasi nahi izan zuen. Berehala erran dezagun, haatik, ez zuela bathaioa handik hogoita zazpi urtheren buruan baizik galdetu. Zertako? Gaztea baitzen oraino eta bide-kontrako amodio tzar batzuek sobera lothua baitzaukaten! Zerbeit da halere egin zuen bezala Sainduaren laguntzea...

Denbora hortan, Yamaguchin oro nahasirik, Joshitaka hila zuten bere etsaiek. Ez dire egungoak, artean errateko, herritarren arteko gerlak. Cosme de Torres eta Juan Hernandezi ez zioten, haatik, minik egin, basa-aphezen elhe tzar guzien gatik. Bungoko erregearen anaia hautatu zuten erregetzat Yoshitakaren ordainez. Anaia bezala, misionesten adichkide on bat zen. Chinako aldetik aditzen zuen oihuari ihardets zezaken orduan Frantses Xabierrek.

Harat joatea aipatu zioteneko, Yoshishigek eta bi ilhabetez Funaien bathaiatu zituen bortzehun girichtino berriek beren eginahalak egin ziozkaten han geldiarazi beharrez. Debaldetan, eta nolazpeit Sainduak buruan sarrarazi zioten Jainkoari sekulan ez zaiola ihardoki behar. Bertzalde, hitzeman zioten arte laburrik barnean zenbeit aphez on igorriko ziozkatela... eta hazilaren erditsutan, untzi bat Goarat abian zela ikasirik, hartan sartu zen. Lan handiak egiteko sortua zen, alabainan, gure herritar Saindua! Eta bidearen luzeak, mintzaira berriak eta larru beltzaran, beltz, gorra eta edo horiek ez zuten lotsatzen!

XII. Azken egunak

Horra eskualduna itsasoan egundaino bezala, San Miguel deithu untzi batean, nigarretan leihorreen jarraiki zitzaizkon japoniseri Lagundiako bertze zenbeit aphez igorriko ziozkatela hitzemanik. Bere ustez

Chinari buruz abiatua zen, erresuma hortako espantuak Japonian eginak baitziozkaten eta baitzakien Chinan alhor handi bat kausituko zuela lantzeko: lan gose zen oraino bere berrogoita bospasei urthe nekhatuen eta bere ahulezia guziaren gatik.

“Ez othe luke lana utz ordu? —dugu frangotan aiphatu dugun eskuarazko liburu hartan irakurtzen. —Palabar berriek, Trabankorreko erresumak, Comorinek, Moreko isla handiak, Molukeko islek, Japoneko erresumek entzun dute haren botza. Mendiak eta zelbaiak, itsasoak eta oihanak, hiriak eta bortuak, jendeak eta ibiziak, zerua eta lurra heziak atchiki ditu bere mirakuiluez, espantituak bere lan gaitzez. Ez othe da engoitik lanez ase? Nabiz eskualduna den, haren zangoak ez othe dire engoitik akbitu? Xabierrek ez du sekulan lan eginari behatzen, bethi lan egitekoari”.

Bainan Chinan sartzen ez zen errech denbora hartan han sortuak ez zirenentzat: paper hainitz behar zen. Bertzalde, Frantses Xabier ez zitaken Chinako basatien erdirat bakharrik mentura ez eta han bakharrik lanari loth: baitezpada lagunak behar zituen. Goan baizik ez zituen batzu eta bertzeak ukhaiten ahal: gabe, Chinan sartzea ez zen zuhurtzia.

Ez ditugu bideko chehetasunak emanen. Haize gaichtoen gatik untzia aski laster sartu zen San Choan deithu ugarteko portuan: abendoa zen, 1551garrena. Hain chuchen portu hortan bertze untzi bat atcherman zuen Goarat abian zena. Hartan sartu zen eta otsailari buruz edo otsailaren lehen-lehen egunetan Goarat heldu. Hango jesuista batzuek orduan eskuin eta ezker igorri zituzten guthunak irakurtu ditugu: orok ez dakite aski nola erran Frantses Xabierren ikusteak egin zioten atsegina. Atsegina, eta ongia. Segurki Jainkoak ereman omen zuen Saindua harat, bakhotcha berritz bide onean sarrarazteko, zaharoa eskuan harturik makhurren chuchentzeko, eta orori kontseilu hoberenen emateko. Bizpahirur ilhabetez han zer lanak egin zituen ez ditake kasik sinhets.

Bainan deusek ez zion eskualdunari galarazten ahal Chinarat joaiteko chedea. Oro antolatuak zirela iduritu zitzaioneko, berritz untzia hartu zuen, Gobernadorearen paper guziekin, zenbeit lagun hoberenentan hautaturik. Aphirilaren hamalaua zen: 1552garrena: ortzegun saindu arratsa. Ilhabete baten buruan berritz Malakan zen, Cochinen doi-

doiako bat trikaturik, itsasoan irrisku frango garhaiturik. Ez zuen dudatzen Malakan errechtasun guziak kausituko zituela aintzinat joaiteko eta Chinarat heltzeko. Baduk hoberik! Lehenik Malaka guzia helde gaichtoek hartua atcheman zuen eta denbora hainitz eri artatzen gelditu behar izan zitzaion. Gero, Malakan buruzagi berri bat zen: Alfaro de Ataïde. Eta hunek, Sainduari berari ez bazion baitezpada nahi, arras begietan zuen Pereira, misionestak hartu behar zion untziaren jabea, eta debekatu zion Malakako portutik atheratzea. Eta hitz on guzien gatik, kontseilu guzien gatik, hortan zagon. Hainbertzetaraino nun azkenekotz Frantses Xabierrek eskumikoz jo baitzuen! Orduan, bere oinetakoen erhautsa han berean utzirik sobera gaizki egin ziotelakotz Malakan, handik urrunduz bethikotz. Untziak Canton deithu hiriaren pareraino ereman zuen behin, eta gero, gibelat eginik, San Choan jada aiphatu ugarteaz utzi.

Ez zuen ugarte hortan hainitz egoteko chederik Frantses Xabierrek. Huna zer irakurtzen dugun handik zenbeit egunen buruan Pereirari igorri zion guthun batean, bertzeak bertze: “Jainko Onaren laguntzarekin, gure untzia heldu da San Choanerat. Egun batetik bertzerat Chinako tratulant baten beha nago bere untziarekin. Hitzemana daut dirutan hartuko nauela berekin eta Cantonerat eremanen.” Ondikotz, eskualduak ez zuen ez Cantonen ez bertze nihun zangorik sartu behar gehiago. Hitza jan zion tratulantak eta ez zitzaion gehiago begietarat agertu.

Joan ziren orobat, bat bertzearen ondotik, portuan ziren untzi guziak, nihork Frantses Xabier Chinarat erematea onhartu gabe: sobera irrisku zen kanpotiar bat erresuma hortan sarrarazteko.

Denbora hortan hotz handienak helduak ziren eta beren jatekoak gutitucheak zituzten misionestek. Hainbertzenarekin sukhar tzar batek hartu zuen napartarra eta bizpahirur egunez bere lastozko oheari itzatu. Odol puska bat khendurik sendarazi zuten, bainan laster berritz eritzeko. Erran bat bada denboratsu hartan Xeberriko jauregi zaharrean⁽¹⁴⁾

⁽¹⁴⁾ Ms. *zabarren*.

Frantses Xabierrek haurra zelarik eskuetan ibiltzea eta besarkatzea arras maite zuen guretzefika bat, ortziralere batez, bet-betan ikusi zutela izerdiz estaltzen. Geroztik mirakuilu hori ortziralere guzietz erreberritu omen zen urthe hartan. Jauregiko jendeak ez zuen dudatu misionestak laster hil behar zuela, beraz.

Zenbat egun iraun zuen bigarren eritasun horrek? Ez da errech erratea. Hainitz aldetarat mintzo dire orduko berriketariak. Bainan oro baino nahiago dugu sinhetsi Antonio, gure Saindua hobekienik lagundu eta maitatu dutenatarik bat: *“Ortzegun hartan —asteartean chartu-eta— guti edo aski nabasi zitzaukun: ez zuen, haatik, behar ez den elhe bakhar bat erran. Begiak zerurat, loria begitartean, predikatzen ari balitz bezen gora, othoitz batzu egin zituen nihundik adi ez netzazkeenak, nik ez dakitan mintzaira batean⁽¹⁵⁾. Zenbeit badi-re, haatik, ongi gogoan hartu ditudanak, hala nola: Tu autem peccatorum meorum et delictorum miserere... Larumbatean elhea arras galdu zuen. Hori ikbusi nueneko, ene baitan egin nuen laster galdu behar ginuela eta ez nintzen gebiago urrundu. Gau guzian begiak ez zituen gurutzefikatik aldaratu. Eta argia gabe, ezti-eztia, pausatua zen”...*

Iduri luke, beraz, igande goiz batez hil zela Frantses Xabier eta hazilaren 27a zitaken. Badi-re, haatik, abendoaren biga zela erraten dutenak. Dena dela, arratsaldean berean ehortzi omen zuten. Orok badakite denboraren buruan hobia gorphutzaren bertze norapeit eremateko ideki zelarik, oso-oso zela oraino, bethi eder eta fresko. Soinekoak berak ez zituzten lurreko usteldurek hunkituak. Jainkoak hala nahi zuen.

Horra, aski laburzki, zer izan den gure herritar saindu baten bizia. Ez baditugu ere chokho-moko guziak aski ongi agertu eta argitu, iduritzen zauku aski erran dugula orok ikus dezaten zer gizona eta zer saindua izan den Frantses Xabier. Bethi zaint gaitzala zerutik..., eta othoi lagunt gure biziaren bethetzen harek itsasoz bertzaldean iragan dituen hamar urtheak egin dituen bezala!

⁽¹⁵⁾ Elissalderen oharra: Zoin othe zen mintzaira hori? Latina? Ez. Antoniok bazakien latinik aski, hala zen edo ez ezagutzeko. Etzen ere portugesa. Ez-eta espainola: portugesa dakienak espainola aise adi dezake. Eskuara, beraz? Itchura guzien arabera, ba. Frantses Xabierrek maite zuen Eskuara: berak erraten dauku 1543garrenean norbeiti igorri guthun batean: “Ene mintzaira, Eskuara da...”.

XIII. Mirakuilu batzu

Bere denboran eta hil ondoan sobera mirakuilu egin du san Frantses Xabierrek oro hemen emateko: bertze liburu bat hasi beharko ginuke. Egin dituenetarik bakhar batzu hartuko ditugu, beraz, doi-doia.

1. Ez itsasoan ez leihorrean edateko urik gabe ez ditake bizi. Horra, bada, nun egun batez Frantses Xabier untzi batean zoalarik ura eskasten den untzi hartan. Kapitainak burua galdu zuen haur gaicho batzu egarriarekin ithotzen ikusi zituelarik. Saindua urrikaldu zen, othoitzean hasi, eta zerbitzariari erran zertako ez zuten itsasoko uretik hartzen.

—Itsasoko uretik oraino oro lasterrago hilarazteko?

—Ez, gizonak, ez: nihor ez da hilen, nik hitzematzen dautzuet...

Itsasoko uretik hartu zuten, beraz, zerbitzariak. Sainduaren erranaren gainean, edanarazi eta berak edan: ez zen gazia... bainan bai berritz gazitu, untziko barrikak bethe zituzteneko!...

2. Antonio de Miranda, Sainduaren zerbitzarietarik bat, gau batez norapeit zoalarik, suge tzar batek ausiki zuen, eta berehala, hats bahi, gizon gaizoa erori zen lurrerat. Han zabal-zabala denboraren buruan atcheman zutelarik, Frantses Xabier deithu zuten. Lasterka ethorri zen, orori othoitz eginarazi eta gero, bere erhi bat thuz bustirik, hartaz Antonio unkitu ausikiaren gainean. Ordu berean berebaitaratu zen Antonio eta chutitu sendo...

3. Aita Francisco de Chaves haurra zelarik bet-betan eritu zen, norbaitek pozoinaturik naski. Joan ziren Frantses Xabierren bilha, eta hunek gurutzearen seinale choil batez sendatu zuen haurra. Hola-hola sendatu zuen Malakan etcheke seme on bat. Hiltzerat omen zoan, bainan Sainduak sendatuko zela erran orduko, chutitu zen, jaterat galdetu eta ederki jan...

4. Marcel Mastrilli jesuista gazte bat zen: nihundik Japoniarat joan nahiko zuen misionest. Ez zuten utzi bere buruzagiek. Horra nun egun batez eroriko ikharagarri bat zurubi batzuetarik eginik buru-hezurra

arrailtzen duen. Mirikuek berehala etsitu zuten, eta, itchura guzien araberak, harenak egin zuen. Gehiago dena, ez zezaken iraun: laster joan behar zuen. Gaicho eriak bere Japonia zuen gogoan halere. Hori ikusirik, buruzagiek utzi zuten botu baten egiterat: sendatzen bazen, harat joanen zela. Baina, nola senda holako kolpetik? Ez zezaken deus har ez atchik.

Bada, jesuista gazte horrek sekulako sinhestea bazuen Frantses Xabierren podorean. Othoitz egin zion... eta meza sailduaren emateko indarra galdetu. Galde hori egin zueneko, norbeit aitzinerat ethorri balitzaio bezala, harekin elheketa hasi zen, martir hil nahi zuela, eta holako. San Frantses Xabierrekin ari zen solasean, jada sendo, ezen... biharamunean meza saildua eman zuen, egundaino deus ukhan ez balu bezen aise!

Erran gabe doa hitza atchiki zuela: Japoniarat joan zen eta han hil. Jesuistek esperantza omen dute, San Frantses Xabier bezala egun batez aldaretarat altchatua izanen dela Marcel Mastrilli...

5. Amboinoko erregea bere ugartean setiatua zaukan bertze errege batek. Setiatua Frantses Xabierren adichkidea zen. Edateko urik ez zuen gehiago. Sailduak nolazpeit jakinarazi zion, beraz, gurutze handi bat landatzen bazuen dorre baten puntan, berehala Jainkoak zerutik behar zen ur guzia igorriko ziotela. Eta hala-hala gertatu zen...

6. Nechka bat jada hila zen. Amak hel egin zion Frantses Xabierri. Saildua ethorri zen, hilaren aintzinean belhaunikatu, othoitz bat egin... eta hila phiztu...

7. Itsu bat ethorri zitzaion behin Sailduari, othoi egin zezan othoitz bat harentzat. Othoitz egin zuen berehala Sailduak, eta biharamunean herriko karriketari zabilan itsua, bi begietan aspaldi galdua zuen argiarekin, oro harrituak beha zagozkiola!

8. Huna jada frangotan aiphatu dugun Diogo Pereiraren seme batek behin baino gehiagotan bere adichkideeri erran duen zerbeit. "Ene aita, Diogo Pereira, Frantses Xabierrekin arras adichkide zen. Behin Sailduak hitzeman zion haren semeak ez zirela sekulan beharrean izanen.

Bada, behin Goan pilik sakelan eta jateko mikorik etchean gabe gertatzen nintzen. Sainduak aitari hitzeman zionaz orhoiturik, othoitzean hasi nitzaien: “Aita Frantses Xabier maitea, ez duzu, bada, ikusten zertaratua naizen? Hel zakizkit eta lagun nezazu!” Hainbertzenarekin athe aintzinean baratzeakari saltzaile bat hasi zitzaukun oihuka eia ez ginuen deusik behar. Baratzeakari zenbeit galdetu niozkan mihise batzuetan truk. —Har zatzu behar ditutzun baratzeakari guziak, baina ez dut mihiserik nahi truk: zure hitza aski zaut...

Saltzaile hura ez zen gehiago gure karriketarat agertu. Ez dut den gutieneko dudarik Frantses Xabierren mandatari bat zela.

METSIKORAT

I

Iphar Amerikako erresuma hortan herritar zenbeiten ikusteko chedetan itzuli labur bat berri-berritan egin dugulakotz, han zernahi ikasi baginu bezala, *Gure Herriaren* jaun buruzagiak ez dauku bakerik eman nahi, ba eta ilhabetekari huntan gure ibilaldiaz mintzatu behar dugula. Ilhabete batez guti ikusten da: are gutiago ikasten. Barka, beraz, nihori ez badiogu gogoia asetzen, barka guziz gure burua maizegi aiphatzen badugu. Ez dezakegu bertzerik, alabainan.

* * *

Hamazazpi egunen bidea da hemendik Metsikorat: hamabortz egunen bidea itsasoan, bigena lurrean. Ez da *St. Nazaire* deitzen den portuaz kanpo bertzerik Frantzia guzian, Metsikorateko untzi bar sartzen denik. Han ginuen, beraz, gure untzia hartu, Uztaritzeko jaun notariaren semearekin. Bideko ez ginezaken lagun hoberik kausi. *Cuba* zen untzia izena. Untzi ederra ehun eta berrogoita sei metra luze, hogoita bi metra zabal. Arras bidekaria, bertzalde, eta itsasoak guti higitzen duena. Ez da untzi hori Frantziako handienetarik, baina ez dugu uste hobeagorik hainitz badela.

Dena den, lehen aldia zuen untzi batean zangoa ematen ginuela. Huna zer aithortuko dautzuegun... denboraren buruan: marinela batek, elheketa zerbeitez hasi-eta, erran zaukularik itsaso bethean nun-nahi badirela bortz sei kilometra ondo eta noiznahi hamabitarraino, halako

bat bizkar-hezurrean barna senditu ginuen. Ez da harritzeko: hamabi kilometra ondo... eta iherika guk ez jakin!

Laster ohartu ginuen, hargatik, ez duela hainitz balio izitzea: ez dela lurrian baino irrisku gehiago holako untziaekin itsasoan. Bainan... goazen emeki eta ez gaiten itsaso zabalean, leihorretik urrundu gabe, sar.

Errearoaren hogoita bata zen: goizeko zazpiak. Jada eguzkia zeruan gora. Hirur orro handi egin zituen untzia, norbeitek nunbeit min handi bat egin balio bezala, eta emeki-emeki abiatu zen Amerikari buruz. Mundu bat agur eta agurka ari zen leihorretik. Baziren hanhemenka nigarrez ari zirenak ere. Senhar bat, anaia bat eta adichkide bat bera hola doakionari bihotzean zimiko handisko bat egitea, nor harri? Bai, gu ere orduantche orhoitu ginuen Eskual Herriaz, eta gogorat ethorri zitzaizkun pertsulari famatu baten kantuak:

Herrialde guzietan toki onak badira,
bainan bihotzak dio: zoaz Eskual Herrira.

Eta gu atzerrirat ginoazin, omen tcharreko herri batetarat! Ezin ahantzizko eguna! Bainan ohartu gabe, itzaliak ziren leihorrean agurka ari ziren jende maiteak, itzaliak itsas-hegiko etche pollitak, itzaltzen ari jada urrunean mendiak. Eta bihotzean ilhundura pichka-pichka batekin, gure uztariztar lagunaren arintzeko kantuz hasi ginuen:

Ara nun diran mendi maiteak,
Ara nun diran zelhaiak,
basherri eder, churi-churiak,
ithurri eta ibaiak.

Ilhabete pare batentzat Ameriketarat doanak kanta dezake hola: han zoazin gehienek kantuak sartucheak zituzten!

Itsasoko bizia? Denak har, lurrekoa bezalatsu. Itsasoan doanak ongi jatea du gogoan, ongi edatea ere ba. Lo ongi egiten da. Eta bideari nihor ez da ohartzen. Zu geldi-geldia zaudelarik, untzia badoa gelditu gabe. Santander, Gijon, Coruña, hirur Espainiako portu eder, karriketan sekulako olio usainarekin, bi egunen buruko ikusiak gintuen. Portu

batetik bertzerat, marloinak han gintuen, guzien jostagailu, ehunka ondotik. Bainan bat bertzearen ondotik hirugarren arratseko norapeit itzali ziren marloinak ere beren moko gorri chorrotcharekin...

Itsaso zabalean ginen, eta itsaso zabalean hamar egunentzat! Hamar egunez ez da gehiago begien aintzinean ura baizik; ur urdin zabal bat aintzinean, gibelean eta bi aldetarik. Noizetik noizerat untzi bat urrunean ikusten bada, zer mirakuilua! Oren bat edo biga, loriatua, hari beha eta beha han zaude, begiak bertzalderat itzulirik ere, berritz harat ekharriak!... Eta azkenean untzia ere emeki-emeki ttipitzen zautzu, laster hedoiaren artean gordetzeko, amets bat bezala... Eta orduan berritz beha zazu eskuin eta beha zazu ezker, ez duzu bethi eta bethi ur eremuak baizik ikusten. Nihun chori bat, nihun untzi bat, nihun deusere ur urdina baizik.

Zer gogoeta egiteko lekua! Eta ez da gogoetarik egiten! Ez da orhoitzen untziak hantchet ondo jotzen balu, zutaz egina litakela: zutaz nihor ez litakela gehiago mintzatzen ahal: untziarekin ezen, zuk ere ondo jo zinezake, nun eta ondoratu gabe ez zaituen arrain handi tzar zenbeitak oso-osea edo phuskatuz iresten. Horietaz nihor ez da segurki orhoitzen. Ez eta behar! Itsasoaz begiak ase ditutzularik, lehen kausituarekin, zure bizian ikusi ez baduzu ere, aspaldiko adichkide batekin bezala hasiko zare elheketa. Erranen diozkatzu, zabal-zabala, zure sekretu minenak: harek ere ba bereak zuri: erranen diozu norat eta zertarat zoazin, zenbat denborentzat, zertako utzi ditutzun zure herria eta zure herritarrak. Eta zu hola zure berrien adichkide berri horri ematen ari zarelarik, bertze batzu badire jokoan ari direnak. Bertze zenbeit zaharhaurtuak, jauzika, nihork trufatu gabe. Zenbeit bakhar, han eta hemen, jada itsasoari beha, arraineri goraintzika. Zer nahuzue! Oro ez dire bardin eginak eta itsasoko gaitzak ez du legerik. Ustegabea eta uste ez duena har dezake eta du hartzen. Jainkoari eskerrak, hargatik behinere ez daukulakotz itsaso tzarrenak bihotza eta barnea itzuli. Hitz dautzuet, ikusiak ikusirik, ez duela guti balio...

II

Coruña, jada aipatu espainol⁽¹⁾ portutik lehen ikusten diren lurraldeak *Açores* deithu urarteetan dire. Ondikotz, urrunerat gintuen bakarrik ikusi! Behin edo bertze, *Cuba* han gelditu izatu omen da eta ongi nahiko ginuen aldi huntan ere geldi zadin, bederen hango jendea nolakoa den jakiteko, handia ala nanoa, churia ala beltza, jendekina ala lapurra. Bainan ez zen hurbildu ere. Eta delako lurraldeez haurrean gogo kontra gure errientarekin ikasiez kanpo, hitz bat ez dakigu, beraz, orai ere!

Portugaletik hamahirur ehun kilometretan dire urarte horiek, itsasosan galduak bezala, eta erresuma horren meneko egundainotik: lur on, zernahi fruitu ekartzen dutenak. *Angra* deitzen da hango hiri nausia. Orotarat baditake urarte guzietan berrehunta berrogoita hamar mila egoile bezala.

Mila lauehun eta hogoita hamekan (1431) atcheman zituen urarte horiek *Cabral* deitzen zuten portugés itsasturi batek. Delako itsasturi horrek berberak atchemana da ere, artean errateko, Bresileko eskualdea. Nola deithu zituen *Açores* urarte hauk? Ez dakigu. Errana da bakarrik han gaindi zernahi miru badela, eta nola hango mintzairan *açor* deitzen baita mirua, hortarik gogoratu zitziola delako izena: hala bada, halabiz.

Dena dela, Açores urarteak ere laster itzaldu ziren begi hobereneri: hango mendiak berak ez doazi alabainan zeruraino, eta, jada erran bezala, gure untziak egiten zuen bide! Oren pare baten buruko, edo menturaz lasterrago, deus ez zen berritz ageri zerua eta itsasoa baizik, salbu ureremu zabalean han-hemenka gizaurdi⁽²⁾ andana batzu, jauzi eta jauzi untziari buruz heldu, norbeitek zerbeit besainka igorriko ziotelako inguzinan.

(1) GH *español*.

(2) GH *gizaurdi (marsouin)*.

Beraz, bertze bospasei egunen bidea egin behar da, itsasoaz begiak kasik ase arte, bertze urarte batzu urrunean ikusteko: *Bermudes* deitzen dituzte.

Hor, arras lur guti omen, bainan hoberenatarik. Ez omen ditake-eta sinhets zenbat eta zenbat baratzekari biltzen duen horko jendeak, lurra ibili ere gabe! Hargatik, ez dakigu hain laket-lekhu othe diren Bermudes urarteak. Dakiguna da erretzeko beroak ari direla han⁽³⁾ gaindi, gu iragaitean. Espainol itsasturi batek atcheman zituen urarte hauk hamaseigarren mendean: orai anglesenak dire, beren hamabortz mila arimekin.

Hein hortan, jada ageri zen Ameriketarat hurbiltzen ari ginela. Alde batetik, itsasoa ezti eta legun, eta bertzetik, jada erran dugun bezala, erretzeko beroak! Athorra bizpahirur orenatarik aldatu behar! Zorionez, zure bokataren egiteko bethi baduzu marineletan bat edo bertze! Ez dauzkitzu, ez zure athorrek elhurra bezen churi itzuliko naski, bainan saria ere araberan ematen diozu. Eta zuk ez bada bethi nahi zinuena... harek badu nahi zuena!

Handik goiti, harritzeko da zenbat arrain ikusten den: hainitz ttipi-tto, choriek bezen ongi airean, beren hegal motzekin, ehun bat metra egiten dituztenak, bainan marraso biribil⁽⁴⁾ frango ere bai, ahoa zabalduak, norbeit eroriko delakoan untziari jarraitzen direnak. Lehen marrasoa ikusi ginueneko, nere lagun gazteari erran nion, bidez asetzen hasia baitzen:

—Lagun, altcha bihotza! Seinale ona duk marraso horren ikustea. Ez ahal gaituk Habanatik hain urrun!

—Hobe— zautan doi-doia ihardetsi.

* * *

Biharamunean, uztailaren laua zen. Goizeko sei orenetan, bere hirur marruma handiak berritz eginik, gure untzia sartu zen Habanako portu

⁽³⁾ GH *bain*.

⁽⁴⁾ GH *marraso biribil (requin)*.

ederrean. Jada baziren han hamar bat untzi erresuma guzietakoak: espainol, angles, aleman eta amerikano, batzu kargatuak, bertzeak kargatze-koak. Orroaz hasi ziren oro, alde guzietarik muuu eta muuu. Hola egi-ten dute elgarri agur itsasoan untziek.

Zer atsegina handik oren baten buruan, gure paperak jaunskila bel-tcharan bizar chorrotch bati irakutsi-eta, zangoak Habanako lurrean finkatu gintuelarik! Iduritu zitzaukun... segurki hala ez delarik... zeruan sartzen ginela ifernutik!

Bainan Habana zerua dela? Fa, ez eta aldeko zerbeit ere! Sobera bero ari da han, hasteko. Gero, portuan ikusten den jendea bekunde⁽⁵⁾ gaichtokoa da. Haur batzu harra bezen biluzgorri hantche ikusi gintuen, sos baten eske gure ganat ethorriak. Bainan nihork ez dezala uste izan soineko erosteko biltzen dituztela sosak haur horiek: ez. Edaria ez othe da soinekoak baino lehenago?

Etcheak aphalak dire Habanan eta hemengoak baino hachitago arruntean... nun eta ez diren taula beltz batzuez eginak, zimitzen eta kukusoen, bai eta zorrien, egoitza hautuzko! Bainan, hala-hala, bazterra choragarria da han gaindi. Hango loreen kolore min ederrak! Hemengo choriak ere ez ditazke hangoekin pare! Eta hango fruituaren emana! Ez ditake amets ere zenbat den! Eta nolakoak! Ahotik ezin utzi dire hainitz, hain dute mami ona! Bainan *Gure Herria* ez litake aski handi izango espantuentzat: bego, beraz, hortan...

Habanan nahiko ginuen pilota partida bat ikusi. Munduko plazarik ederrenak han dire. Bertzalde, sosaren puntan harat biltzen dituzte nun-nahiko pilotari handienak: hala nola gure Chikito ez omen da hango Erdoza bi anaien aldean... pilotarichka bat baizik! Omen erraten dugu ezen Habanan iragan ditugun oren laburretan, delako pilotariak nunbeit ziren.

Horiek hola, badire Habanan laketzen direnak. Metsikotik Eskual Herrirat heldu ginelarik, bertze untzi batean bide egin baitugu Dague-

⁽⁵⁾ GH *bekunke*.

rre hazpandar jaun maitearekin, hura arras laketua da Habanan. Ez dugu uste guk laketuko ginukeela. Beraz, bi egunen buruan berritz Metsikoari buruz *Cuba* abiatu zelarik, sartzean bezala portutik atheratzean hango untzieri harek eta hari hango untziek agur eginik, bihotzean ez ginuen zimiko handirik sentitu, ez eta nigarririk egin.

Bi egun ematen ditu untzi on batek Habanatik Metsikorat: hala eman zituen gureak ere. Larunbatean handik atheratuak, astelehenean han ginen chuchen Vera Cruz deitzen duten erresumako portu hendienean⁽⁶⁾.

III

Metsikoan ibiliak diren guziek gogoan dute Vera Cruz deitzen den portua. Erresumako handiena da: baina hitsagorik guk ez dakigu, lehen behako batez untzitik ikusteko. Batere ez gintazke, beraz, harri harat heltzean eginak balire orduan gogoratu zitzauzkun koplak hauek:

Urrungo eltzea urhez,
harat gireneko lurrez.
Famak bai handi, baina oro gezurrez!

Etche guziak iphurdiz daude itsasoari, aspaldi churitzekoak. Nun dire Eskual Herrian maite gintuen etche maite pollitak, izar ttiki batzu bezala mendiak jarriak? Nun Eskual Herriko teilatu gorri alegerak? Nun Eskual Herriko athe eta leiho pherde gustagarriak? Eskual Herrian orok iduri dute ongi-ethorri erraten dautzutela: Vera-Cruz hortarat hurbiltzean orok iduri dute aldiz: “zoaz hemendik” erraten dautzutela.

Basoa bethe-eta behar da hustu: agur erran ginioten, beraz, untziko adichkide guzietan eta gure phuskak harturik abiatu ginen kanporat.

⁽⁶⁾ GH *handienan*.

Segurki eta halere, paperak erregelari behar dire untezi batean sartze-ko, bai eta futcho atheratzeko ere. Azpitik eta gainetik, aintzinetik eta gibeletik, nola behatzen dautzuten⁽⁷⁾ hantche gobernamentuko mandatariek! Ez dute segurki, itchuraz bezalakoak badire bihotzez, behar ez den bezalakorik nihor utziko herrian sartzerat... bainan guzien buruan nahi duten guziak sartzen omen dire! Jainkoak daki nola... eta guk ere ba...

Gobernamentuko mandatarari mokorren ondotik, mugazainen aldi. Nihork ez dezala kontrabandarik ereman, mugazainek ikusiko ez diotelakoan. Kukuso baten itzala ikus lezaketek naski. Deusik ez zaiote eskapatzen. Bainan zerbeit onik badute halere: oro ikusten dituzte eta oro sartzerat uzten zenbeit sosen truk. Hori ez balitz, gizagaizoek ez lukete bizitzekorik. Harritzeko da gurekin ginuen katalan batek zenbat seda sartu zuen berrogoita hamar liberako batean. On da ondoko egunetan harat beharrak direnek jakin dezaten hori, bidean odol gachtorik ez egiteko. Jakin baginu, ez ginuen hainbertze eginen guk ere...

Vera Cruzen gauari buruz jautsiko denak bethi ongi eginen du adichkide bat porturat ethorrazten badu. Han, ez ditake adichkideen gainean baizik konda. Bertzenaz, hel egin zozu begitarte hobereneko laguntzaileari, hanbat gaichto zuretzat! Beltzak eta zuriak, han oro phika bezen ohoinak dire. Gure bideko lagunetan ere batek baino gehiagok bere gustuz egia hori frogatu duelakotz, dugu hemen ezartzen, norbeiti oraino balia dakiokelakoan, bihar edo etzi.

Guk baginuen portuan gure gizona. Ordu arte ez ginuen ezagutzen. Laster ezagutzak egin gintuen, hargatik. Zer gizon on eta maitea! Hogoita hameka eta eskua badu halako gizon bat eskuko duenak. Aspaldi han egoki, bazakien hango gizon eta chokho guzien berri. Gure lagunak oraino portuan burua galdua ibilki, ezin antolatuz, eta gu jada han ginoazin Vera Cruzeko karriketari ostatuari buruz, moro bekunde

⁽⁷⁾ GH *dautzuten*.

gaichtoko batzuen aldetik, ni erdi harritia, nere lagun gaztea arras izitua! Geroztik hameka aldiz irri egin dugu elgarrekin delako arratsa aiphatu-eta...

Egia den bezala aithortzeko, ez ginuen hainitz behatu hango karriketako edergailueri, ez eta Palacio municipal eta hango eliza nausi guziek goستن dituzteneri. Baginuen segurki bertze egitekorik eta horri laster ohartu zitzaion gure adichkide berria: gose amikatuak ginauden. Sartu ginen, beraz, hiriko ostaturik handiengan. Akhelarren segur naiz badela hoberik. Afariari begitarte egin giniola errateko guzurrez behar nuke mintzatu. Ez dut eginen. Egiak behar du bere bidea. Bada, urrikaltzeko litake bizpahirur egun barur litakeena, Vera Cruzeko ostatueta ase on bat gero egiteko inguzinan. Jesu, Maria eta Josepe! Nun ikasia othe⁽⁸⁾ dute jateko moldatzen hango ostalerek! Bertzela jaten dute segurki Itsasu Elizalderat doazinek!

Ostatua laster hustu ginuen, beraz, bertzeak chimur eta gure gidari maiteari milesker erranik Metsikori buruz abiatu, burdinbidez. Bederratziz orenak ziren nunbeitan, bainan aspaldi ilhuna. Ez ditake kasik sinhets zoin goiz ilhuntzen duen herri hetan, uda bethean ere. Sei orenetan egun zabala oraino, eguerditan bezala... eta handik oren laurden baten buruko ilhun-tunta eta beltza.

Ilhunaren gatik ez da, hargatik, hango jendea etcherat bilduko. Orduan dire-eta gehienik atheratzen beren egitekoetarat! Hala-nola zenbat emazte ez ginuen ikusi bide bazterrean tratuan ari, lore saltzen gehienak, ostatutik burdinbideratekoan!

Vera Cruzetik Metsikorat egunaz behar litake bethi bidea egin. Munduan ez ditake bide eder eta choragarriagorik. Vera Cruzen gaua iragan beharko balute⁽⁹⁾ ere, Metsikora doazinak ez dire gauaz bideari lothuko: goizean abiatuko dire. Nere parte, sekulako urrikia banuke orai, ikusiak ikusirik, Eskual Herrirat itzultzean bederen hala egin ez banu!

⁽⁸⁾ GH *etbe*.

⁽⁹⁾ GH *batute*.

Dena dela, laguna sartu zitzautan laster lotan. Haren adinak hala nahi zuen. Eta ni hasi nintzen aldeko jaun gazte batekin elheketa⁽¹⁰⁾, erdaraz. Bai, jaunak erdaraz nere moldeko erdara batean! Geroztik aski trebatu banaiz, orduko jada banakien zerbeit, beharrarekin ikasia. Alta ahal dena zen bada nere irakaslea ere, orai ohartzen naiz! Ez nuen ba behin aditu bere koinatari erraten zangoak berotzen ari zelakotz: “Tienes los patos calientes?” Ez zen dudatzen eta ez da naski oraino dudatzen haren hitzek, trufarik gabe, hau erran nahi dutela: “Hire ahateak beroak dituk!”. Holako errientarekin erdara nolazpeitko bat ikasi banuen eta bidean behin edo bertze irri eginarazi, ez da harritzeko.

Iduri du gau bat, ezagutzen ez den bide batean, ezagutzen ez diren jende batzuekin iragaitea, ikharagarri dela. Batere. Aski da nere laguna bezala lo eta lo egotea... edo nik bezala metsikano baten espantu ezin sinhetsieri alegi beharriak luzaturik, gogoia bertze nunbeit alhatzea. Eguna ere ethorri zen, bet-betan, goizeko seiak alderat. Oi, ordutik zer gure begien choramendua, zer gure begien ezin amestuzko ase! Emeki ginoazin eta lasterregei halere! Hango bazter choragarria! Hango lurra-
ren aberatsa! Hango behi arthaldeak! Hots, bide hura, burutik bururat, egunaz egin behar litake eta urrats guziez geldituz hobeki baino hobeki ikusteko: Jainkoak lurrean egin duen chokho ederrena ez bada, ederretarik bat ditake segur.

Bideko hiri eta herrichkeri ez gitzaiote hainitz ohartu, deus ohartgarririk ez dutelakotz: jendea, hargatik, hurbildik ikusi ginuen. Eskual Herrian, guziz igande arratsaldetan, gazte frango geltokirat (edo garalat) badoa nor ikusiko duen iragaiten. Metsikorateko geltokietan, herri osoak ikusten ditutzu bilduak: zahar eta gazteak han dire azkeneraino, batzu bere laneko soinekoetan, kasik athorra has, bertze batzu errege bezala jauntziak, oltzadarrak dituen kolore guziak jauntzietan eta... begitartean. Hemen hirietako neskatchak berak ez du hango atsoak bezenbat irin mateletan ezartzen: ikusi ez baginu, ez ginuen sinhetsiko.

⁽¹⁰⁾ GH *elekbeta*.

Alta, ez dire ba laka bat irinekin edo hainitz churituko! Horiek oro zertarat heldu dire geltokietarat? Ez dakigu, bainan dudarik gabe bertze egitekorik ez dutelakotz. Korbotza baino alferrago da hango jendea.

Zerk gaituen, bada, bide hartan choratu galdetuko duteneri, iharde-tsiko dugu hitz batez: bazterrak. Bazterra da ederra. Zabala eta aberatsa, gizonak asma detzazken lore, belhar, landare eta zuhaitz mota guziekin.

Ondikotz, atsegin guziek badute beren neurria eta edertasun horiek guziak utzi gintuen lurreko ola zahar batzuen artetik geltoki eder batean sartzeko. Metsikon ginen, bidean hamazazpi egun emanik, hemezortzigarren goizean. Biderat ethorriak han gintuen bi adichkide, Jean Pierre Hiribarren eta Carlos Berriozabal.

—Agur, adichkideak, ongi ethorri...— Eta hats hartzeko astirik gabe, beribil batean firrindan⁽¹¹⁾ baginoazin karrikaz karrika gure egoitza berriari buruz. Andere Berriozabal athean zagon, noiz ethorriko ginen, bi-hirur alaba maitagarriekin: eta aldean bi uztariztar, Edmond Detchart Portueneko semea Thérèse Hiribarren jaun notariaren alabarekin. Agurrak laster egin gintuela bichtan da. Andere Berriozabal zen gure begitarrea luzatzen hasia zela ohartu... edo guk ginuen mahainetik heldu zen usain gozoa usnatu? Denboraren buruan ez dakit. Dakitana da hautuzko gosari batetarik, etcheko chakurrak ez zuela egun hartan ondar handirik milikatu. Irriz zauden bazterretik gure adichkide guziak: ez ginen batere ahalge hargatik, andere Berriozabalen etchea etche bat baita ahalgetu behar ez dena, hain dire Berriozabaltarrak bihotz on ideki eta zabaleko jendeak. Geroztik etche hortan egin dut hameka gosari, bazkari eta afari: bat ez dut lehen hori bezala gogoan atchiki. Egia erran, ez da harritzeko: bezperan hain afari hitsa egina ginuen Vera Cruzen.

⁽¹¹⁾ GH *beibil batean ferrindin.*

IV

Hemendik Ameriketarat doazinetan zenbatek ez dute uste hango bereko jendea zozoskoa dela eta zakuan sar-errecha? Laster ohartzen dire hargatik, harat heldu-eta, hango jendea nun-nahikoa bezen atzarria eta gauzeri ohartua dela, nihork ez duela haren bizkarrean diru handirik kondatuko. Ameriketako jendea ez balitz den bezen alferra, hemendik harat doazinek deus es lukete egitekorik! Horra egia eta laster ohartu nitzaion egia horri Metsikon⁽¹²⁾! Sos zerbeit han eginik heldu zauzkun eskualdunek beren izerdiaren gostuz egina dute segurki eta halere!

Andere Berriozabalen mahainari halako begitartea egin-eta, jende mota horrekin berehala ezagutzak egiteko gutizia eta errabia handi batek hartu ninduen. Hain chuchen, doi-doia ikusterat ethorria zitzaitan nere hurreko lagun bat, Lorentcho Berho, Azkain Elizaldeko semea. Hari nion galdetu hiriko choko-moko guzietarat itzuli laster bat eginaraz zezadala. Ez ditake munduan atchewan Lorentcho Berho baino gizon maitagarriagorik. Bethi orori atsegin egiterat ekharria, bethi nola derautzun atsegin eginen dabila. Hameka oren on eta eder iragan badut Metsikon hari diozkat gehien-gehienik zor. Goiz hartan ere ez nuen, beraz, nere galdearen bietan egitearen beharrik izan. Berehala abiatu ginen *indianoak* direlakoen ondotik. Karrikan dabilan jendeketa guziaren artean, ezagut-errechak dire beren begitartetik lehenik eta gero beren jaunzteko moldetik.

Hura begitartea! Nihun ez dute segurki lehen garhaisaririk irabaziko beren edertasunarentzat! Kopeta hertsu baten azpian, bi begi ttipi nunbeit gordeak, edozoin gaturenak baino argiago: sudurra zabal, ahoa oraino zabalago, kokotsa chorrotch, beharriak handi. Emazteak bethi buru has, ileak dilindan, sasi bat iduri: gizonak, aldiz, bethi harritzeko lastozko chapel batzu buruan... Eta jauntzia! Emaztekiek ez dituzte oraino ezagutzen Pariseko jauntzi-moldeak⁽¹³⁾ bainan zangarrak, besoak

⁽¹²⁾ GH *Metsikoan*. Geroxeago, ordea, *Metsikon*.

⁽¹³⁾ GH *jauntzi-moldeak (modes)*.

eta lepho-baphoak Parisen bezen ageri dabilzkate. Gaineratekoan dituzten piltzarrak gorriago eta ederrago zaizkotela iduritu zait bethi. Oinetakoak ez zotzute aipha, ez dakite zer diren edo ez dituzte maite, ... nork daki zertako.

Bada gizonek ere ahal den bezalako jauntziak dabilzkate! Bat ez dut ikusi ederkisko emanik. Galtzak ez dituzte nahi, galtchoinak aski zaizkote. Ez galtzerdirik ez oinetakorik. Athorra ere ez dute segurki setazkoa! Ez eta bethi churienetarik!

Nola bizi diren direlako indianoak galdetuko duteneri, lañoki ihar-detsiko dut batere ez dakitala. Lan errechenari lotzen direla maiz hori bai... eta hainitzek nahiago dutela eskuak gurutzatuz bizi, alfer, izertuz baino. Egunean egunekoa, handik edo hemendik, irabazia edo ebatsirik, balin badute, zer zaiote indianoeri!

Badakit: oro ez direla hola bizi. Basherrietan badire indianoak beren izerdiaren gostuz orai beren etche eta ontasun ttipiaren jabe direnak. Nihork ez du lurra maiteago: nihork ez du hobeki artatzen. Nun-nahiko gizonak bezen langileak direlaketz, deusen⁽¹⁴⁾ eskasik ez da heien etchetan.

Bainan ehunetarik bat da holakoa. Bertze lauetan hogoita hemere-tziak lan eginaren eta errechtasunaren adichkideak, eta adichkide minak dire, alfer hotzak, hots! Ahaide hainitz badu alferkeriak. Alferra maiz gezurtia da. Ez da munduan nihor Metsikoko⁽¹⁵⁾ indianoak baino aise-ago gezurra erraten duenik. Hatsa bera gezurra du. Bainan zerbeit erraten dautzutenean, froga zozute gezurrez mintzo direla, batere ez dire durduzatuko eta beren gezurraren finkatzeko... bertze bat erran-eta, kito. Nere herritar eta adichkide Basilio Barnetchen emazteari gertatua zaiola ichtorio hau deraukat arras. Egun batez, sehia heldu zaio:

—Anderea, etcherainoko bat baitezpada egin behar nuke: aita hil zaut.

(14) GH *deuse*.

(15) GH *Metsikoako*.

—Zoazi, zoazi berehala eta ni hemen antolatuko naiz ahal dutan bezala, behar den denbora guzia. Zoazi laster.

Handik ilhabete baten buruan berritz heldu zaio andere berari sehi bera.

—Anderea?

—Zer da?

—Etcherainoko bat baitezpada egin behar nuke berritz.

—Zertako?

—Aita arras eri dut.

—Aita arras eri?

—Bai, anderea.

—Bainan orai duela ilhabete bat ehortzi zinuen zure aita!

—Hala da... ahantzia nuen.

Ez dut, ikusiak ikusirik eta adituak aditurik, batere dudatzen geroztik ere delako sehiari aita berritz hil zaiola behin baino gehiagotan. Metsiko utzi nuen goizean edo bezperan, Uztaritzeko jaun notariaren alabaren sehiari hola-hola eritu edo hil zitzaion anaia. Ez dakit geroztik sendatu edo phiztu den. Harri nintake ez balitz egin.

Bertzalde, alferrak maiz edatea maite du. Ez da indianoak baino mozkor handiagorik. Gutiz gehienak arrailtzen dire ahal duten guzian. Han ez dute arnorik, bainan badute “pulque” deitzen duten edari bat, izpiritu zerbeit dukeena. Hartarik ari dire gophor betheka gizon eta emazte, gizonak baino ere gehiago emazteak. Egia erran, hango jendearen ezpain gorri zabalek iduri dute edariarentzat eginak direla. “Pulque” hortarik karrikaren erdian atchematen ahal da: errateko maneran, karrika choko guzietan badire saltzaleak. Arratsa heldu delarik, barrika oraino matcharde lodi eta azkar batzuen puntan ikusten ez baduzu, jabeak etcherat eremana duelakotz, aise ohartuko zitazke nun saltzen zuten delako edaria halere: hiruzpalau emazte, zabal-zabala, lo han ikusiko ditutzu, lekuko, ezin ukatuzko lekuko.

Hartako doia jastatu nahi izan dut *pulque* hortarik. On da guzien jakitea. Pitar tzar usteldua iduri du edari horrek eta egiazki indianoa

behar da izan horren maitatzeko. Hemengo buhamiek ez lukete nahi, segur eta segur...

Erranetarik iduri luke, beraz, indianoak aise bazterrerat utzi behar litazkeela. Hala dute egiten hemendik Metsikorat doazinek, nun eta ez duten arras ezinbertzea. Hala ditugu utzi guk ere, eta salbu lehen egun hartan ez gitzaizkote hainitz ondotik ibili. Hau erran behar dut, hargatik: indianoak fede handiko jendeak direla. Nola dauden elizan eta nola ari diren othoitzean bi besoak zabalduak! Alderdi guzietan badituzte beren elizak eta kaperak, hemengo ederrenak baino ederrago eta aberatsago.

Barnetik egiten dute othoitz indianoek ala achaletik? Hori ez dakit. Heien begitarteari behatuz elizan, iduri luke saindu hutsak direla. Bainan gero, othoitz bururatu-eta kanporat abiatzen direlarik, beha zozute eskuetarat; hamarretarik bederatzietan zerbeit ebatsirik atheratuko dire, edo itze bat, edo gakho bat, edo... aldeko lagunaren chapela. Lorentcho Berho nere herritarrari, mahain sainduan, sakelatik moltsa ereman zion aldeko indianoak behin! Metsikon ezagutu dut aphez eskualdun bat: aita Laca. Aspaldi han baitago, nihork ez ditu hobeki ezagutzen indianoak. Bada aita Lacak erraiten zautanaz, nekhe da, arras nekhe, indianoari zerbeit buruan sarraraztea. Ebastea nihundik ere ez zaio bekatu indianoari. Jabeari dago zaintzea... eta zaintzen ez badu, indianoari hartzea.

Huna zerbeit bertze aphez bati gertatua. Behin indiano bat heldu zaio, biharamunean ezkondu nahi lekeela.

—Badakizu bederen zer den ezkontza?

—Bizpahirur emazte izaten ahal eta bat hautatzea; behinere ez panpatzeko chedearekin.

—Adichkidea, katichima laburskoa duzu bihar ezkontzeko. Ez dakit behinere ikasi duzun ongi. Nahi baduzu, bururen buru elgarrekin ikusiko dugu berritz, egun hasirik.

Eta hasten zaio haur bati bezala Jainkoa zer den, Jainkoa nun den, orotan dela. Baietz, beraz, indianoak. Eta hortan geldi, orduan. Biharamunean, berritz:

—Eian orhoitzen zaren atzo erranez. Zenbat Jainko dire?

—Bat.

—Nun da?

—...!

—Orotan.

—Aita, behinik behin hori ez da egia.

—Bai, egia da.

—Ez.

—Bai eta bai.

—Nik bizkitartean frogatuko dautzut nere aitaren etche teilatu gorri hartan ez dela Jainkorik!

—Ori, mila pezo emanen dauzkitzut hori frogatzekotan!

—Emazkidatzu berehala: nere aitaren etche teilatu gorrian ez da Jainkorik... zeren nere aitag ez baitu etcherik, teilatu gorriarekin! Teilatu beltza du.

Norbeit doala holako kaskoetan zerbeit sarrarazi nahiz, suaren hiltzeko thu eginez bezalatsu egingen du. Kasko gaichtoa dute Indianoek, baina ez dire zozoak. Eta hastean erran dutan bezala, nihork ez du indianoaren bizkarrean diru handirik kondatuko. Indianoak egun erdi batez ikustea aski da, egia horren frogatzeko. Lorentcho Berhorekin abiatu gabe ere banakien, hogoi urthe huntan Metsikon maiz eta maiz frogatu baitu... bere gostuz⁽¹⁶⁾.

V

Indianoek bezala, Metsikon⁽¹⁷⁾ gaineratekoek ere fama tzarra dute. Harat joaiteko chedea hartu nuelarik, zenbatek eta zenbatek ez zautedan

⁽¹⁶⁾ Elissalderen oharra: Ez nuke nahi hemen indianoez erraiten ditudanak irakurtu-eta norbeitek uste izan dezan batek edo batek zerbeit gaichtakeria egin dautalakatuz mintzo naizela hola. Ez. Indianoeri batere ez diotet nahi. Egia da ez nukeela lehen kausituari ezpainetan musurik emanen, baina hauk hemen eman ditut, choilki eta choilki, egiak direlakotz.

⁽¹⁷⁾ GH *Metsikoan*.

erran ez nezala holakorik egin, han ez nuela deus onik kausitzen ahal! Zorionez, birika bere lekuan dut eta ez zautan den gutieneko izialdurarik hezurretan sartu. Guzien buruan, zer da lurrean gertatzen? Jainkoak nahi duena. Eta hura bakarrik... Nere baitan egiten nuen, bertzalde, ez ahal nuela alemanen kontra Frantziak egin gerlan baino ikaragarrikeria handiagorik ikusiko, eskualduna izanagatik lehen egunetik azkeneraino gerla hartan ibilarazi binaute frantsesek!

Ikusiak ikusirik, badakizue zer erraten dutan orai? Nahi duenak nahi duena erran dezala hemendik goiti, nik ehunetarik bat ez dutala sinhetsiko hango ichtorioetan! Espantuak dire segurki handienak. Bethi gerla gorrian ari direla elgarrekin metsikanoak, bai; bainan elgarri minka ez. Hango tiro eta zalaparta guziekin oraikotz itsasoak berak gorrituea behar zukeen. Nihun ez dut Veracruzeko portuan baino urdinago kausitu! Eta sekulan orhoituko naiz nere adichkide Jean-Pierre Hiribarrenek, irri churi batekin, behin erran zautanaz:

—*Muchas palabras, pocas obras*, dituk hemen! Egun batez, hemengo egunkariak harritzeko espantuak eginik gobernamentuko soldadoek gobernamentuaren kontra altchaturikako soldadoekin egin gudu batez, angles bat ethorri zukan ikusi beharrez.

—Bertze egitekorik gabe?

—Bertze egitekorik gabe, bai. Bizkitartean Metsiko huntan lotsatu zitekan guti edo aski, ez zadin hurbil gudu tokirat, han kausituko zituela oraino gorphutzak, ustelduak, harrek jaten ari. Eta holako...

Bainan hoa hi angles bati buruan duena khentzerat! Gure anglesa joan zukan, beraz, usain tzarraren kontra zernahi usain-oneria harturik, joan bururaino... eta zer ikusi? Bi mando hilak. Eta gizonak? Hilik phiztuak dudarik gabe, azkeneko *Gure Herrian* aiphatu gizontto hura bezala-bezala!

Sehi eta egunkari-egile, oro bardinak dire Metsikon: oro, gezurtiak. On dakiotela.

Egia erran, nola nahuzue odol ichurtzerik izan dadien hango gudu gorrietan? Soldadoek ez dute soldadoaren izena eta jauntzia baizik.

Nola soldadotuak ere dire! Ez da han chorterik edo bertzerik, zeren ehunetarik batek ez baitu herriko etchean ageririk. Merkatu batetarat bil dadiela gazte andanatto bat, gobernamentuak “lazoan” hartzen ditu eta soldado altchatzen. Ezarrez orori nolazpeitka doakaten jauntzi bat eta... *adelante, muchacho: cargado o no cargado, fuego!* Ez da gero harritzeko hola-ko soldadoak ez badu etsaiaren ondotik zapata pare handirik higatzen... eta higatzen baditu, higatzen ditu ihes joaiteko oihan batetako gerizarat.

Hau ere erran behar da: soldado horietarik hainitz ezkonduak direla eta miletan nahiago dutela beren emaztea alharguntzen ikusi baino... berek alhargundu. Bainan hori, bego hortan.

Zer dire, bada, hainbertze denboraz Metsikotik egunkariak ekharri dauzkuten gudu-berri lotsagarriak? Ez nintzen han; ez dakit. Bainan beldurra nuke hango gerlariak ez zirela ohoin batzu baizik. Milaka frogak badire: huna bat. *Novillero* deitzen den ontasun handi batean bizi da Baiones jaun gazte bat, Dorcasberro. Egun batez aditzen du etche inguruetan ibilki zaizkola gobernamentuaren kontra ziren soldadoak. Ez du dudatzen zer chedek dabilzkan han gaindi: bainan zer egin? Handik biharamunean urrundua zituen berritz... etcheko zaldi guziak harturik.

Dorcasberrok gobernamentuari berehala galdetzen diozka orduan bere soldadoak zortzi bat egunentzat, bertzeek berritz itzulirik behiak ebats ez detzoten. Metsikon⁽¹⁸⁾ gobernamentuak gisa huntan bere soldadoak prestatzen ditu, heien pagatzeko (ordaintzeko) eskugain duteneri zerbeit. Heldu zaizko, beraz, soldadoak Dorcasberrori... aintzineko egunetan han berean ebatsi zaldien gainean. Beraz... hango gerlak zer diren hortarik ageri da!

Eta ez uste izan soldadoak direla bakarrik holakoak: aintzindariak, hobeak direla. Ez: tantiruri, orok elgar iduri. Mami beraz eginak dire nausi eta muthilak: denik ere, muthila baino ohoinago dela nausia! Huna jada aipatu Dorcasberrori jeneral batek igorri mezu bat: froga hoberik ez da nere erranaren finkatzeko.

⁽¹⁸⁾ GH *Metsikoan*.

EJERCITO REVOLUCIONARIO
COLUMNA VOLANTE

Señor Gerente del Ing. Novillero

Muy señor nuestro y amigo,

“Nos es grato participar a Usted que, encontrándonos operando por esta zona con una columna de 150 hombres y estando dispuestos a impartir garantías a todos los elementos de orden y trabajo, recurrimos a Usted con el objeto de que esa negociación nos muestra en cantidad de 2.000 pesos por el sostenimiento de nuestras fuerzas, en la inteligencia de que dispongan de garantías amplias su persona, sus intereses y sus empleados. De no acceder a nuestra petición no nos hacemos responsables de lo que suceda en lo futuro. La cantidad de 2.000 pesos que hoy le pedimos se servian enviarlas con el portador.

El General
GANDEMO

El Coronel
NARCISSO

Delako Gandemo hunek ziozkan Dorcasberrori gorachago aiphatu zaldiak ebatsi. Ez dezaket finka aski kopeta izatu zuela gobernamentu-ko soldadoekin ethortzeko handik laster, bainan ez nintake harri. Zertaratzen den gizona lanean ari gabe bizi behar duela buruari eman diolarik!

Nago munduan othe den gizonik metsikanoak bezenbat harrabotsa maite duenik. Harritzeko da zer musika terrentak aditu ditudan Metsikon ilhabete batez. Urhatsik ez ditake han egin chirribit zerbeit, chirula edo guziz *phonographe* direlakoetarik entzun gabe. Bertzerik ez dela, metsikanoa orenak eta orenak ariko zautzu barrika huts bati joka. Berritz ere diot, emozu hari harrabotsa. Hainbertzetaraino nun Calles herriko buruzagia bere karguan sartu delarik aspaldisko, manua izan baita metsikano guziek beren alegrantzia⁽¹⁹⁾ ager zezaten zerbeit gisaz, erran tenore batez, eta tenore hartan gizon, emazte, haur, agure eta atso, oro karriketarat atheratu baitire etchekeko padera, pertz eta pegarrekin, heieri

⁽¹⁹⁾ GH *alegrantiza*.

jo eta jo. Hango kalapita oren batez! Eta horrengatik metsikanoek erranen dautzute ez dutela egundaino herriaren buru holako gizon burukorik ikusi!

* * *

Horra zer jende motarekin duten egiteko Metsikorat doazinean gure herritarrek. Erran dezaket ez direla hain gaizki heltzen halere. Eskualdunen eskuetan dire hango lantegi handiskoena, saltegi ederskoena, *bacindas* gizenena. Batzu eta bertzeez hitz bat errateko chedea nuke ondoko egunetan *Gure Herriaren* irakurtzaileeri luzeegi ez bazaiote hango ibilaldia.

VI

Metsikorat joanak diren eskualdunetan andanatto bat bada esne tratuari emanik eta tratu horri esker sosalde eder baten egiterat doanik. Hirietan esne hainitz behar da. Hiri bat othe da munduan, jende arauka, gehiago behar duenik Metsiko hiriak baino? Hainbertze emazte alfer bada bertze jateko zerbeiten senharrerri eta hurreri egiteko lanik hartu nahi ez dutenak! Harritzeko da zenbat esne sartzen den, beraz, hango karrketan! Lehen aldikotz Metsikorat doanari, bada zerbeit ehun urhats guzietan begiak jotzen diozkana: hitz hauk *Leche pura, Leche pura*⁽²⁰⁾. Laster ikusi ginuen eskualdunen esne saltegiak zirela, gutiz gehienak.

Iduriz deus ez da esne tratua baino errechagorik: aski da behiek emana saltzea. Laster errana da hori. Errana bezen laster eta aise egina balitz! Hamar pinta esne saltzeko dituenak, bada, laster eta aise eginen ditu! Bainan milaka direlarik pintak, bada urhats ederrik egiteko. Ez da gau guziz loz asetzen, hango esne-tratularia segurki! Idekitzen ez baditu begiak, idekitzen ere beharriak, tratu horri lothu den eskualdun gaizoak

⁽²⁰⁾ Elissalderen oharra: *Letche pura*, hemen ez da erdia ura, zaukun behin erran herritar batek.

ez dauzka berritz ikusirik hemengo mendi maite, ithurri eta ibaiak! Beha, bada. Behien arthatzeko eta deizteko, nahi ta ez, hango langileak behar ditu. Alferrak eta ohoinak dire arruntean. Nola ez ditu, beraz, zaindu behar nausiak? Langileak bezala maiz, zorigaitzez, saltzaileak ere hangoak dire. Zertan da nahi dutenaren egiterat uzten baditu? Eta nahi dutena eginen dute, bethi gainean ez bada. Hortarik amets ditazke nausi gaichoak ibili behar dituen harat-hunatak eta izanen dituen buru-haustek!

Dena dela, Metsikon iragan ditugun egun laburregietan, zoriona izan dugu —ezen zorion bat zaiku— bizpahirur lau eskualdun kausitzeko tratu hortan ari direnak, azkaindar eta urruñar. Heieri esker *Gure Herriak* egun chehetasun zenbeit eman detzazke. Berant bada berant, orori milesker hemen.

Metsikon kausitzen den esne-etcherik handiena *Los Pirineos* deitzen da. Mila behiz goiti badute etche hortan. Jabe bat baino gehiago bada hor, hargatik: ororen buru, Marquazuza izena duen eskualdun adineko bat⁽²¹⁾. Hiriko hamar karriketan baditu etche horrek saltegiak.

Horren ondotik esne-etche handiskoenetarik bat *San Javier* delakoa. Hango nausiak baino maitagarriagorik munduan ez da. Bi, hirur-lautan hango barneak bururen buru kurrutu ditugu eta galde ditazken chehetasun guziak galdetu, nihoren beltzuririk gabe. Bai, zer jende alai eta onak San Javieren!

Metsikotik hogoi bat kilometretan da san Javier mendi alderat, ahal den bezalako bide batzuetan barna. Etche handi bat, bere kaperarekin, komentu bat iduri. Etcheari hurbil, bospasei atherbe handi, eta atherbe horietan, lerro-lerro, zezen, behi eta miga, zazpiehun buru bezala. Arraza holandesa da san Javierekoa, ez omen baita han hobeki eman dezake-nik. Behi bakotchak bere bortz milako hura balio du. Zezen bat bada berrogoi miletan eman ez lezaketena. Ez dute behirik atchikiko hamar

⁽²¹⁾ Elissalderen oharra: Berria ethorri zauku geroztik, bere ehun eta berogoita hamar miliunen gatik, Marquazuza ereman duela heriotzeak. Agian, guri baino gehiago bazuen obra onentzat emanik bertze norbeiti...

pinta bederen ematen ez baditu. Batzuek harritzeko ketak ematen diozkate eta bat ikusi dugu aspaldi hartan hogoita zortzi pinta egunean ematen zituenak. Artho pherdea eta luzerna diote ematen jaterat buru horierri guzieri. Behar dela phazka hoinbertze bururen asetzeko erranen dute neri, ihardetsiko dugu badela nasaiki. Ez dire han hemengo lur berak. Lur ustel aberats batzu dire, hamar metretaraino. Luzerna —alfalfa erraten diote Metsikon— ilhabete guziez phikatzeko da, sutan ethorria, gizona bezen gora. Bertzalde, Eskual Herri guzia zazpi aldiz itzulikaturik ere Aldudetik Santa Grazirat eta Hendaiaitik Ezterenzubirat, ez da holako etchalderik kausituko. Zer eremuak! Zenbat oren ez othe litazke behar inguruaren egiteko? Zaldiz baizik ez baitugu inguru hori egin, ez dezagun neurririk eman. Bai, zaldiz egin dugu, guk, eta... bizpahirur itzuliphurdikoren gostuz⁽²²⁾ oraino! Eskual Herrian, Uztaritzeko haranak, Errobia erdian, begiak asetzen baditu, zer da bizkitartean hor ageri dena hango ikusgarriaren aldean? Iguzkiaren aldean itzala.

San Javieren ez dugu uste behi esnedunak behinere kanporat libratzen dituztela. Han berean diote beren aska luzeetan, egunean bi aldiz, besotara bat pherdailu janarazten. Ura ere aldean dute. Azpiez ez dute zeren kecha. Ez diote ez othe ez iratze, deusik ematen azpian behieri. Garbitasuna errechenetarik da, beraz; untzitaraka ura igorritz behien zangoetarat egiten dute. Behiak ere, goiz guziez, urarekin garbitzen dituzte, hemen gaindi hainitz etchetan haurrak egiten diren baino hobeki.

Ez gaiten San Javieretik urrunt bertze zerbeit ikusi dugula han behinere ikusi ez ginuena erran gabe: Metsikorat heldu gabe esnea itzul baitlitake, horren behar den trenpuan emateko tresna. Ez da gehiago debrukeriarik gizonak asmatzen ez duenik eta kontu —kontu!— ondoko egunetan ez duten kausituko sekulan ez hiltzeko erremedio zerbeit. Bainan gizona hobeki othe litake orduan?

Metsikorat bertze aldean, hiriari hurbiltchago, bertze esne-etche bat ikusi dugu. San Andres du izena hunek. Ez da San Javier bezen handia

⁽²²⁾ GH *gostuz*.

San Andres. Hirur ehun bat behi othe den han? Bainan zer behiak! Eta nola artatzen dituzten! Loria da barne hetan ibiltzea eta nun-nahi behaunika ditake zikhintzeko beldurrik gabe. San Andresen ere arraza holandesa dute. Hamar suisa balin badituzte, munduko gorena. Langileak, hangoetarik: bainan saltzaile, nausia bera *calle san Geronimo* deithu karrikako etche batean. Harat heldu zaizko, goiz-arratsetan, nihunereko gizon chahar, atso chimurtu eta haur mukitsu guziak, bere untzien bethetzerat, sosa eskuan. Sosa eskuan, bai, bainan uste duzue bat bakharra baden bere baitarik ordainduko duenik? Ez. Alegia ahantzi, etcherat abiatzen dire oro, oihuka gibeletik aditu arte. Nolako mundu, halako molde. Chochoa ongi litake holakoekin! Gaizo Carlos, segurki!

VII

Huntaraz geroz, ez othe dugu hitz bat erraten ahal Metsikon gaindi ikusi dugun laborantzaz, nahiz naski eskualdun guti den han direnetan lur laneri emanik?

Han bereko laborariak ez dire bada, hurbiltzeko ere, hemengoak bezen aintzinateak. Lurra hain aberatsa da, han, eta aroak hala laguntzen du nun hango laborariak ez baitu lan egiterik. Errehtasunari ematen da. Ez duzu behinere lur baten ontzen ikusiko. Hiriko zikhinak aski lituzke ontasunean hedatzea: merke eta aise eskura letzazke. Ez zaio balio. Ez zaio naski egin behar duela edo egin dezakeela, gogoratzen ere. Hala-hala hango ontasan guzietan ur-haska eta arroila ederrak ikusiko ditutzu, nornahi izan dezaten jabe.

Lurraren ibiltzeko hemengo molde bertsuak dituzte. Iraulden hemengo goldearekin ari dire: bi idi aintzinean hinkili-hankala joaki, laboraria akhulo bat eskuan gibeletik. Otso-emaile beharrik ez dute harगतिक, burran bezala sartzen baita hango lur ustean goldea. Bada arhatzen ez dute denbora handirik galduko! Behin irauli duten lurra hemen

hamarretan arhatu dena baino hobeki da! Lan gutirekin, beraz, hango laborariak hemengoak baino probetchu hobeak ditu segurki!

Hango ogia, hasteko, hemengoa baino ederrago da. Ez dugu, guk, ederragorik ikusi Frantzian, Espainian eta Italian ibili ditugun urhats guzietan. Are gutiago Eskual Herrian Bilbaotik Donibane Garazirat eta Iruñatik Maulerat ibili ditugunetan!

Eremu ikharagarriak ogiz egiten dituzte Metsikon⁽²³⁾. Nola egiten dute gero ogi horren guziaren jotzeko? Hemen orai gehienetan bezala mekanikari lothuak dire metsikanoak. Lehen, beren mandoeri joarazten omen ziozkaten gainean harat-hunat egun osoak ibilaraziz, hortarat kondenatu batzu bezala. Herri bezenbat molde. Metsikano zaharren moldea ez zauku batere bertze bat baino astoago.

Oloari ez diote hainbertze begitarte egiten leku hetan. Nun edo nun egiten dute bizkitartean, pherde delarik zaldieri emateko. Hala-hala arthoa nun-nahi bada ausarki: ogi indianoa erraten diote. Arthoarekin dituzte metsikanoek egiten *tortillas* deithu talo batzu, karrika echkinetan edozoin atso zaharrek salduko dauzkitzunak bere esku zikhinetan ongi fartzitu ondoan. Hortarik jateko aski bihotz duena, ez du goseak hilen! Ogi eta artho-bihiaren ehotzeko eihera ederrak badituzte Metsikon. Bat ikusi dugu Juan de Yrigoyen eskualdunarena: hemen gaindiko eihera ederrenak baino ederrago da, eiki.

Metsikon badute oraino halako baba beltz bat arras maite dutena: han “fricollis” du izena. Hango jendeak bezala hemendik doanak ere begitarte egiten dio baba horri... mahainean. Lursagar guti hargatik. Dena ere, tcharra eta ez hanbatekoa. Hemen aithortu behar dugu, hemengo baratzekari gehien-gehienak kausi baditazke hango merkatuetan, ez dituztela hurbiltzeko ere hemengoak balio. Tipulak onak dire bizkitartean, churi eta eder. Loraza eta azak ere hemengoak bezalatsukoak.

⁽²³⁾ GH *Metsikoan*. Beste lautan ere halaxe erabiliko du.

Eta fruitu edo igaliak, Gipuzkoan erraten duten bezala? Hemendik eremneri behinere ez diote ongi harrarazi. Bainan han berekoek nihungoeri zorrik ez diote. *Banana* direlakoetarik ihaurri bada. Zuhaitzetik hartzen duzularik igali hori, ahotik ezin utzia da. Ez gaituzte naski aise sinhetsiko hemen “banana” jaten ari direnek, hemen ez baitire segurki hain onak! Hemengo bananek ez dute hangoen aldean pipa bat tabako balio. Bai, pipa bat tabako! Guti baino gutiago balio duen zerbeitentzat, horra zer erraten duen egundainotik, Baionako aphezpikutegian idazle eta jaun kalonje handi den J.S.P. gure milafrangar adichkide chaharrak...

Bertze igali bat bada Metsikon *mango* deitzen dutena. Mango horietan bada guzietarik. Ttipiak, arras eta arras onak dire. Handiek, hala-hala, halako usain eta gustua dute nun, zeruan *mango* handirik jan behar balitz, saindu handienek ez bailukete han sartu nahi!

Mahatsik ez dute Metsikon, guk kurritu ditugun eskualdetan bederen, eta ez dugu uste bertze nihun ere hainitz baden. Mahatsaren orde, *maguey* deithu landare bat. Hartarik dute egiten jada behin aipatu dugun “pulque” hango edaria. Hango jendea *pulque* hortan ithoa dago, bainan hemendik doazinek ez dute mozkor handirik tiratzen pulquetik. Landare horrek Eskual Herrian ere ederki har lezakeela daukagu, han eta hemen ondo batzu ikusi baititugu eder eta fresko. Bainan zertako ginuke? Eskualdunek hobe diote segurki Irulegikoari begitarte egitea!

Eskual Herriko zuhaitza frango Metsikon ikusi dugu. Huna oraino gogoan ditugun zenbeit: haitza, zurtzuria, agina, lizarra, haltza, urkia eta han-hemenka lerra mota batzu. Loreak ez ditugu zeren aipha. Gizonak ez dezake asma zenbat den eta zoin ederrak diren. Munduan bertzerik ez balitz ere, Metsikon den lorealdeak froga lezake Jainko handi bat badela segurki hoinbertze, hoinbertze eta hoinbertze edertasunen amesteko bereko!

Bainan norat goazi? Laborantzaz hasi eta horra nun lerratu garen laborantzarekin guti ikusteko duken zerbaitetarar: loreetarar. Eskual Herriko laborariak ez dute astirik loreen ondolik ibiltzeko. Hangoek ez dute ondolik ibiltze beharrik: athean nahikoa badute, bainan ez diote

behatzen ere. Utz detzagun, beraz, loreak han, bethi bardin eder athera ditela lurretik hemendik harat doazinen choragarri, zeruko Jainko onari bihotzak altcharazten dituztela, sobera lurrari josterat utzi gabe.

ITSAS BERTZALDEAN

Herritarrak,

*Atzerrian lurra garratz,
oina ibil egik baratz:*

dio Eskual Herriko erran zahar batek. Bainan hoinbertze eskualdun den tokian arras atzerrian othe naiz, bada, eta ba othe dut egiazki behaztopatzeko irrisku handirik? Ez zait iduritzen. Zabal-zabala bihotza ideki behar dautzuet, beraz, hemen, zerk nabilkan, hartan ikus dezazuen mintzaldi tchar eta tzar huntan baino hobeki.

Ez, ez nau lotsatu zenbeit aldiz hain lotsagarri den itsaso zabalaren orroak, ez eta duela zenbeit denbora beren hegaletan egunkariek Eskual Herrirat ekharri daukuten hemengo nahasmendu handiaren famak!

Egia erran, nere buruari eman banio kontu bakarrik, ehun estakuru kausituko nituen, bada, sorlekhu maite hartan egoteko. Bainan zertan litake mundua, bethi bereari balago bakar-bakarrik gizona?

Herritarrak, beharra eragile bandi dela, zenbatetan ez duzue irakurtu zuen liburuetan? Bada beharrak ekharri nau ni ere hunat, irriskurik balin bazen irrisku horien gatik, gure Eskual Herria maitagarrien-maitagarrienik den sasoin huntan, han begiak eta bihotza hala asetzen dituzten lurreko aphaindura eder guziak utzirik dela landare fresko, dela lili maite, eta oro!

Baionan eskualdunek badugu apezpiku chahar bat, apezpiku saindu bat, apezpiku handi bat. Harek galdetu bezen laster, untzia hartu dut. Eta huna nun naizen... Herritarrak, Baionako jaun Apezpikuaren izenean, hango eskualdun guzien izenean, bai eta gogo onez lurpean bere

ezdeustasunak gordearaz lezaken mandatari hunen izenean guzieri: Agur! Agur bihotzaren erditik!

Bainan, jada zuen begietan galde bat ikusten dut: zerk ekharri nauen Metsikorat? Zerk? Huna. Diru beharrak! Baditake memento huntan zueri zerbeit galdetzea *ardiak abuntzari ile galdetzea* dela. Hemen izatu dituztuen mahasmendu ikharagarrien ondotik, dirua chuhurtuhea ditake moltsa jorienetan. Ez dut nik diruketa handirik nahi. Nik nahi dutana da guziek, bai guziek, zerbeit, guti bada guti, eman dezaten, hemendik sorlekhurat berritz itzuliko naizelarik, Baionako jaun apezpikuari, hango herritarreri egiaz erran dezotedan: Metsikon ditugun anaietan bat ez da Herria oraino maite ez duenik!...

Eta zertako diru hori? *Hazitik bibi* da errana eta mila aldiz zeronek frogatu duzue egia dela. Bai, *bazitik bibi*. Emadazue hazia, zuek. Eskuara garbiz hazi hori deitzen da *dirua*, erdaraz *de trigo* deitzen den bezala. Eta nik hemendik eremanik, Baionako jaun apezpikuak erainen du berehala eta hazi horrek sarrichago ekharriko du bihia. Bihia, erran nahi baitut eskualduntasun gehiago sorherrian...

Eskualduntasuna! Guretzat munduko aberastasunetan lehena eta handiena! Ezik, parerik othe du gure mintzairak? Othe da hain garbirik, hain gochorik, hain ozenik? Eta gure jostetak? Pilota paregabea? Ohiko dantza garbi arin eta pollitak? Motchico, salto motch, aurreku eta abar? Ondikotz, miletan ondikotz! Emeki-emeki eta bat bertzearen ondotik, eskualdunek kontu egin faltaz, oro galtzen ari ditugu! Gure karrketan haurrak ez dire gehiago erdaraz baizik mintzo! Laster basherrietan barna, mendi gainetan beretan, eskuararik entzunen othe dugu gehiago?

Soldado ibili diren egunetik gure muthiko gazteak kanpoko kantu ahal den bezalako batzueri eman zauzku, herrikoak utzirik; eta gure nes-katcheri, beren bulhar ederrekin, oraiko moda higuingarriek boza bera ereman diote, doi-doiako bat ezpain puntetan utzirik! Haurrek nun ikasiko dituzte, beraz, arbasoen kantu maitagarriak? Ala igande arratsetan ez othe dugu gehiago aditu behar:

*Nabiz ez den gaztelua,
maite dut nik sorlekua,
aiten aitek hautatua?*

Herritarrak, hori ez aditzearekin ez othe zaut idurituko, herritik kanpo *Nunbeit naizela galdua?* Galduko da Elissambururen izena! Galduko, Ipharraguirren izena! Ganichon eta Mirentchuk sekulan ez dute ikasiko:

Ara nun niren mendi maiteak,
ara nun diren zelhaiak,
basherri eder, churi-churiak,
ithurri eta ibaiak...⁽²⁴⁾

Zer zorigaitza! Erran ditake-eta zorigaitzen zorigaitza hori dela!... Eta, bertzalde, phesta egunetan dantza arrotz batzu dantzatuko dauzkute Sara, Hazparne eta Baigorriaino! Orduan akhabo chirulak, akabo ttuntunak! Eta, hitz batez *dena* errateko, akhabo Eskual Herria!

Zer bihozmina eskualdun odol chortarik oraino zainetan doakiotenentzat! Eta, bada, hortarat goazi! Zer diot hortarat goazila? Ez othe gare jada hortan? Eta gure arbasoak berritz lurrerat itzul balite nola harri litazken! Menturaz ez lukete gehiago Eskual Herrian egon nahi! *Atzerri, Otserri* zuten beren denboran erraten. Ez dakit orai ez othe luketen *Eskual Herri, Otserri* erranen nigarra begian? Bai, *Eskual Herri, Otserri*...

* * *

Ordu da, beraz, gure lotik, lo galgarritik, atzar gaiten eskualdunak! Ordu, hortzez eta haginez guziak loth gakion lanari, kanpotarrak eta kanpotarrek beren molderat egin eskualdun berri batzu aberriaz arras nausitzerat ez uzteko! Ordu, norbeitek chede hortan zerbeit hasten badu, ez *eskua*, bainan *eskuak* berehala eman detzogun!

Eta herritarrak, huna nun Baionan 75 urtheeri buruz doan jaun apezpiku saindu hura oihuka ari zauzuen orai berean: Zuek, san Inazio

⁽²⁴⁾ Autorearen oharra: *Metsikanoek guzien gainetik maite duten kantua da hau...* Ohar honetan *Metxikans* dator.

eta san Frantses handien herritarrak, Joanes Mayorga eta aita Garicoitz handien herritarrak, oro, bai oro, zatozte othoi nere laguntzerat! Lurrean herririk ez da zuen Herria baino maitagarriagorik, bere mintzaira ezti, pilota eder eta dantza pollitekin! Ez dut nahi horietarik deus gal dadien! Horra zertako Eskual Herrian bihotz-bihotzean, Uztaritzeko hiri ederrean, etche baten egiterat noan, han Eskual Herriko haur ttipie-ri, bizitzeko behar dituzten bertze guziekin, zuen mintzaira eta ohikun-tza zaharren egundaino bezala berritz maitarazteko! Ba oro zatozte nere laguntzerat...

Hango eskualdunek ederki ihardetsi diote segurki beren jaun apez-pikuaren oihuari! Ausarki eman diote segurki! Bainan, ausarkia bera zer da egungo egunean? Esku-lana hain khario da! Hain khario harri, zur eta oro! Ez, ez ditake, beraz, lanaren bururatzat hel gure jaun apezpi-kua hango diruarekin bakarrik. Argentina, Chile, California eta Metsi-kotik lagunt balezate eskualdunek! Orotarat igorri edo igorriko ditu mandatariak. Ni igorri nau zuen ganat...

* * *

Eta orai, herritarrak, eskualdunen jaun apezpikua, gure Herria hain maite duen jaun apezpikua, hor dago begia hunat itzulia. Segur naiz othoitzean ari dela hemengo mandatariak zuen bihotzak hunki detzan, hil ez dadin Eskual Herria... gure Eskual Herria!...

Bainan ikharan nago, ni. Nihundik nahi nuke hemengo eskualduneri buruan eta bihotzean sarrarazi zer amodioa duen jaun apezpiku sain-duak gure aberriarentzat eta ez dakit hartu kargua behar den bezala betheko othe dutan?

Bai, ikharan nago, neronek ere Eskual Herria baitut maite guzien gaintetik, neronek ere uste baitut egin duela eta arras egin Eskual Herria-renak berehala iratzarturik chutitzen ez badire eskualdun guziek, haren alde, bethi bizi dadin...

* * *

Eta zuek, herritarrak, zer diozue orai? Egun batez nahi duzue, Eskual Herrirat itzuli azken urthe batzu han berean⁽²⁵⁾ iragaiteko? Haatik, berritz ere behar dautzuet erran: atzeek ebasten ari daukute Eskual-Herria! Nahi duzue sarrichago atzeekin bizi? Nahiko duzue, gureen orde zernahi erdarazko kantu aditu? Nahiko duzue, pilota utzirik, zuen haurrek jo dezaten hiriko jostetatarat? Badakit ezetz...

Beraz, esku emozue guziek Baionako jaun apezpikuari. Lagunt zazue ahal duzuen moldean eta ahal duzuen heinean. Eta hola sarri itzuliko zaizte Eskual Herrirat. Bai, Eskual Herrirat! Ez, atzerri edo otserrirat...

* * *

Huntan akhabo dut. Edo bederen akhabatzerat noa. Kondatua da egun batez Iruñako hiri eder eta aberatsari buruz zoala Carlos Quinto. Artean errateko, ez ahal zabilkan deus honek⁽²⁶⁾! Dena dela, horra nun buruz buru egiten duen laborari batekin eta huni Iruñako berriak galdetzen diozka. Eta laborariak lañoki ihardesten dio: “Iruñan aurthen gari asko!”.

Carlos Quinto nigarrez hasi *omen* zen: “Ah, Iruñan gari asko..., Iruñan gari asko? Eta, futcho, batere ez enetako!”.

Hemendik zenbeit egunen buruan neri ere hemengo berriak galdetuko dauzkit Baionako jaun aphezpikuak, eta, ikusiak ikusirik, nik iharde-tsiko diot “Metsikon badela oraino diru asko”. Nigarrez ez dezadala erran: “Zer, batere ez da neretako?” Bai, izanen da zerbeit harendako, hemengo eskualdunak nihungoak baino eskualdunago direlaketz. Ala ez othe, herritarrak?

Den gutieneko dudarik gabe dautzuet, beraz, guzieri egundanik erraten milesker! Milesker eta gora Metsikon bethi hoin eskualdun dauden eskualdunak!... Gora Eskual Herria!

⁽²⁵⁾ GH *beren ban*.

⁽²⁶⁾ GH *onek*.

ERROMARAT

Abiatzea

Egia aithortuko othe dugu? Apirilaren 17tik 29rat Pise, Erroma, Assise eta Firenzan izan diren 225 beilarietan 224 badire guk baino hobeki beilako berriak eman letzazketenak. Gu zertako has, beraz? Obeditzeko. Horra zertako orok barkatu nahiko dauzkuten hemengo hutsak. . .

Baionan ginuen gutiz gehienek batetaratzea, bortzak eta erdietako. Uztariztarrak, beraz, han ziren tenoreko. Oro, beraz? Ez: seiak laurden gutitan zazpi neskatcha eskas ziren oraino. . . pastizeria batean trikatu-rik! Heldu zauzku halere aski goiz, eta sei orenetan ez zen gehiago beilari bat baizik falta: Chemartin gereziatarra. Chifritua zagon. . . norbeit. Urhats bat, urhats bi, ethorri da halere Chemartin, treina abiatzerat zoa-larik. Orena omen zuen gogoan gaizki hartua. Oi, zenbeiten sanfreta!

Eta horra nun Baionako geltokiari teilatua ereman nahi diola kantuetan hunkigarriena ehun eta berrogoita hamar bulhar eta bihotzetarik jausten den orduan: *Ce n'est qu'un revoir*. Harasko da gero, harasko Erroma eta hainitz gerta ditake hamabortz egun handiz! Hori hain egia da nun Firenzan ez baikaitu guti harritu Jean Ybarnegaray jaunaren heriotze ustegabe-koak! Guk bederen hain maite ginuen eta hala atchikitzen ginion! Itzal batzu bazituela? Bakhotchak gureak baditugu! Norbeit zen Ybar!

Lurderat buruz

Jada Puyoo. Tropa bat sekulakoa geltokian! Zer othe da mundu hori? Espos batzu. Beha, beha gizon horien guzien mathela gorrieri! Zer baz-

karia egin ahal duten! Mahainetik heldu ziren, heldu lasterka, ez gure ikusterat. Hauk, Erromarat jaun-andere berrien treinan sartzen ikusterat! Hauk, Erromarat heldu ziren gurekin! Bi alzumarkar maitagarri. Ez ginezaken bideko pare charmantagorik ukhan Etchegorry jaun-andere berriak baino! Urruñako jaun bikarioak esku onetan eman du sorr-
etchea. Bai, zorionak, Gipuzkoan erraiten duten bezala!

Oren erdi bat treina burrunban badoala Paueri buruz. “Ez othe lita-
ke ordu, zapetak khendurik, oinetako⁽¹⁾ gocho eta hachitago batzu eman
detzagun?” dio bere chokhoan Donaichtiko jaun erretor ichil bezen
onak, eta orok obeditzen diote berehala. Berak ere zapetak khentzen
ditu, ezpartin bat emaiten. Ezpartin bat berri-berria, Maulen egina eta
sosaren puntan errosia, dena puntaraino ileztatua⁽²⁾ barnean! “Orai eman
dezagun bigarrena!” Bigarrena bilhatzen du, zakhu guzia itzuliphurdika-
turik. Etchean ahantzia zuen. Gaicho apheza!

Paue, Paue, Kaskoiniako hiri nausia. Nihor guti geltokian. Ez zaiote
kaskoineri balio eskualdun beilarieri agur erraitea. Beharrik han badire
hamar-hamabi soldado eskualdun, ehun lagunen oihu eta agurrekin!
Milesker, adichkideak! Ordainez hitzeman diotegu othoitz bat eginen
dugula heientzat Erroman, ahal bada ez diton joan Afrikarat, eta, joan
behar badute, ez dakioten hel makhurrik⁽³⁾...

Eta Bettarram, eskual saindu handienetarik baten etchearen ondoan
barna, treinak jo du Lurderat. Oi, zer obra berriak harpe sainduaren
aldean! Orok, obrentzat baino begi gehiago dugu, haatik, harpeko Ama
maitatuarentzat! Ama, lagun gaitzatzu Erromako itzuli on baten egiten!
Eta gain-gainetik lagundu gaitu!

(1) H *onetak*.

(2) H *ilestatua*.

(3) Aljeriako gerra (1954-1962) aipatzen da zeharka hemen. Bidaia 1956 urtean egin zen eta Alje-
riako gerra bi urte lehenago hasia zen.

Ezagutzak

Gaua. Gau beltza orai gure treina guzian, eskuin eta ezkerretako mila eta miliun argien gatik! Gaua. Batzu lokhartu dire berehala, bertzeak gerochago. Bakhar zenbeit —zaintsuenak naski— batere... gu bezala! Hortche lo dagokit, parrez par Germaine ene iloba, amak zaintzeko hola errana! Lo aldean Gelos Aiherrakoa, bere buruaren zaintzeko on dena! Lo, eta nola lo, andere Sallaberry haratchago! Lo, edo erdi lo Chemartin. Baionan eman daukun izialdura gogoan segur! Bainan iratzarria Josep Pochelu, Gerezietako phestaberrietako makhilari famatua! Iratzarria orobat Makeako auzaphez chehe bezen maitagarria! Eta bethi lo, lo zurrungan, urruntchago andere Carrau, andere Charritton, andere Negeloua hazpandarrak! Lo hantchet zortzi ezpeletar neskatcha gazte, ahoak chabaldauak, elgarren kontra-kontra, choritto batzu ohantzean iduri! Lo bere chokhoan Narbaitz jaun kalonjea, beilarien buruzagia! Eta urrun, urrun, lo Donaichtiko jaun erretora, bere ezpartin bakharra eskuineko zangotik ezkerrekorat emana, bi zangoak bardin pausatzeko! Hori deitzen da Zuhurtziaren Zuhurtzia... berak gerochago erran daukunaz. Eta horra hor, Donaichtiko jaun erretorari aski hurbil, lo orobat, Jean Larre Hiriburuko jaun bikario arraia, bere arreba Regine parrez par. Arrebetan maitagarriena, erran gabe doa. Eta ezkongeia gainerat! *Avis aux donados*... ez baitzauku batere iduritzen serora joaiteko chederik baduela. Jostakina da, plachenta, lana maite du (anaiari egun guziz zape-tak ziratu diozkanaz geroz!) Funtsean, norbeit! Eta zerbeit!

Asteazken goizean egin ditugu ezagutza gehienak, lehenik jaun bikario jeneralari gure agurrak eginik. Ez ginuen famaz baizik ezagutzen Sauveur Belleau jaun apheza. Deus ez dire fama hoberenak: hainitz gehiago balio du jaun horrek. Gochoa da. Elheketa badaki. Eta buru ona du. Ezpartin baten etchean ahanztea deus ez da guzien buruan. Bai, buru ona du. Beilari guzietan bat ez da hamabortz egunez Italiako mintzaira harek bezen ongi ikasi duenik. Segur azken Erromako beilan

Suhubiette Ibarlako jaun erretorak bezen ongi⁽⁴⁾, hobeki ez bada! Oro bazakien azkenekotz, Chianti, Frascati, zimino eta nik dakita zer? Oro! Oi, zer gizon lakheta! Errana baitauku heldu den urriaren lehenean, urtheroz bezala, aurthen ere Donaichtin egin gogo duela *Gaztainen Pbesta* segurki ez diogu huts eginen! Ez eta ere gurekin Erroman izan diren-etarik batek! Mahain berezi bat izanen omen da guretzat, elgarrekin Erromako orhoitzapenen berritzeko. Jada egina du orduko afaria *pour nous mettre dans le bain*. Huna italiano ederrez:

Spaghetti
 Ministrone
 Minestra en brodo
 Plateo di carne
 con due contorni
 Fruto
 Tasse compresse

Eta berak erran ez badauku ere, badakigu spaghetti luze horien lasterrago jautsarazteko, Chianti edo Frasuatiren orde, emanen daukula Irulegi zorta bat, Etcheverry Antchurten hoberenetik...

Chokoz choko

Bethi baitire nun-nahi oro gaizki jujatu nahi dituztenak, oro ikas detzaten diren bezala, nahuzue mugarat heldu gabe elgarrekin egin dezagun gure treinako itzulua? Treina guzikoa, iragaitean, goizeko lauak alderat, Nimes hiriko inguruetan ezkondua dugun iloba maitatu bati bi musu gozo emanik? Ba, goazen. Huna hazpandarren chokhoa. Bat, biga, hirur, lau, bainan begiak ez dituzte oraino ongi idekiak. So hainitz behar dute Hazparden. Sarri arte, andreak. Eta jo dezagun urrunago.

⁽⁴⁾ H. Jatorrizko testuan parentesia zarratzen da hemen, baina aurretik ez da inon zabaldu.

Iratzarriak dire. Ezpeletako neskatchak eta jada irri-karkaraz ari. Gazteak oro. Gazte hutsak zenbeit. Lucie eta Agnes Bengoetchea, Berthe Harcaut, Monique Luc, Maite Etchegaray, aphezpikutegiko jaun kalonje berriaren arreba, Irma eta Claire Halty, Christiane Ithurralde, Laurence Violine, eta horiekin jada errotik adichkidetuak —ez baita harritze-ko— Suzie Treuillier, Uztaritzeko gure adichkide batzuen alaba maitagarria, eta Albertine Fagoaga azkaindarretan gisakoena. Hameka kantari hauta, Erroman eta orotan Inakiren kantua hain ederki charamelatu baitaukute gerochago, aiphu berezi hau zor zitzaieten! Erran gabe doa, oro ezkongei direla oraino...

Ez duzue ezagutzen Mari-Jose? Getariarra da eta hortche jada chutik. Goazen ikusterat. Hogoi bat urtheko ogi metaren gaineko chori bat. Irria ezpainetan. Begi beltchak. Gain-gainetik eskolatua. Trufa egiten eta hartzen dakiena: ez dakite orok. Hau ere ezkongei⁽⁵⁾ oraino, bainan beldurtzeko da ez dela luzez hala izanen! Soldado italiano batek ez othe dio bi aldiz bederen pastizeria edo edari gocho zerbeit eskaini Erromako karriketari, ezagutzen egiteko? Donaichtirat joan gogo baitu Gaztainen Phestan zenbeit mila liberakoen berduratzerat, aise ezagutuko duzue Mari-Jose bere begi beltch eta begitarte arraietik⁽⁶⁾.

To, beha Armendaritzeko tropa gazte pollit horri? Biga segurik ez othe dire Deigue Oraareko jaun erretor onaren ilobak? Ba, naski! Hura bezen gozoak iduritzen zauzku, bainan ez dire oraino hain... baphoak! Ondikotz, ez dugu gehiago astirik ororekin, ezpeletarrekin bezala egoiteko eta goazen urrunago. Bethi urrunago, bidean bi elhe eginik Mayie Domestoy doneztiriarrarekin eta Gracie Bonnet Senperekoarekin! Hantchet, bertze bi elhe labor Ortzaitzez eta Ortzaitzeko jaun erretor-bikarioez Thérèse Larrabure, Marguerite Etchebehere, Noélie Irigoin. Anita Goyenette eta Balbina Choutchourrou batzuekin. Eta aski hola behingo. Zer da? Marseillako geltokia ehun metretan eta askaltzeko

⁽⁵⁾ H. Lerrokada honetan eta aurrekoan, bietan, *eskongei* dator.

⁽⁶⁾ H. *erraietik* hitzaren ondoren (*Réclame no payée*).

tenorea ethorria. Oro — oro gero! — jausten dire eta mahain luze batzueri buruz joaiten, nor esne, nor kafe chorta baten bilha. Gizona ez ditake bizi jan gabe, dio lerroaren erdian Hazparneko jaun misionestetan baphoenak...

Nicetik aintzina

Nice pollita, orai. Bainan Nice bat osoki bere lorez gabetua aurthen-go hotzek! Jende arras guti karriketan. Ez da harritzeko. Aldeko hiria Monako deitzen da eta egun da Monacon Rainier printzearen Gracie amerikanoa aberatsarekin herriko etchean uztartzea! Oi, hango loreeria! Oi, hango bandereria! Oi, hango begitarte guzietako atsegina! Hainitz urthez, jaun andreak: gu ez gitazke egon geldi⁽⁷⁾! Eta buhaka treina badoa mugari buruz, gure Marie-Jose, Regine, Berthe eta Suzie guziak jada ametsetan ari direla... ametsetan ez dakigu edo ongi badakigu zeri! *Eternelle histoire de la petite bergère que le roi épousa*, dio hantchet Mauleko anderre batek. Ez dakite gehiago eskuararik Maulen!

Muga

Ventimiglia. Muga eta mugazainak. “Permesso, siñorina, no illicito? “Eta Marie-Jose, ez baitu gutik lotsatzen, ororen izenean mintzatuko zaio mugazainetan beltz eta sekoenari, jada italiano z trebe: “No, siñor!” Bainan hortan gelditu behar du, haatik, zintzurrean ahurtara spaghetti gelditu balitzaio bezala! Guk ere baginakien hoinbertze! Artean erraiteko da mugazain guziek, haratekoan eta hunatekoan, nola begia eman dioten gure neskatcha beilarrien zakhu, mantalin, soineko eta zapateri! Begitarte fresko horieri ere ba! Egundainoko egia baita naski Sarako

⁽⁷⁾ H. egun galdi.

kantariak erraiten duena⁽⁸⁾: “Arrakasta guti du zahartua denak” Idiartegaray, Mailluquet eta Belleau jaun aphezari ez diote behatu ere! Are gutiago guri eta Chemartini!

Vallecrosia, Bordiahera, San Remo, zer gure begien choramenduak! Eta mugatik aintzinat bide guzia zer gogoaren ase! Eskuinean itsaso bere urdin arin bereziarekin! Ezkerretik, mendi paretetan landatuak mila eta mila etche churi, batzu bertzeak baino pollitagoak, bakhotcha bere etche-aintzin eta baratze liliztatuekin! Choratuak zauden Ezpeletako neskatchak berak, bereziki San Remo ikusi eta. Hura da, hura, egiazki “un village coquet”! bere hogoita bortz mila arimekin! Zer aberastasunak hedatu dituen Jainko Onak lurrian!

Eguerdiri buruz goazi eta Pise urrun da oraino. Han berean eman daukute, beraz, gure beilako lehen aphaireua. Eta batere ez aphaireu gaichtoa, paperezko chakhu pollit batzuetan. Aski? Gutiz gehientzat, ba. Gutu aire, bakhar batzuentzat. Apetitua hola chorrochten du bideak! Hazpandarrek berek ez dute deusik erran: Alzumarkako espos berriek ere ez. Damurik! Salbu zuek eta desertuko kameluek bezala basa gizonak “chimpana” deitzen duten zakhu maite hura aintzinerat bethea zuten... eta erdi barurik joanak ziren frango! Oro har, haste ona. Hola segi baleza bururaino, macaroni eta holakorik gabe!

Bigarren gauari buruz

Eta denbora hortan treina badoa. Badoa buhaka, badoa burranban, badoa itsaso hegiz hegi, badoa tunelez tunel, herri batetik bertzerat, zaldarea sendi duen zaldi zaharra bezen arin! Huna Savona 66 mila arimekin. Huna Gênes 650 mila arimekin. Huna Spezia 110 mila arimekin. Ez ditugu, haatik, doi-doia baizik ikusten iragaitean. Gaua heldu da mila marmola urdin gorri, beltz, churi choragarrienen harrubien erditik

⁽⁸⁾ H. dena.

gero eta choratuago bagoazilarik. Gaua ethorriche da. Bainan huna Pise bere dorre alimale makhurrarekin. Ez dugu bietan erraite beharrik. Belleau jaunak bere ezpartin baxharra khendurik zapeten emaitako, guk gure pusken biltzeko... eta orok gure ostatuen bidea hartzeko. Afaria lehenik... macaroni jan ahala baino gehiagorekin. Eta bertze zerbeitekin, beharrik. Eta orai goazen lo egiterat. Gau on, jaunak! Gau on, ande-reak! Eta bihar arte!

Irakurtzaileek igurika dezatela haatik, othoi, heldu den ortzirale arte... *Herriak* oraino chokho bat balin badu bederen gure herrientzat. Anhartean goraintzi Belleau jauna eta barka zure zorigaitza hola salaturik. Goraintzi, Regine. Goraintzi, Mari-Jose. Goraintzi, Idiartegaray eta Maintenu jaun misionestak. Goraintzi, oro!

Pise

Bere lauetan hogoi mila arima eta hainbertze ikusgarri choragarrirekin hiri eder bat da segurki eta segurki Pise. Gehichago ikusteko, argia gabe karriketari ginabiltzen zenbeit bederen. Debaldetan, haatik. Berant jeikitzen dire Italian: leihoak eta atheak ez dire zortziak baino lehen zabaltzen, gure Marie-Jose, Regine, Marthe eta Ezpeletako andana maite haren begiak bezela. Berantchago choratu gaitu, beraz, eliza-nausiak, choratu dorre famatuak, choratu guziz hilherriak. Saltegiek ere laster choratuko zituzten segur... emazteak, bainan jada, Erromatik gure bilha ethorriak, sei beribil handi turrutaka ari ziren karrika bethean. Bakhotcha sartu da, ez hautatu duenean, bainan erran diotenean, Siennerat lehenbailen heltzeko. Herritik herrirat oliaitza⁽⁹⁾ lerroen artetik han ginen hirur orenen buruan. Giovanni ginuela beribil gaitzaren gidari. Arratsaldeko, oren bata zen, eta hirurehun kilometra oraino Erromaraino!...

⁽⁹⁾ H. oliaitza (*oliviers*).

Sienne

Hiri ederra, arras ederra Sienne ere bere berrogoita hamar mila ari-mekin. Bertzeak bertze, santa Katalina baten sorlekhua. Hamalagarren mendean bizi zen eta iduripena dugu haurrean ikasirik harek zuela Grégoire XI Aita Saindua Avignonetik Erromarat itzularazi. Dena dela, gosetucheak baiginen Idiartegaray jauneraingo, orok⁽¹⁰⁾ orduan begitarte ona egin diogute macaroniaren ondotik ekharri dauzkuten erraki zafla batzueri! Eta kafetto bat hautari! Gero, mila eta mila jenden artean dabilzan uso polliteri aphur bat beha egonik, tropaka hiri guzia kurritu dugu, ikusgarritik ikusgarrirat. Etche gaitzak badire, eliza nausi bat edere-rrenetarik... eta eskale frago ere ba karriketean. Ohoinik? Ez dakigu. Dakiguna da gurekin ginuen mauletar gazte batek sakelatik galdu dituela... zigarretak. Guk ebatsiak zituen, ez zezan hainbertze erre! Lauak alderat hartu dugu Erromako bidea, jada zoriona bihotzean...

Elhe baliosak

Micro delakoa baiginuen gure beribilean, kantuz eta irriz, kasik ohar-tu gabe joan zauku bide luzea, han-hemenka Eskual Herrikoak iduri duten mendi batzuen aldetik. Zer bideko lagun hauta den Maintenu jaun misionesta! Ez du segur nihor lokartzerat utzi, ichtorio eta kantu, kantu eta ichtorio, bethi bazarion hain ederki! Sekulan *Herriaren* irakurtzailetan zenbeitek deliberatzen badute Erromarat joaitea, Maintenu jaun misionesta har dezatela, berek piraia pagatu behar badiote ere, laguntzat ez zaiote urrikituko! Maintenu jaunaren ondotik “micro” hartu du Charritton jaun aphez gazteak⁽¹¹⁾. Gu baino trebeago da segur-ki liburuetan⁽¹²⁾: zer eta zer ez dauku atheratu oren batez? Hantchet

⁽¹⁰⁾ H. oro.

⁽¹¹⁾ H. gaztiak.

lerro-lerro ederki eman dauzku jada iraganak eta gero iragan behar gintuen herri eta herrialde guzietako chehetasunak elizan “pattera” emaiten duen bezen aise! Horra nola ohartarazi⁽¹³⁾ gaituen Balsenako ur handiari. Azken gerla gudu handiak izan ziren han gaindi eta eskualdun zenbeit han hil: bertzeak bertze, Jacques Legasse. Erran gabe doa berehala hamarreko bat erran dugula bihotz guziz han hil herritarren chedetarat.

Erroman sartzea

Gaua jauzika heldu da. Jada, hara urrunean argiak, argiak eta argiak milaka: menturaz⁽¹⁴⁾ miliunka. Erroma othe da? Ba, hala da. Gure beribila sartzan da karrika handietan, alde guzietan zirurikan dabilozan Lambretta, Vespa eta Fiaten erditik. Loa eta gosea ahantzi ditugu bet-betan. Hala-ere atseginekin ikusi ditugu beren athean *Casa Nostra* gure ostatuko nauziak. Hamarrak hurbil zitazken mahainetan eman girelarik, kargak gantzetan pausatutik eta doi bat garbiturik! Gogotik jan dugula arratsean ere macaroniaren ondotik ekharri daukutena! Oxandabaratz jaun aphez gazteak salbu! Lo egina zuen bidean, omen, eta ametsetan Romulus eta Remus famatuen, otso oraino famatuagoaren esnetik zorta bat edana, uste etcheke ahuntzaren esnea zuen! Oi, gaztetasunaren ederra!

Lehen eguna

Zortziak, Aita Sainduaren elizan! Aphez guziek jada beren mezak emanak dituzte, lehen egunaren ahal bezenbat baliatzeko. Gehiago beila guzian elgar utziko ez duten guziak askaltzeko biltzen dire. *Casa Nostra-*

⁽¹²⁾ H. *libruetan*.

⁽¹³⁾ H. *oharterazi*.

⁽¹⁴⁾ H. *mentuzaz*.

ko barne ederrean: Maintenu eta Idiartegaray, Mailluguet, Larre, Belleau, Chabalgoity⁽¹⁵⁾, Camino, Elissalde eta Oxandabartz jaun aphezak, Urruñako de Coral jaun andereak, hirur gereziatar, Makeako jaun auzapheza, Saliesetako erretoraren arreba on, Mauleko hiruzpalau andere, Marie-Jose, Regine, Monique, Marthe, Germaine, etc... Orotarat berrogoi bat lagun naski, beti ongi baino hobeki elgar aditu dugunak. Ez baitu guti balio holako itzuli batean!

Iñaki

Hamar orenetan ginuen beilako lehen meza, meza kantatua, Ghesu jesuisten elizan. Eta eiki san Inazioaren aldarean haren hobiaren gainean. Meza-emaila, munduko jesuista guzien lehen-lehen buruzagietarik bat, Erroman bizi dena segurki, bainan Larresoroko ikastegian altchatua eta ethorkiz ezpeletarra: aita de Gorostorzu. Diakre eta sudiakre Gerezieta-ko eta Donaichtiko erretorak. Beretter, Erroman bere eskola handien egiten ari den Mendiburu donamartiriar aphez gaztea. Oro kantari, Maintenu jaun misionesta buru, erran gabe doa. Oi, zer meza hunkigarria! Eta zer predikua, Narbaitz jaun kalonjeak frantsesez eta euskaraz! Pur, pur, pur, nigarrez ari zen chokho batean jesuistetako sakristaua! Eskualduna da, zuek eta gu bezen eskualduna: ez da, beraz, harritzeko! Egia erran, nor ez zuen hunki eta inharrosiko treinan ikasirik⁽¹⁶⁾ han eman den San Inazioaren kantu airosak?

Inaki
Jainkoak igorria
Lurrean izaitera
Jesusen
Gudarien
Burua... etc.

⁽¹⁵⁾ H. *Chabalgoity*.

⁽¹⁶⁾ H. ekasirik.

Ghesu elizako murru eta pilar ederrak luzaz orhoituko dire 1956ko beilari eskualdenez eta heien kantuz!...

Urrunago joan gabe erran dezagun hemen Erromako eliza gehienak dena marmola direla; eta halere bat ez da bertzearen iduririk. Egia erran, hainbertze marmola mota eta kolore bada. Hemen gaindi ez dugu eza gutzen Liginagako marmola churia baizik. Italian ba omen dituzte hogoita bortz mila kolore iraganik. Piseko inguruetan frango ikusi dugu: churi, gorri, urdin, beltz, eta oro...

Ithurria

Ghesu elizatik ostaturat ginoazilarik lehen aldikotz begiak ase ditugu karriketako edergailuez. Ithurri batek harritu du, haatik, gehien-gehienik Chemartin. Castor eta Pollux mainhatzen ari diren ithurri cho-ragarriak. Dena marmola ithurri hau ere. Castor eta Pollux ez zitazken segur nornahi —sekulan izan balin badire⁽¹⁷⁾ bederen! — Jupiter eta Ledaren semeak omen ziren, gure gidariak erran daukunaz! Clytemnes-tre eta Elenaren anaiak. Mainhatzailek soineko gutisko baitute ardua, Castor eta Pollux horiek are gutisko dute, edo hobeki batere ez dute, eta harritua Chamartinek badakizue zer galdegin daukun beharri chilorat? “Zer dire gizon horiek? Cerdan bezalako boxlari zenbeit?” Chemartinek orai badaki zer ziren Jupiter, Leda, Castor, Pollux eta debrukeria guziak! Ez da bidea baino errient hoberik: ikusiz ikasten da. Eta Chemartinek ondoko egunetan ukhanen du haurren haurreri zer konda...

Aita Saindua leihoan

Ortzirale goiza, parterik handiena bederen, othoitzean iraganik, piazza san Pietron, Aita Sainduaren egoitzaren aintzinean bururatu

⁽¹⁷⁾ H. balinbadadire.

behar ginuen Aita Saindua, leihoan noiz agertuko zitzaukun. Eginen zela errana zaukuten Vaticaneko soldado batzuek, tenoretsu hartan harat biltzen diren beilari eta ororen benedikatzeko. Bere egoitzako hirugarren leihoan agertu zauku, beraz, eguerditan, churi-churia. Oi, zoin ttipiak iduritu zauzkun orduan gure buruak eta umilki belhaunikatu gira oro, eskua luzatu duelarik eta boza azkar batekin kantatu: “Benedikatzen zaituztet Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean. Halabiz!” Gutarik nihork sekulan ahantziko ez duen eguerdi handi eta saindua!

Pantheon

Bazkariko macaroni eta bertzeak harrapaka iretsirik eta kafe ontto bat edanik, berritz gure beribiletan ginen bigak ondochean. Ez da denborarik galdu behar Erroma doi bat bederen ikustekotz! Jada han ginuen *Casa Nostra* ostatuko troparen gidaria: neskatcha pausatu bat, jakintsun handia, eta arras fededuna. Berritz Erroman ibili behar bagina sekulan, ez ginuke bertze gidaririk nahi: ez da hoberik. Pantheon⁽¹⁸⁾ delakoa erakutsi dauku, lehenik: jainko faltsoen tenplo lehenik, Agrippa tropetako aintzindariak altchatua, girichtinoek⁽¹⁹⁾ beretu zuten zazpigarren mendean. Ikustekoa da segurki eta arras hurbildik behatzekoa...

Parabisua

Huna orai Janicule Erromako zazpi mendichketarik bat. Eskual Herriko beilarien sei beribil handiek mendichka hortako patarra, patar luzea, bat bertzearen ondotik iragan dutelarik, bazuten behari. Ez bai-

⁽¹⁸⁾ H. Panthon.

⁽¹⁹⁾ H. girichtenoek.

tzaukun itsusi. Puntarat heldu girelarik, norbeit hurbildu zaio gure Mari-Joseri eta beribileko paperean ikusirik *Pèlerinage du Pays Basque* galdengin: “Dove Pays Basque? Nun da Eskual Herria?” eta iririk gabe Mari-Josek ihardetsi dio: “En paradiso terrestre!” Lurreko parabisuan da Janicule hura ere. Erroma guzia begietan duzu handik! Erroma, urtheak egun duen bezenbat eliza ederrekin; Erroman lehen mendetako orhoitzapen saindu eta hunkigarriekin; Erroman Aita Sainduaren egoitzarekin, Aita Sainduaren lurrekin; Erroma, Zeruko usain eta gustuarekin! Paradiso terrestre!

Hau Eliza

Mendichkaren puntan, begiak ezin asez oren bat egonik, gure beribil ederretan jo dugu lauak alderat Jondoni Petriren elizarat. Ondoko egunetan ariko zaukun bezala, gure bihotzeri jada oihuka ari zen Aita Sainduaren lurra! San Pietro, Jondoni Petri, Aita Sainduaren eliza, munduko handiena. Egia edo gezurra, nunbeit irakurtu dugunaz, hirurehun eta berrogoi hamar miliun baino gehiago gostaia omen da. Haatik, hainbertze eta hainbertze ikusgarri duelarik, hutsa iduri du! Hain da luzea, zabala eta gora! Constantin enperadoreak laugarren mendean alchatu, mila lauehun eta berrogoita hamarrean erreberitu zuten errotik Rossetino, Bramante, Rafael, Michel-Ange, Carlo Maderno eta Le Bernin bartzuen argi eta laguntzarekin. Dorrea bera ehun eta hogoitza hemezortzi metra gora badoa berrogoita bi metra zabalekin. Bichtak ikus ahala kasik luze da eliza barnea eta bertze hainbertze zabal kasik. Aurthengo beilarietarik batek urhats onean hamabi minuta aman ditu San Pietroko barnean itzuliaren egiten, San Pietro ez da bakharrrik begiekin ikusi behar: bihotzak ikusi behar du. Han sartzean⁽²⁰⁾ orhoitu behar da han direla Aita Saindu hainitzen gorputzak; orhoitu han egiten direla Eliza-

⁽²⁰⁾ H. *sartzean*.

ko saildute eta dohatsute guziak; orhoitu mende guzietako Aita Sainduen eliza dela; orhoitu mundu girichtino guziaren zentro eta bihotza dela; orhoitu Jondoni Petriren gorputza han dela erdi-erdian eta *portae aeternales non prevalebunt* deusik ez dela munduan Jondoni Petriren elizaren kontra zerbeit egin dezakenik!

Aratsean

Holako egun bethearen ondotik, afal aintzinean gutiz gehienak luzatu dire den gutieneko bat beren oheen⁽²¹⁾ gainean. Chemartinek nahiago izan du bizarra egin, eta arrosa bezen fresko ethorri zauku mahainerat zortziak eta erdietan... Salbu, ilhunbean bizpalau bizarrondo bazituen kokotsean geldituak! Laster ohartu zaio Makeako jaun mera.

—Chemartin, nork egin dautzu bizarra?

Chemartinek, eskua kopetatik kokotserat iraganik eta bizarrondoeri oharturik, hain polliki ihardetsi dio:

—Nihaurek, egina dena! Nihork egitekoa dena!

Eta irri zafla batean oro jarri dire macaroni mendi batzuen aintzinean!

Edergailu eta liburu ikuska

Larunbata. Aphezek hango edo hemengo elizetan beren mezak emanak dituzte, beilari gutiz gehienek komunione saildua errezibitua, eta jada orok askaldua. Place de Venise hiriaren erditsutan baita, harat eremaiten gaituzte orduan gure sei beribil ederrek. Hango palazio zaharrari begi-kolpe bat emanik, guziz leiho choragarri batzueri, firrindan goazen Vaticanoko biltegi⁽²²⁾ aberatsen ikusterat, bainan erran dezagun, behin Suhu-

⁽²¹⁾ H. *ohen*.

⁽²²⁾ H. *biltegi* (*musées*).

biette Bunuzeko jaun erretorak urrats biziskoan ikusi bazituen hango aberastasunak, guk aurthen lasterka ikusi ditugula! Bai, lasterka! Ondikotz. . .

Porta Angelica iraganik, Vaticaneko murru zaharren ondoan barna, Viale Vaticano delako sartzean ginen hamar orenetako. Michel Ange eta Rafael⁽²³⁾ harrizko batzu gure beha zauden athe handienaren gainean. Nahiz lehen aldikotz ikusten dituen, Chamartinek berak bere agur polli-tena egin diote aspaldiko bi adichkide chaharrerri bezala, bere aphezak errana baitio nor diren! Guhaurek ez ginakike barne hartan zer ikusi dugun bi orenez! Sobera bada, eta beilari gehienak buru-begiak osoki nahasiak atheratu dire kanporat eguerdi zenbeit gutitan. Gutu edo aski bederen margolari behar da izan, guti edo aski eskolatua ere, Vaticaneko ederrerien prezatzeko. Aita Saindu berri baten hautatzeko kardinaleak biltzen diren barneak berak egun bat osoa behar luke gutienetik ikusteko! Doi bat pausatzeko, beharrik ukhan ginuen zoriona berritz ere Aita Saindua eguerditan leihoan agertzeko, eta haren benedizionearen ukhaiteko!

Zenbeitek jada baitzakiten horko berri, badakizue norat jo duten? Vaticaneko liburutegirat. Munduko handiena eta ederrena omen da. Eta hala ditake bere bortzehun mila liburu eta berrogoita hamar mila liburu-ekheiekin! Han ibili direnek ba othe zakiten Vaticaneko liburutegian eskuarazko liburu bat bederen badela? Ikusi balu, zer atsegina izanen zuen dakigun beilari eskualzale batek! Han ez da Michel Ange eta Rafaelen obretan gu bezala pulunpatu. . . eta itho! *Felix qui potuit*, erraiten zuen aspaldi Horace delakoak. . .

Basa-abereak

Arratsaldea beren eskuko zuten beilariak begien eta buruaren pausatzeko. Batzu ohean luzatu dire bizpahiru orenentzat: gizonak bereziki; emazteak saltegiari buruz airatu zauzka *libra* zenbeiten berduratzeko.

⁽²³⁾ H. *Rafaël*.

Badakizue dotzena erdi bat adichkidek zer egin dugun? Erromako *jardín zoologique* famatuaren bidea hartu. Ez zauku dolutu. Munduko hirugarrena omen da. Ba othe da nihun han ikusi ez dugun basa-ihizi, abere eta lumadun motarik? Harritzeko da zenbat eta zenbat den! Lehoin, tigre, hartz, leopar, kanguru⁽²⁴⁾, basurde, elefant, basa-idi, jaguar, pantera, zimino, gorilla⁽²⁵⁾, eta mila! Orotarik harrigarriena izenik gabeko abere bat, behi buru-adarrekin, zaldi arin baten gorphutz eta zangoekin, zikiro-merino baten buztan⁽²⁶⁾ luzearekin! Deusek ez gaitu, haatik, *girafa* batek bezala beha egonarazi. Abere pollita, arras pollita da hau bere lau zango mehe heien puntan. Eta, oi, ei, ai, zer lepho luzea! Girafak, aintzineko zangoak hainitz luzeago ditu giblekoak baino, ez dezake, beraz, lurrean deusik bil, aintzineko zangoak zabalduz baizik. Hala-hala edozoin zuhaitzen hostoak lorietan bilduko dauzkigu sei metretan!... Chemartin gurekin baiginuen, irriz beha zagokion aski hurbildik girafari. Huni gaitzitu othe zaio? Lephoa luzatu du zerraduraren gainetik eta Chemartinen ponetari lothu, ustez oñoñak han baziren! Jauzian urrundu da Chemartin... eta oihuka eskuara ederrez girafari hasi: “Errak, to, lepho-luze ausarta, zer nahi duk nitarik?” Urrunchago karkaraz zaudela Donaichtiko jaun erretora, Makeako auzapheza, eta bertzeak! Beharrik handik laster irriskuak ahantzarazi baititu Chianti ttotta batek, bele zahar guri batzuen kaiolaren ondoan!...

Napoli

Napoliko itzulia aipatu behar othe da? Hiri handi bat da Napoli, bere miliun bat arimekin. Hiri ederra ere, hainbertze eliza, palazio eta ikusgarrirekin. Pompei aldean du berzalde, aspaldi Vesuvako lur-suak

⁽²⁴⁾ H. *kangourou*.

⁽²⁵⁾ H. *zorilla*.

⁽²⁶⁾ H. buztar.

ehortzirik, orai emeki-emeki chutitzen ari dena. Ondikotz. Erromatik urrunegi dire bat eta bertzea, hango itzuliaren egun batean⁽²⁷⁾ egiteko! Hainitzi ez zaiote halere urrikitu izanik: zenbeiti ba. Hogoita hamar bat baiginen Erroman gelditurik. . . bide luzearen lotsaz, Erromak nola choratu gaituen oraino! Berritz ere Aita Sainduaren benedizioea ukhan dugu eguerdi alderat, berritz ere San Petro hiruzpalauetan kurritu, kardinale, aphezpiku eta kalonje batzuen othoitzak segitu. . . eta zernahi ederreria erosi, . . . eta eguerditan “macaronirik” gabe ederki bazkaldu, arratsaldean Castor eta Pollux Chemartinen boxlari heieri behako labur bat emanik mila chokho zangoak arin ikhertu! Hola gochatzen da Erromaz! Eta gero lagunak Napoliko bide luzean heldu zirelarik, ez othe zuen oraino balio “circolare” delako treina karrakoila hartan hiriko argi eta mila argien ikusterat joaitea Germaine bezalako gidari batekin? Elhea galdua zagon Donaichtiko jaun erretora bera argien ederraren ederrari! Eguna bethea ginuen, eta ederki bethea, napolitanoak itzuli zauzkularik arratseko hamekak alderat, ttette bezala hamikatuak. . .

Meza bat choragarria

Astelehenean, berant aire ohean egonik, oro ez bada gehienak bederen hamar orenetan Ghesuko elizan ginen bigarren aldikotz, San Franses Xabier eskualdunari zor ginion agurraren egiteko! Sainduaren alda-rean Narbaitz jaun kalonjea meza emaile, oro kantari, zer elizkizun eder eta hunkigarria! Eta berritz ere eskualdunen bulharrek, Maintenu jauna gidari, nola inharrosi duten jesuichten eliza! Nola inharrosi orobat sakristau eibartar gaizoaren bihotza? Eta ez othe guharenak? Etchetik urrun dugu egiazki sentitzen zoin maite dugun etchea, herritik urrun zoin maite⁽²⁸⁾ dugun herria!

⁽²⁷⁾ H. *betean*.

⁽²⁸⁾ H. *baite*.

Bainan, erradazue othoi, hemen zertako heldu othe zauku berritz Marie-Joseren izena lumarat? Dudarik gabe Ghesuko inguruetan duela-kotz, bigarren aldikotz delako soldado italiano beltza ikusi! Jada ahan-tzia duke. Bai, hain beltza zen eta⁽²⁹⁾ hain frantses guti zakien! Ez zuten elgar adituko.

Elizen Ama

Handik norat jo dugu? Jondoni Joani Latranekoaren elizarat. Eliza miresgarria hau ere, eta orhoitzapen hunkigarrienez bethea. Munduko eliza guzien ama dela erraiten dute liburuetan. Melchiado Aita Sainduak altchatu laugarren mendeko lehen-lehen urthetan. Salbatzailea bera ukhan zuen lehen patroin, geroago Jondoni Joani Batichta, eta, azkenik, oraikoa, Jondoni Joani Ebanjelichta. Mendetik menderat frangotan erre-berritua izana da: azkenekotz 1650garren urthean, Barromini lanen gidari. Innocent X zen Aita Saindu orduan. Sekulan eliza bat ez baita aski eder, gure denboran Leon XIII Aita Sainduak lan berri eta eder frango eginarazi du Jondoni Joani Latranekoan. Ez da eliza hortarik atheratu behar Henri IV Frantziako errege famatuaren itchurari behatu gabe atheari hurbil: eliza horren ongi-egile handienetarik bat omen⁽³⁰⁾ zen. Uste gabeko zorion bat ukhan ginuen Jondoni Joani Latranekoan: *Krichto Erregeri* hango gure kantua aditurik, nunbeitik gainerat ethorri zitzauzkan bortz jaun aphez. Napartarrak ziren eta gu bezala, beren alde, Erroman ibilki. Bortzetarik bat, hain chuchen *Herriaren* ardurako berri-ketari bat. Goraintzi, adichkidea. Mendiek bakharrrik ez dute elgar atchemaiten...

⁽²⁹⁾ H. eta eta.

⁽³⁰⁾ H. *emon*.

Santa Elena

Astelehen arratsaldeko itzuliez nor eta nola orhoit? Bertzeak bertze, gogoan ditugu, haatik, Scala Saneta eta Santa⁽³¹⁾ munduaren munduaz, ez badugu hurbiltzea baizik ukhan eta lehen mailan othoitz labur bezen kartsu baten egitea, luzez ikusi eta gochatu dugu Santa Elenaren eliza. Erromako ederren-ederrenetarik bat dela daukagu. Constantin enperadore famatuaren ama zen Santa Elena. Nork ez daki oraiko eskolekin Constantinek 312garren urthean Maxence orduko enperadorea garhaitu zuela Erromako inguruetan? Tiber⁽³²⁾ ibaian Maxence ithorik, Constantin enperadore sartu zen, Elizaren on handienarentzat. Liburuek erraiten daukute nola gudurat zoalarik Constantinek airetan gurutze bat ikusi zuen⁽³³⁾ eta gurutze hartan hitz hauk irakurtu: *In hoc signo vinces*. Seinale horrekin garhaituko duk! Sekulan ez dezagun hori ahantz!

Jondoni Laurendi

Ilhuntzeari buruz, lagunak beren bideari utzirik, bortz bakharrek haia-haia jo dugu Erromatik kanpo Jondoni Laurendiren eliza paregaberat. Ez da fama gehiago duen elizarik. Constantin enperadoreak al-tchatua da eliza hau ere Jondoni Laurendi ehortzi zuten tokian. Pelage II Aita Sainduak errotik erreberitu zuen 578garren urthean. Bainan oraiko moldea Honorius III hamabigarren mendeko Aita Saindu batek emana dio. Ondikotz, azken gerla huntan kanoiek aski kolpatu dute kanpoan eta barnean, eta zauriak oraino ageri ditu han-hemenka! Kalos-tratik aldare gibeleraino, pilarretik pilarrerat, oro hurbildik ikustekoak dire Jondoni Laurendiren elizan! Oren bat gehiago han iragaitea ez da segurki oren haren galtzea! Sinhets gaitzatzue...

⁽³¹⁾ H. Bi aldiz dator *haatik Scala Saneta eta Santa*.

⁽³²⁾ H. *Tibre*.

⁽³³⁾ H. gurutze bat ikusi bat ikusi zuen.

Arratsaldeko lasterkek appetitua idekirik eta Regina usaian hain ichilaren erasiak entzunik, anaia bi orenez ebatsi giniolakotz, macaronieri bereri ez diotegu thu egin arratsean. Makeako jaun auzaphezak berak ez othe ditu aldi hartan jastatu? Eta kasik maitatu?

Katakombak

Asteartea. Iguzki eder bat zeruan, argiko! Segurki ongi ethorria da, egun goizean bidetze luze bat baitugu katakonbetako mezarat joaiteko. Zer dire katakonbak? Utz dezagun mintzatzerat Pierre Duhour gure hazpandar adichkideak duela hogoita bortz urthe egin liburu bat: “Jesu-krichtotik hunateko lehen mendetan, inperadore erromanu batzu izan dira paganoak, burrego hutsak, girichtino atchewan guziak hilarazten baitzituzten. Girichtinoak hertsatuak ziren, bada, gordetzerat, beren fededun urhatsen egiteko. Hortakotz lurpean zilhatzen zituzten bide batzu, metra pare bat gora, baten heina zabal, eta han-hemenka biltzar toki hertsu zombait. Usuenik etche aberats girichtino batean zuten lurperako sartzea, paganoek ez zezaten jakin ez asma sinhestedunen berri-rik. Delako lurpeko biderean bi sahetsetan egiten zituzten beren hilen ehorzteko hobiak, estaika, zombait bidetan sei zazpi estaietaraino. Badire hola lurpean ehun kilometra bide baino gehiago, dena hil-zilho bi eskualdetarik. Horiek dituzte deitzen katakonbak.” Horra nun ginuen, beraz, astearteko elizkizuna...

Meza-emaile⁽³⁴⁾, Gerezietao erretora, Erroman diren apez beilarie-tan chaharrena... urtheek egiten badute norbeiten adina! Predikari, Maintenu jaun misionesta. Beretter, Makeako jaun auzapheza. Narbaitz jaun kalonjea buru, beilari guziak kantari artetan: bainan kantari, kasik ahapetik, segur lehen girichtinoak kanpotik ez aditzeko ari ziren bezala!

⁽³⁴⁾ H. *Meza-emaile* hitzaren ondoren puntu bat dator jatorrizkoan.

Ez, ez ditake katakonbetako meza baten hunkigarria erran! Zer nigar chortak mathela gehienetan! Eskual Herrian balakite! Balakite, oinez joan litazke Erromarat frango eta frango, behin Barkotchetik Etchahun bat joan zen bezala, lurrean berean zeru doi baten jastatzeko!

Lau katakonba badire Erroman. Bat ikusi dugu bakharrik, San Kalixto. Bertzeak deitzen dituzte Santa Agnes, Santa Domitila eta San Sebastien. Pierre Duhour adichkideak erran baitautzue⁽³⁵⁾ badirela ehun kilometra baino bide gehiago lurpean, ikusazue badirela bederatzi ehun kilometra... eta nihork ez daki ondoko ilhabete edo urthetan ez duten gehiago ere kausituko! Dena dela, mementoko katakonba handiena San Kalixto da eta hura dugu ikusi, parte. Hau ere sobera bada ikusteko eta orhoitzeko. Doi-doi gogoan atchikiak ditugu hirugarren mendeko Aita Sainduen ehorzlekhua, Santa Zezilia 230garren urthean, Alexandre Severe enperadore zelarik, lephoa errotik moztu zioten martir gazte maitagarriaren ehorzlekhua. Sakramenduen kapera. Eusebe Aita Sainduaren chokhoa, Zizto Aita Saindua harrizko tronu batean. Hots, begiek ikus ahala baino hainitz gehiago ikusgarri!

Elizaren lehen urthetakoak dire katakonbak. Geroztik ez dire bethi idekiak egon. Ez badakigu chuchen noiz hetsi ziren, badakigu bederen zazpigarren mendean Aita Sainduak handik khendu zituztela hainitz eta hainitz martiren ondarkin sainduak eta Erromako elizetan ezarri, Erroman baita —jada errana ez badugu ere, hemen erraiteko— urtheak egun duen bezenbat eliza! Hamairugarren menderaino nihun ez da katakonbez aiphurik. Hamalau-hamaborzgarren mendetan, aiphu guti. Orduan zenbeit orhoitu ziren zerbeitez eta bilhatzen hasi, bainan bilhatzen buru ez molderik gabe. Hemeretzigarren mendean Jean Baptiste de Rossi italianoak katakonba ikhertzeak bururatu cheak zituen, 1894garren urthean hiruetan hogoita hamabi urthetan hil zelarik. Geroak erranen du geroko berri...

⁽³⁵⁾ H. batautzue.

Zamarra eta bertze

Itsas-hegiko eskualdunek bederen badakite zer den zamarra —*le crabe*, erdaraz—. Alimalechka bat, erdi arrain, erdi ez dakigu zer, dena aztapar zorrotz. Hanbat gaichto behin aztaparretan hartzen badautzu erhia. Ez zire aise libratuko⁽³⁶⁾, eta atch egin beharko duzu! Bada, Erromako karrika, eliza athe eta katakonba ondoetan zernahi zamar bada. Bi zangotako zamar, haatik: araba saltzaile batzu! Oi, ez zaituzte utzi nahi... larrutu arte! Egiazko zamarrak!

San Kalixton sartzean oro ohartu ginen berehala athearen gibelean hitz larriz ezarria den “No smoking” bati: ez dela han pipatzea haizu erran nahi du, omen. Chuberotar Parisen barna ibili batek gibelat egin nahi izan du⁽³⁷⁾, ustez “smoking” ezarri behar zela katakonbetan sartzeko! Ez zen ohartua “no” smoking zela: Chemartinek ohartarazi du! Gutu huts egiten zuten Chemartinen begiek!

Kanpoan zamarrak balin badire milaka, eliza batzuetan ere kausitu dugu zenbeit. Hala-nola fraile dominikanoen eliza batean. Berrogoita hamarna lira polliki katzitu diote Larre, Belleau, Maintenu, Idiartegaray, Mailluquet jaun aphezari eta zuen zerbitzariari, aldare zahar batzuen erakusteko⁽³⁸⁾! Aditu bazintuzte atheratzean gutarik bizpalauen sudur-chichtuak! Guk ere jakin baginu Arbonako Martha batek bezala: *Mettere la coda dove non va il capo* —erran nahi baita— zamarreri erhien ez emaiten!

Irakurtzaile maiteak, barkatu ahantzia badugu chuchen noiz ikusi ditugun Santa Maria in Dominica, Leon X Aita Sainduak eginarazi sartze ederrarekin, eliza bera hamargarren mendekoa delarik eta Pascal Aita Sainduak altchatua; —Jondoni Joani eta Pauloren laugarren mendeko eliza maitagarria;— San Gregorio, saildu handi horren beraren etchean egin eliza. Orotan, zernahi ederreria, zernahi ikusgarri! Buru

⁽³⁶⁾ H. libratko.

⁽³⁷⁾ H. *da*.

⁽³⁸⁾ H. irakusteko.

hoberenak koka ahala baino gehiago! Sinhetsazue ez dela aski horietaz zerbeit nunbeit irakurtzea: bere begiz ikus behar dire⁽³⁹⁾!

Colisée

Ez, Erromatik sekulan ez litake etcherat itzuli behar Colisée delakoa ikusi gabe! Zer obra! Hemen ere utz dezogun Pierre Duhour adichkideari luma: “Harrigarriko barne bat da, Jesukrichtotik hunateko lehen mendean egina, zeruaz beste estalgirik gabea: kanpozt iduri du erronda dela, bainan ez, luzean baditu 188 metra eta zabalean 156, gora 49. Gaineko puntaraino dena jartoki, estaika, zezen lasterretako Arènes hetarik iduri. Lauetan hogoi mila jende sartzen ziren. Hea nolako bihika zen! Hor lehen mendetan iragan diren izigarrikeriak nork erran. Girichtinoak asko gisetarat sarraskitzen zituztelarik! Josteta egunetan ziren odol ichurtzeak! Batzuetan bi gizon kondenatu: harrarazten⁽⁴⁰⁾ zituzten kolpeka, ezpata eskuan, zoinek bat bestea garbi: beste batzuetan balentriaz bi esklabo, edo gizon bat eta alimale basa bat: alimale basez bethea baitzen barne hortako lurpea, dena tegi, nonbaiko oihanetarik horrat eremanak, bethi jendea jostatzeke: lehoi, tigre, eta beste. Gizona gizonaren kontra edo alimale baten kontra ari ziren, bata ala bestea hil arte, nun ez zuten ikusliarrek gizon garhaituaz urrikaldurik, haren bizia galdegiten. Gudulari batzu baziren holako jostetetan ofizioz ari zirenak: denak esklaboak ziren eta “gladiateurs” erraiten diote erdaraz...” Egundaino ez da gudulari horietan Spartacus baino famatuagorik izan. Ez othe zituen behin esklabo guziak Erromako nausien kontra chutiarazi? Ez zituen halere bere chedeak bururatu...

⁽³⁹⁾ Hemen bukatzen da hirugarren plamako testua.

⁽⁴⁰⁾ H. *ar-arazten*.

Colisée hortan ustegabeko zerbeit ikusi dugu... atsegin handienarekin: Irigoyen jaun apheza kantari, Jean Pierre Uthurry Chuberoko⁽⁴¹⁾ dantzari hoberena dantzari! Satan dantza horra, beraz, nun ikusi behar ginuen aspaldiko partez! Bazterretik irriz beha zagon Barkhotcheko jaun erretora, eta, kopeta zimurrik, horratago, Erromako enperadore baten harrizko itchura! Marc Aurele othe zen? Enperadore hunek ez zuen josteta maite, dena liburu zen. Nola beha zezaken chuberotar baten jauzieri? Guk, haatik, gehiago ere behatuko ginioten oraino lorietan! Mari-Josek ere ba, omen! Jean-Pierre Urruty han ikustean, Hellesponteko dantzari zahar bat gogoratu omen zaio berehala! Eskola zer den!!!

Aita Saindua

Oi, Erromako beilaren laburra! Huna jada asteazkena, hango azken eguna! Zer ekharri behar ote dauku? Bihotzak zorionez gainditu behar dituen Pio XII Aita Sainduaren orena! Eguerdiko ginoazen Jondoni Petriren elizarat galdea: han ginen hameka orenetako. Han, hogoita hamar mila jende, Italiatik, Alemaniatik, Ameriketatik, ez dakigu nundik, eta Eskual Herritik! Han, kanta latinez, kanta italiano... eta kanta eskuaraz... denborari ohartu gabe, tinki-tinkia, gerota tinkiango elgarren kontra, mila eta mila ardi korrale ttipian bezala! Egia erran, Jondoni Petriren elizan bertze hainbertze jende aise kokatuko zen, baina bakhotchak hurbil baino hurbilagotik nahi zuen Aita Saindua ikusi! Sorka ginoazin, beraz, gero eta gehiago, ithotzeko heinean! Bai, ithotzeko heinean!

⁽⁴¹⁾ H. Chaberoko.

Eta beha munduaren ttipia eta hertsia! Hantche goazilarik Aita Saindua iragan behar den bidechka hertsirat, gero eta tinkiago, horra nun burua itzulirik neskatcha bat ikusten dugun nigarrez!

—“Zer duzu? Eri?”

— Ez, jauna, ez! Bainan zuen “Jaunkoaren Ama” kanpotik entzun dutalarik bihotzak jauzi egin daut! Miarriztarra sortzez. Erroman neskato, traba guzien gatik, huna nun naizen herritarrekin! Milesker, Jainko Ona!—Berritz ere, oi herriaren, etchearen eta mintzairaren gozoa urrun denarentzat! Nicole Balidet orhoituko da gure beilaz!

Denbora bazoan anhartean. Eguerdi hurbilduchea zen. Horra nun bet-betan buru guziak itzultzen diren Jondoni Petri elizako athe handi batzuetarat. Hara, hara Aita Saindua bere “sedia” kadira handian sei gizon azkarren bizkarrean, bere soldadoak eskuin eta ezkerretarik. Oro orotarik oihuka ari dire jada: “Viva el Papa! Vive le Pape!” Eta eskualdunek ere oihu egiten dugu: “Gora Aita Saindua!” Ez da gehiago bertzerik aditzen buru batetik bertzerat eliza handian! Gora! Gora! Eta ohore Jesukrichtoren ordainari lurrean! Eta Aita Saindua emeki-emeki heldu da lerrotik lerrorat, itzul eskuin, itzul ezker, oro eta bakhotcha benedikatzen dituela, irri saindu bat ezpainetan! Harritzeko da bihotzak nola ez duen zapart egiten holakoetan! Begi gehienak bustitzen dire bederen, Elizako itzulia gisa ortan bururatu-eta, Aita Saindua jautsiko da bere tronutik, frichtean aldarerat iraganen, eta han jarririk mintzatu-ko. Mintzatu-ko italiano, alaman, anglesez, espainolez eta frantsesez, bortz mintzairak bardin aise deramatza! Ba omen daki bertze mintzairarik ere. Eskuara? Ez dugu uste, bainan behin ez othe zioten eskualdun beilari batzueri, edozoin eskualdunek bezen ongi, erran? “eskualdunak, ongi-ethorri Erromarat!” Oren bat zen. Aita Sainduak besoak zabaldu ditu orduan eta bere benediziona eman dauku, Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean. Bihotza inharrosia, eskualdunak ahal duten bezala atheratu dire, beraz, Jondoni Petriren elizatik eta berebiletan sartu, ostatuetan zerbeit jateko. Erromako aldia egin ginuen. Asisatik san Frantses eta santa Clara oihuka ari... Agur, Erroma!

Asiserat

Asteazken arratsaldea. Horra gure sei beribilak lerroan. Bakhotcha sartzen da berean. Ez baitugu gehiago denbora galtzerik, seiak bidean lothuko dire firrindan. Azken kantu bat hasten dauku Maintenu ezin nekatuak eta... *avanti Giovanni!* Herri pollitetarik herri pollitagoetarat, begiak aseko ditugu gaur ere. Ilhuna ginuen, haatik, Asiserat heltzean! Nola joan ostatuetarat Portionculako elizan san Frantsesi eskualdunen agurra egin gabe! Eta han ere gure eskuarazko kantuek nigar eginarazi diote norbeiti aspaldi frantzizkanoekin bizi den Paulino donostiar fraileari. Urtheak ba omen zituen ez zuela eskuararik entzun.

Eta orai karrika ilhunetan astirik galdu gabe, goazen nor gure ostarurat sabelak aspaldi oihuka hasiak ditugu. Afari ontto bat eginen dugu usaiako lagunekin... nahi baino spaghetti gehiagorekin haatik, Josepek bederen. Ogia ahotik ezin utzia baita, harek pekatzen du gehienik. Bai eta Chemartinek Erromatik ekharri duen⁽⁴²⁾ Frascati harek. Freskati erraiten dio Chemartinek. Frascati, frescati!...

Bihotz ona

Hameka orenetako ohean zauden⁽⁴³⁾ gehienak, eta lo. Azken othoiztzen erraiten ari Donaichtiko Jaun erretora, atheko argian. Jada salatua baitautzuet arras bihotz oneko gizona dela, horrek galtzen dauku gau hartan! Huna nola. Andere Carrau Hazparnekoak bazterretche batean zuen bere ohea, ostatutik aski urrun. Etchea ez zaio gustatu, eta gibelat ethorri da... Donaichtiko jaun erretoraren ganat eta bere zorigaitza erran dio. Aphez onak zer egin du? Bere ostatuko ohea andere Carrauri utzi, eta joan delako bazterretcherat, eta ichiltasun lotsagarrienean etzan.

⁽⁴²⁾ H. Luen.

⁽⁴³⁾ H. zaien.

Eta horra nun oren baten buruan bezala harrabots bat aditzen duen ganbaran! “Nor da hor? Chi va.” Bainan nihork ez dio ihardesten eta bethi hurbiltzen ari da harrabotsa! Zer eginen zinuten? Argia phiztuko. Hala egin du aphezak ere eta ganbararen erdian bi begi handi ikusi. Bi begi handi, hantche oheari beha zagon arratoin alimale batenak! Zer eginen othe zuen andere Carrau gaichoak? Irri egin du Donaichtiko jaun erretoarak, bertze alderat itzuli eta lokhartu... eskerrak Jainkoari bihurturik!

Argia gabe aphez gehienak elizetan ziren mezaren emaiteko. Hamar bat baginen san Frantsesen hobia deraukan elizan, gure ostatutik aski hurbil. Aski eder baitzen⁽⁴⁴⁾ memento batez san Frantsesen hobiaren gainean lau aldetarik eginak diren aldare ichiletan lau aphez eskualdun meza emaiten ari, Maintenu eta Idiarregaray misionestak, Larre Hiriburuko bikarioa eta Donaichtiko erretora! Orduan san Frantsesek nola gogoan ibili ahal dituen Eskual Herriko heren-ordeko anai-arrebak⁽⁴⁵⁾!

Paulino

Bederatzi orenetan ginuen meza nausia, han berean. Lekhorneko jaun erretora meza emaile aldare handian, Idiarregaray jaun misionesta predikari, Narbaitz jauna musikari, oro kantari. Meza eder bat segurki, eskual kanta eder-ederrenekin eta bezperan bezala Paulino frailearen nigarrekin! Erran gabe doa, haatik, Paulino deusek ez duela hala inharrrosi nola bere herritarraren *Iñaki* airos harek eta kanporakoan gogotik erran dauku segurki: “Adichkide herritarrak, milesker! Laster zatozte berritz hunat! Hogoï urthe badu hemen nauziela: ez dut behinere hola-ko elizkizun ederrik ikusi! Milesker!” Paulinori ere eskuara oraino mintzo! Eta mintzo⁽⁴⁶⁾ etchea baino gehiago!

⁽⁴⁴⁾ H. baitzln.

⁽⁴⁵⁾ H. hirugarren plamako azken hitza.

⁽⁴⁶⁾ H. mnitzo.

Zuhaitz eta bertze

Carceri direlako lezeak zenbeitek ikusi nahi izan dituzte, han egona baita denbora frangoz san Frantses bere lagunekin. Urrunsko dire karrikatik eta halere Ezpeletako neskatchak oinez hango itzulia⁽⁴⁷⁾ egina zuten meza-aintzin. Bospasei lagunek, ondoan egin dugu, eta beribil batean. Ikustea balio du. Han ikusi dugu, bertzeak bertze, san Frantsek choriak tropaka bilarazten zituen zuhaitz famatua! Ez da haizu zuhaitzaren hunkitzea, laster hil bailitake bakhotchak bere aldachka khentzen balio. Bat hartu diogu halere, eta Germaine, Mari-Jose eta andere Sallaberriri partitu! Agian ez dituzte preso eramanez ondoko egunetan!

Santa Klara

Huna⁽⁴⁸⁾ naski ethorria gure beila guziko orenik hunkigarriena, ororen arabera! Saindu hainitz eta hainitz izan da mendetik menderat Asisan. Bat ez da santa Clara baino gehiago herrian ohoratzen dutenik! Eta egiazki hamargarren mendeko saindu handi horrek ohore guziak merezi ditu. Harriz egina behar litake bihotza, santa Clararen gorphutzaren aintzinean ez nigarrez hasteko! Ezen gorphutz hori *Clarisses* seroren komentuan ikus ditake berinazko kutchu batean. Belztua da segurki, baina oso-osoa, bere neskatcha begitarte pollitarekin! Bardin hunkigarria da bere pobrezian santa Clarak bere lagunekin batean jaten zuen mahain arrunt hura? Harekin zituen santa Clarak Sarrasins direlako gaichtaginak zurubietarik erorrarazi. Nahuzue guk hemen, ikusiak ikusirik, ondoko urthetan Italiarat beila eginen duteneri zerbeit erraitea? Napoli eta bertze batzu bazterrerat utzirik, zoazte Asiserat bi egunentzat bede-

⁽⁴⁷⁾ H. itzula.

⁽⁴⁸⁾ H. Huni.

ren! Ez dautzuate bertzerik erranen Régine Marthe, Marie-Jose, Suzie, Christiane eta gurekin ziren aurthengo neskatcha beilariek!

Ortzegun arratsaldean Asisatik norat joko othe dugu? Firenzako hiri handi eta choragarrirat. Bethi beribil beretan goazi. Bidea nihork baino hobeki ezagutzen du gure Giovannik: hangoa da eta han sarri atchemanen ditu zortzi egun huntan ikusi ez dituen bere emazte eta bi haurrak. Goiz heldu nahiko luke, beraz, bainan bidea luze da Asisatik Firenzerat eta, hain chuchen, bideko hiri, herri eta herrichka guziak phestan: Mussolini eta alemanen aztaparretarik atheratzearen urtheburua dute eta beren bideak berentzat nahi! Tenore bat izanen dugu, beraz, Firenzan ere, afari ontto bat eginik —Italian egin dugun hoberena, diote gure Josep, Chemartin, eta Makeako Jaun auzaphezak— gure ganbaretan sartu eta kokatu orduko. Usaiako lagunekin Chianti chorta bat edanik, haatik! Ez dakigu nundik bildua zuen Etchegorry adichkideak... emaztearen ichilik! Onskoa baitzen!

Firentzan

Firenza —*Florence* frantsesez— hiri handi bat dela errana dugu jada. Larre Hiriburuko jaun bikario maitagarria hiribururat joan aintzinean Hazparneko ikastegi aiphatuan irakasle baitzen⁽⁴⁹⁾, lutelestiaren irakasle —*la géographie* omen da lutelestia hori, Charritton jaun aphez jakintsunak erran daukunaz!— bai, Larre jaunak nunbeit irakurtarazirik dakigu Firenzan badirela gutien-gutienetik hirurehun eta berrogoita hamar mila arima! Zernahi zakhur, gathu eta uso, bertzalde! Egiatzki hiri handi bat da, beraz, Firenza! Eta eskualdunek zerbeit ikasteko izan omen dezakegu Firenzako hiriarekin! Alabainan hainitzek uste dutena da eskualdunek badugula *Etrusques* direlako batzuen odoletik... nahiz horiez den behinere Blade, Van Eys, Vinson, Luchaire, Bonaparte eta Campion ba-

⁽⁴⁹⁾ H. Beritzen.

tzuen buruan sartzen ahal izan! Ordainez zer eman daukute? Beraz, bai, izan dezakegu *Etrusques* direlakoan odoletik... eta Firenza ez othe zen hastean jauntto horien meneko? Beraz, irakurtzaile eskualdunek nahi dutena asma dezaten, guk chehetasun horietaz eskerrak zor ditugu Larre jaun aphezari. Holako jakintsuna nola utzi duen Hazparnetik joaiterat Gastellon jaun kalonjeak!

Egun bat ginuen doi-doia Firenzaren ikusteko eta gure azken *liren* berduratzeko. Hau, lan errecha eta aise egin dutena gutiz gehienek Firenzan egiten diren esku-zakhu, larruzko esku-larru bacheraki eder eta zimino polliten erosten. Hiria ez dugu, haatik, nahiko ginuen bezenbat eta nahiko ginuen bezala ikusi! Alde batetik, denbora eskas, eta, bertzetik, hango gidariak ez Erromakoa balio. Behar gabeko urhats eta elhe sobera! Ez diogu, beraz, behatu baizik Santa Maria Maggiore hamabigarren mendeko elizari, lasterka Bathaioetako kaperan iragaiteko. Santa Maria del Fioreko eliza nausirat jauzi egiteko, eta Chiesa de Santa Croce, Erromako Jondoni Petri eta Londreseko eliza nausiaren ondotik munduko elizarik handiengan doi-doia trikatzeko. Eta denbora gehiagoko guti gelditzen zitzaukun goiz hartan bertzerik ikusteko. Ez ginen, beraz, lasterka⁽⁵⁰⁾ iragan baizik Michel-Ange, Titien, Rubens eta hein hortako margolari famatuenen ikusgarri paregabekoen aintzinean. Ez zitaken bertzerik!

Nor gure alde

Ez zitzaukun gehiago arratsalde bat baizik gelditzen... eta arratsalde hortan, bakhotcha bere alde eta bere buru, ibili dire gutiz gehienak. Frango eta frango Fiesoleko mendichkarat⁽⁵¹⁾ iragan dire eta han, jende-

⁽⁵⁰⁾ H. Jaserka. Hitz hau lasterka izan behar du, gure ustean.

⁽⁵¹⁾ H. mendikarat.

tze ederraren aintzinean *Ikusten duzu goizean* kantaturik, barkochtarrari godalet dantzetan alegerena emanarazi! Bertze batzuek nahiago izan dute zaldi-karro zahar batean karrketan ibili, segur behari bailukete Miarritzen hola abiatzen balire heldu den udako eskual-phesta batzuetan Oldarra aintzinean! Gaineratekoak barraiatu dire... saltegietan. Han kausitu behar ginuen zimino baten erosteko azken-azken "liren" igortzen ari Donaichtiko jaun erretora, berea gogoan. Han ikusi du ere Narbais jaun kalonjeak, ez baita guti harritu bere ziminoa eskuan ikusi duelarik... eta moltsa hutsari beha... Ez da harritzeko polliki erran badio: "*Mon cher ami, je vois que décidément tu dé... lires!*".

Denbora hortan, nihun ez baitzen gehiago ageri, nun othe zabilan Gerezieta tropa eder bezen alegera? Bartali munduko pirripitari famatuaren ondotik joana! Eta ikusi baitute, eiki, karrika batean... eta batek bederen mintzatu! Gizon pollita da Bartali, arras elizatiarra, eta Firenzan hobekienetarik ikusia. Atsegin ukhan omen du gerezieta erran diozkan elhe⁽⁵²⁾ pollitez, eta gerezieta Bartaliren ganik ukhan dituen hiru sinadurez. Hirur sinadura horietarik biga ez dituzte saltzekoak Gerezieta bi muthiko gaztek: are gutiago hirugarrena Mari-Jose batek Getarian! Erran othe dautzuegu Firenzakoa dela Bartali?

Etcherat

San Remo, Bordighera, Ventimiglia bere mugazain prestuekin, Nice, etcheke bidea, Tolosa ohartu orduko. Lurde zor zaion agurrarekin, Saliese elgarri agur luze eta hunkigarrienarekin, eta Baiona mundu handi batekin geltokian! Eta igandea baita, oro bagoazi Santispiritoko elizarat mezaren entzuteko. Azken othoitzak, azken kontseiluak Narbais jaun bikario jeneralak emanak, azken kantika, Iñaki! Eta zoin airoski!!!

⁽⁵²⁾ H. elle.

Horra, bada, gure Erromako itzulia. Hirugarrena ginuen, eta segur azkena. Agian ez dadiela hala izan bertze beilari lagunentzat! Itzuliak balio du...

Milesker *Herriaren* jaun buruzagiari hoinbertze chokho, hoinbertze denboraz berri ttipi hauieri utzi nahi izan diotelakotz hemen⁽⁵³⁾. Eta goraintzi beilari guziera Hendaiaetik Alzumartaraino, Saliesetik Aldude-raino, nihor ez ahanzteko nihor izendatu gabe... oro Donaichtiko Gaz-tainen Phestan berritz ikusiko ditugulako esperantzarekin! Anhartean goraintzi berezi bat, haatik, hango jaun erretor onari!

Erromako beilariari...

Herriak bere mementoan zenbeit astez aipatu zituen berrehun eta hogoita bortz eskualdunek Napolin, Firenzan⁽⁵⁴⁾, Asisan⁽⁵⁵⁾ eta Erroman gaindi ibili zituzten urhatsak. Orduan erran ez zuena hau da, itzuli paregabe hura batasun osoan eta adichkidantza handiengan egin zuten beilariak, Saliesen, Puyoon eta Baionan elgarretarik berehtean, hitze-man zutela berritz eta aski laster elgar ikustea, Donaichtiko gaztain-phesta famatuan. Bada, phesta hori gainean dugu: urriaren zazpian, ilha-beteko lehen igandean egin beharra da. Eta chori batek salaturik bada-kigu phesta hortan deus ez dela eskas izanen! Gurekin Erroman ginuen Belleau Donaichtiko jaun erretor on bezen maitagarriak oro gogoan era-biliak ditu aspaldi, tiletetik tileterat oro jada chutik ezarriak: gaztainak bilduak, berechiak, zartainetan ezarriak, Donaichtiko arno churi arinena botoiletan prest, pertsulariak hautatuak (Mattin, Chalbador eta hobere-tan hoberenak), Erromako beilarien mahain berezia bere chokoan urhezko itze batzuekin finkatua. Chuberotarren, lapurtarren eta bache-

⁽⁵³⁾ H. emen.

⁽⁵⁴⁾ H. *Frenzan*.

⁽⁵⁵⁾ H. *Asian*.

nabartarren izenekin. Chemartin (bizarra ederkisko eginik jinen baita), Makeako auzaphez jauna, Alzumarteko jaun-andere esposatu berriak, Ezpeletako kantari maitagarriak, Albertine Fagoaga heiekin, Irisarriko bederatzi edo hamar gazte alegerak, Armendaritze Doneztirikoak, Uztaritzeko Luisita Heuty eta Lucie Duboscq bere iloba pollitarekin, andere Freville Azkainekoa bere lagunekin, mirakuilu batez arratoin⁽⁵⁶⁾ alimale batek Asisan jan ez zuen andere Carrau Hazparnekoa. Hazparnetik orobat andere Charritton, andere Negueloua eta Régine Larre, Pierre Uthurry Barkhotcheko dantzari famatua, andere Aguer Maniekkoa, andere Sallaberry Gerezietakoa bere anaiarekin, hainitz aphez eta, den gutieneko dudarik gabe, Erromako beila hain ongi gidatu zuen Narbaitz jaun kalonjea. Oro, hots! Oro, hango itzuliaz atseginekin mintzatzeko, hainbertze aldiz halako bihotz-pilpirarekin⁽⁵⁷⁾ ikusi ginuen Aitarren begitarte sainduaren berritz aiphatzeko. Aiphatzeko orobat Erromako edertasunak, katakonbak, Jondoni Petriren eliza espantagarria, aita jesuichten Ghezu famatua, han eta hemen egin gintuen irriak, Colisée hartako kantu, irrintzina eta jauziak, Chianti eta Freskati, Chemartini gapelua eta ileak eremaiter ziozkan basa-abere dena zango eta lepho zen hura, Asisako arratoina, Firenzako⁽⁵⁸⁾ chiminoa. Funtsean⁽⁵⁹⁾, chiminoa segur gurekin izanen da mahainean, arras ongi egoiten ikasi omen baitio Donaichtiko serora batek! Hoin esku ona dute serorek!

Erromako adichkideak, ez dezakegu urriaren zazpian⁽⁶⁰⁾ Donaichtiko jaun erretoraren phesta huts egin. Segur balioko du joaitea. Gure elgarretaratzea bere kantu ederrez alegeratuko du Maintenu jaunak eta menturaz Idiarregaray jaunak ere ba Asisan egin zaukun bezalako mintzaldi hunkigarri batekin, nun eta ez duten Mattin eta Chalbador per-tsulari kopetatuek arras lotsatzen! Bainan ez!

⁽⁵⁶⁾ Bi aldiz *garratoin* hitza dator.

⁽⁵⁷⁾ H. *bihotz-pilpirarekin*.

⁽⁵⁸⁾ H. *Frenzako*.

⁽⁵⁹⁾ H. *Fantsean*.

⁽⁶⁰⁾ H. Urriaren Zazpian.

Eta badakizue nor ikusiko dugun oraino Donaichtin? Nicole Baldet, Jondoni Petriren elizarat gure eskualdun kantuek bilarazi miarriztar neskatcha hura! Erromarat sehi joan zelarik ez zituen eskualdunak maite. Orai bai. Guriz⁽⁶¹⁾ Erroman ikusi gaituenak! Egin dezogun atsegin hori Donaichtiko jaun erretor onari ere ba.

Beraz, urriaren zazpia arte.

⁽⁶¹⁾ *Guriz* hitza hola ote da? Edo beste zerbaiten desitxuratzea?

ETIENNE PELLOT

Egundainotik hendaiarrek itsasturi fama handia ukhan dute: sekulan, haatik, ez dute hemezortzigarren mendean baino gorago helarazi beren omena. Nori esker? Hemen aiphatzerat goazen itsas-gerlari ozar eta harri-garri bati esker. Eskualdun gazteenetan ere nork ez du aiphatzen bederen aditu Etienne Pellot? Eskual Herrian ez da itsasturi handiagorik sortu hau baino: gutienetik lau zehez itzaltzen du Trafalgarreko gudu hits, bainan famatuan, hala bere burua ohoratu zuen Chirrug⁽¹⁾ dohakabea bera!

Etienne Pellot hunen arbasoak Biriatukoak zirela erraten dute liburu zahar guziek. Dudarik gabe lehenik arranoen ondotik mendi puntetan ibilirik, goiz batez itsasoko minak hartu zituen hek ere, eta arraintzarat joan ziren. Itsasoak hala beretu behar zituen nun Biriatu utzirik Hendaiarat ethorri baitziren egoterat, ur-lamen orro gaitzak hurbilagotik aditzeko. Horra nola sortu zen Hendaian Etienne Pellot 1765an, buruilaren lehenean.

Haur hotza zen oraino, aita itsasoan galdu zitzaioarik. Berenaz aski jite borthitz eta bihurrikoa, bichtan da ez zuela ondu aitaz gabetzeak. Larderia handia behar dute gisa hortako hurrek. Errana da nihork ez zezakela buru harekin: bere guntzetarik atherarazten⁽²⁾ zuen bereziki herriko erretor chaharra elizan! Ezin-egona sartua zuen jada. Bainan bihotzak jauzi egiten zion bereziki, nunbeit atabal edo musika zerbeit aditzen zuelarik...

⁽¹⁾ Halaxe dator Elissalderen testuan Mutrikuko Txurruka.

⁽²⁾ Ms. *atera-arazten*.

Hain chuchen, denbora hartan, Hendaiako gaztelu zaharrean soldadoak baziren eta soldado horiek musika bat aintzinean joaiten ziren igandetako mezarat. Pentsatzeko da ez zela Etienne Pellot baino haur jarraikiagorik soldadoen urhats guzieren. Elizan ere aldarean baino mai-zago landatzen zituen bere begi bichiak soldado lerroetako bospasei atabal ederretan! Hainbertzetaraino nun igande batez, bizpalau dichiduren ondotik, bi beharrondoko⁽³⁾ fin bildu baitzituen dohakabe gaichoak... erretorak emanik !!

Handiagokoen beldurrez, eguerditan ez zuen etcherat joan nahi izan. Soldadoeri jarraiki zen oraino, heiekin bazkaldu eta ilhuna arte jostatu. Gauari buruz etcherat itzultzeko erran ziotelarik, nigarrez hasi zen, eta bethi han egotea galdetu. Nork du soldadoek baino bihotz gehiago ichura guzien kontra? Aintzindari bat joan zen, beraz, haurraren etcherraino. Baietz ihardetsirik etchean, haurra berekin atchiki zuten handik goiti soldadoek eta altchatu. Zahartu eta zahartu ondoan ere itsas-gerlari famatuak ez omen zakien eskerrak nola bihur bere aita ordekoeri!

Gerlari ohiak ziren soldado horietan gutiz gehienak. Aise asma ditake, beraz, baten besoetarik bertzearen belhaunen gainerat, Etienne ttipiak zer ichtorioak aditu zituen goizetik arratserat eta ez da batere harritzeko odola su hutsa zuen haurrari errabia batek berehala hartu bazion bihotza gerlarat joateko. Ez zuen hainitz luzatu behar, nahiz ez zituen oraino hamahirur urthe baizik.

Hazilaren 19an, 1778an, Etienne Pellot gerlako untzi batean sartu zen, beraz, Baionan. *Marquise de Lafayette* deitzen zuten untzi bere hogoita hamar kanoiekin untzi eder bat zen ordukotz. Ederrenetarik naski. Angleseri jazarri behar zuen kausituko zituen gunean.

Bainan gerlan ere bethi hobe da zernahiren oro pisaturik egitea: ez da guziz bethi zuhurtzia azkarragoari jazartzea. Hola egin zukeen bere

⁽³⁾ Ms. Testu argitaratuan *beharrondo* dator, baina bere funtsean Elissalde *beharrondo* hitz argitaratuaren ondoren eskuz idatzirik *-ko* erantsi zion.

baitan gure untziko kapitainak anglesen bi untzi *Açores* ugarteari buruz ikusi zituelarik. Ez zitzaioten jazarri, eta beren bidean joan ziren anglesak, kanoikaldi batzuez itsasoa eta *Marquise-de-Lafayette* inharrosirik.

Handik laster eta eremu bertsuetan frantsesek buruz buru egin zuten *Incostante* deithu berrogoi kanoietako bertze angles untzi batekin. Kanoiak orroaz hasi ziren bi untzietarik. Frantsesa nausitzerat zoalarik, gaua ethorri zen eta anglesa ihesi joan. Etienne Pellot batere ez omen zuten hoinbertze kanoien orroek lotsatu. Jada bere lekhuaz zuen birika eta berehala orok ikusi zuten denborarekin zerbeit atherako zela holako choria!

Hainitz urrundu gabe, berrogoi chalupa handi kargatuak ikusi zituzten lerro-lerro Portugaleko portuerei buruz ari. Oi, zer eskukolpe ederraren mentura! Bainan nor eta nola irriska chalupa horiek zaintzen zituzten bortz untzi ikharagarrien kontra? Gauak eta itsasoaren hasarreak lagundurik, irriskatu ziren halere eta chalupetan kargatuena bereturik ihesari eman, atchatcho!

Irlandari buruz zoazilarik gerochago, bidean bertze eskukolpe pollit baten egiteko padara ethorririk, ez zuten galdu: bi etsai-untzi biphildu zituzten eta biphilduak Bordelerat igorri.

Aldi batentzat aski lan eginik bazutela iduriturik orduan kapitain eta orori, *Marquise de Lafayette* itzuli zen berritz Frantziarat.

Adin hortan eta holako irriskueta, mirakuilu othe da Etienne Pellot ez bazen berehala lotsatu edo bederen itsasoaz ase? Hameka badire gutiagorekin asetzen direnak. Bainan iduri du, choria aireko egina den bezala, Pellot itsasoan ibiltzeko eta hango eremuetan egintza harrigarrienen egiteko sortua eta egina zela. Ez zen lotsatu: gehiago bere chedetan finkatu bakharririk.

Bada, urthe bat iraganik irauin zuten ibilaldi eta gudu horietan, ederririk ikusi zuen haurrak! Kolpatua⁽⁴⁾ ere izatu zen behin. Bainan zer dire

⁽⁴⁾ Ms. *kopatua*.

nekhe eta kolpeak bihotzaren errotik heldu den deiaren kontra? Eta gai-cho maiteari gero eta gehiago oihuka ari zitzaion itsasoa! Itsasoa oihuka! Ez dakiteneri niholaz ez ditake erran zer den oihu hori! Bai, itsasoa oihuka! Ihardetsi nahi zion segurki haurrak. Eta hobeki ihardesteko, lehen hain aise uzten zituen liburueri lothu zen. Hamalau urthetan ikasten hasi!

Jada bazakien bere gostuz, edo menturaz frogatu zutenek erranik, deusik ez dakiena ez ditakeela urrun joan, nahi duen bezenbat itzulikatuturik ere laster behaztopatuko dela. Ikhastea on baino hobe dela...

Hirur urthez gehiago ez ditu begiak liburuetarik altchatuko, doidoiako itzuli baten itsasoan egiteko baizik. Alde batetik ur gaziaren gostua ez zuen arras ezpainetarik galdu nahi, eta bertzetik Dalbarade kapitainak bere untzian chokho bat eskaintzen zuelarik, nork erran zezoken ezetz? Bere begi chorrotchekin hendaiarrak jada argi eta garbiki ikusten zuen egun batez behar zitakeela Dalbarade bezalako gizon batez. Doidoiako itzuli hori *Aigle* deithu untzian egin zuen, eta ipharraldeko itsasoan. Erran gabe doa eskuak ederki betheak itzuli zirela herrirat Dalbarade eta bere marinelak...

Bainan orain arte egin dituen bi itzuliak, Pellotentzat ez dire apeti-tuaren idekitzeko hartzen diren edarichka hek bezala baizik. Arno onekin egiten den aphairua gerochoago hasi behar zuen: 1782an, *Fier* deithu untzian. Dalbarade bera nausi, hamazazpi urtheetan.

Nihun ez dute berriek itsasoan bezen laster bidea egiten: trabarik ez dute, alabainan. Itsasturi guziek jada bazakiten, beraz, Etienne Pellot hendaiar gazteak bere jakitate handi eta jite ezin lotsatuarekin aintzindari paregabe baten gela bazuela; eta Dalbarade kapitainak hori bazakien nihork baino hobeki. Horra zertako gogotik berekin hartu zuen hendaiarra, hunek itsasoan ibiltzea berritz deliberatu zueneko. Jada errana dugun bezala, *Fier* deithu untzian sartu zen Etienne Pellot.

Urrun joan beharra zen untzi hori: Indietarat. Suffren aintzindari guzietan famatuenaren ganat. Bizpahirur aldiz trabatu nahi izan zuten anglesek bere bidean, guziz Bengaleko lurraren parrean. Debaldetan.

Pellot bezalako gerlari batzuen kontra deus ez zuten egitekorik eta aldi bakhotch ederrak harturik gelditu ziren! Dalbaradek ez zuen ondoko egunetan aski espantu egiten ahal Suffreni Pellot bere herritar gazteaz eta Suffrenek gain-gainetik goretsi zuen hau. Haste ona bere bizia itsasoan higatu nahi zuen gaztearentzat!

Hainbertzenarekin anglesek bakea eginik frantsesekin, untziek hartu zuten herriko bidea eta *Fier* itzuli zen Lorient delako porturat. Hogoita hirur ilhabete zuen itsasoan zabilala.

Eskualdunak ez zuen denborarik galdu portu hortako karrketan eta biharamunean berean balea arraintzarat abian zen untzi ttarro batean sartua zen. Ondikotz, untzi horrek ez zuen alderdi onik ukhan eta zerbeit egunen buruan Islandako uretan galdu zen! Nunbeitik, handik ere osorik atheratu zen Pellot eta lurra bezen ilhun Hendaiarat itzuli!

Ez baitzen geldirik eta besoak gurutzaturik dagozken gizon hetarik, aise asma ditake zenbeit denboraz zer odol gaichtoak egin zituen Hendaian! Ardura itsas-hegiko harroka baten puntan zitakeen, begiak itsasoan landatuak !...

Bainan egun handiak hurbiltzen ari zitzaizkon: gerlate luze bat gainean Erreboluzione eta Buonaparte famatuarekin!

Bordelen 1793an gerlako untzi eder bat egin zuten hogoita bi kanoiekin eta untzi hura *Général Dumoriez* bathaiatu, prusianoak Valmy deithu herrichkan garhaitu zituen aintzindari handiaren orhoitzapenetan. Untzi berri hortako aintzindari gehien-gehienak, oro ez bada, Eskual Herritik hartu zituzten; lehen kapitain, Dihinz donibandarra; bigarren kapitain, Dufourcq ziburutarra; lehen lotinant, Etienne Pellot. Bichtan da aintzindari horiek araberako marinelak hautatu zituztela, eta otsailaren 15ean *Général Dumouriez* atheratu zen portutik nun zer kausituko zuen. Zenbeit egunen buruko, Ameriketarik heldu zen untzi bat bahitua zuen, leihorretik hainitz urrundu gabe. Bainan hor ez zela deus handirik egiteko ikusirik, eta guziz nolazpeit ikasirik untzi handi bat bazela, *Santiago de Chili* zerizana, Ameriketarik diruz kargatua ethortzekoa, Açores ugartetako bidea hartu zuten itsas-gerlariak, haizea bezala

harat heldu eta barrandan eman. Ekhnaren 24an agertu zitzaioten *Santiago de Chili* bere berrogoi kanoiak ageri, eta orroaz hasteko prest. Horrengatik Dihinx kapitainak eta marinel gehienek lorietan hasiko zuten gudua. Ez zioten erhokeria hori egiterat utzi Pellotek eta jukutriaz jokatzeari hobe zutela orori buruan sarrarazirik, beren kanoiak zerbeitez estali zituzten lehenik eta urruntzerat bezala egin. *Santiago de Chili* hurbildu zitzaioten orduan, deusez suspichtu gabe. Hori bera pentsatua zuen Pellotek. Eskualdunek jauzi egin zuten bertze untzirat eta, haizkorakaldika espainolak phorroskaturik, denez jabetu. Ondikotz, Pellot kolpatua zen, eta handizki kolpatua! Haren fama orotarar heldu zen halere eta handik goiti lurreraino agur egiten zioten ikusten zuten guziek!

Eskualduneri ez zitzaizkoten hainitz baliatu *Santiago de Chili* hartan hatcheman 24 miliunak. Etcherat heldu zirelarik, angleesen hamar bat gerlako untzi alimalek khendu ziozkaten, nahi bazuten eta ez... eta berak ere Angleterrerat preso ereman!

Pellot preso! Lehoina kaiolan! Higitu gabe egon zen, haatik... sendatu arte. Holako gizon prestuari nor ez zen fidatuko? Anglesek eman ziozkaten, beraz, nahi zituen baimen eta paper guziak kanporat egunean oren pare batez atheratzeko, nahi bazuen itsas-hegiko aire bichiaren hartzerat joaiteko ere. Orobat artetan mainhartzeko. Noizetik noizerat itsas ondoan kontrabandicht batzu kausiturik, heiekin adichkidetu zen eta nolazpeit ardietsi zuen, lausenguz eta mehatchuz, behin kontrabandarar berenkin ereman zezaten! Ondoko gauean... Frantzian zen!

Bi jauziz Parisen zen Dalbarade amiralaren —ezen artean amiraldua zen Dalbarade— etchean. Dalbaradek uste zuen Pellot ez zuela ikusiko gehiago.

Nola besarkatu zuen! Paperak erreberritu ziozkan eta, bidean egiteko mandatu batzu fidaturik, etcherat zenbeit denborarentzat igorri, ongi pausa zadin. Bainan herria nahasia zen eta Pellot ez zen aise heldu Eskual Herrirat. Gutik egin omen zuen bizia ez baitzuen galdu Bordeleko inguruetan! “Orduan hasi zitzauzkitan buruko ileak zuritzen!”

zuen erraten denboraren buruan egun eta oren lazgarri hetaz mintzatzen zitzaizkoteneri...

Ongitzen hasi zeneko Dalbaradek hitz bat igorri zion eta *Suffisante* gerlako untzian liotinantgoko bat eskaini.

1795an ekhainaren lehen egunetan joan zen etchetik Pellot eta hogoiean sartu delako untzian. Liburuek ez dute aski espantu Hollandako uretan angles untzietan eskualdunak egin ziozkaten jukutriez. Baina Pellot ez zen gerlako untzietan bizitzeko egina: gatherik ez zuen behar, eskuak libro nahi zituen... nahi zuenari nahi zuen bezala lotzeko! Itsas-gerlari bezen itsas-ohoin zen odolez! Erdarak hitz batez erraten du hori: corsaire. Gerlako untziak uztea galdetu zuen, beraz, eta ardietsi. Hain maite zuen Dalbaradek, behinere deusetan ez zion⁽⁵⁾ ezetz erranen!

1796an, buruilaren 2an *Coro* untzia Espainiari buruz abiatu zelarik, Larreguy Donibanekoa kapitain, Pellot han zen liotinant bezala. Laster bahitu zuten portuges untzi bat. Kapitainak Pellot kargatu zuen untzi bahitua ereman zezan Galiziako portu batetarar. Ereman zuen chuchen, baina portuan sartu zelarik, Gregorio de Silva hiriko buruzagiak Pellot preso hartu zuen. Presondegirat zoalarik, bere marineletarik bat karrika bazterrean ikusirik, Pellotek oihu egin zion... eskuaraz⁽⁶⁾ joaiteko lasterka handik eta portuan prest egoteko chalupa batekin, oren erdi bat gabe han zela! Hala-hala gertatu zen. Nola? Ori, arras aise! Egarri zela ostatu batean sartu zen Pellot, bere zaintzaleak ondolik: edaten hasi zen, zaintzaleak ere ba: ichtanteko mozkorrarazi zituen... eta eskapatu!

Hortarik ageri da Pellot bihotz handiko gizona balin bazen, deusek lotsa ez detzakken hetarik, zazpi izpiritu bazituela denbora berean. Jikutriaz hainitz lan handiagoak egin ditu indarka baino. Geroak hobeki erakutsiko dauku oraino. Untzi handiez aseko da, gerlako untziez ase den

⁽⁵⁾ Ms. Elizalde testu argitaratuaren kopian eskuz idatzi zuen *etzion*.

⁽⁶⁾ Ms. Jatorrizko testuan *eskuaraz* hitzaren ondoan puntua dator.

bezala, eta hemendik goiti hein bateko untzietan ikusiko dugu bakharrik. Nausi bakhar, haatik! Ez meneko. Hain chuchen holako kapitain baten bilha zabilan Labrouche Baionakoa. *Flibustier* bere unziaren manatzeko. Laster elgar aditu zuten bi gizonak, eta Pellot unzian sartu zen 1797an, agorrilaren 8an, berrogoi marinel eskualdunekin. Zortzi kanoi eta berrogoi eskualdunekin zer lanak ez ditazke egin?

Portugaleko itsasoan gelditu ziren gure eskualdunak nundik zer agertuko zitzaieten. Zenbeit egunen buruan bela batzu ikusirik urrunerat, unzi hari buruz abiatu ziren. Untzi angles bat zen... hamasei kanoiekin. Jabetzeko, nahietaz gainerat jauzi egin behar zitzaion, kanoiaz nausi zenaz geroz. Ez zuen dudatu hendaiarrak. Haizea bezala anglesari hurbildurik haizkorak eskuan, eskualdunek jauzi egin zuten utzi batetik bertzerat eta etsaiari amor emanarazi, gogo onez edo bortchaz. Zer irrintzinak orduantche!

Biharamunean irrintzinak sartu ziren, haatik, *Belliqueuse* angles gerlako unzi handia nausitu baitzitzaieten! Horra, beraz, Pellot berritz preso Angleterran...

Aldi huntan ere choria kaiolatik espakatuko da. Nola? Ichtorioak cheheki kondatzea merezi du, gizon harek zazpi izpiritu bazituela orai arte sinhetsi ez dutenek ere sinhets dezaten.

Gaztelu zahar batean ezarri zuten preso. Untziko lagun guziak han zituen berekin... Zernahi zaintzale bazuten. Chokho guziak baino berezikiago zaindua zen halere gazteluko sarjalgü⁽⁷⁾ bakharra, gathe lodi batzuekin altchatzen eta jausten zen zubi bat.

Eskualdunak aire pichka baten hartzerat erematen zituztelarik baratze handi betetarat hango murru ikharagarriek gehiago lazten baizik ez zituzten gizagaizoak. Ez, ez zen handik atheratzerik. Pellot ari zen bakharrik irriz, kantuz eta jauzika, Orhiko choria Orhin bezen arin. Zertako? Leiho batean noiznahi emazte pollit bat ikusten baitzuen, eta, berea gogoan, hura ohartarazi nahi baitzuen zer gizon ederra zen eta zer

⁽⁷⁾ Ms. Hitz hau, Zuberoako euskaraz, Elissaldek bere eskuz idatzia.

omere onekoa. Begia eta bihotza jo nahi ziozkan, hots! Hala-hala gertatu zen eta gazteluko zaintzale nausiaren emazteak —hura baitzen delako jokoan— galdetu zuen gizon bitchi hura bere egoitzarat irriz ase baten egiteko. Bai, ase zela irriz egun hartan Pellot debruaren ziminoke-riekin!

Ondoko egunetan ere joanarazi zuen oraino, adichkide batzuek ikus zezaten. Erran ditake ilhabete baten buruko inguruetakoa emazte eta haur guzien jostagailua zela Pellot. Etchekotu zen arras: arrunt choratua zuen zaintzale nausiaren emazte gaichoa. Funtsean, bertze angles emazte guziak ere ba! Eta horra nun egun batez erraiten dioten baduela heientzat moldatua jostagailu bat bitchia baino bitchiago, hilak ere phitzaraz letzazkena. Bakharrik jauntzi berezi bat behar luke.

—Nolakoa?

—Ahal bezen ederra. Aintzindari handi-handi batena litake gisenik, bainan haren faltan gazteluko zaintzale nausiarena ere ez litake gaizki...

—Bai, hura aise ukhanen duzu! Bihar berean nahi baduzu!

—Bihar arte, beraz, andere pollit eta maitagarriak.

Biharamunean, zaintzale nausiaren jauntzi ederra soinean, zapatetarik chapeleko lumetaraino, ez da Pellotek egin ez zuen erhokeriarik. Jada lurrerat eroriak zauden irriz emazte ergelak.

—Orai, andereak, emadazue bortz minuten ephea handiagokoak ikusi eta adituko ditutzue oraino. Bainan hortakotz aldatu behar dut. Agur.

Bainan aldatzerat joateko orde, bi jauziz Pellot badoa kanporat deraman zubi hartarat. Ilhunbean zaintzaleak uste nausia dutela han, zubia jautsarazten dute... eta Pellot iragaiterat uzten.

Bortz minuta joan ziren eta hamar ere ba, emazteak deusez suspichtu gabe. Duda bat ethorri zitzaioteneko, gau beltzaren gatik harasko joana zen eskualduna. Gibelaldean hala su duenak, laster egiten du bidea. Eta argia gabe Folkestoneko portuan zen, aspaldi ezagutzen zuen frantses baten etchean. Lo? Ez dugu pentsatzen. Izaitekotz, erbiak bezala, begi batez.

Egun-lerro bat egon zen Folkestonen, egunaz gordea, gauaz harat-hunat untzi bat noiz ikusiko zuen hartan Frantziarat sartzeko.

Badakigu, haatik, anhartean Beljikatik harat ethorri andere gazte bat jeneral angles baten aztaparretarik atheratu zuela. Andereari berehala gizon-jauntzi batzu emanarazi ziozkan, ez zezaketen ezagut. Hunekin nun zer ikusiko zuen zabilan gau batez, huna nun lau marinela angles buruz buru egiten dituzten edanskoak, edanskoak edo hobeki errateko, edanak. Ez segurki lurrerat erortzeko heinean, baina zenzua galduchea! Beren kapitainaren kontra mintzo ziren marinela eta elhe guzietarik ageri zuten edozoin tzarkeriaren egiteko prest zirela. Ez zuen bertzerik behar eskualdunak. Untziska bat bazuen portuan begiztatua, lau lagun horiekin aise ibilaraz zezaken. Hurbiltzen zaiote, beraz, lau mozkorreri.

—Norat zoazte hola, adichkideak?

—Gure kapitain tzarraren menetik ihesi.

—Hain chuchen nihaurek lau lagun eskasa banuke hortche dutan untzi batekin Frantziarat joateko. Funtsean ez da enea: jaun gazte hunena da. Nahuzue gurekin ethorri? Ez zaizue urrikituko: jauregi eder baten bethe urhe badu...

Anglesek ihardesten dute baietz eta berehala chalupa bat hurbilaziririk, hartan sarrarazten ditu, bertze gogoetarik egiterat utzi gabe. Anderea ere erhi-puntteaz laguntzen, eta bera ere sartzan. Hamar arraba kolpez, Pellot, anderea eta gure mozkorrak han ziren untziskaren ondoran... eta gero untziskan. Emak hor, Pellot!

Orok pentsatzen dute gaineratekoa. Goizeko argian portuan ohartu zirelarik untziska ez zela gehiago han, nihork ez zuen dudatu Pelloten jokia zutela. Untzi handienak itsaso zabalerat joan ziren haizea bezala, eta gero Frantziako uretaraino. Pellot ez zuten bildu. Pellot lorios Dunkerkeko portuan sartu zen, irria eta kantua ezpainenat!

Andere gaztea berehala igorri zuen Beljikat, emazte-jauntzi batzu emanik... eta mozkorreri, oro ziren bezala erranik, untzia utzi zioten berentzat, deabruak zeramatzala nahi bazuen! Pausatzearen beharra baitzuen, bera ethorri zen Hendaia...

Eta orai gure irakurtzaileek nahi dute jakin zer bilhakatu zen Beljikako andere gaztea? Handik zenbeit denboren buruan, komentuan sartu zen.

Egundaino ez omen zuen eskualdunak ahantzi beljikanoa ez eta beljikanoak eskualduna. Noizetik noizerat berriak gurutzatzen omen zituzten, zahartu-eta ere. Eta, mila irriskutarik⁽⁸⁾ mirakuiluzki atheratu baita Pellot, nork daki ez duten komentu hartan egin othoitzek salbatu?

Pellot Hendaiarat heldu gabe, Frantzia guzian berria hedatua zen berritz ere angleseri espakatu zitzaioletela. Zer irri-karkarak egin ahal ziren Eskual Herriko supazter batzuetan!

Nork ukhatuko du orai zazpi izpiritu bazituela holako gizonak? Nork, birikak bere lekhuaz zituela?

Pellot ez zen ongi itsasoan baizik, leihorreko aireak kalte egiten bidezion: ez zuen, beraz, hezur zaharrik egin Hendaiako karrketan. *Deux-Amis* untzia manatzea norbeitek eskainirik, den gutienik dudatu gabe hartu zuen bere hamabi kanoi eta hiruetan hogoita bortz marinelekin. Agorrilaren laua zen, 1798garren urthea.

Chirulari bat ere chirula eta ttuntunarekin untzian berekin ereman zuela aldi huntan da errana, oren gaichtoetan dantza motchen ematen marinela alegeratzeko. Baditake: Pellot bezalako norbeitekin deusek ez gaitu harritu behar!

Udazkeneko egun gocho eta ederrek handizki lagundu zuten gure itsasturi bihoziduna: bortz untzi portuges beretu zituen denbora laburrik barne. Ondikotz, abendoari buruz itsasoa arras hasarretu zen eta eskualdunak ez ziren nahi baino lasterrago itzuli herrirat. Aro tzarra sentitu duteneko ainhara maiteak ere hala-hala joaiten dire beren eremuetarat!

Hain chuchen untzi berri handi eta eder bat Bordelen egiten ari zuten hogoita zenbeit kanoiekin. Pelloti galdetu zioten bigarren kapitain bezala hortan sartzea. Nahiz jada badakigun gure hendaiarrak ez

⁽⁸⁾ Ms. *irriskaturik*. Hutsa izan behar du.

zituela holako untzi handiak maite, *Bordelais* horrek tentatu zuen halere eta martchoaren 20an berritz itsasoan zabilan nun zer ikusiko eta bahituko zuen. Hastean oro ongi joan zitzaizkoten eta laster lau untziska anglesek eskual portuetako bidea hartu behar izan zuten, Angleterrekoa utzirik: kukuak makhur jo zioten, haatik, gerochago, eta, nahietaez, amor eman zioten ilhuntze batez alimalezko angles untzi bati. Pellot bere lagunekin joan zen berritz Angleterreko presondegien ikusterat... eta gozatzerat urarte lohiz inguratu batzuetan. Handik ihes egin nahi zutenek lephoraino lohian sartu behar zuten eta han itho. Hala galdu zen, bertze askoren artean, maréchal Harispe famatuaren anaia gazteena. Pelloten kontseilueri ez zioten behatu nahi izan.

Bada, aise sinhetsiko duzue Pellot berak⁽⁹⁾ ere ez zuela Angleterran zahartu nahi ez eta han zahartzeko chederik! Gordeka lanean hasi zen laster, taulazko abarka luze berezi batzuen egiten, heiekin aiphatu eremu lohitsuaren iragaiteko. Eta hala iragan zituen gau beltz batez, “ez aise segurki, bainan Jainkoak ongi lagundurik!” berak gerochago erraten omen zuen bezala.

Halabeharra! Dublineko portuan untzi bat bazen Portugalerat abian zena eta marinel choil bezala hartan sartzen ahal izan zen Pellot. Ez ahal zuen, haatik, hainitz salatu nor zen! Portugaleko lurra Porton hunkitu zueneko, Pellot joan zen saltegi batetarat eta han beilari jauntzi bat erosi Compostellerat joaiteko. Ez zen Compostellen hainitz gelditu eta horra zertako hendaiarrak handik laster makhila bat eskuan eta chahakoa bizkarrean ikusten ahal izan zuten elizako karrikari gora heldu. Zer irriak egin ziozkaten batzuek, bainan ere zer musuak eman ziozkaten segur... oraino Angleterran zela uste zuten ahaide guziek! Norbeit harrituko othe da, Hendaian zangoa pausatu zueneko, Pellotek berriz juramentu egin bazuen sekulan ez zutela hura ikusiko gehiago untzi handi batean itsasoari lotzen? Hitza atchiki du.

⁽⁹⁾ Ez ote luke behar, ipse izanik, *Pellotek berak* behar?

Ondoko neguetarik batez *Retour* hamar kanoietako untzian kausitzen dugu berrogoita sei marinelekin. Untzi angles bat ikusi zuen eta, erran gabe doa, bahitu. Kontrabandicht batzu ziren anglesak. Untziaren jabea ez bide zen urhean iheri bizi: nigarrez hasi zen, Pellotek bahitu zueneko. Zertako ari zen hola nigarrez eskualdunak galdeturik, ihardetsi zion bere haurraren gatik egiten zuela nigar, jatekorik ez zutela gehiago ukhanen. Elheak elhea dakhar. Bi gizonak luzez mintzatu ziren elgarrekin eta Pellot ez zen guti harritu behin nigar egile horren anaiak atheratu zuela anglesen aztaparretarik ikastearekin.

—Nik orai zure bidean uzten bazintut zure untziarekin, hitzeman zinezake sekulan ez duzula ahantziko?

—Gogotik!

—Eta sekulan zutaz behartzen banintz, zure gainean kondatzen ahalko nuke?

—Bai, kondatzen ahalko zinuke, ni hementchet zure aintzinean naitzen bezen segur!

—Nola duzu izena?

—Wilson...

—Wilson, zoazi, beraz, zure bidean, eta bethi orhoit zaite Pellot eskualdunak baduela nornahik bezenbat bihotz! Agur, eta ibil zaite ongi...

Joan zen Wilson, bertze makhurrik gabe Angleterrerat heldu eta egun batez, gerochago ikusiko dugun bezala, Pelloti eman hitza atchiki. Mendiek ez dute elgar atchematen, itsasturiek, ba.

Hainbertzenarekin Amienseko hirirat bildu ziren gerlarien mandatarriak eta bakea egin zuten. Pellot itzuli zen, beraz, Hendaiarat. Orduan ikusi othe zuen lehen aldikotz Marie Larroulet, Urruñako neskatcha guzietan eder eta maitagarriena, eta choratu? Ez dakigu. Dakiguna da bakharrrik handik laster Urruñako elizan erretor zahar batek elgarri lothu zituela Etienne Pellot eta Marie Larroulet deusek hauts ez dezaken ezkontzako lokharriaz, eta berrogoi urthez deusek ez duela goibeldu ezkontza eguneko zeru urdina!

Ondikotz, gerla berritz hasterat zoan eta Pellotek ez zezaken kanoien orroa itsasoan entzun, bihotzak jauzi egin gabe! Handik eta hemendik hiruetan hogoita hamar gizon bildu zituen eta *Général-Augereau* hamabi kanoietako untzian itsaso zabalerat joan. Behar zen segurik kopeta harat menturatzeko, baina jada, ikusiak ikusirik, badakigu Pellotek kopeta guziak bazituela!

Ez da Pellot urhatsez urhats segitzen ahal bere harat-hunatetan: sobera ibili da eta sobera egin du *Général-Augereau* hortan ere. Huna 1804garren urthean, buruilaren 4ean, Augereau marechalak igortzen zion hitz bat: ikusi nahi ez dutenak berak argituko ditu hitz horrek:

Pellot kapitainari,

Egin dituzunek ez bazaituzte aberastu, bederen zure fama handitu dute, eta segur bide eginaraziko dautzute ondoko egunetan. Nik hitzematzen dautzut. Enperadoreak zu bezalako gizon bihozduak maite ditu. Senda zaite laster kolpe horietarik. Ondoko egunetan badukezu oraino zeri loth...

Augereau.

Beraz, kolpatua zen Pellot. Beroak zauriak gaichtaturik, gutik egin zuen ez baitzen hortan hil. Ez. Herriko miriku hoberenak bildurik, artatu zuten. Baina ichter baten moztea aipatu ziotelarik, laster etchea hutsarazi omen zioten, haatik... kanibet handi bat eskuetan harturik!... Baionako eritegian egon zen behin, gero Teraseko uretan, eta sendatua etcherat itzuli, begi bat gutiagorekin, segurki, baina bethi itsasoaren amodio berarekin...

Bere kolpetarik arras sendatu gabe, leihorrean erroak ez egiteko, ichtanteko huna Pellot berritz itsasoan: *Retour* du manatu behar duen untziak izena. Untzi pollit bat, itsaskari ona. Alderdi tzar gehienak ukhan behar zituen, haatik, harekin hendaiarrak.

Lehenik denbora frango galdu zuen Espainiako portuetan, itsasoan arras gaichto zelakotz. Gero, doi-doia bi untzi ttipi bahitu orduko, Vigoko aintzinean lanhoek inguratu zuten untzia. Ez zen zuhurtzia izanen higitzea. Han berean egon ziren, beraz, zonbeit egun, baina lanhoak barriatu zirenean, Pellotek bi gerlako untzi etsai gainean bazituen.

Zer egin? Espaka? Ez zen espakatzerik. Etsaieri jazar? Hainitz azkarrago ziren. Pellotek, gizonik behar gabe eta debaldetan ez hilarazteko, amor eman zuen, beraz, berehala eta hiruzpalaugarren aldikotz angles presondegietakoko bidea hartu.

Corek deithu portuan zangoa pausatu zuelarik itsas-ohoin guzietan famatuenak, mundu bat jada bazen harat bildua, chimichta bezala berria orotarat hedaturik. Burua apha! joan zen behatzailen artean Pellot, “arte batean hartua den acheria bezen ilhun”, dio berak.

Gure irakurtzaileek Pellot aski ezagutzen dute orai pentsatzeko aldi huntan ere ez zela Anglaterreko lurretan hainitz egon. Batere ez zuen denborarik galdu kanporat atheratzeko baimenaren beha: galdetu gabe hartu zuen. Gau batez zaldi edanarazteko aska batzuetaraino joan zen, gibelka kurrituz, ondotik abiatuko zirenak engana ziten arrasto horiekin; han oinetakoak khendu zituen eta, Dublin jada ezagutzen baitzuen, harat buruz zango puntten gainean espakatu. Ondikotz, bidean sukhar gaichto batzuek harturik, Wateford hirian gelditu behar izan zuen. Bi egunen buruan han atcheman zuten, ez atseginik gabe, angles jandarma batzuek.

Berritz preso, bertze ihes egiteko molde baten asmatzen hasi zen eskualdun debrua, eta laster asmatu zuen. Harat ethorri aza-saltzaile gaizo bat zerbeit gisaz bildurik, haren zakhuetarik batean sartu zen eta hola, bertze aza-zakhuen artean, Kilmaloeraino joan. Handik egundaino bezala oinez abiatu zen Dublineri buruz. Ez zuen heldu behar oraino: ondotik atcheman zuten bilhariek.

Holako gizonak ez du aise etsitzen. Egia erran, etsitzen balu, ez litake holako gizona! Beraz, ondoko gauean berean, ez dakigu nola zahagi bat airez betherik, ogi beltz handi bat bizkarrean estekaturik, Pellot presondegiaren aldetik zoan erreka handian sartu zen, eta, erreka hori aski lasterra baitzen, argia gabe zahagiaren gainean, kasik chukho, itsasorat heldu. Nihor ohartu gabe estekan zagon chalupa bat hartu zuen eta, arrabek eman ahala, itsaso zabalarri buruz abiatu. Harasko joana zen... untzi angles batetarik itsasturi batzuek ezagutu zutelarik. Handik laster Pellot berriz jandarma batzuen eskuetan zen Plymoutheko portuan!

Zenbeitek nahiko zuten berehala gathez kargaturik lurpeko presondegi batean ezarri, handik bederen ez zela sorgin bat bezala suntsituko: bainan Pellot sobera fama handiko gizona zen holako presondegi batean ezartzeko. Bertzalde, Adam Saimler delako kapitain urgulutsu batek bere gain hartu zuen eskualdunaren zaintzea. Eta Pellot etzuten lurpean ezarri!

Ez zezaken, haatik, handik goiti ez eskuin ez ezker urhats bat egin Saimler kapitaina gibeletik baizik. Ez gaitzituarena egiten zuen Pellotek. Gehiago dena, aski maltzurkeria bazuen anglesari begitarte ona egiteko... eta polliki mintzatzeko. Hendaiarrak debrua bere zakhuan sartuko zuen bere elhe ederrenekin. Ez da, beraz, batere harritzeko arras adichkidetu zirela Saimler eta Pellot. Noiznahi ostatuan sartzen ziren eta trago bat edateko!

Adichkideago, eta Saimler fidago zen Pellot ez zela espakatuko. Behinere ez bazuen arras begietarik galtzen, bederen urruntchagotik jarraitzen zitzaion eta hola eskualduna harekin edo hunekin mintza zitaken. Horra nola ikasi zuen nun bizi zen Wilson, bertze orduz libro utzi zuen aita familiako kontrabandicht hura. Erran gabe doa biharamunean berean hitz bat ichilka igorri ziola Wilsonnek berehala ihardetsi zion osoki haren zerbitzuko zela eta baldin Saimlerren aztaparretarik atheratzen bazen, bere untzian lorieta eremanen zuela Frantziarat. Jauntzi batzu eta sos puska bat ere helarazi ziozkan.

Horiekin hogoita hameka eta eskua bazituen Pellotek: partida laster irabazi zuen. Saimler mozkorrarazi ondoan erhauts berezi batekin lokhartarazirik, bi jauziz joan zen Wilsonen ganat eta haren untzian zenbeit egun gerochago Morlain derizan portuan sartu.

Bainan horra nun hiri hortan anglesak arras kechu direla aditzen duen, baizik eta Saimler pozoinatu duela. Gehiago dena, ikusten du juje anglesek jujatu dutela eta hiltzerat kondenatu. Badaki, beraz, anglesek sekulan gehiago itsasoan atchemaiten badute, harenak egin duela. Ez du dudatzen: ez bat eta ez biga, Angleterrerat itzultzen da eta Plymoutheko juje nausiaren aintzinean agertzen, kopeta gora, harek ez duela egundaino ez Saimler ez bertzerik pozoinatu, haren kontra ekharri jujamendua

zuzen kontrakoa dela, zerua eta lurra higituko baditu ere frogatuko duela haren eskuak garbi direla. Eta holako.

Lanean zen Plymoutheko juje nausia. Pellot libratuz, ez othe zuen gaizki jujatu izan zela frogatzen? Berritz preso sartuz, ez othe zitzaizkon hainitz herritar kontra altchatuko? Oro haren gain uzteko erranik, harek churituko zituela, Pellot ichil-ichila igorri zuen Frantziarat. Horra nola han kausitzen dugun, beraz, berritz Morlaixen, 1806eko apherilean.

Han aditurik Villeneuve amirala zenbeit egun gorabehera jujatu beharra zela Trafalgarreko itsas-gudu famatua galdurik anglesen kontra, Pellot joan zitzaion ikusterat eta bere laguntza eskaini erresumaz kanpo ihes egiteko. Bainan biharamunean Villeuneuve hila atcheman zuten bere zerbitzariak, kanibet handi bat hertzetan barna sartua. Nork eta nola? Hori ez da egundaino ongi churitu.

Dena dela, Pellot berriz itzuli zen Hendaia: pausatzearen beharra bazuen. Berrogoi urthez goiti zoan batetik, eta ukhan kolpetarik noiz-nahi zernahi ikusten zuen bertzetik.

Bederatzi ilhabete handi egon zen etchetik kasik higitu gabe. Arras pizkortua zen, beraz, *Eve* manatzeko eman ziotelarik, 1807an, otsailaren 16an. Bainan Pellot ez dugu segituko untzi horrekin eta *Prince-de-Newchatel* delakoan ibili zituen urhatsetan. Jada bertze untzi guziekin erran ditugunak errepikatu behar gintuzke. Bethi beretik janez asperetzen da. Bi hitzez erran dezagun bakharrik denbora ez zuela galdu Hendaia eta sos frango ekharri edo igorri omen zuela etcherat.

* * *

Mila zortziehun eta hamabigarren urthea dugu, otsailaren hamabia. Aro pollit bat *Général Darnagnac* abiatzen da itsaso zabalari buruz. Zortzi kanoi eta berrogoita bortz gizonekin, oihaneko zeï hoberenez egina, haizea bera bezen arin eta zalhu, eta horien gainerat Etienne Pellot kapitain, nola ez du zerbeit eginen untzi batek?

Gijoneko portuaren aintzinean eman zen barrandan *Général-Darnagnac*, harroka handi batzuen giblean. Pellotek nunbeitik bazakien handik

iragan beharra zela *Nuestra Señora-de-Begoña* jatekoz, arnoz, sendagailuz eta diruz bethea. Nola utz espakatzerat holako ihizia?

Ez zitzaieten nahi baino lehenago agertu: zenbeit egunen buruan baxharrik. Berak nihundik ez zioten buru egiten ahal: bahitzen errech izanen zen segurki. Bainan zaintzeko gibeletik baitzuen angles gerlari bat. Zer egin, beraz?

Ilhuntchea zen, beharrik. Pellot *Begoñari* hurbildu zitzaion, beraz, itsas-gidari bat zela eta harek sarraraziko zuela portuan. Lehenik portuko alderat abiatu zen Pellot egiazki, angleseri erhautsa begietarat emateko; bainan aski emeki gauak bidean har zezan. Arras ilhundu zenean portuko bidea utzi zuen... eta Baionakoa hartu!

Ondikotz, haize kontrakoak altchaturik bet-betan, Pellotek arras bide guti egin zuen zenbeit orenez segurki katichiman kausitzen ez diren juramentu eta arnegu guzien gatik. Beraz, argiak itsasoa berritz hartzen hasi zuelarik, *Begoña* gehiago ez zuela han ohartzearekin, anglesak ez zuen den gutienekorik dudatu nork zakhuan sartu zuen hain polliki eta hegiz hegi Baionari buruz haizea bezala abiatu zen hura ere. Eguerdiko Pellot bichtan zuen. Orduan hau Bermeoko porturat sartu zen lastersko, han gerizan zitakeela.

Baduk hoberik! Bermeo ez zen gehiago adichkide frantsesekin, Pellotek uste zuen bezala. Salcedo gobernadoreak berehala bahitu zituen, beraz, *Begoña* eta *Général Darmagnac*, lehentchago *Maréchal Moncey* Magne donibandar itsas-ohoinari bahitua zion bezala. Preso ereman zuten Pellot bera, lurrerat. Hainbertzenarekin anglesa ere sartu zen portuan, harek ere behar zuela pastiza eder hortarik bere partea...

Orok ezagutzen zuten Pellot Bermeon. Zer trufak aditu zituen, beraz! Bainan deusik ez zitzaion gaitzitzen: trufari musika egiten zuen “acheria armiarmo-sare batean erori zela” erranez!

Pellot armiarmo-sare batean! Bichtan da laster hautsi behar zuela. Bertzalde, nork duda anglesen aztaparretarik jada hiruzpalauetan atheratu den choria laster eginen dela espainolenetarik.

Nuestra Señora de Begoña hainbertze aberastasunekin berritz eskuratzekak burutik joanarazi zuen Bermeoko gobernadorea. Espainolek egungo

egunean ere ez dute hoinbertze behar kantu, oihiu, tiro, jauzi eta zalapartaka hasteko! Harritzeko bazkari bat eskaini zioten, beraz, portuan zuen itsasturien aintzindari guzieri, espainol edo angles, eta Pellot bera ere gonbidatu zuen. Hendaiarrak bazakien edozoin piloten punpatik hartzen: bazkari hartarat joan zen, beraz... berea gogoan.

Mahainaren puntan jarri zen. Ez zuen hitzik erran. Eri balitz bezala, mihi-puntaz hunkitu zituen jatekoak. Hala-hala lorietan zagon bertze bazkaltiarrek iresten zituzteneri. Gertatu behar zena gertatu zen. Espainol eta angles arnoak ichtantean hasarazi zituen oihuka, anglesek *Begoña*ko aberastasunetan beren partea behar zutela, espainolek ez zutela dretchorik. Kalapita gero eta handiago zoen. Pellot chutitu zen orduan, eta, eri zela, selhaururat pausatzerat joaitea galdetu. Gobernadoreak ez zezoken holako eri bati ezetz erran. Eskualduna joan zen, beraz, herrestan, herrestan belharreraino eta han zabal-zabala eman, othoi lo egiterat utz zezaten erranik. Gatazkariak beren gatazkari⁽¹⁰⁾ zauden gero eta gehiago, zerbitzariak mahaineko ondarren lehenbailehen iresteari. Pellot chutitu zen orduan, gerrian inguratua zeraukan soka bat laza bati este-katu zuen eta, selhauruko murru-begi ttipitik suge bat bezala luzatuz atheraturik, lurreraino sokatik jautsi. Pentsatzeko da lurreak ez zuela denborarik galdu ez eta harrabots handirik egin. Bi jauziz porturat joan zen eta handik bere untzirat. Hartan zituen oraino bere berrogoita bortz marinela. Zer besarkadak! Bazkaltierak zerbeitez dudatu zireneko, *Begoña* eta *Général Darmagnac* harasko ziren, Baionarat hurbilducheak.

Ez dugu uste geroztik Pellot itsasorat joan zela: liburuek ez dute bederen erraten. Egia erran berrogoita hamasei urthe betheak zituen, eta, bertzalde, Europako erresuma guziek bat egina zuten Frantziaren kontra.

A. ITSASMENDY

⁽¹⁰⁾ Ms. *Gathaskariak beren gathaskari*.

ORAIKO PILOTARIAK

Vitoriano Embil

Omenez bederen nork ez du Embil ezagutzen? Embil Orioko errebotlari eder eta maitatua? Aspaldiko urthetan plazaz plaza dabila, Eskual Herri guzian, langileetarik baita, bere lanek arte bat uzten dioten guzietan. Eta nihork ez dezala uste izan sos goseak dabilkala hola: bate-re, Embilek badaki urririk norapeit jotzen. Zerk dabilka, beraz? Pilotaren amodioak baxharrik.

Horra zertako *Gure Herriak* egun Embil hemen aiphatzen duen, Herriaren alde bertze zernahi egiten dutenak aiphatzen dituen bezala, Perkain, Azantza eta gaineratekoen lerro berean.

Gipuzkoarra da Embil, Orio deitzen den itsas-hegiko herri pollit batean sortua, duela mende erditsu bat edo gehichago. Bera ere, hortaz, orhoit ez delakotz, guk batere ez dakigu lehen galtza pareta eman ziotelarik hasi zen pilotan Embil ala gerochago: dakiguna da gazterik, arras gazterik, abiatu zela plazetan. Hamabortz urthe zituen doi-doia usurbildarren kontra bere lehen partida handia jokatu zuelarik, sekulako jendeketaren aintzinean. Eta futcho, hamabortz urthetan partida irabazi! Zer esku-zartak eta oihuak entzun omen zituen, alde eta kontra!

Ordutik, bizpahirur urthez, Orioko inguruetan ari izan zen Embil eta gero Ameriketarat jo, Buenos Airesetako plaza nausirat. Denbora hartan pilotari handirik ez zen plaza hartako itzulia egiten ez zuenik.

Bainan Embilek ez zuen Ameriketara hanbat lakhetu: hirur uda aski izan zituen hango lurraz asetzeko ezen *Orioko choriak Orion du lakhetzen*.

Bertzalde, Madrilen, Bartzelonan eta hainbertze plaza handietan jendeak ez zuen gehiago Embil baizik nahi eta galdetzen.

Pleka ari zen bakharrik oraino: orduan lothu zen erreboteko jokoari. Hogoita bortz urthe bezala ditu horrek. Lapurtarrekin ari izan zen haste hartan probintziarren kontra, garhaituz eta garhaitua aldizka. Denak elgarren bethe direlarik, guti aski da partida irabaz edo galarazteko. Ez da, bada, Embilekin faltsiarik!

Dena dela, Embilek, egin dituen partida guzietarik, biga baditu gogoan geldituak. Beha, bada, harritzeko den bertze guziak ahantzirik ere, oraino bi horietaz orhoitzea gure pilotaria. Donostian ari beharrak ziren behin lau lapurtar eta Embil bortz billabonarren⁽¹⁾ kontra. Diru phuska bat berek ere jokatu bazuten. Eguna ethorri-eta, horra nun ez diren lau billabonar baizik plazarat agertzen; Embil berehala Mankoari badoako eta onez onean erraten dio, nahi badu, borzgarren lagun bat har dezala. Mankoak orduan:

—Embil, jakin zazu Billabonatik lau ere aski direla munduko bortz hoberenen garhaitzeko. Jada baditugu hamabi partida frantseseri irabaziak: egun irabaziko diotegu hamahirugarrena... oriotarraren gatik!

Bainan, eiki, ez zuen hori egia Mankoak: ezik egun hartan airez aire partida ereman zioten oriotarrak, herra bihotzean. Eta, gehiago dena, solasa ez hortan erortzerat utzi!

—Manko debru hori niri hola mintzatzeko! Dagola, dagola! Nik oraino irakutsiko diotet billabonarrerri nun dagon erbia lo... etchetik uste duten baino hurbilago.

Pleka arras utzi zuen orduan Embillek, alderat erreboteko jokoari emateko. Orion berean zenbeit lagun hautatu zituen billabonarren garhaitzeko eta ez zuen gehiago epherik hartu bere lagunak eskolatu eta gain-gainetik trebatu arte. Eta hortaratu zelarik, desafio bat igorri zioten Billabonarat.

Partida horren fama laster hedatu zen eta erran ditake bi herrietako sosak han jokatu zirela. Baziren-eta sosik aski ez izanez, etchekeo chakurrak sos egiteko saldu zituztenak! Ayestaran bi anaiak, Belloki eta Bito-

⁽¹⁾ GH Billabonaren.

rio ziren Billabonatik; Embil, Salsamendi, Chanti eta Iturraín, Oriotik. Denak karraskan ari izanik, azkenean oriotarrek irabazi.

Lapurdin jendea oraino mintzo baita duela lauetan hogoi urthe Gaskoina zenak Irunen probintziareri irabazi zioten partida batez, ez da den gutieneko dudarik gipuzkoarrak ehun urtheren buruan ere mintzatu direla Donostian Embilek billabonarreri irabazi ziotenaz.

Embilek badu seme bat, Enrique, orai bera bezen pilotari handia, bera bezen plaza-gizon pollita. Hamaihirur urthe zituen Enriquek denbora hartan. Ilhuntze guziez aita-semeak ikus omen zitazken herriko plazan, semea chichterarekin botatzen ari, aita erreferan, aita Bellokiren bota biphilaren altchatzen treba zadin. Eta hain biziki botatzen zion Enriquek aitari nun behin pilotarekin tripan jo baitzuen. Semearen ikhara orduan! Bainan aita ez zitzaion samurtu halere eta biharamunean berritz plazan ziren biak. Urtheak gan dire geroztik. Orai aita-semeak dabilta plazetan beren adichkide Recondo, Usurbilleko auzaphezarekin. Chede berak dabilzka hirurak: pilotaren amodio berak.

Duela hiruzpalau urthe etsi zezaketen nihor gehiago ez zela erreboteko jokoari lothuko. Orai zer ikusten dute? Erain duten hazia lurretik altchatzen ari dela emeki-emeki. Sarri gure joko ederra berritz zabaltzen bada lehen bezala, Eskual Herri guzian, Embil, hura izanen da zure saria, zure bi lagunena bezala. Badakigu ez duzula bertzerik nahi.

Enrique Embil

Aspaldi du ez dugula *Gure Herrian* pilotaririk aipatu: gei eder hunentzat ez zen ondikotz tokirik. Antxuberro eta L.A. beren saileri berritz lothu gabe, bat aipha dezagun egun: Enrique Embil. Oraiko pilotarietan gazteena da eta naski maitagarriena, bertze guzientzat batera gaizkirik⁽²⁾ hortakotz erran gabe.

⁽²⁾ GH gazikirik.

Orion sortua da Enrique Embil, duela hogoita bortz edo hogoita sei urthe. Aita ere pilotaria du. Eta *Gure Herriaren* irakurtzaleek badakite zer pilotaria! Ez da, beraz, harritzeko semeak odolean ekharri badu aitaren gaitza! Maiz hala gertatzen da.

Haur-hurretik hasi zen pilotan Enrique eta ez ginakike lehen galtzak soinean othe zituen Orioko plazan lehen agerraldia egin zuelarik. Dena dela, hamabi urthetan partidarik ez zuen herri guzian... salbu aita. Eta ari zen, ari bethi horren heinerat lehenbailehen heldu nahiz. Egun batez iduritu zitzaion zerbeit bazela, bai eskuz, bai palotaz, bai chichteraz eta eguerditan atrebitu zen aitari aspaldi barnean zuenaren erraterat.

—Aita?

—Zer duk, semetto?

—Pilotari nahi nuke izan.

—Hi, pilotari? Ez, semetto, ez. Eiki pilotak ondu nauenaren gatik, aski ahal duk aitak plazaz plaza denbora galtzea, semea bide berari lothu gabe! Etchean eman gogo daiat segurki hire bizitzeko modua...

Ichil-ichila gelditu zen Enrique, bainan haur bati nola khen odoleko gaitza? Maiz eta maiz, lana utzirik, plazarat espakaturia zen haurra. Hameka oihera egin bide dio aitak... ondolik. Zarta zenbeit ere ba naski eman, atchematen zuenean! Bainan zalhu zen Enrique eta aita adinarekin tontotzen ari eta plazaren puntan zigorra eskuan aita agertu zeneko semea han zen... nunbeit zazpi otso zuri ondolik izan balitu bezala!

—Hori duk, semetto? Ikusiko duk.

Eta bertzela ezin buru eginez, aitak gure Enrique sartu zuen preso Donostiako ikastegi batean. Hamalau bat urthe zuen orduan pilotarigeiak. Ez dakigu gogotik lothu othe zen liburueri, chichtera utzirik aitaren eskuetan, Enrique. Dakiguna da, gogoz edo bortchaz, lothu zela eta hala lothu, artean errateko, nun egungo egunean, gure pilotarietan arras guti baita haren jakitaterat hurbiltzen denik. Ez zuen segurki ikastegian denbora galdu Enrique Embilek. Oriotar guziek hori badakite eta horra zertako, gazte-gaztea, herrian kargudun handi ezarria duten.

Ikastegian hola lanean semea ari-eta, aita ez zitaken berean hala tema. Etcherat heldu zitzaion egunetan, chichtera uzten zion, beraz. Jitea duenak, denbora guti aski du trebatzeko eta Enrique hala trebatu zen nun, egun batez, aitak berak erran baitzion mahainean bi pokadoren artetik:

—Errak, semetto! Bihar Donibane Lohitzunen frantsesen kontra behar nikek jokatu, bainan lagunik ez diat. Ethorriko haiz nerekin?

Hori galdea! Ez zuen-eta bertzerik nahi semeak! Eta biharamunean ikusi bazinute nola ari zen mundu baten aintzinean, bertze aldi bateko baimenarentzat ere aitaren bihotza hausteko! Eta futcho, hautsi zuen, hala hautsi nun ondoko urthean Embilek berritz bere semea agertu baitzuen Urruñako plazan. Haur hotza zen oraino Enrique eta Ottarre zena bezalako pilotari batzu zituen partida. Horrengatik Enrique gazteak ez zuen egun hartan eskualdun makhila ohorezkoa ereman etcherat. Bertzerik ereman du geroztik, plaza guti baita Eskual Herrian ikusi ez duenik. Atarratzen, Donapaleon, Baigorriin, Donibane Garazin, Azparnen, Ustaritzen, Saran, Elizondon, Donostian, Billabonan, aditu du esku zarta eta oihu onik. Garhaitu ere du han eta hemen hameka pilotari lapurtar eta gipuzkoar, bere aita barne! Eta berberak salatu daukunaz, behinere ez omen du halako atseginik izan nola lehen aldikotz... aitari irabazi zioenean!

Horrengatik seme on horrek zer aitaren amodioa duen! Eta pilotan ere oraino zoin errechki erortzen den aitarenerat! Elgarrekin ari direlarik, “bego” erran dezola aitak, ahoko pilota ere utziko dio.

Gauza batean ez dio bakharrrik semeak amor behinere eman eta emanen aitari. Zertan, bada? Dezagun hori ere solasaldi luze hau akabatzeko erran.

Embil eskualduna da: Enrique eskualdunago edo bederen bertze gisa batetarat eskualdun. Eskual Herria semeak nahi luke ikusi bere esku jarria, aldeko erresumetarik berechia eta hori gogoan maiz oihuka entzunen duzue: gora Zazpiak bat! Aitari, aldiz, ez zaio iduritzen hori sekulan egin ditakeela.

—Semetto, dio noizetik noizerat erraten, utzak amets hori burutik!

—Aita, hori ez duk amets bat: hortan ez zaitut sinhesten. Bainan horrengatik bardin maite zaitut!... Pilotari egiterat utzi nauzunaz geroz. Gaizki mintzo othe zaio Embili Enrique? Gora hi, adichkidea.

Chilar

Eskualdun guti da J.B. Duhalde pilotaria ezagutzen duenik, eta, aldiz, gehienek ezagutzen dute Chilar, omenez bederen. Arras ahaide hurbilak dire, bada, J.B. Duhalde eta Chilar, biek bat egiten baitute. Berritan *Gure Herria* ederki baino ederkiago mintzatu da Hazparneko Jatsaz. Gisa da Jatsaren ondotik egun aipha dezan haren adichkide Chilar, errebotlari eta plekari kasik parerik gabea.

Aspaldikoa da Chilar: Zuraide Chilarrean sortu zen duela hiruetan hogoita hameka urthe. Nihor ez litake harri chichtera bat eskuan sortu zela erraten baginu. Hori ez dakigu. Dakiguna da, Chilar ongi ezagutzen dugulakotz, chichtera bat gogoan... hilen dela, bainan agian hemendik hainitz eta hainitz urtheren buruan!

Denbora hartan ez zen gazteria orai bezala bideari emana: igandeak berak herrian iragaiten zituzten orok. Ez da, beraz, harritzeko adin bat balin bazuen Chilarrek lehen aldikotz plazetarat agertu zelarik: hogoi urthez goiti nolanahi.

Ez du hainitz denbora pilota maite eta erroraino ezagutzen duen amikuztar jaun batek liburuchka bat agerrarazi duela bere egiazko izena bertze izen faltso hunen giblean gorderik: Badakit d'Orsanco. Liburuchka hortan irakurtua dugu Chilarrek Donapaleon egin zuela bere lehen partida. *Badakit* jaunak gogoan gaizki hartua du hori bederen. Chilarrek berberak erran daukunaz lehen partida Donibane Lohitzunen jokatu zuen 1877an. Bi Saratarrekin, Inda Baigorrikoa eta Halty, alde batetik: Beñat, Bagoa, Louis Labat eta Chilar, bertzetik. Partida Chilarrek galdu, bainan

halako jokoia eginik nun plazatik atheratu gabe jaun gipuzkoar bat ethorri baitzitzaien, biharamunean berean Tolosan jokatzeko galdetzerat. Baietz, eta gogotik. Biharamunenean, beraz, Chilar Tolosan ari izan zen hemengo lau lagunekin hango bortzen kontra... eta irabazi. Lauetan hogoi libera eman ziozkaten saritzat. Bertzalde, trebesean hogoi liberako bat irabazirik, egun hartan gure gizonak uste izan zuen aberastu zela! Egia erran, orduan ehun liberakoak orai ez bezalako begitarte... eta balio zuen!

* * *

Horra Chilar atheratua. Geroztik egin du bide. Handik laster Halty kanboar famatuak eman zituen hirur desafio; hirur plazetan. Berterreche, Bachilio eta Benito itsasuarrekin, hirur ezpeletar hoberenen eta Chilarren kontra. Hirur partida horietarik ezpeletarrek biga galdu zituzten, eta hirugarrena utzi behar izan zen zerbeit makhur gertaturik.

—Nahi duk nerekin Donapaleorat ethorri— zioen denbora hartan Haltyk galdetu Chilarri.

—Zertako ez? —Eta joan ziren Donapaleorat bi itsasuarrekin, Castagnet, Leixelard, Inda eta Ortzaizeko Ezkerraren kontra jokatzeko. Hamahirur eta baterez lapurtarrek partida ereman... Chilarri esker. Hainbertzetarainoko jokoia egin zuen partida hortan zuraidar gazteak nun seigarren jokoan norbeitek bazterretik oihu egin baitzion:

—To, Chilar, egungo huntan hiretzat duk garhait-saria! —Bai, Chillarrentzat izanen zen, jikutriaka Haltyk erdia khendu ez balio! Haltyk hola-ko hameka egin du bere denboran ezagutu duten guziek diotenaz...

* * *

Ordutik Chilar nork segi ibili dituen itzulietan? Chubero, Bachena-barre eta Lapurdin ez da naski herririk behin edo bertze Chilar ikusi ez duenik. Mendiz bertzaldean ere izatu da mila aldiz chichtera besazpian. Denboraren buruan Chilar orhoit da Donostian, Erreterian, Tolosan, Bilbaon, Beran, Irunen, Elizondon, bertzeak bertze, ari izanik. Ez ditu, hargatik, partida guziak gogoan atchiki. Zenbeit halere ez ditu gure gizonak ahanztekoak.

Behin Irunen ari izan ziren, Jats, Patzola, irundar bat eta Chilar lau gipuzkoarren kontra. Zernahi diru bazen jokaturik, eta, maiz gertatzen ez zitzaiona, Jats batere ez gorputzeko aldian: nihundik ezin izert trenpuan sartzeko eta hutsa hutsaren gainean egiten. Hortzak karraskan lotzen da Chilar, lotzen bera, bortz eta hameka direlarik. Hamekara bardintzen ditu eta luzatzen dute. Hiruna oraino bardin. Berritz luza eta berritz bira bardin. Hau lana! Chilar lehertua da, zangoek kasik ez nahi atchiki. Hatsaren hartzeko jarria dagolarik, jaun bat hurbiltzen zaio, mintzotik hartzeko gipuzkoarra, eta beharri chilorat erraten dio:

—Chilar, hemen hogoita sei joko eginez geroz, baduzu gelditzeko dretchoa.

—Milesker, adichkidea. —Eta Chilarrek bere chichtera khentzen du, gelditzen dela. Bainan gipuzkoar pilotariak erhotzen zaizko, ez dutela segurki gelditu nahi. Egun hartan makurtu behar zuten naski bazterrek, hango gatazka ikusirik Irungo jaun alkatea artean sartu ez balitzaiote, herriko liburua eskuetan.

—Herritar arraio mila demonioak, ez ahal dakizue hemengo legea? Chilarrek arrazoina du. Badire eginak hogoita sei joko: geldi ditake, beraz. Hortan gelditu zen gudua eta, orduan ere, Chilarrek etcherat ekharri Abbadia zenaren garhait-saria: zenbeit pezeta, oraiko balioa ez zutenak.

* * *

Handik aski laster, orhoitzeko bertze bi partida egin zituen Chilarrek, bat Kanbon, bertzea Donostian. Desafioa zuten: bortz saratarren kontra bi gipuzkoar eta hirur lapurtar. Bainan denbora hartan, Chilarrek berak dionaz, zer egin zezaketen munduko Belloki, Botikario, Larralde, Halty eta Chilar guziek Clement Larrondoren beso erhoaren kontra? Kanbon airez aire partida irabazi zuten, beraz, saratarrek, eta gauza bera zen naski Donostian ere gertatuko, Ganichon Larrondori arpa lothurik, partida gelditu ez balute, pario guziak deseginik.

Zertako ez aipha azken partida bat oraino? Elizondon jokatu zen, bainan ez akabatu. Chilarrek hemengoak zituen lagunak: Berterretche,

Patzola, Ganichon Larrondo eta Clement Larrondo marratik. Bortz gipuzkoar kontra. Airetik erreferatzea haizu. Bazterrak diruz jokatuak. Deus ezin eginez bota airetik hartuz. Lapurtarrak hasi ziren pilotaren punpatik hartzen. Hola bazoazin erdi moldean, espantu handirik gabe, hargatik. Horra nun pilota bat jujatu behar den. Hemengo chachariak, hemengoan alde: hangoak, hangoen. Gaina aldetik sartzen da, orroaz. Hango chimichtak! Hori ikusirik odolak jauzi egiten dio partida egile Charles Duhart Uztaritzeko auzaphezari. Erhotua, bere makila besainka plazaren erdirat botatzen du eta pilotarieri oihu egiten diote doazin aldatzerat, hura etcherat doala. Partida hortan gelditu zen eta hemengo pilotariak, hertzeak chimurrik, bazkaldu gabe itzuli ziren Lapurdirat.

* * *

Horra zer errebotlaria izana den Chilar. Baginaki kondatzen, baginuke kondatzeko oraino. Bainan...! Eta bertzalde ez othe dugu doi-doia errana “azken partida” aiphatzen dugula? Segurki. Bizkitartean, guziak ongi ikusirik, orai iduritzen zauku Saran jokatu zen bertze batek ere hemen aiphatzea merezi duela. Gipuzkoarrak ziren lapurtarren kontra. Oro badoazi Sararat, bainan Saran plaza elhurrez estalia. Zer egin? Elhurra urtarazten dute, partida jokatzen eta lapurtarrek joko bat egiten hamahiruetarat. Egun hartan Chilarrek norbeit atcheman zuen bera baino acheriagoa. Bazituen pilota ttipi batzu eremanak Berterretchen-tzat, eskua ttipia baitzuen hunek. Partida hasi gabe, pilota horiek nora-peit suntsitu ziren eta Chilar, nahi bazuen eta ez bazuen, ari izan gipuzkoarren pilota handiekin. Erran gabe doa, Berterretchek egun hartan batere ez zuela botatu: ez zezakeen.

* * *

Hoinbertze ibilaldi egin duen pilotariak ikusi du bere denboran pilotari. Haren arabera zoin izatu diren nausien nausiak guk galdeturik, lañoki ihardetsi dauku:

—Badakizu lanean ematen nauzula zure galdearekin! Zer erran behar dute... batzuek?

—Erran dezatela nahi dutena. Nihork ez ditu zuk bezen maiz ikusi eta zuk bezala negurtu pilotariak.

—Hala da. Huna, beraz: nere denborako errebotlari hoberenak? Ori. Larrondo bi anaiak, Jats, Elgart eta Ottarre hemen gaindi: mendiz bertzaldean, Chiquibar, El Manko, Belloki, Maritch eta Botikarioa.”⁽³⁾

—Milesker, Chilar. Egun kondatu dituzun guziak, gordeak atchiki-ko ditugu, nihori salatu gabe. Bainan ondoko egunetan behar dauzkigutzu oraino erran zure plekako partidak eta ichtorio pollit zenbeit.

—Zure zerbitzuko naiz, bethi.

—Beraz, ondoko egunak arte.

Bai, ondoko egunak arte. *Gure Herriaren irakurtzaile maiteak*, Jainkoak nahi badu.

* * *

Arras errebotlari handia izana bada Chilar, ez da dudarik oraino plekariago zela. Ezagutu dutenetan bat ez da hori erraiten ez duenik. Besoa, begia, burua, zangoak, oro baitzituen. Horra zertako Chilarrek pleka hain partida guti galdu duen bere denboran, hemen gaindi, mendiz bertzalde hortan... bai eta Ameriketan. Ameriketan? Bai, Ameriketan.

Egun batez Juantchuto, Kanboko jaun miriku aiphatua, ethorri zitziaion Chilarri paper bat eskuetan, beha zezon. Ameriketarik adichkide batek Jauntchutori paper hortan galdetzen zion lehenbailehen hemendik igor zetzon bospasei plekari eder. Den gutienekorik dudatu gabe, baietz ihardetsi zuen Chilarrek, eta, handik laster, itsasoan zoan Chemartin Moleres, Larralde, Bidaur eta Bichenterekin, sei ilhabete sari onean Montevideon iragaiteko. Montevideon Chilarrek hamahirur partida egin zituen Larralde eta Bichente lagun, Portalito, Uhalde, Carrica, Muchacho eta hein hortako pilotari batzuen kontra, eta hamahiruetarik bederatzi irabazi.

⁽³⁾ Autorearen oharra: Chiquibar, Donostiakoa zen; El Manco, Billabonakoa; Belloki, Bilabonakoa; Maritch, Berakoa; Botikarioa, Oiartzungoa.

Ordukotz ezkondua zen Chilar ez zitakeen, beraz, Ameriketara egon: sei ilhabeteren buruan itzuli zen Eskual Herrirat, sakela urhez bethea. Orduko pilotariak ez ziren oraikoetan hainitz bezala: *lan gagnat, lan siflat*: sosa atchikitzen zuten. Horra zertako diren etcheke jaun bapho orai.

Gerochago gure Chilar berritz itzuli zen Ameriketara, bainan aldi huntan alderdiak ez zuen hala lagundu eta etcherat itzuli zen, partidarik han egin gabe. Kontraturik ez zuen eskuan.

* * *

Hemen gaindi mila partida egin ditu, pleka, Chilarrek. Nor orhoit guziez? Desafiozko bakhar batzuek aski erakutsiko dute zenbatetarainoko plekaria zen, hainbertze urthez gure gizona herriz herri, plazaz plaza segitu gabe.

Hiribarrondok behin egin zion partida hau: Chilar Beheranekin, Irun eta Bellokiren kontra. Hendaian jokatzeko. Gutiz gehien arabera partidak ez zuen plantarik eta bere beso izigarriarekin Irunek airez aire irabazi behar zuen. Bazterrak ichil zauden lau pilotariak lehen joak egin zituztelarik, zer gertatuko zen. Gertatu zen... hastetik Chilarrek oilo kolokak bezala Irun eta Belloki nahasi zituela eta aise galdu beharrikako partida aise irabazi zuela! Egun hartan Chilarrek etcherat ekharri zituen... hamabortz hogoi liberako urhe. Orduko hainitz zen: oraiko gehiago, aspaldi baitu urhearen kolorea begietarik galdua dugula!

Bertze behin Kanbon ari izan zen Chilar. Halty eta Battitta hazpandarrarekin hirur lekhondarren kontra. Lekhondarrak, Kadet Ezkerra, Cyprien Hiriart eta Leon Salaberry ziren. Partida ehunetara. Ez zen hatsik gabe Chilar eta irabazi zuen. Arratsaldean berean bigarren partida bat jokatu zuten sei pilotari berek, Chilarrek bota galde hargatik. Botaz bertzerik baitzuen goizean bezala irabazi zuen oraino. Arratsaldean ehun libera jokaturik hasiak ziren, bainan, nunbeitik, Haltyk bortzehun libera katzitu ziozkan oraino norbeiti, eta... Chilarri horietarik sosik ez eman!

* * *

Handik laster, Kanboko egunaz ez baitziren satifos, lekhondarrek berritz desafiatu⁽⁴⁾ zituzten Halty, Battitta eta Chilar. Bortz mila libera gutien-gutienetik jokatu omen ziren Lekhornen, Chilarrek berak frango trebes eginik, eta irabazirik. Haltyk erdiak khendu ziozkan. *Une fois n'est pas coutume!* Lekhornen bezala Saran, Azkainen, Donibanen eta bertze askotan hameka partida irabazi du Chilarrek, omen.

Eta ez othe du, bada, behinere galdu? Galde hori guk ere Chilarri egin diogu. Ihardesten ahalko zaukun ez dagola hari galdu dituen partiden kondatzea, hek irabazi dituenak behar dituela kondatu. Ez du hola-ko urguilurik Chilarrek eta ez dauku gorde behin, bainan behin bakharrik, Harispe eta Bichenterekin joanarazi zutela Bilbaorat eta han galdu zuela Brau eta El Mancoren kontra.

Bertze behin ere partida gaitza galdu zuen Uztaritzen! Etchepare amerikanoa zuen lagun: Kadet Ezkerra, Louis Hiribarren eta Adrien Detchart kontra. Hauk, oraino haur hotzak, hastean ahulkisko hasi ziren, Chilarren omenak berak lotsatuak baitzituen. Hargatik izertzearekin hobeki ari izanik bardin ziren berrogoita hamabortzetan. Beranta zen jada bazkaltzeko. Hortan gelditu ziren goizean. Arratsaldean Chilarrek harrigarrizko jokoa egin zuen, bainan lagunak sobera ongi bazkaldurik partida galdu zion. Egia erraiteko, partida gaichtoa ere zuen. Denbora hartan ederki baino ederkiago ari zen Kadet Ezkerra: Adrien Detchart eta Louis Hiribarren, Baionako eta Uztaritzeko bi jaun notari maitagarriak, nornahirekin paretzeko on berritz!

* * *

Chichterazka bezala, Chilar eskuz ere zerbeit bazen. Bere denborako plekari gehienak bat bertzearen ondotik garhaitu ditu: Uchkurra, Chobatoa, Cedet, Bichente, Katalin eta bertze asko. Chilarrek ez du ezagutu Ziki baino plekari handiagorik eta hura ere garhaitu izan du Sarako phesta batzuetan Bichente aheztarrarekin. Katalin zuen lagun Zikik.

⁽⁴⁾ Gh. *desatiatu*.

Pasa marra, lau metretan. Diru hainitz jokoan. Botatik atheratu gabe irabazi Chilarrek!

Bainan, aski hola. Bertzalde, ez othe du gure elhe guziek baino hobeki egia frogatuko Chilarrek oraino etchean daukan partidetan irabazi garhait-sari lerroak? Doakiola nornahi eta Chilarrek lorietan irakutsiko diozka hirur ohorezko makhila, Uztaritzen, Donazaharren eta Donibane Lohitzunen irabaziak; sedazko zinta bat Saran irabazia; moltsa bat Donibane Lohitzunen hamar hamar liberako urhe barnean irabazia; bai eta muntra edo astizari eder bat Pauen irabazia eta egungo egunean irabazi zuenean bezen chuchen dabilana oraino.

* * *

Eta orai Chilar, zahartzen hasia, Ezpeletan bizi da, herritar guziek maitatua. Pilota utzia du, bainan pilotari ez dio ukho egina, eta oraiko egunean ere kontseilu on bat gogotik ematen diote Harambillet eta Darraidou guziek ezagutzen dituzten ezpeletar pilotarieri... beren onetan.

Pilotaren biziarazteko ezpeletarrek lagungo bat baitute egina, erran gabe doa Chilar dela lagungo horren buruzagi. Ez ditake buruzagi hobetik. Hori ez dugula airerat erraten, nahuzue frogatzen? Huna. Lehen urthea da lagungo horrek eta halarik ere horko bi pilotari dire Frantziako hoberenak agertu uda huntan herriz herri jokatu diren partidetan: Legassa eta Añorga. Agian hainitz urthez ezpeletarrek atchikiko eta maitatuko dute, orai bezala, Chilar. Merezi duela zauku.

Sarako Chantrea

Nor da Eskual Herrian *Sarako Chantrea* nor den ez dakienik? Jean Pierre Lemoine ez da batere bere herrian chantre, bainan gaztean guti edo aski hala izanik, izenak bethi segitzen dio. Doala, beraz, izen horrekin hemen ere. Badakigu batere ez zaiola gaitzituko Sarako etche pollitenetarik batean bizi den pilotari eder eta maitatuari, J. P. Lemoine gure adichkideari.



Haur hotz bat baizik ez zen oraino Lemoine lehen aldikotz erreboteko partida handi batean agerrarazi zutelarik. Abbadiaren phestak ziren Senperen. Ari izan ziren Ottarre, Moulin, Landachko, Tracha eta Ziki, alde batetik. Chilar Larrondo, Borthayre, Santiago eta Lemoine, bertzetik. Batere ez dakigu nork irabazi zuen partida. Dakiguna da Lemoinen joko arras gustatu zitzaiotela beha zaudeneri eta ondoko astean *Eskualdunak* laudoriozko hitz hauk ekharri zituela: “Zer erreferarigaia Sarako Chantre hori! Gibeletik nornahi bezenbat jadanik bada. Erreferako ez da oraino hain trebe, bainan segur naiz ez lukela hainitz denbora ari behar erreferari hauta baten egiteko”.

Handik urthe baten buruko, Urruñan, lehen aldikotz, gipuzkoarren kontra ari izan zen Ottarre, Haira eta Ziki lagun. Embil, Ayestaran eta Belloki bi anaien kontra. Galdu zuen segurki, bainan zer joko eginik omen! Halako moldez nun Sarako phestetan Sarako lau lagunekin atrebitu baitzen Ottarre, Chilar, Tratcha, Landanchka eta Zikiren kontra jokatzera.

Ondoko urthean, Ottarre, Embil, Lemoine, Chotero, eta Ziki ari izan ziren Donibanen Ayestaran bi anai, Vitoriano, Iralez eta Bellokiren kontra. Hamar joko eta baterez izanik. Lemoinek hamarretan bardindu zituen eta partida luzaturik ez zuten nihundik⁽⁵⁾ akabatzen ahal izan egun hartan. Han kausitu zirenek oraino erraten dute Lemoinek oro harritu zituela egun hartan. Bertze behin, hola-holache arras gibeletik ibilirik, Ottarre, Landachko, Larralde, Ziki eta Lemoinek hamabira ondotik atcheman zituzten Ayestaran, Vitoriano Embil, Jauregui eta Urbieta... eta gero partida irabazi Ottarre eta Lemoini esker. Gerochago Donostian berritz partida bera⁽⁶⁾ irabazi zuten hemengoek oraino.

⁽⁵⁾ GH *nikundik*.

⁽⁶⁾ GH *berra*.

Mila bederatziehun eta lauean, garait-sari bat Uztaritzen irabazi zuen ederki ari izan zelakotz, Larralde, Béhéran eta Zikirekin, Ottare, Chilar, Goyetche eta Berterretchen kontra. Urthe berean, Donibanen bortz gipuzkoar hobereneri ez ziozkaten begiak idekitzerat utzi hemengoek. . . bainan hemengoekin ez zen ari Sarako Chantrerik. Jada hemengoetan bat bazen saratarra maite ez zuena, itzal egiten ziolakotz eta bazterrerat utzarazten zuen noiznahi. Bainan Lemoinek ez zuen nihoren beharrik gehiago: bere lagunekin nornahiren kontra agertzeko on zen jada. Behin baino gehiagotan hori frogatu diote, han eta hemen, bethi bazterrean gogotik utziko zuteneri. Nun eta nola, zertako erran? Orok oraino gogoan dituzte gerla aintzin hartan egiten ziren erreboteko partida choragarriak. Orok oraino orhoit dire Sarako Chantrearen ukhaldi ikharagarri hartaz. Oro orhoit nola bide egiten zioten marrakoek haren pilotari.

Gerlaz geroztik, bada, behartu zauku segurki Sarako Chantre gaizoa erreboteko joko arras ez galtzerat uzteko hemen gaindi eta Orioko pilotari famatuari Saran. Baigorri, Donibanen, Hazparnen eta Tolosan buru egiteko. Oraino ere erran dezakegu ez dugula, adinaren gatik, hura baino errebotlari⁽⁷⁾ hoberik. Goyetche eta Embil aita-emeak bazterrerat eman-eta, bat ez da Eskual Herri guzian achoinerat heltzen zaionik. Ohore, beraz, errebotlari bezala Sarako chantreari. Bainan errebotlaria bezen plekaria izana dela frogatuko dautzuegu orai.

* * *

Chichtera laburra zuelarik, pilotari handien-handienekin ari zen jada. Ez da orduan kurritu ez duen plazarik. Ikusi izan dute ari lauetan hogoita hamabortzean Donibanen Otharre eta Ganichonekin, Chilar, Arrue, eta Berueten kontra: ondoko urthean, Getarian, Marnac eta Ottarerekin, Cesario, Chilar eta Arrueren kontra, eta Donazaharren, Beheran eta Manakekin, Ottarre, Arrue eta Chilarren kontra. Handik urthe baten buruan huna Lemoine, Apesteguy eta Chikitorekin Milafrangan Ottarre, Arrue eta Chilarren kontra.

⁽⁷⁾ GH *erebotlari*.

Chichtera handitzen ari ziren ordukotz. Harri lothu zen Sarako Chantrea eta, pilotaria saskitik ere pilotari, hortan ederki trabatu zen. Hain chuchen denbora hartan Getarian jokatzeko desafiozko partida handi bat egin zuten bi mila eta bortz ehun liberaz: Arrue, Chiquito eta Lemoine hemendik; Marnac Amoroto eta Elisseguy mendiz bertzalde hortarik. Zer, Sarako Chantrea holako plekarien artean? Ba, eiki eta huna zer erraten zuten egunkariak partida hortarik lekora. Batek, eskuaraz: “Lemoine saratarrak arras ontsa botatu du eta kintze hainitz trenkatu eskuin eta ezker. Plekari horrek ez du parerik ondoan pilotaren berechteko eta pilotari eginarazten dio firurika bat kasik ezin itzulizkoa.” Bertze batek, erdaraz:

“Lemoine, est décidément le plus rude des joueurs⁽⁸⁾, le plus habile à donner le coup final, perfide et décisif!”.

Lauetan hogoita hemeretzian, Donibane Garaziko phestetan Araquistain eta Arruerekin aski aise irabazi zioten Ottarre, Salazar eta Barrenetcheari. Doi-doiako egunkari erdaldunak ondoko egunetan erraten zuen: “Lemoine a été très bon.” Ondoko urrian Donibanen ari izan zen Ayestaran, Araquistain eta Bellokiren kontra Arrue eta Barrenetchearekin. Galdu zuen eta halere egunkari berak haxe erraten zuen: “Lemoine a fait un excellent jeu, un des meilleurs qu’il ait jamais fait”.

Azkainen, eskualdun phesta batzuetan, desafioz hasirik, buruz buru nahi bazuen eta ez bazuen hantche irabazi zion Olaiz, orduko plekari aiphatuenetarik bati. azkaindar guziak oraino orhoit dire horraz.

Hala trebatzen ari zen nun ordutik bardin ezkerreko aldean ere ematen baitzuten errebesiaz jotzeko. Hala nola behin Ainhoan, Arrue eta Ottarrerekin ari izan zen Cesario, Beheran eta Chiquitoren kontra. Huna zer erran zuen aldi huntan ere egunkari erdaldunak: “Lemoine a fait un très grand jeu à gauche. Il combine les deux modes avec un succès croissant qui l’a mis tout en évidence cette année”.

⁽⁸⁾ GH *jouteurs*.

Handik goiti ez gitzaio Sarako Chantreari segurki jarraiki nahi Kanbo, Hazparne, Miarritze, Hendaia, Getaria eta mila herritan ibili dituen urhatsetan. Ez. Hola-hola, ez othe dugu erranik aski, bertzalde, orori frogatzeko pilotari handia, eta arras handia izana dela? Segurki baietz. Geldi gaiten, beraz, huntan, azken hitz hau erranik: nihork ez duela pilota Sarako Chantreak baino maiteago eta gerla ondoan bortz eginahalak egin dituela, Saran eta bertzetan gazteak has ditzen lehengo pilotako molde ederren ikasten. Ohore Sarako Chantreari. Ohore... eta milesker egiazko eskualdun guzien partez.

* * *

Esku-huska ere pilotari pollita zen gure Saratarra eta behin baino gehiagotan ikusi da bere denborako hoberenekin ari: Chabatene, Chantia-go, Theophil, Audet, Bechachka, Ziki. Vasquito deitzen ziren, bada, haren denborako pilotariak. Sarako Chantrea ez zen, beraz, nornahi esku-huska.

Eta eskularruz? Hoberenekin bere chokoa ederki atchikitzen bazakien. Jats, Ottarre, Tandilero eta eskularrukari hoberenek erran lezakete hori. Orai pisukua da Sarako chantrea. Zahartua ere ba. Gazteek noiztenka irabazten badiote, ez da harritzeko.

Porteño

Porteño aipha? Zertako? Ez zen hemengoa eta ez du hemen gaindi hoin hezur luzerik egin! Horrengatik pilota ezagutzen dutenetan eta pilotarieri jarraikitzen direnetan, guziek zabal-zabala aithortuko dauztute Porteño bezalako chori guti agertu dela Eskual Herriko trinketetan. Buruz buruka, birazka edo hironazka, eskuin choilaz eta bardin ezker choilaz ez zuen Porteñoak parerik. Eman zadin aintzinean sarezin edo giblean partidaren atchikitzeke, bietan bardin ederki ari zen. Piztia khendu-eta ez dakigu bertze bat kausi litaken hola bi lekuetan agertzeke on izan denik egundaino! Bai, zer pilotaria zen Porteño!

Argentinakoa zen sortzez. Han handitua, han ere zuen ikasia pilotan. Ez ginakike chuchen bere baitarik ethorri zen hunat ala norbeitek ekharrazazi zuen. Hori balakike de St Jayme donapaleotarrak nihork baino hobeki, mintzatu nahi balitz. Eia bada?

Bi itzuli egin ditu Porteñok Eskual Herrirat. Lehen itzulian ez zen bizpahirur urthe baizik egon hemen gaindi. Itzuli hortan behin bederen Donapaleon ari izan zen Behachka eta Gorostiague lagun hirur orduko gipuzkoar hoberenskoenen kontra. Airez aire irabazi zuen. Handik urthe pare bat gabe etcheko mina lothurik Porteñok erran zuen bazohala hemendik, bainan, hemen ere adichkideak baitzituen jada, atsegin egiteko azken partida bat jokatu nahi izan zuen: bakharrik hirur donapeleotar hoberenen kontra. Bada, denbora hartan Darraidou, Cazenave eta Loustalot ez ziren nornahi: oraiko pilotarichka hainitz baino gehiagokoak ziren. Horrengatik Porteñok garthaitu zituen bortz phonduz berrogoietarat. Zoazte oraiko pilotari handi batzueri galdetzerat bakharrik joka dituen hiruen kontra, eta berrogoietarat oraino, ikusiko duzue zer ihardetsiko duten! Hortarik ageri baita zer hatsaren jabe zen, orduan oraino, Porteño.

* * *

Urthe pare baten buruko berritz Donapaleon zen gure pilotaria eta lan da ordutik goiti egin dituen partida guzieren kondatzea. Handiskoenak kondatu eta bertzeak utzi beharko!

Mila zortziehun eta larogoita hemeretzian, urriaren hamabortzean, Porteñok Gorostiaguekin galdu zuen Piztia, Urzelay eta Barberoren kontra. Ez zuen hortan amor eman eta biharamunean hiruetan hogoietarat, sei phonduz ereman zioten partida bera. Artean erran dezagun, ez ziren orduko partidak oraikoak bezen laburrak eta halere ez zuten pilotariiek mokoia orai bezen chorrotcha! Delako partidaren ondotik huna zer zuen egunkari erdaldun batek erraten: “Bota izigarria du Porteñok; zirimolan dabilka pilota nun-nahi: zalhua da, azkarra, eta badu eskuin bezenbat ezker. Ez da, beraz, harritzeko asteleheneko partida hori irabazi badu...” Donapaleon jokatu ziren bi partidak.

Handik ilhabete bat gabe Gorostiague berarekin Najera eta Zamorano garhaitu zituen eta biharamunean Loustalotekin Gorostiague eta Zamorano. San Martinak ziren. Urthe bereko abendoan Porteño ari izan zen bakharrik Dongaitz bi anaien kontra, hiruk ezkerka. Ezin sinhetsia baita kasik pilotari bat izan dela Dongaitz bi anaien kontra agertzeko on zenik! Bizkitartean horra frogatza...

* * *

Erran ditake ondoko urthea Porteñoen urthea izatu dela. Galdea galdearen gainean zuen nun-nahitik eta Donapaleon bezen maiz agertu zen Hazparnen, Kanbon, Baionan, Miarritzen, Donibanen Pausun eta bertze ehun plaza edo trinketetan. Hameka espartin pare higatu ahal zuten segurki haren ondotik orduko Galtza-Handi guziek...

Berritan *Gure Herriak* erran du bi hazpandarrek desafiozko partida bat irabazi ziotela Hazparnen Porteño eta Larrañagari. Egia da. Bainan egia da ere handik laster hazpandarrek Donapaleon partida bera galdu zutela... hogoi ponduz (60 eta 40). Lehentchago bi hazpandar horiek berak Porteñok Dongaitz zaharrenarekin garhaituak zituen hogoi zortzi phonduz hiruetan hogoi hamarretarat (70 eta 42), Donapaleon. Urthe berean Dongaitzekin garhaitzen ditu oraino Pausun Santiago eta Soudre. Hortarik lekora ezkerka hasi zen Soudrekin buruz buru eta irabazi zuen aski aise Porteñok. Zer piruko gizona!

Donibane-Garazin Loustalotekin bi hazpandarrerri irabazten diote begirik idekitzerat utzi gabe. Miarritzen buruz buruka Santiagori, behin bederen, irabazten dio. Bainan Pausun doi-doi galtzen du Urcelayren kontra. Erran behar da orduan Urcelay ederki ari zela... eta Pausuko plaza mota Porteñok baino hobeki ezagutzen zuela.

* * *

Mila bederatziehun eta batean, bi aldiz bederen Chiquitorenkin ikusten dugu Porteño buruz buru: behin Donapaleon eta bertze behin Donibanen. Bietan irabazi zuen bainan Donapaleon baino hainitz errechkigo Donibanen.

Urthe hortako partidarik ederrena, Porteño eta Belachka, alde bate-tik, Barbero, Piztia eta Urcelay, bertzetik. Porteñok irabazi zuen oraino bi phonduz, Donapaleon.

Ondoko urthean Soudre lagun Donapaleon ari izan zen Piztia eta Urcelayen kontra. Hirur oren ari izan ziren jo eta jo: hiruetan luzatu eta azkenean bardin gelditu, lehertuak oro. Urthe berean bertze partida bat ere ezin akabatuz utzi behar izan zuen Porteñok. Dongaitzen kontra buruz buruka, Donibanen.

Bainan jada gutitzen hasia zen ordukotz Porteño, soberachko edaten omen baitzuen. Horra zertako partida galtzen hasia zen frango polliki. Ezpeletako feria batzuetan Piztiarekin galdu zuen Dongaitz bi anaien kontra. Handik laster eskuin choilaz galdu zuen J. B. Dongaitzen kontra Kanbon. Erran behar da, hargatik, partida hortarik lekora *Eskualdunak* hitz hauk ekharri zituela, ahoan bilorik gabe: “Bi eskuz haizu izan balitz Porteño, airez aire, joanen zen zeren den oraino trinketlari guzien erre-ge!” Eta hala-hala zer gertatu zortzi egunen buruko: Porteñok garhaitu zuen Dongaitz eta berritz *Eskualdunak* erran zuen Porteñok “jo biribila eta segura zuela, bethi toki penaturat⁽⁹⁾ zeramala pilota eta... oraino zon-beit denboraz uzten ahal zutela bere ulitchekin!”.

Hargatik urthe bereko hazilean Dongaitzek ereman zion Porteñori, hamabortz phonduren gibelean izan-eta: hogoita biga eta hogoita hama-zazpi. Hemezortzi phonduz irabazi, gero (60 eta 42). Koplak egin zituzten orduan bi pilotarieri.

Gaicho duen gaichoak kontsidera beza
ez dela egun oroz Porteñoren besta.

Ez, segurki. Bainan ondoko Donapaleoko ferietan Porteñok Don-gaitzi oraino erakutsi zion pleka, hamalau phonduz erhautsi baitzuen! Hainitzek usteko zuten bada Porteñok galdu behar zuela, bainan Porte-ñori ez zitaken gehiago fida.

⁽⁹⁾ GH *penaturak*

Handik goiti Porteñoak galdu zuen Piztiaren kontra, Chikitoren kontra, Dongaitzen kontra, eta bertze frangoren kontra. Porteño ez zen jada gehiago lehengo Porteño. Edariak hila zuen adina gabe. Etsiturik orduan joan zen berritz Ameriketarat. Geroztik nihork ez du hemen gaindi hartaz mintzatzen aditu. Gure partetik ez dakigu bizi den oraino ala hil zen.

* * *

Horra, beraz, *Gure Herriak* galdetu bezala, Eskual Herrian Porteñoak irabazi eta galdu dituen partida handiskoenetarik zenbeit. Ez da gehiagoren beharrik zenbatetarainoko pilotaria zen⁽¹⁰⁾ ikusteko. Aski ez dugula erran idurituko zaioteneztat, huna zenbeit lerro erdaraz, egia guzia erraten dutena: “Porteño, joueur de devant d’une agilité inouïe, joueur de derrière d’une précision et d’une puissance étonnantes, spécialiste des duels de paume d’une main seule (gauche ou droite à volonté), invincible en tête à tête, doué d’un but formidable, il est complet et à ce point de vue qui dit tant de choses ‘hors de pair’”. Ez dute bertzerik erraten haren kontra ari izan diren pilotarietan mintzatzen ahal izan ditugun bospaseiek...

Larralde

Luhosoko herri pollitean sortua da Larralde Eskual Herrian orok ezagutzen duten pilotari handia. Doi-doia dozena erdi bat urthe du azken partida Donibane Garazin jokatu zuela bere adichkide Ybarnegaray deputatuari atsegin egiteko. Berrogoita hamar urthe bazituen jada. Nekhez izanen da sekulan gure eskualdetan Larralde bezalako plekariarik chichtera ttipiarekin. Zuzen da, beraz, *Gure Herriak* chokho bat eman dezoten ibili dituen urhatseri, irabazi dituen partideri. Larraldek ohore egiten dio Eskual Herriari.

⁽¹⁰⁾ GH pilotariazen.

* * *

Hain molde pollita eta hain beso arina zituen Larraldek nun hamabortz-hamasei urthetako Makea, Itsasu eta inguru herri guziak kurrituak baitzituen luhosoarrekin chichtera besazpian. Hamazazpi urthe baizik ez zituen lehen aldikotz denborako plekari handiekin Itsasuko plazan, Benito lagun, negurtu zelarik. Orok han ikusirik nun-nahi eta nornahiren kontra agertzeko on zela, Baigorriat deithu zuten handik laster. Eskualdun phestak ziren Baigorriin. Beheran eta Battittarekin erhautsi zituen hirur omen handiko bachenabartar⁽¹¹⁾. Luhosoarrek etcherat ereman zuten oso-oso... ehun liberako bat. Erran behar da, hargatik, Larraldek hogoi liberako bat ukhan zuela bertzalde, sari bezala, seietarik hobekiena ari izan zelakotz. Ez omen baitzen guti hantua arratsean burhasoeri lerro-lerro kondatu ziozkatelarik berrogoita hamahirur libera⁽¹²⁾! Egia erran, zerbeit zen hori ere ordukotz...

Ondoko egunetan Kanborat galdetu zuten Larralde bere Baigorriko bi lagun berekin. Hirur hazpandar hobereneri irabazi zioten oraino luhosoarrek. Alta norbeit ziren Jatsa, Battitta Dindaboure eta Bellecave! Hogoi liberako bat ukhan zuen Larraldek. Bertze hoinbertze Battitta eta Beheranek. Oinez joanak baitziren Luhosotik, ez zuten beren hogoi liberakoa ebatsia segurki! Nor nun kausi litake orai, gehichagotan ere, hoinbertze egin nahi lukeenik?

Hargatik Kanboko itzuli hori baliatu zitzaion muthiko gazteari. Horrek ezagutarazi zuen: horrek atheratu. Hain chuchen Juanchuto Kanboko jaun mirikuak egun beretan Montevideotik bazuen hitz bat ukhana: adichkide batek igortzen zion hemengo pilotari zenbeiten galdea. Luhosorari eskaini zion harat joaitea, Chilar eta bertze lagun batzuekin. Zoin gogotik ihardetsi zion baietz Larraldek! Eta handik laster

⁽¹¹⁾ Autorearen oharra: Bachenabartar horietarik, biga bederen bizi dire oraino: bat, Bidarrin, bertzea, Ortzaizen. Hau Etchechoury, Lekhorneko jaun erretoraren anaia.

⁽¹²⁾ Autorearen oharra: Eta hirur sos!

itsasoz itsaso zoan Bildaur, Chemartin Moleres, Bichente eta Chilarrekin. Sei ilhabeterentzat zoazin *Fronton Eskuara* delakoari buruz. Harat orduko hasi ziren ikasten eta guziek ez baitute ezkerreko pareta hartzen ahal, gure herritarrek laster irakusterat eman zuten trebatuko zirela naski. Ezen huna hitzez hitz zer irakurtzen dugun orduko egunkari batean, erdaraz: “Il nous arrive de Montevideo de bonnes nouvelles de pelotaris du pays basque français qui ont, pour la première fois, traversé la mer pour se mesurer avec les meilleurs joueurs de rives de la Plata: Bichente, Chilar, Larralde, un garçon de 19 ans qui est considéré comme devant devenir un des meilleurs gants de l’époque”.

Mila zortziehun eta lauetan hogoita bederatzia zen, martchoaren hamazazpian egin zuten lehen partida: Ugalde, Bichente eta Larralde, alde batetik; Alonso, Almandoz eta Chilar, bertzetik. Jendea harritu zuten eta hango egunkariak, ahoan bilorik gabe, hauche erraten zuten: “Egundaino ez ginuen oraino holako partidarik ikusi. Nork garhaituko ditu holako pilotariak?”

Egunetik egunerat egiten ari ziren gure herritarrak, Ugalde, Ithurrioz eta Añorga eman ziozkaten Larralde, Bichente eta Chilarri, kontra. Hauk aise irabazi zuten eta orduko egunkari batek erran zuen: “Celui qui a joué hier le mieux est Larralde, le sympathique joueur français”.

Bat bertzearen ondotik Montevideoko pilotari guziak garhaiturik, bertze hirur ekharri ziozkaten nunbeitik: Carrica, Vitoriano eta Saturno, bainan hogoita bederatzi phonduz irabazi zioten lapurtarrek. Hortarik lekora, hargatik, kechatu zitzaizkoten Carrica eta Saturno. Mila libera beren moltsatik jokaturik hasi ziren Larralde eta Chilar. Hogoita hamabi egin zituzten doi-doia, hiruetan hogoietarat... Carrica eta Saturnok. Eta hola-hola han egin hamahirur partidetarik hameka irabazi zituen Larraldek...

Bainan bururatzen ari zaizkoten hango egunak. Larraldek itzuli bat egin nahi izan zuen Buenos Airesetarat han ahaide baten ikusteko. Zorionezko itzulia! Sartu zen Calle Cordobako plazan hango pilotari famatueri agur bat errateko. Pilotan hasi. Berotu eta desafioz Bichente-

rekin lothu Angel Vergara eta Portalitoren kontra. Nihork ez zion⁽¹³⁾, gure bi herritar pilotariak baizik kanorerik partidari atchematen. Nork sinhets sei ilhabete laburrez hola trebatu zirela ezkerreko paretari? Jostetan hasi ziren, beraz, Portalito eta Vergara. Bainan jostetak laster utzi behar izan zituzten... azken buruan galtzeko halere.

Partida akabatu orduko plazako nausia hurbildu zen Larralderen ganat.

—Zu zare Montevideon Luhosoa deitzen duten pilotaria?

—Bai.

—Zure famak adituak dituk. Nahi duzu hemen gelditu?

—Zer ematen dautazun...

—Hortaz ez beldurrik izan: elgar adituko dugu.

Eta ederki elgar aditu zuten. Horra zertako, zenbeit egunen buruan Chilar bere lagunekin Eskual Herriari buruz berritz abiatu zelarik. Larraldek Buenos Airesetako bidea hartu zuen...

* * *

Negua zen orduan, Buenos Airesetan. Hango lehen herrunkako pilotariak etcherat itzuliak ziren. Larralde han ari izan zen bere heineko batzuekin hiruzpalau ilhabetez, egunik huts egin gabe. Recondo, Muchacho, Fandilero, Baltazar eta Malgorra ziren luhosoraren neguko lagunak. Ez zuten denborarik galdu gazteek. Udarekin harat berritz itzuli zirelarik El Manco, Irun, Mardura, Eliceguy, Samperio, Belloki eta Portal, hirur gazteek izan zuten kopeta zaharren desafiatzeko. Ari izan ziren, beraz, Larralde, Muchacho eta Tandilero, hirur hoberenen kontra: Portal, Samperio⁽¹⁴⁾ eta Elisseguy. Sei ilhabete lehenago, gazteek segur ez zituzten laurdenak eginen. Aldi huntan ez zituzten bakarrik laurdenak egin, bainan.. irabazi oraino. Munduaren harritzea egun hartan eta zer sosak irabazi zituzten... batzuek! Mardura zaharrekin eman zen

⁽¹³⁾ GH *ezion*.

⁽¹⁴⁾ GH *samperio*.

ondoko egunetan: el Manco ere ba. Debaldetan. Gazteak berritz eta bethi nausitu zitzaizkoten. Halako moldez nun, handik goiti, nahasteka baizik ez baitziren jokutzen ahal. Orduan zituen Samperiok⁽¹⁵⁾ hitz hauk adichkide bati igorri: “Al llegar aquí, me encontré con dos jugadores zagueros que me han asustado: Tandillero y Larralde. No valgo nada al lado de ellos...” Bada, pilotari guti izatu da egundaino Samperio⁽¹⁶⁾ horren heinekorik.

Bainan etcheko mina lotzen ari zitzaion lapurtar gazteari. Lagunek ere, salbu Mardurak⁽¹⁷⁾ hargatik, begitarte guti egiten zioten. Gero eta gutiago: jelos zituen. Deliberatu zuen, beraz, ondoko neguan, herrirat itzuli baten egitea. Hogoita bi urthe zituen doi-doia eta jada erran ditake munduko bizpahirur plekari handienetarik bat zela.

* * *

Hirur ilhabete egon zen doi-doia Larralde hemen gaindi, bulharren herriko aire onaz bethetzen. Bizpahirur partida egin zituen arte hortan, lehengo adichkideekin: Beheran, Chilar, Ottarre, Amespil eta bertzeak ez baitziren guti harritu nola egina zen ikustearekin. Artean erran dezagun, orduko pilotariak oraikoe bano hats gehiago zuketen ezen —egunkari erdaldun batek erraten daukunaz— Larraldek itzuli hortan egiten zituen partidak, oro, lauetan hogoita hamarretarat egin zituen. Baditake!

Dena dela, hirur ilhabeteren buruan, bihotza lodi, Larralde berritz lothu zen itsasoari. Huna nun dugun, beraz, oraino Ameriketean. Han bethi pilotari berak ziren: Manco, Mardura, Tandilero, Elisseguy eta gai-

(15) GH *samperiok*.

(16) Autorearen oharra: Samperio Erreterian sorthua zen, Larralde baino hirur urthe lehenago. Etcheko seme ona zen. Hargatik hain maiz huts egiten zuen eskola plazarat joaiteko nun burhasoek Hazparnerat igorri baitzuten fraideeri. Lau urthe egon zen Hazparnen. Hogoit urthe zituen lehen aldikotz Ameriketarat joan zelarik, pilotari bezala.

(17) Autorearen oharra: Mardura Azpeitiakoa zen. Pilotari bat ez da egundaino izan naski horrek bezala pilota nahi zuen lekurat igortzen zuenik, eskuz pausatzen izan balu bezala. Bihotz handiko gizona ere.

neratekoak: berri guti. Kondatuko othe ditugu, bada, han jokatu dituen partidak? Ez du balio. Aski da hau erratea: lehen-lehen herrunkako pilotaria zela, hoberena ez bazen, hoberenatarik. Hirurgarren urthetik goiti ez zuen Larralde gehiago kontraturik egiten plazako nausiarekin. Gustu zuelarik aski zion erratea biharamunean ariko zela. Baietz erraten zion nausiak... eta biharamunean plaza mukhuru bethea zen.

Arte hortan, besoa unhaturik, ukho egin zion gibelego jokoari, baina aintzin hortan ere, pilotaria saskitik ere pilotari, orori laster negurtzen ahal zen.

Bainan ororen gainetik, "quiniela" direlako buruz buruzkakoetan zen ikharagarria Larralde. Hamarretarik bederatzieta irabazten zuen joko hortan, bere bota tzarrari esker. Hango orduko egunkariak ez dute espantu aski.

Hameka urthe egon zen Larralde han gaindi bigarren itzuli hortan, agerraldi bat eginik doi-doa Eskual Herrirat... Irunen ezkontzeko. Mila bederatziehun eta biau itzuli zen alderat, Luhosotik gehiago ez atheratzeko. Geroztik zenbeit partida egin du segurki eskuin eta ezker. Pleka oro harritzen zituen. Bainan errebotean ere bere chokhoa aski ongi atchikitzen zukeen. Badakigu bethi Baigorriko eskualdun phesta batzuetan lehen garhait-saria hari eman ziotela.

Ondikotz, Larralde zahartu da: Larralde pilotari utzi du... eta ez dugu Luhoson eta nihun gazte bat bakharra ikusten Larralderen famaz jelos denik. Zertaratu behar zen Eskual Herria, behinere Ameriketara zelarik asmatu balu Larralde, ez zen hunat itzuliko... Eskualdunik gabe ez ditakeela Eskual Herririk. Egia baita!

Darraidou

Oraiko pilotarietan gazteenatarik da Auguste Darraidou, ezpeletarra. Hogoita sei urthetarat doa. Gazterik hasi zen pilotan eta uste dugu

ez zuela hamasei urthe baino hainitz gehiago Martin Harambiletekin⁽¹⁸⁾ lehen aldikotz Baionan ari izan zelarik Léonis eta Onddoren kontra. Ezpeletarrak irabazirik, orduko egunkariak sekulako espantuak egin zituzten Darraidouren jokoaz. Horiek irakurtu eta, ezpeletar gazteari gogoratu zitzaion, bertze zernahi bezen ongi, pilotari egin zitakeela eta handik zenbeit denboren buruan gazteen arteko zoin-gehiagoka bat Gueraçague jaunak Baionan hasirik, bere izena igorri zion ezpeletarrak.

Lehenik ari izan behar izan zuen Maisonnave Kanbokoaren kontra. Polliki ari zen Maisonnave, bainan begirik ez zuen ideki Darraidouren kontra. Bazen, hargatik, denbora hartan, Bachenabarren, bertze gazte bat jada ederki ari zena eta Darraidouk bezala, izena igorria zuen. Harek, bere aldetik, Hardoy Kanbokoa erhautsirik, Darraidou eta... Arce gelditu ziren azken partidako. Zer partida egin zuten bi gei pollit horiek! Gutiz gehienak baigorriarraren alde ziren eta aski diru jokatu zen Darraidouren kontra, abantailean. Eta futcho, Darraidouk irabazi. Arratsean, zer loria amattori eskurat eman ziozkalarik sedazko zinta eder bat eta bi musurekin berrogoita hamar libera! Handik hamabortz egunen buruan Arce nausitu zitzaion, hargatik, Kanboko trinketean, bainan Kanbon ez zen... sedazko zintarik!

Partida guti egin zitaken orduan. Gerla zen eta pilotari gehienak beren etchetarik urrun ziren. Doyarçabal eta Onddo ziren ororen nau-siak hemen gaindi, bainan bati eta bertzeari ere gerlak indar handiskoenak khenduak ziozkaten, aintzineko egunetan. Halere horiekin egin zituen Darraidouk apendizkoak. Hola, gerla bururatu zenean, jada eza-gutua zen. Berehala Maulerat galdetu zuten Harambiletekin. Léon Dongaitz eta Arce zituzten kontra. Egundaino ez omen dute Maulen halako partida ederrik ikusi nola hori. Jendea choratua atchiki zuten Darraidouk ezkeraz pilotari ematen ziozkan taloek. Artean errateko, pilotari guti ikusi baita egundaino halako ezkerarekin!

⁽¹⁸⁾ GH *Harambi letekin*.

Handik laster, Kanboko phesta batzuez, bardin choratu zituen oro. Arce zuen lagun egun hartan: Leonis eta Harambillet kontra. Gazteak nausitu zitzaizkoten⁽¹⁹⁾ zaharreri, ederki lehertu ondoan lauak. Partida haren itzuliphurdiak!

Eta gero, horra Darraidou soldado... Parisen. Pensatzeko da pilota guti hunkitu zuela han urthe bat eta erdiz. Aski bizkitartean *Championnat de Paris* delako pilota-gudua irabazteko Pariseko pilotari hobereneri, Edouard Borda Azkaingoa eta Battitta Etcheverry Uztaritzekoa lagun. Ala harritzeko othe da hemen Dongaitz, Léonis, Harambillet eta Arceren heineko choritto batzuekin ari izan ondoan Pariseko pilotarichkak garhaitzea! Nihor ez zen harritu... salbu beharrimotz zenbait⁽²⁰⁾.

Soldadogotik etcherat itzuli zenekotz, Darraidouri galdeak ethorri zitzaizkon alde guzietarat. Gogotik galduak ere ditu gutiz gehienak. Hau ez dezake ahantz, hargatik: buruz-buruka jokarazi zutela bere herritar eta adichkide Harambilletekin. Bi mila libera baziren jokoan, bi partida egiteko, bat Kanbon, bertzea Ezpeletan. Bigak aski aise irabazi zituen Darraidouk.

Geroztik ibili dituen urhatsak! Ari izan da Maulen, Donapaleon, Baigorriin, Hazparnen, Kanbon, Saran, Elizondon, Baionan, Senperen, Miarritzen. Hots, Eskual Herriko chokho guzietan! Nola konda han eta hemen egin eta irabazi dituen partida guziak! Nola orhoit ere!

Baigorriin bizpahiruetan Harambilletekin eta bertze hoinbertze aldiz Leonisekin nausitu izan da Arce eta Argaini, Arceren trinketean. Hazparnen ehun partida baditu eginak. Orhoitgarriena aurthen, bakarririk eta ezkeraz bota, Telletchea, E. Itzia eta Pampiren kontra. Galdu zuen partida hau, bainan hazpandarrerri batere ez diote zorrik hortako: duela zenbeit urthe, berak erhautsi zituen besta biharamun batez Abbadie, Petrissans eta Pampi. Kanbon, partida andanatto bat irabazi izan du duela urthe pare bat, eta lerro-lerro. Harambilletekin, lehenik Isidore

(19) GH *zitzzaizkoten*.

(20) Autorearen oharra: Beharrimotzak edo kaskoinak

Dongaitz eta Leonisen kontra, gero Isidore Dongaitz eta Argainen kontra, azkenik Dongaitz bi anaien kontra. Ezpeletan egundaino egin duen partidarik ederrena, huna: Leonis lagun, Arce eta Harambilleten kontra. Arras aintzinean zen. Leonisek zangoan minhartu ziolarik. Parioen gatik ez zitazken geldi, segitu zen, beraz, partida. Zer egin zezaken bakarrik Darraidouk? Bardindu ziren berrogoita laura.

—Nahuzue geldi, orai?

Arcek ezetz... arrazoinekin. Erhotu zen Darraidou eta lothu egundaino baino finkiago. Bardin berritz berrogoita zortzira. Horra nun arpak hartzen duen orduan eta Arcek ez nahi oraino gelditu. Hori duk? Bota hartzen du ezpeletar gazteak eta akhabo, bi azken phonduak nahi badute eta ez badute Arce eta Harambilleti egiten diozkate, Leonis nigar chorta bat begian beha dagokiolarik sare chokho batean. Munduaren orroak azken pilota tiroa bezala ezkerreko sarean sartu zuelarik Arce eta Harrambilleten artean! Darraidouk sekulan ez du aditu eta sekulan ez du adituko hainbertze esku zarta.

Gure pilotariak ez du, hargatik, Ezpeletan egin bertze partida bat ere ahanztekoa. Harambilletekin zen orduan Argain eta Arceren kontra. Urthe bat bazuen partidarik ez zutela galdu bachenabartarrek eta Ezpeletan ere, gehienen arabera, aise irabazi beharra zuten. Lau pilotariak ari izan ziren beren bothere guziez eta denboraren buruan partida ezin bururatuz, lehertuak, bardin gelditu.

Ez da pilotaririk Ezpeletan behin edo bertze Darraidouk garhaitu ez duenik: Dongaitz, Leonis, Arce, Chileno, Arrayet, Harambillet eta oro.

Donapaleon ere ari izan da zenbatetan: behin Pequeñorekin. Dongaitz eta Pouchanten kontra: bertze behin Leonisekin Dongaitz eta Arrayeten kontra: Harambilletekin, Leonis, Usabiaga eta Salinasen kontra: Harambillet eta Argainekin Leonis eta Arceren kontra. Bainan han egin duen partidarik orhoitgarriena, desafiozko partida bat izan da: Leonis eta Harambilletekin Leon Dongaitz eta Arceren kontra. Galdu zuen, bainan zer jokoa eginik!

Donibane-Lohitzunen baino maizago nihun ez da ari izan Darraidou. Bera ere ez da orhoit zenbat aldiz. Eskuinaz bakarrik han irabazi izan dio desafioz Felipe Hendaiaikoari. Behastegi gazteari ere ba, hau bethi botatik. Telletchea Hazparnekoari⁽²¹⁾ orobat handik laster, hau ere bethi botatik. Mila libera zuten parioa. Leon Dongaitzekin Argain eta Arce garhaitu zituelarik, gerochago, mundua ez zen guti harritu: bache-nabartarrek ez zuten aspaldi partidarik galdu nahi ez eta galtzen.

Elizondon? Elizondon ez du egundaino partidarik galdu. Bat kasik irabazia eskutik eremaiter dio hargatik aurthen Mentchikok. Egun hartan eta ondokoetan odol gaichto frango egin baitu Darraidouk jokoan pausatu dirua gibelat ezin⁽²²⁾ bilduz⁽²³⁾!

* * *

Geldi gaiten huntan, plazako bizpahirur partida aiphaturik. Uztaritzen Arcerekin garhaitu izan ditu Larralde eta Leonis; Ainhoan, Isodore Dongaitzekin Leonis eta Arce; Iriburun Isidore Dongaitzekin oraino Pouchant eta Larralde; Milafrangan, Salinasekin Felipe eta Larralde; Luhoson, Larraldekin Isidore Dongaitz eta Arrayet. Bertzeak bertzalde.

Erran diteke, beraz, treinketea ala plazan Darraidou pilotari gaitza dela. Eta zer plaza-gizona! Ez da naski pilotaririk hoinbertze begitarte egiten diotenik orok eta orotan. Sekulan elhe bat bertzea baino gorago. Bethi finki ari, aintzinean delarik behinere lazatu gabe, gibelean bada, behinere etsitu gabe, bere pilotaren zartaz inguruak inharrosten dituela bakharrik...

Damurik ditu Darraidouk eskuak ahulskoak eta aski laster minberatuak! Dongaitz, Arce, Leonis eta orok aithortzen dute lañoki Darraidou, ontsa delarik, garhitzeko ez dela lo egon behar plaza batean. Dongaitz, Arcé, Leonis, Harambillet zerbeit izan dire eta badire. Zerbeit

⁽²¹⁾ GH *Hazparnekoari*.

⁽²²⁾ GH *egin*.

⁽²³⁾ Autorearen oharra: Baionan sobera partida handi egin du; bat bakharra hemen aipatzeko edozoin lagunekin edozoinen kontra: ilhabetea bat nunbeitan.

baziren denboraz Porteño, Vasquito, Piztia eta Urcelay. Hein hortako pilotaria da gure ezpeletarra, ontsa delarik.

Léon Dongaitz

Lau anaia pilotari! Horra zerbeit egun guziez ikusi ez dena orai arte eta gero ere naski egun guziez ikusiko ez dena! Behin bederen ikusi da, hargatik... Urruñan. Han sortuak dire, Dongaitzengan, Joseph, Jean-Baptiste, Léon eta Isidore Sorçabal, lau anaia pilotari horiek. Bai, pilotari eta pilotari handi lauak! Bakotchak merezi lituzke espantu handienak iragan hogoita hamar urtheetan ez baita chokorik Eskual Herri guzian beren jokoaz harritu ez dutenik. Bainan, gerokoak geroko, anaietan hirugarrena baizik ez dugu hemen aiphatuko: Léon. Zenbatetan ez du *Gure Herriak* erran hemen gairi ez dela izatu Porteño bezalako pilotaririk! Bada, Porteenori norbeit parrez par ezarri behar balitzaio baitezpada, hura ditake... Léon Dongaitz.

* * *

Urruñan egin zuen bere lehen partida handia Leonek, herriko phesta batzuez: anaia Josepekin, Vasquito eta Gorostiaguen kontra. Chori onekin zuten egiteko alde batetik; bertzetik, gibeletik ari izan behar zuen Leonek. Beraz, galdu zuten bi anaiek. Handik hamabortz egun gabe, hargatik, Leonek partida bera irabazi zioten bertze anaiarekin. Odolekoa izatu du, beraz, egundaino Leonek, partida bat galdu duelarik, ez amor eman nahi izatea eta bertze lagun batekin bederen kitoa bilhatzea. Froga hoberik ez baita Leonek ez duela bere denboran ezinbertzez baizik partidarik galdu eta bethi, bethi, min guzien gatik, nekhe guzien gatik, irabaztea bilhatu duela!

Lauetan hogoi eta seiean sortu, herritik kanpo mila bederatziehun eta hiruan deitu zuten lehen aldikotz Leon Dongaitz. Hamazazpi urthe bazituen, beraz. Bera anaia Jean Baptiste eta Urcelay zituen laguntzat: Porteño eta Piztia kontra. Huna zer erraten duen orduko "*Eskualdunak*":

“Ikusliarrek iduri zuten burutik joanak bat bederak egiten zuen jokoaz.” Hiruetan hogoi eta berrogoita lau irabazi zuten... hiruek. Uste duzue eder izan zitzaion hamazazpi urthetako pilotari gazteari Porteñoren garhaitzea! Arrazoinak ere bazituen egiazki...

Zer geia zitaken orduantche! Geia ez zen gei egon: egin zen eta hala egin nun bi urtheren buruko buruz buruka arrarazi baitzuten, Donibanen, Porteñoren kontra. Bainan hemeretzi urthetan zer egin zezaken Porteño bezalako pilotari baten kontra? Galdu zuen. Hargatik, urthe hartan berean Ezpeletako trinketea oro harritu zituen, Jean Baptiste anaiarekin garhaituz... Porteño eta Piztia. Hemeretzi urthe baizik ez zituen oraino Donapaleon bi harrigarritzko partida irabazi zituelarik, anaia lagun: lehena, Behachka, Urcelay eta Sustarraren kontra: bigarrena, biharamunean, Porteño eta Urcelayen kontra. Partida hau ez zuten, hargatik, bi anaiek irabazi bi oren oso-osoak ari izanik baizik eta... 60 eta 59!

Handik laster Kanborat deitu zuten. Chiquitoren flora zen hain chuchen. Porteñorekin Leonek garhaitu zituen Gorostiague eta Chiquito. Urthe bereko urrian, Donapaleon, bi anaiek irabazi zioten Porteño eta Garcinari. Huna zer zerasan ondoko egunetan egunkariak: “Léon est en progrès constants au point de vue de la vigueur et de l’endurance. Encore un champion de tout premier ordre”.

Porteño ez zen batere bere buruaz hartua eta ez zuen maite desafioka aritzea irabazi ziotenekin. Doi-doiako partida hortarik lekora bi anaiek lauehun liberaz desafiatu zituen hargatik, harek Loustalot laguntzat. Dongaiztarrek irabazi zioten oraino. Egunkariak hitz bat erraiten du bakharrrik, bainan ona: “Les Dongaitz merveilleux!” Hemeretzi urthetan “merveilleux!” Eta geroztik!

* * *

Geroztik? Gutu dire, arras guti, Leon Dongaitzi buru atchiki diotena, nun eta ez zitzaizkoten hirur kontra ematen bi anaieri, Donapaleon 1906eko apherilean bezala. Bi anaiek arrarazi zituzten Porteño Behachka eta Gorostiaguen kontra,... Leonek bota gal oraino!

Birazka bi anaiek ez zuten gehiago parerik. Kanbon, irabazi zioten Porteño eta Piztiari: Ezpeletan, Porteño eta Chiquitori. Donapaleon, Porteño eta Camposi. “Les Dongaitz ont été formidables” dio huntarik lekora egunkariak.

Geroztik? Maulen bi anaiek irabazi izan dute Piztia bi anaieri; Baionan, Piztia eta Harambilleti; gerochago Zapaterito eta Piztiari: eta... gerla ondoan, Elizondon, Leonis eta Arceri.

Bainan ez othe zituen partida horiek guziak anaiari esker irabazten? Ba eta ez. Anaiari ere irabazi izan dio Leonek, behin Donibanen eta Baionan bigarrenen. Donibanen lau anaiak ziren ari izan, bi zaharrenak bi gazteenen kontra, aita juje. Baionan, Leonek Harambillet zuen lagun, Jean Baptistek, Piztia.

Bertzalde, anaiarekin bezala, bertze nornahi lagun, zenbat partida ez du irabazi Leonek, ezen, egunkari batek erraten daukun bezala: “Léon avant accompli, fait pencher le plateau de la balance par son but bas et foudroyant, le modèle des buts!”

* * *

Espainiako alde hortan ere ibili da guti edo aski Leon Dongaitz. Han gaindi ere anaiarekin garhaitu izan ditu bat bertzearen ondotik Chortena, Piztia, Cantabria, Errezabal, Chortena I eta III, Chortena eta Aguirre, Urcelay eta Primitivo, Campos bi anaiak, Chortena I eta Usin. Eta aldiz aldi, hango egunkariek espantu berak zituzten gure Leonentzat, bethi... *Leon Dongaitz verdadero acrobata...* eta holako.

* * *

Gutitan ikusi dena da pilotari bera pilotari handi trinketea eta bardin handi plazan. Leon hala da. Trinketea pilotari hoberenak garhaitu baditu, nork atchiki dio bethi buru plazan? Bat ez da agertuko bethi Leon garhaitu duena. Zenbatetan⁽²⁴⁾ ez dio, aldiz, Leonek Mondragonesi berari amor emanarazi? Mondragones, Ulaçia, Etchave, Chapasta, Etcheverria, Castillo eta oro, oro zafratu ditu han edo hemen.

⁽²⁴⁾ GH *Zenbatetea*.

* * *

Omen bat bada Eskual Herrian aski hedatua: Leonek ez duela hatsik eta ez dela on buruz buruka jokatzeko. Hori galdetu behar frogatu dute-neri. Harambilletek bere hoberenean bi partida galdu zituen Leonen kontra, eta plazan, Pouchantek begirik ez zuen idekitzen ahal izan. Bizkitartean Pouchant pilotan ikusi dutenek aithortuko dute zerbeit bazela. Bainan Leon... Leon baita! Holakorik agertuko othe da sekula santan gehiago? Nekhez. Gaizo Leon⁽²⁵⁾!!!

Soudre-Vasquito

Senpertarra izanagatik sortzez eta bihotzez, aspaldi huntan Donibanen dago Soudre-Vasquito, hain maite zuen pilotari ukho egintcherik, Azkaingo bideko ostatu batean kokatua bere emazte eta alabarekin. Goñi deitzen dute gutiz gehinek, izen hori baitzuen hartu 1895ean Ameriketarik lehen aldikotz Eskual Herrirat itzuli zelarik. Pilotari guti ikusi dugu hemen gaindi hunen heinekorik. Gisa da, beraz, *Gure Herriak* aipha dezan jada aipatu dituen Porteño, Darraidou, Leon Dongaitz, Arce eta Harambillet bezala, ondoko egunetan aipatu gogo dituen Piztia, Errezabal, Urcelay, Cantabria, Leonis eta bertze zenbeit baino lehen.

* * *

Mila zortziehun eta lauetan hogoita hamabortzean zitzaukun, beraz, hemen agertu Vasquito. Nihork ez zuen oraino ezagutzen. Bi lagun bazituen berekin: Mendilaharzu eta Saroberry. Argentinatik heldu ziren hirua. Ikusteko zer pilotari ziren. Donapaleon, laster arrarazi zituzten Vasquito eta Saroberry, alde batetik. Biscaye bi anaiak eta Mendilaharzu, bertzetik. Ez zioten biek begirik idekitzerat utzi hirueri.

⁽²⁵⁾ Autorearen oharra sinaduraren ondoren: Egun guti du Leonek bere ilobarekin Arce eta Leonis garhaitu dituela. Bizkitartean berrogoita bat urthetan da!

Ondoko Mendekoste biharamunean Vasquito eta Saroberry bereri kontra eman ziozkaten, bada, Ziki, Barcelona eta Haraneder. Orduko trinketlari hoberenskoenak ziren hirur hauk eta gutiz gehienek uste zuten amor emanaraziko ziotela argentinoeri. Baduk hoberik. Badakizue zenbat phondu egin zituzten hiruek? Hogoita zortzi hiruetan hogoita hamarretarat. Erdiak ere ez, beraz!

Hori ikusirik, biharamunean bertze partida bat egin zuten eta Ziki Etchechoury eta Larrañagak ez zioten amor emanarazi doi-doia baizik, harritzeko joak egin-eta, bi chori bereri. Mundua ez baitzen guti mintzatu segurki Vasquitok orduan ere egin zuen joko paregabeaz. Egun hautan oraino —beraz, denbora eta denboraren buruan— huna zer erraiten zuen Zikik: “Vasquito partida hortan ikusi ez duenak, ez du pilotan ikusi!”

Handik ilhabete bat eta erdiren buruko Donapaleon phestak ziren. Nor ager Saroberry eta Vasquitoren kontra? Lehen egunean, parrez par eman ziozkaten Larrañaga, Aldacharren eta Aintzina: bigarreanean, Larrañaga, Ziki eta Aldacharren: hirugarrenean, Larrañaga, Etchechoury eta Ziki. Hirur egunez argentinoek irabazi, nahiz bigarren eta hirugarren egunetan bota galdu zuen⁽²⁶⁾ Vasquitok...

* * *

Denbora guti zuen Eskual Herrian zela Vasquitok: aski halere haren omen handia orotarat hel zadin eta jada alde guzietarat bazituen galdeak. Beraz, buruilaren lehenean Hazparnen ginuen, bethiko bere lagunarekin, gure pilotaria, Etchechoury, Gorostiague eta Amespilen kontra jokatzeko. Gorphutzeko aldiak badituzkete pilotariak ere on ala tchar, ezen hiruetan, hogoita hamarretarat berrogoita bat egin zituzten doi-doia Saroberry eta Vasquitok. Hala-hala, handik zortzi egunen buruan Donapaleon hirur hazpandar hoberenak erhautsi zituzten: Behachka, Gorostiague eta Amespil. Huna, bada, zer zerasan hortarik lekora, erda-

⁽²⁶⁾ GH gal zuen.

raz, orduko egunkari batek: “Si son bras (de Vasquito) s’est quelque peu affaibli par l’inaction, c’est avec joie que nous avons constaté qu’il n’avait perdu aucune de ses nombreuses qualités d’excellent pelotari... Encore quelques jours d’un entraînement sérieux et nous reverrons le Soudre des grands jours, le lutteur *invincible* qu’il fut l’an dernier”.

Ondoko egun eta ilhabetetan berritz irakusterat eman behar baitzuen segurki Vasquitok ezin garhaitua zela!...

Denbora hartan Ezpeletan bazen fama handi eta handiko pilotari bat: Barcelona. Nihork ez zion egundaino, buruz buruka, bederen, bere trinketean amor emanarazten ahal izan. Bada, egun batez, desafioz, Vasquitok irabazi zion Barcelonari *bere trinketean*... ezker choilaz. Oro harritu ziren eta “c’est là une performance prodigieuse” zerasan ondoko egunetan Bordeleko egunkari batek.

Gerochago, Gorostiague Hazparnen garhaitu zuen, libro-libro! Eta nola garhaitu! 80 eta 42. Hastean, bada, Gorostiaguek hamalau phondu egin zituen Vasquitok bat egin gabe, parioak doblean jartzeko heineraino.

Nork izatu du Vasquitoren izpiritu gaichtoa?
Ogizat hartuko zinuen haren ganik arthoa.
Fidatu ez balitz sobera Gorostia gaizoa,
ez zen aldi hartan egonen sakela hustuskoa...

Denbora bertsukoa, hau ere: Hazparnen ezker choilaz erhautsi zuen herriko pilotari onetarik bat, Harriague: hunek berrogoita hamahirur egin zituen hiruetan hogoita hamarretarat. Bainan huna handiagorik. Donibanen bakharririk ari izan zen... hirur senpertainen kontra. Berrogoita hamarretan gelditu behar izan zuten, elgarren bethe zirela ikusirik: “Cette partie a démontré les qualités extraordinaires d’endurance, d’agilité et de vigueur du terrible Soudre” dugu orduko egunkari batean irakurtzen, Blazy Baionako jaun aphez maitagarriak nunbeitik eskuraturik.

Lauetan hogoita hamazazpiko urtharilean Vasquitok jostetan buruz buru ereman zion omen handiko Zamorano espainolari. Donibanen ari

izan ziren. Partida hortan kausitu zen norbeitek berritan erraten zaukun Vasquitok ezkeraz ere irabaziko ziola naski egun hartan Zamoranori. Gorphutzeko aldia!

* * *

Hemendik harat Vasquitok eginen dituen partida guziak aipatu gabe, jauzi batez joan baginte Porteñoren kontrako partidetarat! Hemen gaindi agertu den pilotaririk handiena Porteño eta hari buru atchiki dionak, kopeta gorarik, erran dezake: “Ikusten duzue ni ere ez nintzela, beraz, phikaren azken umea!” Bada, Vasquitok, jada bere hoberenetik kanpo, buru atchiki dio Porteñori. Ez erran, bizkitartean Porteñok behin Baionan eskuin choilaz eta hamabortz phonduz irabazi izan diola gure pilotariari: badakigu hori. Badakigu ere bertze behin bardin-bardina Vasquito erhautsi izan zuela Porteñok. Bai. Bainan Vasquitok ez othe dio Porteñori behin irabazi Donibanen... buruz buru eta libro-libro? Ezkerka ez othe dute bertze behin, lehertuak, partida ezin akabatuz utzi Donibanen? Eta lagunka Vasquitok ez othe du frangotan Porteño garhaitu? Bai, finka ditake segurki hameka aldiz buru atchiki diola Porteñori Vasquitok... eta, beraz, pilotari gaitza zela...

Orai han bizi da Donibanen, itsasoaren orroak ahantzarazten dioz-kala Donapaleon, Hazparnen, Donibanen eta orotan aditu dituen oihuak, batzu alde, bertzeak kontra. Pilotari oraino ezin ukho eginez ari da, noiznahi eskularru bat besoaren puntan. Luzaz bihotzean atchik dezala pilotaren amodio hori. Deus ez da ederragorik munduan! Gora Vasquito! Ez zinen phikaren azken umea segurki eta halere!!!

Piztia

Mendiz bertzaldean mintza zaite nornahiri Piztiaz, ez dutela ezagutzen ihardetsiko dute. Mintza zaite, aldiz, Chiquito de Azcoitiaz, laster haur ttipienak ere erranen dautzu egundaino, Chiquito de Eibar kanpo, pilotaririk

ez dela izan horren heinekorik. Bada, Piztia eta Chiquito de Azcoitia ez dire bi pilotari, bigak pilotari bera dire, beren izen eta deithurez Joaquin Larrañaga. Hemen gaindi ez baitiogu behinere- behinere bertze izenik eman Piztia baizik, doala horrekin *Gure Herriaren irakurtzaileetarat...*

* * *

Mila zortziehun eta lauetan hogoita hemeretziari hemen gaindi zabiltzan pilotarietan bat bazen azkoitiarra: Modesto Larrañaga. Hunek norbeiti erranik Azkoitian bazela hamasei urtheko pilotari gazte bat laster oro garhaituko zituen: Piztia. Piztia baitzen delako gaztea Donapaleorat berehala ekharrarazi zuten, trinketeko joko berezia han ikas zezan. Laster ikasi zuen, ezen urthe hartako buruilaren hamar eta hameketan Piztia, Urcelay eta Barbero nausitu zitzaizkoten, nahi bazuten eta ez, Bahachka eta Porteñori...

Handik bi urthe gabe, Piztiak oro harritzen zituen. Huna zer erraten daukun denborako egunkari batek, partida baten ondotik: “Une mention spéciale à Piztia qui, après s’être comporté comme un joueur d’une envergure égale à celle de n’importe quel champion connu (sauf Goñi) s’est révélé pelotari capable de tenir plus efficacement en échec que tout autre l’incomparable champion argentin”.

Lelo bera handik laster bertze partida baten ondotik: “Une mention spéciale à Piztia qui, à 18 ans, est déjà l’égal de ce qu’était Larrañaga à son apogée. Voilà le grand joueur d’avenir et déjà l’égal des meilleurs”.

Bai, oro harritzen zituen jada Piztiak. Gehichago harritu behar zituen ondoko denboretan, Donapaleon, Kanbon, Hazparden, Ezpeletan, Baionan, Miarritzen, Uztaritzen, Saran, Donibanen... eta deitzen zuten trinket edo plaza guztietan. Behin Miarritzen Urcelaiekin erhautsi zituen Porteño eta Chiquito. Bertze behin, Hazparden, lagun berarekin garhaitu zituen airez aire Behachka eta Gorostiague. Gutik izan dute, eiki, beren denboran holako ohorerik! Ala ez, Behachka?

Donapaleon, Urcelaiekin oraino, nausitu izan zaiote Soudre eta Porteñori, “après une partie inoubliable” dio egunkariak. Ondoko aldi

batez, Porteñori Chiquito emanik lagun, Piztiak irabazi zioten oraino. Kanbon, Porteñorekin garhaitu izan ditu Léon eta J. B. Dongaitz: Baionan, anaiarekin, erhautsi zituen Joseph eta J. B. Dongaitz. Hots, erran ditake pilotari bat ez dela agertu Piztiak, frango aldiz, garhaitu ez duenik, lagunka bederen...

* * *

Buruz buruka edo bakharrik bien kontra, ez zauku iduritzen nihor egundaino izatu dela Piztiak bezenbat partida irabazi duenik bere denboran.

Hemen gaindi Porteñori, Harambilleti eta J. B. Dongaitzi bederen irabazi izan diote, han edo hemen. Dongaitzi irabazi zion batez, huna zer erran zuen egunkariak: “Piztia a paru à tous digne de sa réputation de premier champion hispano-basque, titre qui ne devient incontesté en Guipuzcoa et en Biscaye qu’après des luttes homériques contre une foule de célébrités locales parmi lesquelles se rencontrent, par la force des choses, des adversaires extrêmement redoutables: tels les Tacolo, Baltasar, Cantabria, Errezabal, Urcelai, Sustarra et tant d’autres!”.

Mendiz bertzaldean, Cantabriari bietan bederen nausitu izan zaio: Errezabali ere bietan. Huntarik lekora, egunkariak erraiten zuen munduan ez zela Piztia bezalako pilotaririk: “le joueur le plus complet du monde est Piztia.”

Bakharrik, Piztiak Eibarren garhaitu izan ditu Chortena zaharrena eta hirugarrena: Tolosan El Japonese eta Mendizabalek ez zuten garhaitzen ahal izan. Behin bederen, Leon eta J.-B. Dongaitzi buru atchiki diote arratsalde oso batez Donostian. Phondu bakhar batek 28 minuta iraun omen zuen. Ezin sinhetsia baita pilotari bat izan dela holakorik!

Lagun ttipia aski zuen hango plazetan hoberenen garhaitzeko. Fernandez delako batekin, Donostian, behin nor uste duzue garhaitu zituela? Errezabal eta Urcelay. Madrilen, Jauregui eta Deusare’ni⁽²⁷⁾, irabazi

⁽²⁷⁾ GH aldizkarian halaxe dator. Huts horrek zer ezkututzen du azpian?

izan diote. Chiquito de Madrid, Navarro eta Camposi, hogoita hamarrerat hemezortzi phonduz. Irunen Urcelaiekin garhaitu izan ditu Baltasar eta Chortena II eta “Piztia fut absolument merveilleux” dio egunkari batek. Lagun berarekin, Baltasar eta Errezabali partida ereman izan diote hirur oren eta erdi ari izanik. Hemezortzietarat zen partida; seiez galdu zuten... orduan munduko hoberenak zirelakoek...

* * *

Geldi gaiten huntan. Luzegi litake Piztiak egin dituen partida guzien lerro-lerro kondatzea. Hogoietarik batekin ere aski bada... orori erakusteko, espanturik gabe, Piztia bezalakoak ez direla nun-nahi eta noiznahi kausitzen. Nahi ginuke eskuarazko hitzek aski indar balute buruan eta bihotzean ditugun guziak pilotari hunen alde errateko. Oro hemen ezarrikeri ere, hitz horiek ez lezakete aski erran. Piztia zerbeit zen! Zerbeit... eta norbeit! Egundaino zu erran dio bere buruari. Ochala hala egin balezake guziek orai eta bethi!

Errezabal

Eskual Herrian gutiz gehienen ustea da buruz buruka Cantabriak ez duela izan parerik. Errezabalek hori zuen bere jokorik hoberena. Hogoieratik zituen doi-doia Donostian Balthazar bere herritar omen handikoren kontra harrarazi⁽²⁸⁾ zutelarik, Balthazar orduko pilotari handiena zen naski, adin bethean eta plazak kurritua. Bizkitartean hogoita bigetarat partida eta hemezortzira bardin ziren. Gero, irabazi bazuen zaharrrak, ez ziren guti harritu oro gaztearen jokoaz!

Geroztikako partida batzuek gehiago oraino behar zituzten eskualdunak maintzarazi. Zer espantuak hemen gaindiko egunkari guzietan, mila bederatzehun eta zazpian, Donostian Piztiari phondu batez iraba-

⁽²⁸⁾ GH *ar-arazi*. Hainbat aldiz dator modu horretan.

zi ziolarik! Alta pariatzaileak ez ziren ba Errezabalen alde! Hogoï hamalaueri nahi bezenbat diru bazen egun hartan Piztiarentzat. Handik ilhabeten baten buruan partida hori bera Errezabalek galdu bazuen, on da jakitea ez zuela amor eman... hirur oren eta erdi ari izan-eta baizik!

Zer espantua ere eskuin choilaz Sustarra bi phonduz Tolosan garhaitu zuelarik, mila bederatziehun eta zortzian! Urthe berean eta plaza berean hirur phonduz Zapaterito famatuari irabazi zion. Bada Errezabalek hamabi metretarik behar zuen sakatu! Gerochago handiagokoa egin beharra zuen. Pilotari horri berari, hogoïta lauetarat sei phonduz ereman zion... eskuin choilaz... eta hamabi metretarik saka! Zer espantua oraino mila bederatziehun eta bederatzian Donostian Piztiari hogoïta bigetarat hamabi phonduz irabazi ziolarik, Zapateritori hamasei phonduz eta Cantabriari hamarrez!

Bainan Errezabalek egin dituen partida ederrenak bakharrik bigen kontra egin ditu: Pequeño eta Caleren kontra Donostian. Pequeño de Elgoibar eta Urcelayen kontra Tolosan, Pequeño de Elgoibar eta Chortenaren kontra Tolosan, Fernandez bi anaien kontra Donostian, Aguirre eta Urcelayen kontra Tolosan, El Japonés eta Mandizabalen kontra Tolosan. Bertzeak bertzalde. Eta bigen kontra ere galdu duen baino maizago irabazi baitu naski Errezabalek...

* * *

Buruz burukaria maiz guti da lagunka. Errezabal, aldiz, lagunka ere ederki ari zen. Edozoin lagunekin, edozoin plazetan, bethi joko ederra egin du eta partida handiak irabazi ditu. Huna zenbeit, herriz herri. Lekeition, Sustarrarekin Tacolo eta Urcelay garhaitu izan ditu; Donostian, Chortenarekin Sustarra eta Urcelay; Gernikan, Errastirekin Cantabria eta Urriolabeitia; Donostian Urcelaiekin Piztia eta Chortena; Tolosan, Urcelaiekin Balthazar eta Campos.

* * *

Gure eskualde huntan pilotari horiek guziak ongi ezagutzen ez ditugulakotz, hainitzek ez dute asmatuko zenbatetarainoko pilotaria zen

Errezabal. Dongaiztarrak hobeki ezagutzen ditugu eta badakigu, orok, zer pilotariak izanak diren. Bada Errezabal bakharrik ari izana da behin Donostian Josep eta Jean Baptiste Dongaitzen kontra. Galdu zuen, bada, bainan... phondu batez. Egia erran, hortarik lau urtheren buruan Jean Baptiste eta Leonek ez ziozkaten erdiak baizik egiterat utzi. Froga baita hori —edo Errezabal jada gutitzen hasia zela— edo hobeki, Léon aise Josep baino gehiago zela. Dena dela, nor da erran dezakena, Dongaitz bi anaiak hoberen-hoberenean, heien kontra jokatzeko on izan dela? Ez dire mila, naski.

Cantabria

Piztia azkoitiar pilotari paregabeaz mintzatu delarik *Gure Herria* izen bat bada irakurtzaile guziek ikusi dutena, norena zen jakin gabe: Cantabria. Pilotari gehienen izenak bezala, hau ere ez da izengoiti bat baizik, Bernardo Garate denbora bateko Ermuako jaun auzaphezarena. Cantabriak doi-doiako aiphu bat baino gehiago merezi du ilhabetekari huntan, segurki...

Ez zuen molde handirik Cantabriak, bainan zer pasoa ematen zion pilotari! Ezin sinhetsia da! Ezkerrik ez zuen, edo bederen guti zuen, eta, horrengatik, beldurtzeko da behinere, oro konda, nihun ez dela izatu hura bezalako buruz burukaririk. Ez othe diote, lerro-lerro, Fernandez, Arzamendi, Sustarra, Errezabal, Urcelay, Piztia eta aintzinean eman zaizkon guziera, behin edo bertze bederen irabazi?

Orok badakite, lagunka bezala, buruz buruka partida guti kausitu duela bere denboran Piztiak. Bada, mila bederatziehun eta zazpian, Hazileko arratsalde batez, Donostian, Piztiak hamabortz atheratu zituen hogoita bigetarat Cantabriaren kontra. Hirurehun mila libera jokatuak baziren bazterretik: ez zen, beraz, jostetarik han. Bertze aldi batez ere Piztia garhaitu izan du Cantabriak. Eta nola garhaitu! Hogoita biga eta...

bortz, Eibarren. Bai, buruz burukari gaitza zen Cantabria. Bainan laster biga ematen ziozkaten kontra. Nornahi? Ez, segurki. Beha huni.

Donostian eta Bilbaon hiruzpalauetan ari izan da gure herritar Donostian bi anaien kontra. Bethi galdu izan du hargatik, salbu behin, Donostian, bi anaia zaharrenen kontra. Aldi hortan hamalau bazituen Cantabriak lau aldiz Dongaiztarrek, eta, itchura guzien arabera, gure herritarrek galdu behar zuten, Cantabriari barneko min zerbeit lothu zitzaio-larik. Gelditu zen partida, hortan.

Chortena zaharrenak eta hirugarrenak ere bizpahiruetan garhaitu izan dute Cantabria, bainan ederki eta ederki izerturik behin bederen, hogoita bigetarat hogoita bat egin baitziozkaten! Eta, aldiz, Cantabriak garhaitu izan ditu Mendizabal eta Berastegui, Fernandez eta Aldacharren, El Japonese eta Berastegui, Etcheverria osaba-ilobak. Partida hautarik bat irabazi eta huna zer erran zuen frantses egunkari batek: “C’est une de ces performances qui font époque dans des fastes sportifs”.

Halako fama bildu zuen, azkenekotz, Cantabriak nun ezin sinhetsizko partidak ematen baitziozkaten. Nork amets pilotari bat Piztiari joka zitakeela, hunek nahi zuen lekutik, harek hamabi metretarik bota? Partida hori eginarazi zioten, bada, Cantabriari. Partida bera gerochago jokatu behar izan zuen Errezabalen kontra. Bainan huna handiagokoa. Fernandez hirur anaietan hoberenari ez othe zion egun batez eskuin choilaz eta hura bethi botatik jokatu? Errezabali ere partida hau egin zion, bainan ez zituen hogoitalauetarat hamalau baizik egin. Egia erran, hori bera zerbeit da, Errezabalek zuen bota biphilarekin, eta bertze pilotari bat ez da munduan hoinbertze eginen zuenik... Horra zertako gure hartzen ditugun Juan de Yrigoyen bizkaitar liburu-egillearen hitz hauk:

Fue Cantabria el que, por sus condiciones o por el estudio que hizo del juego, manejó mejor el de mano a mano individual, atlético como ninguno, brillante y para el que se necesitan especialísimas disposiciones de resistencia, piernas de acero, aliento de titán y acometividad incesante.

Bai, Cantabriak oro bazituen: hatsa, zangoak, besoa eta burua. Hargatik, gauzak diren bezala erran behar: egundaino Cantabriak ez du deus

handirik balio izan lagunka, berak behar zuen ari izan. Behin, mendiz alde huntarat ekharri zaukuten, sekulako espantuak eginik. Egundaino ez du Hiriburuko partida hortaz bertzerik hemen gaindi egin... galdetu ez dute-lakotz. Bai, bizkitartean, bertze bat Donapaleoko trinketeen egin izan du Errezabalekin buruz buru, zenbeit egun trinketeko jokoaren ikasten ari izanik bigak. Cantabriak bederatzi phonduz galdu zuen eta santa sekulako ukho egin zion trinketari, hango jokoari eta hango erhautsari. Ederki egin zuen: kanpo zabalak galdetzen zituzten Cantabriaren abailek.

Chiki

Eskualzaleen Biltzarrak urthetik urtherat egiten dituen bilkura handietan kausitzen direnek, guziek ezagutzen dute Chiki. Bai, guziek, Chikik ez baitu bilkura horietarik bat huts egiten! Bainan horietan ez dabilzanentzat *Gure Herriak* ez othe du, Chilar, Otarre, Larralde, Santiago eta Behachka bezala, denbora batetako pilotari famatuena aiphatuko?

Chiki izengoiti bat baizik ez da, hain ederra, haatik: Jean Pierre Larre deitzen da gura pilotaria. Urruñarra, Haira, Haraneder, Ribera eta Dongaitz bezala. Haurrak ginen haur hotzak oraino Chiki lehen aldikotz ikusi ginuelarik, Azkaingo plazan. Otarre zenarekin ari izan zen egun hartan Santiago, Chabatene eta Aztarritzen kontra. Senpertarrak orduan ziren agertzen, adin onean, joko bethean eta zer chedetan! Aise asma ditake, beraz, zer pilotaria zitaken Chiki lagun bakhar batekin holako hirur chorieri jazartzeko!

Geroztik ere handik hamar bat urtheren buruan Chiki berritz ikusi izan dugu Azkaingo plaza hartan berean Vasquito eta Santiagorekin Lemoine, Goyetche eta Chabateneren kontra. Seietarik aise zaharrena zen hamar urthe baino gehiagoz naski! eta, halere, harek zion seietarik paso handiena ematen pilotari.

Ez zuen, oraiko pilotariek bezala, Chikik maite pilota altchatzea: bethi beso zabaletik, marrari ari zen eta haren pilota bat beharri chokotan hartuko zuenak segur bazukeen zortzi egunez orhoitzekoa! Pilotari zintzo eta leiala bertzalde, bere buruari bezala ikusterat heldu zitzaizkoneri bethi zu erraten zuena... zenbeit elhe bichichkoren gatik! Itsas hegiko gatz hartarik pichka bat mihian bakharrik...

Plaza gehienak kurritu ditu Chikik Eskual Herrian, Mauletik Hendaiaraino bederen, eta egundaino, orotan, jendea loriatua atchiki du: horra zertako egungo egunean oraino urguilurekin irakuts detzazken hainbertze garhait-sari, sedazko zinta, lephoko, makhila eta moltsa, han eta hemen irabaziak. Santiago, Chabatene, Theophile, Audet, Lemoine, Chilar eta Goyetчек eta mintzatzen ahal balire Biriaturko Ezkerra eta Ottarrek ere ba erran lezakegute pilotari guti izatu dela, plaza zabalean Chikiren heinekorik eta Chiki bezala eskualdunek maitatu dutenik!

Plazako pilotaria ez da aise egiten trenketeko jokoari: Chiki egin zen, haatik. Huna berehala frogak. Donapaleoko trinketeko nausiak ez du behinere bere trinketean pilotari handirik baizik sarrarazi, sosa baino maiteago baitzuen pilota. Bada Chiki ari izan da behin baino gehiagotan Donapaleon. Eta norekin ari izan gero! Soudre, Saroberry, Etchechouriy, Larranaga, Behachka, Esperantcha eta hein hortako bertze zenbeitekin!

Donibane Lohitzunen ere ari izan da eta zenbat aldiz Soudre, Behachka, Claudio, Zamorano, Patchi-chiqui eta Dongaitzekin: Ezpeletan, Chilar eta Domingo zenarekin; Hazparnen, Amespil, Jats eta herriko hoberenekin. Bai, hein oneko pilotaria zen segurki trinketean ere gure urruñarra... Bainan ez othe du Chikik pleka baino gehiago maitatu oraino erreboteko jokoak? Eta botari hainitz izatu ote da haren heinekorik, Belloqui, Chanti, Ithurraín, Berterretche, Patzola, Chantako eta oro barne?

Hemen lerro-lerro ezarri behar balire Chikik, Ottarre, Chilar, Larrondo, Jats eta bertze hemengo errebotlariekin Belloqui, El Manco, Irun, Embil, Ayestaran, Choperena, Vitoriano, Jauregui eta Lissarragaren kontra irabazi dituen partidak, beldurtzeko da *Gure Herria* ez litaken

ilhabetek huntan ager! Ezen, aspaldi gehiago aditzen ez dugun kantu batek dion bezala:

Ez da sekulan izan Eskual Herrietan
Chikiren heinekorik bota maneretan.
Pilota han dabilka, pik edo paretan,
gain beheiti emana kaska gogorretan⁽²⁹⁾.

Badire oraino orhoit direnak Donostian egin desafiozko partida huntaz: Embil, Belloqui, Vitoriano, Jauregi eta Ernaniko Ezkerra alde batetik eta Ottarre, Lemoine, Goyetche eta Suhit Chikirekin. Hunek egin zioten jokoak! Hainitzek, orobat, gogoan dute Azkaingo partida: Chilar, Larralde, Teillery, Larre eta Berterretche noren kontra? Ottarre, Suhit eta Chikiren kontra. Eta, futcho, hirurek irabazi! Botari ona bazen marrako ernea zen Chiki. Horra zertako Jats, Ottarre, Tandilero, Hara-neder, Lemoine eta gaineratekoek pasaka ere batere ez zuten maite Chiki bat marran... kontra: hala-hala lagun orok.

Orai Olhetako chokho maitean bizi da Chiki, ichil eta hauzok maitatua. Lerro hauk irakurtuko dituelarik, bere buruari erran beza hauzok bezala urrungoek ere maite dutela! Eta hainitz maite! Bainan nihork nik baino gehiago! Goraintzi, Chiki!

Pouchant

Dongaitz, Darraidou, Arce plazan bezenbat badire trinketea... nun eta ez diren gehiago: Pouchantek, aldiz, bere florea eta ez zuen eskuin eta ezkerreko paretarik nahi joko guziaren egiteko: plaza zabaleko pilotaria zen.

Jean Pierre Agara (gure pilotaria) Larresoro Pouchantenean sortu zen... duela berrogoi bat urthe, Intalatzeko plazari hurbil eta haren itza-

⁽²⁹⁾ GH *gogoretan*.

lean kasik, partida egun batez omen. Baditake, beraz, pilotaren kaskako-eri ideki zituen lehenik begiak Pouchantek. Dena dela Larresoroko mihi-gaichto baten arabera handik zenbeit urtheren buruan gure haurrak deus ez omen zuen pilota baino maiteago eta hameka bipher egiten⁽³⁰⁾ omen zuen Intalatzeko plazan Moulin zenarekin! Hainbertzetaraino nun hamar-hameka urthetan preso ezarri baitzuten... seminarioan. Han eza-gutu dugu Puchant: han aidichkidetu ginen sekulakotz harekin. Oi, zer pilotari pollita zen jada! Zer sosak irabazi dauzkun, *ichilka!* Bainan egia hau da: ez guk ez nihork ez zuela orduan uste egun batez holako omena bilduko zuela Eskual Herri guzian muthiko mehats beltcharan harek...

Gazte-gaztea zen oraino Pouchant hamasei-hamazazpi urthetan naski Jauregi zaharrak partida eginik lehen aldikotz, herriz kanporat joan zelarik Auguste Hirigoyenekin, Moulin hirugarren. Ustez bederen, Joseph Dongaitz, Santiago eta Aldagaray zituzten kontra. Galdu zuten larresoarrek, bainan, irabazi balu ere, Pouchantek ez zituen gehiago bazterrak harrituko bere saka biphil eta marraren gaineko jo zorrotzarekin. Zer esku-zartak aditu zituen egun hartan! Saran ziren.

Geroztik nun ez da ibili Pouchant? Hendaia, Urruña, Uztaritze, Donibane, Getaria, Miarritze, Baiona, Senpere, Sara, Ainhoa, Milafranga, Ezpeleta, Kanbo, Hazparne, Donibane Garazi, Alduda, Donapaleo eta oro kurritu ditu: orotan partidak irabazi ditu, buruz buruka eta lagunka, orotan jendea harritu, bethi...

* * *

Pouchantek egin dituen partida ederrenak? Han-hemenka huna zenbeit, gogorat heldu zauzkun bezala.

Behin, Uztaritzen, bi oren eta erdi ari izan zen Isidore Dongaitzekin Castillo eta Etcheverriaren kontra. Lehertuak, hogoita hamekara bardin

⁽³⁰⁾ Elissalderen oharra: Bipher egitea edo eskola huts egitea burhasoen ichilik bat dire Larresoron eta Uztaritzen. Mankarrot egitea erraten ginuen guk haurrean, Azkainen.

gelditu behar izan zuten. Phondu bati hamasei minuta iraurarazi zioten. Egun hartan, musde Souberbielle Uztaritzeko auzaphezak, herri guziaren izenean, sedazko zinta bat Pouchanti eman zion, “zeren zen pilotari eder eta leial bat.” Eta orduan zer atsegina bihotzean Pouchantek uztariztar guziak oihuka hasi zirelarik: “Biba Pouchant! Biba pilotari eder eta leiala!” Orhoitzeko egunak ditu holakoak edozoin pilotarik...

Bertze aldi batez, Uztaritzen oraino, Ezkerra eta Haramboure Hendaiako bi pilotari famatuak badakizue norekin garhaitu zituen gure larresoroarrak? Harambilletekin. Bada, Harambillet pilotari handia arras handia bazen trinketean, egundaino gauza guti izatu du plazan. Beraz, aise asma diteke zer jokoa egin zukeen Pouchantek hendaiarraren kontra. Orduan ere, zintarik izan balitz... bainan ez zen...!

Bertzalde, bethi joko gogorra egin du Uztaritzen nornahiren kontra Pouchantek. Hori badakite nihork baino hobeki Dongaitz, Piztia, Zapaterito, Leonis, Larralde Etcheverria eta bertze frangok. Badakite guziz... Pelle, bi anaiek, bieri bakarrik mila libera irabazi baitzizkaten, bipherra bezala, beren hoberen-hoberenean! Bainan orok partida hori gogoan dute hemen aipatzeko. Eta oraino hobeki dakite Zapaterito eta Chortenak, mila bederatziehun eta bederatzian athorrak ederki bustiarazi baitzizkaten Pouchant gazteak Hendaiako Ezkerrarekin, nihork uste ez zuelarik... Uztaritzetik kanpo, bardin ederki ari zen Pouchant. Huna partida batzu gure begiz ikusi ditugunak. Oro ez ditu segurki gure pilotari eta adichkideak irabazi, bainan aldi guziz joko ederra egin du: Milafrangan, Isidore Dongaitzekin Leonis eta Arceren kontra; Hiri-burun, Leonisekin Mondragonesen kontra; Angelun, Leonisekin buruz buru eta Leonisekin Dongaitz bi anaien kontra; Miarritzen, Dongaitz bi anaiekin Maillavia eta Mondragonesen kontra; Getarian Goyetchekin buruz buru; Donibanen, Dongaitz bi anaiekin Mondragones eta Castilloren kontra, bai eta Leon Dongaitzekin buruz buru; Semperen, Iratzokirekin buruz buru... bai eta bortz senpertarren kontra bakharrrik; Ainhoan, Iratzokirekin Leonis eta Larralderen kontra; Itsasun, hola-hola; Hazparden, Kanbon, Ezpeletan eta mila plazetan... ez dakigu nola. Aski,

bada, hor orok aise sinhesteko Eskual Herriko plazetan pilotari guti ikusi dela Pouchant baino handiagorik. Biba, beraz, Pouchant... eta pilotari guziek zu erran dezatela beren burueri harek bezala...

Pilota Azkainen

Baditake ondoko egunetan edo bederen urtheetan norbeitek nahiko dituen egundaino Eskual Herrian izatu diren pilotari handiskoenen ize-nak liburu batean bildu. Bertze deus handirik ez dakien azkaindar batek egun nahi dio lan hori, guti bada guti, errechtu, Azkaingo pilotariak lerro-lerro hemen agertuz. Ottarre guziek ezagutu eta maitatu dugun pilotari famatu hartaz geroztik Azkainen ez bada pilotari handirik sortu, haren aintzinean frango izatu da. Zenbeitez huna zenbeit chehe-tasun...

* * *

Larru da, lehen-lehenik, aipatu behar. Sabadinabaitako semea zen, beraz, aita Clement kaputchino omen handikoaren etche berekoa. Nahiz aita kaputchino horrek Duhalde zuen deithura eta Darruspe gure pilotariak, nola bizpahirur ehun urthe iragan baitire bat hil denetik bertzea sortu den arte, ez ditake erran ez zirela ahaide. Are gutiago, haatik, hala zirela.

Dena dela, eskularru luzearekin ari zen *Larru* eta haren jokoaz ez dute egungo egunean ere aski espantu Azkaingo chahar maite batzuek. Hauk erranik dakigu bizpahirur urthez sos ederrik irabazi ziotela *Pausuko Chaltchari* eta Baionako *Battittari*, *Battitta* eta *Chaltcha* omen baitziren Lapurdiko pilotari famatuenak Kaskoina hilez geroztik. Hain ongi ari zen memento hartan *Larru* nun azkaindar sosdun batek hirur mila liberaz munduko hirur hoberenak desafiatu baitzituen hirur azkaindaren kontra jokatzeko pasaka. *Tolosako Handia*, *Manuel* eta *Chiquito de Azpeitia* agertu zitzaizkoten⁽³¹⁾ mendiz bertzaldetik. *Larruk* galdu zuen, haa-

tik. Bainan nola harri! Manuel mundu guzian ezagutua zen jada, pertsu hauk frogatzen duten bezala:

Gero Espainiatik guri nausitzera,
Meltchor, Antsa, *Manuel* zitzaizkun athera...

Eta oraino ezagutuago zen Manuelen lagun Chiquito de Azpeitia! Ez othe zen munduko pilotari hoberena? Kasik hala iduri luke Peña y Goñi liburu egileak hartaz erraten daukunaz: “un jugador admirable, el rey del guante”. Holako pilotari famatuerei atchiki zuen bezala buru atchikitzeke, Larru ere ez zen segurki nornahi. Eta ez zuen nornahi izan behar naski ondoko egunetan *Ottarre zabar*, *Chabal* eta *Antsorlorekin* biphe-rra bezala erhausteko *Arrochko*, *Vitoriano*, *Bettiri* eta *Mattiu!* Bai eiki, *Mattiu!* Kantuek hala laudatzen duten *Mattiu* aheztarra!

Cemattiuren eskuraz geroztik pilota,
deuser beha hobeki ez daiteke josta.
Jokoa du segura, adret eta presta,
haren erreturnaren parerikan ez da...

Nausien nausiak badire bethi eta *Mattiu* ere Azkainen atcheman zuen berea: Larru! Ondikotz Larruk gazterik Ameriketako bidea hartu zuen eta egundaino herrian nihork ez du jakiten ahal izan zer bilhakatu den. Beldurtzeko da aspaldi hila dela, Perkain, Azantza eta Kaskoina bezen pilotari handia zelarik, hek bezalako fama utzi gabe.

* * *

Larruren ondotik, jada behin aipatu dugun *Chabat*. Ez ditu hogoi urthe izan behar, lauetan hogoita hamar edo gehiago urthetan, hila dela Chabatek. Aise ezagutu dugu, beraz, eta, nahiz hiruetan hogoita zenbeit urthe guk baino gehiago bazituen, adichkide handi ginen. Zer oren gochoak iragan ditugun elgarrekin, neguko arrats beltz batzuez, supazterrean, hura bere partidaren kondatzen ari, gu beharriak luzatuak adi-

(31) GH zitzaizkotan.

tzen! Bi sosen adimendua izatu baginu orduan, nola oro paper-muthur batean hartuko gintuen! Horrengatik, ez ditugu oro ahantziak eta bada-kigu hameka aldiz Chabatek garhaitu dituela bere denborako pilotari handienak *Bichenche Beltza*, *Coutelier*, *Mattiu*, eta *Betti* barne. Beraz, pilotari handia zen Chabat eta hemen aiphatzea zor zitzaion...

* * *

Huna orai *Ganich*, egundaino Azkainen izatu den pilotari hoberena, eskuz, eskularruz eta chichteraz bardin trebe baitzen. Oraino bizi da Ganich, lauetan hogoi urthetarat doala, eta segur bekundea belztuko du, norbeitek haren espantuak hemen egin dituela heltzen bazaio beharrietarat, bainan egiak behar du bere bidea. Doala, beraz, egia hori, semearen ahotik⁽³²⁾, Eskual Herriko lau hegaletarat...

Duela berrogoita hamar hiruetan hogoi urthe *Kattalin* delako bat omen zen Frantziako eta Espainiako (eta, dudarik gabe, munduko) esku-huskalaririk hoberena. Bada, igande arratsalde batez, Ganichek desafioz erhautsi zuen Kattalin. Eta nola erhautsi? 50 eta 6! Pasa marrra lau metretan zuten: lau untzako pilota.

Ganichek bertze partidarik ere irabazi dio Kattalini: behin *Nani Teillary*, hamasei urthetako muthil gaztearekin, *Zubieta* orduko sakari famatuena Kattalini lagun emanik. Hogoi liberaz zuten desafioa. Bertze behin, *Gregoire Larronde* aphezgeiarekin, Kattalin bakarrik ari ziren, bainan libro, azkaindarrak ezkerka. Aldi huntan hainbertze sos galdu zuen Kattalinek nun, zorren ordaintzeko, dirua prest norbeiti galdetu behar izan baitzion...

Eta ez uste izan Ganich Azkaingo plazan zela bakarrik pilotari handi. Nun-nahi hala zen eta nun-nahi frogatu du: Donibanen, Senperen, Saran, Ezpeletan, Itxasun, bertzeak bertze; *Anastasio*, *Beberan*, *Chilar*,

⁽³²⁾ Autorearen oharra: Ganichen semea da egun lerro hauk *Gure Herriari* igortzen dituen azkaindarra. Barkatuko diote orok etheko berriak hoin luzeki ematea...

Chobadoa eta bertze edozoinen kontra. Eta badakizue *Nani Teillary* eta Michel Larronde gazteekin nor garhaitu zituen Saran? *Maritch*, *Patchola* eta *Ziki*. Bertze behin Zikirekin Ezpeletan, *Bichkundia* eta *Halty*. Aski erratea baita *Ziki*, *Halty* eta *Bichkundiarekin* ari izan den pilotaria, segurki zerbeit bazela.

Bai, Ganich ederki ari zen eskuz... eta ahal bada, chichteraz oraino hobeki. Saran, *Maritch*, *Arrochko*, *Michel Larronde*⁽³³⁾ eta *Nani Teillary* lagun, Ganichek garhaitu zituen *Mochko*, *Larralde*, *Patchola*, *Battitta* eta *Elospé*; Ezpeletan, *Bichente*, *Ziki* eta *Ottarre* aita-seeekin Ganichek irabazi zioten *Chillar*, *Benat*, *Garat*, *Benito* eta *Bagoari*, Ottarren zaharra botari; Senperen *Larralde*, *Salaberry*, *Teillary* eta *Chabal* zaharrarekin Ganichek, pilota jo guziz bide berrirat igorritz, erhautsi zituen *Etchevers* apheza, Barnetche ichtudianta⁽³⁴⁾, *Mochko*, *Leyaburu* eta *Artochigar*; Itxasun, *Ottarre* bi anaia eta Zikirekin goizean, eta arratsaldean *Ottarre* hirur aita-seeekin aise amor emanarazi zioten *Estebene*, *Salaberry*, *Larronde* eta *Benitori*. Eta nola partida horietan guzietan hirugarren chichtera bezala ari baitzen Ganich, erran ditake ez zituela partidak laguneren jokoari esker irabazten bakarrik, baina berak ere zerbeit egiten zukeela...

Eta pasaka? Pasaka, Ganich orhoit da ari izanik *Diburichio*, *Cautelier*, *Matias*, *Betti* eta *Mattiuren* kontra bederen. Hamasei urthe baizik ez zituen. Matiasekin *Betti* eta *Coutelier* garhaitu zituelarik hameka joko hama-hiruetarat. Handik laster *Harispe* eta *Chabat* bere herritarrak lagun (17 urthe zituen *Harispek*) Ganich ari izan zen *Mattiu*, *Piarres* eta *Coutelieren* kontra: doi-doia hirur joko egin zituzten hauk. Azkainen ez omen da egundaino hainbertze sos sartu nola orduan...

⁽³³⁾ Autorearen oharra: Michel Larronde, Gerezieta erretor zenaren eta Arruntzako erretor ohiaren anaia, hogoita bi urthetan, hil zen... soldado.

⁽³⁴⁾ Autorearen oharra: Oraino bizi dire *Etchevers* eta *Barnetche*, bat *Urepelen*, bertzea, *Arrangoitzen*.

* * *

Chemartin Salaberry, jada behin edo bertze, hemen aiphatua dugu. Azkaindarra zen, Ganichen koinata... beraz, gure osaba. “Beso biphileko pilotaria” zaukun behin erran Chilar zenak harentzat. Peto zenbeit egi-ten omen zituen, haatik, errobotean. Hala-hala pleka, chichterarekin, hein hobereneko pilotaria zen. Adin bateko azkaindarrek kondatzen dute *Sallaberry* ikusi izan dutela Azkainen. *Chilar* eta *Becas* aphezarekin Ottarre, Ostolope eta *Harispe* Getariakoari nausitzen. Alta pario gehie-nak Harispen alde omen ziren ba! Bertze behin Ganichekin, Ottarre eta Chilar garhaitu zituen, nahi bazuten eta ez Uztaritzen handik laster galdu zuen, haatik, *Cedet* eta *Senjanekin*, *Battitta*, *Halty* eta *Chillarren* kontra, bainan, galdu bazuen galdu, *Sallaberryk* egun hartan orori frogatu omen zuen nun-nahi, noiznahi, nornahi bezenbat bazela.

Gizon maitea, alegera, pilotari leiala, orok maite zuten Lapurdin *Sallaberry* eta segurki holako gizon eta pilotariak merezi izanen zuen gutartean omen handiago baten uztea. Zorigaitzez, aski gazterik pilotari adios erran behartu zitzaion, mugazaingoak denbora hartan ez baitzuen pilotako asti handirik uzten. Horrengatik, azkaindar eta eskualdun gazte guziek *Salaberriren* izena bethi gogoan atchikiko dute *Chilar* eta *Larrondorena* atchikitzen dituzten bezala: hek bezenbat merezi du, eta bertze pilotari guzien kantua bezala kanta detzatela *Salaberrirenak*:

Ganich aiphatu eta orai noren aldi?
Hobe dut ematea koinataren berri.
Guziek badakite nor zen *Salaberry*:
Leialagorik ez da izan herriz herri...

Nani Teillary bizi da oraino, eta azkar; pilota aspaldi utzia du, haatik. Gazte denboran partida ederrik irabazi du hoberenen kontra, eskuz, Azkainen eta Azkaindik kanpo. Bainan omenik handiena erreboteko botari bezala izatu du.

eskualdunetan bethi izan da botari:
orotan hoberena ez othe *Teillary*?

Zenbat aldiz, desafiozko partidetan beretan, Chilar, Ottarre eta bertzeak hura zuten nahi botatzeko. Hameka aldiz Teillary ibili da Espainian barna hango *Irun*, *Elissegy*, *El Manco* eta gaineratekoen kontra. Teillary botariak ohore egiten dio, beraz, bere herriari eta hemen aiphatzea zor zitzaion...

* * *

Eta orai, *Ottarrerren* aldi. Bainan hainitz balio othe du *Ottarrerren* aiphatzea? Ez othe da izen hori bera guk erran detzazkegun guziak baino gorago mintzo eskualduneri? Nor nun da *Ottarre* ezagutu eta maitatu ez duenik? Hain berritan oraino chichtera besazpian joan zen *Ybarnegaray* bere adichkide eta jaun deputatuaren herrirat eta oro choratu zituen!

Joko guzietan trebe zen *Ottarre*: guzietan nausien nausi izana da hemasei urthetarik berrogoita hamarrez goititaraino, *Mauletik* *Bilbao*-rat. *Pilotaririk* othe da, behin edo bertze —eta frangotan— garhaitu ez duenik, ala eskuz ala eskularruz, ala chisterarekin? Mintza ahal balite *Biriatuko Ezkerra*, *Chilar*, *El Manco*, *Larralde*, *Jatsa*... eta oro! Orok gauza bera erran lezakete; norbeit zela *Ottarre*. Eta hortan aski.

Geroztik *pilotaririk* ez dugu *Azkainen*. Bat izan ginezaken, haatik: *Laurent Errandonea*. Eskuz, *Dongaitz* zaharrena garhaitu izan du; pasaka jada pare guti zuen, bainan erreboteko botari zen guzien gainetik. *Saran*, *Beran*, *Donibanen* eta *Urruñan* jada frogak eginak zituen; *Berte*-*rreche* eta *Ithurra*in heinekoa zen. Ondikotz, gerlak ereman dauku bertze hainbertze herritar bezala. *Gaizo Errandonea*! *Nigarra* heldu zauku egungo egunean ere begietarat muthil on, prestu eta lagunkin hartaz orhoitzean! Bai, *gaizo Errandonea*...

* * *

Zenbeit ilhabete huntan *Azkaingo* plazarat igande arratsaldetan doazinek ez dute aski begi hamazazpi-hemezortzi urthe dituzken muthiko mehats luche batentzat: hain zartako ederra ematen dio pilotari ala eskuinaz ala ezkerraz! Ez dakigu *Eskual Herri* guzian baden gei pollitatorik. Dena dela, ez da dudarik ondoko egunetan pilotari berri handi bat izan dezakegula, eskuek eta besoak orai bezala atchikitzen badiote.

Azken Azkaingo bestetan *Nani Ibarburu* ikusi dutenek *Theodore* eta *Pampo* famatuen kontra, hala uste dute. Gauden beha.

Pilota Uztaritzen

Hiri guti da —eta othe da?— Eskual Herrian, Bilbaotik Hendaian barna Santagrazirat, Uztaritzekoa baino eder, bapho eta maiteagorik, bai eta... pilotari handi eta hein bateko gehiago ematen daukunik gure begien choragarri! Harritzeko da, beraz, nola norbeiti ez zaion orai arte gogoratu hortaz hemen mintzatzea! Irakurtzaileek guk egitea onhartu nahi badute, huna zenbeit lerro motz eta hotz... pilota bat eskuan nahia-go baitugu guhaurek luma baino! Alduda, Luhoso, Ezpeleta, Sara, Ahe-tze, Senpere, Urruña, Hazparne, Larresoro eta bertze hainbertzetan izatu diren pilotariak *Gure Herrian* aipatu direnaz geroz, gisa eta zuzen iduritu zauku Uztaritzen izatu direnak —eta direnak— aiphatzea.

Zaldubi zenaren kantuetan ikusten dugunaz, Uztaritzeko pilotarie-tan zaharrena *Martin Heraiztarra* litake. Deus ez dakigu, haatik, pilotari hortaz, delako kantuek erraten daukutena salbu!

Jandarma, Bettiri ta Heraitzeko Martin
bi Soldadoeneko osaba-ilobekin,
Ibarla ta Echkanda Duronearekin,
eskuz ba eskularruz oro ziren bardin.

Nola bere kantuetan Zaldubik ez baititu pilotari handien handienak baizik aiphatzen, bichtan da Heraitzeko Martin zerbeit bazela... bai eskuz bai eskularruz. Heraitzeko Martinen ondotik, huna *Onddore...* bethi Zaldubyren kantuetan:

Sustun Itsasun eta Zuraiden Bettiri,
zoin gehiago ziren erreferan ari.
Onddore ta Putiko eta Frantchisteguy
Bumenarekin bolan ziren lau plekari.

Onddore hori aspaldikoa izanagatik, horren orhoitzapena ez da arras galdua Uztaritzen eta zahar guziek, aditurik badakite zalhua baino zalhuago zela. Behin —gehiagotan ez bada— Heraitzeko plaza jauzian pasatu omen zuen-eta! Nahiz segur ez zuen oraiko goratasuna Heraitzeko plazak, ez da dudarik han horen egiteko Onddore ez zuela gantzak hainitz trabatzen!

Kantu beretan oraino hirugarrena *Senjan*. Hau da, haatik, egundaino Uztaritzen izatu diren pilotarietan handiena. Egungo egunean ere badire eskualdun batzu Senjan, bere florean ez bada, zahartua bederen ezagutu dutenak. Hetarik dakigu Senjan *Kaskoinaren* lagun handia zela. Maiz elgarrekin ari ziren. Hala-nola Irungo partida famatu hartan. Eta gehiagoko dena kondatua da Irungo partida hori Senjanek trenkatu zuela, metrako jauzi batean azken phondua marran eginik! Burguru eiharako semea zen Senjan.

Senjanen ondotik *Bichente Beltza*⁽³⁵⁾. Mugazaina zen pilotari handi hau. Ez zitakeen, beraz, nahi zuen bezala eskuin eta ezker ibil. Badire frango halere Bichente Beltza han eta hemen ikusi dutenak, hoberenen kontra ari. Esku huska ba omen zen Kattalin, Anastasio eta Chobado guziak bezenbat. Zerbeit bazen, beraz, segurki!

Bichente Beltza aiphatzearekin, uztariztar guzietan pilotari bera ethorriko zaiote gogorat: *Chemartin Castagnet*. Zorigaitzez, Chemartin Castagneti jokoak ez dio bertze batzueri bezala atchiki, baina plazaz plaza ibili den bizpahirur urtheetan partida guti —arras guti gero— galdu du. Eta guk sekulan ez dugu ahantziko behin Jatsa zenak erran zaukun solas hau: “Nik plazetan ezagutu dutan pilotari handiena, Chemartin Castagnet da: Chemartin bere florean!” Zahartua eta pisutua da aspaldi gaizo Chemartin, baina bere gogoia ez luke oraino arras saldua Lekunberriko chokho polit eta maite hartan...

⁽³⁵⁾ Autorearen oharra: Ez detzakkegu izenda artean izatu diren hainbertze pilotarichka. Erran behar da, haatik, iganderik ez zela iragaiten, Heraitzarrak Hiribehereko plazarat jautsi gabe beren eskularruak besazpian, Uztariztar hoberenen kontra jokatzeko. Eta norbeitek salatu daukunaz, “fantasia gaitzean” jausten omen ziren...

Gero, *Duronea* Eskual Herrian adin bateko gizonik ez da jaun miriku maitagarri hau ezagutu ez duenik. Pilotaria bera, pilotako legeak nihork baino hobeki ezagutzen zituen. Horra zertako nihun ez zen sekulan desafiozko partida bat egiten. *Duronea* juje bezala han ikusi gabe eta *Duroneak* ahoa idekiz geroz, bethi hartarik zoan. Donibandarrak oraino orhoitzen dira behin Organichta eta Halty ikusirik Diburtchio, Bettiri eta Etcharten kontra. Ikusteko partida izan zen. Galtzerat zoan Halty. Zer egin zuen? Gelditu. Hango oihuak! *Duronea* plazaren erdirat ethorri zen orduan eta oihu hau egin: “Ez zaitzela batere kecha: Halty joan da plazatik, partida galdua du!” Oro ichildu ziren... eta hiruek beren dirua zarpan sartu zuten alegerachko⁽³⁶⁾.

* * *

Huna orai gazteenek ere ezagutzen dituzten pilotariak. Nahiz ez den uztariztarra sortzez, gazterik Uztaritzerat ethorri zelakotz eta han kokatu, Uztariztartzat kondatzen dugu *Kadet Ezkerra*. Hiruetan hogoita zenbeit urthe baditu gure Kadetek eta ez dio oraino arras ukho egina pilotari. Ez du hainitz denbora mundu batek ikusi duela hazpardar gazte baten kontra ari bethi botatik. Odolean du pilota Kadetek. Bai eskuz, bai chisteraz, plekari handienetarik izana da. Uztariztar hainitzek bethi gogoan dute behin Kadetek Grégoire Arretchearekin hirur herriko hoberenen kontra, eskuz, egin zuen partida ikharagarria. Oren osoak berdinka eta luzaka ari izanik, azkenean partidaren galtzerat zoan: hemeretzi eta... bat, hogoietarat. Lagunari erraten dio utz dezan bera eta, bakarririk, hasten da orduan erho bat bezala, jo eskuin, jo ezker, jo gibel. Biga eta hemeretzi... Hirur eta hemeretzi... Hamar eta hemeretzi... Hemezortzi eta hemeretzi... Hemezortzi eta hemeretzi. Oro, harrituak ondo-

⁽³⁶⁾ Autorearen oharra: Oraino zaharrak ez direlarik, lehengo pilotariekin aipatu behar ditugu —hemen— Adrien Detchart eta *Louis Hiribarren*. Nahiz ez duten hainitz espantu berek egiten, orok aithortuko dute bigak arras ongi ari zirela chichtera ttipiarekin. Sinhetsi nahi ez duenak gure erranean, galde dezola... Chilarri. Bai,Chilarri!

tik atcheman behar dituen bada! Sakatzen du Kadetek eta ez diote sakea oneratzten. Hemeretzira, beraz! Eta hogoigarren phondua Kadetek egin ten diote, esku-zartaka ari delarik oraino Jandarmeriako leihoetan herriko neskatcha andana maitagarri bat...

Ez zuen, haatik, alderdi on bera izatu bertze behin Ezpeletan! Bartchelonen kontra ari zen, buruz buru. Hogoita zazpi phondu egin zituen lerroan —sakatik— eta gero, gehiago sartu gabe, partida galdu! Egia erran, chori ona zen denbora hartan Bartchelona!

Eskuz baino gehiago zen naski chichteraz Kadet Ezkerra eta hogoita bat urtheetan Afrikarat soldado joan izan behar ez balu. Ameriketarat joanen zen Chilar, Larralde, Ethulen eta Bichente aheztarrarekin. Eta nork daki Ameriketara ez zen Elissegui, El Manco eta bertze guzien heinera helduko! Horrengatik, hemen egonik ere, partida ederrik irabazi du bere denboran, eskuin eta ezker. Hauk, behinik behin: Lemoine, Goyetche eta Larrendoren kontra bi Larresoarrekin: Chilar eta Etcheparen kontra Adrien Detchart eta Louis Hiribarrenekin... hogoita bortz phonduz arratsaldean, goizean bardin gelditurik.

Bainan, nor ez du oraino garhaitu Kadetek? Gogoan bagintu lerro-lerro eman dauzkun izen guziak: Arrochtegui, Mortal, Chobadoa, Sarriquet... eta bertzeak!!! Eta egungo egunean oraino zangoek aski laguntzen balute!

Kadet Ezkerra zahartzen ari zeneko, atchiki ttipiari ukho eginik, oro atchiki handiari lotzen ari zen. Atchiki handian ere, Chiquito khenduz, gure eskualdetan othe zen *Pedrillo Dubart*, *Michel Dubart* eta *Ferdinand Hirigoyen* bezalako pilotaririk? Bada, hiruak uztariztarrak ziren: lehena Dupategiko, bigarrena

Abartatchipiko, hirugarrena Chapoloko seme.

Denbora berean, chichtera handiari lotzearekin batzu, bertzeak sareari eman ziren, eta zer uste duzue pilotariak egin zirela ichtanteko tresna horrekin *Emile Hirigoyen* edo *Hippolyte Daguerre* bederen! Nork ez daki herriko phesta egun batez desafioz orduko chichterazkari hoberenak garhaitu zituztela...

Horiek baino gutichago ziren segurki, bainan pilotari pollitak halere *Nicolas, Ducassou Chango* eta bertze zenbeit...

Zorigaitzez, *Pelle, Gey, Haira* eta bizpahirur horien lagunek salbu, erran ditake esku huskako joko ederra nihork ez zuela gehiago maite Uztaritzen denbora hartan; nihork ez zituen gehiago *Etchenique* eta *Chiparen* urhatsak segitu nahi. Bainan horra nun egun batez aphez berri bat igortzen dioten Uztaritzerat. Aski pilotaria zen bera eta guziz pilota hain maite zuen nun uraren gainean ariko baitzen, hatsa galdu arte. Erran ditake egun hartarik nihork ez duela gehiago herriko plaza hutsa ikusi. *Goyenette, Dassance, Etcheverry* bi anaiak, *Detchart, Teillera, Agornague* eta arte bat pilotako hartzen ahal zuten guziek hazia erain zuten eta denboraren buruan hazia lurretik atheratu da erro ederrekin, ezen, zer ikusi da aurthen? *Elissalde* eta *Lekueder* Uztaritzekoak, Frantziako gazte hobereneri nausitzen Hendaiako plazan. Eta *Adrien, Dominiche, Titi* eta *Haitze* ez badi-re Frantziako chapelgorat heldu, Milafrangan lehen partida galdurik, eskuin eta ezker hameka partida irabazi dute nornahiren kontra. Bainan lau pilotari handi horietan, laugarren izendatuak bere hitz berezia merezi du. Haitzek pilotari handi baten geia badu eta *Euskalduna* deitzen den egunkariaren arabera, jaz ez omen da pilotaririk izatu Haitzek bezenbat partida irabazi duenik urthe-buru batetik bertzerat! Bizkitartean, oraiko pilotari hoberenskoenen kontra zuen ba ari behar: Iratzoki, Durruty, Saint-Martin, Itzia, Goyette, Claverie, Larralde, Ezkerra, Antchagno, Mathieu, Urria, Abbadie! Eta guk ez dakigu nor oraino! Aise finka ditake, beraz, Haitze chori ona dela jada eta Uztaritzeri ohore egiten duela segurki.

Denbora batez, atchiki ttipia esku-huskako jokoa baino hilago zen. Phiztua da hura ere orai, *Edmond Dubart, Luis Dassance* eta *Alzuyeta anaieri* esker. Frantziako chapelgorat heltzer dire zaharrak eta heldu gazteak aurthen. Eskualdunek gogoan ongi har detzatela hirur izen hauk: *Hiri-barren, Hirigoyen, Heuty*. Hiruen artean ez dituzte berrogoita hamar urthe: beren buruez mintzaraziko dute sarri, iguzkiak uda bethean zerutik argituko eta berotuko duen bezen segur.

Ohore, beraz, Uztaritzeko chokho eder hari! Ohore Uztaritzeko pilotaren fagoretan lanean ari direneri! Ohore Uztaritzeko pilotarigei polliteri!

Edouard Arrayet

Itsasaldean nihor ez da Edouard Arrayet, hirur anaia pilotarietan zaharren eta hoberena, ezagutzen ez duenik. Donibandarra sortzez, ahezta batekin ezkondua da. Hogoita zenbeit urthe ditu. Altzeirua bezalakoa, partida gaichtoenak⁽³⁷⁾ ez ditu etsitzen azken phonduraino. Eta zenbat ez ditu bere denboran irabazi, kasik galdu ondoan! Ez dire pilotari guziak segurki horren haritik egungo egunean...

Trinketean trebe da, plaza zabalean ere ba. Buruz buruka hau edo hura nausi dakioke, ba: birazka, haatik, ez da pilotari hoberik, bethi pilotaren gainean baita, pilota bethi urrun eta finki ibilki. Aski gorphutz hachita due-larik, mandoa bezen azkarra bertzalde. Arras lehengo pilotarietarik, hots!

Hamazazpi-hemezortzi urthetarik hunat egin dituen partidien kon-datzen liburu bat behar litake gutienetik, eta guk astirik ez dugu liburu horren egiteko. Guzien buruan, joan den urthe berrietarik hunat egin dituen partidek frogatuko daukute zer den Edouard Arrayet. Jarraik gakion, beraz, ilhabetetik ilhabeterat. Eta latinak dion bezala: *ab uno disce omnes*, hortarik oro juja.

Urthea ongi hasi zuen, Leon Dongaitzekin Miarritzen Salegui eta Atano garhaituz. Urtharrilean bertze bi partida ere irabazi zituen; bigak, anaiarekin.

Otsailean hirur partidetarik biga irabaziak. Martchoa, ilhabete gaichtoa, anaiarekin hirur partida galdurik, ez baitu bat baizik irabazten! Hau ez nolana hiko, haatik. Leonisekin Inacio eta Arce garhaitu baitzituen!

⁽³⁷⁾ G. H. *gaichtoneak*.

Aphirilean, bi partida irabaziak. Maiatzean bi partida galdu, bortz irabazi. Bi galduak, bi irabaziak errearoan: hautarik bat Behachka eta Arce Frantziako chapeldunen kontra! Eta hogoita hirur phonduz, eiki!

Uztailean, partida bat galdua, bertze biga irabaziak. Agorrilean, bat galdua, lau irabaziak. Buruilean, bortz partida irabaziak. Urrian, bi partida irabaziak... orai arte. Bederatzi ilhabetez hogoita zortzi partida irabazteko, pilotan ari behar da. Eta menturaz guk ez dakigun bertze partidarik ere irabazi du Ed. Arrayetek!

Partidak badire errechki irabazten direnak, halakoak balin badire kontra direnak. Nor garhaitu ditu Arrayetek? Huna: Salegui, Atano IV, Inacio, Etchave IV, Altuna, Argain, Claverie, Behachka, Darraïdou, Durruty, Damestoy, Arce, Haitze, Salinas, Ulacia, Saint-Martin. Bertzeak bertzalde, naski.

Bai, egunak joanen dire, urtheak ere ba; Arrayetek oraiko jokoak galduko du eta, legea den bezala, nausiak agertuko zaizko. Bainan ez da gutiago egia, hemendik berrogoita hamar urtheren buruan, orok hauche aithortuko dutela: Edouard Arrayet pilotari handi-handi bat izatu da bere denboran! Eta handi bezen leiala!

Pilota eta pilotariak

Eskual Herriko gazteriak ez duelakotz lehen bezala eskuaraz mintzatzea maite, nihungo ostatueta ez da orai igande arratsetan Zaldubi chaharraren kantu famatua aditzen:

Pilotak ohore du Eskual Herrietan,
zeren den ederrena joko guzietan.

eta Biriaturtik Santagazirat ahantzicheak dire Perkain, Azantza, Curutchet, Senjan, Kaskoina, Matiu, Dihursubehere, Jats, Bichente, Organichta, Bichkandia, Bagoa, Chantrea, Chilar, Ondicola, Larrondo, Patchola, Ottarre eta bertze aspaldiko pilotari gaitzen izenak. Lurrak estali ditu oro-

bat eta laster ahantzaraziko geroztikako Ciki⁽³⁸⁾, Biriatuko Ezkerra, Berte-
rreche, Chabatene, Larralde, Beheran, Diharce, Santiago, Behachka, Pou-
chant, Arrue eta Chiquito guziak. Adinak, eritasunak eta lanek plazetarik
urrundu dituzte Arce, Argain, Dongaitz, Darraïdou, Ermoni, Ibarburu,
Sein, Léon Itzia, Durruty, Pancho, Iratzoqui eta bertze frango. Ez da hil
pilota halere eta ez doa hiltzerat. Ez othe da sekulan baino pizkorrago?

Hamaborzgarren mendean bizkaitar pilotari bat ari izan omen zen
bota luzean Angleterran. Orai badire pleka ari direnak Chinaraino.
Ameriketan badire plazak. Badire Afrikan. Europan ez da gehiago erre-
sumarik eta kasik herrialderik bat edo bertze bederen ez duenik. Ehun-
ka badire Frantzian eta Espainian: milaka eta milaka Eskual Herrian.

Eta sekulan izan othe da orai bezenbat pilotari ezagutu? Ez. Hamar
aldiz, ez. Lehengo eskulari, lau zpabortz eskulari ezagutuentzat, beha
oraiko sailari: Dongaitz, Harambillet, Garmendia, Aguer, Laduche,
Vivier, Barrenne, St-Martin, Haran, Chateaneuf, Inchauspé, Damestoy,
Hiriart-Urruty eta, ozka bat beherago, Daguerre, Bernatz, Vigneau,
Elissetche, Harcaut, Etchemendy, Larroque, Inda, Cadeilhan, Audet,
Lissar Dunate, Etchegorri, Erramuspe, Vicenty, Lascanotéguy, Luchia
eta jauzika azpitik gora heldu diren Laxague garaztarra, Behengaray haz-
pandarra, Etcheto gereziatarra, Idiart azkaindarra, Bonnet senpertarra,
eta egun gure lumaren puntarat heldu ez diren bertzeak.

Eskual Herrian esku-huskako jokoak bezenbat menta izan du egun-
daino chizterazkoak. Badu orai ere. Bereziki errebotean. Zoin choraga-
rria ez da plaza punta batetik bertzerat pilotaren parabola ederrekin!
Aurthen Donibane Lohitzuneko plazan chapelgoko azken partida ikusi
ez dutenek ez dakite zer den pilota-jokoaren ederra! Partida hori pertsu
ederrez kantatu behar luke Oxobi, Iratzeder, Mattin edo Chalbador
batek: ezin ahantzizkoetarik da. Mundu ikharagarrienaren aintzinean,
juje ziren J. Elissalde apheza, Ch. Larre “Luzean” deithu batasunaren

⁽³⁸⁾ GH *ciki*.

buru eta bihotza, P. Doyhenart Getariako auzaphez ohia, Bichendarits pilotaria eta Colombet donibandarra: pilotari, saratarrak, alde batetik, Larronde, Doyharçabal, André Aguirre, Aspirot eta Eusebio, eta baigorriarrak, bertzetik, Arce, Errecalde, P. Agirre, Olçomendy eta Petricorena. Lauzpabortz gazte, beraz, eta bertzeak adinean jada goiti abiatuak, baina hamar pilotari handi eta plaza-gizon eder eta leial. Duda dugu egundaino holako partidarik ikusi othe den Perkain, Kaskoina eta Chilar hoberenen denboran ere. Nekhez. Bertzeak bertze, Larronde gazte batek nihun ez du pilota bat utzi: nihun, ez paretaren kontra, ez gibelego puntan. Zer begia! Zer besoa! Hau ere ez da ba dudakoa, chapelgo hortako Eusebio bat baino botari handiagorik ez dela ikusi egundaino, munduko Ciki, Belloqui, Berterreche, Ithurraïn eta Parrot guziak zakhutik atheraturik ere: noiznahi bi, hirur eta lau pik lerroan sartu ditu!

Eta baditugu oraino gehiago diren errebothariak: Urruty, Lemoine, Ermoni, Jean eta Paul Fagoaga bederen. Azpitik goiti frango heldu, horren gainerat: Hazparnen, Binard eta Bidart, Saran Jorajuria eta Baigorri bezala Donapaleon eta Donibane Lohitzunen ez dakigu nor! Ez ditugu Paueko kaskoinak aiphatzen: putza bezen bero hasiak, hala-hala hilen dire segur bizpahirur urtheren buruko!

Goazen aintzinat. Duela hiruetan hogoi bat urthe ez zen pleka haizu hainitz plazetan: orai orotarat sartua da eta orotan hartua, hainitzetan nausitua ere ba. Bi molde badire pleka: atchiki handia eta joko garbia.

Eskualdunek ez dute baitezpada maite atchiki handia eta Getaria, Maule, Donibane Garazi eta Donibane Lohitzunen baizik ez zaio, Urruty Donapaleotarrak kanpo⁽³⁹⁾, Chiquito famatuari ondoko hainitz eta hain handirik sortu, doi-doia Bichendarits, Larregain, Narbaits, Aguer, Harispe, Toulet, Martinez, Hourçourigaray eta Kaskoin zenbeit: Comat, Loustaudine, Kieffer, Marmouyet eta beren izenek berek sala-

⁽³⁹⁾ GH *kampo*. Nola irakurri behar da bi aukera bi hauen artean?: (...) *Urruty Donapaleotarrak Kampo, Chiquito famatuari* (...) / (—) *Urruty Donapaleotarrak kampo, Chiquito famatuari* (...). Bi aukeratarik lehena da gure ustean onena. Artikulu berean geroxeago *Urritiz kampo* irakurtzen dugu.

tzen dituzten bertze batzu *Gure Herrian* haizu baita bakhotchak bere golkoan duena agertzea, batere ez dugu burua aphaltu aurthen atchiki handian pauetarrek donibandarrak garhaitu dituztenean. Udatiarrentzat egina zauku atchiki handia eta udatiarrentzat bakharrrik, nun eta ez duten Chiquito eta Eloy batzuek, lehenik beren chimichtez, eta gero marraren gainean utzi pilota hilez, edertzen eta argitzen! Hortik urrun dire oraiko Marmouyetak!

Begitarte gehiago egiten dio eskualdunak joko garbiari. Ez ginuke aski lekhu orenen izenak hemen eman behar bagintu: Lemoine, Boudon, Etcheverry, Urruty, Salagoitz, Alaman; Larrabure, Unhassobiscay, Larronde, Dassance, Pichtia, Hourcade, Miral, Barrenne, Sallaberry, Olçomendy, Solanille, Hastoy eta doi-doia plazetarik urrunduak diren Heuti, Hiribarren, Alzuyeta, Loustalot, Madre eta Larrea guziak. Oro pilotari eder eta leialak!

Hain joko ederra delarik eskularru motcha, hiltzen ari da emeki-emeki eta nihun ez da gehiago ikusten Donapaleo, Hazparne, Donibane Lohitzun eta Saran baizik, eta aski guti han ere: zorigaitz handia! Denboraz Otarre, Jats eta Tandilero batzu ikusirik, ez zauku iduritzen, Urruty⁽⁴⁰⁾ kanpo, pilotari bat badugula heien heinekorik. Ez ditela lotsa horrentzat Lemoine, Madre, Heuty, Sarlangue; erreboteko joko ere hiltzer da: d'Andurain, Heugas, Cabillon, Ybar, Dotezac, Ermoni eta Dassance batzuek phiztu dute: bardin phitz ditake eskularru motcha...

Eta lachoa zertan dugu? Hila! Ez zuen merezi! Ehun bat urthe duela Napoléon III Larrungo mendirat Miarritzeko bere egoitzatik behin izan zelarik, lachoa ari izan ziren Ihizelhaien Landalde apheza, Larru eta Chabat batzu, oro azkaindarrak, oro pilotari paregabeak, eta Napoléon III choratua beha egon zitzaieten bi oren luzez, eta untzako urthe bat utzi zioten sari. Bainan ez ziren sosaren gatik ari orduko pilotariak: herriko elizari eman zioten urthe pheza ederra. Pilotaren amodioz ari ziren. “Zeren den ederrena joko guzietan”.

⁽⁴⁰⁾ GH *Urritiz kampo*. Ez ote da *Urruty kampo*?

Eskualdunek nahi badute bizi dadien pleka, bizi dadien errebota⁽⁴¹⁾, azkar eskularru motcha eta pitz lachoa, maita dezatela pilota beretzat. Zer ezpartinak ez ditugu geronek Mgr St. Pierre jaun aphezpikuaren kontra Eichkandako gainean higatu... airearentzat! Zahartu ez bagine, Jauna!...

⁽⁴¹⁾ GH *Errebotan*.

BOST ARTIKULU

1. Axular

Nungoa zen?

Egungo egunean ba omen da oraino Urdazuriko herrian etche bat *Axular* derizana, berriskoa, ahatik, bainan suak suntsitu etche zahar baten toki-tokian egina. Izenaren gatik, nihork ez dezake finka han sortu zela eskual idazlari guzietan famatuena. Ez da halere dudarik, den gutieneko dudarik, urdazuritarra zela. Urdazuritarra sortzez bederen. Aitak, Pedro Daguerre de Axular zuen izena; Maria de Azpilcueta, amak. Izen hortako ama zuen Frantses Xabier sailduak ere. Jendekian othe ziren, bada, saildua eta idazlaria? Dakienak daki, guk ez dakigu.

Noiz sortu zen?

Michterio hori ere guretzat. Vinson deithu liburu eta paper ikher-tzale handiak dionaz, “mila eta sei ehungarren urthean berrogoita lau urthe zituen Axularrek”. Hori bera erraiten dauku Haristoy Ziburuko erreter jakintsunak. Chaho chuberotarraren⁽¹⁾ arabera, Axularrek hogoi-ta hamalau urthe zituen Laphurdirat etorri zelarik, bainan hainitz gaz-teago zaukan hemezortzigarren mendean Joannes d’Etcheberrik.

⁽¹⁾ Aintzina *Chuberotarren*.

Gutarik hurbilago, guziek ezagutzen eta maite duten Julio de Urkijo ere ibili da chokho miatzen, Axularrez zerbeit jakin nahiz. Bada, ez zaio iduritzen Vinson chuchen mintzatu dela, “1556garren urthean sortu balitz Axular, *Guero* argitaratu duenean lauetan hogoita zazpi urthe bazituzkeela!” Eta zertako ez? Petain marechalak ez othe du nornahik noiz-nahi bezen izpiritu eta argi chorrotcha adin hortan? Julio de Urkijoren ustea hau da “1573garren urthean sortu zela Axular”.

Aphezgorako urratsetan

Horiek hola, aphezgorako lehen urratsa, urrats urruna, haatik, aphezgeiari buruan egiten zaion khoroa baita, khoroa Iruñan egin zioten Axularri 1584garren urthean, abendoaren 21ean, Gurutze Sainduaren kaperan. Ortzirale bat zen eta Pedro de Fuente aphezpikua khoroegile. Eta orai, othoi ohar huni: gorachago erranetan Julio de Urkijo mintzo bada chuchen, eta ez Vinson, hameka urthe zituen doi-doia Axularrek aphezgorako lehen urratsa egitean! Egia erran, hameka hola-ko ikusten dugu mende zaharretan...

Handik lau urtheren buruan, 1587garrenean, otsailaren 21ean egin zituen sudiakretu aintzinean egiten diren bertze urratsak, bainan ez zuen zortzi urtheren buruan baizik sudiakretu behar, 1595garrenean, buruilaren 23an.

Ondoko urthean, maiatzaren 13an, Pedro de Axularrek ardietsi zuen Iruñako aphezpikuaren ganik baimena nahi zuen lekhuari diakretzeko, eta jo zuen... Kataloniarat. Leridako hirian diakretu zen, ekhainaren zortzian. Zertako han?

Iduri du Axularrak ez zuela hanbat maite lekhuaren gainean egoitea, eta aldaira maiteago zuela, eta laster Frantziako bidea hartu zuen. Bainan Orhiko choria Orhin laket, eta Eskual Herrian kokatu zen, Baionako diosesan. Mementoan ez zen aphezpikurik Baionan, eta Bertrand de Hiriart

zen diosesaren buru. Hunek paper guziak eman ziozkan Baionaren kondu Tarben aphezteko. Eta hala egin zen, 1596garrenean buruilaren⁽²⁾ hogoita batean, Salvat d'Iharce hango aphezpikuaren eskuetarik. Artean erran dezagun, bastidarra zen Tarbeko aphezpikua: bastidarra ere eta hunen iloba, ondotik Tarberat aphezpiku joan zen bertze d'Iharce bat.

Huna Axular aphez, Donibane Lohitzunen ikusten dugu lehen lauzpabortz urthetan. Deus handirik ez dakigu Donibanen ibili zituen lanez. Badakigu, haatik, arras maite zuela predikatzea, eta laster predikari handi baten fama bildu zuela.

Hainbertzenarekin, eta menturaz predikaria bezen aphez jakintsuna zela Axular aditurik, Jean Douamet Saran erretor zen aphez chaharrak, eritu eta ezindurik, kargua utzi zuen eta Aita Sainduari Pedro de Axular galdetu ordaintzat. Aita Sainduak galde hori onharturik, Baionako aphezpiku Bertrand d'Echus baigorriarrak Axular izendatu zuen Sarako erretorgoratu: 1600garren urthea zen, uztailaren 10a. Ez zen segurki orduan luzez egon Donibanen Axular: bortz egunen buruko Saran zen. Ez zitaken herri egokiagorik halako aphez eta eskualzale batentzat... Bainan saltsa eder bat hasterat zoan Saran.

Sarako herrian

Jean de Harostegui donibandar aphez batek ere begiztatua zuen Sarako erretorgoa, eta horra nun, hautsak eta herrautsak higiturik Franzian eta Italian, Erromatik ardiesten duen erretorgo hori, Axular Saran lakhetzen hasi orduko. 1601ean, martchoaren 10ean, Harostegui badoa, beraz, Sararat... sariant bat lagun. Erretorgoaren hartzerat zoan bere ustez. Bi bikario baziren Saran: Haristeguy jaunak beltzuri egin zion, begitarte

⁽²⁾ Aintzina *burularen*.

hobea Etchegaray jaunak, eta Harosteguy abiatu zen elizari buruz. Bainan athea hetsia zen eta ez zen sarthu ahal izan. Zer egin? Athe handiko morroila erhi puntaz hunkitu zuen lekuko batzuen aintzinean eta hola erretorgoaz jabetu. Igandea zen biharamunean. Harostegui trankiltasun osoan mezako behar zituen jauntzien hartzerat joan zelarik, Axular bi jauziz gainerat joan zitzaion, eta, burua aphalt, herri guziaren aintzinean lekhuak hustu behar izan zituen Harostegui donibandarrak.

Ez zuen, ahatik, berehala amor eman eta auzitan sartu zen Axularrekin. Hau, orduko erran bat sinhetsi behar balin badugu, joan zen Pariserat... oinez, eta han Henri IV erregeari berari mintzatu. Erregeak paper bat eman zion napartarrek Frantzian bazituztela frantsesen dretcho guziak, Frantziako erregea Naparrako errege zenaz geroz denbora berean.

Daranatz jaun kalonjeak delako papera nunbeit atchewan du, duela zenbeit urthe, eta hemen eskerrak zor zaizkio, Eskual Herriaren izenean, balio hortako paper bat sekulakotz galtzetik begiraturik. Ochala Herrian baginu Daranatz jaun kalonje ona bezalako chokho miatzaile hainitz!

Paper hori Bordeleko lege-egileen Biltzarrari buruz igorri zuen erregeak. Biltzarra, behin esku eman bazion ere Harostegui, ez zen orduan thematu. Ba, haatik, Harostegui bera, eta bigarren auzi bat hasi zuen Axularren kontra, baizik eta Axularrek lehen auzia irabazi bazuen Bertrand d'Echais aphezpikuari esker irabazi zuela, hunek Bordeleko Biltzarrean zituen ahaide batzu mintzaturik eta bere chedetarat bildurik. Eta, futcho, Harostegui irabazi zuen bigarren auzia! Halere Axular ez zen gutiago, izenez ez bada, izanez Sarako errotor gelditu. Nola? Harostegui hilik? Bere baitarik Harostegui kargua utzirik? Bi erretorek anto-lamendu zerbeit eginik? Ez dakigu. Dakiguna da 1609garren urthetik 1624garrena arte Sarako elizako errechistroetan ez dela Axularren izena baizik ikusten. 1641garrenean Sarako erretor zen, haatik, oraino, ezen urthe hortan, otsailaren 24ean, kontratu bat sinatu zuen herriarekin elizadorrearen egiteko eta eliza guziaren erreberritzeko.

Eskualzalea

Nornahik segur guk baino hobeki erran lezake zer eskualzalea zen Axular, eta ez da dudarik ederki goretsiko dutela agerkari huntan berean Mgr St-Pierre eta Piarres Lafitte batzuek. Nola mintza Axularrez haren eskualzaletasuna aipatu gabe?

Axularren eskualzale fama orotan hedatua zen: orok jaunen jaunarentzat zaukaten. Estebe Materrek bere eskuarazko katichima argitaratu zuelarik 1617garren urthean, d'Etcheberyk bere *Manual debozionezkoa* 1626 garrenean eta bere *Elizara erabiltzeko liburua* 1636garrenean, liburu horien ontzat hartzeko aintzin hitzak nori galdetu ziozkaten? Sarako erretorari.

Baionako aphezpikuak berak gain-gainetik prezatzen zuen Axularren eskual trebetasuna eta jakitate handia. Axularri orduan iduritu othe zitzaion hura bezalako eskualzale batentzat ez zela aski bertze langileek eginak ongi zirela erraitea? Dena dela, *Guero* agertu zen.

Eskual Herriko girichtinoak berak aski nahasiak ziren memento hartan. Protestanten gerlek duda frango sorrarazia zuten arimetan: elizagizonek berak ontasunen ondotik zabiltzan behar baino gehiago: hainitz eta hainitz giristino gaizki bizi ziren. Bai, *Guero* oren onean agertu zen. Baditake Axularrek aspaldi egina zuen, bainan agerrarazterat ezin menturatuz egon zen ordu arte, gehientsuen heinaz goragokoak zirelakoan liburu hortako erakaspak. Eta gero nork daki ez othe zuen ilobak, osabaren ichilik eta baimena gabe argitaratu liburua? Ditakena da hori ere. Nolanahi, *Guero* ongi ikusi zuen Eskual Herri guziak.

Axularren heriotzena

1644garren urthean hil zen Axular eta apherilaren 8an ehortzi zuten hainbertze zor zion Sarako eliza ederrean. Hobi berean ehortzi beharra

zen handik zenbeit urtheren buruan, 1653garreanean, buruilaren 2an, iloba. Huna hobiaren gainean oraino orai irakur ditazken hitzak:

MONVMENT
DE MESSIEVRS
DAXULAR ONCLE ET
NEPVEV
DIGNES CVRÉS
DE CE LIEV
DESCEDERENT
EN L'AN
1644 ET 1653

L.L. Bonaparte printzeak marmolazko orhoitzapen bat eginarazi nahi izan zuen idazle handiaren ohoretan, denboraren buruan. Hartan hau irakur ditake:

PEDRO AXVLAR
EVSKALDVN IZCRIBATZALLETATIK
IZTVN
EDERRENARI NI
LVIS LVZIANO BONAPARTE
EVSKALZALEAK AV IPINI NION
EZ DAGO ATSEDENIK
TA ODEI GABE EGVNIK
ZERVETAN BAIZIK
1865

Zeruetako odei gabeko egunetan Axular ohart dadiela lanho beltzek gure Eskual Herri maitea gero eta gehiago hartzen ari dutela, eta hemen-go eskualzale bakharrak bere othoitzez lagunt detzala Eskual Herriaren eta eskuararen salbatzen...

2. Orhoitzapen batzu

Urtheak ditu. Bi eskualdun ttipi Larresoroko apheztegitrat joan ziren aphez egiteko. Bat milafrangarra zen; bertzea, Azkaineko. Ordu arte egundaino ez zuten elgar ikusi. Bainan laster adichkidetu behar zuten. Hamekak alderat, Abbadie jaun *superior* zenaren athe aintzinean elgar atchemanik, elheketa hasi ziren, ezagutzak egin... eta berehala pilotan elgar desafiatu. Beren etchekoak hantchet harrituak utzirik, plazarat jo zuten lasterka eta *jozak eta emak* buruz buru hasi. Azkaindarrak irabazi zion... bipherra bezala, milafrangarrari!

* * *

Ez du ilhabete bat baizik. Berrogoita zenbeit urthetako bi aphez jaunek Baionako trinketea elgar atcheman dute. Berehalako⁽³⁾ milafrangar eta azkaindarra ziren. Agur eta agur. Milafrangarrak azkaindarrari: “To, orhoit hiza Larresoron egin ginuen lehen eguneko partida hartaz?” —“Egungo egunaz bezala.” —“Nahi duka kitorat egin?” Eta bi jaun aphezak pilotan berritz hasi dire... hameka urthe balituzte bezala! Eta futcho, aldi huntan *jujeari esker, haatik*, milafrangarrak irabazi! Ez baitzuen hainitz pensatzen hain chuchen memento hartan berean aphezpiku izendatua zela!

* * *

Bi pilotari horiek beren denboran hameka partida egin dute, dudarik gabe. Gutiz gehienak gogoan ez badituzte atchiki, huna biga aiphatzea laket zaiotenak. Larresoron zirelarik oraino, bigak —lapurtar gisa— ari izan ziren behin chichterarekin Irouléguy aspaldi hila den donazahartar baten eta Ybarnegaray jaun deputatu biphilaren kontra. Hauk irabazi. Eta nola dozena bat sagar —la chicaille deitzen zuten hori— jokatua baitzuten eta sagarren erosteko galtzaileek sos gutisko zarpan, Ybarnegarayek zernahi erran zioten... bainan berak sagarrak ordaindu!

⁽³⁾ E. Ez ote da behialako?

Bigarren partida irabazi zuten, haatik, pinta bat arno jokaturik Azkaingo plazan bi mugazainen kontra. Alta, egun hartan ahuntzak iduri, Larrun puntan ibiliak ziren gure bi ichtudiantak! Sekulan ez duzue pentsatuko nor zen bi mugazainetarik bat; Manauton geroztik deputatu sartu nahiz ibili den chori gorri errabiatu hura...

* * *

Milafrangar eta azkaindarrak eskuara maite dute. Zoin da egunkaria berririk igorri ez diotena? Bainan Bilbaon baita bat *Euzkadi* deitzen dena, uste dugu *Euzkadi* bertze guziak baino maiteago zutela gure bi adichki-deek eta hartan maiz irakur zitazken denbora batez Ainxuberro eta Zerbitzariren solasaldiak. Ordainez Euzkadik maite zituen eta egun batez Bilbaorat deithu zituen Lapurdiko bi berriketari horiek. Zer phestak egin⁽⁴⁾ ziozkaten! Bainan phesten artetik, hiria ezagutu beharrez, Ainxuberro eta Zerbitzari zokoz zoko⁽⁵⁾ ibili ziren bi-bigak. Horra nun goiz batez zardin saltzaile bat ikusten duten karrika punta batean. “To, ikus dezagun eia Bizkaiko eskuara ikasten ari dugun?” Eta badoazi hango kazkarotaren gana. Huntaz eta hartaz mintzatu onduan Ainxuberrok erraten dio kazkarotari: “Joan behar dugu; agur, anderea. Bainan bada-kizu nor nizen ni?” Eta kaskarotak Ainxuberroren ile beltz ederreri beha: “Zu, Afrikako obispoa!”

Hamabi urthe du guti-gorabehera Ainxuberrori ori erran ziola Bilbaoko kazkarotak. Ez othe zen sorgina?

* * *

Jaun apezpiku berriak zoin gogotik egiten zuen irri duela zortzi egun ichtorio hortaz orhoitarazi duelarik Zerbitzarik! Eta gero berak zoin polliki kondatu dion bertze ichtoriochka hau! “Egun hautarik batez atcho batek gelditu nik bidean, zerbeit erran behar zautala. Zer

⁽⁴⁾ E. *egun*.

⁽⁵⁾ E. *zokoz zokoz*.

duzu? —Barkamendu galdetu behar dautzut, jaun aphezpikua⁽⁶⁾?
 —Zertako?— Behin haurra zinelarik behizain⁽⁷⁾ igorria zintuen aita zenak. Liburu bat eskuan hari so eta so ez zinuen ikusi zure behiek ene artho guzia jaten ari zutela eta nik zernahi erran nautzun! Barkatu othoi!
 —Bainan, amatto maitea, merezi nuen! — Ez, ez zinuen merezi: orai ikusten Jainkoa ari zela ordukotz...!

* * *

Eskualdun jaun apezpiku maitea, barka zadazu neri ere ichtoriochka hauk hemen ematea. Badakizu zer emanarazten dauzkidan: zuretzat dutan adichkidantza handiak eta *Eskualdunari* diotan atchikimendu neurririk gabekoak. Bai, barka zadazu eta othoi igor diezadazu lehenbailehen, zure apezpiku berri benedizione hoberenen-hoberena. Bethi izanen naiz orai arte bezala zure adichkide eta zerbitzari.

⁽⁶⁾ Artikulu honetako lehen pasartean *apeztegirat* eta *apez* irakurtzen dugu; bigarrenean, *aphez* eta *aphezak*; bosgarrenean, *apezpikua*. Hitz guztietan, irizpidea bateratuz, *aphez(-)* jarri dugu.

⁽⁷⁾ E. behi zain.

3. Etchepare Jaun Mirikuaren ohoretan⁽⁸⁾

Andereak, eskualzale adichkideak:

Zerk ekharri nau molde berriko predikaldi⁽⁹⁾ huntarat egun? Nere adinak? Ez, nere ile churi bakarren gatik. Begien aintzinean ni bezen chaharrak baditut. Chaharrago zenbeit ere ba. Bat guziz, bat, hortche gordea bezala ikusten dut, gorphutza bethi bardin chut, begia bethi bardin erne, bere laueta hogoi urthe ederrek Ataratzetik⁽¹⁰⁾ ekharri daukutena, eskualzale guzien aitaso, aitaso maitatua. Guzien izenean, zure laneko lagun handi baten harri berri hunen aldean, agur, bihotzetik agur, Constantin jaun mirikua!

Lainoki aithortu behar dut, bada, ez nauela ere nere talenduak ekharri Erlandeneko leiho huntarat: ez dut talendurik.

Zerk ekharri othe nau, beraz? Erlandeneko familia ohoragarriaren adichkidantzak, eta egun harri eder hortaz goretsi nahi dugun eskualzale paregabearen adichkidantzak. Nunbeit irakurtu izan dut, menturaz jaun miriku zenaren beraren liburu batean ez dituztela hilek ahanzten biziak, bizeiek ahanzten dituztela hilak, nik behinere ez dut ahantzi Jean Etchepare mirikua. Gure nausia, dio nunbeit Oxobi jaunak. Eta hemen, ez bada ere pollit nor bere buruaz mintzatzea, utz nezazue egiterat.

Aspaldi du. Aspaldi. Uztaritzeko bikario gazte nintzen orduan. Baionarat deithu ninduten uda batez hogoita zortzi egunen egiterat. Malobra handien urthea zen. Goiz batez, Baionatik argiko partituak, bide luzean baginoazin Landesetako herrichka bati buruz, iguzki saminarekin gure kantu eta espantuak zintzurreraino sartuak, jada begiak

⁽⁸⁾ Testu hau GH, 1955, XXVII, 279-282. Testu honen beraren beste idatzialdi bat, lehenagokoa eta ez hainbat xehetasunez hornitua "1955-Euskaltzaleen-Biltzarra Lekhornen ABA-ZER 33; 95/306 argazkia.

⁽⁹⁾ GH *predikalki*, eskuizkribuan (ABA-ZER 33; 95/306 argazkia.) *predikaldi*. Elissaldek predika-alki ere badarabil ("Harrichabalen bezala, bethi! Ipuinean), baina beti *predika* eta alki hitzen artean gidoi-txoa duela

⁽¹⁰⁾ GH Ataratzetik.

lurrari. Horra nun, hainbertzetakoan, zaldi karkaila zuri bat heldu zautan alderat, eta zaldi itsusiaren gainean zaldiko bat pollita baino pollitagoa den gutieneko bizarrik gabea eta haur ttipi baten begi garbiekin! Behatu nion hobeki oraino eta ez nintzen guti harritu eskuaraz erran zautalarik: “Zu, eskualduna zira?” — “Ba, jauna” — “Nungoa?” — “Azkainkoa” — “Oi, Azkaine, eskuara ederraren herrikoa! Nik behar dutan gizona, beraz! Othoi sarri jinen zira ene ikusterat, lauak alderat?”. Eta ahoa zabalik hantchek uzten ninduela, miriku gaztea, mirikua baitzen nere zaldikoa, joan zen bere bideari nik nere baitan egiten nuela: “Gaicho mirikua gaizki erori duk aldi huntan! Ez nauk egundaino asto gainean ere ibili ni! Nola artha nezakek zaldi bat?” Eta halere, bihotzak bortchaz bezala eremana, jaun mirikuaren leiho aintzinean nintzen lau orenetan. Beha zagon. Besotik harturik, adichkide chahar bat izan banintz bezala, barnerat ereman ninduen, eta han egin gintuen ezagutzak eta adichkidantzak. Jean Etchepare eskualzalea nuen aintzinean.

Badakit eskualzaleaz mintzatzerat ethorria naizela leiho huntarat. Ahantz othe nezaken adichkidea? Bat bertzearekin doazi neretzat...

Jean Etchepare Ameriketara sortua zen. Sei urtheko, bat bazuen jada Lekhornerat ethorri zelarik. Ba othe zakien eskuararik orduko? Nekhez: espainolez trebeago zitaken. Lekhornen ikasi zuen eskuara, Agerreko nausi itze egilearekin. Arroko Kattin onarekin eta guziz, Dibar orduko jaun errientaren mehatchu guzien gatik, plaza hortan bere heineko pilotari batzuekin! Hauche hemen⁽¹¹⁾ erran ditake: Jean Etchepare mirikuak egundaino errechtasun handiena ukhan du edozoin mintzairaren ikasteko, alemana bera ez othe zuen, Kanbon kokatu ondoan eta ondoan, ikasi?

Bederatzi-hamar urthetan Larresoroko ikastegi famatuan sartu zelarik, Abbadie, Hiriart-Urruty eta Adema batzu berehala ohartu ziren

⁽¹¹⁾ GH *emen*. Zer ote da *hemen*?

errechtasun horri eta mintzaira guzietan, eskuaran ere, jauzika joanarazi zuten, bethi gorago. Hainbertzetaraino nun Jean Etcheparek menturaz ez baitzituen hogoi urthe lehen berri eta buruchkak *Eskualdunari* egorri zituelarik.

Handik goiti, nunbeit irakurtu dugunaz, “*Eskualdunak* ez du ukhan idazle jarraiki, trebe eta zuhurragorik. Saila zuela eskuaraz ala herri batetako goiti-beheitiez, nola herrien arteko eztabai, auzi zenbaitez, loria zaukun, emeki, jakituz, idazle trebatuaren idazkien irakurtzea”. (Oxobi). “Gure mirikuak bertze jakitate guzietarat nahiko zuen Eskuara helarazi. Hortara bermatu da oldez eta moldez. Erresumen arteko gorabehera, Frantzia barneko politika, diruaren gobernatze, jakintsunen asmu berri, etcheke osasun eta ontsa izanaren aldeko kontseilu, Eskual Herriko mintzaire, ohidurez zernahi oharpen, noizbait norbait izan direnen berri, haren punttakoak zer ez dauku hainbertze urthez begien aintzinean eman?” (P. Lafitte).

Euskaldunari darraikola bazen almanaka bat etche gehienetan sartzen zena. Laguntzen zuen. Bainan hortaz kanpo bigarren almanaka bat zenbeit urthez agerrarazi zuen, bere apheza lagun, *Eskualdun laborarien almanaka*, lehena bezen gustagarria.

Eta huna nun lehen gerla handia bururarratu deneko gazte batzuek, bizpalau gazte “jakitatez baino chede onez betheagoak zirenek” dio nunbeit norbeitek, atheratzen duten ilhabetekari bat, oraino bizi den *Gure Herria*. Hastean ez zuen hain ongi hartu Jean Etchepare mirikuak, *Eskualduna* aski zitzaien. Ez zion beharrik denbora luzez beltzuri egin eta hari ere laster bere argiak eta eskuara paregabea igorri ziozkan. Jean Etchepare zendu zelarrik, huna zer erran zaukun Oxobik bere luma ederraz: “Hemen zaunzkigun Etcheparek ilhabetetik ilhabeterat emaiten Pyreneezen hunaindiko berriak. Arotik hasi eta, gertakari handienak barne, laborantzako gorabeherak ahantzi gabe, pilota partidetaraino: solasa bazerabilan orotaz hain chuchen, hain cheheki, eta zer eskuara choragarrian! *Iritzi eta kitzika* tituluaren azpian ere, zer ez dauku erakutsi eskuarari eta eskuarazko liburuari zoakonik? Orhoit gira nola achalkatu

zaukun jakituz bezala Agirreren⁽¹²⁾ *Garoa*, nola bichtarat eman Axularren *Geroa* eta Duvoisin kapitainaren lan gaitza!”.

Bainan horiek guzien gatik Jean Etcheparek bere denbora guzian egin duen lanik handiena, lanik aberatsena *Beribilez* derizan liburua da, ene arabera bederen. Duela zenbait ilhabete, P. Arradoy idazleak *Kattalinen Gogoetak* argitaratu dauzku luma ederrenaz, urhezko luma batez. Liburutto bat orok atsegin handienarekin irakurtzen dutena, liburutto bat behin irakurtzen hasi eta bururaino irakurtu gabe utz ez ditakena. Bada, atsegin berarekin irakurtzen dut urthean bizpahiruetan *Beribilez*. Bertzerik egin ez balu ere Jean Etchepare mirikuak, ez zuen ebatsiko egungo gorespena. Segur!

Bainan egin du bertzerik. Bertzeak bertze, hau aithortu behar dugu: gure biltzarraren aita da. Duela 55 urthe sortu zen Eskualzaleen Biltzarra. Egia huna, haatik: hainitz urthez Eskualzaleen Biltzarra amets pollit bat izan da bakarrik eta urthetik urtherat hogoi lagunentzat bazkari ontto baten estakuru maitagarria. Bazkalzaleen biltzarra, erraiten zioten... mihi-gaichto batzuek, Jean Etchepare mirikuak egin du Eskualzaleen Biltzarra bere lan ezin ukatuzkoekin: ehun bat herri eta herrichketako haurren idazki maitagarriekin. Ustaritzeko, Mauleko eta ez dakit nungo ikastegi handieneko ikasle bihozdunen kondaira eta pertsuekin, aphezgeien beren itzulkunde eder eta predikuekin, egun bezalako bilkura ederrekin.

Eskualzale adichkideak ez ginezaken ahantz holako eskualduna eta guziz holako eskualzalea. Harri hau zor zitzaion. Egin diogu. Norbeittek erraiten balu guti dela harri bat, harri hotz bat, badakizue zer ihardetsiko diotan? Harri hau ez dela hotza, harri hau harri bizi bat izanen dela, orori mintzatuko den harri bat. Eta zer erranen othe diote? Miletan⁽¹³⁾ Dassance adichkideari, Oxobiri eta Eskualzaleen buruzagi chaharreneri, profeta baten mintzaira ederrean erran izan daukuna: Sodoma eta

⁽¹²⁾ GH *Agirre-en*.

⁽¹³⁾ GH *Miitan*. Ez da erraza errata honen atzean zer dagoen ikustea.

Gomorra ez baitziren suntsituko Jainkoak justu bat, bat bakarra, han kausitu balu, jakinazue eskuara ez dela galduko eskualzale bat gure herrietarik bakhotchean izanen deno.

Beraz, adichkideak, harri hunen aintzinean egun hitzemazue eskualzale hura izanen zaiztela, bizi dadin eskuara orai eta gero, zeruko lorian atseginez bethea bizi dadin Jean Etchepare mirikua menderen mendetan.

4. Euskaltzaindia

Bakotchari berea eman behar zaio. Horra zertako Azcue jaunari eta haren lagun zenbeiti egun hemen berena eman nahi diotegun, Euskaltzaindia heien burutik atheratua baita mendiz bertzalde hortan.

Zer da Euskaltzaindi hori?

Eskualzale jakintsunen batasuna, omen. Batasun hortan dire Azcue, Urkijo, Campion, aita Olabide, Intzagarai, Intza, Altube, Lacombe, Landerretche apheza, aita Lhande... eta menturaz bertze zenbeit ere ba. Oro eskualzale handiak eta ohore guziak merezi dituztenak, bai. Bainan huna zeri ohartzen gitzaion, gu: eskualzale horietan hirur direla bakarrik mendiz alde huntakoak. Berehala erran dezagun hemen gaindi hirur eskualzale hautatu behar-eta bakarrik, ez zitakeela egin Lacombe, Landerretche apheza eta aita Lhanden hautua baino hoberik, segurki. Ordean, zertako bakarrik hirur hemen? Ala hemengo askualzaleek ez othe dakite eskuara Urkijo eta Campionek bezen ongi? Ala ez othe dituzte eskuara eta Eskual Herria Azcuk bezen maite? Hori uste badu jaun horrek, hau ikas dezala hemen: harentzat mugak balin badire Gipuzkoa eta Lapurdiren artean, hemengo eskualzaleentzat ez dela mendirik baizik...

Edo, jauna, ez zintuen hirur ere hemen hartu beharko zure Euskaltzaindik. Orduan badakizu zer erranen ginuen? Arras buruz jokatu zinela eta hemengo eskualzaleak bazterrerat utzi zintuela, ustez horko eskuara ez zakiten. Eiki, hemen gaindi hamar eta hogoi eskualzale badi-tugu nun-nahiko Eskualtzaindietako on direnak, hautatuez bertzalde: Adéma, Daranatz, St-Pierre, Barbier, Oxobi, Héguy, Etchepare, M. Souberbielle, Dassance, Gavel, Apestegui, Constantin eta bertze batzu.

Adema jaun kalonjeak *Eskualdunean* hogoita hamar urthez gutien-gutienetik, eskuara ederrez idatzi du, aste bat sekulan huts egin gabe. Hainbertze urthez *Armanakan* bere saila agertu du. Hainbertze aldiz jaun aphezpikuaren solasaldiak erdaratik hain ederki itzuli ditu gure mintzairerat. Halako eskuara ederrean, Eskual Herriko eliza gehienetan predi-

katu du. Adema jaun kalonjeak ez othe zuen chokho ttipi bat Eskualtzaindian merezi? Eta ez guri erran chokho hori eskaini ziotela eta ez zuela hartu nahi izan. Azcue jauna, orok badakite zertako: zuk ere, ba.

Eskualtzainditik kanpo da ere Daranatz jaun kalonjea, eskuararen alde hainbertze lanean ari izana delarik bere denboran. Egundaino ez balu Ezpeletako jaun maite horrek bere *Eskuara* baizik egin, aski litzaukute oraino Euskaltzaindian sarraraz dezazuen, Azcue jauna.

Eskuaraz mintzo ziren gure arbasoak,
jendeki, ahaidego, gizalde osoak.
Eskuaraz mintza gaiten, heien ondokoak,
haurrekin bereziki, zuek: burhasoak...

Eta holatsuko hogoi koplak ederrez goiti... Daranatz jaun kalonjeari Euskaltzaindiko atheak ideki ez diozkatena...

Eta St. Pierre hirugarren kalonje hau? Eskual Herrian egundaino izatu othe da, Axular eta oro barne, holako idazlerik? Izatu othe da holako mintzatzailerik? Guk ez uste... eta St. Pierre kalonjea ez da Euskaltzaindian urgazle baizik! Urgazle? Zer da hori? Azcue jaunak badakike zeren hitza berak asmatua baitu: guk ez dakigu. Halere norbeitek baitezpada galdetzen balauku erran dezogun zerbeit, huna zer erran ginezokegun: “urgazle” eta “deusik” gauza bera dire...

Alta bada, ba bertze bat ere ongi bere chokhoa Euskaltzaindian merezi zukeena... eta izena hemen agertu gabe orok badakite J. Barbier aphezaz mintzatu nahi dugula. Ez da J. Barbier bezalako koplaririk Eskual Herrian. *Eskualdun*ean, *Armanakan* edo *Gure Herrian* noiznahi egiten dituen kondaira polliteri oro loriatuak egoten dire. Orok irakurtu dute haren *Piarres*... salbu Azcuek. Horra zertako J. Barbier ez duten oraino Euskaltzaindiko galdetu, nun eta ez dioten Azcueri J. Barbier aphezak bildu eta argitaratu hainbertze eskualdun kantu-aire hek ere itzal egiten...

Oxobi bera ez liteke segurki phikaren azken umea bere koplak ederrekin, bere *Eskualduneko* eta *Armanakako* sail mamitsuekin, eta guziz egun-

daino Eskual Herrian nihori gogoratu ez zaizkon *Alegia* pollit batzuekin. Euskaltzaindiak ez du Oxobi ezagutzen. Deus baino gutiagorentzat daukate, urgazle ere ez denaz geroz. Uste dugu Heguy apheza Euskaltzaindiko urgazle dela, St. Pierre jaun kalonjea bezala. Beraz, bigak, deusik! Hori merezi zukeen Lapurdiko predikari hoberenak: hori, aste guzietan hainbertze sail *Eskualdunari* Eskuara ederrez igortzen diozkan eskualzaleak! Urgazle edo deusik, J. Etchepare jaun mirikua ere! Azcuek ez bide ditu hainitz irakurtzen *Eskualduna* eta *Gure Herria...* edo nunbeit bada bertze zerbeit...

Sekulan mendiz alde huntan, haindikoaren pareko Euskaltzaindi bat egiten balitz, ez litazke segur bazterrerat utziko Constantin, Atarratzeko⁽¹⁴⁾ jaun mirikua, gure eskuarari dion atchikimenduaren eta astetik asterat *Eskualdunean* agertzen dituen solasaldi polliten gatik; Souberbille, Uztaritzeko auzaphez eta miriku gochoa, urthetik urtherat *Armanakan* mirikuntzaz ematen dituen sail balios, bai eta eskuin eta ezker hala nola Baigorriin, Uztaritzen, Arbonan, Eskuara garbiz egin dituen mintzaldien gatik; Gavel, Baionako irakasle jakintsuna, *Gure Herrian* emeki-emeki agertzen ari duen lan prezagarriaren gatik; Louis Dassance, uztariztar jaun gazte maitagarria, *Eskualtzaleen Biltzarreko* buruzagi bezala egiten dituen lanen bai eta *Gure Herrian*, pilotarien ondotik, hegaztinez eta choriez agertu dituen orrialde luze eta ederren gatik; Apesteguy, Hazparneko jaun misionesta, *Eskualdunean* agertzen dituen “*Bertzen irakurgaietan*” direlako sail mamitsuen gatik...

Hemengo Euskaltzaindiak ez letzazke ere ahantz P. Lafitte eta M. Etcheberry, Uztaritzeko ikastegiko bi erakasleak; ez eta Eyheramendy, Bidarraiko jaun bikario langilea; are gutiago Baionan erakasle den L. Léon jaun apheza eta Blazy, *Gure Herriaren* buruzagia. Menturaz chokoak hobeki bilhatzearekin kausi letzazke Maulen Espil delako bat, Arnegin Donetch delako bat, Donestirin Saldumbide delako bat eta guziz ahal-

⁽¹⁴⁾ GH *Ataratzeko*.

gegarri baita Euskaltzaindiak ahanztea, Uztaritzen Iriart jaun kalonjea aste guziz *Eskualdun*ean agertzen duen *Ebanjelio* ederrarekin. Bertze batzu bertzalde, naski.

Zerbeit egitekotz, ez da nolanahi egin behar eta Azcue jaunak Euskaltzaindia hala egin duela iduritzen zauku. Nun eta ez duen bere kas-korat egin! Hori ere baditake, guzien buruan, eta orai-orai gogorat heldu zauku Iruñako gure adichkide baten hitz... gaichtoa. “Azcue no bazcuense, pero azcuense!” Hortan burura zitaken sail hau. Bai. Bainan menturaz orduan norbeitek usteko zuen sail hunen egilea Euskaltzaindian hartu ez dutelakotz dela kechu. Batere. Hasteko, euskaltzain ez bada, urgazle da bederen. Eta aski polliki urgazletua oraino! Huna nula.

Dotzena erdi bat urthe duke: egun batez Iruñarat ereman zuen donostiar adichkide batek, Eskualdun-phesta eder batzu bazirela. Berehala errateko, zortzi egunez eskuaraz ez zuen hitz bat bakarra aditu, salbu “Larreko” jaun miriku handiaren etchean eta karrikan Angel jaun horren semearen ahotik.

Dena dela, egun batez Euskaltzaindiak bere bilkura Iruñan egin behar zuela berria hedatu zen.

—To, Euskaltzaindia ez bainuen ezagutzen, hemen ezagutuko dut.

—Ez zaituzte sartzerat utziko.

—Zer?

—Ez, urgazle ez dena, ez ditake Euskaltzaindiko bilkuretan sar⁽¹⁵⁾.

—Urgazle edo murgazle, ondoko egunetan izanen dute norbeiten berri. Euskaldunek deus ez dute ichilka eta gordeka egiten...

Handik oren bat gabe, euskaltzainek urgazletzat⁽¹⁶⁾ hautatua zuten, badakizue nor?

⁽¹⁵⁾ Elissalderen oharra: *Uste dugu, baatik normabi sartzerat uzten dutela geroztik.*

⁽¹⁶⁾ GH *urgazletzat.*

5. Alemanak

ma qui de sa-é' aout m'airé, a' terre' for' (0) (Rue tout et un saout' h'ome' se'os, que d'ad' 1917) 51

————— **Alemanak.** —————

Her jaiziak egiten dituen gizonaren izpirituak! Pilotatik Alema-
 netarat joan zaueku betbetan gurea. Huna nola. Ezkainen badugu
 plaza berri eder bat, «fronton Chourio», erraiten ditena eta Debidart
 erroter zenak eginarazia. Dada, Alemanek beretu dute, han laulazko
 atxerke batzuetan berogoi bat zaldi atchikitzeke, gutienatik.....

Ezen Ezkainen dire Alemanak: erresumako azken herrichkan! Nak
 behar zuen hori erran: urte guzuen zerla-ttandiko hil gaichok etzutela
 hilako sakrileiorik utziko, eta, bertze orduz berdunen Feri-card aintzi-
 danaren hilak bezala, chutituko zirela beren orhoitzapenezko harraren
 gibelean «etsaia», herritz garbaitzeke! Ez, eta Alemanak gutartean
 ditugu, gure nausi, etcheen nausi, ororen nausi! Berrehun gizon beru
 zuu eta ehun eta hiruetan hogoi ta hamabortz zaldi, hamasei kanoi go-
 thorrekkin.....

Ez dakigu liburuek zer erranen duten, hemendik ehun urteren buruan
 eta gero, 1939-1940^{eko} gerlaz. Ez dakigu gure ondokoei zer pentsatuko
 duten lezearen ondo-ondoraino, ez alderaino, ereman gaituzten Blum,
 Herriot, Cot, Daladier, Chaumemps eta bertze chori madarikatuez! Dakiguna
 da politikero zikhintsuen gatik Alemanak Ezkainen ditugula! Zer zarrak
 takoa bhotzean, beren kanonakin berro luzean gure plaza polkitoan geldit-
 tzen ikusi gintuelarik, eta aintzindaren marrumak adita ihuntze batez!
 Zerkan ohu batzuek nizar egin ginuen. Daurian orotar egiten da gizona
 eta orai deus guti egin lezaguketa munduko Aleman guziek ere, herriko
 nekatcha dohakabe batzu iriz eta farrak ikusten ez bagutu herekin, guzie-
 gatik Frantziaren egundainoko eta sekulako etsaiak direla ahantzirik!!!

~~Munduk ez dakigu berak nola egin, eta berak beren iradaitz dituzte,~~
~~berak beren iradaitz dituzte, berak beren iradaitz dituzte, eta berak beren~~
~~iradaitz dituzte, berak beren iradaitz dituzte, eta berak beren~~
 gundak! berak beren iradaitz dituzte, berak beren iradaitz dituzte, eta berak beren!

Alemanak herrian ditugunaz geroz, geroaren gatik dezagun
 eraman hemen nola kokatu diren eta zer urhatzibiki dituzten. Doren 145
 zaldiak — arruntean alimaleko zaldi batzu — harat eta hurat parti-
 tuak dituzte: badituzte Chimeldegian, Camburirenean, Ezkubean,
 Filipabaitan, Laurentrean, Ederkoenean, Subilurrun eta Chourioan

“Alemanak” kronika laburreko Zerbitzariren eskuizkribuaren lehen plama. Elizaldek alemanak Bigarren Mundu Gerran nola sartu ziren Azkainen eta zer jokabide izan zuten kontatzen du testu honetan.

Zer jauziak egiten dituen gizonaren izpirituak! Pilotatik alemanetarat joan zaku bet-betan gurea. Huna nola. Azkainen badugu plaza berri eder bat *fronton Chourio* erraiten diotena eta Debidart erretor zenak eginarazia. Bada, alemanek beretu dute, han taulazko atherbe batzuetan berrogoi bat zaldi atchikitzeke, gutienetik. . .

Ezen Azkainen dire alemanak: erresumako azken herrichkan! Nork behar zuen hori erran: uste ginuen Gerla Handiko hil gaichoek ez zutela holako sakrileiorik utziko, eta, bertze orduz Verdunen Pericard aintzindariaren hilak bezala, chutituko zirela beren orhoitzapenezko harriaren gibelean “etsaia” berritz garhaitzeko! Ez, eta alemanak gutartean ditugu, gure nausi, etcheen nausi, ororen nausi! Berrehun gizon buruzuri eta ehun eta hiruetan hogoita hamabortz zaldi, hamasei kanoi gothorrekin...

Ez dakigu liburuek zer erranen duten, hemendik ehun urtheren buruan eta gero, 1939-1940eko gerlaz. Ez dakigu gure ondokoek zer pentsatuko duten lezearen ondo-ondoraino, ez alderaino, ereman gaituzten Blum, Herriot, Cot, Daladier, Chautemps eta bertze chori mada-rikatuez! Dakiguna da politikero zikhintsuen gatik alemanak Azkainen ditugula! Zer zarrastakoa bihotzean, beren kanoiekin lerro luzean gure plaza pollitean gelditzen ikusi gintuelarik, eta aintzindarien marrumak aditu ilhuntez batez! Gerlari ohi batzuek nigar egin ginuen. Bainan orotar egiten da gizona eta orai deus guti egin lezagukete munduko aleman guziek ere, herriko neskatcha dohakabe batzu irriz eta farraz ikusten ez bagintu heiekin, guzien gatik Frantziaren egundainoko eta sekulako etsaiak direla ahantzirik!!!

Alemanak herrian ditugunaz geroz, geroaren gatik dezagun erran hemen nola kokatu diren eta zer urhatsak ibili dituzten. Beren 175 zaldiak —arruntean alimaleko zaldi batzuk— harat eta hunat partituak dituzte: badituzte Chimeldegian, Tamburinean, Azkubean, Pilipabaitan, Laurentzanean, Ederkoenean, Zubiburun, eta Chourion. Bertze nunbeit ere ba menturaz. Aspaldisko huntan phazka nunbeitik ekhartzen dute: menturaz Alemaniatic. Haste hartan herriko selhauruetan ez dute ez belhar ez lasto ondo bat utzi, eta Azkaine ongi larrutu ondoan Senpererat jo zuten. . .

Soldadoak etcheetan aloitzen dire, Irigoinean, Mugetcheberrian eta guziz herriko jantoki hoberenetan; hôtel de la Rhune, pension Basque, Etchola. Beren jatekoa beren gain dute, haatik. Ez dute hain muthurzu-riak iduri janaren gainean, eta begitarte ederra egiten diote gure chaku-rrek utz letzaketen saltsa batzueri! Zer arroltze jaleak, haatik! Bospasei, bakharrak ez aski! Aintzindariak eta soldadoek jateko bertsua dute. Eta ez batzuek ez bertzeek ez dute arnorik edateko...

Nola deramate beren denbora Azkainen? Argiko chutik, ez dute ilhuntze arte esku eta besorik hainitz gurutzatzen: jo eskuin, jo ezker, bethi malobran. Igande arratsaldeak denik ere librochago... gure pilotari ederreri beha egoiteko, edo inguruetako edari guzien zurrutatze! Lehenik Azkainerat ethorri zirenek zer mozkorrak ez zituzten biltzen!

Beren mugazainak badituzte alemanek. Autrichiako eskualdekoak oro, Azkainen bederen. Ez dakigu beren herrian mugazain horiek mendi handirik bazuten zaintzeko. Hemen, Larrungo mendia ederki zaintzen dute eta ez da aspaldiko denboretan kontrabanda handirik sartu Espainiatik hunat ez eta joan hemendik Espainiarat. Egia erran, jaun horiekin ez da jostetarik: lotsagarriak dire beren chichpak bizkarrean nunbeit agertzen direlarik! Denbora hortan mugazain frantsesek ez dute deus egitekorik... beren baratzearen arthatzea baizik, edo manuz han-harat Frantzia barna hortarat joaitea...

Arratsa heldu delarik, athe-leiho guziak ongisko hetsi behar dire, barneko argia ez dadien kanpotik ikus, eta manu hori ahanzten dutenak... laster orhoitarazten dituzte alemanek, lehen aldian presondegiaz mehatchatuz, bigarreanean preso eremanez!

Beribilak gerla hastean gutitu ziren: orai ez da gehiago bakhar-bakhar zenbeit baizik ikusten: jendea ez dabila gehiago pirripiten puntan baizik. Bainan ez gaitela bat bertzearen aldean abia norapait, edo laster hamar liberako amandatto bat atchemanen dugu: bat bertzearen ondotik behar dugu ibili, lertsunak bezala.

Bichtan da ez dela deus keinurik egin behar alemanen kontra: ez da ere zeren heien kontra zerbeit erran. Bizitzen ikasi nahi othe daukuten!

Baginuen beharra. Elgar ez ginuen gehiago ikusi nahi, elgar ez ginuen gehiago jasaiten ahal: batek bertzea jan nahi ginuen hauzotik hauzorat.

Orai arte Azkainen aldizkatu diren alemanak protestant ziren gutiz gehienak. Katolikoak ere izan dire bizkitartean eta noizetik noizerat beren elizkizunak bazituzten: meza, prediku, othoitz eta kantu. Muga-zainetan bakhar batzu herriko meza-bezpereri bereri aski jarraikitzen dire, eta herrian oro ohartuak dire arras ongi daudela elizan, beren liburuak eskuan!

Alemanian eskualde hainitz bada. Eskualde bakhotcheko jendea arras bertze eskualdekoetarik berezia da. Orai arte ez dugu Azkainen prusiano, otrichiano eta bavarresik baizik ikusi.

Prusianoak jabetu ziren gure plazaz lehen egunean. Bekunde gaichtoko gizon batzu ziren, ileak errotik moztuak, churtchuri alimale batzu bezen handiak. Idorrak, Azkaine gaichoa harritua atchiki zuten ilhabete pare batez. Hainitz gochoago ziren ondotik ethorri zitzauzkun otrichianoak, bainan buhami hutsak: oro, heienak ziren! Beharrik ez zituzten utzi hemen zahartzerat! Gure haur denboran Otrichiak erresuma berezi bat egiten zuen Hongriarekin. Bainan ez ditake asma zer saltsa zen hor: aleman, tcheko, rumano, turko, serbiano, polones, italiano eta judu, oro nahas-mahas! Holako erresuma batek ez dezake iraun: Hitler jabetu zitzaion eta orai ez da Alemania Handiko zathi bat baizik...

Otrichianoen ondotik, bavarresak ethorri ziren. Sei ilhabete huntan hemen ditugu. Bada frango arras polliki frantsesaren ikasten ari denik. Badire zenbeit "pala ancharekin" pilotan arras ongi hasiak direnak. Ahopaldi tzar batzu ere errotik ikasi dituzte, nunbeitik! Bavarresak balukete prusiano eta otrichianoek baino jendetasun gehichago. Ez dute herriko jendea zangopean atchiki nahi, aintzinekoek bezala. Egia erran, frantses ziren... Charlemagne enperadorearen denboran! Horrengatik, daudela beren uliekin, ez gitela adichkide heiekin: etsaiak dire!!!

BEDERATZI IPUIN

1. Mandozainaren ichtorioa

Ez da egungoa ichtorio hau: gure zaharretarik ikasia dugu, guk, eta berenatarik, hek. Egiaren itchura guziak baititu, doala hemen halere, bertzeak bezala.

Behin, etchekeo aldi labur bat egin eta, mendiz mendi berritz Salamankarat zoazin bi muthil gazte kochkor. Hamazazpira urthe zuten naski; burua bero eta moltsa arin. Horra nun, han nunbeit, urrun-urrunean, norbeit ikusten duten, mandoz zoala.

—Esak, to, lagun, batek dio bertzeari: ez duk ori gure herriko mandozaina⁽¹⁾?

—Bazukek: aski maiz mendian zabillak.

—To, planta guzia ala dik, bere bi mandoekin...

—Goazen bichi-bichia, ikusteko bada.

Eta zanpa-zanpa badoazi, iratzez iratze, othaskaz othaska, bere gizona begietarik galdu gabe, laster baino lasterrago atchemateko chedearekin, mugazaina kontrabandichtaren ondotik bezala.

Eta han, bethi nunbeit, gure mandozaina traka-traka bazoan, ez lo, ba lo, mando kankail baten gainean ichtapeka, bigarren mando bat lehenaren buztanari estekatua. Urhats hortan, mandozain eta mando, denak lokaturik ere ez da harritzeko. Noiznahi bidearen erdian, tente gelditua zen bigarren mandoa. Oihu handi bat egiten zion orduan mandozainak, begiak ideki gabe:

⁽¹⁾ GH *erriko mandozaña?*

—Hue zak ba, mando demonioa!

* * *

Bai, bai: hue zak mando demonioa segurki, bainan nausia lo dagolarik nork atzarria achik muthila? Ehun urhatsen buruko, berritz tente-potente han zagon mandoa, eta berritz oihu egin behar zion, bere loaren erditik, mandozainak:

—Hue, mando, hue⁽²⁾ zak demonio!

* * *

Denbora bazoan arte hortan eta izerdi ur eginak, horra nun ehun bat urhatsetan, othaska zokho batetarik, bet-betan agertzen diren bi muthil gazte kochkorrak.

—Ikusten duk gure herriko mandozaina dela!

—Hura eta bera, ala joko!

—Esak. Bigarren mando hori ebatsi baginezo⁽³⁾!

—Nola egin ordean?

—Hik hartuko duk mandoa, nausia atzarrarazi gabe eta ahal bezen laster gordeko haiz nunbeit, mendi horren gibelean...

—Eta denbora hortan nausia zerbeiti ohartzen bazaio hemen?

—Hemengoa bego nere gain.

Eta hitzartu bezala egiten dute. Batek ebasten du mandoa, berehala ihesari lotzen da... eta bertzea ematen lehen mandoaren buztanetik, soka bere lephoan inguraturik, ebatsi mandoaren orde.

Erran gabe doa deuseri ez zela den gutienekorik ohartu mandozaina eta arras lokartuko ere zela naski azkenekotz mandoak bezala egiteko, tente bidean gelditu ez balitz noizean behinka gure muthil tzar eta ozarra.

Han-harat zoan ordukotz bertzea bere mandoarekin, mendi kaskoan gaindi, gibelaldea biribil...

(2) GH Hiru aldiz dator *hüe* idatzirik.

(3) GH *bagiñezo*.

—To orai diat⁽⁴⁾ nik ere hemendik zerbeit gisaz eskapatzeko heina, dio orduan bere baitan mandoaren buztanetik gelditu denak. Eta tank hantche badago, lurrean itzatu baliozkate bezala zangoak...

—Arraio milla demonio, zer duk hik egun hola gelditzeko, deraso mandozainak! Hue⁽⁵⁾, urde alperra...

Ba bainan mandoa ez baita mugitzen oraikoan!

Itzultzen da mandozaina orduan! Eta zer du ikusten? Bere mandoaren orde, gizon bat. Harritzen da. Harritzen eta lotsatzen.

—Jaungoikoa! Zer da modu hau? Nun da nere mandoa?

—Zure mandoa ez da gehiago mando!

—Zer derasazu, adichkidea? Zer gertatzen da, bada?

—Egia, huna. Egun duela hamar urte pekatu handi, izugarri bat egin nuen eta ordu berean, Jaungoikuak hala manaturik, hamar urterentzat mando bilhakatu! Jaungoikuak begira zaitzala zu ere sekulan halako pekatuan erortzetik...

—Gizajo maitea!

—Doi-doia bilakatu nintzen berritz gizon, zu oihuka asi zarelarik.

—Ken zazu laster soka hori lepotik!

—Ori, lan errecha da.

—Eta orai zoazi laster zure etcherat. Zer atsegina izango dauten zure aita-amek!

—Esazu berritz!

—Zoazi adichkidea; bai, zoazi laster eta otoi barka nik hamar urte hoitan eman daizkitzudan palokaldi guziak!

—Denak gogo onez barkatzen daizkitzut.

—Eskerrik asko. Tori bideko bortz liberako hau...

—Nik zuri eskerrik asko. Eta ikus arte orai⁽⁶⁾!

—Bai, ikus arte. Jaungoikoak nahi badu...

⁽⁴⁾ GH *diak*.

⁽⁵⁾ GH *büe*.

⁽⁶⁾ GH *oraiñ*.

Eta muthiko tzarra lasterka abiatzen da mendiari gora, gibelaldean su balu bezala, bere laguna mando gainean gorde zaion othaskari buruz, gaizo mandozaina harritua han berean utzi-eta.

* * *

Iruñako feriak ziren handik hamar egunen buruan. Zoko batean, mando zahar bat saltzeko. Beharrez harat joa baitu mandozainak, hurbiltzen zaio mandoari.

—To, hau nere mandoa duk-eta! Dio bere buruarekin.

Beha aintzinetik, beha gibeletik: ahoa mia, mia buztana: eta berritz bardin iduritzen, bere mandoa duela. Hurbiltzen zaio beharritat.

—Esazu, adichkidea? Lehengo pekatu handi hartan erori ahal zare berritz?

Burfuria hori beharrian aditzearekin, mandoa kechatzen da eta eskuin eta ezker abiatzen du burua.

—Ezetz diozu? Nunbeit bada zerbeit, haatik?

Eta bertze beharritat badoa.

—Esazu? Lehengo pekatu handi hartan erori ahal zare berritz, adichkidea?

Ezetz berritz ere mandoak.

Beha handik, beha hemendik berritz mandozainak eta nihundik hura duela iduritzen oraino. Hirugarren aldikotz badoako beharri chilorat:

—Esazu, adichkidea? Ez dut inori salatuko lehenengo pekatu hartan erori ahal zare?

Ezetz.

—Bertze halako zenbeitetan, beraz?

Eta ezetz, ezetz mandoak, gero eta gehiago eskuin eta ezker burua dabilkala, aski kechu.

—Ezetz berritz ere? Ori, ezagutzen ez zaituenak eros zaitzala! Nik ez zaitut erosiko!

Eta handik badoa gure mandozain gaizoa, furian.

* * *

Han ibili zen orduan mandozaina harat eta hunat bere sekretua golkoan, nun zer ikusiko zuen. Ikusten ditu kuia eder batzu.

—Zer dire horiek?

Zozosko norbeitekin duela iduriturik, jabeak:

—Horiek zer diren? Eta, mando arroltzeak!

—Saltzeko ditutzu? Bat nahi nuke.

Baietz. Egiten dute tratua eta, bere kuia besazpian mandozaina badoa, bihotza atseginez gainditua.

* * *

Zenbat iraun zion atsegin horrek erratea ez da errech. Oren bat, beharbada biga, beharbada hirur: gehiagokorik ez bethi. Ezen horra nun etcheari buruz zoalarik, mendia behera, besazpitik lerratzen zaion bere mando arroltzea. Hemen punpa, han punpa debruetan barna abiatu zen... kuia. Mandozaina gibeletik, oihuka:

—Atoz, atoz, nere mandoa! Norat zoaz?

Kuia porroskatzen da hainbertzenarekin, harroka bat jorik, eta hain chuchen erbi bat handik haizatzen, ikhara gorrian.

Laster ohartu zitzaion mandozaina.

—Hara, hara nere mandoa: arto bihi kolorea: nik behar bezalako! Putch, putch, nere mandaka! Atoz nausiaren ganat! Dio orroaz gaizoak, atoz, atoz! Ondikotz, ez baitzen ordean nausiaren ganat ethorri mandakarik ez mandaka arroltzerik!!!!

Jaungoikoak daki nun ahal dabilan mando artho bihi kolorea. Dena dela, handik zortzi egun gabe, hilherrietarat zeramaten laur herritarrek gure mandozaina.

Requiescat in pace! Bakean dagola⁽⁷⁾!

⁽⁷⁾ Ipuin honetan irizpide bateratu batez jokatu dugu. Erakusleetan eta abarrak bateratu ditugu.

2. Juan Soldadoren ichtorioa

Hainitz eskualdun othe da Juan Soldadoren ichtorioaz orhoitzen denik? Beldurtzeko da ezetz. Han-hemenka chahar zenbeitek polliki kondatzen dukete supazterrean, neguko arras luze eta hotzetan: bainan oraiko haurreri ez zaizkote lehengo ichtorioak gustatzen, eta aitachi edo amatchi bururatu gabe lokhartzen dire, harria bezala.

Bizkitartean bi gazteek kondaturik⁽⁸⁾ dakit nik Juan Soldadoren ichtorioa eta *Gure Herriaren* irakurtzailetan izan baititake nor edo nor, atseginekin irakurtuko duenik, huna nun den ikasi dutan bezala, deusere deusetan emendatu gabe, deusere deusetan gutitu gabe.

Juan Soldado, beraz, mende zaharretako eskualdun bat zen, Jesu-Krichtoren denborakoa. Nungoa? Saratarra? Batzuek hala diote. Hazpandarra? Bertze batzuek hala nahi lukete. Milafrangarra? Zertako ez, hazpandarra edo saratarra bezen ongi. Zer uste dutan nik erran behar banu, Juan Soldado Larrungo mazelan zenbeit lamina-zilhotan sortu zela erran nezake, orai kapera pollit bat baita Haranederreko mahastiari hurbil, han nunbeit.

Dena dela, gizon ederra zen Juan Soldado, eta azkarra: ahal zuen bezala bizi, haatik, ihizitik, arraintzatik, oilasko ichterrak baino maizago artho eta gasna janez!

Egun batez arraintzarat zoan, ez zuela, bada, arratsean eguerditan bezala ahoan gurutze eginik egon behar. Horra nun urrunsko bi gizon ikusten dituen: biak bizardunak.

—Nor othe ditut nik bi gizon horiek leku huntan eta tenore huntan? Deus onik ez naski. Neri zerbeit khendu nahiz heldu badire haatik, ez dire hanbat aberastuko...

Hurbiltzearekin, Juan Soldado ohartzen da aski ongi emanak dituela bere bi gizonak eta batek guziz begitarte ona baino hobea duela.

—Agur, jaunak, agur.

⁽⁸⁾ GH *hondaturik*.

—Bai zuri ere, adichkidea.

—Eta nun zabiltzate hemen tenore huntan?

—Gauak atchemanen gaitu herrian sartu gabe eta gureztat ohe bat bazinuken nahi ginuke jakin?

—Ez zaituztet segurki kanpoan lo egiterat utziko.

—Milesker, adichkidea.

—Bainan nor zaituztet, zuek?

—Jesukrichto eta Jondoni Petri.

Nola harritu zen gure Juan Soldado gaizoa! Bainan ez da erran behar, laster berebaitaratu zen eta aski ongi ohoreak egin ziozkatean Jesukrichto eta Jondoni Petriri bizpahirur amorroin lastersko atchemanik, hek janarazi: alimaleko su bat eginik, zangoak ongisko beroarazi: eta gero iratzezko ohe garbi eta gozo batean etzanarazi, biak.

Berak gauerdi bazuen lokhartu orduko.

* * *

Biharamun goizean, argia gabe atzarriak ziren Jondoni Petri eta Juan Soldado.

—Zer egin behar diot gosaritzat?

—Ez du balio deusik egitea, gizon maitea.

—Zer egin behar diot gosaritzat? Ez dut nahi Jesukrichto behin ethorriko hunat eta gosea doan hemendik.

—Barur egiten du egun guziez.

Hainbertzenarekin iratzartzen da Jesukrichto ere.

—Hau da zer loa egin dutan! Ez nuen aspaldi holako oherik atcheman! Zer dautzut zor?

—Jauna, ez zazula othoi holakorik aipha. Denen nausia zu zare eta denen erregea.

—Ez da hortan, Juan Soldado: egintza on guziek behar dute beren saria. Ez zaitut segurki saririk gabe utziko. Zer nahi duzu?

—Zuk nahi duzuna, jauna.

—Ederki ihardetsi duzu, hori. Beraz, egundik goiti, zerbeiten beha-

rretan zaren aldi guziez askiko duzu zakhu handi bat idekitzea, behar duzun hura zakhurat ethorriko zaitzu!

Eta mendia behera jautsi zen gehiagokorik erran gabe Jesukrichto Jondoni Petriekin...

* * *

Handik hamar bat egunen buruan Iruñako ferietarat zoan Juan Soldado, delako zakhu handia bizkarrean. Hiri batean, karrikaren erdi-erdian zoalarik, horra nun bet-betan sekulako goseak hartzen duen.

—Hau da lana! Gose hamikatua naiz eta sos bat, ardit bat zarpan ez, zerbeiten erosteko! Hainbertzenarekin cherri hiltzaile baten etche aintzinean dela ohartzen da: sei edo zazpi odolki eder dilindan ikusten ditu. Oi, zer errabia ematen dioten.

Zer egin? Guzietan eginen zutena eta zak, zakua idekitzen du. Lehen aldia zuen idekitzen zuela zerbeit sarrarazteko, Jesukrichto ikusiz geroztik.

Jaun Soldadoren loria, odolki eder andana hura bere zakuan sartzen ikusi zuelarik! Nausia oihuka hasi zitzaion ondotik, bainan hankak arin zituen Juan Soldadok eta laster aintzindu zitzaion mendia goiti cherri hiltzaile dohakabeari.

* * *

Harritzeko da ordutik nolakoa bilhakatu zen gure Juan Soldado! Lehen guti ari baitzen lanean, orai ez zuen gehiago pikorik egiten. Arraintzan nardatzen zen. Ihizin unhatzen eta jateko nahiago zuen etchez etche ibili bere zaku handiarekin. Zer ogi puskak, zer zingar zaflak, zer pinta arnoak biltzen zituen, herritarren oihuen eta dichiduen gatik!

Bainan guzietan bada hein bat. Denetaz ongi baliatu zelarik, zer gertatu zen? Denek athea hetsi zioten Juan Soldadori. Akabo ogi, odolki, zingar, arno: deus fritsik ez zuen gehiago biltzen ahal bere zakuarekin!

Hain chuchen muthil bat nahiz zabilan inguru herrietako arotz bat. Juan Soldadori erraiten dio hobe duela arozgoari lotzea, biek ederki

elgar adituko dutela. Ez zuen baitezpada fama hoberenetarik arotz harek; bainan gosearekin azeria ere atheratzen da bere zillhotik, eta Juan Soldado muthil sartu zen arotzarekin. Ondoko egunetan behartu zitzaion ez baitzuen bere zakua lamina-zilhoan ahantzi!

Badakizue nor zen arotz hura? Debrua, adarrak gapelu handi batean gordeak zabilana! Harek Juan Soldadori jasanarazten ziozkanak! Hainbertzetaraino nun, etsiturik, baleki bale bere zakua ideki baitzuen eta debrua hartan sartu: sartu zueneko, martilu pisu batekin phorroskatu. Orduan hango debru tiki guzien marrumak, zeren aita galdu zuten! Hek ere, bat bertzearen ondotik, zakuan sartu zituen Juan Soldadok eta aita bezala phorroskatu, chirtchikatu...

* * *

Ordutik heriotzeko oreneraino zer egin zuen gure herritar gaizoak, nihork ez daki. Bertze herri zenbeitetarat jo othe zuen ala lehen bezala arraintzan eta ihizin abiatu othe zen zakua bere gisa utzirik, Jainkoak daki. Gure zaharrek ere ez zakiten eta ez dute behinere erran. Utz dezagun, beraz, huntan Juan Soldado? Ez eiki. Ezen huna nun, hil-eta, Jainkoaren aintzinean ikusten dugun oraino. Eta Jainkoak gain-gainetik larderiatzen du. Entzun dezagun:

Hoakit hemendik laster: hoa ifernurat egin ditukan ohointza guzientzat, Juan tzarra! Eta, burua apha, Jesukrichtok zaku hura eman ez balio ez zela holakorik gertatuko bere baitan eginik, abiatu zen Juan Soldado ifernurat. Bainan horra nun, hurbiltzearekin, debru tiki bat oihuka hasten den, karrasiaka:

—Huna Juan Soldado, huna denak porroskatu gaituena. *Cuidado, amigos! Cuidado!*

Eta ikharetan, athea muthurrerat zerratzen diote ehun edo berrehun debruk.

—Zer, ifernurat ere ez nautela sartzerat, utziko? Hainbat gaichto...

Eta zerurat itzultzen da. Jondoni Petrik, ez diola athea idekiko. Juan Soldadok, baietz, idek dezala, ifernukotz ez dutenaz geroz on atcheman.

Ezetz. Baietz. Zer egiten du Juan Soldadok⁽⁹⁾?

Zakua han baitzuen, idekitzen du, Jondoni Petri nahietaez barnean ematen eta tuku-tuku, hirugarren zeruan sartzen. Geroztik han omen dago, matelak gorri...

⁽⁹⁾ GH *soldadoak*.

3. Erran zahar bat

Behin Jesukrichto eta Jondoni Petri bidean zoazin: erretzeko beroa ari zuen. Nihun ithurri bat ez ageri, trago baten edateko. Ezin gehiago iraunez, bazterretche batean sartzen dire. Hau jitotegia! Puska guziak nahas-mahas: eltze handi bat gelaren erdian, eguerditan ohea egitekoa, mihiseak lurrean aspaldi churitzekoak: sukaldean sua hila oiloak mahain gainean pikoka⁽¹⁰⁾ artho jaten ari.

Harrituak beha daudelarik, neskatcha begi-ilhun bat, oraino orraztatzekoa, heiatik heldu zaiote. Aise ageri du hamar egunetarik ere ez dela garbitzen. Soineko phorroskatu batzuetan da, jito bat iduri.

—Baduzu, ur chorta bat othoi?

—Ez zinuten hunat gabe atchematen ahal, alfer pare?

—Jainkoaren graziaz, emaguzu chorta bat, ahoaren bustitzeko doia bederen.

—Aski duzue, nahi baduzue, pegar hortarik hartzea eta gero zoazkitet lastersko begien bichtatik...

Edaten dute tututik Jesukrichtok eta Jondoni Petrik eta atheko alde laster hartzen dute, Jesukrichtok hitz hauk neska tzar eta zikhinari erranik:

—Jainkoak eman dezanala saritzat senhar on!

Handik oren pare⁽¹¹⁾ baten buruko egarriak ithoak zoazin oraino Jesukrichto eta bere laguna. Bertze etche batean sartzen dire. Hau etche panpina! Bazter guziak zilharra bezen garbia: puska bakhotcha bere tokian: neskatcha bat sukaldean galtzerdi egiten ari. Eta hain polliki emana, hain garbiki!

Ur chorta bat galdetzen diote hari ere Jainkoaren graziaz. Eta harek chutiturik, edaterat ematen diote etcheko pitar hoberenetik.

⁽¹⁰⁾ GH *pikoko*.

⁽¹¹⁾ GH *paren*.

—Edan zazue astiki, jaunak: hemen egonik ez dautazu den gutienerako makhurrik eginen.

—Milesker segurki, bainan berehala bagoazi, dio ihardesten Jesusek. Saritzat Jainkoak eman dezazula senhar tzar...

Harritzen da Petri hitz horiek aditzearekin.

—Zer edaten duzu, bada, nausia. Goizeko neska tzar hari “Jainkoak eman dezanala senhar on” erran diozu eta huni “senhar tzar?”

Jesusek orduan:

—Petri, Petri, hik ez dakik⁽¹²⁾ zer den mundua. Goizeko neska tzar harek ez ahal dik den senhar hoberenarekin ere izanen bizitzeko aski lan? Hunek, aldiz, senhar tzarra era onduko dik...

Eta berritz lothu ziren bideari, Eskual Herriari buruz diotenaz...

(12) GH *dakit*.

4. Ganich artzaina

Arrats batez Jesusek aingeru bat igorri zion Jondoni Petriri berehala ager zadin haren ganat, zeruko athea ongi hetsirik, nahi liokela zerbeit erran. Athea urhezko gakhoarekin hetsi zuen Jondoni Petrik eta lasterka gan zitzaion Jesusi.

—Agur, nausia: zerbeit erran nahi omen dautazu?

—Errak, Petri: azken hirur ilhabete hautan ez duk eskualdun bat ere zeruan sartu! Zer gertatzen duk?

—Batere ez dakit, nausia. Bainan hirur ilhabete hautan eskualdunik ez baita hil, beldurtzen hasia naiz Eskual Herrian ez othe duten herioztetik begiratzeko zerbeit erremedio asmatu!

—Eskualdunek?

—Bai, nausia, eskualdunek. Holakoetako ez dire batere bertzeak baino tontoago!

—Ikusi behar diagu, haatik, horiche!

—Noiz, nausia?

—Bihar goizean argia gabe abiatuko gaituk biak, han barna itzuli baten egiteko, esne bero chorta bat edanik.

—Bideko ez dugu deus hartu beharko?

—Hartuko duk hire makhila, Irisarrin iragaitean behartzen bagaituk ere!

* * *

Biharamunean, beraz, Eskual Herriari buruz abiatu ziren Jesus eta Jondoni Petri. Oren pare baten buruko, Urtsuiaren puntan ziren. Bertze mendi guzien artean zertako hautatu zuten Urtsuia, harat jausteko, ez nakike.

Dena dela, Urtsuiaren bazen orduan etche churi pollit bat, bere leiho eta athe gorriekin. Suak suntsitu du geroztik. Ganich Artzaina zelako bat zagon etche hartan: gizon zuzena eta langilea, bainan jokolaria bi zangoetako erhi puntetaraino, igandetan mezarat gan eta sekulan etche-rat ezin bildua bere museko partida tzarrekin!

—Errak, Petri, ikusten duk hantcheko etche pollit hura?

—Ganich Artzainaren etchea da.

—Agur baten erraterat gan baginakio?

—Nahi duzun bezala, nausia.

—Goazen, bada.

Eta badoazi, taka-taka, othaskaz othaska. Zer izerdiak botatu zituzten bidean egun hartako beroarekin!

Hain chuchen, Ganich baratzean ari zen pipabelhar hazi eraiten. Bi gizonak ikusten ditu.

—Nun zabilzate holako beroarekin, jaunak? Goazen nere sukalderraino: trago bat elgarrekin edanen dugu.

—Hola izerditu-eta, egia erran ez du trago batek kalterik egiten ahal!

Zer arratsalde gochoa iragan zuten hantchet hiruek, elhe eta elhe, Perkain eta Azantza eta bertze Eskual Herriko pilotari aiphatuez, lehen-go dantza ederrez, kanta zaharrez... eta nik ez dakit oraino zertaz. Gaua ohartgabean ethorri zitzaioten. Chiribita piztu zuen Ganichek eta zer afarittoa egin zioten orduan! Chingar puska bana lehenik, gero ziki-ro tripa, gero ahia, eta azkenik ardi gasna, hiru pinta arnorekin. Zer gerta ere, gauaz bideari ez lotzeko, han berean egin zuten lo Jesusek eta Jondoni Petrik, lastozko ohe gozo batean.

* * *

Lehen argi-zirrista zerutik jautsi orduko, jeikiak ziren hiruek biharamunean. Eta Jesusek erran zion Ganichi:

—Ganich, badakizu nor naizen ni?

—Jauna, zu angles zenbeit zarela egina dut atzo. Anglesak dire bakharrik hola mendiz mendi ibiltzen, nun zer ikusiko duten.

—Ez naiz ez anglesa, ez portugesa, ez italianoa.

—Zer, alamana bederen?

—Ez nuke nahi ere.

—Jauna, ez zare bada eskualduna ere?

—Zertarik iduritzen zaitzu?

—Ori, atzoko egun guzian ez baituzu juramentu bakhar bat ere erran eta nik bat erraten nuen aldi guzietz kopeta zimurtzen baitzinuen!

—Ez, ez naiz eskualduna ere, are gutiago amerikanoa.

—Zer zare, beraz, zerutik jautsia?

—Horra egia, Ganich. Ni, Jesus naiz: hau, Jondoni Petri. Atzo hemen iragan oren gochoen saria, urrundu gabe eman nahi dautzut. Hauta zatzu, beraz, hirur gauza: hiruk emanen dauzkitzut, Jainkoaren semea naizen bezen segurki.

* * *

Ganich lanean zen orduan. Denak nahi eta hirur bakharrrik hautatu behar! Hurbildu zitzaion Jondoni Petri eta beharri chilorat zerbeit erran zion:

—Zerua? Zion Ganichek ardietsi, gerochago ere badut segurki han sartzeko denbora! Egia erran, bere mathela gorrietarik aise ageri zuen ez zuela oraino hiltzeko gutiziarik. Azkenean, gogoetak ongi egin-eta, hirur gauza hauk galdetu ziozkan Jesusi; lehena, musean hasiko zelarik bethi irabaztea; bigarrena, sukaldean alki eder batean jarraraziko zituen guziak, harek berritz handik khendu arte bikean bezala iphurditik lotzea; hirugarrena, baratzean baitzuen gereziondo bat ohoinek sasoinen larrutua zaukatena, hartarat izatuko ziren guziak han ezin jautsiz gelditzea, berak lagundu arte.

—Hola nahi duzunaz geroztik, hola egina izan dakizula, Ganich!

Eta orduan Jesus eta Jondoni Petri abiatu ziren mendiarri behera, makhilak ongi finkatuz, iduriz bederen Hazparneko jaun misionesten etcheari buruz. Eguerdi ez zen oraino.

* * *

Aspaldi du Ezpeletan merkatuak egiten direla. Ordukotz baziren. Bat ez zuen huts egiten Ganich Artzainak. Han zen ondoko merkatuan ere.

Hain chuchen trinketea ari beharra zen Organichta, orduko pilotari ederrena, bi Saratarren kontra. Zer diruak jokatu ziren! Denek ezin ira-

baz holakoetan. Ganichek ere untzako urhe bat galdu zuen. Eta gero bihozminaren eztitzeko ostatuan sartu. Han, musean hasi... Eta bihar-mun goiza arte agertu zitzaizkon partida guziak larrutu. Zer sosak ereman zituen etcherat eta bidean zer eskerrak bihurtzen ziozkan Jesusi!

Handik goiti, arras jokoari eman zen gure Ganich eta jokoak nihor ez badu aberasten, hura aberastu zuen. Bainan ez da erran behar! Aberasturik ere, ez zen handitu. Lehengo adichkide berak atchiki zituen: ez zen mahainari eman: ez zion nunbeitko langileari baratzean bere pipa-belharra erainarazten: ez zen zaldiz abiatu. Ezpeletarat eta Hazparnerat bethi *pedibus cum jambis* zoan. Eta, bertzalde, maite zuen beharrean zena laguntzea eta ematen zuena ichilka ematen zuen... Hola zoazkion egunak geroztik Ganich Artzainari, eztiki-eztiki, ahal zuena musean larrutuz, bainan bethi behardunari, nornahi izan zadin, ongia eginez.

* * *

Horra nun goiz batez, hamarrak alderat, gizon bat etcherat heldu zaion, sega handi bat bizkarrean.

—Agur, Ganich.

—Agur, Jauna. Nun zabilta hola sega hori bizkarrean? Othe pika-tzen?

—Badut segurki bertze egitekorik.

—Eta zer, bada?

—Ori, zure bilha heldu naiz egun.

—Nere bilha zer chedetan?

—Herioa naiz, ni. Aski denbora baduela lur huntan zarela zaio Jainkoari. Zato, beraz.

—Ongi da. Bainan azken hameketako bat bederen ez othe dut egiten ahalko, bada?

—Ez dut jostatzeko denborarik egun: hemengo itzulia eginik, sarri Hazparne hortarat ere agerraldi bat egin nahi nuke.

—Egunak luze dire sasoin huntan: zato sukalderaino trago baten egiterat.

—Gizon maitea, berritz ere erraiten dautzut ez dutala astirik. Mugi zaite.

—Lehen aldia litake norbeit hunat ethorri-eta nere arnoa jastatu gabe itzuli zautala. Ez ahal dautazu, zuk lan hori egingen?

—Zuri atsegin egiteko chirrista bat hartuko dut, beraz, chahakotik. Nun duzu?

—Sukaldean.

—Goazen, zu aintzinean, ni gibeletik.

—Zure sega hori baratzean uzten ahal duzu, gibelaratekoan hartze-ko.

—Hau bethi nerekin dabilkat: bainan ez zaitela lotsa, ez zaitut gibeletik joko.

Sartu ziren biak sukaldean eta Ganich chahakoren bilha abiatu.

—Norat zoazi orai?

—Chahakoa gelan baitut, haren bilha. Zu, egonen zaren denbora jar zaite horko alki eder hortan.

—Halache egingen dut. Bainan egizu laster.

Eta jarri zen Herioa delako alkian. Ganichek ekharri zion chahakoa. Biek edan zuten trago bana.

—Eta orai goazen, nahi baduzu, dio Ganichek.

Chutitzerat abiatu zen berehala Herioa, irri tzar bat ezpainetan, bere begi zuriak itzulikatuz. Ez zen mugitu: bikeari bezala alkiari lotua zen.

—Zer da josteta hau?

—Ez du balio bururik hauts dezazun: behingotz alkiari lotua zarela hitz dautzut, nik.

—Nola, bada?

Irriz-irriz, Ganichek kondatu zion orduan Jesus nola egun batez ethorri zitzaion Jondoni Petrirekin, zer afarittoa eginarazi zioten eta saritzat. Jesusek alki harri zer bertutea eman zion.

—Hau naigabea: gisa huntan, zu eremanik nola egingen dut nik Hazparneko itzulia?

—Ez zaitela kecha: hazpandarrek ez zaituzte segurki berantetsiko! Zaude hor, odol gaichtorik egin gabe... edo zerbeit hitzeman diezadazut...

—Zer?

—Ori, ehun urtheren buruan baizik ez zarela nere bilha ethorriko!

—Hori ez dezaket nihundik hitzeman.

—Zaude, beraz, hor!

—Bertzalde, ephe luzeskoa galdetzen duzu.

—Har edo utz!

—Jainkoak zer erran lezake holakorik egiten banu?

—Jainkoak maite nau ni.

—Eta nere kargua galtzen banu!

—Ez liteke nahigabe bat handia!

—Galde zazu bederen gutichago!

Ezetz. Baietz othoi. Azkenean berrogoita hamar urthez egin zuten tratu. Ganichek Herioa lagundu zuen alkitik atheratzen eta ostiko bat ederra iphurdian emanik han-harat haikatu, Hazparnerat edo Jainkoak daki norat...

* * *

Osasun ederrean eta deusen beharrik gabe diruan igeri dabilanari laster doazkio egunak, ilhabeteak eta urtheak. Laster gan zitzaizkon Ganichi ere bere berrogoita hamarrak, hameka eskualdun, aitoren seme eta bertze, musean errekan emanik. Eta goiz batez ez zen batere harritu Herioa berritz ikusi zuelarik Ursuiaren puntan, bethi bere segarekin! Pipabelhar biltzen ari zen baratzean. Lasterka gan zen sukalderat. Hura orduko, han zen Herioa.

—Ez zaitu gantzak hainitz trabatzen bide hori guzia hoin laster egiteko! Nekatua zare: jar zaite alki hortan.

—Ez, Ganich, ez. Aldi huntan ez da trufarik: mugi zaite.

—Zer zare egun ere Hazparnerat gan beharra?

—Ez, atzo izatua naiz Hazparden: zapatain bat ereman nuen nerekin.

—Ez dut, beraz, eskapatzerik?

—Ez.

—Huntaz harritzen naiz: berrogoita hamar urthe hitzeman eta nola ethorri zaren oren bat goizegi!

—Ori, azken aldiko arno hartarik chirrista ba emanen zinautalakoan! Ahotik ezin utzia zen.

—Ez zaitut segurki urriki horrekin utziko. Eta gehiago dena, baratzean nahi badituzu zenbeit gerezi jan, hantche ditutzu!

—Milesker, arras maite ditut gereziak...

Trago bat edan zuen, beraz, Herioak eta lasterka gan zen baratzerat, gereziondorat izatu eta jan eta jan hasi. Zer asea egin zuen!

Oren baten buruan jausterat abiatu zen. Ezin nihundik ere. Ganich hurbildu zitzaion... eta Jesusen hirurgarren agintza irriz kondatu. Herioaren errabia orduan!

—Zer behar othe dautazu galdetu oraikoan?

—Oraikoan? Egun eta berrogoita hamar urthe!

—Baduzu burutik gizona?

—Jainkoari esker, burua ongi dut oraino.

—Ez du iduri. Nahi ditutzu hogoi urthe?

—Ez.

—Berrogoi?

—Ez.

—Ez dautzut nik bertzerik emanen aldi huntan!

—Nahi duzun bezala, bainan ez ahantz ez zarela hortik jautsiko nik lagundu gabe.

Azkenean ehun urthe eskaini ziozkan Herioak.

—Othoi, ez zatzula gutiz utz.

Onhartu ziozkan Ganichek. Jausten lagundu zuen eta toki berean berritz ostiko bat emanik Kanboko alderat fueratu.

—Zoazi harat: Jainkoari norbeit ereman behar badiozu, egun Kanbon izanen duzu segurki nori loth!

* * *

Mendeak ere badu buru bat: iragan ziren ehun urtheak ere... eta laster iragan. Chahartua, ezindua, ohean zagon astelehen batez Ganich gai-
zoa. Hirurgarren aldikotz Herioa agertu zitzaion.

—Egun ere zerbeit jikutria asmatuko othe duzu?

—Ez, ez. Biziaz asechea naiz aldi huntan. Nihork ez du gehiago nerekin musean ari nahi. Ez da gehiago Organichta bezalako pilotari handirik. Gobernamentuak khendu dauku pipabelharra gure baratzean egiteko dretchoa ere. Ez da gehiago nihor eskuarazko kanta zaharretan ari. Haurrak arras erdarari emanak dire Kanbon eta horietan. Neskat-
chak dantza itsusi batzueri lothuak dire. Ez dakit zer ikusiko nuken oraino ondoko egunetan. Ereman nezazu lehenbaitlehen!

Herioak jo zuen, beraz, buruan bere sega handiarekin, bizkarrean hartu eta ereman.

* * *

Aise asmatzeko da nungo bidea hartu zuen orduan Herioak: zeruko-
koa. Bainan, han, Jondoni Petri dago athearen zain eta nork ekarki zuen Herioak ihardetsi zioneko, athea gakhotu zuen.

—Ganich Artzaina zeruan sartzerat utz? Sekulan! Aski zuen, berehalako aldi hartan, Jesusi zerua galdetzea! Doala nahi duen lekurat...
Herioak ter ter ter, ereman zuen orduan Purgatoriorat. Han ere ez
zutela nahi, atherik ez ideki.

—Goazen, beraz, ifernurat...
Hain chuchen, athean zagon Luzifer, debruen nausia.

—Nor duzu hor?

—Eskualdun bat.

—Eskualdun bat? Datorla, datorla segurki. Munduko bertze eskual-
deek ez balaukute Eskual Herriak baino sugei gehiago ematen, ez gin-
tazke hainitz bero hemen...

—Zer du izena?

—Ganich Artzaina.

—Zer bethi musean ari zen Urtsuiako gizon zahar hura?

—Hura eta bera.

—Ongi ethorri zarela, Ganich! Zer sua eginen daukuzun heldu den neguan!

—Ez, uste duzun bezenbat, jaun Luzifer: nik ez dut ifernuarekin ikustekorik!

—Zertako, bada, Ganich?

—Ez baitut egundaino gaizkirik egin, nik!

—Ez othe?

—Goiz-arrats guziez nere othoitzak kartsuki⁽¹³⁾ egiten nituen; igande guziez meza-bezperak Hazparnen entzuten; bi orenen bidea eginik neguan ere: aski maiz mahain saildurat hurbiltzen.

—Bai eta jokoan ebasten!

—Ebasten jokoan? Nork erran dautzu hori? Musean larrutu dutan norbeitek?

—Errazu zerua ez dela bihotza baino garbiago.

—Nahuzu ikusi? Emazu karta pare bat.

—Zer jokatuko duzu?

—Nere arima.

Eta debru tiki bati kartak ekharrarazirik lotzen dire musean, buruz buru, Ganich eta Luzifer. Zer partida! Eta futcho. . . Ganichek irabazi.

Bai, orduan laster haikatu zuela handik debruak Ganich Artzaina! Bainan norat jo? Badoa berritz zerurat eta kask, kask, kask, jotzen du athea.

—Nor da hor?

—Ni.

—Zu berritz? Zeruan ez da tokirik zu bezalakoentzat: zoazi hortik.

⁽¹³⁾ GH *karsuki*.

Hainbertzenarekin san Joseph agertzen da nunbeitik.

—Zer ari zare hor, gizon maitea?

—Jauna, Jondoni Petrik nihundik ez nau sartzerat utzi nahi!

—Zer ari zinen lurrean?

—Ahal nuena ori, jauna.

—Zurgintzan ez zinen ari?

—Beharko zenbeit aldiz, jauna, nere etchearen antolatzeko.

—Ongi da: zerua irabazia duzu... Petri, utzak gizon hau sartzerat.

—Ez dut utziko.

—Ez dukala utziko? Uzten ez baduk, ni banioak....

—Zer nahuzu! Bihozmin handia izanen dut, bainan hori sartzerat utziko dutan baino lehenago...

—Eta hemendik urruntzean, nerekin eremanen ditiat Jainko nere Semea eta Andredena Maria. Hek ere gatea nahi baduk... Ez segurki, ez zuen holakorik nahi gaizo Jondoni Petrik eta horra zertako berehala athea zabal-zabala ideki zuen Ganich Ursuiako artzainari. Ordu zuen.

5. Micheria

Micheria nor den norbeit Eskual Herrian balin bada eros dezala *Gure Herria* eta irakur dezala kondaira hau. Kondaira hunek ez badio deus handirik ikasten, ez dio bederen denbora handirik galaraziko: laburra da.

Badakite eskualdunek ez zaikun gure zorigaitza? Hainbertze kondaira pollit gure chaharrek oraino baitakite, hek galtzera uztea, norbeitetik bildu eskasean, emeki-emeki!

Gure aldetik noizetik noizerat, supazter chokhoan aditurik, bat edo bertze hemen ezarri gogo dugu. Ez badire bethi guzien gustukoak, barka dezagutela zer chedek gabilzkan oharturik. Gure eskuarak ez luke hil behar...

* * *

Beraz, Micheria Akhelarren zagoen gizon chahar bizarchuri bat zen. Nungoa othe? Jainkoak daki. Izenetik hartzeko kaskoina zitaken sortzez bederen, Kaskoinian gosez hil beldurrarekin noizpeit. Eskual Herrirat ethorria lamina denboretan.

Zernahi izan dadien, Akhelarren zagon bethi gure Micheria, geroztik aspaldi lurrerat eroria den etchola tchar batean. Eskuara ere bazakien, liburuetarik edo nolazpeit ikasia.

Bai eta egiazki etchola tcharra zela etchola hura! Berak bere eskuz ahal zuen bezala moldatua, lastoz, landa zokho batean: zeru-lurreri zabalzabala idekia. Hantche bizi zen esketik bildu ogi kasko bazuekin gaizo Micheria, hotzarekin bizkarrezurreraino⁽¹⁴⁾ hoztua, euriarekin larru-barneraino bustia⁽¹⁵⁾. Dohakabea! Eta nolako soinekoekin! Alde guzietarik zilhatuak: athorra galtza-iphurditik ageri: lehengo chapel turruta luze irri-egingarri hetarik bat buruan. Zer haurren trufaren bazka!

⁽¹⁴⁾ GH *bizkar bezurreraino*.

⁽¹⁵⁾ GH *buztia*.

* * *

Horra nun udazken ilhuntze batez, sekulako hotzarekin, han barna iragaitean, Micheriaren etcholan sartu zen Jesus Jauna.

—Agur, Micheria.

—Agur, jauna. Aise ikusten dut hoztu zarela kanpo hortan. Neretzat behinere ez dut egiten, bainan zato, phiztuko dut su eder bat.

—Milesker, nik ez dut hotzaren beldurrik.

—Bai bederen gosearena? Har zazu, beraz, mahain gainetik ogi kozkor hori eta biek jan dezagun.

Eta erditik eginik Jesusek eta Micheriak jan zuten ogi kozkor hura...

* * *

Hain chuchen, orduantche berean, plazan partida bat errebotean eginik etcherat zoazin hamar bat haur. Etcholaren parrean gelditurik oiuhuka hasi ziren.

—Kuku hadi, marro zaharra.

Eta kisk kask harri batzu etcholako lastorat erori ziren. Lasterka hurbildurik, prediku eder bat egin zioten Jesusek haur tzarrerri eta etcherat igorri zituen, urrikia bihotzean. Zer eskerrak bihurtu ziozkan Micheriak berritz etcholan sartu zitzaionean.

—Badakizu nor naizen bederen ni? Zion Jesusek orduan galdetu.

—Batere, jauna; bainan nornahi izan zaitezen, zure mintzo eztingizonik ez dut behinere kausitu, nik, hemen gaindi.

—Ni, Jesus naiz.

—Sinhesten dut segurki, jauna: horra zertako hunat ethorri zarenetik gozo handi batek hezurretaraino hartu dautan gorphutz guzia! Barkha, jauna, ez banaiz berehala belhaunikatu; belhaunek ez ninduten atchikiko.

—Badakit, Micheria: ez duzu, beraz, hortaz zeren kecha. Orai, erranak erran, zer nahi duzu zuretzat egin dezadan?

—Ori, jauna, ez dautzut batere mintulinkeriarik eginen nik: sobera ona zarela, ez dutala deusen beharrik eta holako. Ez, jauna, baduzu

ahala: huna, beraz, zer nahi nuken. Othoi arrats guziz emadazu mahain gain hortan, eske ibiltzeko beharrik gabe, biek erditik jan dugun bezalako ogi kozkor bat. Egizu, bertzalde, landa muthurreko atheka hartarik herri huntako haur tzarrak ez ditene gehiago iragan nere trufatzeko.

—Hola egina izan bedi hemendik goiti.

—Jauna zaharra naiz: erromesa naiz. Bainan ez naiz oraino bizi huntaz ase. Utz nezazu hemen zenbeit urthe bederen, bainan noizetik noizerat zato egun bezala nere ikusterat. Zutaz kanpo, nahiagoko dut nihor ez ikusi.

—Micheria, onhartzen dut galde hori ere. Eta orai banoa. Micheria, egon ongi eta bertze aldi bat arte.

—Nahi duzun arte, jauna, eta milesker hainitz.

* * *

Hola-hola zen ordutik gertatu. Behinere ogiak ez zion huts egin Micheriari. Bazuen eta bera aserik inguruko chori guzien asetzeko! Haurrik ez zitzaion gehiago trufatzeko etcholarat hurbildu. Hurbildu nahiz ba ari izan athekan, bainan han bethi zerbeitek gibelatu!

Denborak gan, denborak ethorri, horra nun behin Herioa etcholari buruz abiatu zen gaizo Micheriaren hartzeko eta eremateko, asmatzeko da norat. Bainan Jainkoaren indarrak ez baitu neurrik: haren kontra nihork ez deus egiten ahal! Herioak ere ez zuen atheka iragan. Errabia gorrian, mila gisetarat jokatu zen segurki, zapatak khendurik eta espartinak emanik. Debaldetan. Han utzi behar izan zuen Micheria bere etcholan...

* * *

Nere irakurtzaile maiteak, zeronek ez ote duzue zenbeit aldiz fragatu Micheria oraino bizi dela. Nik bai bethi. Bizi... eta biziko menderen mendetan.

6. Ondicola eta Lutchoki

Arruntzako herri guzian ez zen Ondicola baino gizon prestuagorik. Mandoa baino azkarrago zen eta bizkitartean ez zuen sekulan, chorta bat edan eta ere, uli bati minik eginen. Prestua bezen jainkotiarra, bertzalde. Beraz, herrian guziek maite zuten, maite bihotzaren erditik; baina ez zuen Lutchoki baino adichkide minagorik. Elizan bethi biak elgarren aldean jaun erretoraren prediku ederreri beharriak luzatuak: ostatuan bethi biak musian elgarren lagun nornahirekin. Ez da, beraz, harritzeko, Ondicolaren heriotzea ortzirale batez ikasi zuenean, gochoki nigar egin bazuen Lutchoki gaizoak!

Eta geroztik ez zuen onik. Bethi buruko min tzar batekin: deus ezin gehiago gogo onez jan. Hiratuz zoan egunetik egunerat mirakuilu baita! Hamar urthe iraun zuen, haatik, oraino. Orduan zer begi eztiarekin ikusi zuen hurbitzen heriotzea, bere adichkide Ondicolaz orhoitu-eta! Hil zen eztiki eta arrunztar guziek erran zuten: “to, elgar atcheman dute berriz bi adichkideek!

Elgar atcheman bi adichkideek? Bai,... bainan ez hain errechki. Uste baino chokho gehiago da gain hartan eiki! Beha, beraz, hunat zer itzuli-kak ibili zituen Lutchokik Ondicolaren ondotik. Harrigarri da kasik.

* * *

Begiak sekulakotz hetsi zitueneko eta bera den gutienekorik ohartu gabe, zeruko athean zen Lutchoki. Kaschk, kachk, kachk jotzen du athea. Burua artetik doi-doia agertzen du Jondoni Petrik eta, behatu gabe ere, galdetzen:

—Nor da hor?

—Ni.

—Nor, ni? Ni hainitz bada lurrean.

—Ni, Lutchoki.

—Nungo Lutchoki? Bada ere hainitz Lutchoki bazterretan.

—Arruntzako, jauna.

—Arruntzakoa? Zoazi, beraz, hemendik, arruntzarrekin aski buruhauste badut izanik orai arte!

—Barkatu, jauna, nik ez nakien holakorik. Bainan ez ahal nauzu bederen nere adichkide Ondicolari agur baten erraterat utziko? Hor dukezu nunbeit hamar bat urthe huntan.

—Nere paperetan ez dut izen hortako arrunztarrik. Zoazi, beraz, hemendik, bertze denborarik neri galarazi gabe.

Eta, tanpakoan, athea hesten dio Jondoni Petrik, tente han dagoela gure Lutchoki, harritua.

—Hau duk ongi ethorria egin dautana zeruko athezainak! Dio bere baitan Lutchoki gaizoak. Ez nauk, dudarik gabe, ni aski garbi zeruan sartzeko. Ez eta Ondicola ere. Eta hala duk. Hainbertze kapilla gorri ibili diagu igande arratsetan! Zenbeit tanto ere musean ebatsi, behar handirik gabe! Gehiago dena, behin edo bertze jaun erretoraren athermal-di batzueri irri egin elizan! Holakoentzat egina duk purgatorioa: goazen harat.....

* * *

Ez baitzen, haatik, purgatorioan ere Ondicolaren izenik, hango paper guziak azpikoz gora bietan itzulikatu eta ere! Gaizo Lutchokiren harritzea! Eta lotsatzea! Orduan, bere baitan egin zuen:

—To, Ondicola ifernuan bada, izanen duk bertze arrunztarrik ere! Egia baita naski gure erretorak latinez hainbertzetan errepikatzen zaukuna: *Multi sunt vocati, pauci vero electi*. Eiki, bada, nere herritarrentzat egia dena, zenbat gehiago ahal ditakeen lehen hauzo arrangoiztar eta mila-frangarrentzat! Dena dela, ez nauk huntan baratuko: nere Ondicola nunbeit atchewan behar diat. Goazen, beraz, ifernurat.

Huna ifernua. Athean joko dut ez dut mende bat egonik, azkenean jotzerat deliberatzen da Lutchoki: kachk, kachk, kachk. Zabal-zabala idekitzen da berehala athea. Jesus, Maria eta Josepe, zer kalda! Erre nahi du ondo hartan. Eta Lutchokik aditzen ditu ikharagarritzko marraskak, gizon batzu bizirik larrutzen ari balituzte bezala. Sentitzen du ere ezin

jasanezko suge usain bat, bafadaka sudurrerat heldu zaiona. Hainbertzenarekin, debru beltz bat agertzen zaio bi begi handi gorriekin, ahotik sua dariola.

—Zer nahi duzu?

—Arruntzako Ondicola hemen duzuen jakin.

—Bada segurki arrunztar barne huntan, bainan Ondikola deitzen denik, ez....

Gehiagokorik galdetu gabe, Lutchoki itzultzen da laster zeruari buruz, ifernuko usainaren ondotik hangoa berritz usnatzeko. Eta bideak bideari bazoan, burua hautsia nun othe zuen, bada, Ondicola. Bide erditsutan bezala, zerbeitek gogorat ematen dio, menturaz denbora hartako erretorak gaizki bathaiatu zuela eta, sekulan bada, linboetan kausituko duela. Eta taka-taka abiatzen da linboeri buruz. Ere mu zabalak dire gain hartan. Orenak eta orenak bidean eman zituen, beraz, Lutchokik, bainan halere, noizbeit heldu zen linboetarat.

Ondikotz, linboetan ez baitzen, ordean, Ondicolarik! Ongi bathaia-tua baitzuen, beraz, orduko erretorak! Horiek hola, orai zer egin!

* * *

Bai, zer egin?... Hortan zagolarik Lutchoki, buruari hazka, hedoie-zko pareta baten gibeletik entzuten du halako burrunba bat. Harritzen da eta linboetako haur bati galdetzen dio berehala:

—Haurra, zer da burrunba hori? Hor ere bada naski egoitza zen-beit?

—Izan behar da, zeren mila urtheko bat badu ni hemen naizela eta egundainotik burrunba bera aditu izan dut.

—Huntaraz geroz, ikusi behar dut hor kausituko othe dutan bederen bilha nabilar adichkidea! Agur, haurra, eta milesker hainitz.

—Ez da zeren, jaun maitea.

Bainan Lutchoki jada bazoan han-harat, delako burrunbari buruz.

Ez zitzaion halere hain urrundik heldu burrunba. Bi oren eta erdiren buruko Lutchoki han zen sekulako jendeketaren erdian. Hango mintzai-

rak, ordean! Aditu zituen batzu hemen anglesez, hor bertze hainbertze, espainolez; haratchago asko eta asko frantsesez. Eta nik dakita urrunago nor nola!

—Nun dire eskualdunak?

—Ori aditzen ditutzu choko hartako kantari hek? Eskualdunak dire. Ez dire goizetik arratserat ichiltzen.

Lutchokiren loria hainbertzenarekin leku hartan eskualdun kanta zahar batzu aditzean! Lasterka abiatzen da delako zokhoari buruz, bidean lehenik espainol bat eta gero frantses bat pusakoan lurrerat aurdikirik. Eta eskualdunetan lehen-lehenik nor ikusten du? Ondicola...

—Errak, to, zer ari haiz hemen?

—Eta hi, nun habila?

—Hire ondotik, zeruan sartzeko.

—Baduk asti, beraz, gaizoa. Hoa, hoa bakarrik, eta lehenbailehen: ni ondoko urtheetan ethorriko nitzaik.

—Bainan zer duk leku hau?

—Hik ez dakik eta ez jakiten ahal.

—Bainan?

Hau duk denbora gabe hil direnen lekua.

—Nola hil zukek denbora gabe?

—Ni bezala, to. Sortu nintzelarik Jainkoak nere paperetan eman zikan 75 urthe biziko nintzela. Ondikotz nik egun batez erremedio bat hartu behar izan mirikuak manaturik eta berehala hil, 50 urthetan. Orai, beraz, hemen egon behar 75 urthe egin arte.

—Gizagaizoa! Eta hemengo mundu hau guzia?

—Mundu hau guzia denbora gabe mirikuek hila.

—Jainko ona, lurrekoek balakite!

Ondikola eta Lutchokiz guk ez dakigu gehiagorik. Huntan akabatu dugu, beraz, aldi huntako ichtorioa. Baina ez da erran behar, zer ziren, haatik, lehengo mirikuak! Jainkoari esker, bertzerik dire oraikoak... Arruntzen eta bertzetan...

7. Harrichabalen bezala, Bethi

Eskualdunetan ez gira gehiago zonbeit bakhar-bakhar baizik, Harrichabaleko herriaz mintzatzzen aditu dugunik, aspaldi baitu su ikharagarri batek Jainkoaren gaztiguz suntsitu zuela. Ez dakitenentzat, zerbeit bederen jakin dezaten, dezagun hau erran: Harrichabal herrichka churi pollit-pollit bat zela, aski gichena, han nunbeit Uztaritzeko inguruetan. Senpereko alderat ala Milafrangako ichtunen ondoetan, ez dakigu. Bainan ez du hainitz munta horrek, errateko ditugunen errateko.

* * *

Denbora hartan bazuten, beraz, Harrichabalen jaun erretor bat, orai guti ikusten baita halakorik Eskual Herrian eta bertzetan ere. Ona, kartsua eta beroa zen. Beroskoa zonbeit aldiz, haize hegoa bezala. Bainan erretorak aldarean othoitz gehiago, predika-alkian oihua saminago... eta jendea errebesago zolan herri hartan, egunetik egunerat. Halako moldez nun, igande batez, tak eta zart, harrichabaltarreri beren erretorak saminki erran baitzakoten:

“Zuek, giristinoak, badakizue zer iduri duzuen? Martin Uztaritzeko komentuko baratzezainaren jazko tipulak. Landatu zituelarik aski polliki burutzen hasiak ziren. Geroztik bietan bederen eman zakoten ongarrria. Eta zer ongarrria! Hiruetan sarratu zituen. Eta nola sarratu, nihon belhar ondo bat utzi gabe! Idortean, arrats guziz artha handienarekin busti, mafrundi gaichto baten gatik! Bainan hemen egia erran behar dut, oro eta oro debaldetan, pirrit bere lan guzia ez zakon baliatu: tipulak ez ziren egin eta Martin gaizoak atheratu zituen sartzean bezalatsu, kuku-soaren heineko... Giristinoak, horra hemengo ichtorio bera. Hunat jaun apezpikuak duela hogoi bat urthe igorri ninduelarik, kartsu-kartsuenerarik ez izanagatik, bazen Eskual Herrian berean zuek baino makurragorik. Eta nik geroztik nere hameka eginahalak egin ditut lur horren ontzeko. Egiazki, *nihil mihi conscius sum*, ez dut deusen urrikirik: bertze batek ez zuen predika-alki huntarik oihu gehiago eginen, zokho-mokho

guziak ikertuz eta itzuliphurdikatuz, boza eta biloak galdu arte. Eta... eta? Arri arri mandoko: zuek saildutasuneko bidean aintzintatzeko orde, gibelat egin! Bainan nik egun hauche erran behar dautzuet: nekatua eta asean nize, leporaino asean: ez bazizte bada, gehiago luzatu gabe, zuen baitan sartzen eta Jainkoaren ganat itzultzen, nik lekuak hustuko ditut: zuek hemen utzirik, ni joanen nize ahal dutan tokirat. Halabiz. Irri egin zakoten Harrichabaltarrek igande hartan ere beren erretoraren erran guzieren eta apuñatik lothu “Credo”ren kantatzen!

* * *

Egunak joan, egunak jin, garizumako denbora ere hurbildu zen eta bere buruarekin elheketa zagon arrats batez, supazter chokhoan, gathu bizkar legun bat aldean luze-luzea, gure jaun erretora: zer nahuzue, bada, gehiagokorik nik egin dezotan herri huntako jendeari? Jaz erditsuek ez zituzten beren pazkoak egin. Aurthen laurden bat heldu bazaut, munduko gorenari! Eta heldu den urthean? Ez, ez: hola ez doake gehiago: nitaz aseak dire harrichabaltarrak: hobeko dakot, beraz, lehenbailehen jaun apezpikuari hitz bat igorri, deusetako ez nizela hemendik goiti on, ordain bat laster igor dezadala Harrichabalerat. Bai, hala egin behar dut: hemengo jende guzia ifernu ondorat joaitea baino, guzien buruan ez othe da hobe ni Ainhoako kaperan ermitau bizitzea? Ermitaugoa aiphatzearekin, horra nun bet-betan, gure erretorari gogorat heldu zakon hain chuchen adichkide bat baduela Otsolarreko errekan jada ermitau, omen handiko saildu, omen handiko predikari, eta, Hazparneko misio-nestek baino hobeki ere, harek herria konbertituko dakola. Eta berehala Kadet eiherazainarekin hitz bat igortzen dako ermitau adichkideari ondoko egunetan joanen zakola ikusterat eta, hemendik harat, haren doia chingar nunbeit atchegan dezala.

Ondoko igandean, ebanjelio saildua kantatu-eta, huna gure erretora mahain sailduan. Irri churi bat ezpainenetan, hasten da: “bakotchak bere egitekoak ditu, zuek badituzue zuenak eta nik baditut eneak. Beraz, aste huntan bi egunez herritik kanpoan izanen nize. *Predikare padre, debalde*

madre baitut nik hemen, huntan egungo akabo”. Jendearen harritzea igande hartan! Bainan ez zuen gutiago harritu behar ondokoan, predika-alkirat iragaiten ikusi zutelarik, bere bizar zuri luzearekin, chano ttipi bat buruan, Otsolarreko ermitau saindua!

Zer erran zakotan harrichabaltarreri egun hartan ermitauak? Batere ez dakigu. Dakiguna da astelehen goizetik hasirik jendea goiz guziez tropaka heldu zela elizarat kofesatzeko chedearekin! Hainbertzetaraino nun ifernuko debru beltza hango su-lametan kechatzen hasi baitzen Harrichabaleko sugei onak galdu behar zituela ermitauaren gatik. Zer egiten du orduan? Taka-taka abiatzen da Harrichabalerat, buztana chut, denbora bada oraino zerbeit egiteko Harrichabaleko gei onaren eskasez ifernuko sua hil ez dadin, edo ttipi. Nihor ohartu gabe badoa aphez etchearen aintzinean barna eta sartzen da elizan, ur benedikaturik hartu gabe bichtan den bezala. Bainan athetik bi urratsetan hantche gelditzen da harritua eta tontotua. Ezik nor ikusten du kadira hartan belhauniko, burua bi eskuen artean? Chantcho, Chantcho, mozkor handi, ohoin tzar, gezurri ikharagarri bat, behinere elizan zangorik ematen ez duena! Ez, ez: holakorik ez du nahi debruak: hein bat bada guzietan: eskuko choririk ez dako segurki ermitauari utziko. Ez lezake gaizki irri egin Harri-chabaleteko erretor buruzuriak!

Bainan orduan ditu lanak debru beltz harek! Nola bilduko du orai Chantcho? Han dago hau bilha, hura bilha, eta deusik ezin kausi. Eta denbora hortan, Chantcho kofesatzen da, ermitau sainduak manatu hirur hamarrekoak erraten ditu eta... abiatzen da, choria bezen arin, kanporat.

“Jesu, Maria eta Josepe, urrikal nakizue, dio begiak atherat altchatu ditueneko, Chantchok: debrua hantche, buztanetik aise ezagut ditake! Ez nu, bada, berritz bere saretarat segurki bilduko!”

Bainan nundik athera? Elizan ez da athe bat baizik? Jauzian badoa, beraz, gure gizona, iragaitean kuskako bat ukondoaz debruari emanik. Eta gibelat itzuli ere gabe lasterka etcheko alderat hartzen du, athea burrunban hetsirik...

Ai, ei, ai! Zer da orro ikharagarri hau! Zer den? Huna. Chantcho atheratu deneko, debru beltza ere atheratu da. Bainan gauza batez ez da orhoitu: buztana luzeskoa duela eta eskuetan hartzen ez badu, atheak eta paretak artean hartuko dakotela. Eta hala-hala da gertatzen. Debrua han dago orai preso. Ezin aintzina, ezin gibela, ezin ere itzul buztaneko mina emendatu nahi ez badu...

—Chantcho...

—Zer duk?

—Othoi, othoi haugi ene hemendik kentzerat...

—Ez eiki.

—Haugi, sari bat ederra emanen daiat...

Sari bat? Debruaren eskutik ere sari bat on da! Guziz zonbeit sos lituzke on Chantchok, pilik ez baitu sakelan eta okhinari bi egunen buruan ilhabetea ordaindu behar! Bainan...

—Ez diat hire ganik deusik nahi.

—Chantcho haurtzen ari hiz naski hola mintzatzeko? Haugi, emanen daizkiat hamar mila libera...

Hamar mila libera! Hamar mila libera! Chantcho ikharan dago gaizki entzun duela naski.

—Zonbat erran duk?

—Hamar mila libera...

—Emaitzik, beraz, lehenik eta athea idekiko daiat.

—Han dituk untzi batean, jaun erretoraren baratze muthur batean.

—Etchean ontsa nindukek jaun erretorarekin heldu den igandean, kofesatu orduko bere baratzean ohointzan ikusten banindu!

—Hamar mila liberak ez dituk harenak! Nun ikusi duk hik egundaino erretorik holako sosarekin?

—Hala duk hori ere, oraiko mendean...

Denbora hortan bi urratsetarat hurbildua zen Chantcho. Rau, buztanetik lotzen da debruari eta athea idekitzen du. Debrua nahi luke segurki ihes egin, bainan aztapar onak ditu Chantchok eta ez du utziko, zorra ordaindu arte, orai.

—Habil hor, eiki, eni diruaren ematerat, erran bezala!

Badoazi, badoazi zango punten gainean, aphezetcheari hurbiltzearekin. Untzia⁽¹⁶⁾ bere hamar mila liberekin erran lekuan kausitzen dute eta orduan, gehiagoko agurrik gabe, biek bi alde hartzen dute, debruak ifernuko alde eta Chantchok etchekeo alde, lehen adichkide bezen orai etsai. . .

* * *

Halabeharrear, ichtorio hunek baluke debru beltzak bezenbat buztan oraino. Ez dakogu batere emanen. Dezagun bakarrik erran aspaldi hil zela Harrichabaleko erretora geroztik ere hameka buruko min bildurik; Chantcho laster berritz bilhakatu zela lehengo Chantcho, arras edanari eta ohointzari ere eman zela eta guziz debruak amarru handiak dituela, ezen, Harrichabalen ez bada, eskualde bereko herrichka batean, oraiko erretorak dionez, debruak biltzen du nahi duen bezenbat sugei, bethi.

⁽¹⁶⁾ Gh *unzia*.

8. Harrichabaleko hilherrietan⁽¹⁷⁾

Egun guti du Harrichabaleko herria hemen berean aiphatu dugula. Ez ginuen, bada, orduan uste berritz hoin laster aiphatuko ginuela. Beharra bezalakorik ez da. Eta guzien buruan ez othe da hobe hola, ezen nihork ez ditu oraino ahortzi hango erretor ona eta Otsolarreko ermitau saindua? Bertzalde, orok gogoan dute oraino nola Harrichabaleko erretorak egin ez zezakena ermitauak egin zuen: hango jendea konbertitu...

Huna, bada, zer zen gertatu delako herrian, handik laster. Erramu goiz batez oihuka⁽¹⁸⁾ eta zalapartaka, othoi eta othoi, pazkoak laster egin zetzaten ari zelarik erretor gaizoa, izertua, hatsa joana, bet-betan zain bat urratu zitzakon barnean... eta aditzaileak ohartu ere gabe, hila zen: gorphutz mahain sainduaren ondoan! Bi egunen buruan Harrichabaltarrek egin zazkoten ehorzteak! Han ziren kontseiluko gizon guziak, ikastegietako nechka-mutilak, Mariaren haur gazte eta zaharrak; han, inguruetako aphez eta fraide guziak; han, Uztaritzeko komentuko serora andana bat; han ere, Otsolarreko ermitaua bere chano ttipia kaskoaren puntan. Eta nik dakita nor oraino? Hola nun, horiek guziak ikusi balitu, erretor zenak segurki, eta lehen aldikotz, erran nahiko baitzakoten: “Allo, behin bederen gauzak ontsa egin ditutzue; ez niz urrikaltzen hilik...”.

* * *

Hirur egunen buruko Harrichabaleko erretor berria izendatua zuen jaun apezpikuak. Badakizue nor igorri zakoten? Otsolarreko ermitaua. Bainan jada saindatua zen herri hura, debrua ez baitago behinere lo, eta ermitauak ere ez zituen hiruetarik bat baizik pazkoen egiteko bildu. Egin zuen oihu, egin zuen kantu, oro debaldetan, herria ez zuen bildu.

⁽¹⁷⁾ Ipuin berean *hil-barri* eta *hil-herri* datorrenez gero, hilherri hitzera ekarri ditugu guztiak.

⁽¹⁸⁾ GH *hoibuka*.

Haren bihozmina! Lotsatzeko ere bazen! Bainan ermitau bat deusek ez du lotsatzen, are gutiago Otsolarrekoa! Othoitzean hasi zen, beraz, zinez eta barnez othoitzean, Andredena Mariaren bitartez, Jesusi: “Jesus ona, zeru-lurren nausia, emadazut othoi mirakuilu baten, bat bakarraren herri huntan egiteko indarra. Gisa hortan hitz dautzut herriko jende guzia berritz zure ganat itzularaz⁽¹⁹⁾ nezake! Eta ez hemengo baka-
rrik⁽²⁰⁾, bainan hemengoaren etsenpluarekin Milafranga hortakoa ere ba! Bai eta Uztaritzekoa ere! Gero, Kanbokoa! Senperen ez dira hain harrotuak, bainan han ere nor edo nor baditake⁽²¹⁾ bere baitan sartzea on lukenik!...

Eta horra nun Jesusek berehala ihardesten dakon: “Uztaritzeko, Kanboko, Senpereko eta Milafrangako erretorek ez ditek hik bezalako buru hausterik: han ez ditek mirakuilu beharrik. Bainan uste duk hik bat askiko dukala?”.

—Bai, nausia, bat askiko dut, aski handia egitearekin, hogoita hirur urthe Otsolarren Uztaritzeko jaun notariaren arthotik janez bizi izan nizen bezen segur!

—Ontsa duk: ematen daiat, beraz, eta gogo onez ematen nahi dukan mirakuiluaren egiteko indarra... .

* * *

Ondoko igandean huna zer zuten harrichalbatarrek predika-lekutik aditu ermitauari: “Berri bat beharrietarat jin zaut: ene erranetarik⁽²²⁾ bat ez duzuela hemendik goiti sinhetsiko, edo mirakuilu bat zuen begietan beharko dutala egin! Ni bezalako ermitau ttipi bati hainisko galdetzea da hori. Bainan bertzela ez ditakenaz geroz, ontsa da: mirakuilu bat egi-
nen dautzuet. Sarri aski duzue bezperetarik lekora hilharrietan kausitzea orok! Erranak erran, sarri arte!”.

⁽¹⁹⁾ GH *itzul-baraz*.

⁽²⁰⁾ GH *bekarrik*.

⁽²¹⁾ GH *badikate*.

⁽²²⁾ GH *errenatarik*.

Ez ginuke segurki finkatu nahi harrichabaltar batek ere bere erretora egun hartan sinhetsi zuela, baina finka ditakeena da, egia delakotz, oro eta oro bezperak ondoan han zirela chuchen hilherrietan⁽²³⁾. Ermitaua berehala iragan zen harrizko alki baten gainerat eta, irri churi-churi bat ezpainen puntan, hasi: “harrichabaltarrak, nik ez ditut bi hitz: goizean hitzeman dautzuet mirakuilu bat hemen⁽²⁴⁾ egitea, bai, hitzean nago. Zer da mirakuiluetan handiena? Hil bati biziaren ematea. Horra, bada, orai berean eta guzien bichtan zer egingen dutan. Jaun chantrea ene aldean dut: eskuetan badu untzi bat: untzi hortan ezarriak ditut azken bi urthe hautan hil direnen izenak. Zoin izen atherako baita untzitik eta hura dut nik phitzaraziko, hilaren ahaide hurbilenak hala nahi badu!” Eta chantreari orduan erraten dako: “Sina-minarik gabe, Pettan, athera zazu izen bat zure untzitik”.

Hango ichiltasuna orduan aise amesteko da: uli bat adituko zen naski airean ibilki handik ehun urratsetan!

Chantreak atheratzen du, beraz, izen bat eta irakurtzen Sakelajori Anton, Larreburuko nausia!

—Nun dira Anton zenaren ahaide hurbilenak? Erhia altcha!...

Noizbeit, Gachucha Ergel, Antonen ilobak altchatzen du erhi bat... erhi pitina!

—Nahuzu phitzaraz dezadan zure osaba?

—Jauna, nik zer nahuzu bada erran dezazudan? Osaba hilez geroz ezkondu nintzen eta sainda da hola! Galde zazu othoi ene senharrari... Baina senharrak eskuko⁽²⁵⁾ choria maiteago baitzuen airekoa baino, ukhan ondoriotasuna gerokoaren⁽²⁶⁾ mentura baino...

—Bego hori hortan, dio berehala ermitauak. Denborarik ez dezagun gal eta chantrea, athera laster bertze izen bat...

⁽²³⁾ Zerbitzarik hil-harrietan eta hil-herrietan (beti pluralean) darabil hil-herri/hil-harri hitza.

⁽²⁴⁾ GH *emen*.

⁽²⁵⁾ GH *estuko*.

⁽²⁶⁾ GH *gerokaren*.

—Katalin Lumatch, Chochoeneko etcheke-anderea...

Urthe bat ez zuen oraino hila zela Katalinek eta jada⁽²⁷⁾ berritz ezkondu zen Chidro, haren senharra.

—Chidro, nahi duzu phitzaraz dezadan Katalin?

—Jauna Katalinek bazituen segurki alderdi onak, bainan itzal handiak ere ba. Eta nahiz oraiko emaztea ere ez den aingeru bat, guziak konda, nahiago du, hau bakarrik atchiki. Ez lukete biek sekulan, elgar adituko eta buru hortarik norentzat litake kaltea? Enetzat...

—Aski, aski hortan, Chidro: Katalinik ez dautzut phiztuko. Bainan goazen berehala hirugarren bati.

—Echtebe Gibelandi!

Berehala eta bere baitarik hainbertzenarekin hurbiltzen da, taka-taka, muthil gothor bat.

—Aita nuen Etchtebe Gibelandi. Jauna, phitzaraz zazu segurki, bainan barneko min tzar bat baitzuen, hura gabe. Bi urthe handi atchiki ginuen eri, ez ginuke berritz holakorik nahi deusetan ere.

—Ez duzue deusetan ere holakorik izanen eta Pettanek athera dezala oraino izen bat.

—Batichta Gutierne...

Eta izen hau aditu orduko marrumaka hasten da choko batetik atcho chimur motho gorri bat: hi, hi, hi eta hi, hi, hi.

—Gaizo Batichta... Batichta maitea... Zer atseginarekin ikusiko zaitudan segurki!

Ermitauaren loria orduan! Loriarekin kasik besarkatuko zuen-eta atcho chimurra!

—Jainkoari eskerrak! Atcho maitea, egia da, beraz, sarri nahi duzula zure Batichtarekin buruz buru afaldu eta emaiten dautazula haren orai berean phitzarazteko zure baimena?

⁽²⁷⁾ GH jadt.

Eta atchoak zer erranen zuen goaitatu ere gabe, ermitaua jada lasterka bazoan Batichtaren hobiari buruz, nunbeitik haintzur bat agerturik hura bizkarrean. Bainan lehen haintzur kolpea ematerat utzi gabe, atchoak horra nun dakon besoa gelditua.

—Burutik egin othe zautzu, jauna. Ez nauzu utzi akabatzerat! Nik segurki nahi nuke Batichta phitzaraz dezazun, bainan berak ez luke nahi. Huna hitzez-hitz zer erran zaukun hiltzerakoan: “Zerurat noa, zerurat noa eta zernahi eskainirik ere, zeru eder hartarik ez nuke atheratu nahiko!”.

Hainbertzenarekin Chantrea hurbiltzan zako ermitauari eta beharri chilorat erraten delako Batichtak bere emaztea panpatzen zuela noiznahi: ifernu bat zela heien⁽²⁸⁾ etchea!

—Zeruan bada, zeruan utziko dugu Batichta...

Bainan horra ermitaua egundaino bezala lanean. Nor othe da ahai-deek gogotik phizten ikusiko dutena? Eta heldu zako: sekulan bada eta, erretor zena.

—Nahuzue phitzaraz dezadan zuen erretor zena? Erhia chut nahi dutenek...

Bi erhi chutitzen dira: chantrearena eta gobernantarena.

—Zer, hoin bihozgabeak zirezte herri huntan! Horra aphez gaicho bat zuentzat gorphutza eta arima higatu dituen eta ez dira bi erhi baidik chutitzen? Badira hemen Heren-Ordeko giristinoak; badira Mariaren haurrak; badira hameka aldiz erretor zenaren mahainean ase eta bethe diren gizonak: hek ere ez dute erhirik altchatuko? Zer da, beraz, herri hau?

Hargatik ez baitzen erhirik altchatu ermitauaren oihu-karrasia minekin ere! Han zagon gero eta harrituago, ez jakin gehiago zer erran⁽²⁹⁾. Emazteki moko-mehe bat hurbiltzen zako: Mariaren haurretako buruzagia, berrogoita bederatzi urthetan.

⁽²⁸⁾ GH hezen.

⁽²⁹⁾ GH *eran*.

—Jauna, nahi duzu egia nik erranik jakin? Hobe da erretor zena den tokian uztea. Ez dakizu zuk azkenekotz arras mokotua ginuela? Utzazu, bada, bere hobian: hein batetik goiti hango hobea da den hoberena ere...

* * *

Hauche da lana! Gogoetatzen hasia da ermitaua nihork ez duela naski bere mirakuiluaren egiterat utziko! Behin ahal hori izan-eta, zer lastima! Bainan gogorat heldu zako bezperan ehortzia baduela hirur utheko aingeru bat eta bihotza hautsi nahi zuela bere nigarrekin amak.

—Hura phitzaraz baneza!

Ondikotz eta ondikotz, hartako ere ez zuen astirik izatu, ezen hainbertzenarekin galerna bat jauzi zen ikharagarritzkoa. Hasi ziren lehenik ortziak karraskan, gero harria purrustan. Eta harrichabaltar guziak, lasterka joan ziren zoin beren etchetarat...

Eta ermitaua? Ermitauak egin zuen bertzeek bezala. Eta gauza den bezala errateko, ez dakigu eia ondoko igandetan egiten izan ahal zuen bere mirakuilua. Harrichabaltarrak pazkoetarat biltzeko ala harrichabaltarrak gelditu ziren lehen asto, gero mando...

9. Azkainen

Bideak noratnahi erematen du dabilana: egun hautarik batez, Azkainerat ereman gaitu, gu. Herri pollit eta alegera, pollit eta alegerarik balin bada! Zorigaitzez, soberache hango bidea ikasten ari baitute angles, espainol eta nihunereko atzeek! Harritik bezala Jainkoak Azkaine begira dezala atzeak sartzerat uztetik!...

Dena dela, horra nun, Azkainerat heldu gareneko, pilotako plazaren ondoan gizon bizarluze bat ikusten dugun, ezkiladorrea bezen handia. Arras hurbil-errecha baita delako bizarduna, laster elheketa hasiak ginen hura eta gu, aspaldiko bi adichkide bezala, mihirat etorri guziez.

—Bainan, jauna, ez naiz gero hunat haizeaz eta uraz mintzatzerat ethorri: zure herriaz zerbeit ikasteko chedeak nabilka hemen gaindi.

—Ederki. Kontu hortan badakizu zer egin behar dugun? Goazen Saskoenerat. Hango Chemartinek asko eta asko gauza erranen dautzu.

Saskoenea lehengo etcheetarik da, den gutieneko bat berritua, karrikatik baztertche, Larrungo bidean. Lehengo begitarte Saskoeneari khendu ez baliote berritzean, baluke ikusle goizetik arratserat... eta Saskoeneak bezala Aldagaraiko bertze etche gehienek...

Jende arraiak, Saskoeneakoak. Egiatzko eskualdunak. Leka bihitzen ari zen, hain chuchen, Chemartin.

—Agur, aitona.

—Agur, agur, jaunak. Ongi ethorri zaiztela. Nahi baduzue, hortche komplimendurik gabe jarri?

Bi denbora tchar eta bi haize baditu ikusiak gaizo Chemartinek: lauetan hogoi eta zortzi urthetan da. Begia erne du halere, mihia zalhu. Zangoek diote bakarrik noizetik noizerat huts egiten, urrunsko menturaten bada. Berak egiten du oraino bizarra. Erdara ez daki. Behinere ez du ikasi irakurtzen. Funtsean, zerbeit galdu othe du buru hortarik?

—Azkaindarra zare, Chemartin?

—Ba, jauna: etche huntan sortua naiz... eta hemen hil gogo, Jainkoak nahi badu.

—Aldagaraitarra, beraz?

—Bai eta nahi ere.

—Bainan zure haurretik hunat Aldagarai nola berritu ahal den?

—Hola! Hola! Ni gabe suntsituak ziren, ziotenaz, zenbeit etche: hamar bat bederen.

—Ba othe?

—Anglesen gerla aintzinean Cherubaita omen zen Azkaingo etchalderik hoberena: Anglesek erre zuten.

—Eta, Chemartin, badakizu zerbeit anglesen gerla hortaz?

—Nik, deus handirik. Zaharragoeri aditu izan diotet bakarrik Larrunen frantsesek aintzindari angles bat kolpatu zutela. Larrunen artzainek badakite egungo egunean ere nun den anglesen harria. Behin bi bidun izpirituz betheen mugazaineri gordetzeko baliatu zitzaitan neronei delako harria.

—Sarraski handiak izan ziren gerla hortan?

—Gerlak bethi sarraski handiak egiten ditu, bainan orduan gutiz gehienek ihes egin zuten anglesen menetik. Hala nola erran izan daudet Hargibleko eta Uhaldekoek, ahal bezen labore handia eginik. Baionatik harat jo zutela orgetan.

—Eta zure etchean, hemen?

—Hemen, chichpa kaskaka iphurdian, aitari dirua galdetu zioten anglesek. Aitak dirurik ez zuela erran-eta, zerria ebatsi zioten. Geroztik gurekin adichkidetu omen dire anglesak, alemanen bizkar, bainan nik ez ditut maite halere. Aski daudet aitari ebatsi ziotena itzultzea...

* * *

Hainbertzenarekin athea pollikitto idekirik hantchet agertzen ikusi dugu Saskoeneko etcheko andere gaztea bi botoila sagarno eskuetan. Begitarte ona egin dakioke Saskoeneko⁽³⁰⁾ sagarnoari. Nihun ez da hoberik.

⁽³⁰⁾ GH *Saskoeneo*.

—Eta orai, jaunak?

—Orai, Chemartin, gauza bat nahi nuke jakin zure ganik.

—Zer, bada?

—Askok erraiten baitute enperadorea Larrunen izatu zela 1859garrenean, egia othe den?

—Jauna, ez duzu zeren duda: egungo egunaz bezala orhoitzen naiz egun hartaz, neroni.

—Ba othe, Chemartin?

—Ba, eta doi-doia atzo ginuen, ilhar bihitzean, *perposamendua* nihork ez dituela *Eskualdun*ean eta nihun gauza horiek aiphatzen.

—*Eskualdun*ak ez bada, haren adichkide *Gure Herriak* aiphatuko ditu laster, Chemartin, zuri esker.

—Bietan hemen barna pasatu izan da Napoleon. Ez zen orai bezen bide chuchena, hargatik. Harek chuchenarazia da. Lehen aldian pasatu zelarik, Uharteko aintzinean norbeitek biba Napoleon oihu eginik, berrogoi sos eman ziozkan Napoleonek.

—Berrogoi sos?

—Berrogoi sos, ba, ez baitzen guti denborakotz. Bainan diruduna bethi dirugose, kilometratsu bat urrunago berritz oihu bera egin zion gure gizonak. Napoleonek ez baitzion ordean deusik eman bigarren aldian! Debaldetan egin zuen laster gizagaizoak eta debaldetan izertu. . .

—Eta gero, Chemartin?

—Gero? Ori, Larrungo patarrari lothu ziren Sarako aldetik tropan. Uhaideko bordan aphairu bat egin zuten. Urrunago joan eta Ihizelhien lachoan pilota partida bat egin zioten inguruetakoko pilotari hoberenek.

—Nor ziren?

—Chabat Teiletche, Mendichka eta Landalde Azkaingo erretoraren izenak gogoan ditut, bainan nola orhoit bertze bortzez? Partidatik lekora, jo zak eta emak, fandangoetan hasi ziren oro.

—Oro?

—Oro segurki: Napoleonen anderea bera ari izan zen Fernando, Berako Predo auzaphezaren semearekin. Fernandok fandangoetan ez

zuen parerik. Egia erran, ez zuen bertze egiteko handirik, kontrabandarekin aitak ederki onduak baitzizozkan etchekeko lurrak. Dena dela, hantchek ari izan ziren gogotisko bigak.

—Orduko handiek ez zuten oraikoen eiterik?

—Ez. Nahi duenak nahi duena erranik ere, mundua ez zen orai bezala nahasia. Orduan handiak maite zuen ttipia eta ttipiak ez zion nahi handiari. Zer nahuzu! Arratsari buruz guziak jautsi ziren lerro-lerro Larrundik eta Azkainen Altzizungo Frantchak lore batzu eskaini ziozkan Napoleonen andereari herri guziaren izenean, Frantcha baitzen herriko neskatchik ederrena. Zer hogoi liberako ederra izatu zuen sari!

—Nun egin zuen lo Napoleonek gau hartan?

—Ez dut ongi-ongi gogoan, bainan iduripena dut berehala Donibaneke bidea hartu zutela Portuan gaindi, zirga bidez. Artchin zaharra gidari. Horra.

—Eta errazu, Chemartin? Harritua nago Larrunen ez ziola nihork kopla pare bat bederen eman enperadoreari?

—Ahanzter dut hori. Barkatu. Zerbeit kantatu zioten segurki... eta huna zer.

Kopla

Izatu da Larrun gainerat,
arranoen zeru gorarat,
begientzat bide handirat!
handientzat tronu altorat.

Errepika

Agur, agur, agur, andre Eugenia,
Enperatriz guzien lilia.

* * *

—Milesker, Chemartin. Bertze asko gauza nahiko nauzkitzun egun galdegin. Bainan beha zazu Esnaurgo alderat, ilhuna heldu zauku pir, pir, pir. Hobeko dut mugitzea, etchea urrun dut.

—Jauna, nahi duzun arte: dakidana gogotik erranen dautzut, gaztek ere ikas dezaten: jakitateak egundaino nihor ez du galdu. Zuen eskolak izan bagintu guk ere, menturaz. . .

—Menturaz, Chemartin, hогоi urthe huntan hantche izanen zinen eliza gibel hartan zabal-zabala! Ez zazula deusen urrikirik izan. Gehiagokorik gabe, egin ditutzu behar ziren urhatsak: dakigunarekin ez ditugu behar direnak bethi egiten ahal, aldiz, guk.

—Hori hala da, bainan zuk ere ez zazula urrikirik izan, jauna. Egun frogatu dut Eskual Herria guk maite ginuen bezala maite duzula. Eskual Herria, lureko parabisua! Ondikotz, hori ez dute sinhetsi nahi orai hainitz eskualdunek eta desterratzen dire itsasoz bertzalderat eta hiri handi horietarat! Dohakabeak! Nik Eskual Herria gozatu dut lauetan hogoita hamar urthez. Gozatu eta maitatu! Sarri zeruan aintzinerat agertzen nitzaiotelarik, arnegatuko othe naute nere arbasoek? Agur, jauna, zoazi: gaua bidean duzu. Eta. . . nahi duzun arte.

—Agur, Chemartin, eta milesker, arbasoek ez zaituzte arnegatuko segurki, zu.

